



# WALDEN

Henry David  
Thoreau

Itzulpena: Danele Sarriguarte

Hitzaurrea: Antonio Casado da Rocha



katakarak  
liburuak

Katakrak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irribide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketak, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezzen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Henry David Thoreau

***WALDEN***



Henry David Thoreau

# **WALDEN**

Itzulpena: Danele Sarriugarte  
Hitzaurrea: Antonio Casado da Rocha

Jatorrizko izenburua (1854): *Walden; or, Life in the Woods*

Egilea: Henry David Thoreau

Itzulpena: Danele Sarriguarte Mochales

Barruko argazkiaren egilea: Zoe Martikorena

Hitzaurrea: Antonio Casado da Rocha

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2021eko azaroa

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-LanErorriririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko betiere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-65-5

Lege gordailua: NA 2215-2021

Inprimaketa: Alzate Grafikak

## AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA .....	11
HITZAURREA (Antonio Casado da Rocha) .....	15
ITZULTZAILEAREN OHARRA (Danele Sarriugarte).....	29
<b>BAT</b>	
Ekonomia .....	33
<b>BI</b>	
Non bizi nintzen, eta zertarako .....	105
<b>HIRU</b>	
Irakurtzea .....	123
<b>LAU</b>	
Soinua .....	135
<b>BOST</b>	
Bakardadea.....	151
<b>SEI</b>	
Bisitariak .....	161
<b>ZAZPI</b>	
Babarrun-soroak .....	175
<b>ZORTZI</b>	
Heria .....	187
<b>BEDERATZI</b>	
Lakuak.....	193
<b>HAMAR</b>	
Baker-en etxaldea.....	219
<b>HAMAIKA</b>	
Lege gorenak .....	227

<b>HAMABI</b>	
Piztiak bizilagun .....	239
<b>HAMAHIRU</b>	
Etxe berotzea.....	253
<b>HAMALAU</b>	
Aurreko biztanleak eta neguko bisitariak.....	269
<b>HAMABOST</b>	
Neguko animaliak .....	283
<b>HAMASEI</b>	
Lakua neguan.....	295
<b>HAMAZAZPI</b>	
Udaberria.....	311
<b>HEMEZORTZI</b>	
Amaiera .....	329







## ARGITALETXEAREN OHARRA NATURAZ APOKALIPSIAREN OSTEAN

Oroitzen zara desio bat eskatu zenuenean?  
Desio mordo eskatzen ditut.  
Gezurra esan nizunean  
tximeletari buruz. Beti galdetzen diot  
neure buruari ze desio eskatu ote zenuen.  
Ze desio eskatu nuela uste duzu?  
Ez dakit. Itzul nendila,  
nolabait elkarrekin buka genezan.  
Desiatu nuen beti desiatzen dudana.  
Desiatu nuen beste poema bat idaztea.

*Louise Glück*

Gero eta handiagoa liburu baten oihartzuna, orduan eta zailagoa da, topikotik aldentuta, zerbait esatea. Gero eta aspal-dikoagoa, orduan eta oihartzun kate luzeagoa. Baina ez dezagun ohitura zaharra galdu eta berreskura dezagun aurtengo udazke-nean ere ekartzen ditugun egileen aurreko argitaletxearen gunehau.

### **Ibaiertza delako nire maitea**

XIX. mendearen erdian idatzi eta argitaratu zuen Henry David Thoreauk *Walden*. Orduetik, belaunaldiz belaunaldi kultuzko liburu bat bilakatu da. Testuinguru historiko, literario eta politiko berrietan Thoreauren liburuaren immanentzia nabarmen geratu da. Bizimoldeei buruz gogoeta egin denean eta ordura artekoa eraldatu nahi izan denean, giza harremanei eta ekonomiari buruz jardun denean, literaturak bizitzan eragiten

dituen dekantazioak pentsatu direnean. Hor egon da, modu deigarrian, sarritan liburu sakratuen estatusa izan duen obra hau.

Liburu sakratu bat da hau baina ez marketing operazio gisa, ez edozeri klasiko, edozeri liburutzar, edozeri mitiko esaten zaion garaiaren parte. Ez. *Waldenek* badu, egituratik eta abiapuntutik, dikzioan, joskeraren konposizioan eta harreran (paragrafo zenbakituekin funtzionatzen dute obraren aditu eta zaleek, adibidez), *Bibliak* edota *Manifestu komunistak* izan duten tokia. Liburu sakratu guztiek bezala testuartekotasuna eta polifonia lantzen ditu Thoreauk: *Biblia* taldean idatzi zuten, *Manifestua* hirukote batek talde baten aginduz, *Waldenen* ere hamaika kategoria sozial eta historiko ezberdin gonbidatzen ditu egileak gurekin egon daitezen, elkarrekin pentsa dezaten, elkar kutsa daitezen.

Eta testu sakratu guztiez aski irakurketa ezberdinak egin izan dira. Liburu hau kuttun dute beren kontzepzio filosofiko eta politikoetan antagonikoak diren tradizioek eta norbanakoek.

### **Idealismoa eta natura**

Jose Antonio Anton Pacheco-k, Emerson-i (Thoreaturen maisu, inspiratzaile eta *Walden* urmaelaren ertzetako lursail baten erosle eta jabeari) buruzko pentsamenduari sarrera egitean hala definitu zuen idealismoa: «finitoaren eta infinitoaren arteko kontziliazioa, naturaren eta izpirituaeren artekoa, niaren eta ez-niaren artekoa, barnekotasunaren eta kanpokotasunaren artekoa... Formulazio asko erabil daitezke, baina laburtuko genituzke esanaz: batasun traszendental baten bilaketa. Hori da Emersonen planteamendua traszendentalismoaren bidez eta, zehazki, *Naturan* islatzen dena».

Zentzu horretan, *Natura* liburuari Anton Pachecok aurkitzen dion gaurkotasun bera aurki dakioke *Waldeni* ere: «Ustedut Emersonek zeharo bat egiten duela egungo benetako sentisibilitate batekin. Guztiok sentitzen dugunean naturarekin arrazoi instrumental eta jabetzazkoak nagusi izango ez diren harremanak izateko urgentzia bat, ekintzaren gainean kontentplazioa hobetsiko duen pentsamendu baten beharra inoiz baino beharrezkoagoa dela, badirudi Emersonek oraindik asko duela irakasteko».

Baina, gainera, *Waldenek* badakar beste zerbait, lehenago aipatu dugun egituraren bidetik: oso molde ezberdineko tes-

tuak eta tonuak dauzka. Horregatik, ezinbestekoa da liburua irakurtzen hasi aurretik Antonio Casado da Rochak egin duen hitzaurrea irakurtzea. Ez soilik kokapen gisa, baizik eta gida gisa. *Rayuela* bat proposatu du Casado da Rochak ala, nahiago bada, Karl Marxen *Kapitalarekin* hainbestetan egin dena: irakurketa ibilbide alternatibo bat. Hiri bat ezagutzen dugunean bezala: ez gara zertan aurrena eraiki zen tokitik hasi (are sarritan aldirietatik hasten gara), ez dugu zertan udaletxea ikusi aurrena (are, ia beti, tren geltoki bat, bus estazio bat ala aireportu batera iritsiko gara).

Molde berean, Danele Sarriugarte itzultzailean oharra erregai ederra da hasi aurretik. Berotasuna dago lerro horietan, bakardadean aritu da itzultzen Sarriugarte, baina aldamenen izan du Koro Navarro ere.

Ez genuke sobera triunfalista jarri nahi, baina badakigu lakuertz berriak ezagutuko dituela, itzulpen honi esker, Concordeko bizardunak. Gogoan izan ere, aurretik, *Desobedientzia* zibilia argitaratuta dagoela liburu formatuan (Potxo edizioak 2010, Edu Lartzanguren itzultzaile) eta poemak (Booktegi 2020, Casado da Rochak itzuliak) eta *Ibili* (Booktegi 2021, Leire Zapiainek itzulia) liburu digitalean.

Iruñea  
2021eko urria



## HITZAURREA WALDEN-EKO BOST URTAROAK (IRAKURKETAKO GIDA)

Nolabait gure esku dago, beraz, balioen mundua; guk munduan hartzen dugun jarreratik dago menpe, gure hautapenetik, gure gogotik edo kontzientziazatik. Bide bat ala besteren artean, arrazoiak haztatu eta —azkenean zio absoluturik ez baita egongo—, arriskatu eta hautatu egin beharko dugu. Hori da «fedea». Handik aurrera, Descartesek zioen jokatu beharreko abentura hasten da: giza bizitza den abentura etiko, politiko, humanoa...

Joxe Azurmendi

Laku baten izena du liburu honek, eta esango nuke gaia ere likido samarra duela: «bizitza basoetan» izateaz gain —azpititulu hori egileak berak kendu baitzion bigarren edizioan—, eraldaketa prozesu amaigabea ere bada. Gogotik edo kontzientziazatik hasten den eraldaketa-ziklo bat: munduan hartzen dugun jarreratik abiatu eta balio berrietan zehar abentura-bidaia eskaintzen digu *Waldenek*.

Liburu hau 1854ean argitaratzean, bere asmoa ez zuen ezkutatu Henry David Thoreauk, lehenengo orrian jarritako aipuan deklaratu baitzuen ez ziola etsipenari edo abaildurari poema bat idatzi nahi, baizik eta aldaketak eragin, probokatu, «besterik ez bada auzokoak esnatzeko». Esperientzia eraldatzaile bat performatu, testuaren egilearena bezainbeste balizko irakurlearena, berea bezain gurea izan litekeena.

Dena den, bidaiaria hori egiteko asmoz makina bat jende hasi da inoiz *Walden* irakurtzen, eta ezin igaro *Ekonomia* izeneko lehen kapitulutik, hain da luzea, trinkoa eta uhintsua! Beharbada horregatik, Robert Pirsig-ek, *Zen and the Art of Motorcycle Main-*

tenance liburuan, ausaz eta zatika irakurtzea gomendatzen du. Baina Thoreauk berak zioen klasikoak «idazteko orduan erabili den asmo-sendotasun eta zuhurtzia berdinarekin» irakurri behar direla; beraz, lana arintzeko, Waldenen zehar nabigatzeko ibilbide alternatibo bat proposatuko dut hemen. Asmoa da zuzenean bigarren kapitulutik abiatu eta urtaroen ibilbideari jarraitzea, *Ekonomiako* meandroak 11 ataletan zatituta, zeinak nolabaiteko batasuna baitute gaiari dagokionez. Jatorrizko Waldenera gehien hurbiltzen den edizioan, Princeton University Press-ek 1971an argitaratua, Thoreauk berak jarritako lerro hutsek bereizten dituzte atal horiek. Hona hemen hasierako eta amaierako para-grafo-zenbakiak, erabiltzen ari garen edizioa edozein izanda ere azkar kokatzeko:

#### *Ekonomia*

- A. Hau dena aldatu nahi nuke, 1-16
- B. Bizitzarako beharrezkoa dena, 17-21
- C. Thoreauren ekimenak, 22-34
- D. Soinekoa, 35-41
- E. Aterpea, 42-59
- F. Etxea eraikitzea, 60-65
- G. Arkitektura, 66-75
- H. Jana, 76-88
- I. Altzariak, 89-96
- J. Ekonomia kooperatiboa, 97-101
- K. Filantropiari kritika, 102-111

Ibilbidea bost urtarotan banatuta dago, eta Thoreauk aukeratutako hurrenkeran jarrai daitezke, honela:

#### **Udaberria**

Non bizi nintzen, eta zertarako  
Irakurtzea  
Ekonomia § A-C

#### **Uda**

Soinuak  
Bakardadea  
Bisitariak  
Babarrun-soroa



Herria  
Lakuak  
Ekonomia § D-F

### **Udazkena**

Baker-en etxaldea  
Lege gorenak  
Piztiak bizilagun  
Etxe berotzea  
Ekonomia § G-I

### **Negua**

Aurreko biztanleak eta neguko bisitariak  
Neguko animaliak  
Lakua neguan  
Ekonomia § J-K

### **Udaberria berriro**

Udaberria  
Amaiera

### **Udaberria**

Gauza jakina da Thoreauk *Waldenen* —bere bigarren liburua— destilatu zituela laku ondoan bizi izandako bi urte, bi hilabete eta bi egunak (1845-47). Berrikuspen eta berridazketa batzuen ondoren, urtaroen bidaiaren inguruan egituratu zuen narrazioa, eta zazpi urte geroago kaleratu. Geroztik ez zaio sekula argitaratzeari utzi.

Ez da kasualitatea bidaia udaberriarekin batera hastea. Izotzaldiaren ondoren, udaberria jarduera handiko garaia izaten da Concord-en. Hala ere, Thoreauk basora erretiratzea eta bertan gelditzea erabaki zuen. Gelditu, hein handi batean «oraindik saiatu gabeko esperimientua» —bizitza bera— nolakoa zen entzuteko eta deskubritzeko. Neurtu gabeko hainbat giza ahalmen edo gaitasun daudela sentitzen zuen, esploratu gabeko aukera asko zeudela; «hain gauza gutxi saiatu dira-eta».

Zertan saiatu? Nola bizi? Thoreauk ez du ohikoa errepi-katu nahi, ez dio bere aurrekoen bideari jarraitu nahi; «ahots liluragarri bat» aditzen du, hortik urruntzera gonbidatzen duena. Alde horretatik, transzendentalista peto-pettoa zen, Ralph Waldo

Emerson filosofoaren inguruan sortu zen orduko gizarte-berrikuntzarako mugimenduaren partaiderik erradikalena.

Walden argitaratu baino urtebete lehenago, *Association for the Advancement of Science* elkarteak inkesta bat bidali zion Thoreauri bere jarduerak ezagutzeko. Zaila egin zitzaion enkargua, eta honela aitortu zion bere buruari: izan ere, aldi berean baitzen «mistiko, transzendentalista eta zientzialaria», ezin zituen hiru nortasun horiek guztiz bereizi. Bat bakarrik aukeratu behar izanez gero, ziurrenik transzendentalista zela esan beharko zien. «Horrela, laburrean jakingo zuten ez zituztela nire azalpenak ulertuko», gaineratu zuen (1853-3-5).

Izan ere, transzendentalismoa kontrakultura mugimendutzat har zitekeen, eta ospe txarra zuen orduko *mainstream*ean; Emersonek berak ez zuen mugimenduarekin identifikatu nahi. Thoreau mundu-mailako azelerazio handi baten hasieraz ohartu zen, lurrun-makinak sortutako iraultza industrialaren ondorioz. Agian horregatik, Waldenen egin zuen lehen mugimendua gelditzeko gonbidapena da, bizitzak irakurleari eskatzen diona entzun ahal izateko. Presarik gabe, zeren eta «bizkorregi bizi gara». Noiz eta XIX. mendean! Thoreauk bere buruari galdetzen dio ea zergatik hain presaka ibili, ea bizitza galdu behar den presa horrekin, ez bakarrik trenak eta garraio-bideek azkartutako mugikortasun fisikoan, baizik eta batez ere intelektualean; mugitzen ez garenean ere «ezin diogu geure buruari zuzen eutsi».

Zergatik hauspotu behar genuke bizibide bakar bat besteen kaltetan?, galdetzen du Thoreauk. Bere ustez, ondo bizitzeko modu anitz daude; «munduan ahal bezain beste pertsona-mota egon daitezela» desio zuen. Thoreaturen jarrera hori Marina Garcés-ek deskribatutako «ilustrazio erradikala»ren adibide tipikoa da: tradizioarekiko mesfidantza, erreberentzia-eza eta kritikaren konbinazioa, eta, aldi berean, «bizitza goratzeko ahalegin kontziente baten bitartez» berritzeko eta hobetzeko giza gaitasunean konfiantza edukitzea. Transzendentalismoa ez zen giza esperientziaren baldintzei buruzko ikerketa filosofiko bat, Kant-entzat izan zena, baizik eta giza gaitasun intelektualarekiko konfiantza berri bat, doktrinetatik urrundua eta abangoardiako espiritualtasun heterodoxo bati lotua.

Konfiantza horren barruan sartzen zen transzendentalistek «jeinua» zeritzotena. Gaur-gaurkoz, «kontzientzia» deritzogun hori: «Jarraitu gertutik zure jeinuari, eta hutsik gabe erakutsiko dizu aukera berri bat orduro». Thoreauk dio baldintza jakin batzuetan jeinuak bide zuzena adierazten digula. Horrek ez du esan nahi edozein gauzak berdin balio duela. Iradokizunak oso arinak izan daitezke, dio, eta etengabeak izan behar dute seguruak eta egiazkoak izateko. Pertsonak gogo sendoa behar du bere iritzia nagusitu dadin. Eta inork ez du esaten hori berehala lortuko denik, denborarekin baizik. Arreta eta lana behar dira jeinuari entzuteko, kontrastatzeko eta animatzen duen asmo sakon hori argitzeko.

Waldenen lehenengo ataletan entzute horretan trebatzeko prozesua deskribatzen du Thoreauk, bizitzarekin konektatzeko «beste inon baino» baldintza paregabeagoak zeudelako Waldenen. Arrazoi bat da bere etxetxea bisitatzeko zuenak ezin zuela hala egin «kontu arrunten harira», herriarekiko distantzia galbahea baitzen. Waldenera joatean, Thorearen asmoa ez baitzen bakardadea, *business as usual* apurtzea baizik, eta, eten horren ondorioz, kalitate handiko edukiontzi bat sortzea idazteko, beste lagun batzuekin hitz eginez eta haiei entzunez.

«Sortzea» idatzi dudan arren, kasu honetan *ko-sorkuntza* esan beharko litzateke: argi gera bedi Thoreauk ez zuela auto-sufizientziarik nahi, nahiko argi dio bera ez dela ermitaia. Beste pertsona batzuei bere etxea altxatzeko laguntza eskatu zien ez horren beharra zeukalako, baizik eta «adiskidetasuna lantzeko aukera ona zelako». Ironia baino gehiago dago haren oharrean: «Zaila da ezeri ekitea mailegurik hartu gabe»; izan ere, asmo komun bat sortzea izan ohi da modurik onena «bestek zure egitasmoan interesa izan dezaten baimentzeko».

Baina asmo komun horrek merezi behar du, asmo jasoa izan behar du, ez doilorra edo herratsua. Merezi badu beste batzuekin partekatutako egitasmoaren eraikuntzak, ez du axola behin eta berriz huts egitea. Epe luzean, dio Thoreauk, gizakiek jomugan jarri dutenari bakarrik ematen diote: «Hortaz, berehala porrot egin arren, hobe lukete jomuga goi samarrean ezarri».

## Uda

Waldenen zeharreko bidaiak nolabaiteko argitze edo sedimentazio bat du helmuga, «bizitzaren egia funtsezkoiei bakarrik buru egin», «bizitzak irakasteko zeukana» ikasteko. Bizitzaren, oro har, eta bizitza bakoitzaren aztertze hori enpresa edo abentura etikoa eta politikoa da: bizitzea ez ezik, ondo bizitzen jakitea baita helburua. Baina ikerketa epistemologikoa ere bada, ohiko ezagutza-moduen kritika, Thoreau ironiaz harritzen delako jendeak hainbeste gauza dakizkietala-eta («gizonek diote gauza asko dakitela», bere poematxoak dioen moduan), kritikatu «gizonek errepikatu nahi izaten dute[la] hainbat esaera, egia zein gezurra izan».

XIX. mendean ere egia-ostea omen zegoen, eta ziurtasun asko zalantzan jartzen ditu Waldenek, baina ez da eszeptizismo hutsean geratzen: kritika datorkio egiaren edo errealtatearen irrika sakon batetik, «bizitza izan, zein heriotza»; eta benetan bizirik bagaude, «hel diezaiegun gure zereginei».

Irrika hori asetu nahian, Thoreauk bere herriko periferiara jo zuen, bere sistemaren erdigunetik zertxobait urrunduz, Waldeneko beste biztanleekin lotura horizontal bat ezartzeko, gizakiekin eta ez-gizakiekin, bertakoekin eta bertatik igarotakoekin. Beste murgiltze-bidaia batzuk ere egin zituen lakuko etxean bizi izan zen bitartean. Zehazki, bi dira liburuan aipatutakoak.

«Basora joan nintzen deliberoz bizi nahi nuelako» pasarte ezagunaren ondoren, Thoreauk jarraitzen du esaten bizitza sublimea bada, «eskarmentuz berretsi» nahi duela eta «horren kontakizun zinezko bat egiteko gauza izan [bere] hurrengo txangoan». Ibilaldi hori Katahdin mendiko puntaraino Maineko basoetan zehar egin zuen, mundu zibilizatu eta zuriaren muge-tatik haratago, eta benetan sublimea (Kanten zentzuan) suertatu zen esperientzia.

Bigarren bidaia laburragoa izan zen: Waldeneko bere etxetik Concordeko espetxera, desobedientzia zibilari buruzko entsegua eragin zuen pasadizo ezagunean. Era berean, bidaia hori gertatzen da gizartearen ertzetan, erakunde baten barrutik, non Thoreau, saiakeran kontaktzen duenez, «aldameneko ostatuaren sukaldean egiten zein esaten zenaren ikus-entzule» bihurtu baitzen. Esperientzia hori ez zen hain sublimea izan, baina errealtate sozial eta naturala bere esperientzia-arku konplexu osoan sentitzeko borondate berari erantzun zion. Pa-

sartean dioen bezala, basoetara joan eta bitzta zekena baldin bazen, «haren zekentasun osoa eta egiazkoa atzitu» eta argitaratu nahi zuen.

Waldenen lehen kapituluetan, Thoreauk lotura horizontal hori aztertzen du iraganarekin, klasikoekin, giza animalien eta gizaki ez direnen soinuekin, baita nekazariekin eta landareekin ere. Horri ia egunero herriraino egiten zuen paseoa gehitu behar zaio, albisteak entzuteko eta bizilagunen berriak entzuteko joaten baitzen. Baita familiarekin afaltzeko ere, zergatik ez?

Bidaia horietan garrantzitsuena ez zen distantzia, baizik eta erdietsitako lotura, bilatzaileek «harrapatu nahi luketen ehizakia». Ertzetara joatea ez da nozio espazial hutsa. Gauzak ikuspegi baztertu batetik ikustea esan nahi du, normaltasunaren pitzaduretatik edo interstizioetatik, eta Thoreauen aburuz adituak baino gehiago lan horretan abilagoak dira «arrantzaileak, ehiztariak, egurginak eta enparauak, belaze eta basoetan igarotzen dutelarik» denbora. Behatze-lan hori pertsona guztien eskura dago, «delibero pixka bat handiagoarekin aukeratuko balituzte beren ekinaldiak». Eta hau bi arrazoiengatik. Lehena, giza izaera bakar, finko eta aldagaitzik ez dagoelako: «Natura eta gizateria era askotakoak dira, gure gorpuzkerak nola». Bigarrena, Thoreauk iragana zein etorkizuna orainaren azterketan hautematen duelako. «Ikus ezazu zer daukazu aurretik, eta egin aurrera etorkizunerantz», horixe da agindua. Horretarako, «ez dago metodorik ez diziplinarik beti erne egoteko premia ordezkatu dezakeenik», ikusteko dagoenari, honezkero gertatu den etorkizunari erreparatu nahi badiogu.

Irakurle bat izango zara, ikasle huts bat?, galdetzen du Thoreauk. Behatzailearen gaitasuna «irakurle edo ikasle hutsarena» baino hobea da. Baina ikustea, zentzu horretan, zerbait intersubjektiboa da, «besteren begietatik so egitea», eta hori ez du begiak bakarrik egiten: egunerokotasunean gabiltza «ezin dugula ezer ikusi gauzen azaletik harago, eta horregatik bizi dugula halako bizi zekena». Errealitatean sakontzeko, naturako animaliak eta objektuak «pentsamendua gorpuzten ari balira bezala» ikusi beharko lirake. Burua, bihotza eta eskuak bateratzen dituen praktika estetiko bat da, udan bezala «gorputzak zentzumen bakar bat» osatzen duenean, eta «plazerez betetzen da poro guztietatik».

## Udazkena

*Waldenen* esaldirik misteriotsuenetako bat amaieran agertzen da: «Gauzak ez dira aldatzen, gu geu aldatzen gara». Bere burua eraldatzeko eta, ondorioz, mundua eraldatzeko gai den animalia da Thoreauk irudikatzen duen giza aberea.

Zer da *Walden*? Besteak beste, esperientzia eraldatzailea kokatzen den lekua, non Thoreauk bere egungo nitik etorkizuneko nirako bidaia bat performatu zuen. Hasieran, oraingoa bere bizilagunen estutasun existentzialak menderatua dago, «mugatua», eta hala hasten du kontakizuna Thoreauk, bere «esperientzia murrizak hala behartuta»; estutasun hori da *Ekonomia* kapitulua irakurtzea hain gogorra bihurtzearen arrazoietakoa bat. Baina ataria zeharkatuz gero, liburuan zehar aurrera egin ahala ni txiki hori zabaldu egiten da, narrazioa arnastuz doa, *ego* ikuspegitik *eco* ikuspegira igarotzen da, eta, ondorioz, etorkizuneko nia unibertsoarekin identifikatzen da, «hartaz ditugun ikuspegiak baino zabalagoa» delako, ez egozentrikoa eta ezta antropozentrikoa ere. Amaierako nia «ni handia» da, *magnanimity* hitzaren zentzu literalean, T. Carrew-en bertso osagarrietan agertzen dena, eta Thoreauk lehen kapituluaren amaieran *bonus track* gisa sartu zuena: «mugarik ez duen» eskuzabaltasuna.

Premisa edo itzaropena da nitik nira doan bidaia horrek merezi duela, hobekuntza posible dela, baina maparik ez dago, bukatu gabeko ereduak baino ez ditugu. Horregatik, hobetu nahi badugu, «filosofo zaharrari obeditu eta [gure] burua esploratu» behar dugu, Sokratesek bezala, baita bizitza sinplifikatu eta sistema zaharra atzean utzi ere, iragana eta etorkizuna bereizten dituen «muga ikusezin» hori gaindituz, eta une horretan —hori da esperantza— «lege berri, unibertsal eta irekiagoak ezarriko dira [gure] inguruan nahiz bere baitan; edo, bestela, hedatuko dira lege zaharrak, eta [gure] mesedetan interpretatuko dira, tolerantzia handiagoarekin».

Berrikuntza-prozesu hori «fantasiaren eta irudimenaren eskualde»etan gertatzen den banakako emantzipazio-prozesu gisa aurkezten du Thoreauk, baita *reset* kolektibo gisa ere, sistemaren berrabiatze bat. Komunitate batek ziklo baten itxiera eta hasiera berria dokumentatzen duten hainbat iturri antropologiko aipatzen dira *Waldenen*: purifikazio- edo

dohaintza-erritualak, *potlach* praktika, baraualdiak, opariaren ekonomia, amnistia orokorrak, etab. Berrabiatze-ekitaldi horiek deskribatzerakoan, goiza edo egunsentia da Thoreauren metafora kuttuna: esnatzeko eta mundua berreskuratzeko ahalleginean, «pertsona orok puntu kardinalak ikasi behar dituen» unea. Iraganaz ahaztu eta etorkizunarekin bat egiten dugunean: «Harik eta galtzen garen arte —edo, bestela esanda, harik eta mundua galtzen dugun arte— ez gara hasten gure burua aurkitzen, eta orduantxe ohartzen gara non gauden eta zer in-finituki zabalak diren gure harremanak».

Bere burua irabazteko, lehendabizi Thoreauk galdu egin behar du. Hori da Waldenen zeharkatu behar den sasia, mundu zaharrari joaten uzteko dolu-prozesu mingarria, mundu berria etor dadin. Horretarako, «bizitza muineraino xurgatu; bizi nahi [zuen] irmo eta espartar, bizitza ez zen guztia kanpoan uzteko; muga bat zedarriztatu zorrotz, eta bizitza eraman zoko bazterrera, bere ezaugarri oinarrizkoetara murriztu». Eta hori bai indibidualki bai kolektiboki, Thoreauk bere sendabide pertsonala nazioarentzat ere hala izan daitekeela uste baitu: «sendabide bakarra da ekonomia zurrun bat ezartzea, bizitza bizitzea sinpletasunik soilenarekin eta espartarrak baino espartarrago jardunez, eta xede goratuak finkatzea».

Berrabiatzea haustura bat da etorkizunarekin eta iraganarekin. Tarteko marra edo puntu abisal hori ukitzea ez da erraza, oraingoan arreta osoa jartzea eskatzen du, «bi eternitate gurtzatzen diren lekuan zutitzeko —iraganaren eta etorkizunean artean, alegia, oraingo unean berean». Baina modu transzendentalean jarrita, hori beti da posible, denboratik at gertatzen delako: Thoreauren arabera «hobetzen dugun denbora hori, edo hobetzeko modukoa dena, ez da iragana, ez oraina, ez eta etorkizuna ere».

Non eta nola gertatzen da, orduan, hobekuntza? Barneko iturri batekin konektatzen garen unean: «gure bizitzaren iturri iraunkorra, zeinetatik sortzen baita gure bizia». Lotura hori ez da aurreko sekzioan aipaturiko konexio horizontala, bi noranzkoetako konexio bertikala baizik. Lehenengo zentzuan, lotura gorantz doa, zerurantz, neguaren ondoren bizitza martxan jartzen duen «udaberririk berrienaren» eraginez, «bizitza altuago eta etereoago baterantz» gonbidatzen duelarik. Bigarrean,

konexioa beherantz ere badoa, lurrera itzultzen da, zentzume-  
netara, transzendentalismoa zeruko abstrakzioetan gal ez dadin.  
Lotura hori aipatzen du Thoreauk, esate baterako, Waldenen  
gaueko arrantzaren esperientzian, *Lakuak* atalean, «tiraldi apal  
[hark]» berriro naturara lotzen zuenean.

Lotura bertikala metaforikoki ere adierazten da lakuaren  
hondoaren bilaketan, «harik eta arrokaz osaturiko hondo gogor  
batera iritsi arte, zeinari *errealitatea* dei baitakioko». Era berean,  
goialdearen eta behealdearen arteko tentsioan, *Lege gorenak* ize-  
neko kapituluan, onartzen duenean gaztea basora joaten dela  
«ehiztaria eta arrantzalea delako, harik eta, azkenean, bizitza ho-  
beago baten haziak gordetzen baditu bere barnean, bere egiazko  
interesak zein diren ohartzten den arte —agian poeta bihurtuko  
da, agian naturalista—, eta bazterrean uzten ditu erriflea eta ka-  
nabera». Biak, poeta eta naturalista, izan zen Thoreau; bera baita  
gazte hori.

Azken batean, lotura bertikala ez da zeruetara ihes egi-  
tea, baizik eta goikoa eta behekoa, izarrak eta lurra lotzen dituen  
maitasunaren etika bat eraikitzea. Bere babarrunak maite  
dituela dio: «lurrera lotzen ninduten, eta hortaz indartu egin nin-  
tzen». Eta maite duela «indar eta arrazoi handienaz» erakartzen  
duen hori «pisatzea, ebatzea eta haren inguruan grabitatzea». Waldeneko  
bidaian horrelako metaforak, epifaniak eta une eral-  
datzaileak gertatzen dira, zeinetan nork bere burua eta egin  
behar duen lana ikasten dituen, maitasunez. «Maita ezazu zeure  
bizia bere pobrezian», baina helburua ez da «pobreen ikuskatzai-  
le» izatea; «saiatu, aitzitik, munduko izakirik laudagarrietako bat  
bihurtzen» handiena bizitza dela ahaztu gabe: «Zakur bizia ho-  
bea da lehoi hila baino».

## Negua

Thoreaturen lan guztia, eskuzkoa izan ala ez, ideia batean  
kristalizatzen da, hasieran hegazkorra eta ia materiagabea den  
intuizio batean, neguan egiten den «pentsamenduaren uztan»  
(*Journal*, 1854/1/30).

Thoreauk etxetxea eraiki zuen material zaharrak eta mai-  
leguan utzitako lursail bateko pinuak erabiliz. Orainaldian eskua  
hartuz, etorkizuna esploratu zuen. Esku-hartze hori ez da *self-*  
*made man* mitoaren «nork bere burua egitea». Ez da sorkuntza,



ko-sorkuntza baizik. Neguan gertatzen den «kristalizazio» edo eraikitze hori suertatzeko, bost gauza lagungarri topa ditzakegu Waldenen.

Lehenengoa *Ekonomian* dago: metrika aldatzea, maite duzunarekin konektatuz, zuretzat preziatuagoa denarekin. Neurria bizitza da, eta ez dirua: edozerren benetako kostua baita «zenbat bizitza eman behar den gauza horren truke, berehala edo luzera begira».

Bigarrena liburu osoan zehar dago: eskua, burua eta bihotza lotzea. Maite duen horren bila, ni berriak erabakitzen du «austeritate-molde berri bat abiatzea, bere gogoia bere gorputzera jaits zedin eta erredimitu zezan uztea, eta bere burua beti tratatzea gero eta errespetu handiagoarekin»; zeren «burua esku eta oin da» eta esku-lanak «ikaskizun moral fermu eta hilezkor bat badu bere baitan».

Hirugarrena lankidetzan aritzea da, hau da, «gure bizibidea aurrera ateratzea, elkarrekin». Waldenen bakardaderik ez dago; Laura Walls-ek azaldu duenez, ezin da Thoreau ulertu bere familiaren eta inguruko lagunengandik laguntza aintzat hartu gabe: R. W. Emerson, Bronson Alcott, Ellery Channing eta Elizabeth Peabody, besteak beste. Izan ere, lakuko etxetxea erraz betetzen zen, «horrela uztartzen genituen adiskidetasunaren abantailak eta filosofiarako behar den buruargitasuna» (Channingen bisita bat deskribatzean). «Halaxe egin genuen lan: mitologia berrikusi, fabula bat edo beste borobildu, eta gazteluak eraiki airean» (Alcottekin).

Laugarrena ekintzan ikastea da, esperimentatzea, zeren «gure bizitzak aztertu ditzakegu milaka proba erraz eginez». Ikasleek ez lukete «bizitzara jolastu behar, edo bizitza aztertu behar soilik», aitzitik, Thoreauk uste du «bizitza bizi behar luketela egiazki, hasieratik bukaerara. Nola ikas lezake gazteek bizitzen, ez baldin bada bizitzearen esperimentuari ekinez behingoan?».

Bosgarrena da itxaron gabe oraintxe bertan hastea, «ohiko kapital-inbertsioaren zain egon gabe, jada eskura [ditugun] baliabide urriak erabiliz». Norberaren eskura dauden tresnak erabiltzea, «gizateriaren asmakuntzak eta industriak eskaintzen dituen abantailak onartzea, nahiz eta garesti ordaintzen diren». Eta ez konformatzea saiakera batekin, baizik eta behin eta be-

rriro errepikatzea, Thoreauk bere baratzean belar txarrekin izan zuen «harreman intimo eta bitxi» hori lortu arte; «kontakizuna errepikakorra da, lana bera errepikakorra delako neurri handi batean».

### **Udaberria berriro**

Amaitasuna oro hasiera berri bat da. *Walden* udaberrian bukatzen da, berriro martxoan. Urte batzuk geroago, Thoreauk idatzi zuen urte-sasoi hori, lurra berotzen eta golde- zein ereintza-lanak hasi berritan, «mundu baten sorkuntza» iruditzen zitzaioala (*Journal*, 1857/3/28).

Sorkuntza hori etengabeko birsorkuntza da, ezer ez baita hasten gizabanakoarekin. Waldeneko basoetan aurkitu zuen eper-txita baten begiak deskribatuz, begirada ez zela txoriarekin batera jaiotzen dio, «ezpada islatzen duten zeruarekin batera». Ez gara munduan bakarka hasten, komunean baizik. Eta une oro aldatu egiten dugu hasiera-puntua. *Waldenen* «komunitateari gagozkio» irakurtzen dugunean, narratzailea sarkastiko samarra izaten ari da, baina onartzen du, aldi berean, gure patua kolektiboki moldatzen dugula, onerako edo txarrerako. Adibidez, trenbidearen teknologia berriaz hitz egitean, gure patua eraikitzen dugula dio, «inoiz desbideratzen ez den patua» hain zuzen ere.

Thoreauk *Walden* hasi eta bukatzen du hezkuntzan (alemaniarren *bildung* hori) ez etsitzeko deia eginez: «bere bihotza eta arima osoa horretan jartzen duenari, esango nioke eusteko horri, nahiz eta munduak esan —esango duenez— gaitza egiten ari zarelara». Hezkuntza, kultura, eta arteak deitzen dugun hori guztia da eraldaketarako dugun giza teknologia. Izan ere, eskolak izan ziren transzendentalistek gizarteari egindako emaitza nagusia, eta Thoreauk hainbat berrikuntza-azpiegituraren sorreran parte hartu zuen, komunitatearentzako leku eta erritmo seguruei forma emanez: Concordeko Akademia bere anaia Johnekin osatu zuen, eta Lizeoa herri osoarekin. Asmoa zen unibertsitatea bera kalera eramatea, *Irakurtzea* atalean irakurtzen dugun moduan.

Hezkuntza ikasgeletatik ateratze horrek gizarte-arteaz Thoreauk duen ideiarekin du zerikusia: arte horren helburua egunaren edo unearen kalitatea aldatzea izan beharko litzateke. Zentzu horretan, *Waldenen* denok gara artista eta artelana aldi berean: «Guztiok gara eskultoreak eta margolariak; gure haragia,

odola eta hezurak dira gure materiala». Arte sozialaren bitartez, hain zuzen ere, argudiatzen du Thoreauk niaren kontingentzia (identitatearen likidotasuna, iragankortasuna) dela esperimintatu dezakegun zerbait, zuzenean ezagutzen dugun intuizioa. Horretan datza bere transzentalismoa: «Gogoaren ahalegin kontziente bat eginez, ekintzen eta ekintzen ondorioen gainera koka gaitezke, eta gauza guztiak, onak nahiz txarrak, gure parentik pasako dira, korrante baten tankeran».

Liburu honek gonbidatzen gaitu, finean, gure etorkizunik onena sortzera: oraingoan gordeta dagoen posibilitate gorena, «izateko eskubidea» duelako saihestezina dirudien hori, eta hori bakarrik. Beraz, dio, ez dezagun denbora galdu merezi ez duten gauzekin, «gauza itzel eta duinek bakarrik [baitute] existentzia iraunkor eta absolutua». «Presarik gabe gabiltzanean, zuhurtasunez» bizitzea jolas serioa da Waldenen, amaieran «bizkorgarria eta sublimea» suertatzen den abentura bat.

*Metodoari buruzko diskurtsoan*, basoan galduta dagoenari Descartesek gomendatzen zion ez hutsik egiteko noraezean bueltaka ibiliz, eta are gutxiago leku batean geldituz: «beti leku baterantz joan behar dute albait eta zuzenen, norabidez aldatu gabe arrazoi ahulengatik —hasieran, beharbada, norabide hori aukeratzera halabehar hutsak bultzatu izan baditu ere—; zeren, horrela, eurek zehazki nahi duten lekura ez joan arren, gutxienez norabait helduko baitira, eta bertan baso erdian baino hobeto egongo dira seguruenik».

Descartesen antzera, abentura honetan pertseberantzia gomendatzen du Thoreauk. Baina Waldenen azken lezioa da ezer ez dela betirako. Bidaiak mugak ditu, hasiera eta amaiera, performance-mota bat baita, behin-behinekoa eta tokian tokikoa, eta juxtu horregatik molda daiteke beste eremu eta hizkuntza batzuetara. 1847ko irailaren 6an Waldenetik alde egin zuen Thoreauk, basora joateko izan zuen bezalako «motibo on batengatik»: bizitza gehiago zeuzkalako artean bizitzeko. Baita euskaraz bizi ere, 174 urte geroago, Katakraheko lagunei eta Daniele Sarrigarteri esker.

Antonio Casado da Rocha  
Hernani, 2021eko irailaren 6a



## ITZULTZAILEAREN OHARRA ODA BAT ITZULPEN-JARDUN KOLEKTIBOARI

*Walden* euskaratzea eskaini zidatenean, alaiki onartu nuen enkargua: itzulpen luze eta lehor samar bat bukatu berritan iritsi zen deia, *perfect timing*. Ez nekien non ari nintzen sartzen.

Handik gutxira Antonio Casado da Rocharekin izandako elkarrizketak eman zidan egoeraren benetako neurriaren arrasto bat. Pozarren zegoen, jakina, liburua euskaraz aterako zelako, baietz esan nuelako, baina kuraia opa zidan beste ezeren gainetik. Kuraia, Massachusettseko basoan barneratu ostean onik atera nendin handik, eta onik atera nitzan hango izaki guztiak ere. Onik, eta euskal hiztun bihurturik.

Izutu nintzen, ez dizuet ukatuko. Gehiegi ote zen niretzat? Ausarkeriaz jokatu ote nuen beste behin ere? *Walden* gutxi gorabehera zer zen banekiela uste nuen, banekielako «zertaz zihoan», eta nork idatzi zuen, eta zer garaitan, eta noiz edo noiz ulertu izan nuelako liburuari buruzko txantxa bat edo beste. Klasikoei pairarazten diegun gaitz klasikoa. Utzidazue pellokeria bat esaten: bada alderik liburu bat «zertaz dihoan» jakitearen eta liburua egiaz irakurtzearen artean.

Edonola ere, zuek, irakurleek, honezkero ondorioztatuko zenuten onik atera nintzela basotik eta onik atera nituela besteak ere estualditik; behinik behin, eskuartean duzue liburua, argitaratu da. Alabaina, hori hala izan zedin, Koro Navarro eta Antonio bera zenbateraino izan diren funtsezkoak ezin duzue irudikatu —nahiz eta kreditu-orrietan agertzen diren—. Haien ekarpena azpimarratzeko (ere) baliatu nahi nuke ohar hau.

Korok eskuzabaltasun handiz zuzendu eta orraztu du lana, eta nabarmen hobetu du testua bere begi eta esku trebeekin. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez. Antoniok, bestalde, anakronismoak eta txorien izendapen okerrak saihestez gainera —gauza benetan garrantzitsua—, *Waldeni* eta Thoreauri buruz dakien guztia —pila bat— jarri dit eskura. Mila esker. Biak alboan izan zaituztedalako nago lasai.

Amaitu aurretik, eta itzulpenari berari helduta, azken kontu bat azaldu nahi nuke. Oin-oharrak erabili ditut *Walde*nen agertzen den intertestualitatea, datu historikoak eta gisa horretako bestelako erreferentzia batzuen berri emateko. Gaur egun argitaratzen diren ingelesezko bertsoetan, bietatik dago: testua bere horrextan plazaratzen dute batzuek eta aparatu kritiko handiagoa edo txikiagoa gehitzen diote beste zenbaitek. Bada, bigarren bide horretatik jo dut nik, *Walden* euskaraz lehen aldiz argitaratzen dela jakinik eta irakurleak hainbat edizio desberdinen artean hautatzeko modurik ez duela izango kontuan harturik, edizio ahalik osoena eskaini nahi nuelako.

Maiz kexatzen gara, liburu hau edo bestea, modernoa zein klasikoa, ezin dugulako gure hizkuntzan irakurri, baina ari gara, aiez ale, apalak betetzen, jende mordo baten ahalegin eta lan itzelari esker. Eskerrik asko denei. Berri ona da, izan ere, «zertaz dihoazen» jakitea baino askoz interesgarriagoa baita liburuak irakurtzea.

Danele Sarriugarte Mochales

Donostian, 2021eko irailaren 16ko goiz-alban

Ez da nire xedea oda bat idaztea abaildurari buruz: harropuzkerian aritu nahi dut gogotik, nola aritzen den oilarra goizetan, makila baten puntara igota, besterik ez bada nire auzoak esnatzeko.

108. or.





# BAT

## EKONOMIA

Orrialde hauek idatzi nituenean, edo, hobeto esanda, orrialde hauen gehiengoa idatzi nuenean, bakarrik bizi nintzen, basoan, auzorik hurbilena milia batera nuela, neronek eraikitako etxe batean, Walden lakuaren ertzean, Concord-en (Massachusetts), eta neure eskuen lan hutsez ateratzen nuen aurrera bizibidea. Bi urte eta bi hilabetez bizi izan nintzen han. Gaur egun, ordea, bizitza zibilizatuaren egoiliar behin-behinekoa nauzue berriz.

Ez nizkioke nire kontuen xehetasunak inposatuko irakurleari, non eta herrikideek ez balizkidate galdera oso zehatzak egin, garai hartan izan nuen bizimoldeari buruz; galdera desegokiak omen dira zenbaiten ustez, baina niri ez zaizkit halakoak iruditzen inolaz ere, ezpada, egoera kontuan harturik, naturalak eta egokiak zeharo. Batzuek galdetu didate ea zer jaten nuen, bakarrik sentitzen ote nintzen, ez ote nuen beldurrik, eta antzeko gauzak. Beste batzuek, aldiz, jakin-mina erakutsi dute ezagutzeko nire diru-sarreren zer puska ematen nuen karitatezko xedeetarako, eta familia handiak dituztenek, berriz, jakin nahi izan dute zenbat haur txiroren mantenuaz arduratzen nintzen. Horrenbestez, barka nazaten eskatu nahi diet nigan interes berezirik ez duten irakurleei, galdera horietako batzuei erantzuteko lanari ekingo diodalako liburu honetan. Liburu gehienetan, *nia*, edo lehen pertsona, alde batera uzten da; honako liburu honetan, ordea, eutsi egingo zaio: horixe da alde nagusia, egotismoari dagokionez. Normalean ez dugu oroitzen lehen pertsona mintzatzen dela beti azken batean. Ez nuke

neure buruaz horrenbeste hitz egingo baldin eta beste norbait balego neure burua bezain ondo ezagutzen dudana. Zoritzarrez, gai honetaz jardutera mugatua nago, nire esperientzia murriztak hala behartuta. Bestalde, neronek, irakurle ere banaizen aldetik, idazle orori eskatzen diot ez dadila jardun beste gizonen bizitzaz, eta egin dezala bere bizitzaren kontakizun soil eta zintzo bat, urruneko lurralde batetik senideei bidaliko liekeen moduko kontakizuna, zeren, zintzotasunez bizi izan bada, nigandik urrun dagoen lurralderen batean bizi izango zen derrigor. Orrialde hauek, beharbada, ikasle pobreei zuzenduta daude bereziki. Gainerako irakurleez bezainbatean, dagozkien puskak onartuko dituzte. Espero dut inork ez dituela liburu honen josturak behartuko, irakurlearen izaerari hobeto eman diezaioten, liburua ondo egokitzen zaionak bere horretan aterako baitio probetxua.

Gogo onez esango nuke zerbait, ez txinatarren edo Sandwich irlakoen<sup>1</sup> gainean, ezpada orrialdeok irakurtzen ari zaretenei buruz: Ingalaterra Berrian bizi zaretenak, alegia. Zerbait esango nuke zuen egoeraz, bereziki kanpo-egoeraz, edo mundu honetan, herri honetan, dituzuen baldintzez: zer den egoera hori, den bezain txarra izatea beharrezkoa ote den, hobetu daitekeen edo ez. Franko bidaiatu naiz Concorden barna, eta, leku guztietan —dendetan, bulegoetan nahiz soroetan—, iruditu zait biztanleak penitentzia egiten ari zirela mila modu aipagarritan. Entzunda nago brahman kastakoak<sup>2</sup> lau suren gainean esertzen direla, eguzkiari parez pare so eginez, edo buruz behera zintzilikatzen direla, garrak burutik hurbil, edo zeruari begiratzen diotela sorbaldaren gainetik, «harik eta ezinezkoa gertatzen zaien arte beren posizio naturalera itzultzea, eta lepo bihurritutik sabelera likidoak ez diren beste ezer igaroaraztea»,<sup>3</sup> edo zuhaitz baten oinari kateatuta igarotzen dutela bizialdia, edo beren gorputzarekin neurtzen dutela, beldarrek nola, inperio itzelen zabalera osoa, edo zutarri baten gainean ipintzen direla zutik, hanka bakarraren gainean; bada, penitentzia-molde berariazko horiek ez zaizkit iruditzen egunerokoan ikusten

---

1 *Ohar guztiak itzultzailearenak dira [Itzle. oh.]*: Hawaiiarrei buruz ari da; James Cook kapitainak hala izendatu zituen Hawaii irlak 1778an, Sandwich kondearen omenez.

2 Indiako gizartean, kasta goreneko kideak.

3 James Mill (1773-1836) Eskoziako historialari eta filosofoaren *The History of British India* (1817) liburuko aipua.

ditudan eszenak baino sinesgaitzagoak edo txundigarriagoak. Herkulesen probak<sup>4</sup> huskeria ziren nire auzoen eginkizunekin alderatuta; izan ere, harenak hamabi ziren, eta bazuten amaiera bat, baina, ezagutzen ditudan gizonek, nik dakidanik behintzat, ez dute inoiz munstrorik akabatu ez harrapatu, ez eta eginkizunik sekula amaitu ere. Ez daukate Iolaoren<sup>5</sup> moduko lagunik aldamenean, hidraren lepo moztuak erreko dituenik altzairu goriz; aitzitik, munstroari buru bat ebaki bezain pronto, beste bi erneko dira zauritik.

Gizon gazteak ikusten ditut, nire herrikideak, zeinen zoritxarra izan baita oinordetzan jasotzea baserriak, etxeak, aletegiak, behiak eta nekazaritza-tresnak: errazagoa da halakoak eskuratzea halakoez libratzea baino. Hainbat hobe larre zabalean jaio balira, eta otsoen bularra hartu balute, horrela argiago ikusi izango zuketena eta zer eremutan aritu beharko zuten lanean. Zeinek bilakatu zituen lurzorua jopu? Gizonaren patua bada, esaerak diotenaren arabera, bere bizi-denboran lokatz apur bat irentsi beharra, zergatik jan behar dituzte nire auzoek hirurogei akre basatza? Zergatik hasi behar dute, jaio bezain laster, beren hilobia zulatzen? Gizonek bezala bizi behar dute, zailtasunei aurre egin, eta ahal bezain ondo konpondu. Zenbat arima hilezkor zorigaiztoko ez ote zaizkidan parean suertatu, egokitu zitzaien zamaren azpian zanpatuta, itota, bizitzaren bidean behera arrastaka, luzeran hirurogeita hamabost eta zabaleran berrogei oin dituen aletegi bati bultza eta bultza, Augiasen ukui-luak garbitzeko betarik gabe,<sup>6</sup> eta ehun akre lur, labore, sega, larre eta egur hartzeko zain! Puskarik jaso ez dutenek, ostera, halako destorbu alferrekoekin borrokatu behar ez direnek, uste dute nahikoa lan dela, bestela ere, haragizko zentimetro kubiko batzuk menderatzea eta jorratzea.

Baina gizonek akats baten ondorioz dihardute lanean. Laster goldatzen da, konposta egiteko, gizonaren alderdirik onena. Itxurazko zori baten ondorioz, zeinari premia esan ohi baitzaio, aberastasunak pilatzen jarduten dira, liburu zahar batek dioen

---

4 Herakles heroi greziarraren bertsio erronmatarra zen Herkules, indar izugarria zuen. Hamabi proba egin behar izan zituen, zein baino zein zailagoa, penitentzia gisa, bere senideak hiltzeagatik.

5 Greziar mitologian, Heraklesen iloba, eta haren laguntzailerik fidelenetakoa.

6 Heraklesen probetako bat zen Augias erregearen ukui-lua garbitzea.

bezala,<sup>7</sup> baina sitsak eta herdoilak jango dizkiete aberastasunak, eta lapurrek harrapatuko.<sup>8</sup> Ergelaren bizimodua da: bizitzaren amaierara iristen direnean ohartuko dira horretaz, lehenago ez bada. Esaten da Deukalionez eta Pirrak<sup>9</sup> harriak jaurti zituztela atzerantz, beren buruen gainetik, eta hala eratu zituztela gizonak:

*Inde genus durum sumus, experiensque laborum,  
Et documenta damus quâ simus origine nati.*

Raleigh-k honela azaldu zuen, bere errima zoliekin:

«Orduz geroztik, gogorrek gara, oinazean zailduak. Gure gorputzak harriz eginak direla erakusten dugu».<sup>10</sup>

Horra hor zer dakarren orakulu baldar batekiko obediencia itsuak: harriak jaurti atzerantz, norbere buruaren gainetik, eta non erortzen diren begiratu ez.

Gizon gehienak, baita herrialde erlatiboki aske honetan ere, zeharo lanpetuta ibiltzen dira bizitzaren kezka artifizialekin eta zeregin behar baino latzagoekin, eta ezjakintasun eta oker hutsez, ez dute modurik izaten bizitzaren fruitu finagoak biltzeko. Haien atzamarrak, lanari eskaintzen dioten demaseko ahaleginaren poderioz, baldarregiak dira horretarako, gehiegi dardarikatzen dira. Egia esan, gizon langileak ez dauka egunerokoan egiazko integritatea izateko balio dion aisialdirik; ezin du zinezko harremanik izan, gizonki, beste gizonekin, haren lanak balioa galduko luke-eta merkatuan. Ez dauka denborarik, makinan baten eran aritzeko baizik. Nola gogoratu daiteke gizona bere ezjakintasunarekin —eta hori ezinbestekoa da, haz dadin—, baldin eta etengabe baliatu behar badu bere jakinduria? Noizean behin, debalde eman beharko genizkioke jana eta jantziak, eta hitz atseginez gugana ekarri, epaitu aurretik. Gure naturaren

---

7 Bibliari buruz ari da. Beste erlijioetako testu sakratuen parekotzat hartzen zuen Thoreauk.

8 Mateo 6: 19 bertsetari erreferentzia: «Ez pilatu mundu honetan zeuen aberastasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrak etortzen dira harrapatzera». Iturria: <https://www.biblija.net/biblija.cgi?!=eu> Bibliako erreferentzia guztiak atari horretatik hartu dira.

9 Greziar mitologian, Ftiatik hurbileko lurraldeetako errege-erreginak. Lurra birpopulatu zuten, harriak atzeraka boteaz, harriok gizon-emakume bihurtu baitziren.

10 Walter Raleigh, *History of the World*, 1614.

ezaugarriak finenak gorde nahi baditugu, guztiz leunki erabili behar ditugu, fruituak nola. Alabaina, ez gara horren amultsu jarduten ez geure buruarekin ez besteekin.

Zuetako batzuk, guztiok dakigun moduan, pobreak zarete, nekez ateratzen duzue bizibidea, arnasestu batean bizi zarete. Ez dut zalantzarik liburu hau irakurtzen ari zareten batzuek ez daukazuela modurik egin dituzuen jatordu guztiak ordaintzeko, ez eta higatze-bidean edo guztiz zarpailduta dakartzazuen oinetakoak zein jakak pagatzeko ere, eta orrialde honetara iritsi zaretela denbora-tarte mailegatuak edo lapurtuak xahutuz, zuen hartzekodunei ordubete ostuz. Agerikoa iruditzen zait, oso, bizitza zikoitz eta ezkutukoak bizi dituzuela askok, esperientziak zorroztu baitit begirada: mugan zabiltzate beti, negozioren batean esku hartu nahian eta zorrak kitatzeko ahaleginean; antzinako lokazti batean, latindarrek *æs alienum* deituan —*beste norbaiten letoia*, haien garaian txanponak letoiz egiten baitziren—, hor bizi zarete, eta hor hiltzen, besteren letoian lurperatuta; zin egiten duzue ordainduko dituzuela zorrak, bihar ordainduko dituzuela, baina hara non gaur hil zareten, kaudimengabe; beti zabiltzate norbaiten mesedearen bila, norbaiten laguntzaren zain, ezin konta ahal modutan, deliturik egin gabe hala ere: gezurra esanez, hau eta hura losintxatuz, botoa emanez, gizatasun-oskol baten barruan bilduz zuen izatea edo, kontrara, elkartasun-giro mehe eta garden bat zabalduz ingurura, auzoa konbentzitu nahian, harentzat oinetako batzuk egiten utz diezazuen, edo kapelu bat, edo jaka bat, edo zalgurdi bat, edo jatekoa inportatzen utz diezazuen bestela; gaixotzeraino egiten duzue lan, inoiz gaixotuz gero zerbait gordeta izateko esperantzan, sos apurren batzuk ezkutatu ahal izateko kutxa zahar batean, edo galtzerdi baten babesean, hormako zirrikituan, edo, are seguruagoa dena, adreiluzko bankuan; bost axola non, bost axola zenbat edo zer gutxi.

Batzuetan txundituta geratzen naiz, ikusirik hain izan gaitzkeela —ausartuko naiz esatera— azalekoak; hainbeste non morrontza-mota izugarri baina zertxobait arrotz horri erreparatzen baitiogu —beltzen esklabotzari—, konturatu gabe badirela ugazaba azeri eta sotil mordoxka bat, esklabo hartzen dituztenak hala iparraldea nola hegoaldea. Latza da hegoaldeko kapataz baten mende egotea, are okerragoa iparraldeko baten pean ego-

kitzea; denetan txarrena, ordea, zeure buruaren esklabo-gidari izatea da. Horra hor gizonaren jainkozkotasuna! Begiratu errepidean doan gidariari, merkatura joan-etorrian egunez zein gaeuz: inoiz pizten ote da ezer jainkotiarrik bere baitan? Haren zeregin gorena, zaldiei jaten eta edaten ematea! Zenbat axola zaio bere patua, banaketa-interesak axola zaizkionarekin alderatuta? Ez al du Handiuste jaunarentzat gidatzen? Zer neurritan da jainkotia-rra gure gidaria, zer neurritan hilezkorra? Ikus nola kikiltzen den, nola ezkututzen, nola igarotzen duen egun guztia halako beldur lauso batek hartuta; ez da hilezkorra, ezta jainkozkoa ere, bere buruaz duen iritziaren esklaboa eta preso baizik, bere egintzen bitartez irabazitako ospearen mendekoa. Iritzi publikoa tirano ahula da norberaren iritzi pribatuarekin alderatuz gero. Gizon batek zer pentsatzen duen bere buruaz, horrek baldintzatuko du, edo, hobeto esanda, horrek argituko du zein den bere patua. Askapen pertsonala eskuratzea, fantasiaren eta irudimenaren eskualde indiar mendebaldekoetan izanik ere: zer Wilberforcek<sup>11</sup> ekarriko digu hori? Gogoan izan, halaber, herrialde honetako andreak: kuxinak brodatzen aritzen dira heriotzaren egunera arte, beren patuekiko interes den mendrenik ez dutela erakusteko! Posible balitz bezala denbora-pasan aritzea eternitateari kalterik egin gabe.

Gizonen masa desesperazio isil batean bizi da. Etsimendua deitzen zaionean berresten da desesperazioa. Bazoaz desesperaziozko hiritik desesperaziozko landa-eremura, eta bisoi en zein arratoi musketadunen adorearekin kontsolatu behar duzu. Gizateriaren jolasa eta aisia deritzon horren baitan ere ezkututzen da larridura estereotipatu baina inkontziente bat. Ez dago gozamenik hor, lanaren ostean bakarrik iritsiko baita plazera. Baina jakinduriaren ezaugarrietako bat da gauza desesperatuak ez egitea.

Aintzat hartzen badugu zein den gizonaren xede nagusia —katekismoaren hitzak erabiliz—, eta zeintzuk diren, oster, bizitzaren egiazko beharrak eta baliabideak, badirudi gizonen nahita hautatu dutela beren bizimoldea, beste edozein bizimolde baino atseginagoa gertatzen zaielako. Alabaina, bizimolde

---

11 William Wilberforce (1759-1833), Antilla ingelesetan esklabotza abolitzeko lanean jardun zena.

horixe egitea beste aukerarik ez zeukatela uste dute zinez. Izaera erne eta osasuntsuek, ordea, gogoan dute eguzkia argi jaiki zela. Inoiz ez da berandu norberaren aurreiritziei uko egiteko. Pentsamoldeak eta egiteko erak ezin dira ontzat hartu frogarik gabe, antzina-antzinakoak izan arren. Gaurko egunean jende guztiak errepikatzen duena, edo apenas arretarik eskaintzen diona, faltsua dela erakuts daiteke bihar; eta zenbaitek laino elikagarritzat hartutakoa, beren soroak ongarrituko zituen euriaren iturritzat jotakoa, aburuen ke huts bihur liteke. Zaharrek diote ezin duzula harako hura egin; bada, saiatu zara, eta hara non lortu egin duzun. Ekintza zaharrak jende zaharrentzat, eta berriak, aldiz, berrientzat. Jende zaharrak, menturaz, ez zuen jakin erregai freskoa gehituz eutsi ahal zitzaiola suaren garrari; jende berriak, ostera, egur lehorra jartzen du lapiko baten azpian,<sup>12</sup> eta planetaren luze-zabalean abiatzen da, txoriak bezain bizkor, jende zaharra hiltzeko adinako abailan, esaerak dakarrenez. Adina ez da irakasle aproposagoa gaztetasuna baino, baldin eta irakasle aproposa bada, izan: irabazi duena baino gehiago galdu du. Batek zalantzak izaten ditu, ea gizonik jakintsuenak ezer ikasi duen —balio absolutua duen ezer— bizitzearen poderio hutsez. Praktikan, zaharrek ez daukate aholku garrantzitsurik gazteentzat, beren esperientziak zeharo partzialak izan direlako, eta beren bizialdia, beriz, porrot erabatekoa —arrazoi pribatuen ondorioa dela uste dute—; baliteke fede-apurren bat gordetzea oraindik ere barrenean, beren bizipenak apur bat moztortzeko adinakoa, eta, horrela, lortuko dute noizbait izan zirena bezain gazteak ez izatea. Hogeita hamar urtez bizi izan naiz, gutxi gorabehera, planeta honetan, eta oraindik ez dut entzun aholku baliagarririk, ezta zintzorik ere, ni baino zaharragoen ahotik. Ez didate ezer azaldu, eta, ziur aski, ezin didate ezer azaldu. Hona hemen bizitza, neronek —hein handi batean behintzat— oraindik saiatu gabeko esperientzia; baina haiek horretan saiatu izanak ez dit balio ezertarako. Baliagarritzat jotzen dudana esperientziarik izan badut, ziur esan dezaket neure mentoreek ez didatela txintik adierazi horretaz.

---

12 Tren-makinaren eta trenbidearen funtzionamenduaz ari da Thoreau, zeina hamarkada batzuk lehenago sortu baitzen.

Nekazari batek esan zidan: «Ezin zara bizi soilik begetalak janez, ez baitizute emango ezer hezurren osaerarako balio duenik». Gizon horrek, bada, egunero-egunero hornitzen du bere sistema hezurren lehengaiatz; bien bitartean, idiei agindu-emanen segitzen du, eta animaliek, belarrez hornituriko hezurrekin, tira egiten diote hala nekazariari nola haren golde astunari, biei aurrera eginaraziz oztopoak oztopo. Zenbait ingurutan —gaitzak jota eta zeharo ezindurik dauden inguruetan—, gauza batzuk bizitzaren zinezko premiatzat hartzen dira; beste inguru batzuetan, ordea, gauza horiek luxuak baino ez dira, eta, beste zenbait tokitan, are, ezezagunak dira guztiz.

Badirudi gure aurrekariak oso-osorik arakatu zutela gizateriaren lurraldea, miatu zituztela tontorrak zein haranak, eta den-denaz arduratu zirela. Evelyn-en<sup>13</sup> esanetan, «Salomon jakintsuak arauak ezarri zituen baita zuhaitzen altuerari dagokionez ere, eta erromatar pretoreek, berriz, erabaki zuten zenbat aldiz joan zaitezkeen auzoaren lursailera, bertan dautzaten ezkurak biltzera, haren jabetza-eskubidea urratu gabe, eta bildutakoaren zer zati dagokion auzoari». Are gehiago, Hipokratesek jarraibide zehatzak eman dizkigu azazkalak mozteko neurri aproposaz ere: hatz-mamien neurrikoak izan behar dute, ez luzeago ez laburrago. Adam bezain zaharra dira, ez bairik gabe, bizitzaren aniztasuna eta poza xahutu bide dituzten asperdura eta gogaitua. Baina gizonaren ahalmenak ez dira inoiz neurtu, eta ez dagokigu guri, ezein aurrekaritan oinarrituta, gizonak zer egin dezakeen epaitzea, hain gauza gutxi saiatu dira-eta. Edozein izan direlarik ere orain artekoan suertatu zaizkizun porrotak, «ez zaitezela nahigabetu, ene haurra: zeinek eginaraziko dizu zerorrek egin gabe utzi duzuna?».<sup>14</sup>

Gure bizitzak azter ditzakegu milaka proba erraz eginez, adibidez, gogoan izanez nire laboreak ontzen dituen eguzki berberak ematen diola argia, aldi berean, gurearen moduko planeten sistema bati. Horretaz akordatu banintz, ez nituzkeen zenbait akats egingo. Ez nituen argi horren pean jorratu. Nolako hiruki miragarrien erpinak ote dira izarrak! Nolako izaki guztiz urrun eta desberdinak ari ote dira, unibertsoan barna nor bere

---

13 John Evelyn (1620-1706), Ingalaterrako idazle eta baratzezaina.

14 *Visnu Purana* erlijio-testu hinduistaren pasarte bat da.



jauregian, izar berberari so, une zehatz batean? Natura eta gizateria era askotakoak dira, gure gorpuzkerak bezala. Zeinek esan dezake zer posibilitate eskaintzen dion bizitzak beste inori? Gerta liteke mirari handiagorik besteren begietatik so egitea baino? Munduaren garai guztietan biziko ginateke ordu batez, garaien mundu guztietan. Historia, Poesia, Mitologia! Ez dut ezagutzen besteren esperientziei buruzko irakurgai txundigarriago ez jaingarriagorik.

Nire auzo gehienek ona esaten diotena txarra dela sinesen dut nire arimaren sakonean, eta, ezertaz damutzen banaiz, neure jokabide onaz damutzen naiz seguruen. Zer deabruk hartu ninduen, hain ondo joka nezan? Agure agurgarria, hirurogeita hamar urtez bizi izan zaren hori —nolabaiteko ohorearekin gainera—, ezagutzen duzun gauzarik jakintsuena esaten didazularik ere, ahots liluragarri bat aditzen dut, zeuk esandakotik urruntzera gonbidatzen nauena. Itsasontzi hondartuak balira bezala abandonatzen ditu belaunaldi batek bere aurrekoen egitasmoak.

Nik uste dut lasai asko izan dezakegula orain daukaguna baino askoz ere konfiantza gehiago. Besteak zintzotasunez zaintzen baditugu, halaxe zaindu behar genuke geure burua ere. Natura berdin egokitzen da gure ahultasunera zein gure indarrera. Gaitz-mota ia sendaezina da zenbaiten antsietatea eta ahalegin etengabea. Egiten dugun lanaren garrantzia puzteko sortuak gara, eta, halere, zenbat gauza ez ditugun geronek egiten! Eta gaixotuko bagina? Erne ibiltzen gara, gero! Deliberaturik gaude fedearen arabera ez bizitzera, saihestu badezakegu behintzat: adi igarotzen dugu egun osoa; gauez, berriz, gogoz kontra egiten dugu otoitz, eta segurtasun ezari lotzen gatzaizkio. Hain gaude zeharo eta zintzoki bizitzera behartuak, geure bizitza gorosten baitugu, eta aldatzeko aukera ukatzen. Hauxe da modu bakarra, esaten dugu, baina zentro batetik zenbat radio marraz daitezkeen, beste horrenbeste dira bizitzeko moduak. Aldaketa bat ikustea mirari bat da beti, une oro gertatzen den mirari bat halere. Konfuziok hala esan zuen: «Badakiguna dakigula jakitea, eta ez dakiguna ez dakigula jakitea, horra egiazko jakintza».<sup>15</sup> Gizon batek ondorioztatzen badu bere irudimeneko egitate bat

---

15 Konfuzioren *Analektak*, 2:17.

bere ulermenari dagokiola, epe luzera gizon guztiek biziko dituzte beren bizitzak oinarri horren gainean.



Azter dezagun, une batez, zein den lehen aipatu ditudan kezka eta larridura gehienen funtsa, eta haien harira zer neurritan arduratu behar genukeen, edo larritu bederen. Lagungarria izan liteke, kanporako zibilizazio batean bizi arren, bizitza primitibo bat egitea, mugakoa, bizitzako premia gordinak zeintzuk diren ikas dezagun besterik ez bada, eta ikus dezagun zer metodo erabili den premia horiek asetzeko; edo, bestela, merkatarien egunerokoak ikuska genitzake, jakiteko zer erosi ohi zuten gizonak dendetan, zer biltzen zuten, zer ziren beren lehengairik lehengaienak. Eragin txikia izan baitu historiaren aurrerabideak gizonaren existentziaren lege oinarritzkoetan: gure eskeletoak gure arbasoenak bezalakoxeak dira ziur aski.

Bizitzako premiak diodanean, honi buruz ari naiz: gizonak bere eginahalaz eskuratzen dituen gauzen artean, hasiera-hasieratik giza bizitzarentzat hain garrantzitsua izan den edozer gauza, edo erabileraren poderioz hain garrantzitsua bihurtu dena, ezen inor gutxi, edo inortxo ere ez, ez baita saiatu ere egin, dela basatasunagatik, pobreziagatik zein filosofiagatik, hura gabe aurrera egiten. Zentzu horretan, premia bakarra dago bizitzan izaki askorentzat: Janaria. Ordokietako bisoiari aski zaizkio belar-zentimetro zapoetsu gutxi batzuk, eta edateko ura, salbu eta basoaren aterpea edo mendiaren gerizpea bilatzen baditu. Sorkairik basatien artean, inork ez du behar Jana eta Aterpea baino gehiago. Klima honetan, gizonaren bizitzeko premiak sailka genitzake, zehatz samar gainera, Jana, Aterpea, Arropa eta Erregaia multzoetan, horiez hornitu arte ez baitugu modurik izango bizitzaren egiazko arazoei heltzeko askatasunez eta arrakastarako aukerekin. Gizonak asmatu ditu ez bakarrik etxeak, baita arropak eta lapikoko janaria ere, eta, suaren epela ustekabean deskubritu izanaren ondorioz, eta erabiltzearen eraginez, sutondoan esertzeko beharra sortu zen, hasieran luxu bat baizik ez zena. Itxura denez, hasiak dira txakurrak eta katuak apeta hori bereganatzen. Aterpe eta Arropa neurrikoei esker, gure barneko berotasuna mantentzen dugu, zilegi denez, baina ez al da egia Erregaien soberakinekin abiatu zela sukaldaritza, hau da, geure

barnekoa baino handiagoa den kanpo-berotasun batekin? Darwin naturalistak dioenez, Tierra del Fuego-ra egindako bidaiaz ari dela, bere taldeko kideak —ganoraz jantzirik eta sutondotik hurbil— ez zeuden epel inondik ere; hango salbaiak, ordea, eta harrigarria badirudi ere, biluzik eta sutik urrunago zeuden-eta, «izerdi patsetan ari ziren tamainako beroarekin». Halaber, azaldu digute Holanda Berrikoak<sup>16</sup> larru-huts joaten direla patxada ederrean, europarrak dardarka ari diren arren beren jantzien azpian. Ezinezkoa ote da salbaien sendotasuna eta gizon zibilizatua-ren intelektueltasuna uztartzea? Liebig-en ustean,<sup>17</sup> gizonaren gorputza labe bat da, eta janaria, berriz, erregaia, biriketako barne-konbustioari eusten diona. Hotzak gaudenean gehiago jaten dugu; sargori denean, aldiz, gutxiago. Konbustio mantso baten ondorioa da animalien berotasuna, eta, bizkorregia bada, edo sua agortzen baldin bada, erregairik ez dagoelako edo etenen bat izan delako haize-lasterrean, gaitza eta heriotza irits daitezke. Bizi-berotasuna, jakina, ez da suarekin nahastu behar, baina hortxe utziko dut analogia. Badirudi hortaz, goiko zerrendari erreparatuta, animalia-bizitza esamoldea eta animalia-berotasuna esamoldea sinonimoak direla kasik; Jana baldin bada gure barneko suari eusten dion Erregaia —eta Erregaiak, bere aldetik, Jana prestatzeko edo gure gorputzak kanpotik epeltzeko balio du soilik—, Aterpeak eta Arropak orobat balio dute modu horretan sortutako eta xurgatutako berotasuna mantentzeko.

Horrenbestez, gure gorputzei dagokionez, epel egotea eta gure barneko bizi-berotasuna mantentzea da premiarik behinena. Hori hala izanda, nolako lanak hartzen ditugun, ez bakarrik behar adina Janari, Arropa, eta Aterpe izateko, ezpada gure oheak atontzeko —gure gau-arropak, alegia—, txorien habiak eta lumajeak ostuz, aterpearen barruan beste aterpe bat sortzeko, satorrak belar eta hostoz eginiko ohe bat daukan gisan bere gordelekuaren barren-barrenean! Gizon pobrearen ohitura da mundu honen hoztasunaz kexatzea, eta, hoztasunari dagokio hain zuzen ere —hoztasun fisikoari bezainbeste hoztasun sozialari— gure ajeen puska handi bat. Klima batzuetan, gizonak halako bizitza elisear bat izan dezake. Ez du Erregaiaren beha-

16 Australia irla-kontinentearen izen historikoa.

17 Justus von Liebig (1803-1873), Alemaniako kimikaria, giza berotasunaren jatorria deskubritu zuen —elikagaien errekuntza gorputzaren barnean—.

rik, Janaria prestatzeko ez bada; eguzkia da haren sua, zeinaren izpiek behar beste prestatzen baitituzte anitz fruitu; Janaria, bestalde, ugariagoa da orokorrean, eta aiseago eskuratzen da, eta Arropa zein Aterpea ez dira beharrezkoak, edo erdizka bakarrik. Gaur egun, herrialde honetan, neure esperientziaren ondorioz ohartu naizenez, badira zenbait erreminta —labana, aizkora, pala, eskorga eta abar, edo, ikastunaren kasuan, lanpara, idazteko tresnak, eta liburu banaka batzuk—, premiatzat jotzen direnak, eta merke-merke lor daitezke guztiak ere. Dena den, bada jendea, ez gero jende jakintsua, zeina lurbiraren beste muturrera joaten baita, eskualde barbaro eta osasungaitzetara, eta merkataritzari osoki ematen baitzaio hamar edo hogeitaz urtez, bizi ahal izateko —hau da, epelean bizi ahal izateko— eta, azkenean, Ingalaterra Berrira itzultzen da hiltzera. Aberaskilo zinezkoak, ordea, ez dira epel hutsean egoten, baizik eta gehiegizko sapan; lehen iradoki dudana bezala, (burutik) ondo eginda daude, eta *à la mode*, jakina.

Luxu gehienak, eta bizitzako erosotasunak esaten zaien asko, ez dira soilik ez-ezinbestekoak, baizik eta eragozpen beteak gizateriaren gorabidean. Luxuei eta erosotasunei dagokionez, jakintsuenak beti bizi izan dira pobreak baino modu soil eta eskasagoan. Antzinako filosofoa txinatar, hindu, persiar eta greziarren pareko jende-klaserik ez da ezagutu sekula, hain pobrea izan denik kanpoko altxorretan eta hain aberatsa, berriz, barnekoetan. Ez dakigu asko haiei buruz. Aipagarria da *guk* hainbeste jakitea haiei buruz. Gauza bera esan genezake beren arrazaren erreformista eta ongile modernoagoen gainean. Inor ezin da izan giza bizitzaren behatzaile inpartzial eta jakintsua, non eta ez den jarduten pobrezia borondatezkoa izendatu behar genukeen talaiatik. Luxuzko bizitzaren fruitua luxua izango da, berdin du nekazaritzan, merkataritzan, literaturan edo artean. Gaur egun filosofiako irakasleak daude, ez ordea filosofoak. Nolanahi ere, miresgarria da filosofia irakastea, behiala miresgarria izan baitzen filosofia bizitzea. Filosofoa izatea ez da, soilik, pentsamendu sotilak izatea, ezta eskola bat sortzea ere, baizik eta jakinduria maitatzea eta haren aginduen arabera bizitzea, bizitza bat bizitzea zeinen ezaugarriak baitira sinpletasuna, independentzia, eskuzabaltasuna eta konfiantza. Filosofoa izatea da bizitzako arazoetako batzuk konpontzea, ez bakarrik teorikoki, baita prak-

tikan ere. Eruditu eta pentsalari handien arrakasta, normalean, gortesauen moduko arrakasta izaten da: ez erregeena, ez gizona. Modua aurkitzen dute konforme bizitzeko, beren aitek egin bezala praktikan, eta ez dira, inolaz ere, gizonen arraza nobleago baten sortzaileak. Baina zergatik hondatzen dira gizonak? Zeren ondorioz agortzen dira familiak? Zein da nazioak ahultzen eta suntsitzen dituen luxua? Ziur al gaude ez dagoela luxu horren izpirik geure bizitzetan? Filosofoa aurreratua dago bere garaia-  
rekiko, baita bere bizitzaren kanpoko moldeari dagokionez ere. Ez du bere garaikoek bezala jaten, ez da haien erara aterpetzen, ez eta janzten ere, eta ez da haien manerara berotzen. Nola izan daiteke gizon bat filosofo, eta nola euts diezaioke bere bizi-berotasunari, beste gizonek baino metodo hobekoekin?

Gizon bat berotu baldin bada lehen deskribatu ditudan modu ugarien bitartez, zein izango da bere hurrengo desira? Ez du nahi izango mota bereko epeltasunik, hori argi dago, baizik eta janari gehiago, eta aberatsagoa, eta etxe itzelagoak, arropa finagoak eta ugariagoak, su etengabe eta biziagoak, eta antzeko kontuak. Baina, bizitzako premiak eskuratu ostean azaleko gauzak bilatzeari ekin ordez, badu beste alternatiba bat: bizitzara ausartzea orain, atzean geratu baitira neke umilagoak. Lurzorua, itxura denez, ondo egokitzen zaio haziari, beherantz bidali baititu haren sustraixkak, eta baliteke orain gorantz bidaltzea haren ernamuinak, konfiantzaz orobat. Zergatik errotu da gizona hain sendo lur honetan, ez baldin bada hein berean altxatzeko goiko zeruetara? Landare nobleak haien fruituagatik dira preziatuak —airean eta argian, lurzorutik urruti, ematen duten fruituagatik—, eta ez ditugu erabiltzen landare jangarri apalagoen tankera berean, zeinak, bi urtez landu litezkeen arren, sustraia sendotu arte bakarrik hazten baititugu, eta maiz moztu ere mozten baititugu garaia heldu aurretik, halako moduan non jende gehienak ez baititu loratzen ikusten.

Ez diet araurik ezarri nahi natura ahaltsu eta ausartei, zeinak beren kontuez arduratuko baitira hala zeruan nola infernua, eta, menturaz, aberatsenek baino gauza itzelagoak eraikiko baitituzte, eta oturuntza oparagoak egin, inoiz pobretu gabe, eta nola bizi diren gogoetatu gabe —baldin eta halako jenderik badago benetan, amestu izan den moduan—; ez eta ere gaur egungo baldintza zehatzetan adorea eta inspirazioa aurki-

tzen dutenei, eta oraingo egoera maitatzen dutenei amoranteen txerarekin eta gogoarekin —heine batean, halakoxea naizela aitortu dut—; ez natzaie zuzentzen lanbide on bat daukatenei, berdin du zer baldintzatan —haiek jakingo dute lanbide ona duten edo ez—; aitzitik, galdurik dabilen jende-masari mintzo natzaio nagusiki, zeinak nagiki arranguritzen baitira beren saldoaren edo garaiaren latzaz, beren egoera hobetu ordez. Badira batzuk inor baino kementsuago eta kontsolaezinago kexatzen direnak, beren betebeharra delako, berek diotenez. Buruan dut, halaber, itxuraz aberatsa den jende-klase hori, guztietan pobretuena egiaz: hondakinak pilatu dituzten arren, ez dakite nola erabili behar dituzten, ezta haietaz nola libratu daitezkeen ere, eta horrela forjatu dituzte beren kate urrezko edo zilarrezkoak.



Kontatzen saiatuko banintz azken urteotan nolako bizi-moldea egin nahi izan dudana, ziur aski harritu egingo lirateke azken urteotan nire bizimodua benetan nolakoa izan den zertxobait ezagutzen duten irakurleak; hari buruz ezer ez dakitenak, berriz, gauza ziurra da zur eta lur geratuko direla. Gogoan ibili ditudan egitasmoetako batzuk iradokiko ditut, besterik ez.

Eguraldia edozein izanda ere, eguneko zein gaueko ordu orotan, irrikaz egon naiz unean unekoa hobetzeko eta nire mailarekin neurtzeko; bi eternitate gurutzatzen diren lekuan zutitzeko —iraganaren eta etorkizunaren artean, alegia, oraingo unean berean—, eta hari men egiteko. Barkatuko didazue zenbait gauza argi-argi azaltzen ez baditut, baina nire lanbidean sekretu gehiago daude gizon gehienen jardunean baino, eta ez ditut gordetzen hala nahi dudalako, ezpada horixe delako beren izatea. Gogo onez azalduko nizueke hartaz dakidan guztia, eta nire atarian ez nuke sekula jarriko «EZ SARTU».

Aspaldi galdu nituen ehiza-txakur bat, zaldi kanela-kolore bat eta usapal bat, eta haien arrastoan nabil oraindik. Bidaiari askorekin hitz egin dut haiei buruz, nolako lorratzak uzten zituzten eta zer deiri erantzuten zioten deskribatuz. Batek edo bik entzuna zuten txakurraren zaunka, edo zaldiaren oinkada, edo baita usapala ikusia ere laino baten atzean desagertzen, eta halako grina agertu zuten animaliak berreskuratzeko, bai baitzirudien berek galduak zituztela.

Aurea hartzea, ez egunsentiari edo ilunabarrari soilik, ezpada, posible bada, Naturari berari! Zenbat goizetan altxatu naizen, udan zein neguan, eta nire zereginei ekin, auzoa oraindik abian jarri aurretik! Noski, neure egitasmoetatik itzultzen nintzelarik herrikide askorekin topo egin dut, goiz-alban Bostonera abiatzen ziren nekazariekin edo lanera bidean zihoazen egurginekin. Egia da inoiz ez diodala eguzkiari jaikitzen lagundu materialki, baina ez izan zalantzarik guztiz garrantzizkoa zela une horretan presente egotea.

Zenbat egun igaro ditudan udazkenean, eta neguan ere bai, herritik kanpo, haizeak zer zekarren aditu nahian; aditu eta neronek adierazi! Nire kapital ia osoa xahutu nuen zeregin horretan, eta arnasestuan jardun nintzen haizearen parean korrika. Bi alderdi politikoetako batekin zerikusirik izan balu, Gazette<sup>18</sup> egunkarian agertu zatekeen ziur bai ziur, ahal bezain pronto. Beste batzuetan, labar edo zuhaitz baten talaiatik beha egoten nintzen, berriren bat telegrafiatzeko; edo muino-tontorretara igotzen nintzen arrastirian, zerua abailtzeko zain, zerbait harrapatuko nuelakoan, nahiz eta ez nuen askorik harrapatu inoiz, eta, ezer izatekotan, eguzki pean urtzen zen berriro, mana bezala.

Berriemaile jardun nintzen luzaroan egunkari batean, zeina ez baitzen asko zabaltzen, eta hango editoreak ez zuen inoiz egokitzen jo nire ekarpenen gehiengoa; hala, idazleei gertatu ohi zaien moduan, nahigabeak baino ez nituen jaso ereindako lanaren truke. Nolanahi ere, kasu horretan, nahigabeek berek asetu ninduten.

Elurteen eta ekaitzen ikuskatzaile jardun nintzen hainbat urtez, neure burua hala izendaturik, eta zorrotz bete nituen egitekoak; tasatu nituen, ez errepideak, ezpada basoko xendrak eta lursailen arteko bidexka guztiak, bide izaten jarrai zezaten; arroiletan zubiak eraiki eta urtaro orotan pasatzeko moduan egon zitezen arduratu nintzen, baldin eta jendearen orpoak eraikutsi bazuen erabilgarriak zirela.

Herriko abere basatiak zaindu nituen, zeinek, hesien gai-netik jauzi eginez, arazoa franko sortzen baitiote artzain leialari;

---

18 Baliteke *Yeoman's Gazette* egunkariari buruz aritzea —Concorden argitaratu zen 1826tik 1840ra bitarte—, edo beste edozein egunkari zein kazetari buruz.

eta erreparatu nien baserrietako zoko-moko ezkutuei, nahiz eta beti ez nuen jakiten Jonas edo Salomon lanean ari ote ziren so-  
roren batean egun hartan, hori ez baitzen nire kontua. Ureztatu  
nituen ahabia gorriak, harea-gereziondoa eta osinak, pinu gorria  
eta lizar beltza, mahats zuria eta bioleta horia, zeinak beharbada  
zimeldu egingo ziratekeen garai lehorretan.

Hala jardun nintzen, bada, bolada luze batez, nire zeregi-  
nez arduratuz leialki —harrokeriarik gabe diot—, harik eta argi  
geratu zitzaidan arte neure herrikideek ez nindutela inoiz onar-  
tuko herriko behargin ofizialen zerrendan, ez eta nire lanbidea  
sinekura<sup>19</sup> bihurtu ere, soldata txiki batekin. Nire kontuak —zin  
dagit zintzoki mantendu nituela— ez zituzten inoiz ere ikuskatu,  
are gutxiago onartu, are gutxiago ordaindu eta kitatu. Hala ere,  
ez natzaio auzi horri eskaini buru eta bihotz.

Duela ez asko, indiar ibiltari bat saskiak saltzera joan zen  
nire auzoko abokatu ospetsu baten etxera. «Saskirik erosi nahi  
zenuke?», galdetu zion. «Ez, ez dugu saskirik nahi», erantzuna.  
«Zer?», egin zuen indiarrek aldarri, ataritik kanpora zihoala;  
«gosez akabatu nahi gaituzu?». Ikusirik auzo zuri saiatuak hain  
ondo moldatzen zirela —abokatuak aski zuela argudioak bil-  
batzea eta, magiaz bezala, aberastasuna eta ospea eskuratzen  
zituela—, indiarrek pentsatu zuen bere kautan: negozio bati  
ekingo diot neronek ere; saskiak bilbatuko ditut, horixe egiteko  
ahalmena daukat. Uste zuen, saskiak bilbatuz gero, egina izango  
zuela berari zegokion partea, eta ondoren gizon zuriaren ardu-  
ra izango zela saskiak erostea. Artean ez zekien, ordea, saskiek  
erosiak izatea merezi zutela frogatu behar ziela bezero-asmoei,  
edo hori sinetsarazi behar ziela behintzat; osterantzean, beste  
gauzaren bat sortu behar zuen, erosia izatea merezi zuena. Ne-  
ronek ere bilbatua nuen saski bat, testura delikatuarekin, baina  
ez zuen merezi erosia izatea. Dena den, nire kasuan, ez nuen  
uste saskiak bilbatzeak berak merezi zuenik; horregatik, ez nuen  
aztertu nola sor nitzakeen erosiak izatea merezi zuten saskiak,  
beste zerbait baizik: nola saihestu saskiak saltzeko premia. Gizo-  
nek bizimodu bakar bat gorensten dute, eta horixe baino ez dute

---

19 Lanik apenas eskatu gabe diru-sarrera polit bat eskaintzen duen kargua. Erdi Aroko  
kristau elizen sisteman du jatorria terminoak: kleriko bati ordainsari bat ematen  
zitzaion, ikerketa-lanak egiteko modua izan zezan, bestelako erlijio-zerbitzurik eskaini  
gabe.



jotzen arrakastatsutzat. Zergatik hauspotu behar genuke bide bakar bat besteen kaltetan?

Oharturik herrikideek ez zidatela tokirik eskainiko auzitegian, ez apaizgorik ez beste lanposturik beste inon, eta neure kabuz egin beharko nuela aurrera, basoetarantz jo nuen inoiz baino arreta handiagoz, han hobeto ezagutzen ninduten-eta. Neure kontuei behingoan ekitea erabaki nuen, ohiko kapital-inbertsioaren zain egon gabe, jada eskura nituen baliabide urriak erabiliz. Walden lakura joan nahi nuelarik, nire xedea ez zen merke bizitzea han, ez eta luxu handiekin bizitzea ere; aitzitik, kontu pribatu batzuk kudeatu nahi nituen ahalik eta oztopo gutxien izanda, eta, tristea baino gehiago, ergela iruditzen zitzaidan kontu horiek ezin burura eramatea, zergatik-eta zentzu komun apur bat eta negozioetarako talentu pixka bat falta zitzaizkidalako.

Beti ahalegindu naiz ohitura zorrotzak finkatzen nire kontuetarako, ezinbestekoak dira gizon ororentzat. Zeruko Inperioarekin<sup>20</sup> ari bazara tratuan, orduan aski izango duzu kontularitza-etxe txiki bat ezartzea itsasertzean, Salem-eko porturen batean. Herrialdeak ematen dituen salgaiak esportatuko dituzu, bertako produktuak, izotza eta pinu-egurra eta granito pixka bat, bertako itsasontzietan beti. Eginkizun onak izango dira. Zuk zeuk ikuskatu beharko dituzu xehetasun guztiak; aldi berean izan beharko duzu pilotua eta kapitaina, jabea eta aseguru-emailea; zeuk saldu eta zeuk erosi beharko dituzu gauzak, eta kontuak egin; zeuk irakurri beharko dituzu jasotako gutun guztiak, eta bidalitako guztiak idatzi edo leitu; inportazioen deskarga gainbegiratu beharko duzu gau eta egun; kostako hainbat lekutan egon beharko duzu ia aldi berean —sarritan, Jersey-ko itsasertzean deskargatzen da merkantziarik preziatuena<sup>21</sup>—; zeuk izan beharko duzu telegrafoa, zeuk miatu beharko duzu tai gabe zeruertza, eta kostarantz doazen ontzi guztien berri eman; ondasunen sail egonkor bat izan beharko duzu, hain urruna eta neurriz gaindikoa den merkaturia hornitzeko; jakin beharko duzu zertan diren merkatuak, bake-aldiak edo gerra-aukerak edonon, eta aurre hartuko beharko diezu merkataritzaren zein zibilizazioaren joe-

---

20 Txinari eta mundu espiritualari erreferentzia.

21 New Jerseyko itsasertzean ontzi asko hondoratzen ziren. Istripuetan hildako marinelak lirateke merkantziarik preziatuena.

rei —esplorazio-espeditzioen emaitzak baliatuz, pasabide berriak eta nabigazioko hobekuntza guztiak erabiliz—; aztertu beharko dituzu mapak, uharrien, argi berrien eta buien posizioak zein diren ziurtatu, eta logaritmoen taulak zuzendu behin eta berriz, zeren, maiz, kalkulatazailereren baten akatsagatik birrintzen baitira itsasontziak harkaitzen kontra, nahiz eta portu adeitsu batera iritsi behar zuten berez —horixe izan zen La Pérouse-ren<sup>22</sup> patu azalpenik gabea—; egunean egon beharko duzu zientzia unibertsalari dagokionez, asmatzaile eta nabigatzaile handien bizitzak aztertu, abenturazale eta merkatarari handienak orobat, Hannon<sup>23</sup> eta feniziarrengandik hasi eta gaur egungoetaraino. Laburbilduz, izakinak zenbatu beharko dituzu aldian behin, zer egoeratan zauden jakiteko. Gizonaren ahalmenak probatzeko lantegi bat dugu hori, era askotako auziak jasan behar baititu —irabaziak zein galerak, interesak, murrizketak zein beherapenak—, eta era askotako neurketak egin halaber, jakintza erabatekoa eskuratu nahi badu.

Pentsatu nuen Walden lakua toki egokia izango zela nire kontuetarako, ez bakarrik trenbidea eta izotzaren merkataritza daudelako handik hurbil, ezpada bestelako abantailak eskaintzen dituelako orobat, eta egokia liteke horiei buruzko xehetasun gehiago ez ematea: portu ona da, bai eta oinarri ona ere. Han ez dago, Nevan bezala, aintzirarik dragatu beharrik, nahiz eta, ezer eraiki nahi bada, norberak finkatu behar dituen zutarriak.<sup>24</sup> Esaten denez, mendebaldeko itsasaldiak eta Nevako izotzak San Petersburgo desagerraraz omen lezake lurraren azaletik.



Ohiko kapital-inbertsiorik gabe ekin nionez nire kontuei, beharbada ez duzue aise asmatuko nolatan lortu nituen halako egitasmoetarako ezinbestekoak izaten jarraitzen duten baliabideak. Arropari dagokionez, eta alderdi praktikoetara etorriz behingoan, iruditzen zait ez diogula erreparatzen jantzien egiazko erabilgarritasunari; aitzitik, berritasunekiko zaletasu-

22 Jean François de Galaup (1741-1788), La Pérouseko kondea, Frantziako itsasgizona. Bidaldi bat egin zuen munduan barna, baina bere itsasontzia desagertu egin zen 1788an.

23 Kartagoko esploratzaile eta bidaiaria. Afrikako mendebaldeko kostan ibili zen K. a. 480. urtean, eta txosten bat idatzi zuen bidaia horri buruz.

24 Neva ibaiaren bokalean eraiki zen San Petersburg hiria, 1703an.

nez jarduten gara, edo gizonen iritziak aintzat hartzen ditugu bestela. Lana egin behar duenak azter dezala zeintzuk diren arroparen helburuak —lehenik, bizi-berotasunari eustea; bigarrenik, eta gizarte-molde honetan, biluztasuna estaltzea—, eta hala ebatz dezala zenbat lan garrantzitsu edo premiazko egin ditzakeen jantzi berririk izan gabe armairuan. Errege-erreginak jantzi berriekin ibiltzen dira aldiro; hortaz, nahiz eta jostunek propio egiten dituzten arropak haientzat, ez dute ezagutzen zer eroso den norberari ondo egokitzen zaion jantzi bat ipintzea. Arropa garbiak zintzilikatzeko erabiltzen diren egurrezko egituren parekoak dira, azken batean. Egunetik egunera, jantziak gero eta gehiago egokitzen zaizkigu, gure tankera hartzen dute, halako moduan non zalantza egiten baitugu haien kentzean; al-bait gehien berandutzen dugu une hori, eta geure gorputzarekin bezalaxe jardun nahi genuke arroparekin: medikuaren aplikazioarekin eta nolabaiteko solemnitatez. Gizon baten jantziak adabakiz josita egon arren, arrazoi hori ez zait inoiz iruditu harengana dudan estimazioa behertzeko motiboa; ziur naiz, hala ere, kezka handiagoa sortu ohi duela modako arropa eskuratzeak —edo arropa garbia eta adabakirik gabea eskuratzeak behintzat— kontzientzia zuhur bat izateak baino. Dena den, urratua sareztatu ez bada ere, beste bat da egoera honek erakusten duen biziorik okerrera: aurreikuspenik eza. Batzuetan, proba txiki bat egiten dut nire ezagunekin: zeinek eramango luke adabaki bat, edo gehiegizko jostura bi, belaunaren gainean? Gehienek uste dute beren bizitzako aukera guztiak suntsituko lirатеkeela halakorik eginez gero. Aiseago joango lirатеke herrigunera zangoa hautsita izanik, galtza urratuekin baino. Sarritan, ezbeharren bat gertatzen bazaio jaun baten zangoei, konpontzeko modua egoten da; ostera, antzeko ezbeharren bat suertatzen bazaie bere prakei, ez dago irtenbiderik, zeren jaunak ez baitio erreparatzen egiaz errespetagarria denari, ezpada errespetatzen denari. Gizon gutxi ezagutzen dugu; jaka eta bonbatxoa berriz, erruz. Jantzi ezazu txorimalo bat zure arroparik berrienarekin, eta gera zaitetz haren ondoan biluzik, kieto: zeinek ez luke, zu agurtu ordez, txorimaloa agurtuko? Aurreko batean, artasoro batean barna nindoala, kapelu eta jaka bana ikusi nuen makil batean jarrita; hara non, etxaldeko nagusia zen, azken aldiz ikusi nuenean baino apur bat higuatua gosterik ez. Entzuna dut ba omen zegoela

txakur bat zaunka jarduten zitzaiona bere nagusiaren lurretara hurbiltzen zen pertsona orori, baldin eta hark arropak bazituen soinean; aldiz, lapur larru-huts batek aise isilarazi zuen. Galdera interesgarria da ea zer neurritan eutsiko lioketen gizonek beren estatusari, baldin eta jantziak kenduko balizkiete. Kasu horretan, gai izango ote zinateke, gizon zibilizatuen sorta batetik, klase errespetagarriena zeintzuk osatzen duten esateko? Pffeifer andreak,<sup>25</sup> munduan barna egindako abentura-bidaietan, ekialdetik mendebaldera itzuleran zetorrela, eta etxe aldera zertxobait gerturatzten ari zelarik, Errusiako ekialdean, agintariak ezagutzera jo zuenean bidaiako soinekoa erantzi eta bestelako jantziren bat ipintzeko premia sentitu zuela adierazi zuen, «herrialde zibilizatu batean» baitzegoen orain, «zeinean [...] jendea bere arropen arabera epaitzen baitute». Ingalaterra Berriko gure herri demokratikoetan ere, errespetu ia unibertsala eskuratzen du ondasunen jabe halabeharrezkoak, eta aberastasun horixe jantzien eta zalgurdien bidez erakusten duenak. Alabaina, tamainako ospea ematen diotenak, ugariak izanagatik ere, paganoak dira berdin-berdin, eta misiolari bat bidali behar litzaieke. Gainera, jantzien bidez hedatu zen josteta, amaigabea esan ahal zaion lan-mota bat —emakumeen soinekoak, behinik behin, ez dira inoiz bukatzen—.

Gizon batek egitekorik topatu baldin badu azkenean ere, ez du izango jantzi berri baten beharrik lanari heltzeko; zaharreakin moldatuko da, ganbaran bolada zehaztugabe batez hautsez beteta egon den horrekin. Heroiaren morroiari baino luzeago balio izango zaizkio oinetako zaharrak heroiari berari —baldin eta heroi batek morroirik izan badezake inoiz—; oin hutsak zaharrragoak dira zapatak baino, eta orobat erabil ditzake. *Soiréetara* eta legebiltzarretara joaten direnek baino ez dute jaka berrien beharrik: barruko gizona aldatzen den bezain maiz aldatzen dira jaka horiek. Baina nire jaka eta prakak, nire kapelua eta zapatak, egokiak badira Jainkoa gurtzeko, balio izango didate, ezta? Zeinek ikusi ditu inoiz bere arropak guztiz zaharkituta; bere jaka zaharra zeharo maiztuta, bere elementu primitiboetara itzulita, halako moduan non ez baitzen karitate-ekintza bat izango

---

25 Ida Laura Pfeiffer (1797-1858), Austriako bidaiari eta idazlea. Lehen emakume bidaiarietako bat izan zen, eta haren bidaia-egunerokoek arrakasta handia bildu zuten.

hura mutiko pobreren bati luzatzea, eta hark, menturaz, beste pobreago bati ematea —edo esan behar genuke aberatsago bati, gutxiagorekin moldatzen baita—? Honela diotsuet: kontuz ibili arropa-eramaile berri baten ordez arropa berrien premia dakarten egitasmoekin. Ez baldin badago gizon berririk, nola egokituko zaizkio arropa berriak? Jarduera berri bati heldu beharrean bazau, saia zaitez arropa zaharrekin egiten. Gizonei, izan ere, zer egin falta zaie, edo, hobeto esanda, zer izan, ezen ez zerekin egin. Agian ez genuke jantzi berririk eskuratu behar, zaharra guttiz urraturik eta zikin egon arren, harik eta halako moduan jarduten garen arte, halako egitasmoak gauzatzen edo halako bidaiak egiten ditugun arte, non gizon berriak sentitzen baikara arropa zaharretan, haiei utsiz gero ardo berria botila zaharretan gordeko bagenu bezala. Azala mudatzeko garaiak krisi bat izan behar du gure bizitzan, etxe-hegaztiei gertatzen zaien bezalaxe. Aliotak laku bakartietan igarotzen du garai hori. Halaber mudatzen da sugea, eta beldarra libratzen da bere zizare-jakaz, barne-lanketa eta -hedapen baten bidez; jantziak, azken batean, gure kanpoko kutikula eta bizi-lorra<sup>26</sup> baizik ez baitira. Osterantzean, bandera faltsu baten pean bidaiatuko gara, eta gutxietsiko gaitu hala gure iritziak nola gizateriarenak.

Arropak janzten ditugu bata bestearen gainetik, landare exogenoen pare haziko bagina bezala, kanpo-gehikuntzaren bidez. Gure kanpoko arropa sarritan mehe eta apainek gure epidermisa osatzen dute, gure azal faltsua, zeina ez baita gure bizitzaren parte: puskak ken geniezazkioke han eta hemen, zauri hilgarririk eragin gabe; aldiz, arropa trinkoagoak, etengabe soinean dauzkagunak, gure tegumentu-sistema zelularra dira, edo kortexa, eta alkandorak, azkenik, gure liberra edo azal egiazkoa, zeina ezin baita kendu gizona suntsitu gabe. Sinesten dut arraza guzti-guztiek janzten dutela alkandora-moduren bat sasoiaren batean. Desiragarria da gizona simple-simple janzte, halako moduan non bere gorputza ukitzeko gai izango baita iluntasunean, eta prest eta tinko bizi ahal izango baita zentzu guztietan; horrela, etsaiak herria hartuz gero, modua izango du, filosofo

---

26 Shakespeareren *Hamlet* antzezlanari erreferentzia (III. eszena): «bizi-lor hau gainetik ken dezagunean». Itzultzailea: Juan Garzia. Iturria: <https://www.armiarma.eu/unibertsala/shakespeare/>

zaharrak bezalaxe,<sup>27</sup> etxetik ateratzeko esku-huts, batere larridurarik gabe. Arropa lodi bakar bat hiru arropa mehe bezain egokia da helburu ia guztietarako, eta arropa merkea erraz lor daiteke, prezio komenigarrian: jaka lodi bat eros daiteke bost dolarren truke, eta beste hainbeste urtez iraungo du; praka lodiak, berriz, bi dolar ordainduta, eta larruzko bota-parea dolar bat eta erdi; udako kapelua dolar-laurden bat izango da, eta negukoa, ostera, hirurogeita bi zentimo eta erdi, baina are hobea da etxean egitea, debalde ia; modu horretan jantzita dagoen gizona, *bere irabaziekin* ordaindutako jantzia soinean duena, benetan al da hain pobrea, non ez baita egongo begirunerik erakutsiko dion gizon jakintsu bakar bat ere?

Tankera zehatz bateko jantzi bat eskatzen dudanean, nire jostunak hala esaten dit, serio-serio: «Ez dituzte halakoak egiten gaur egun»; «dituzte» horretan azpimarra jarri gabe, autoritate guztiz inperstonal bati buruz ari balitz bezala, Moiren<sup>28</sup> parekoa, eta zaila suertatzen zait nahi dudan moduko jantzi bat egin diezadan lortzea, jostunak ezin baitu sinetsi egiaz esan nahi dudanik esaten ari naizen horixe, egiaz naizenik hain eroa. Esaldi zorigaiztoko hori entzuten dudanean, pentsamenduan murgiltzen naiz une batez, hitz bakoitza nire kautan nabarmenduz, haren esanahia atzitu nahian, ulertu nahian zer odolkidetasun-gradu dagoen «halakorik egiten ez dituzten» horien eta *neronen* artean, ulertu nahian haiek zer aginpide-mota duten niri hainbeste eragiten didan auzi honetan; azkenean ere, jostunaren pareko misterioz erantzutea erabakitzen dut, «dituzte» horri garrantzirik eman gabe: «Egia da, ez zituzten egiten duela gutxira arte, baina orain bai, orain egiten dituzte». Zertarako balio dit jostunak neurtzea, baldin eta ez badit neurtuko izaera, ezpada sorbalden zabalera soilik, egitura huts bat banintz bezala jaka zintzilikatzeko? Ez ditugu gurtzen Kariteak,<sup>29</sup> ez eta Parkak<sup>30</sup> ere, baizik eta Moda. Jostuna aginpide osoz ari da iruten eta bilbatzen eta mozten. Parisko tximino nagusiak bidaia-kapelu bat jantzi duenez, Amerikako tximino guztiek gauza bera egingo dute ha-

---

27 Prieneko Biante filosofoari erreferentzia (K. a. VI. mendea): Greziako zazpi jakintsuetako bat zen.

28 Greziar mitologiako jainkosak, gizaki bakoitzaren patuaren irudiak.

29 Greziar mitologian, xarmaren, edertasunaren, naturaren, giza sormenaren eta ugalkortasunaren jainkosak.

30 Erromatar mitologian, patuaren jainkosak.

ren atzetik. Batzuetan atsekabeak hartzen nau, oharturik ezin dela gauza simple eta zintzo bat eskuratu mundu honetan gizonen laguntzarekin. Halakorik gertatzeko, lehenik prentsa ahaltsu batean barna pasa behar genituzke gizonak, haien barrutik nozio zaharrak kanporatzeko, eta nozio horiek ez zitezen berehala jaiki berriro; dena den, ziur han agertuko litzatekeela baten bat, apeta bat buruan, auskalo nork auskalo noiz jarritako arrautza batetik jaioa, suak ere ez baititu hiltzen halako gauzak, eta galdutzat jo beharko genuke aurrez egindako lan guztia. Dena den, ez dezagun ahaztu momia baten bidez iritsi zitzaigula gari egiptoarra.

Laburbilduz, ez dut uste esan daitekeenik jantzigintza arte baten parekoa bihurtu denik herrialde honetan edo beste edozeinetan. Eskura dauzkaten jantziak ipintzen dituzte gizonak gaur egun. Hondoa jotako marinela nola, hondartzan aurkitzen dutena jartzen dute, eta, distantzia txiki bat igarota, izan denborazkoa zein geografikoa, elkarren lepotik egiten dute barre, bakoitzaren maskarada ikusita. Belaunaldi guztiak trufatzen dira moda zaharrez, baina irmo sinesten dute berrietan. Barregarriak iruditzen zaizkigu Enrike VIII.ren eta Isabel erreginare<sup>31</sup> apaindurak, Kanibalen irlako<sup>32</sup> errege-erreginak balira bezainbeste. Jantzi oro, gizonaz gabetua denean, errukarria edo groteskoa da. Arroparen barrenean gordetzen den begirada serioa edo bizitza zintzoa dira algarak gerarazi eta herri baten jantziak sagaratu ditzaketen bakarrak. Arlekina koliko batek jota baldin badago, bere arropa alaiekin igaro beharko du trantzera. Soldadua kanoi-balaz zauritzen dutenean, erregearen jantzi purpura bezain aproposak suertatuko zaizkio arropa-piltzarrak.

Gizon-emakumeek patroï berriekiko erakusten duten zaletasun haur-antzeko eta basatiaren eraginez, dardaraka eta begi-oker ibiltzen da jendea, kaleidoskopio bati begira bezala, gaur egungo belaunaldiari zer figura eskatzen zaion asmatzeko xedez. Ekoizleek badakite, badakitenez, jendearen zaletasunak kapritxoan mende daudela zeharo. Demagun badirela bi patroï, kolore desberdineko jostura bakan batzuek bereizten dituztenak; bada, bietako bat barra-barra salduko da, eta bestea, berriz, apailean geratuko da, nahiz eta, sarritan, denboraldia igaro ostean,

---

31 Ingalaterrako erregea (1509-1547) eta erregina (1558-1603), hurrenez hurren.

32 Hala esaten zitzairen, modu orokorrean, «zibilizatu gabeko natiboak» bizi zirenen uharteei.

bigarrena bihurtuko den moda-modakoa. Konparazio batera, tatuatzea ez da jendeak dioen bezain ohitura izugarria. Markak azalaren barrenean egin arren eta hori aldaezina izan arren, horrek ez du esan nahi basakeria denik.

Ez dut sinesten ekoizpen industrialak denik gizonentzat arropa egiteko modurik egokiena. Langileen egoerak ingelesen patuaren antz handiagoa du egunetik egunera, eta ez da harritzekoa, izan ere, entzun eta ikusi dudanaren arabera, sistemaren xedea ez baita gizateria ganoraz eta zintzoki jantzea, ezpada, duda-izpirik gabe, enpresak aberastea. Gizonek, epe luzean, jomugan jarri dutenari bakarrik ematen diote. Hortaz, berehala porrot egin arren, hobe lukete jomuga goi samarrean ezarri.



Aterpeari dagokionez, ez dut ukatuko bizitzako premia bat denik gaur egun, nahiz eta egon badauden hainbat adibide hau baino herrialde hotzagotan bolada luzeak halakorik gabe iraun duten gizonenak. Samuel Laing-ek dioenez, «laponiarrak, larruzko jantzia duela soinean, eta itxura bereko zaku bat buru-sorbalden gainean, hainbat gau igaroko ditu elurretan, artilez jantzitako gizonaren bizitza ahitzeko moduko hoztasun-gradu batean».<sup>33</sup> Modu horretantxe lo egiten ikusi zituen hain zuzen ere Laingek, eta zera gehitzen du halere: «Ez dira beste jendea baino gogorragoak». Baina, ziur aski, gizonak ez dira luzaroan bizi izan Lurrean etxeak dakarren komenientzia deskubritu gabe, erosotasun domestikoak ezagutu gabe —esaldi horrek, hasieran, etxeak berak zekartzan pozak adieraziko zituen, ez familiari zegozkionak—; dena den, klima horietan zeinetan, gure ikuspuntuaren arabera, etxea nagusiki neguarekin edo euri-sasoiarekin lotzen baita, eta urtearen bi herenetan ez baita premiazkoa, eguzkitik babesteko izan ezik, erosotasun etxetiarrak guztiz partzialak eta aldian behingoak izango ziren. Gure klimari dagokionez, etxea gaueko estalkia baino ez zen izaten udan. Indiar «kazetetan»,<sup>34</sup> denda baten marrazkiak egun bateko ibilaldia adierazten zuen, eta zuhaitz baten azalean denda-ilara bat zizelkatzeak edo mol-datzeak toki hartan zenbat aldiz kanpatu zuten adierazten zuen.

33 Samuel Laing (1780-1868), Eskoziako idazlea eta esploratzailea. *Journal of a residence in Norway* laneko aipu bat da.

34 Natiboek tailatzen zituzten ideograma eta piktografiez ari da.



Gizonak hain gorputz-adar luzeak eta sendoak baldin baditu, ez da, bada, bere mundua estutu dezan, eta hormak eraiki ditzan bere inguruan. Hasieran, larru-hutsik zegoen gizona, eguratsean; baina, egoera hori zeharo atsegina izan arren eguraldi lasai eta epelean, eta eguneko argitan betiere, euri-sasoiak eta neguak, eta jakina eguzki-galdak, agian desagerrarazi egingo zuen gizonaren arraza lurraren azaletik, ez balu babes hartu etxe baten aterpean. Adam eta Eba, fabularen arabera, hostope baten azpian gorde ziren, soinean ezer jantzi aurretik. Gizonak etxe bat nahi zuen, epeltasun- eta erosotasun-gune bat: lehenik berotasun fisikoa eskuratzeko, eta afektuen gero.

Irudika dezakegu garai bat zeinean, gizateriaren umezaroan, hilkor asmotsu bat haitz-zirrikitu batean bildu baitzen, aterpe bila. Haur bat jaio aldiro, mundua berriro abiatzen da, hein batean behintzat; haurrek, beraz, maite dute kanpoan egotea, eguraldi hotz eta hezea egin arren. Haurrak etxetxoan jolasean jarduten dira, zaldiko-maldikoan bezalaxe, senak hala agintzen dielako. Ez al duzue oroitzen nolako grinarekin errepartzen zenioten, gazteak zinetenean, arroka-zuloei edo koba baten antza izan zezakeen edozeri? Horra hor geure baitan iraun duen arbasorik primitiboenaren irrika naturala. Haitzuloaz geroztik, aurrera egin dugu, eta erabili ditugu teilatu gisa palmondo-hostoak, zuhaitz-azalak eta -adarrak, liho harilkatua eta tenkatua, belarra eta lastoa, oholak eta egurra, harriak eta teilak. Azkenerako, ez dakigu zer den egurats zabalean bizitzea, eta gure bizitzak domestikoak dira, guk uste baino zentzu gehiagotan. Elkarrengandik urrun daude sutondoa eta larrea. Beharbada, ondo legoke egun eta gau gehiago igaroko bagenitu oztoporik ez dagoelarik geure eta zeruko gorputzen artean, eta poeta ez balitz hainbeste jardungo teilatupe batetik, edo santua ez balitz bertan egongo hain luze. Txoriek ez dute abesten haitzuloetan, ez eta usok ere beren inozentzia elikatzen usategietan.

Alabaina, norbaitek etxe bat eraiki eta bertan bizi nahi badu, zertxobait azeri jardun behar du, yankiak nola, ez dadin, azkenean, harrapatuta geratu lantegi batean, edo labirinto batean ogi-apurren arrastorik gabe, edo museo batean, edo umezurztegi batean, edo presondegi batean, edo mausoleo eder batean. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar du zenbateko lodiera den gutziz premiazkoa aterpe bati dagokionez. Herri ho-

netan ikusiak ditut penobscot indiarrak kotoizko oihal meheekin egindako dendetan gordeta, oinbete elurrez inguratuta, eta pentsatu izan dut poztuko lirakeela baldin eta elurra are garaia goa balitz, haizetik babestuko lituzkeelako. Garai batean, orain baino gehiago larritzen ninduenean egunerokoa zintzotasunez aurrera ateratzearen eta aldi berean neure egitasmoak gauzatzeko askatasuna izatearen kezka —zertxobait zaildu naiz, zoritxarrez—, kutxa handi bat ikusten nuen trenbidetik hurbil, sei oin luze eta hiru oin zabal neurtzen zituena, non gordetzen baitzituzten langileek beren erremintak gauetan, eta pentsatzen nuen ataka gaitzean zegoen gizon orok eros zezakeela halako bat dolar baten truke, eta, zulo txiki batzuk eginez —airea behintzat sar zedin—, kutxan babes zitekeela euria ari zuenean eta gauetan, estalkia itxi eta libre senti zitekeela guztiz. Ez zitzaidan iruditzen aukerarik txarrena, ez eta aukera mespretxagarria ere. Nahi bezain berandura arte gera zintezkeen esna, eta, jaiki aldiro, kanpora atera, ezein ugazabari sosik ordaindu gabe. Gizon askori heriotzara arte jazartzen zaizkio kutxa handiago eta luxuzkoago baten alokairua ordain dezan, eta gizon horiek ez lirakeke zerraldo izoztuko aipagai dudan kutxa horietako batean. Ez naiz brometan ari inondik ere. Ekonomiaren gaia arintasunez jorra daiteke, baina ezin dugu bazterrean utzi. Hemen, etxe eroak eraiki ziren arraza indartsu eta gogor batentzat —zeina aire zabalean bizi baitzen gehienbat—, Naturak eskura jarritako lehengaiekin soilik. Gookin-ek, Massachusettseko koloniako indiarren superintendentea zenak, zera idatzi zuen 1647an: «Haien etxerik finenak txukun estalita daude, trinko eta epel, zuhaitzen azalekin: arbolei sapa darienean hartzen dituzte, eta egur astunen pean lisatzen, lamina handiak sortu arte... Etxe karragoen kasuan, berriz, halako estalki batzuk egiten dituzte ihiekin, eta trinkoak eta epelak direla berdin-berdin, nahiz eta ez diren besteen parekoak... Ikusia naiz hirurogei edo ehun oin luze eta hogeita hamar oin zabal diren etxeak... Sarritan geratu naiz halako dendetan lotan, eta etxe ingeles bat bezain beroak direla iruditu zait».<sup>35</sup> Barruan tapizak eta apaundurak, txukun brodatuak, izan ohi zituztela gehitzen du, bai eta era askotako

---

35 Daniel Gookin (1612-1687) jenerala: Virginiako kolonoa, Massachusettsen ezarri zen. *Historical Collections of the Indians in New England* laneko aipua: gizona hil ostean argitaratu zuten, 1792an.

tresnez hornituta zeudela ere. Indiarrak hain aurreraturik zeuden non haizearen eragina ere erregulatzeko baitzuten, tapiz bat ipiniz teilatuko zuloaren parean zintzilik, soka baten bidez mugitzeko eran. Halako aterpeak, hasieran, egun batean edo bitan eraikitzen ziren gehienez, eta ordu gutxi batzuen buruan deseraiki zitezkeen; familia guztiek zeukaten halako bat, edo halako batean zuten bizilekua.

Estatu basatian, familia bakoitzak badu aterpe bat gutziz egokia, bere premia arrunt eta soilak asetzeko aski dena, baina uste dut ez nabilela oker, esaten baldin badut, nahiz eta aireko txoriek badituzten beren habiak, eta azeriek beren zuloak, eta basatiek beren dendak, gizarte zibilizatu modernoetan familien erdiak baino gutxiago dira aterpe baten jabe. Zibilizazioa gailentzen den herri eta hiri handietan, biztanle gutxi dira aterpe baten jabe. Gainerakoek zerga bat ordaintzen dute urtero jantzirik kanpokoena den horren truke, zeina ezinbestekoa baita hala udan nola neguan; diru-kopuru hori aski litzateke indiar denden herrixka oso bat erosteko; orain, ordea, biztanleak bizi osoan pobre izan daitezten balio du. Ez da nire asmoa jabegoaren abantailak goraiatzeko alokairuaren kontrakarrean, baina agerikoa da gizon basatia bere aterpearen jabea dela, hain zuzen ere, oso gutxi balio duelako, eta gizon zibilizatuak, aldiz, ezin duelako erosi hartzen duela bizilekua errentan, eta ezin duela hoberik alokatu epe luzean. Baten batek, ordea, erantzungo dit gizon zibilizatuak palazio bat dirudien etxe bat daukala, basatiaren bizitokiarekin alderatuta, zerga hori ordaintzearen poderioz. Urtean hogeita bost eta ehun dolar bitartean ordainduta —horiek dira prezioak landa-inguruan—, gizon zibilizatuak eskubidea du hainbat mendetako aurrerakuntzen fruituaz gozatzeko: apartamentu zabalak, margo eta horma-paper garbiak, Rumford erako tximiniak,<sup>36</sup> igeltsu-lanak, pertsiana veneziarrak, kobrezko punpak, malguki-morroiloak, soto eder bat eta beste hainbat gauza. Baina nolatan da posible, orduan, halako gauzak eskura dituen gizona, gehientsuenetan, gizon zibilizatu *pobre* bat izatea, eta gizon basatia, berriz, halakorik eduki gabe, aberatsa izatea basati gisa? Baldin eta baieztatzen bada zibilizazioa egiaz-

---

36 Rumfordeko konde Benjamin Thompson-ek (1753-1814) asmatu zuen: tximiniako kea gelan barna hedatzea eragozten zuen.

ko aurrerakuntza bat dela gizonaren kondizioan —eta uste dut hala dela, nahiz eta jakintsuek bakarrik baliatzen dituzten horren abantailak—, frogatu behar litzateke bizileku hobeak eraiki dituela, kostua handitu gabe —honela neurtzen da edozeren kostua: zenbat bizitza eman behar den gauza horren truke, berehala edo luzera begira—. Auzo honetako etxe arruntek, batez beste, zortziehun dolar balio dute, eta nekazariak halako kopuru bat bildu nahi balu, hamabost urtez egin beharko luke lan, familiaren zamarik ez izanda ere —gizonak, bere lanarengatik, eguneko dolar bat jasotzen duela kalkulatzeko baldin bada, zeren batzuek gehiago jasotzen baitute hori baino, eta beste batzuek gutxiago—; horrenbestez, bizitzaren erdia baino gehiago joango zaio bere *denda* eskuratu aurretik. Demagun alokairua ordaintzen duela horren orde: bi gaitzen artean hautatzea litzateke, onenean ere. Beraz, gizon basatiak bere denda aldatuko balu era horretako palazio baten truke, erabaki zuhurra izango litzateke?

Akaso ohartuta egongo zarete ezen, nire ikuspegitik, gisa horretako jabego hutsal bat edukitzearen abantaila bakarra, gizabanakoari dagokionez, etorkizunera begira funts bat edukitzea dela, hileta-gastuak ordaintzeari begira batez ere. Baina beharbada gizonak ez du zertan bere burua ehortzi. Edonola ere, gizon zibilizatuaren eta basatiaren artean dagoen alde azpimarragarri bat erakusten du honek guztiak. Ez da dudarik gure onerako ari direla zibilizazioaren bultzatzaileak, jende zibilizatuaren bizitza instituzio bihurtuz, halako moduan non gizabanakoaren bizitza xurgatzen baita, hein handi batean, arrazaren bizitza gordetze-ko eta hobetzeko, baina erakutsi nahi nizueke zer sakrifizioen ordaintetan eskuratzen den, gaur egun, abantaila hori, eta iradoki nahi nizueke, halaber, beharbada modua izan genezakeela abantaila guztiei eusteko, desabantailarik sufritu gabe. Zer esan nahi duzue diozuenean behartsuak beti zuen artean dituzuela,<sup>37</sup> edo hurrek hozkia daukatela gurasoek mahats gordina jatearen ondorioz?<sup>38</sup>

«Nik, Jainko Jaunak, zin dagit neure biziarengatik, ez duzuela berriro esango esaera hau Israelen!».<sup>39</sup>

---

37 Mateo 26: 11 bertsetari erreferentzia..

38 Ezekiel 18: 2 bertsetari erreferentzia.

39 Ezekiel 18: 3.

«Hara! Bizi guztiak dira nireak, aitaren bizia nahiz semea-rena. Bekatu egiten duena, hori hilko da».<sup>40</sup>

Nire auzoen egoerari erreparatzen diodanean —Concordeko nekazariak denak ere, eta beste klaseak bezain ondo moldatzen direnak ia—, ohartzen naiz lanean aritu direla hoguei, hogeita hamar, berrogei urtez, beren etxaldean egiazko jabe bihurtu aurretik; normalean, karga eta guzti jaso dituzte etxaldeak, edo dirua maileguan hartuta erosi. Beren lanaren heren bat eskaintzen diote etxearen ordainketari, baina, gehientsuenetan, oraindik ez da berena oso-osorik. Egia da, batzuetan, atxikitako kargak garestiagoak direla etxaldearen balioa baino, hortaz, karga handi bat bihurtzen da etxaldea bera, eta gizonak, hori jakinik ere, etxaldea eskuratzeko prest agertzen dira. Aholkulariei galdeturik, gauza harrigarri baten berri izan dut: ez dira gai kolpean zerrendatzeko herri honetan zorrik gabe beren etxaldearen jabe diren dozena bat laguneren izenak. Finka horien historia ezagutu nahi baduzu, hipotekaturik dauden bankura jo ezazu. Hain da bakana etxaldeari dagokion prezioa oso-osorik bere lanaren fruituarekin ordaindu duen gizona, auzo guztiak baitira gauza nor den seinalatzeko. Ez dut uste halako hiru gizon daudenik Condorden. Merkatariei buruz esan dena, hots, gehiengoak huts egingo duela —ehunetik laurogeita hamazazpik bai behintzat—, orobat esan liteke nekazari buruz. Merkatariez bezainbatean, ordea, haietako batek dio, egoki esan ere, beren porrot gehienak ez direla diruzkoak, ezpada beren betekizunak bete ezinari dagozkionak, ez zaielako hala egitea komeni; hortaz, izaera moralak huts egiten du. Baina horrek auziaren alderdi askoz okerrago bat erakusten digu, eta aditzera ematen digu, gainera, agian beste hiruetako inork ere ez duela bere arima salbatuko, eta, aitzitik, porrot egin dutela zentzu okerrago batean, zintzoki huts egiten dutenekin alderatuta. Gure zibilizazioaren puska handi batek porrota eta arbuioa baliatzen ditu jauzi-ohol gisa, eta bertatik egiten ditu saltorik bikainenak; basatia, aldiz, hortxe dago, gosetearen ohol zurrunean. Haatik, urtero antolatzen da hemen Middlesex-eko ganadu-azoka,<sup>41</sup> éclat handiarekin,

---

40 Ezekiel 18: 4.

41 Middlesex konderriko Nekazaritza Elkarteak urtero antolatzen zuen nekazaritza-produktuen azoka bat, iraillean edo urrian. Konderri horretan dago Concord.

nekazaritzaren makinaren engranje guztiak aise biratuko balira bezala.

Nekazariak bizigarritasunaren arazoa konpondu nahi du, arazoa bera baino konplikatuagoa den formula batekin. Lollarriak lortu nahi baditu, ganadu-buruekin espekulatzen du. Tranpa bat prestatua du, trebezia paregabez, erosotasuna eta independentzia ehizatzeke, eta hara non, buelta emanda, zangoa bertan harrapatuta geratu zaion. Horregatik da pobrea, eta antzeko arrazoi baten ondorioz gara gu denok pobreak, basatien erosotasunekin alderatuta, nahiz eta luxuz inguratirik gauden. Chapmanek kantatzen duen eran:

«Gizonen gizarte faltsuak  
lurreko handitasunaren truke  
loria zerutiar guztiak urritzen ditu airean».<sup>42</sup>

Eta nekazariak etxea bereganatzen duenean, ez da aberatsagoa izango, pobreagoa baizik, eta, egiaz, etxeak bereganatuko du nekazaria. Nik ulertzen dudanaren arabera, Momok argudio baliozko bat adierazi zuen Minervak<sup>43</sup> eraikitako etxearen kontra: «mugiezina izanik, ezin zaio ihes egin auzokide txar bati»;<sup>44</sup> oraindik ere adieraz genezake halakorik, gure bizitokiak hain baitira jabego astunak, non etxeak ez baizik espetxeak direla iruditzen baitzaigu, eta ihes egin beharreko auzokide txarra gu geroni gara, gure izate doilorra. Herri honetan ezagutzen ditut gutxienez familia bat edo bi, aldirietako etxea saldu eta hirigunera aldatzeko gogoz egonak direnak belaunaldi batez ia, baina ez dute izan horretarako modurik, eta heriotzak baizik ez ditu askatuko.

Etxe moderno bat eta bere hobekuntza guztiak alokatzeke edo erosteko gauza dira herritar *gehienak*, noski. Zibilizazioak gure etxeak hobetu dituen arren, ez ditu neurri berean hobetu etxeetan bizi diren gizonak. Palazioak sortu ditu, ez ordea nobleak eta erregeak. Eta, *gizon zibilizatuaren egitasmoak ez baldin badira basatiarenak baino laudagarriagoak; bizitzaren puskarik han-*

---

42 George Chapman (1559-1634), Ingalaterrako antzerkigilea, itzultzailea eta poeta. *The Tragedy of Caesar and Pompey* laneko aipua (1631).

43 Greziar mitologian, sarkasmoaren eta ironiaren pertsonifikazioa zen Momo; Minerva, berriz, jakintzaren, arteen eta estrategia militarren jainkosa da erromar mitologian.

44 John Lemprière, *Bibliotheca Classica*, 1788.

*diena eman baldin badu lanean, oinarrizko beharrak eta erosotasunak eskuratzeko soilik, zergatik eduki behar luke basatiak baino egoitza hobeagoa?*

Baina nola moldatzen da gutxiengo pobrea? Beharbada, ikusiko dugu ezen, kanpo-baldintzei dagokionez, batzuk basatiaren gainetik kokatu diren bezala, proportzio berean kokatu direla beste batzuk haren azpitik. Klase baten luxuaren ifrentzua da beste klasearen txirotasuna. Alde batean, jauregia; bestean, umezurztegia eta «behartsu isilak». Milaka lagun jardun ziren piramideak eraikitzen, faraoiak haiexetan lurperatzeko; bada, langile haiek guztiek berakatta zuten elikagai bakarra, eta bali-teke ganorazko hilobirik ez izana. Palazioko erlaitza bukatu duen hargina, akaso, indiar denda bat baino are okerragoa den etxola batera itzuliko da gauero. Akats bat da pentsatzea, herrialde bat itxuraz zibilizatua izanagatik ere, bertako biztanleen puska oso handi bat ez dela bizi basatiak bezain baldintza eskasetan. Pobre beheratuez ari naiz orain, ezen ez aberats beheratuez. Honen berri izateko aski dut ingurura begiratzea, gure zibilizazioaren azken hobekuntza den trenbidearen bazterretara, non baitaude txabola mordoxka bat: egunero egiten ditudan paseotan, hortxe ikusten ditut gizaki batzuk, txerri-kortatan bizi direnak, eta neguan ere atea zabalik mantentzen dutenak argi pixka bat izateko; egur-mordorik gabe, hala gazteen nola zaharren figurak uzkurthurik daude denbora guztian, hotzaren eta miseriaren poderioz beren baitara biltzearen ohitura zaharra dela kausa, eta orobat uzkurtu da beren gorputz-adarren eta gaitasunen garapena. Bidezkoa da, bidezkoa denez, klase horri erreparatzea, haien lanaren bidez gauzatzen baitira belaunaldi hau bereizten duten aurrerakuntzak. Antzeko egoeran bizi dira, neurri handiagoan edo txikiagoan, Ingalaterrako behargin guztiak, horixe baita munduko fabrika nagusia. Irlanda aipatuko dizuet bestela, mapetako puntu zuri ezezagunetako bat. Alderatu dezagun nolakoa den irlandarraren egoera fisikoa eta nolakoa, berriz, Ipar Amerikako indiarrarena, edo Hegoaldeko Itsasoko uharteetako salbaiarena, edo beste edozein arraza basatiko kiderena, gizon zibilizatuarekin harremanetan jarri baino lehen betiere. Eta ez dut dudarik, halere, jende horren agintariak eta agintari zibilizatuak neurri berean direla jakintsuak. Egoera honek miseria eta zibilizazioa bateragarriak direla frogatzen du, besterik ez. Ez naiz

ari —ez da beharrezkoa— Hegoaldeko Estatuetakoa langileez, zeinek ekoizten baitituzte herrialde honetako lehengai nagusiak, berek ere Hegoaldeko ekoizpenak izanik aldi berean; baldintza neurritzkoetan dihardutenez mintzatzera mugatuko naiz.

Gizon gehienek, dirudienez, ez dute inoiz pentsatu zer ote den etxe bat, eta pobreak dira, horretarako beharrik gabe, uste baitute auzokideen pareko etxe bat izan behar dutela. Gizona beharturik balego bezala jostunak egindako jantzia ipintzera, edo, lastozko kapelua zein marmota-larruzko txanoa bazterrean utzirik, koroa bat erosteko aski diru ez izateaz kexatuko balitz bezala! Oraintxe dauzkagunak baino etxe are komenigarriagoak eta luxu itzelagokoak asmatu daitezke, noski, nahiz eta denok onartuko genukeen gizona ez litzatekeela gauza izango halakorik ordaintzeko. Gauza gehiago eskuratzeko moduari bueltaka jardun behar al dugu beti, gutxiagorekin konforme egoten ikasi beharrean batzuetan behintzat? Horrenbestez, hiritar errespeta-garriak gizon gazteari irakatsi behar al dio, esanaren eta ekinaren bitartez, gizon gazteak zapata zein aterki alferrekoen kopuru jakin bat eskuratu behar duela hil aurretik, bai eta gonbidatuentzako gela hutsak ere, gonbidatu hutsalei zuzenduak? Zergatik ez dira gure altzariak arabiarrarenak edo indiarrarenak bezain soilak? Gure arrazaren ongileez pentsatzen dudanean —zeinak jainkotu baititugu zeruaren mezulariak balira bezala, gizonari opari jainkozkoak ekartzearen arduradunak balira bezala—, ez dut irudikatzen inongo segiziorik dakartenik atzetik, inongo gurdirik, altzari apainez beterik. Demagun hau onartzen dudala —eta onarpen bitxia da, gero—: moralki eta intelektualki arabiarraren gainetik gauden heinean bakarrik izan behar luketela gure altzariak harenak baino konplexuagoak! Gaur egun, leporaino beteta daude gure etxeak tramankuluz eta trepetaz, eta, etxeoandre onak hobe luke guzti-guztiak zaborretara bota, eta goizeko lanak burutu horren orde. Goizeko lanak! Auroraren<sup>45</sup> lotsak eta Memnonen<sup>46</sup> musika, nolakoak izan behar lukete gizonaren *goizeko lanek* mundu honetan? Hiru kare-harri puska neuzkan lan-mahaiaren gainean, baina jota geratu nintzen ikusi nuenean egunero-egunero kendu behar niela hautsa, nire

---

45 Erromar mitologian, egunsentiaren jainkosa.

46 Auroraren semea eta Etiopiako erregea, greziar mitologiaren arabera.



buruko altzariak artean hautsez beterik zeuden arren; leihotik kanpora jaurti nituen hiru harriak, atsekabetuta. Nola eduki nezake, bada, etxe bat altzariz betea? Aukeran, nahiago aire zabalean eseri beti, hautsik ez baita biltzen belarrean, salbu eta gizonak lurra birrindu duen tokietan.

Luxuaren eta lasaikeriaren zaleek ezartzen dituzte modak, eta artaldeek zorrotz jarraitzen dituzte gero. Azkar asko deskubrituko du hori bidaiariak, ostaturik onenetara —hala esaten zaie— joaten bada, tabernariak halako Sardanapalo<sup>47</sup> bat balitz bezala hartuko baitute, eta, haien huskerietara markurtzen bada, laster zikiratuko baitute guztiz. Uste dut, treneko bagoiari dagokionez, nahiago dugula dirua luxuan xahutu, ezen ez seguratasunean eta komenientzian; baina, bi horiek ziurtatzen ez badira, arriskua dago treneko bagoia ez dela izango egongela moderno bat baino askoz hobea, dibanez, otomandarrez, itzaletakoz eta beste ehunka bitxi orientalez josia, zeinak mendebaldera ekartzen baititugu, nahiz eta haremeko andreen tzat eta Zeruetako Inperioko seme maneratsuentzat asmatu baitziren hasieran, eta Jonathanek<sup>48</sup> lotsatuta egon behar luke halakoen izena ezagutzeaz. Nahiago nuke kuia baten gainean jesarri bakar-bakarrik, belusezko kuxin batean egon baino beste jende pila batekin. Nahiago nuke Lurrean barna nahieran ibili, idiek tiratutako gurdi batean, ezen ez zerura txangoa egin trenbagoi dotore batean, eta malaria arnastu bidaia osoan.

Gizonaren bizitza soila eta biluzia zen garai primitiboetan, eta abantaila bat behintzat bazekarren horrek berekin: gizona naturako egoiliarra zen oraindik. Behar bezala jan eta lo egin ostean, bidaiari ekiten zion berriro. Denda erraldoi batean balego bezala bizi izan zen mundu honetan: zeharkatu zituen bailarak, gurutzatu zituen ordokiak, eta igo zen mendi-gailurretara. Baina hara non bihurtu zen gizona bere erreminten erreminta. Gose zenean fruituak bere kasara biltzen zituen gizona, gaur egun, nekazari bilakatu da, eta zuhaitzaren azpian aterpetzen zena, berriz, giltzain. Jada ez dugu kanpin-denda ezartzen, bertan gaua igarotzeko; lurrean ezarri eta zerua ahaztu dugu. Kristautasunarekin bat egin dugu, *agri*-kultura lantzeko modu hobea delakoan.

---

47 Asiriako azken erregea (K. a 661- K.a. 631), agintari endekatutzat jotzen dena.

48 XIX. mendean, izen arrunta zen estatubatuarren artean.

Familia-jauregi bat eraiki dugu mundu honetarako, eta familia-hilobi bat, berriz, hurrengorako. Gizonak egoera horretatik bere burua askatzeko egiten duen borrokaren berri ematen dutenak dira artelanik onenak, baina gure artearen ondorio bakarra da beherako egoera hau eroso gertatzen zaigula, eta goikoa, ordea, ahaztu egiten dugula. Herri honetan ez genuke tokirik izango arte *ederrentzat*, baldin eta halakorik iritsi balitzaigu, ez baitaukagu euskarri egokirik gure bizitzetan ez etxeetan, ezta kaleetan ere. Ez daukagu kakorik margolanak zintzilikatzeko, ezta apalik ere heroien edo santuek soinak paratzeko. Aztertzen dudanean nola eraikitzen eta ordaintzen ditugun gure etxeak —edo nola uzten ditugun ordaindu gabe—, eta nola kudeatzen eta mantentzen diren etxeko kontuak, nire kautan galdetzen dut nolatan zoruak ez duen amore ematen bisitariaren pisuaren pean, tximiniaren hegian erakusgai dauden zirtzilkeriei so dagoelarik hura, eta nolatan ez den jausten bisitaria sotora, oinarri sendo, zintzo eta lurtar baten gainera. Ohartua nago, ezinbestean, bizitza aberatsa eta fineziaz betea deitzen dugun hori jauzi batez harrapatu beharreko aukera baten antzekoa dela, eta ez naiz gauza bizimolde hori apaintzen duten arte *ederrekin* gozatzeko, aukera harrapatzeko egin behar den jauziari eskaintzen diot eta nire arreta oso-osoa, eta gogora datorkit ezen giza giharren ahalegin hutsez egindako jauzirik handiena, inoiz erregistratu direnen artean, arabiar alderraiek egin zutela, gai baitira, esaten denaren arabera, hogeita bost oinetako altuerarainoko saltoak egiteko. Beraz, gizona, bestelako laguntzarik ez badu behintzat, lurrera eroriko da halabeharrez, distantzia horretaraino goratu ostean. Hauxe da halako ezegokitasunaren egileari egokitu nahi diodan lehen galdera: zu nork bultzatzen zaitu? Porrot egiten duten laurogeita hamazazpietako bat zara, ala, kontrara, arrakasta duten hiruetako bat? Erantzun galdera horiei, eta, orduan, zure txikikeriei erreparatuko diet beharbada, eta apaingarriak direla irudituko zait. Gurdia zaldiaren aurretik jarriz gero, ez da ederra izango, ezta erabilgarria ere. Gure etxeak objektu politekin apaindu aurretik, paretak biluztu behar ditugu, gure bizitzak ere bai, eta etxearen gobernamentu ederra eta bizimolde ederra ezarri zutarri gisa; nolana ere, edertasunarekiko zaletasuna aire zabalean jorratzen da batez ere, non ez baitago etxerik ez etxezainik.

Johnson zaharrak, *Wonder-Working Providence* liburuan,<sup>49</sup> hala dio, herri honetako lehen kolonoei buruz ari dela —bere ga-raikideak—: «Lurrean gorde ziren, mendi-hegalen babesean, eta enbor batzuk garbituta, sua piztu zuten, su ketsua, mazelaren puntu gorenean». Ez zuten «etxerik eduki», dio, «harik eta lurak, Jainkoaren bedeinkazioarekin, ogia ekarri zien arte elikatzeke», eta lehen urteko uzta hain izan zenez urria, «ogia mehe-mehe moztu behar izan zuten bolada luze batean». Herbehere Berriko probintziako idazkariak,<sup>50</sup> 1650. urtean, hau azaldu zien, nederlanderaz, probintzia hartan lursailak hartu nahi zituztenei: «Herbehere Berrian, eta bereziki Ingalaterra Berrian, etxalde bat beren gustuen arabera eraikitzeke baliabiderik ez dutenek, hasierako garaietan behintzat zulo karratu bat egiten dute zoruan, soto baten erara, sei edo zazpi oineko sakonera duena, egokia irizten dioten bezain luzea eta zabala; paretak egurrez estaltzen dituzte eta, ondoren, egurra bera forratzen dute zuhaitz-azalekin edo beste zerbaitekin, lurra ez dadin behera etorri; egur-oholak jartzen dituzte zoruan ere, eta teilatua egiteko, azkenik, ohol gehiago jartzen dituzte, goroldioz edo zuhaitz-azalez estalirik; modu horretan, familia osoak lehor eta bero bizi daitezke etxeotan, bi edo hiru edo lau urtez, kontuan harturik, noski, trenkadak gehitu dakizkiokeela bizilekuari, familiaren tamainaren arabera moldatzeko. Ingalaterrako gizon aberats eta nagusiek, kolonien hasieran, modu horretan eraiki zituzten beren lehen egoitzak, bi arrazoi zirela kausa: lehenik, denborarik ez xahutzeko eraikuntzan, eta hurrengo urtean janari-eskasian ez egoteko; bigarrenik, Aberritik ekarritako nekazari xumeen saldoak ez adoregabetzeko. Hiru edo lau urteren buruan, herrialdea nekazaritzara egokitu zenean, etxe ederrak eraiki zituzten berentzat, milako batzuk gastatuz».<sup>51</sup>

Gure arbasoek, hala ekinda, zuhurtasun-erakutsi bat egin zuten behinik behin: badirudi premiarik larrienak ase nahi zituztela ezer baino lehen. Baina, gaur egun, asetzen al ditugu

---

49 Edward Johnson (1598-1672), Ingalaterrako lurjabea. 1636an iritsi zen Ingalaterra Berrira. *The Wonderworking Providence of Sion's Savior in New England* liburua argitaratu zuen.

50 Herbeheretarren kolonia Ipar Amerikan, 1613an ezarria. Ingelesek konkistatu zuten 1664an, eta New York jarri zioten. Idazkariaren izena: Cornelis van Tienhoven.

51 Aipuren iturria: Edmund Biley O'Callaghan, *The Documentary History of the State of New York* (1851).

premiarik larrienak? Gure egoitza luxuzkoetako bat erosteko aukeraz pentsatzen dudanean, burutik kentzen dut berehala, zeren, nolabait esatearren, herrialdea oraindik ez dago egokituta giza kulturara, eta, oraindik ere, mehe-mehe moztu behar izaten dugu gure ogi *espirituala*, gure aurrekoek garizko ogia baino are finago. Ez dut esan nahi, garaiak gogorrek izanda ere, bazterrean utzi behar denik apaindura arkitektoniko oro, baina, gure etxeak edertu nahi baditugu, eder ditzagun, lehenik eta behin, gure bizi-tzarekin harremanean sartzen diren guneak, krustazeoek egiten duten eran, neurriz kanpo zamatu ordez. Baina, hara! Halako etxe baten edo biren barruan suertatu naiz, eta badakit, ondo jakin ere, nola forratzen dituzten.

Ez baikara gizagalduak, gaur egun ezin gara bizi kobazulo batean edo denda batean, edo larruak jantzita ibili; beraz, hobe da, hobea denez, gizateriaren asmakuntzak eta industriak eskaintzen dituen abantailak onartzea, nahiz eta garesti ordaintzen diren. Ni bizi naizen moduko auzoetan, errazago eta merkeago eskuratzen dira oholak, teilak, karea eta adreilua, eta neurri txikiagoan lor daitezke kobazulo aproposak, enbor osoak, zuhaitz-azalen kopuru nahikoa, edo baita buztina eta harri lauak ere. Ondo ezagutzen dut gaia, praktikan eta teorian aztertu baitut, eta ezagutzatik mintzo natzaizue. Jakintza apur bat gehiagorekin, material horiek erabil genitzake gaur egungo aberatsenak baino aberatsago bihurtzeko, eta gure zibilizazioa bedeinkazio bat izan dadin. Gizon zibilizatua zer da, bada: eskarmentu eta jakintza handiagoa duen basati bat. Baina hel diezaiodan behingoz nire esperimentuari.



1845eko martxoaren amaiera aldera, aizkora bat maileguan hartu eta Walden lakuaren inguruko basora jo nuen, nire etxea eraiki nahi nuen tokitik albait hurbilen, eta hantxe hasi nintzen pinu zuri luze eta gezi-tankerako batzuk mozten, gazteak artean, egurra biltzeko asmoz. Zaila da ezeri ekitea mailegurik hartu gabe, baina, agian, horixe da modurik eskuzabalena bestek zure egitasmoan interesa izan dezaten baimentzeko. Aizkoraren jabeak, askatu zuenean, esan zidan bere bihotzeko azukre kokorra zela tresna hura, baina jaso baino zorrotzago itzuli nion. Pinuz beteriko mendi-magal atsegin batean jardun nintzen la-

nean; handik erreparatzen nion lakuari, eta basoko argiune txiki bati, zeinean hazten ari baitziren pinuak eta intxaurren beltzak. Lakuko izotza guztiz urtu gabe zegoen oraindik, baina baziren irekidura batzuk, eta aintzira ilun-iluna zegoen, eta urez lepo eginik. Lanean jardun nintzen egunetan elurte arin batzuk izan ziren, baina, gehienetan, burdinbidera ateratzen nintzenean etxera itzultzeko asmoz, hondar-mordo horixkek distira egiten zuten lanbro-giroan, errailek ñir-ñir egiten zuten udaberriko eguzkitan, eta hegatzabala eta euli-txoria eta beste txori batzuk aditzen nituen kantuan, beste urte berri bati ekiteko etorriak. Udaberriko egun atseginak ziren, zeinetan gizonaren bihozminaren negua, elurra nola, urtzen ari baitzen, eta bizitza, ordura arte lozorroan egonagatik, malgutzen eta luzatzen hasia baitzen. Behin batean, aizkora askatu zitzaidan kirtenetik, eta intxaurren beltz gazte-gazte baten pusketatxo bat moztu nuen nahi gabe; berriro ahokatu nuen, harri baten laguntzaz, eta aintzirazulo batean sartu nuen tresna osorik, egurra handitzeko xedez; bada, une hartan, hara non suge marradun bat ikusi nuen uretan sartzen: hondoan etzanda egon zen han inguruan geratu nintzen denbora guztian —ordu-laurden bat baino gehiago— batere gogaituta ez balego bezala, beharbada oraindik ez zelako guztiz lozorrotik atera. Iruditu zitzaidan antzeko arrazoi batengatik daudela gizonak, gaur egun, egoera baxu eta primitibo batean; aldiz, beren inguruan nabarituiko balute udaberriko berriaren eragina, halabeharrez altxatuko lirake bizitza altuago eta etereoago baterantz. Lehenago ere ikusiak nituen, bidean netorrelarik goiz izoztuetan, suge batzuk, gorputza zurrun, eguzkiak desizozteko zain. Apirilaren 1ean, euria egin zuen, izotza urtu zen, eta, egunaren goiz partean, zeinean lanbroa nagusitu baitzen, antzara deslai bat aditu nuen, itsumustuan eta kakara eginez, galdu-itxuran, edo lanbroaren espiritua balitz bezala.

Hortaz, zenbait egunez segitu nuen egurra moztan eta lantzen, takoak eta habeak egiten orobat, nire aizkora estuarekin betiere; ez zitzaidan otu komunikatzea merezi zuen pentsamen-durik, ez eta pentsamendu dotorerik ere, eta ahapean abesten nuen:

Gizonek diote gauza asko dakitela,  
eta hara! Hartu dituzte hegoak,

arteak eta zientziak,  
eta era askotako aplikazioak  
baina haizeak putz egiten duela  
besterik ez dakigu.<sup>52</sup>

Zutabe nagusiak landu nituen, sei hazbete karratu neurtu arte; habe gehienak, berriz, bi aldetatik garbitu nituen, eta bes-telako oholak alde batetik bakarrik, beste aldean bere horretan utziz azala, zerratutako oholak bezain zuzenak izan zitezen, baina sendoagoak. Ziriekin lotzen nituen denak, tentu handiz, ordurako tresna gehiago hartuak nituen-eta maileguan. Basoan igarotzen nituen egunak ez ziren oso luzeak; hala ere, janaria eramaten nuen, ogia eta gurina normalean, eta jakiak biltzeko erabilia nuen egunkaria irakurtzen nuen eguerdian, moztu nituen pinu-adar berdez inguraturik; haien lurrinak nire ogia blaitzen zuen nolabait ere, eskuak erretxin-geruza lodi batez estalita nituela konturatzen bainintzen. Bukatu aurretik, pinua- ren adiskide bihurtua nintzen, haren etsaia baino gehiago: ale batzuk eraitsi nituen arren, hobeto ezagutzen nuen orain. Batzuetan, basoetako ibiltariren batek aditzen zuen nire aizkoraren soinua, hurbiltzen zitzaidan, eta adeitasunez aritzen ginen berri- ketan nik sortutako ezpalei buruz.

Ez nintzen presaka jarduten lanean, ahalik eta zuku gehien atera nahi bainion jardunari, eta, apirilaren erdialdean, mihizta- tuta neukan etxea, altxatzeko prest. Lehenago, bere etxola erosi nion James Collins delako bati —Fitchburg-eko burdinbidean lan egiten zuen irlandarra bera—, oholak egiteko. James Collinsen etxola apartekotzat zeukaten. Hura ikustera joan nintzenean, gi- zona ez zegoen han. Kanpoan ibili nintzen zer suma; hasieran ez ninduten ikusten barrutik, leihoa oso sakona eta altua baitzen. Txikia zen etxola, teilatua puntan, eta ez zeukan nabarmentze- ko moduko beste ezer; lokatz mordo bat bildua zuten inguruan, bost oin egiteraino, konpost mordo bat balitz bezala. Teilatua zen zatirik sendoena, nahiz eta konkorrak zituen ugari, eta eguzkiaren poderioz hauskorra izan. Ez zegoen ataririk, bidex- ka iraunkor bat soilik, oiloak ate azpitik pasa zitezen. C. andrea atera zen orduan, eta barrutik ere begira nezala eskatu zidan. Ni hurbiltzean, barrura sartu ziren oiloak. Ilun zegoen, eta zo-

---

52 Thoreauren beraren poema.

rua lohituta ageri zen leku gehienetan; heze, hotz eta umel; ohol bakan batzuk zeuden han eta hemen, mugitu ezin zitezkeenak. Andreak lanpara bat piztu zuen, sabaia eta paretak erakusteko, bai eta ohe azpian zetzan ohol-zorua ere, eta ohartarazi zidan sotoa ez zapaltzeko —hauts-zulo bat, bi oin sakona—. Bere hitzetan, «ohol onak zeuden teilatuan, ohol onak buelta guztian, eta leiho on bat»; hasieran bi kristal zituen, baina horietako bat katuak zeharkatu zuen berriki. Baziren su bat, ohe bat eta eserleku bat, haur bat ere bai —jaioa zen lekuan—, zetazko guardasol bat, ispilu bat urre-koloreko markoarekin eta kafe-ehogailu itxuraz berri bat, haritzeko kako batetik zintzilik. Azkar itxi genuen tratua, James itzulia baitzen bien bitartean. Neuk lau dolar eta hogeita bost zentimo ordainduko nituen gau hartan bertan, berak goizeko bostetarako hustuko zuen dena, eta ez zion inori salduko tarte horretan: neu seiretan jabetuko nintzen etxolaz. Esan zidan hobe zitekeela, beharbada, apur bat garaiz etortzea, eta aurrea hartzea zenbait erreklamazio lauso baino guztiz bidegabereri —alokairuaren eta erregaiaren ordainketari zegozkion—. Ziurtatu zidan hura zela eragozpen bakarra. Seiretan, gizona eta bere familia ikusi nituen bidean. Fardo handi batean bilduta zeuzkaten beren ondasun guztiak —ohea, kafe-ehogailua, ispilua, oiloak—; denak, salbu eta katua: izan ere, basora ihes egin eta basakatu bilakatu baitzen, eta, gerora jakin nuenez, marmotentzako tranpa batean jausi eta katu hil bihurtu zen azkenean.

Goiz hartan bertan eraitsi nuen etxola, iltzeak kenduz, eta laku ingurura eraman nuen dena, gurdia asko zamatu gabe: belarretan ipini nituen oholak, kolorea eta forma berreskura zitzaten eguzkitan. Birigarro goiztiar batek nota bat edo bi abestu zizkidan baso-bideetan barna nenbilela. Patrick<sup>53</sup> delako gazte batek traizioan jakinarazi zidan ezen Seeley auzokideak, irlandarra bera, patrikan sartu zituela iltze artean onargarri, zuzen eta erabiltzeko moduko batzuk, baita zirrindolak eta bernoak ere, ni gurdiarekin atzera eta aurrera nenbilen bitartean; gero, itzuli nintzenean, hantxe geratu zen morroia egun-pasan, kezkarik gabe eta natural behatuz hango hondamenari, udaberri-sasoiko pentsamenduekin, lana urria baitzen bestela ere. Ikuslegoa or-

---

53 Izen arrunta irlandarren artean.

dezkatzea zen bere zeregina, eta, horrela, Troiako jainkoen erasketaren parera goraraztea egun hartako gertakari hutsala.

Hegoalderantz lerratzen zen mazela batean zulatu nuen nire sotoa, marmota batek bere zuloa egin zuen leku berean, zuma- eta masusta-sustraiak baztertuz, bai eta landaredi-geruza guztiz mehe bat ere; sei oin karratu neurtzen zuen, eta zazpi oin karratu sakoneran: hondoan, hondar fina topatu nuen, zein-ean patatarik ez bailitzateke izoztuko negurik gorrienean ere. Alboetan mailak egin nituen, harriz estali gabe, baina eguzkiak ez zuenez inoiz jotzen han, hondarra bere horretan mantentzen zen. Bi orduko lana baino ez. Bereziki gozagarria iruditu zitzaidan luberritzeko lana, izan ere, latitude ia guztietan aritzen baitira gizonak lurra zulatzen, tenperatura egonkor baten bila. Hiriko etxerik itzelenak ere badauka, azpian, soto bat, sustraiak gordetzeko, betidanik egin den bezala; gaineko egitura desagertu eta luzera, etorkizunak ikusgai izango du etxearen arrastoa lurrean. Etxeak, azken batean, gordelekuaren atari bat dira.

Maiatzaren amaieran etxea altxatu nuen zenbait ezagunen laguntzarekin, ez hainbeste laguntza-beharrik nuelako, ezpada adiskidetasuna lantzeko aukera ona zelako. Inor ez da inoiz sentitu ni bezain ohoratua halako laguntzaileak edukitzeaz. Uste dut etorkizunean egitura handiagoak altxatzea dela beren patua. Uztailaren 4an hasi nintzen nire etxean bizitzen, oholak eta teilatua jarri bezain pronto; oholak, izan ere, tentu handiz zorroztu eta muntatu genituen, guztiz iragazgaitzak izan zitezen; dena den, oholak jarri aurretik, tximinia baten oinarria ezarri nuen alde batean, bi gurdikada harri bilduz lakuan, eta besotan ekarriz maldan gora. Udazkeneko aitzur-lanen aurretik eraiki nuen tximinia, suaren beharrik izan aurretik; bien bitartean, etxetik kanpo prestatzen nuen janaria, zoruan, goizean goiz: uste dut, hainbat zentzutuan, modu horixe egokiagoa eta atseginagoa dela ohiko sukaldaritzan-moldea baino. Baldin eta, ogia egin egon aurretik, ekaitza egiten bazuen, ohol gutxi batzuk finkatzen nituen suaren gainean, eta azpian esertzen nintzen hari begira; zenbait ordu polit ematen nituen horrela. Sasoi hartan eskuak bete lan ibiltzen nintzenez, gutxi irakurtzen nuen, baina paper-pusketaren bat topatzen banuen zoruan — zeinak euskarriaren eta mahai-zapiaren lanak egiten baitzituen



orobat—, ederki baliatzen nuen denbora-pasa gisa: *Iliadaren* xede berbera betetzen zuen.



Merezi luke neroni baino are deliberamendu handiagorekin jardutea eraikuntzan: aintzat hartzea, adibidez, zer-nolako oinarria duten ateeak, leihoak, sotoak edo ganbareak gizonaren izatean, eta, beharbada, inoiz ez altxatzea egiturarik, harik eta horretarako arrazoi garrantzitsurik topatu arte, gure behin-behineko premietatik harago. Txoriak bere habia eraikitzen duen doikuntza berarekin eraiki behar du gizonak bere etxea. Gizonak beren eskuz eraikiko balituzte beren bizilekuak, eta janaz hornitu beren burua eta beren familiak, modu soilean eta zintzoan, ez ote litzateke gaitasun poetikoa modu unibertsalean garatuko, txori guztiek kantatzen duten bezala beren zereginetan buru-belarri dabiltzanean? Baina, hara non aritzen garen birigarroen eta kukuen pare: beste txoriek eraikitako habietan jartzen dituzte haiek arrautzak, eta ez dute bidaiaririk alaitzen beren txio lauekin. Zurginari esleitu behar ote genioke, betirako, eraikitzearen gozamina? Arkitekturak zer leku du gizonen masaren eskarmentuan? Nire ibilaldi guztietan ez dut sekula topatu bere etxea eraikitzearen langintza simple eta naturalean buru-belarri murgilduta zegoen gizonik. Komunitateari gagozkio. Jostunak osatzen omen du gizon baten bederatzirena, baina gizonaren parte dira, halaber, predikaria, merkataria eta nekazaria. Non amaitzen da lanaren banaketa hori, eta zer xedetarako balio du azkenean? Dударik ez dut beste norbaitek pentsa *dezakeela* niregatik, baina, hala eta guztiz ere, ez da desiragarria nik neuk neure kabuz pentsatzeari uzteraino gertatzea halakorik.

Bai, herrialde honetan badira arkitekto deritzenak, eta horietako bati behintzat aditu diot<sup>54</sup> honako ideia hau azaltzen, errebelazio bat balitz bezala: apaindura arkitektonikoeak egia bat izan behar dutela beren muinean, premia bat, eta, ondorioz, ederrak izan behar dutela barren-barrenetik. Bere ikuspegitik zentzu handia izango du horrek denak akaso, baina, funtsean, ez da diletantismo arrunta baino askoz hobea. Arkitekturaren

---

54 Horatio Greenough (1805-1852), AEBko eskultorea eta arte zein arkitektura kritikaria, pentsamendu formalistaren aitzindarietako bat.

eraldatzaile sentimentala izanik, erlaitzetik hasi zen, ezen ez zutarririk. Egia-pusketa bat ipini nahi zuen apaindura bakoitzaren muinean, okaran gozoen barruan almendra- edo txarpoil-hazi bat gordeko balitz bezala —nahiz eta, ene ustean, almendrak osasuntsuagoak diren azukrerik gabe—; aldiz, bere helburua ez zen biztanleak berak eraiki zezala bere etxea, bai barrutik bai kanpotik ere, eta apaindurak, berriz, beren kasara molda zitezela. Gizon batek, zentzuduna bada, nola pentsa lezake apaindurak kanpora begira sortuak direla soilik, azal huts; nola pentsa lezake Broadway-eko biztanleek beren eliza eskuratu zuten modu berean eskuratu zituztela dortokek edo krustazeoek beren oskol ederrak, hau da, kontratu baten bidez? Baina gizonak ez du zerikusirik bere etxearen arkitektura-estiloarekin, dortokak bere eskolaren tankerarekin zerikusirik ez duen bezala, eta soldadua ez du zertan denborarik galdu estandartean margotzen bere bertutearen kolore zehatza. Asmatuko du etsaiak zein den kolore hori. Baliteke soldadua zurbil-zurbil geratzea epaiketaren eguna iristen denean. Gizon arkitekto-usteari dagokionez, iruditzen zait erlaitzean makurtzen dela, eta bere egia-erdia xuxurlatzen diela, herabe, etxeko biztanle ezjakinei, nahiz eta biztanleek gehiago dakiten hark baino. Edertasun arkitektonikorik ikusten badut orain, badakit arian-arian sortu dela, barrutik kanporantz, barruko biztanlearen premietatik eta izaeratik abiatuta, hura baita eraikitzaile bakarra: halako egiazaletasun eta noblezia inkontziente batetik ekiten du, itxuraz behin ere pentsatu gabe; edertasunik sortzen baldin bada noizbait, bizitzaren edertasun inkontziente bat izango du iturburu. Herrialde honetako etxerik interesgarrienak, margolariak ondotxo dakienez, etxola umilak dira, pretentsiorik gabeak, pobreen bizilekuak gehienetan: *pintoreskoak* dira, baiki, babes ematen dieten pertsonen bizitzaren ondorioz, eta ez soilik bitxikeriaren bat agertzen dutelako azalean. Interesgarriak izango dira, halaber, hiritarren apartamentuak aldrietan, baldin eta beren bizitzak sinpleak eta atseginak bada irudimenarentzat, eta ahaleginik egiten ez bada inongo efekturik lortzeko. Apaindura arkitektonikoen proportzio handi bat hutsik dago, literalki, eta irailako galernak erauziko du, kolpetik, maileguan harturiko lumen antzera, kalterik eragin gabe funtsezko gauzei. Sotoan olibarik ez ardorik ez dutenak

ederki konpon daitezke arkitekturarik gabe. Zer gertatuko litzateke baldin eta berdin jardungo bagina apaindura literarioei dagokionez, eta gure biblien arkitektoak buru-belarri emango balitzaizkio erlaitzei, elizen arkitektoek egiten duten neurri berean? Halaxe sortzen dira *belles-lettres* eta *beaux-arts* delakoak, eta horien irakasleak ere bai. Gizonari axola ote zaio, bada, nola kokatzen diren makila batzuk bere gainean eta beste batzuk bere azpian, eta zer kolorerekin igurzten duten bere kutxa? Horrek guztiak esanahia izango luke, hein batean, baldin eta gizonak *berak* kokatuko balitu makilak, eta ondoren margotu; baina espirituak biztanlearen gorputza utzi baldin badu, norbere hilkutxa eraikitzearen parekoa izango litzateke, hilobi-arkitektura. «Arotza», azken batean, hilkutzak egiten dituena da. Gizon batek dio, bizitzarekiko duen etsipenean edo ezaxolan: hartu oinen azpian duzun lurraren mordo bat, eta margotu ezazu zure etxea kolore horrekin. Bere azken etxea —etxe estu-estu bat— al dauka gogoan? Hobe txanpon bat botatzea airean. Aisialdia barra-barra izango du, bada, gizon horrek! Zergatik hartu behar genuke lokatz mordo bat? Hobe duzu zure itxuraren arabera margotu etxea: zurbildu dadila, edo musugorritu. Horra hor landako etxolen arkitektura hobetzeko egitasmo bat! Nire apaindurak prest dituzuenean, jantziko ditut.

Negua baino lehen tximinia bat eraiki, eta etxearen aldeak estali nituen, zeinak iragazgaitzak baitziren lehendik ere: enborraren lehen xafra baliatuz, ohol inperfektu eta erretxinaz beteak egin, eta ertzak arrabotarekin leundu nituen.

Horrenbestez, badut etxe bat, egurrez tinko estalia eta emokatua, hamar oin zabaleran eta hamabost luzeran egiten dituena: zortzi oineko zutarriak, txapitula bat, armairu bat, leiho handi bana alboetan, bi tranpol, ate bat alde batean eta adreiluzko supazter bat bestean. Nire etxearen kostu zehatz-tza, erabili nituen materialen ohiko prezioa ordainduz, baina esku-lana aintzat hartu gabe, neronek egin bainuen, hau izan zen —eta xehetasunak aletzen dizkizuet, jende gutxi baita gai bere etxeak zehatz-mehatz zenbat kostatu duen esateko, eta are pertsona gutxiago dira gauza, baldin eta inor gauza baldin bada, beren etxea osatzen duten materialen kostua banan-banan adierazteko—:

Oholak	8,03 ½ \$ (berrerabiliak, gehienbat)	
Zaborretarako oholak, teiltuaren aldeak egiteko		4,00 \$
Estrabeak		1,25 \$
Bigarren eskuko bi leiho, beira eta guzti		2,43 \$
Mila adreilu zahar		4,00 \$
Bi upel kare		2,40 \$ (garestitxo)
Zurdak	0,31 \$ (behar nuena baino gehiago)	
Burdina lantzeko gainjantzia		0,15 \$
Iltzeak		3,90 \$
Gontzak eta torlojuak		0,14 \$
Txingeta		0,10 \$
Klariona		0,01 \$
Garraioa	1,40 \$ (bizkarrean eroan nuen zati handi bat)	
Guztira		28,12 ½ \$

Horra hor erabili nituen material denak, salbu eta egurra, harriak eta hondarra, okupazio-eskubidearen abaroan hartu nituenak. Halaber, etxeari atxikita, egurrezko etxola txiki bat eraiki nuen, etxea eraiki ostean soberan geratu zirenekin.

Nire asmoa da etorkizunean beste etxe bat eraikitzea, Concordeko kale nagusiko edozein etxe baino handiagoa eta pertxentagoa, baldin eta hau bezain beste gustatzen bazait eta hau baino garestiagoa ez bada.

Hala ohartu naiz aterpe bila dabilen ikasleak bizi osorako etxe bat eskura dezakeela, gaur egun errentaren truke urtean ordaintzen duena baino askoz gehiago gastatu gabe. Neurritz kanpo harrotzen naizela iruditzen bazaizue, nire aitzakia da gizateriaz harrotzen naizela, eta ez neure buruaz; nire hutsuneez eta kontraesanek ez diote egia-izpirik kentzen baieztapenari. Hitzontzikeria eta hipokresia bolo-bolo dabiltzan arren —halako kasuetan, zaila suertatzen da alea eta bihia bereiztea, eta pena ematen dit beste edozeini bezala—, aske eta lasai hartzen dut arnasa, arindu galanta baita sistema moralarentzat zein fisikoa, eta argi daukat ez naizela deabruaren abokatua bihurtuko apaltasunaren ondorioz. Ahaleginduko naiz egiaren alde mintzatzeko. Cambridge unibertsitatean,<sup>55</sup> ikasle-logela baten truke —nire etxea baino pixkatxo bat handiagoa baizik ez delarik— hogeita hamar dolar ordaindu behar da urtean, nahiz

55 Erakunde horren izen ofiziala Harvard College da, gaur egungo Harvard unibertsitateari dagokiona; Cambridgeten zegoen (Massachusetts).

eta enpresak hogeita hamabi gela eraikitzen dituen teilatu beraren azpian, eta halako logela batean bizi denak, beraz, auzokide ugari eta zaratatsuen eragozpena jasan behar duen, eta baliteke, gainera, laugarren solairuan bizi behar izatea. Ezinbestean otutzen zait, halako gaiei buruzko jakinduria handiagoa bagenu, ez genukeela izango hezkuntzaren horrenbesteko premiarik, zeren, beharbada, hezkuntza gehiago eskuratua izango baikenuke lehenagotik ere; horrez gainera, bururatzten zait hezkuntza jasotzearen kostu ekonomikoa desagertuko litzatekeela neurri handi batean. Ikasleak bere manera dotoreak jaso ditzan Cambridgen edo beste nonbait, bizitzaren sakrifizio handi bat egin behar du ikasleak berak edo beste norbaitek, eta hala bizitza nola hezkuntza ganoraz kudeatuko balira, sakrifizioa hamar aldiz txikiagoa izango litzateke. Diru gehien balio duten gauzak sekula ez dira ikasleak gehien desio dituenak. Matrikula, esaterako, atal garrantzitsua da fakturaren barruan; aldiz, ikasleak askoz hezibide preziatuagoak eskuratzen ditu bere garaikiderik jantzienekin harremanetan aritzearen poderioz, nahiz eta horren truke ez den ezer kobratzen. Unibertsitateak sortzeko, normalean, harpidetza-sistema bat ezartzen da, dolarrak eta zentimoak bilduz, eta, jarraian, lan-banaketaren printzipioei men egiten zaio itsuki, muturreraino —nahiz eta printzipio hori zuhurtziaz hartu behar litzatekeen, inoiz hartzekotan—: kontratista bat ekartzen da, zeinak espekulaziorako baliatzen baitu egoera, eta irlandarrak edo beste behargin batzuk jartzen ditu lanean, zeinek eraikiko baitituzte egiaz egituraren zutarriak; ikasleek, bestalde, egiturara moldatu beharko dute, eta hutsegiteen prezioa, aldiz, etorkizuneko belaunaldiek ordaindu beharko dute. Nire iritziz, *hori baino hobea izango litzateke*, ikasleen ikuspegitik, edo unibertsitatearen onurak jaso nahi dituztenen ikuspegitik, ikasleek berek ezartzea zutarriak. Baldin eta ikasleak, bere aisialdia eta bakartzea babesteko, gizonari esleitzen badizkio lan guztiak sistematiko-ki, aisialdi-modu doilor bat jasoko du, probetxurik gabea, bere buruari ukatuko baitio aisialdia benetan emankorra izan dadin ezinbestekoa den esperientzia. «Baina», dio batek, «ez duzu esan nahi ikasleek beren eskuekin lan egin behar luketela, buruarekin lan egin ordez, ezta?». Ez dut hori esan nahi zehatz-mehatz, horren antz handia duela dirudien beste zerbait baizik: esan nahi dut ikasleek ez luketela bizitzara jolastu behar, edo bizitza azter-

tu behar soilik, komunitateak beren jolas garestiak ahalbidetzen dituelarik; aitzitik, uste dut bizitza bizi behar luketela egiazki, hasieratik bukaerara. Nola ikas lezakete gazteek bizitzen, ez baldin bada bizitzearen esperimentuari helduz behingoan? Uste dut esperimentu horrek ikasleen adimena probatzeko balioko lukeela, matematika ikasteak adina. Adibidez, mutil batek arterari eta zientziari buruzkoak ikasi nahi balitu, ez nioke ohiko moldea gomendatuko, hots, ez nuke irakasleren baten ingurumarian ipiniko, eremu horretan edozer gauza irakasten eta praktikatzen baita, bizitzearen artea izan ezik: munduari begiratzen zaio teleskopioarekin edo mikroskopioarekin, eta ez, ordea, norbere begiekin; kimika ikasten da, eta ez, ordea, ogia nola egiten den; mekanika ikasten da, eta ez, ordea, hori nola lortzen den; Neptunoren satelite berriak deskubritzen dira, eta ez, ordea, hurkoaren begiko lasto-izpiak, ez eta norbera planeta deslairen baten satelitea ote den ere; baliteke, halaber, norberaren inguruan dabiltzan munstroek irentsia izatea, ozpin-tanta batean bizi diren munstroei erreparatu bitartean. Hilabete baten buruan, nor aurreratu da gehiago, aizto bat sortu duen mutikoa, mea berak erauziz eta moldatuz, eta horretarako behar adina irakurriz, edo, kontrara, metalurgiari buruzko eskolak jaso dituen mutila, eta Rodgers markako<sup>56</sup> aizto bat jaso duena, aitzak opari emanda? Zeinek izango luke probabilitate gehiago hatzak mozteko? Unibertsitatea amaitu nuenean, nabigazioa ikasia nuela jakinarazi zidaten nire harridurarako. Nola, baina: portuan barna buelta bat eginda gehiago ikasiko nuen-eta! Ikasle pobreak ere ikasten du ekonomia politikoa, eta hori baizik ez diote irakasten, baina bizitzaren ekonomia, ordea, filosofiaren parekoa dena, ez da zintzoki profetatzen gure unibertsitateetan. Ondorioa hau da: ikasleak Adam Smith, Ricardo eta Say<sup>57</sup> irakurri bitartean, bere aita zorretan itozten dela atzera-bueltarik gabe.

Gure unibertsitateekin nola, hala gertatzen da beste ehunka «hobekuntza modernorekin»: nolabaiteko ilusio bat sortu arren, ez dute beti ekartzen aurrerakuntza positiborik. Deabruak interes konposatuak eskatzen ditu, bukaerara arte, hasieran egin duen inbertsioaren eta ondoko ekarpenen truke. Gure asma-

---

56 1682an sortutako enpresa, kalitate handiko produktuen ekoizlea.

57 Adam Smith (1723-1790), David Ricardo (1772-1823) eta Jean-Baptiste Say (1767-1832), ekonomia-eskola klasikoaren hiru pentsalari nagusi.

kuntzak, normalean, jolas politik izaten dira: gauza serioetatik desbideratzen gaituzte. Baliabide hobetuak baino ez dira, betiko xede zaharrerako; xede bat zeina erraz lortu baitzitekeen lehen-dik ere, Bostonera edo New Yorkera doan burdinbidea bezalaxe. Presa bizioan eraiki nahi genuke telegrafo magnetiko bat, Mainetik Texas-era<sup>58</sup> joan dadin, baina Mainek eta Texasek agian ez dute izango elkarki esateko gauza garrantzitsurik. Denok gaude, modu batera edo bestera, behiala gizon hura suertatu zen ataka berean: emakume dotore bat, gorra zena, aurkeztu ziezaioten nahi zuen, baina behingoz ezaupidea egin zutenean, eta gizonari belarri-tutu bat hurbildu ziotenean andreari mintza zekion, ez zuen jakin zer esan. Badirudi azkar mintzatzea dela helburua, eta ez, ordea, zentzuz mintzatzea. Prest gaude Atlantikoaren azpiak tunel batekin zulatzeko, mundu zaharra aste batzuk gertuago egon dadin mundu berritik, baina, beharbada, amerikarren belarri-hegal zabalera iritsiko diren lehen albisteez Adelaida<sup>59</sup> printzesaren kukutxeztula izango dute aipagai. Azken batean, mezurik garrantzitsuenak ez ditu ekartzen milia bat minutuko abiadura doan zaldunak: ez da ebanjelari bat, ez da otiz eta ezti basatiz elikatzen.<sup>60</sup> Ez dut uste Flying Childers-ek<sup>61</sup> ale-izpirik garraiatu zuenik inoiz errotara.

Batek esan dit: «Harrigarria iruditzen zait zuk aurrezkirik ez izatea; gogoko duzunez bidaiatzea, gaur bertan har zenezake tren, eta Fitchburgera joan hango ingurua ikustera». Hori baino jakintsuagoa naiz, ordea. Ikasi dut oinez dabilena dela bidairirik bizkorrena. Lagunari esan nion: «Demagun proba egiten dugula, ea nor iritsi lehenago. Hogeita hamar milia dira, eta bidaiak laurogeita hamar zentimo balio ditu. Egun bateko lanaldia, alegia. Gogoan dut garai hura zeinean, errepide honetan bertan, eguneko lanaldiaren truke hirurogei zentimo ordaintzen baitzioten beharginari. Bada, ni oraintxe abiatuko naiz, oinez, eta ilundu aurretik iritsiko naiz; distantzia hori egin ohi dut astean. Zuk, bien bitartean, bidai ordaintzeko adina diru irabaziko duzu eguneko lanaldiaren truke, eta bihar iritsiko zara, edo gaur ilun-

---

58 Garai hartan, Maine eta Texas ziren AEBren ekialdeko eta mendebaldeko muturrak, hurrenez hurren.

59 Adelaida Saxonia-Meiningekoa (1792-1849).

60 Horixe jan zuen Joan Bataiatzaileak desertuan.

61 Lasterketa-zaldi ingelesa, ospe handikoa. Ez zuen sekula galdu lasterketarik.

tzean agian, baldin eta lana garaiz eskuratzeko zortea baduzu. Fitchburgera joan ordeztu, hemen egongo zara, lanean, egunaren puska handi batez. Hala, trenbidea munduan barna hedatuko balitz, uste dut zure aurretik egongo nintzatekeela, eta, herrialdea ezagutu eta era horretako esperientziak bildu nahi banitu, erabat eten beharko nuke zurekiko harremana».

Horra hor lege unibertsal bat, gizonak sekula gaudituz ezin dezakeena; burbinbidetari dagokionez, esan genezake zabala bezain luzea dela. Trenbide bat eraiki nahi bagenu munduaren jira osoan, gizaki guzti-guztien esku egon dadin, planetaren gainazala berdindu behar genuke osorik. Gizonek uste dute —uste okerra inondik ere—, baldin eta behar adina denboraz tematzen badira ekin horretan, palak eta kapitala uztartuz, norabait iritsiko direla azkenean ere, abaila bizian eta musutruk; baina jendetza geltokira abiatzen den arren, eta gidariak «Denak trenera!» oihukatzen badu ere, kea saretzen denean, eta lurruna trinkotzen, ohartuko gara gutxi batzuk baino ez direla abiatu, eta gainerakoei gaineratik pasa zaiela aukera: «istripu malenkoniatsu» bat gertatu dela esango dute, eta hala izango da hain zuzen ere. Bidaia ordaintzeko adina irabazi dutenek, ezbaierik gabe, bidaia egin ahal izango dute noizbait ere, baldin eta bizirik jarraitzen badute, baina, ziur aski, ordurako ez zaie geratuko malgutasunik, ez eta bidaiatzeko desiorik ere. Ekiteko modu horrek —norberaren bizialdia eskaintzea dirua irabazteari, hartara askatasun zalan-tzazko batez gozatzeko bizitzako sasoirik eskasenean—, zenbait ingeles atarramentua dakarkit gogora: Indiar joaten dira dirutza bat pilatzera, gero Ingalaterrara itzuli eta poeten gisara bizi ahal izateko. Hobe izango zuketean ganbarara igotzea ezer baino lehen. «Nola, baina!», diote milioika gizon irlandarrek, herrialdeko etxola guztietatik aldarrika, «eraikitzen ari garen trenbide hau ez al da gauza ona?». Bai —erantzuten diet—, erlatiboki ona da: alegia, okerrago aritu zintezketen, baina desio nuke, neure anaiak zaretan heinean, zuen denbora zeregin hobeei eskaintzeko aukera izan bazenute, lokatza zulatzen ibili ordeztu.



Nire etxea amaitu aurretik, hamar edo hamabi dolar irabazi nahi nituen metodo zintzo eta atseginen bat erabiliz, ohiz kanpoko gastuak ordaintzeko; halatan, bi akre eta erdi lur harea-



tsu harturik, babarrunak landatu nituen, bai eta patatak, artoa, ilarrak eta arbi gutxi batzuk ere. Lursail osoak hamaika akre hartzen zituen, eta pinuak eta intxaur-arbolak hazten ziren han nagusiki; aurreko denboraldian saldu zidaten, zortzi dolar eta zortzi zentimo akre bakoitza. Nekazari batek esan zidan eremu hark ez zuela balio «urtxintxa oihulariak hazteko baizik». Ez nuen ongarririk ipini lurrian, ez bainintzen haren jabea, soilik okupa-tzaile bat, eta ez nuen espero besterik landatzea etorkizunean, ez nuen oso-osorik jorratu. Aitzurrarekin ari nintzela, motzondo ugari aurkitu nituen, eta erregai gisa balitu luzaro: lizun birjina-ren arrastoak utzi zituzten zoruan, biribil txikien tankerakoak, zeinak erraz bereizten baitziren udan, hango babarrunen jori-tasun nabarmena tarteko. Gainerakoan, erregaia lortzeko, etxe atzeko egurra erabili nuen, egur hila, eta, gehien-gehienetan, ezin saldu zena, bai eta lakuak ekarritako egurra ere. Goldatze-lanerako, idi-pare bat eta gizon bat kontratatu beharrean izan nintzen, goldeari neronek eutsi banion ere. Etxaldearen gastuak, lehen denboraldiari dagokionez, hauek izan ziren —tresnak, haziak, lana eta abarrak kontuan hartuta—: 14,72 ½ dolar. Arto-haziak eman egin zizkidaten. Halakoek ez dute gastu handirik eragiten, salbu eta behar baino gehiago landatzen bada. Hama-bi anega babarrun bildu nituen, eta hemezortzi anega patata; horrez gainera, ilarrak eta arto gozo apur bat. Arto arrunta eta ar-biak beranduegi hazi ziren, eta ez nuen ganorazko ezer eskuratu.

Etxaldearen diru-sarrerak hauek izan ziren, denera	23,44 \$
Gastuak kenduta	14,72 ½ \$
Guztira	8,71 ½ \$

Horretaz aparte, aintzat hartu behar da bildutakoaren puska bat jan nuela eta beste pixka bat geratzen zela oraindik kalkulu hauek egin nituenean —denera, 4,50 \$—, eta kopuru hori nahiko eta sobera zen neronek hazi ez nuen belardiaren kostua berdintzeko. Guztiari erreparatuz, hau da, gizonaren arimaren eta gaurko egunaren garrantziari erreparatuz, eta nire esperimentuak irauin zuen denbora laburra gorabehera —besteak beste egitasmo iragankorra zelako—, uste dut emaitza hobek jaso nituela Concordeko beste ezein nekazarik urte be-rean izandakoak baino.

Hurrengo urtean are emaitza hobekia izan nituen, behar adina lur irautila nuelako, akre baten herena gutxi gorabehera, eta bi urteetako esperientziari esker, eta kontuan hartuta nekazaritzari buruzko lan sonatuek ez zidatela batere zirrarak eragin —ezta Arthur Youngenak ere<sup>62</sup>—, zera ikasi nuen: norbera soiltasunez bizi bada, eta hazten duen laborea baizik jaten ez badu, eta jaten duena baino gehiago ez badu hazten, eta ez baditu laboreak trukatzeko kopuru eskas batengatik edo gauza garestiago edo dotoreagoengatik, aski izango duela lur pixka bat jorratzea, eta, bestalde, merkeagoa izango dela lur hori palaz iraultzea idiekin jardun ordez, eta, aldi berean, gune berri bat hautatzea zaharra ongarritzeko; modu horretan, norberak esku ezkerrez egin ahal izango lituzke nekazaritza-lan guztiak udako ordu mortuetan, eta ez litzateke egongo idien, edo zaldien, edo behien, edo txerrien uztarri pean, gaur egun dagoen bezalaxe. Gai honi dagokionez, inpartzialtasunez hitz egin nahi nuke: ez daukat interesik gaur egungo antolamendu ekonomiko eta sozialek arrakasta izan dezaten edo porrot egin dezaten. Concordeko edozein nekazari baino independenteagoa nintzen, ez bainengoen etxe batera edo etxalde batera ainguraturik; nire jenuaren grina guztiz bihurriari jarrai niezaiokeen. Beste nekazariak baino hobeto moldatzeaz gainera, etxea erre balitzait, edo laboreak huts egin, lehen bezain ondo egongo nintzen kasik.

Pentsatu ohi dut gizonak ez direla artaldeek zaindariak, eta artaldeek berek, askoz libreagoak izanik, zaintzen dituztela gizonak. Lana trukatzeko dute gizonak eta idiek, baina behar-beharrezko lanari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu idiek dutela abantaila nagusia, haien etxaldea askoz handiagoa da-eta. Gizonak sei asteetan egiten du berari dagokion lana —belar idorra biltzea—, zeina ez baita ahuntzaren gauerdiko ez-tula. Bidean esanda, soiltasun osoz bizi den nazio batek, hau da, filosofoen nazio batek, ez luke inoiz egingo halako baldarkeriarik: ez lituzke animaliak lanean jarriko. Egia da, egia denez, ez dela inoiz izan filosofoen naziorik, eta ziur aski ez dela izango epe laburrean, eta ez nago ziur desiragarria denik halakoak izatea. Nolanahi ere, nik ez nukeen sekula bezatuko zaldirik edo idirik, edo hari

---

62 Arthur Young (1741-1820), Ingalaterrako ekonomialaria eta agronomoa. Hainbat liburu idatzi zituen.

jatekoa eman eta zaindu, ondoren niretzat lan egin zezan, ez baitut zaldi- edo artalde-gizon bihurtu nahi; iruditzen baldin ba zaigu, hori eginda, gizarteak irabazten duela, ziur al gaude gizon baten irabazia ez dela beste baten galera, eta kortako morroiak pozteko motibo berdinak dituela, ugazabarekin alderatuta? Bai, lan publiko batzuk ezin izango ziratekeen eraiki animalien laguntzarik gabe, eta gizonak idiekin eta zaldiekin banatu behar du halakoek dakarten gloria, baina horrek derrigorrean esan nahi al du gizona ez litzatekeela gauza izango merezimendu are handiagoko lanak gauzatzeko beste modu batean? Gizonak, animalien laguntzarekin, halako lan batzuk egiten hasten direnean, ez soilik artistikoak edo premiarik gabekoak, ezpada luxuzkoak eta alferrekoak, saihestezina gertatzen da gutxi batzuek beren jarduna trukatzea idien jardunarekin, edo, bestela esanda, indartsuenaren esklabo bihurtzea. Horrenbestez, gizona lanean ari da ez soilik bere barneko animalia-erantzat, ezpada, horren sinbolo bilakatuta, kanpoko animalia-erantzat orobat. Etxe sendo ugari ditugun arren, harriz edo adreiluz eginak, nekazariaren opor-tasuna neurtu nahi dugunean honi erreparatzen diogu oraindik ere: ea zenbateko itzala sortzen duen aletegiak etxearen gainetik. Hiri honi buruz esaten dute bertan daudela idi, behi, eta zaldientzako inguruotako etxerik handienak; eraikin publikoei dagokionez ere ez dabil atzetik, baina areto bakan batzuk baizik ez daude gurtza librea edo adierazpen librea gauzatzeko konderri honetan. Nazioek ez al lukete saiatu behar, beren arkitektura-gatik gogoratuak izan ordez, beren pentsamendu abstraktuaren indarragatik oroituak izaten? Ekialdeko hondakin guztiak baino puska miresgarriagoa da Bhagavad-Gita!<sup>63</sup> Printzeen luxuak dira dorreak eta tenpluak. Adimen soil eta independente bat ez da makurtzen inongo printzeren uztarrira. Jainua ez da ezein enperadoreren jabetza, eta ez dago zilarrez, urrez edo marmolez egina, salbu eta neurri garrantzizgabe batean. Esadazue, arren: zer xedetarako mailukatzen da horrenbeste harri? Arkadian, han izan nintzenez, ez nuen ikusi inor harria mailukatzen ari zenik. Beren memoria betikotu nahian mailukatu duten harri-kopuruaren eldarnioak jota daude nazioak. Ez ote litzateke egokiagoa

---

63 Sanskritoz, «Jaunaren kanta». Mahabharata Indiako epopeia nazionalean jasotako poemetako bat da, eta hinduismoaren oinarritzko testutzat hartzen da.

esfortzu hori guztia beren manierak leuntzeko eta distirarazteko baliatzea? Gogoangarriagoa litzateke zentzu onaren puska bat ilargira iristen den monumentu bat baino. Nahiago nuke harriak beren tokian baleude. Handitasun oiesa da Tebasen handitasuna. Zuhurragoa da harrizko pareta txiki bat, gizon ondratu baten lursaila zedarritzen duena, eta ez, aldiz, ehunka ateko Tebas, bizitzaren xede gorenetik haraindi urrundu dena. Erljio eta zibilizazio barbaro eta paganoek tenplu itzelak eraikitzen dituzte; kristautasuna esaten zaionak, berriz, ez. Nazio batek mailukatzen duen harri gehiena haren hilobira bideratzen da. Nazioak bere burua ehorzten du. Piramideei dagokionez, gauza bakarra dute zinez liluragarria: horrenbeste gizon beheratu izana ergel handinahi batentzat hilobi bat eraikitzeari beren bizitza eskaintzeko beste; zuhurtzia eta gizontasun handiagoz aritu izango lirateke baldin eta Nilo ibaian ito izan balute faraoia, eta ondoren txakurrei eman haren gorpua. Aitzakiaren bat asma nezake guztientzat, baina ez daukat horretarako astirik. Eraikitzaileen erlijioari eta artearekiko sentitzen duten maitasunari erreparatzen badiogu, ordea, egoera berdintsua da munduko bazter guztietan, hala egiptoar tenpluen nola Estatu Batuetako Bankuen eraikitzaileei dagokionez. Balio dutena baino garestiagoak dira. Banitatea da haien bulkada nagusia, eta, horrekin batera, berakatzarekiko eta ogiarekiko eta gurinarekiko zaletasuna. Balcom jaunak —arkitekto gaztea eta etorkizun oparokoa bera— diseinu bat egiten du bere Vitrubioaren<sup>64</sup> atzealdean; ondoren, Dobson eta Semeak harginen esku uzten du lana. Hogeita hamar mendeek beherantz begiratzen dutenean, gizateriak gorantz begiratzen du. Zuen dorre luzeez eta monumentuez bezainbatean, herri honetan morroi zoro bat izan zen behin, tunel bat zulatu nahi zuena Txinaraino, eta zinez urrunera iritsi omen zen, txinatarren katiluak eta zartaginak elkarri kolpeka aditzeko beste, baina uste dut ez naizela desbideratuko eta ez naizela hasiko haren zuloa goersten. Pertsona asko daude kezkatuak ekialdeko eta mendebaldeko monumentuekin: zeinek eraiki zituen jakin nahi dute. Neronek, aldiz, eraikuntza-lanetan jardun ez zirenak ezagutu nahi nituzke, halako huskerian gainetik zeudenak. Baina jarrai dezadan nire estatistikei buruzko azalpenarekin.

---

64 Marko Vitrubio Polioren *De Architectura* lanaz ari da (K. o. I. mendea).

Era askotako lanak egin nituen: neurketak, arotz-lanak, eta bestelako jarduera tenporalak, hatz adina ofizio baitauzkat; 13,34 \$ irabazi nuen modu horretan. Zortzi hilabeteko janariaren kostua —uztailaren 4tik martxoaren 1erako boladari dagokiona, nahiz eta bi urte pasa egin nituen bertan—, hauxe izan zen, kontuan hartu gabe patatak, arto berde apur bat eta ilar batzuk, neronek hazitakoak, eta kontuan hartu gabe azken egunean geratzen zitzaizkidanak:

Arroza	1,73 ½ \$
Melaza (sakarinarene aldaerarik merkeena)	1,73 \$
Zekale-irina	1,04 ¾ \$
Arto-irina (zekalea baino merkeagoa)	0,99 ¾ \$
Txerrikia	0,22 \$
Huts egindako esperimentuak:	
Gari-irina (arto-irina baino garestiagoa da, eta arazo gehiago sortzen ditu)	0,88 \$
Azukrea	0,80 \$
Txerri-gantza	0,65 \$
Sagarrak	0,25 \$
Sagar lehorrak	0,22 \$
Batatak	0,10 \$
Kalabaza bat	0,06 \$
Angurri bat	0,02 \$
Gatza	0,03 \$

Bai, 8,74 \$ jan nuen denera, baina ez nituzke nire kulpak hain lotsagabe haizatuko baldin eta ez banu jakingo irakurleak ere errudun direla neurri berean, eta beren kontuek ez luketela nireek baino askoz itxura hobea izango argitaratuz gero. Hurrengo urtean, arraina jateko aukera izan nuen zenbaitetan, eta, behin marmota bat akabatzerira iritsi nintzen, nire babarrun-so-roa birrintzen ari baitzen —animaliaren transmigrazioa gauzatu nuen, tartaroeke esango luketen eran—; irentsi egin nuen, esperimentu gisa hein batean, eta gozamen labur bat eskaini zidan arren —halako musketa-kutsu bat gorabehera—, ohartu nintzen jardunbide hura ez zela ona izango luzera begira, herriko harakinari marmotak gatzozpintzeko eskatzeak zer itxura emango lukeen aintzat hartu gabe.

Denbora-tarte berean, gastu txiki batzuk izan nituen, arropi eta halakoei lotuak; ez dira oso esanguratsuak, baina hemen jarriko ditut hala ere: 8,40 ¼ \$

Olioa, eta etxerako tresna batzuk 2,00 \$

Horrenbestez, garbiketa- eta konponketa-lanak bazterrera utzita, gehienak etxetik kanpo egin baitziren, eta horiei dagozkion fakturak ez baititut jaso oraindik, hauek izan ziren gastu guztiak (hona hemen munduko txoko honetan dirua gastatzeko dauden bide guztiak eta are gehiago):

Etxea	28,12 ½ \$
Etxaldea, urtebetez	14,72 ½ \$
Janaria, zortzi hilabetez	8,74 \$
Arropa eta enparauak, zortzi hilabetez	8,40 ¼ \$
Olioa eta enparauak, zortzi hilabetez	2,00 \$
Denera	61,99 ¾ \$
Orain, berriz, bizitza aurrera ateratzeko moduren bat behar duten irakurleei zuzentzen natzaie. Bizibidea ateratzeko, soroko uzta saldu nuen:	23,44 \$
Eta lanak eginez lortu nuen	13,34 \$
Denera	36,78 \$

Kopuru hori gastuei kenduz gero, batetik, 25,21 ¾ dolar geratzen zaizkigu —hasieran neuzkan baliabideen eta egin behar ziren gastuen neurria, gutxi gorabehera—; bestetik, modu horretan ziurtatutako aisialdiaz, independentziaz eta osasunaz gainera, etxe eroso bat neukan, nahi adina denboraz bizitzeko.

Estatistika hauek ausazkoak iruditu arren, eta, ondorioz, ez oso hezigarriak, badute nolabaiteko osotasun bat; baliozkoak dira, beraz. Eman didaten guzti-guztiaren berri bildu dut. Goiko kalkuluei erreparatuta, badirudi hogeita zazpi zentimo gastatu nituela, astero, janaria soilik eskuratzeko. Bi urtez, jan nuen zekale- eta arto-irina, legamiarik gabe; patatak, arropa, txerriki gatzatu pixka bat, melaza, gatza eta edateko ura. Egokia zen ni neu arrozarekin elikatzea gehienbat, hainbeste estimatzen baitut Indiako filosofia. Mihigaizto porrokatuen esanei erantzuteko, baieztatuko dut ezen, tarteka kanpoan jaten banuen ere, beti egin izan dudana bezala, eta etorkizunean ere egitea espero dudana moduan, sarritan kanpoan jate horrek kalte egiten ziola nire etxeko antolamenduari. Edonola ere, kanpoan jatea ekintza

ohikoa denez, ez dio inolaz ere eragiten baieztapen konparatibo honi.

Bi urtez izandako esperientzia hauei esker, ikasi nuen harrigarriki erraza dela norberak behar duen janaria eskuratzea, baita latitude honetan ere; gizonak, bada, animaliek bezain dieta soila izan dezakeela, eta osasuntsu eta sendo iraun hala ere. Jatordu asegarriak egin ditut, asegarriak hainbat zentzutan, getozka (*Portulaca oleracea*) pixka bat bilduz arto-soroan, ego-si eta gatz pixka batekin jantziz. Latinezko izena jarri dut, izen arruntaren zaporea dela-eta. Esadazue: gizon zentzudun batek, bake-garaian bizi delarik, eta eguerdia iritsita, zer besterik desira dezake artaburu berde gozo batzuk egostea eta gatz apur batekin jatea baino? Aldaera txikiak txertatzen nituen, baina ez osasun-arrazoiengatik, ezpada jangaleari erantzunez. Dena den, gizonak halako egoerara iritsi dira non goseak egoten baitira, ez beharrezko gauzak falta zaizkielako, baizik eta luxua nahi dutelako, eta ezagutzen dut emakume bat pentsatzen duena bere semeak bizia galdu zuela ura baino edaten ez zuelako.

Irakurleak nabarituko zuen ikuspegi ekonomikotik heldu diodala gaiari, ez dietaren ikuspegitik, eta ez da saiatuko nire ohitura neurritsuak bere haragitan probatzera, salbu eta jaki-to-ki-a ondo beteta badauka.

Ogia egiteko, arto-irin hutsa eta gatz erabili nituen lehenik: pala-ogi egiazkoak ziren, suaren aurrean egosten nituen, kanpoan, harri baten gainean jarrita, edo etxea eraikitzeke erabilia nuen egur baten muturrean bestela, baina ketu egiten ziren, eta halako pinu-kutsu bat hartzen zuten. Gari-irina ere probatu nuen, baina, azkenean, zekale- eta arto-irinen nahaske-ta bat aurkitu nuen, guztiz komenigarria eta atsegina. Eguraldia hotza zenean, entretenimendu ederra suertatzen zen opil txiki batzuk egostea modu horretan, arretaz zainduz eta behar zenean biratuz, egiptoarrek beren ukuluko arrautzekin darabilten neurriko tentuz. Zerealez egindako fruituak ziren, neronek hel-duak, eta beste fruitu noble guztien pareko lurrina zekarkidaten, zeinari albait luzaroen eusten bainion, ogiak oihaletan bilduz. Okintzaren arte antzinako eta ezinbestekoa ikertu nuen, eskura neuzkan autoritateetara joz: garai primitiboetara itzuli nintzen, legamia asmatu aurreko denboretara, zeinetan gizona lehen aldiz iritsi baitzen fruitu eta haragi salbaiak jatetik beste dieta

leun eta findu honetara; nire ikerketarekin jarraituz, arian-arian, orearen garrazte ustekabekora heldu nintzen: uste da horrelaxe ikasi genituela legamiatzeko prozesuari buruzkoak; ondoren, zenbait fermentazio gauzatu ostean, «ogi on, gozo, osora» iritsi ginen, bizitzaren euskarria den horretara. Legamia, zeina ogiaren arima baita zenbaiten ustez —ehun zelularra betetzen duen *spiritusa*—; legamia, zeina zorrotz gordetzen baita, Vestaren sua nola<sup>65</sup> —pentsatzen dut botila batean ekarri zutela estreinakoz Amerikara, *Mayflower* ontzian, eta haren eragina hazten ari da oraindik, lurraldean barna hedatuz zereal-olatutan—; legamia, bada, herrian eskuratu ohi nuen, hutsik egin gabe, harik eta, goiz batez, arauak ahaztu nituen arte: legamia erre zitzaidan, eta istripu horri esker deskubritu nuen ez zela ezinbestekoa —nire deskubrimenduak prozesu analitikoaren bidez gertatzen ziren, ezen ez prozesu sintetikoaren bidez—, eta, harrezkero, ez dut legamiarik erabili, nahiz eta etxeakoandre gehienek serio-serio ziurtatzen didaten ezin dela ogi guztiz seguru eta osorik egin legamiarik gabe, eta adinekoek, aldiz, bizi-indarren gainbehera bizkorra profetizatzen duten. Hala ere, ohartu naiz ez dela funtsezko osagai bat, eta urtebetez ogi legamiagabea jan eta gero, hara non naukazuen, oraindik ere, bizidunen artean, eta pozik nago ez dudalako botilatxorik eraman behar poltsikoan, batzuetan ireki egiten baitzen inpentsan, eta bere edukia isurtzen baitzuen nire kalterako. Errazagoa eta errespetagarriagoa da legamiarik ez erabiltzea batere. Gizona da, animalia guztien artean, klima eta egoera guztietara hobekien egokitu daitekeena. Izan ere, nire ogiari ez nion gehitzen bestelako karbonato sodikorik edo azidorik edo alkalirik. Badirudi Marko Portzio Katonek Kristo baino bi mende lehenago agindutako modura egiten nuela ogia: «Panem depsticium sic facito. Manus mortariumque bene lavato. Farinam in mortarium indito, aquæ paulatim addito, subigitoque pulchre. Ubi bene subegeris, defingito, coquitoque sub testu».<sup>66</sup> Honela itzuli dut nik: «Egizu ogia honela. Ondo garbitu eskuak eta motrailua. Jarri ore a motrailuan, gehitu ura pixkana-pixkana, eta oratu ezazu gogotik. Ondo oratu ostean, taxutu

65 Erromatar mitologian, etxearen, sukaldearen eta familiaren jainkosa birjina zen Vesta, greziar Hestiaren baliokidea.

66 *De Agri Cultura* liburuko pasarte bat. Marko Portzio Katonek (K. a 234 - K. a 149) idatzi zuen nekazaritzari buruzko tratatu praktikoa eta teorikoa hori.



ezazu, eta estalki baten azpian egosi». Lapiko batean, alegia. Legamiaz hitz-erdirik ez du aipatzen. Baina nik ez nuen beti erabiltzen bizitzaren euskarri hori. Sasoi batean, nire patrikaren hustasuna zela kausa, hilabete luze batez ez nuen ogirik eduki parean.

Ingalaterra Berriko biztanle orok erraz haz ditzake ogiaren osagai guztiak, zekalez eta artoz beteriko lurralde honetan, merkatu urrunekoen eta aldakorren mende egon gabe. Halere, hain gaude urruti soiltasunetik eta independentziaz, ezen Concordeko dendetan apenas saltzen baita irin fresko eta gozorik, eta are gutxiago artoaren forma gordinagorik. Nekazariak, gehienetan, berak ekoitzi duen artoarekin bazkatzen ditu behiak eta txerriak; ogia egiteko, aldiz, dendan erosten du irina, garestiago, nahiz eta ez den osoa. Konturatu nintzen erraz asko haz nezakeela neurri bat edo bi zekale eta arto, lehenengoa lurralderik kaskarrean ere hazten baita, eta bigarrenak, berriz, ez baitu lurrik onena behar; ondoren, eskuzko ehogailu batean xehatu, eta arrozik ez txerrikirik gabe bizi nintekeen. Gozagarri kontzentraturen baten premia izatekotan, esperimendu bidez ikasi nuen halako bat sor nezakeela, on samarra, melaza, kuia edo erremolatxa erabiliz, eta gozagarriak are modu errazagoan eskuratu nahi banituen, aldiz, aski nuela astigar gutxi batzuk landatzea; zuhaitzak hazi bitartean, goian aipatu ditudan ordezkoeekin konpon nintekeen. Zeren, gure arbasoek kantatzen zuten bezala:

«Gure ezpainak eztitzeko egin dezakegu likorea  
erabiliz kuiak eta azenarioak eta intxaurren-loreak».<sup>67</sup>

Azkenik, gatzari dagokionez, lehengaietan lehengaiena, aukera egokia izan daiteke itsasertzera joatea eskuratzera, nahiz eta, uko egingo banio guztiz, ur gutxiago edango nukkeen ziur aski. Ez dut uste indiarrek inoiz arduratu zirenik gatz bila ibiltzeaz.

Hala, neure elikadurarako ez nuen azokaren ez merkataritza beharrik, eta aterpea ere baneukanez, bi premia baizik ez ziren geratzen: Arropa eta Erregaia lortzea. Soinean ditudan gal-tzak nekazari baten etxean ehundu zituzten —eskerrak Zeruari

---

67 «Forefathers' Song» edo «New England Annoyances» poema anonimoko pasartea; 1630ean idatzi zen, eta kolonietako bizimodu latzaren berri ematen zuen.

gizonak baduela oraindik bertute ugari, uste baitut nekazaria peoi bihurtzen bada, erorialdi handia izango dela, gizona nekazaria bihurtu zeneko erorialdia bezain itzela eta gogoangarria—; herrialde berri batean egonik, erregaia eragozpen bat da. Bizilekuaz bezainbatean, ez balidate utziko lurra okupatzen, akre bat erosiko nuke, landu nuen lurra saldu zidaten prezio berean, hau da, zortzi dolar eta zortzi zentimotan. Baina, gauzak ziren bezala, iruditzen zitzaidan, okupatuz, areagotu egiten nuela lurraren balioa.

Sinesgogorren klaseko kideek tarteka galdetzen didate ea uste dudan elikagai begetalak janez bakarrik bizi naitekeela, eta behingoan auziaren errora joateko —fedea baita erroa—, erantzun ohi diet ohol-iltzeak<sup>68</sup> janez bizi nintekeela. Ezin badute hori ulertu, ezin dute ulertu esateko daukadanaren erdia. Nire aldetik, pozgarria suertatzen zait jendeak halako esperimentuak egiten dituela jakitea: adibidez, izan zen behin gizon gazte bat hamabost egunez arto gordina bakarrik jaten saiatu zena, hortzak motrailu. Katagorrien tribuak gauza bera egin zuen, arrakastaz. Era horretako esperimentuak interesgarriak dira giza arrazarentzat, nahiz eta atso gutxi batzuk —halakoak egiteko ezgauza direnak edo errota baten herenaren jabe direnak— larritu egingo diren beharbada.



Altzariak, neuk egiten nituen batzuk, eta besteek ez zuten eragin jada aipatu ez dudan kostu gehigarriak; hauek ziren, bada: ohe bat, mahai bat, idazmahai bat, hiru aulki, ispilu bat hiru hazbeteko diametroa zuena, matxarda eta suburdina pare bana, eltze bat, lapiko bat, zartagin bat, padera bat, burruntzali bat, garbiontzi bat, bina laban eta sardexka, hiru plater, katilu bat, koilara bat, oliotarako txarro bat, melaza gordetzeko beste bat, eta lanpara bat lakatua. Inor ez da kalabaza batean eseri behar izateko bezain pobrea. Hori alferkeria da. Aulki mordoxka bat dago, taxuzkoak denak, herriko ganbaretan; gogo onez oparituko dizkizuite, handik eraman ditzazuen. Altzariak! Beharrik eserita edo zutik egon naitekeen altzari-biltegi baten premiarik gabe. Filosofoaz aparte, zer beste gizon lotsatuko litzateke bere

---

68 Hitz-jokoa. Ingelesez, *board* hitzak biak esan nahi ditu: ohola eta mantenua.

altzari guztiak gurdi batean pilaturik ikusita, herrialdea zehar-  
katzen dutelarik zeruaren argitan eta gizonaren begien aurrean:  
kaxa hutsen kontaketa miserable bat? Horra hor Spaulding-en  
altzariak. Halako sortak aztertuta, ez nintzen inoiz gauza izan  
esateko ea gizon aberatsak deritzen horietako batena zen, ala  
gizon pobre batena: beti txirotasunak joa zirudien altzarien ja-  
beak. Are, zenbat eta traste gehiago eduki, orduan eta pobreagoa  
zara. Badirudi gurdi bakoitzean dozena bat etxolotako eduki guz-  
tiak biltzen direla, eta etxola bat gauza pobrea bada, dozena bat  
aldiz pobreagoa dugu beste hau. Esadazue: zergatik mugitzen di-  
tugu altzariak, gure *exuviae* delakoak; zergatik ez ditugu botatzen  
eta sutarako uzten, mundu honetatik beste mundu batera joan-  
go bagara azkenean, altzari berri-berriak dituen batera? Badirudi  
gizonak gerrirotik zintzilik eramane behar dituela trepeta denak,  
ezin dela mugitu lurralde ezezagunean barna haiek aldean izan  
gabe, zepoa beti tinko. Zorionekoa azeri alegiazko hura, buzta-  
na tranpan utzi zuena. Arratoi musketadunak bere hirugarren  
zangoa marraskatuko du aske izateko. Ez da harritzekoa gizonak  
bere elastikotasuna galdu izana. Zenbat aldiz amaitzen du kale  
itsu batean? «Jauna, barka atrebentzia, baina zer esan nahi duzu  
kale itsuaz ari zarenean?». Ikusteko gai bazara, gizon batekin  
suertatu eta berehala ikusiko duzu zeren jabe den, eta traman-  
kuluez libratu nahi badu ere, ikusiko duzu atzean dakartzala  
denak, baita sukaldeko tresneria ere, zeina gordetzen baitu eta  
ez baitu erreko; hari kateaturik dagoela emango du, eta aurrera  
egingo du denarekin, ahal duen heinean. Nire iritziz, gizon bat  
kale itsu batean dago, baldin eta zulo edo atexka bat zeharkatzen  
saiatu, eta bere altzarien fardoa ez bada bertatik sartzen. Gizon  
bat entzuten dudanean —gizon bat itxuraz libre, apain-apaina  
eta prestua—, bere «altzariez» mintzatzen delarik, aseguru du-  
ten edo ez aipatuz, errukia sentitzen dut halabeharrez. «Baina,  
zer egingo dut nik altzariekin?». Nire tximeleta alai armiamar-  
ren sarean harrapatuta geratzen da halako egoeretan. Zehatzago  
galdetuz gero, konturatuko zara luzaroan batere izan ez duten  
horiek ere badaukatela zerbait beste inoren aletegian gordeta.  
Gaur egun, irudipena dut Ingalaterra jaun zahar bat dela: maleta  
mordo batekin dabil bidaiari, urte mordoxka batez etxe batean  
bizi izatearen poderioz pilatzen diren zirtzilkeriekin, eta ez du  
adorerik denak erretzeko; badu kutxa handi eta txiki bana, kaxa

biribil bat kapeluak gordetzeko, eta fardel bat. Lehen hirurak behintzat bota behar lituzke. Gaur egunean, gizon osasuntsu baten ahalmenetatik kanpo dago bere ohea aldean hartzea eta ibiltzeari ekitea,<sup>69</sup> eta gaixo dagoen gizonari zalantza-izpirik gabe gomendatuko nioke ohea bertan utzi eta korrika ospa egin dezan. Immigratzaile batekin topo egin izan dudanean, bizkarrean duela bere ondasun guztiak biltzen dituen fardoa, eta estropezu-ka doala zama horren eraginez —badirudi kiste erraldoi bat hazi zaiola garondoan—, gupida sentitu dut harengana, baina ez hori besterik ez zeukalako, ezpada hori guztia eraman behar zuelako gainean. Nire zama aldean eraman behar badut, arina izan dadin ziurtatuko dut, eta ez dakidan iltzatu gorputz-atal bitalen batean. Baina halako zamarik sekula ez hartzea aldean litzateke agian zuhurrena.

Aipatuko dut, bide batez, ez dudala zentimorik gastatu gortinetan, ez baitaukat auzokide kuxkuxerorik, salbu eta eguzkia eta ilargia, eta gogotik onartzen dut beren soa. Ilargiak ez dit esnerik garraztuko ez haragirik minduko; eguzkiak ez ditu higituko nire altzariak edo alfonbrak, eta batzuetan gehiegi epeltzen badu adiskideren baten bizkarra, egokiagoa iruditzen zait naturak eskainitako gortinaren baten atzean ezkutatzea, etxeko altzariei gauza bat gehiago eranstea baino. Andre batek lanpas bat eskaini zidan behin, baina ez neukanez non ipini etxean, ez eta astirik ere astintzeko, uko egin nion, nahiago baitut ataurreko larrean garbitu oinak. Gaitzaren tentazioa errotik moztea komeni da.

Diakono baten gauzen enkantean izan nintzen duela ez asko, haren bizitza ez baitzen izan, inondik ere, gauzeztan batena:

«Gizonek egiten duten gaitzak iraun egiten du hauek hil eta gero ere».<sup>70</sup>

Ohi bezala, gauzen puska handi bat zirtzilkeria hutsa zen, bere aitaren garaian pilatzen hasia. Besteak beste, tenia lehor bat. Eta, orain, gauza haiek guztiak ganbaran eta beste zulo hau-tsez beteriko batzuetan eduki ondoren mende-erdi batez, ez zituzten erreko, ez: *sutzar* bat egin ordez —suntsiketa araztaile

69 Joan 5: 8 bertsetari erreferentzia: «Jesusek esan zion: —Jaiki, hartu ohatila eta ibili!».

70 Shakespeare, *Julio Zesar*, II. eszena. Itzultzailea: Xabier Mendiguren. Iturria: <https://antzerki.armiarma.eus/antz7308.htm>

bat—, *enkante* bat egingo zuten —gorespen bat—. Auzoak gogotik hurbildu ziren gauzak begiztatzera, den-denak erosi zituzten, eta nor bere ganbarara edo zulo hautsez beterikora eraman zituen erositakoak, han egon zitezen, jabea hil eta herentziaren kontuak kitatu arte; orduan, zikloa abiatuko zen berriro. Gizonak, hiltzen denean, hautsak harrotzen ditu.

Probetxuzkoa gertatuko litzaiguke beharbada nazio batesi batzuen ohiturak antzeratzea: haiek, gutxienez, azala mudatzearen itxurak egiten dituzte urtean behin; ekintza horri buruzko ideia bat dute, erreallitatean egin zein ez. Ez ote litzateke gauza ona izango halako ekitaldi bat antolatzea, «lehen fruituen festa» bat, mucclasse indiarrek egin ohi zutena bezala, Bartram-en<sup>71</sup> arabera? «Herri batean ekitaldi hori ospatzen denean» dio Bartramek, «aurrez eskuratu direlarik arropa berriak, lapiko eta zartagin berriak, eta etxerako tresna eta altzari berriak, mordo handi batean biltzen dituzte gauza zahar guztiak —jantzi urratuak eta bestelako trepeta doilorrak; etxeetan, plazan eta herri osoan metatutako zikinkeria, eta hazi zein bizigai zaharrak—, eta sua ematen diete. Botika bat hartu eta hiru egunez barau egin ostean, herriko su guztiak itzaltzen dituzte. Baraualdiak iraun bitartean, uko egiten diote apetak eta pasioak oro asetzea-ri. Amnistia orokor bat aldarrikatzen da; gaizkileak herrira itzul daitezke».

«Laugarren goizean, apaiz gorenak, bi egur-puska igurtziz, su berri bat sortzen du plaza publikoan, eta su hori baliatuz, gar berri eta puruekin hornitzen dira herriko bizileku guztiak».

Oturuntza handi bat egiten dute ondoren, arto berria eta fruituak janez, eta hiru egunez jarduten dira dantzan eta kantuan: «Eta hurrengo lau egunetan bisitak jasotzen dituzte, eta ondoko herrietako lagunen konpainiaz gozatzen dute, zeinak modu berean purifikatu eta prestatu baitira».

Mexikarrek, halaber, antzeko arazketa bat egin ohi zuten hogeita hamabi urtean behin, munduaren akabera iritsi zela sinetsirik.

---

71 William Bartram (1739-1823), AEBko botanikari eta naturalista. *Travels Through North and South Carolina, Georgia, East and West Florida, the Cherokee Country, the Extensive Territories of the Muscogulges, or Creek Confederacy, and the Country of the Cherokees* liburua idatzi zuen (1791), eta horkoak dira Thoreauk jarraian aipatzen dituen pasarteak.

Ez dut ezagutzen hori baino sakramentu egiazkoagorik —hiztegiaren arabera, «barneko grazia espiritualaren seinale kanpoko eta ikusgaia» da sakramentua—, eta ez dut zalantzarik Zeruak berak erakutsi ziela hori egiten, nahiz eta ez duten errebelazioaren erregistro biblikorik.



Bost urte baino gehiagoz, nire eskuen ahalegin hutsez mantendu nuen neure burua, eta konturatu naiz aski dela urtean sei astez lan egitea —gutxi gorabehera— bizitzaren kostua ordaintzeko. Negu osoan aske nintzen, ikasten jarduteko nahi bezala, eta udaren zatirik handiengan berdin. Buru-belarri saiatu nintzen eskola batean lan egiten, eta konturatu nintzen nire diru-sarreraren neurrikoak zirela nire gastuak, edo, hobeto esanda, nire gastuak neurrigabeak zirela: gastu haien arabera jantzi eta irakatsi behar nuen, gastu haien arabera pentsatu eta sinetsi ere bai, eta tratu hark ez zidan uzten astirik niretzat. Ez nintzen irakasle jarduten nire anaia hurkoaren onerako, ezpada bizibidea ateratzeko; horrenbestez, porrot bat zen. Merkataritzan jarduten saiatu nintzen orobat, baina ohartu nintzen hamar urte behar izango nituela bide horretan aurrera egiteko, eta ordurako deabruarenganako bidean izango nintzela jada. Egia esan, beldur nintzen ez ote nuen, hamarraldi bat pasata, negozio on bat deitzen zaion hori egitea lortuko. Lehen aldiz aztertu nuenean zer egin nezakeen bizimodua aurrera ateratzeko, gogoan iltzatuta nuelarik esperientzia tristeren bat, zeinean nire adiskideen nahiak betetzen saiatu bainintzen —horra hor nire lañotasunaren froga—, sarri eta seriozki pentsatu nuen ahabiak biltzeko aukeran: hori egiteko gai nintzen, argi eta garbi, eta etekinak txikiak izanagatik, aski izan zitezkeen —azken batean, oso gutxi nahi izatea baitzen nire trebetasun nagusia—; kapital gutxi behar izango nuen horrenbestez, eta gutxi eragingo zion nire aldarte aldakorrei; horixe uste izan nuen, ergel halakoa. Nire ezagunak deliberoz murgiltzen ziren merkataritzan edo beste lanbide batzuetan, eta iruditzen zitzaidan haiena bezalakoxea izango zela nire jarduna: muinoetan barna ibiliko nintzen uda osoan, bide-ra suertatzen zitzaizkidan fruituak bilduz, eta, ondoren, haietaz

gabetuko nintzen axolagabe; Admetoren artaldeak<sup>72</sup> zainduko nituen, bada. Amestu nuen, halaber, basoko belarrak bilduko nituela akaso, edo betiloreak ekarriko nizkiela, gurdikadaka, kaletarrei, gogotik maite baitute basoaren oihartzunak sentitzea baita hirian ere. Orduz geroztik, ordea, ikasi dut, ondotxo ikasi ere, ukitzen duen oro madarikatzen duela merkataritzak, eta traturako darabilzuna zeruko mezuak izanda ere, mela-mela eginda utziko dituela merkataritzaren madarikazioak.

Gauza batzuk nahiago nituenez beste batzuk baino, eta bereziki estimatzen nuenez askatasuna; gai nintzenez gogor lan egiteko, eta, are, arrakasta izateko, ez nuen kolpetik hasi nahi nire denbora xahutzen, zertarako-eta tapiz dotoreak edo bestelako altzari finak eskuratzeko, edo mahai-tresna ederrak lortzeko, edo etxe apain bat, greziarren edo gotikoen erara. Baldin eta, norbaitentzat, gauza horiek denak eskuratzeko bidea ez bada eragozpen bat, eta jakin baldin badaki gauza horiek eskuratu ostean nola erabili behar dituen, ekin diezaiola lanari. Batzuk «saiatuak» dira, eta badirudi lana egitea maite dutela, edo lanak gaitz handiagoetatik libratzen dituela akaso; halakoei buruz, ez daukat esatekorik ezer une honetan. Aisialdi gehiago daukate-nean astiarekin zer egin ez dakitenei, berriz, aholkatuko diet bi aldiz gogorrago lan egin dezatela, harik eta dagokien prezioa ordaindu eta askatasun-agiria eskuratu arte. Nire aldetik, egiaztatu dut eguneko morroien jarduna dela lanposturik independentee-na, aski baitute urtean hogeita hamar edo berrogei egunez lan egitea beren burua mantentzeko. Eguzkia etzateaz bat amaitzen da peoiaren eguna, eta, hortik aurrera aske da nahi duen egitasmoari heltzeko, egun horretan egin duen lana edozein izanda ere; ugazaba, ordea, espekulazioan jarduten da hilabetea joan eta hilabetea etorri, eta ez du arnasa hartzeko betarik sekula.

Motzean esanda, ziur naiz, hala adierazten didatelako bai fedeak eta bai eskarmentuak ere, lur honetan norbere burua mantentzea ez dela zoritxar bat, baizik eta denbora-pasa bat, betiere soiltasunez eta jakinduriaz bizi bagara; izan ere, nazio soilen jarduerak, gaur-gaurkoz, nazio artifizialagoen kirolak baitira. Ez da beharrezkoa gizon batek bere bekokiko izerdiz atera

---

72 Greziar mitologian, Feresko erregea zen Admeto. Apolok haren artaldeak zaindu behar izan zituen, zigor gisa, ziklopeak hiltzeagatik.

dezan bizibidea, salbu eta ni baino ahalegin gutxiagorekin izerditzen bada.

Nire ezagun batek esan zidan —oinordetzan akre batzuk jaso dituen gizon gaztea da— nire erara biziko litzatekeela, *baldin eta hori egiteko modurik balu*. Ez nuke nahi inor bizi dadin nire erara; zeren, baliteke, beste horrek ganoraz ikasi orduko nire erara nola bizi, nik beste bizimolde bat aurkitu izana; gainera, desio dut munduan ahal bezain beste pertsona-mota egon daitezela, eta bakoitzari aholkatuko nioke tentu handiz jarrai diezaiola bere bideari, eta ez, ordea, bere aitarenari edo amarenari edo auzoarenari. Gazteak zerbait eraikiko du, edo zerbait landatuko, edo itsasoratu egingo da agian, baina ez diezaiozue galarazi egin nahi duela esaten duen hori egin dezan. Puntu matematiko bakar batek bihurtzen gaitu jakintsu, marinela eta ihes egingdako esklaboak iparrizarrari erreparatzen dioten eran, eta aski gidaritzea da horixe gure bizitzea osorako. Ez gara, beharbada, gure portura iritsiko epe neurgarri batean, baina egiazko bideari eutsiko diogu.

Kasu honetan, batentzat egia dena are egiagoa da milarentzat, ezbairik gabe, etxe handi bat ez baita, proportzioan, etxe txiki bat baino garestiagoa: teilatua du ganean, sotoa azpian, eta hormen bidez banatzen dira gelak. Nik, ordea, nahiago nuen barkadadean bizi. Gainera, normalean merkeagoa izaten da etxe osoa norberak eraikitzea, beste bat konbentzitzea baino horma komunaren abantailez; bestalde, behin hori eginda, bien arteko pareta askoz merkeagoa izan dadin, mehea behar du izan, eta baliteke bestea auzokide txarra izatea azkenean, eta bere alde behar moduan ez zaintzea. Lankidetzan posible bakarra zeharo partziala eta azalekoa izaten da, eta egiazko lankidetzan, ordea, hutsaren hurrengoa da, gizonak ez baitira gauza harmonia hori ulertzeko. Gizon batek fedea badu, fede berdinarekin jardungo da lankidetzan toki guztietan; federik ez badu, aldiz, gainerakoak bezala bizitzen jarraituko du, noren konpainian dagoen gorabehera. Lankidetzan jarduteak, bai horren zentzu gorenean eta bai zentzu beherenean ere, hau esan nahi du: *gure bizibidea aurrera ateratzea, elkarrekin*. Duela gutxi jakin nuenez, honako proposamen hau egin zioten bi gazteri: elkarrekin bidaia zitezela munduan barna; bata dirurik gabe ibiliko zen, baliabi-deak unean-unean eskuratuz, mastaren aurrean zein goldearen



atzean; besteak, berriz, truke-billete bat edukiko zuen poltsikoan. Aise atzeman zitekeen ez zirela kideak izango luzaro, eta ez zutela elkarlanean jardungo, bietako batek ez luke-eta lanik egingo batere. Beren abenturan lehen krisi interesgarria suertatu bezain laster bereiziko lirateke. Oroz gain, lehen iradoki dudan eran, bakarrik doan gizonak gaur bertan ekin diezaioke bidaiari; beste batekin doanak, ordea, hura prest egon arte itxaron behar du, eta baliteke denbora luzea igarotzea biak abiatzen diren arte.



Baina hori guztia oso berekoa da, hala diote nire herrikide batzuek. Aitor dut, orain arte, gutxi samar aritu naizela egitasmo filantropikotan. Sakrifizio batzuk egin ditut, betebeharraren ize-nean, eta, besteak beste, filantropiaren plazera sakrifikatu dut. Batzuek beren talentu guztiak baliatu dituzte ni konbentzitu nahian, herriko familia pobreren baten mantenua har nezan nire gain, eta, agian, beste egitekorik ez baldin badaukat —deabrua arduratzen baita alferrei zereginak emateaz—, probatuko dut gisa horretako denbora-pasa bat. Nolanahi ere, halako zerbait egiteko aukeraz pentsatu izan dudanean, eta erabaki dudanean pertsona pobre batzuk mantentzea neure burua mantentzen dudan adinako erosotasunez, beren zerua obligazio baten pean ipiniz, eta eskaini ere eskaini diedanean aukera hori, aho batez erantzun didate, zalantza-izpirik gabe, nahiago zutela pobre izaten segitu. Nire herrikideak, gizonak zein emakumeak, hainbat modutara ematen zaizkio hurkoaren ongizateari; pentsatzen dut, beraz, herrikide bat behintzat libra daitekeela horretatik, eta bestelako egitasmoei hel diezaikeela, hain gizatiarrak ez badira ere. Jeinu berezi bat eduki behar da karitatean aritzeko, beste edozertan aritzeko bezalaxe. Ongintzari dagokionez, lanbide hori beteta dago jada. Are, horretan saiatu izan naiz buru-belarri, eta, bitxia badirudi ere, pozten naiz ez datorrelako bat nire gorpuzkerarekin. Ez dut uste uko egin behar niokeenik, kontzienteki eta deliberoz, nire bokazio bereziari, eta gizarteak eskatzen didan ongintza-mota zehatza bete, unibertsoa salbatzeko suntsiketarik; eta iruditzen zait antzeko sendotasun batek, askoz zabalagoa denak, eusten diola orain dagoen bezala. Baina ez nuke inoiz oztopatuko gizon baten eta bere jeinuaren artean dagoen bidea; aldiz, neronek errefusatutako lanean diharduena-

ri, bere bihotza eta arima osoa horretan jartzen duenari, esango nioke eusteko horri, nahiz eta munduak esan —esango duenez— gaitza egiten ari zarela.

Et dut uste, inondik ere, nire kasua berezia denik; nire irakurle askok antzeko defentsa bat adieraziko lukete zalantzarik gabe. Zerbait egiteari dagokionez —ez ditut nire auzoak behartuko egintza hori ona dela esatera—, garbi daukat morroi bikaina naizela, kontratatzeko modukoa, baina egin behar den hori zer den, hori ugazabak deskubritu beharko du. Onik egiten badut, hitzaren zentzurik arruntenean, nire bide nagusitik kanpo egon beharko du on horrek, eta nahi gabekoa izan, hein handi batean. Gizonek, praktikan, esaten dute: «Has zaitez zauden tokitik eta zaren moduan, balio handiagoko norbait bihurtzeko xederik gabe, eta ekiozu on egiteari berariazko adeitasunarekin». Ildo horretako predikurik egin behar banu, hau esango nuke: «Erbaki ezazu ona izatea». Eguzkiak, bere sua ilargiari edo seigarren neurriko izar bati<sup>73</sup> helarazi ostean, bere jarduna eten behar balu bezala, eta, Mattin Onpuskaren<sup>74</sup> erara aritu —etxeetako leihoeetatik begiratzen, eroak inspiratzen, okela mintzen eta iluntasuna ikusgai egiten—, bere berotasuna eta onura itzelak etengabe areagotzen aritu ordez, harik eta hain distiratsu bihurtu arte ezen hilkorak ez baitira gai izango hari zuzenean begiratzeko, eta, bien bitartean, munduaren inguruan biratzen jarraitu ordez, bere orbitan betiere, gauzak ondo eginez, edo, hobeto esanda, filosofia egiazkoago batek deskubritu duen eran, mundua haren inguruan biraraziz, on bilakatuz. Faetonek,<sup>75</sup> zeruetan jaio zela frogatu nahian, hartu zuen egun bakar batez eguzkiaren gurdia, eta ibilitako bideetatik desbideratu zuelarik, etheen sail bat erre zuen zeruaren behealdeko kaleetan; lurrazala kiskali zuen orobat, udaberri oro idortu, eta hala sortu zuen Saharako desertua; azkenean, Jupiterrek tximista batez jo zuen, eta eguzkiak, dolutan, ez zuen distirarik egin urte batean.

Ez dago usain higuigarriagorik ontasun usteletik datorrena baino. Giza haratustelaren parekoa, zeruetako sarraskiaren neurrikoa. Jakitun banintz gizon bat nire etxera etortzekoa dela

---

73 Hiparko (K. a. 190 - K. a. 120) Greziako astronomoaren sailkapenaren arabera.

74 Shakespearearen *Uda-gau bateko ametsa* antzezlaneko iratxo gaiztoa. Itzultzailea: Juan Garzia. Iturria: <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/ugba2014/ugbaosoa.pdf>

75 Eguzkiaren semea greziar mitologian.

niri on egitera deliberaturik, ospa egingo nuke ahal bezain azkar, afrikar basamortuetan *simun* esaten dioten haize lehor eta erretik ihesean banindoa bezala; haize horrek hautsez betetzen dizkizu ahoa, sudurra, belarriak eta begiak, harik eta itotzen zaren arte; bada, halaxe alde egingo nukeen, inork ez zekidan bere ona, bere birusaren izpi bat, odolean txertatu. Ez, kasu honetan nahiago nuke gaitza jasan modu naturalean. Gizon batek jaten ematen badit goseak nagoenean, edo berotasuna ematen badit hotzak akabatzen nagoenean, edo zulo batetik ateratzen banau, inoiz ere halako batera erortzen banaiz, horrek ez du esan nahi gizon hori gizon on bat denik. Ezagutzen ditut Ternua txakurrak hainbeste egiteko gai direnak. Filantropia ez da lagun hurkoarekiko maitasuna, horren zentzurik zabalenean. Ez dago dudarik Howard<sup>76</sup> gizon guztiz atsegina eta baliotsua zela bere modura, eta jaso zuen bere ordaina; baina, konparazio batera, zer dira ehun Howard *guretzat*, baldin eta beren filantropiak ez badigu laguntzen gure onenean gaudenean, laguntza jasotzeko merezimendu gehien daukagunean? Nik dakidala behintzat, inoiz ez da egin bilera filantropikorik zeinetan zintzoki proposatu baita niri —edo nire antzekoei— onik egitea.

Jesuitak harri eta zur geratu ziren indiarren aurrean; indiarrek, izan ere, tortura-molde berriak proposatzen baitzizkieten, sutan kiskali bitartean. Indiarrek oinaze fisikoaren gainera zeudenez, batzuetan suertatzen zen orobat zeudela misiolariak eskain zezaketenaren gainera; horrenbestez, harako lege hark —«besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia, egin zuek ere besteek»<sup>77</sup>—, ez zituen limurtu, ez baitzitzaien axola besteek zer egiten zieten, eta beren etsaiak maite baitzitzuten modu berri batean, etsaiek egindako guztia barkatzera iristeraino kasik.

Ziurtatu ezazu gehien behar duena ematen diozula pobreaki, zure ereduak atze-atzean uzten badu ere. Dirua emanez gero, ez eman eta alde egin, xahutu zeure burua ere. Akats bixiak egiten ditugu batzuetan. Gizon pobrea, maiz, hotzak eta goseak baino gehiago, zikin egoten da: zarpail eta narras. Horrela egotea gustatzen zaio hein batean; ez da zoritxarra soilik. Dirua emanez gero, baliteke jantzi zarpail gehiago erostea. Garai

76 John Howard (1726-1790), Ingalaterrako kartzelen erreformak bultzatu zituen.

77 Urrezko Araua esaten zaio, eta horren bertsiokoak agertzen dira, besteak beste, Bibliako Itun Berrian, Talmudean, Koranean eta Konfuzioren *Analektak* lanean.

batean, langile irlandar dorpeez errukitzen nintzen, lakuko izozta mozten ari zirelarik, arropa urratu eta eskasak soinean; ni, ordea, dardarka ari nintzen, zertxobait txukunago eta modakoa-go jantzirik egon arren; halako batean, baina, egun guztiz hotz batean, etxera etorri zitzaidan uretara eroritako behargin bat, berotasun bila: hiru galtza-pare kendu zituen, eta bina galtzerdi, azala agerian geratu zitzaion arte; trapu zikinak ziren arren, taratadaz beteak, gizonak errefusatu egin zituen neuk eskainitako arropa *estrak*, jantzi ugari zituelako *intra*. Murgilketa horrexen premia nuen, alafede. Orduan, neure buruaz errukitu nintzen, eta konturatu nintzen karitate handiagoa izango litzatekeela neronek flanelazko alkandora bat ipintzea, hari merkezurreko arropen denda oso bat egokitzea baino. Gaitzaren adarrei zuzendutako mila kolpe bakoitzeko, bakar batek jotzen dio gaitzaren erroari, eta baliteke behartsuei denbora eta diru gehien eskaintzen dion gizona izatea, hain zuzen ere, miseria hori sortzen gehien laguntzen duena, bere bizimoldearen eraginez, nahiz eta alferrik saiatzan den hura arintzen. Halakoxea da esklabo-hazle dohatsua: hamargarren esklaboaren mozkinak baliatzen ditu gainerakoek jai izan dezaten igandean. Batzuek, bada, pobreei sukaldean lan eginaraziz erakusten dute haiekiko adeitasuna. Ez al lirateke adeitsuagoak izango berak jardungo balira sukaldean? Zuen diru-sarreraren hamarren bat karitateari emateaz harrotzen zarete; beharbada, gauza bera egin behar zenukete beste bederatzi hamarrenekin, eta irabazirik gabe geratu. Gizarteak jabego-irabazien hamarren bat bakarrik berreskuratzen du horrela. Zeren ondorio da hori: jabearen eskuzabaltasunarena, ala justizia-sistemaren arduragabekeriarena?

Filantropia da gizateriak aski estimatzen duen bertute ia bakarra. Tira, gehiegi estimatzen da, eta gure berekoikeriak egiten du hori. Egun eguzkitsu batean, Concorden ginela, gizon pobre eta sendo batek herrikide bat laudatu zuen, zergatik-eta beste hura adeitsu jarduten zelako txiroekin, hau da, berarekin. Arrazaren izeba-osaba jatorrak gehiago estimatzen ditugu haren aita-ama espiritual zinezkoak baino. Behin batean, artzain ospetsu bat entzun nuen, gizon jantzia eta azkarra bera, hitzaldi bat ematen Ingalaterrari buruz: herrialdearen balio zientifiko, literario eta politikoak zerrendatu ondoren —Shakespeare, Ba-

con, Cromwell, Milton, Newton eta enparauak<sup>78</sup>—, hango heroi kristauez mintzatu zen, eta, bere lanari dagokion eran, guztien gainetik jarri zituen, onenen artean onenak balira bezala: Penn,<sup>79</sup> Howard eta Fry andrea.<sup>80</sup> Guztiok ohartzen gara horren guztiaren zurikeriaz eta hipokresiaz. Azken horiek ez baitira Ingalaterra-ko gizon-emakumerik onenak, ezpada, beharbada, filantroporik onenak.

Ez diot merezitako laudoriorik ebatsi nahi filantropiari; aitzitik, justizia eskatu nahi dut beren lanaren eta bizitzaren bitartez gizateria bedeinkatzen dutenentzat. Ez dut gizonaren zulentasuna eta ontasuna estimatzen ororen gainetik, haren enborra eta hostoak baitira. Landare horien hosto idorrekin edabeak egiten ditugu gaixoentzat: erabilera xumea dute, eta petrikiloek baliatzen dituzte batez ere. Neronek, alabaina, gizonaren lorea eta fruitua nahi ditut; ingura nazala haren lurrinak, eta umotu dezala gure elkarrizketa. Haren ontasunak ez du izan behar egintza partzial eta iragankor bat, halako azal etengabe bat baizik, ez zaiona ezer kostatzen eta berak ere ezagutzen ez duena. Karitate horren azpian badira bekatu ugari. Filantropoak, sarriegitan, gizateria biltzen du bere atsekabe isilduen lanbroa-reakin, eta gupida deitzen dio horri. Gure ausardia banatu behar genuke, ezen ez gure etsipena; gure osasuna eta aietasuna banatu behar genituzke, ezen ez gure eritasuna, eta hura besteei ez kutsatzeaz arduratu behar genuke. Hegoaldeko zer ordokitatik iristen zaigu lantuaeren ahotsa? Zer latitudetan bizi da pagano hori, argia bidali behar geniokeena? Nor da gizon eragabe eta oldarkor hori, erredimitu behar genukeena? Gizona gaitzen batek jota badago, halako moduan non ezin baititu bete bere betekizunak; oinaze bat sentitzen badu erraietan —horixe baita errukiaren gunea—, berehala ekingo dio mundua eraldatzeari. Gizonak, bere horretan mikrokosmos bat izanik, deskubrituko du mundua sagar berdeak jaten aritu dela orain arte<sup>81</sup> —egiazko deskubrimendu bat izango da, eta berari egokituko zaio, gainera, deskubrimendu horixe egitea—; gizonaren begietan, are,

78 William Shakespeare antzerkigilea (1564-1616), Francis Bacon filosofoa (1561-1626), Oliver Cromwell estatugizona (1599-1658), John Milton poeta (1608-1674) eta Isaac Newton fisikari eta matematikaria (1643-1727).

79 William Penn (1644-1718), militante kuakeroa eta erreforma-egile demokratikoa.

80 Elizabeth Gurney Fry (1780-1845), kartzelak erreformatzearen aldekoa.

81 Sagar berdeak jateak sabeleko mina eragiten zuela uste zen.

mundua bera sagar berde bat da, eta arrisku larria dago gizonen seme-alabek hozka egingo ote dioten umotu aurretik; gizonak, hortaz, filantropia-sukar supitu batek jota, eskimalak eta patagoniarrak bilatuko ditu kolpetik, Indiako eta Txinako herrixkak besarkatuko, eta, halaxe, jarduera filantropikoetan aritu delarik zenbait urtez, botere handiek beren xedeetarako erabiliko dute bizkitartean; dudarik ez, gizonak atzean utziko du dispepsiaren gaitza, eta mundua zertxobait musugorrituko da, masail batean edo bietan, ontzen hasia balitz bezala, eta bizitza jada ez da izango hain gordina eta, aitzitik, gozoa eta osoa izango da berriz. Ez dut sekula irudikatu neronek egindakoa baino neurrigabekeria handiagorik. Ez dut sekula ezagutu, ez eta sekula ezagutuko ere, ni baino okerragoa den gizonik.

Nire iritziz, erreforma-egilearen tristura ez du eragiten hurkoaren ezinarekiko sentitzen duen errukiak —delako erreforma-egilea Jainkoaren seme bedeinkatueta bedeinkatuena izanik ere—, bere min pribatuak baizik. Konpon dadila sufri-mendu hori, betorkiola udaberria, jaiki dadila eguzkia bere ohatzearen gainetik, eta barkamenik eskatu gabe abandonatuko ditu bere kide eskuzabalak. Ez baitut sekula murtxikatu tabakorik, ez dut erretoliarik egiten haren erabileraren kontra: tabako-murtxikatzaile ohiei dagokie zigor hori; nolana ere, gauza asko murtxikatu ditut, zeinen kontra mintza bainintekte. Era horretako filantropiak limurtzen bazaituzte inoiz, ez beza jakin zure esku ezkerak zer egiten duen eskuinak, ez baitu merezi jakitea.<sup>82</sup> Salbatu ezazue itolarrian dagoena, eta ondo lotu lokarriak. Hartu behar adina denbora, eta ekin lan askeren bati.

Santuekiko komunikazioaren ondorioz usteldu dira gure ohiturak. Gure salmo-liburuetan oihartzun dagite, betiereko, Jainkoaren madarikazio eztiak. Badirudi profetek eta erredentoreek, gizonaren itxaropenak hauspotu ez ezik, haren beldurrak kontsolatu dituztela lehenago. Inon ez da ageri bizitzaren oparia asebate denik modu soilean eta eutsiezinean; inon ez da ageri Jainkoaren gorespen gogoangarririk. Besteren osasunak eta arrakastak on egiten didate beti, urrunekoak iruditu arren; gaitxotasunak eta porrotak, ordea, kaltetzen naute, eta triste jartzen,

---

82 Mateo 6: 3 bertsetari erreferentzia: «Zuk limosna egitean, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak».

erruki handia badut ere haiekiko, edo haiek nirekiko. Hortaz, gizateria berrezarriko badugu, bitarteko egiazki indiararak, botanikoak, magnetikoak edo naturalak erabiliz, izan gaitezen, hasteko eta behin, Natura bezain soilak eta onak: saretu daitezela gure buru gaineko lainoak, eta sar dadila bizitza pixka bat gure poroetatik. Ez zaitezte izan pobreen ikuskatzaile; saiatu, aitzitik, munduko izaki laudagarrietako bat bihurtzen.

*Gulistan* —edo *Arrosategia*—<sup>83</sup> deritzon liburua irakurri dut, Shirazeko Sadi xekeak idatzia; hala dio: «Gizon jakintsu bati galdetu zioten ea, Jainko Gorenak sortu dituen zuhaitz ospetsuen, zuhaitz altu eta itzal handikoen artean, zergatik ez den bat bera ere deitzen *azad*, edo aske, salbu eta altzifrea, zeinak ez baitu ematen fruiturik; zer misterio datza horretan?» Gizonak erantzun zuen: «Arbola bakoitzak badu bere fruitu aproposa, eta sasoi jakin bat dagokio, zeinean biziberritzen eta loratzen baita; sasoi horretatik kanpo, ordea, lehortu egiten da, zimeldu; nolana ere, altzifrearen kasua ez da hori, etengabe baitago loretan, eta halakoak dira *azad* deritzenak, edo erlijio-gizon independenteak. Ez finkatu zuen bihotza iragankorra den horretan; Diljah ibaia, edo Tigrisa, Bagdaden barna ibiliko baita kalifen arraza iraungi ostean ere; eskua beterik badaukazu, izan zaitez eskuzabala, datilondoa bezala; baina ez baduzu ematekorik ezer, izan zaitez *azad* bat, edo gizon askea, altzifrea nola».

#### Bertso osagarriak (T. Carew)<sup>84</sup>

Pobreziaren usteak

«Gehiegi harrotzen zara, pobre dohakabe behartsua,  
zeruan estazio bat eskatuz

zeren zure etxe umilak, edo bainuontzi kaskarrak,  
bertute nagi edo pedanteren bat elikatzen baitu  
eguzki merketan edo iturri ospeletan,

sustraiekin eta eltzekariekin batera; zure eskuinak,  
giza pasioak gogotik erauziz,

haien enborren gainean loratzen baitira bertute eder mardulak,  
natura beheratzen du, eta zentzumena dorpetzen,  
eta, Gorgonak nola, harri bihurtzen ditu gizon biziak.

Zure neurritasun premiatsuaren

83 Persiar literaturako mugarri bat. 1259an idatzi zuen Sadik, poeta persiar nagusietako batek.

84 Thomas Carew (1595-1640), poeta ingelesa. Liburu honi dagokio poema: *Coelum Britannicum*.

lagunarte soraioa ez dugu behar,  
ezta ere ergelkeria antinatural hori,  
pozik ez minik ezagutzen ez duena; ez eta ere  
zure sendotasuna pasibo behartua, aktiboaren gainetik  
faltsuki hanpatua. Kumaldi behe eta doilor hori,  
erdipurdikerian finkatua,  
komenigarria zaie zuen jopu-gogoei; guk, ordea,  
bestelako bertuteak sustatzen ditugu, gehiegikeria-zaleak,  
egintza adoretu eta joriak; erregeen bikaintasuna,  
zuhurtasun oro-ikuslea, eskuzabaltasuna,  
mugarik ez duena; bertute heroiko horren izenik  
ez digu eman Antzinateak,  
haren ereduak soilik, hala nola Herkules  
Akiles, Teseo. Itzul zaitez gorroto duzun ziegara,  
eta esfera argiztatu berria ikusten duzunean,  
ikas ezazu, bederen, nor izan ziren pertsona laudagarri horiek».



# BI

## NON BIZI NINTZEN ETA ZERTARAKO

Gure bizitzako sasoi jakin batean iruditzen zaigu edozein leku dela aproposa etxe bat eraikitzeko. Horrenbestez, zehatz-mehatz neurtu dut bizi naizen tokitik hamabi miliara dagoen lurralde osoa, alde guztietara. Nire irudimenean, etxalde guztiak erosi ditut elkarren ondotik, eta banekien zenbat balio zuten. Nekazariaren jabegora hurbiltzen nintzen, hango sagar basatiak dastatu, laborantzari buruz mintzatu gizonarekin, etxaldea erosi berak esandako prezioan, hipotekaren kopurua kalkulatu, are prezio garestiago bat asmatu, eta den-dena hartzen nuen, eskriturak izan ezik —gizonaren hitza hartzen nuen eskrituratzat, maite baitut, maite, mintzatzea—; etxaldea lantzen nuen, eta nekazaria ere bai, hein batean behintzat —hala uste dut—; ondoren, nahikoa gozatu ostean, alde egiten nuen, jatorrizko ugazabak berean jarrai zezan. Esperientzia horri esker, higiezin-agentetzat hartzen naute adiskideek nolabait ere. Non eseri, hantxe bizi nintekeen, eta paisaia nigandik jariatzan zen. Zer da, bada, etxe bat, ez baldin bada sedes bat, hots, jesarlekua? Eta are hobeto landa-eremuan badago. Etxea ipintzeko toki ugari deskubritu nuen, berehala hobetuak izateko probabilitaterik ez zutenak; zenbaiten ustez, toki horiek urrutiegi daude herri-tik; nire ustez, ordea, herria dago urrutiegi. Tira, hemen bizi ninteke, pentsatzen nuen neure artean, eta hala egiten nuen ordubetez; uda bateko edo negu bateko bizitza irudikatzen nuen: ikusten nuen nola utz niezaiekeen urteei joaten, neguari kontra egin eta udaberriari etortzen utzi. Eskualde honetako etorkizuneko biztanleak, edozein tokitan jartzen dituztelarik ere beren

etxeak, ziur egon daitezke aurrekariak izan dituztela. Aski nuen arratsalde bat lurraren antolamendua diseinatzeko —baratzea, zuhaiztia eta zelaia—, atearen ondoan zer pinu edo haritz eder ipini erabakitzeko, eta arbola idortuen ikuspegirik onena nondik lortu zehazteko; ondoren, beharbada, lugorri utziko nuen, bakan utz ditzakeen gauzen kopuruarekiko proportzionala baita gizonaren aberastasuna.

Irudimenak hain urrun eraman ninduen, etxalde-jabe ugariren ukoa jaso bainuen —horixe nahi nuen: ezezkoa—, baina ez nituen inoiz hatzak erre egiazko jabegoarekin. Hollowell-eko lursaila erosi nuenean, orduantxe hurbildu nintzen gehien jabe-gora: hasi nintzen nire haziak sailkatzen, eta materiala biltzen eskorga bat eraikitzeke eta gauzak aurrera eta atzera eramateko; baina, jabeak eskriturak eman aurretik, haren emazteak —gizon orok dauka halako bat—, iritzia aldatu zuen: lursailari eutsi nahi zion, eta gizonak, beraz, hamar dolar eskaini zizkidan, aske utz nezan. Egia osoa esaten badut, hamar zentimo ziren nire ondasun guztia, eta ataka hartan ez nekien zeren jabe nintzen benetan —hori ebaztea gehitxo baitzen nire aritmetika-ahalmen eskasarentzat—, zer neukan, hamar zentimo, etxalde bat, hamar dolar, edo dena batera? Dena den, gizonari esan nion gordetzeko hamar dolarrak eta etxaldea beretzat, txantxa urrutiegi eraman nuelako jada; eskuzabalak izanda, etxaldea saldu nion, etxaldearengatik emana nuenaren truke, eta ez zenez gizon aberatsa, hamar dolarren oparia eskaini nion; hamar zentimo neuzkan oraindik ere poltsikoan, eta haziak, eta eskorga bat eraikitzeke materiala. Paisaia gorde nuen gogoan, hala ere, eta, orduz geroztik urtero ekoitzi duena irabazi dut, eskorga baten beharrik gabe. Paisaiei dagokionez,

«Zer neurtu, haren errege bihurtzen naiz  
nire eskubidea eztabaiaezina da».<sup>85</sup>

Maiz ikus ditut poetak, etxalde baten alderdirik preziatuenari etekina atera ostean, handik alde egiten; alabaina, bertako nekazari trauskilak uste du sagar basati gutxi batzuk baino ez dizkiotela kendu, ez baitaki poetak errimaz inguratuko duela

---

85 «Verses Supposed to Be Written by Alexander Selkirk» poemako pasarte bat. Egilea: William Cowper (1731-1800).

etxaldea, hesi ikusezinik miresgarrienarekin, alegia; modu horretan, poetak etxaldea konfiskatuko dio nekazariari, jetziko du, krema guztia beretzat hartu, eta esne gaingabetua besterik ez dio lagako.

Nire ikuspegitik, hauek ziren Hollowelleko etxaldearen abantaila benetakoak: guztiz erretiratuta zegoen, herritik bi milia ingurura, eta auzokiderik hurbilenetik milia-erdira; larre zabal batek banatzen zuen errepidetik; erreka, berriz, gertu zeukan, eta, jabearen arabera, ibaiko lanbroei esker, etxaldean ez zen izotzik izaten udaberrian —niri, egia esan, bost axola zitzaizdan hori—; gogoko nuen etxearen eta aletegiaren kolore grisa eta hondamen orokorra, eta hango hesi eroriak ere, sekulako tarteak ezartzen baitzuten neure eta azken egoiliarraren artean; orobat atsegin zitzaizkidan sagarrondo barren-huts eta likenez estaliak, untxiek karraskatuak, erakusten baitzuten zer motako auzoak izango nituen, baina, oroz gain, maite nuen ibaian gora egindako lehen txangoetatik gordetako oroitzapena: garai hartan, astigar gorrien zuhaitzi trinko baten atzean ezkutatzen zen etxaldea, zeinetatik entzuten zen bertako txakurra zaunka-ka. Irrikaz nengoen hura erosteko, jabeak arroka batzuk kendu, sagarrondo barren-hutsak moztu eta larrean han-hemenka hazitako urkiak eraitsi baino lehen; labur esanda, bere hobekuntza horietako gehiago egin aurretik. Prest nengoen aurrera egiteko, abantaila horiez gozatzegatik; prest nengoen, Atlasen antzera, hartzeko mundua nire sorbalden gainean<sup>86</sup> —ez dut inoiz jakin zer sari jaso zuen egintza haren truke—, eta gauza horiek guztiak egiteko, aitzakia edo motibo bakarrarekin: etxearen truke ordaintzea eta haren jabe izatea inor ni gogaitzera etorri gabe, bai bainekien, hasieratik jakin ere, nahi nuen erako uzta emango zidala, inoizko eta inongo uztarik oparoena, baldin eta bere kasara uzten banuen. Baina kontatu dizuedan bezala suertatu zen.

Horrenbestez, gauza bakarra esan dezaket eskala handiko nekazaritzari buruz (ortu txiki bat izan dut nik beti): haziak prest neuzkala. Askoren ustez, denborarekin hobetu egiten dira haziak. Ez dut zalantzarik urteen joanak bereizi egiten dituela ona eta txarra, eta hortaz, azkenean nire haziak landatzen ditu-

---

86 Greziar mitologian, titan gazte bat zen Atlas, eta lurra zerutik banatzen zuten zutabeak sorbalden gainean eramatera zigortu zuen Zeusek.

danean aukera gutxiago izango dut desengainua hartzeko. Nire kideei, ordea, zera esan nahi nieke, behin eta betiko: «Bizi zaitztezte aske eta konpromisorik gabe, ahalik luzeen». Konpromiso hori etxalde batekin edo eskualdeko kartzelarekin izan, ez dago alde handirik.

Katon Maiorrek, zeinaren *De Re Rusticâ*<sup>87</sup> baita nire *Cultivator*<sup>88</sup> pertsonala, hala dio —nahiz eta, eskura dudan itzulpen bakarrean, badirudien pasarteak ez daukala batere zentzurik—: «Etxalde bat erosteko asmotan zabiltzanean, egin gogoeta lasai, ez dezazun diruzalekeriaz erosi; ikuskatu ezazu adi-adi, eta ez pentsa nahikoa denik etxaldera behin inguratzea. Zenbait eta sarriago joan hara, orduan eta gehiago gustatuko zaizu, baldin eta ona bada». Uste dut ez dudala diruzalekeriaz erosiko; aitzitik, haren inguruan ibiliko naiz, jira eta bira, bizi naizen artean, eta utziko dut han lurpera nazaten lehenik, ahalik eta gehien gusta dakidan azkenean.



Hurrena egin nuen esperimentua azalduko dizuet orain, nahiz eta aurrerago pixka bat xeheago deskribatzeko asmoa dudan; komenientziagatik, hala ere, urte bakarrean bilduko dut bi urteko esperientzia. Hasieran esan dudan moduan, ez da nire xedea oda bat idaztea abaildurari buruz: harropuzkerian aritu nahi dut gogotik, nola aritzen den oilarra goizetan, makila baten puntara igota, besterik ez bada nire auzoak esnatzeko.

Nire egoitza lehen aldiz basoan finkatu nuenean, hau da, hasi nintzenean egunak ez ezik gauak bertan igarotzen —Independentzia Egunean izan zen, kasualitatez: 1845eko uztailaren 4an—, etxea oraindik ez zegoen prest negurako; egiaz, euriaren aurkako babes bat baino ez zen: ez zegoen behar bezala estalita eta ez zeukan tximiniarik; paretak, bestalde, eguraldiak jotako oholez osaturik zeuden, eta tarte zabalak uzten zituzten, haietatik hotza sartzan zen gauetan. Zutarri bertikal zuriek eta leihoen zein ateen marko berriki orraztuek halako tankera garbi eta egurastu bat ematen zioten lekuari, goizetan bereziki, ihintzaz josirik egoten baitziren, eta irudikatzen nuen halako erretxina gozo bat

---

87 Ikus 58. oharra.

88 Garai hartan aldizkari ugari argitaratzen ziren nekazaritzari buruz, besteak beste, *Boston Cultivator* eta *England Cultivator*.

izerdituko zutela eguerdi partean. Nire irudimenean, bada, halako izaera goiz-albako bat mantentzen zuen etxeak egun osoan, eta gogora ekartzan zidan aurreko urtean mendian ikusi nuen etxe bat. Txabola egurastu bat zen nirea, emokadurarik gabea, jainko bidaiari bati denbora-pasak eskaintzeko aproposa, eta jainkosa —soineko eta guzti— bat bertan hartzeko modukoa. Mendi-gailurretan ibiltzen ziren moduko haizeak igarotzen ziren nire egoitzaren gainetik, lurreko musikaren soka hautsiak edo puska zerutiarrak baizik ekartzen ez zituztela. Haizeak beti jotzen du goizean, sorkuntzaren poema ez da inoiz eteten, baina belarri gutxi aditzen dute. Toki guztietan, lurraren kanpoaldea baino ez da Olinpoa.

Horren aurretik, etxe bakarraren jabe izana nintzen, txalupa bat kenduta: kanpin-denda bat neukan, aldi behin erabiltzen nuena txangoak egiteko udan, eta ganbaran gordeta daukat, oraindik ere; txalupa, ordea, eskutik eskura ibili ostean, denboraren errekan behera abiatu da. Aterpe sendoago bat eskuratu nuelarik, aurrerapauso batzuk egin nituen, munduan ezartzeari dagokionez. Egitura hark —hain arinki finkatua— kristalizazio bat osatzen zuen, nolabait ere, nire inguruan, eta eragina izan zuen eraikitzailearen gainean. Iradokitzailea iruditzen zitzaidan, marrazki baten zirriborroa nola. Ez neukan kanpora atera beharrik aire berria arnasteko, barneko giroak ez baitzuen galtzen freskotasun-izpirik. Ez nintzen paretan artean esertzen, ezpada ate baten atzean, baita euria barra-barra ari zuenean ere. *Harivansak*<sup>89</sup> hala dio: «Txoririk gabeko etxea, gatz-piperrik gabeko okela». Nire etxea ez zen halakoa, txorien auzotar bihurtua nintzela ohartu bainintzen berehala, baina ez, ordea, txori bat kaiolatu nuelako, ezpada neronei kaiolatu nintzelako haiengandik hurbil. Alboan neuzkan, ez bakarrik baratzerak edo lorategira gerturatu ohi diren hegaztiak, ezpada basoko abeslari basatiago eta hunkigarriagoak, zeinek ez baitote inoiz kantatzen kaletar bati —edo oso gutxitan—: zozo papargorria, birigarroa, larre-txolarrea eta beste asko.

Laku txiki baten ertzean ezarri nintzen, Concord herritik milia bat eta erdira hegoalderantz, eta hura baino apur bat go-

---

89 Sanskritozko literaturako obra nagusietako bat. Mahabharatako eranskin gisa agertzen da, eta Krisna Dvaipayana Veda Vyasa-k idatzi zuela uste da.

rago, herri horren eta Lincolnen artean dagoen baso zabalaren erdian, eta hemen inguruan daukagun eremu ospetsu bakarretik —Concordeko Gudu Zelaia— bi miliara; hala ere, basoan hain hondoraturik egonda, pareko laku-ertza zen nire zerumugarik urrunena: milia-erdira neukan, eta zuhaitzez inguraturik zegoen, gainerako guztia bezala. Lehendabiziko astean, laku aldera begiratzen nuen aldiro, irudipena izaten nuen mendien goialdean egoten diren laku horietako bat zela, eta haren hondoa puska gorago zegoela beste laku batzuen gainazala baino; eguzkia jaiki ahala, gaueroko lanbro-jantzia nola kentzen zuen ikusten nuen, eta arian-arian, haren kizkur leuna edo azal lauaren isla agertzen ziren han-hemenka; lanbro-arrastoak, bestalde, bizkor urrutiratzen ziren basorantz, mamuak nola, norabide guztietan, bilkura gautiar ezkutuko bat amaitu balitz bezala. Bazirudien ihintza bera zuhaitzetatik zintzilik geratzen zela ohi baino beranduagora arte, mendi-mazeletan gertatzen den moduan.

Laku txiki hori auzokide bat bezain gauza baliotsua da abuztuko ekaitzen artean izaten diren atsedendietan; halako egokieretan, trankil-trankil daudelarik hala airea nola ura, baina zerua guztiz lainotuta, ilunabarraren patxada betea izaten du arratsaldeak, eta birigarroa kantuan aritzen da laku-bazter batetik bestera. Era horretako lakuak orduantxe egoten dira inoiz baino leunago; haien gaineko airearen zati garbia estaltzen dutelarik hodeiek, ura zero bihurtzen da, argiz eta islaz beterik: behe-zero bat, goikoa baino askoz garrantzitsuagoa. Inguruko muino batetik begiratzuz gero, zeinetako zuhaitzak moztu baitziztuzten berriki, ikuspegi atsegin bat hedatzen zen hegoalderantz, lakutik harago: ertz hartako muinoen artean badago tarte zabal bat, eta elkarren alboko bi mazelak ikusirik bata bestearen aldera lerratzen, bazirudien erreka bat egon behar zuela bien arteko baso-bailaran, baina halakorik ez zegoen. Horrela begiratzen nuen hurbileko muino berdeen artetik eta gainetik, han urrunean, urdinez tindaturik, zerumugan gorago agertzen ziren mendietarantz. Hanka-puntetan jarrita, ipar-mendebaldeko mendikate are urdinago eta are urrunagoen tontorrak begiztatzeraren iristen nintzen, zeruaren koloreaz egindako txanponen antzekoak, bai eta hiriaren puska bat ere. Beste norabide batzuetara begiratzuz gero, ordea, gailur hartan egonik ere, ez nuen ezer ikusten, inguratzen ninduen basoaz haraindi. Ondo dago ur

pixka bat edukitzea norberaren ingurumarian, lurrari flotatze-ko ahalmen pixka bat emateko. Putzu guztiek, baita txikienek ere, badute abantaila bat: haietara begiratzen duzunean, ikus dezakezu lurra ez dela kontinentala, uhartetarra baizik. Ezaugarri hori, eta uraren bitartez gurina hotz mantentzen dela, onura garrantzitsuak dira neurri berean. Batzuetan Sudbury-ko belardietarantz so egiten nuen nire talaia hartatik; urak handitzen zirenean, bazirudien goratu egiten zirela larreak bailara ederraren barruan —ilusio optiko baten eraginez akaso—, txanpona nola katiluan; harantz begiratzen nuenean, bada, lakutik haragoko lurralde osoak, erdibideko ur horietan islaturik, oskol mehe baten tankera hartzen zuen, eta gogora etortzen zitzaidan *leho-rean* nuela, egiaz, egoitza.

Are estuagoa zen etxeko atetik ikus nezakeen ikuspegia, baina ez nintzen sentitzen hesiturik ez konfinaturik inolaz ere. Bazuen aski bazkaleku nire irudimenak. Bazen harizti txiki bat lakuaren beste ertzean, mendebaldeko ordokietarantz eta Tartariako estepetarantz hedatzen zena, zeinak espazio zabala eskaintzen baitzuen gizonaren familia alderrai guztientzat. «Zerumuga zabal batez libreki gozatzen duten izakiak dira mundu honetako izaki zoriontsu bakarrak», esaten zuen Damodara-k,<sup>90</sup> bere artaldeek larre berri eta zabalagoen premia zeukatenean.

Biak aldatu ziren, lekua eta denbora, eta unibertsoan gehien erakartzen ninduten lekuetatik eta garai historikoetatik al bait hurbilen suertatu nintzen. Astronomoek gauero behatzen dituzten eremuak bezain urruti zegoen nire bizilekua. Irudikatu ohi dugu leku bitxi eta liluragarriak daudela sistemako leku urrun eta zerutiarragoetan, Kasiopea deritzon konstelazioaz gaindi, hotsetik eta harrabotsetik at. Bada, jabetu nintzen nire etxea unibertso txoko isolatu batean kokatzen zela benetan, txoko beti berri eta profanatu gabeko batean. Benetan merezi baldin bazuen Pleiadeetatik edo Hiadeetatik<sup>91</sup> gertu ezartzea, Aldebaran edo Altairretik<sup>92</sup> hurbil, hantxe nengoen benetan, haiek bezain urrun utzia bainuen aurreko bizitza; diz-diz egiten nuen, txikituz nindoalarik, harik eta auzorik hurbilenaren begietara txinparta fin bat emango nuen arte, eta, edonola ere, ilargirik

90 Krishnaren izenetako bat.

91 Taurus konstelaziotik hurbil dauden izar-kumuluak.

92 Taurus eta Aquila konstelazioetako izar distiratsuenak, hurrenez hurren.

gabeko gauetan baino ezin izango ninduen ikusi. Kreazioaren puska huraxe okupatu nuen:

«Bazen behin artzain bat bizi zena,  
eta pentsamenduak izaten zituen,  
mendien gailur goretan,  
bere artaldeak bazkatzen ziren larreak bezalakoetan».<sup>93</sup>

Zer iritzi behar genioke artzainaren bizitzari, baldin eta bere artaldea beti ibiliko balitz bere pentsamenduak baino gorago?

Goiz guztiak ziren gonbidapen alai bat, naturaren pareko soiltasunez eta —esan dezadan— inozentziaz ekin niezaion bi-ziari. Auroraren gurtzaile zintzoa nauzue, greziarrak bezalaxe. Goiz altxatu, eta lakuan bainatzen nintzen: ariketa erlijioso bat zen, eta egiten nuen gauzarik onenetako bat. Diotenez, Cheng-Thang<sup>94</sup> erregearen bainuontzian, karaktere batzuk ageri ziren grabaturik, hau adieraziz: «Berritu zaitez osorik egunero; egin ezazu berriro, eta berriro, betirako».<sup>95</sup> Ulergarria iruditzen zait. Goizak aro heroikoak oroitarazten dizkigu. Egunsentiaren hasieran, etxeko atarian esertzen nintzenean leihoak zabalik, etxean barna jirabiraka zebilen euliaren furrundak biziki eragiten zidan, inoren ospea aldarrikatzen duten tronpetek bezainbeste. Homeroren requiema zen: *Iliada* bat edo *Odisea* bat airean, bere amorruek eta noraezak kantatuz. Bazuen zerbait kosmiko: munduaren ahal eta emankortasun betierekoaren iragarki iraunkor bat nola —iraunkorra, debekatua izan arte bederen—. Goiza da eguneko gauzarik gogoangarriena: esnatzeko unea. Une horretan izaten dugu logura gutxien, eta, ordubetez behintzat, gainerakoan erdi lo egoten den gure barreneko zati bat iratzartzen da. Ez bagaitu gure Jainuak esnatzen, ezpada zerbitzariren baten ukondo-kolpe mekanikoak; ez bagaituzte gure barnetik beretik esnatzen berriki eskuratu ditugun indarrek eta asmoek, musika zerutiarraren uhinak lagun dituztela, lurrin gozo bat airean dabilela, lokartu ginenekoa baino bizitza gorenago batera etorritz, eta lantegiko kanpaiak esnatzen bagaitu horren ordez,

93 1610eko poema anonimo bat.

94 Shang (edo Yin) dinastiaren sortzailea (K. a. 1766 - K. a. 1122).

95 Konfuzio, *Ikaskuntza handia*, 2:1.



gutxi espero liteke halako egun batetik, baldin eta egun dei badakioke, modu horretan bakarrik emango baitu iluntasunak bere fruitua, eta ona dela erakutsi: argia bezain ona. Gizonak ez baldin badu sinesten egun bakoitzaren barruan badagoela berak profanatu dituenak baino ordu goiztiarrago, sakratuago eta albakoago bat, gizon horrek etsi egin du bizitzan, eta beherako bide bati lotu zaio, iluntze-bide bati. Bere bizitza sentikorra aldi batez eten ostean, gizonaren arima, edo organoak, hobeto esanda, egunero suspertzen dira, eta bere Jainuak berriro ekiten dio asmo duen bizitza noblea sortzeari. Gertakari gogoangarri guztiak, esango nuke, goizeko orduan jazotzen dira, goizeko aldardean. *Veda*<sup>96</sup> deritzen testuek hala diote: «Adimen guztiak iratzartzen dira goizarekin». Ordu horretantxe gertatzen dira poesia, artea eta gizonen ekintzarik justuenak eta gogoangarrienak. Poeta eta heroiak oro, Memnon bezalaxe,<sup>97</sup> Auroraren haurrak dira, eta egunsentian igortzen dute beren doinua. Baldin eta gizon baten pentsamendu elastiko eta kementsua eguzkiarekin batera badoa, berarentzat betiereko goizak izango dira egunak. Ez du axola zer dioten erlojuek, ez eta zeintzuk diren gizonen jarrerak eta lanak ere: goiza izango da itzarrrik nagoenean, eta nire barnean goiztiri bat gertatzen denean. Loaz libratzeko ahalegina, horixe da erreforma moralak. Zergatik ez diote zukurik ateratzen gizonak beren egunei, baldin ez badira lozorroan egon? Ez dira, alajaina, hain kalkulatuzaile kaskarrak. Logurak harrapatu ez balitu, zerbait gauzatu izango zuket. Milioika lagun egoten dira itzarrrik lan fisikoa egiteko beste; ariketa intelektual efektiboa gauzatzeko adina, berriz, bat bakarra milioi bakoitzeko, eta bizitza poetikoa edo jainkotiarra garatzeko, aldiz, bat bakarra ehunka milioiren artean. Gauza bera dira itzarrrik egotea eta bizirik egotea. Oraindik ez dut ezagutu aski itzarrrik zegoen gizonik. Nola begiratu nion aurpegira?

Ikasi behar dugu berriro iratzartzen eta geure burua esna mantentzen, ez bitarteko mekanikoen bidez, baizik eta egunsentiaren esperoan egonez betiere, zeinak ez baitigu traizio egiten gure loaldi sakonenean. Horren harira, egitate guztiz adoregarri bat ezagutzen dut: ez da dudarik gizona gauza dela bere bizi-

---

96 Indiar literaturako testu sakraturik zaharrena.

97 Greziar mitologian, Etiopiako errege bat izan zen, Eos egunsentiaren jainkosaren semea.

tza goratzeko ahalegin kontziente baten bitartez. Bada zerbait irudi jakin bat margotu ahal izatea, edo estatua bat tailatu ahal izatea, edo objektu bakan batzuk edertzea, baina askoz gloria handiagoa da begiratzen dugun atmosfera bera margotzea eta ingurunea bera zizelkatzea; eta gai gara, gai garenez, moralaren bidez egiteko hori. Egunaren kalitateari eragitea, horra hor arte gorenetan gorenena. Gizon orori esleitzen zaio honako zeregin hau: bere bizitza sor dezala halako moduan non behatzeko modukoa izango baita, xehetasunik txikieneraino, bere punturik goren eta erabakigarrienean. Uko egiten badiogu, edo, hobeto esanda, agortu egiten badugu eskura jartzen zaigun informazio hutsala, orakuluek argi adieraziko digute nola lortu gure xedea.

Basora joan nintzen deliberoz bizi nahi nuelako, bizitzaren egia funtsezkoiei bakarrik buru egin eta bizitzak irakasteko zeukana ikas ote nezakeen egiaztatu, ez nedin ohartu, heriotzako unean, ez nintzela bizi izan. Ez nuen bizi nahi bizitza ez zen zerbait, bizitzea hain baita gauza preziatua, eta ez nuen etsipena praktikatu nahi, ez baldin bazen zeharo premiazkoa. Sakon bizi nahi nuen, eta bizitza muineraino xurgatu; bizi nahi nuen irmo eta espartar, bizitza ez zen guztia kanpoan uzteko; muga bat zedarritzatu zorrotz, eta bizitza eraman zoko-bazterrerara, bere ezaugarri oinarritzkoetara murriztu, eta, funtsean zekena dela egiaztatuko banu, zergatik ez, haren zekentasun osoa eta egiazkoa atzitu, eta haren zekentasunaren berria ekarri munduari; edo, sublimea balitz, neure eskarmentuz berretsi, eta horren kontakizun zinezko bat egiteko gauza izan nire hurrengo txangoan. Zeren gizon gehienek, iruditzen zaidanez, ez baitakite ziur bizitza deabruari dagokion edo Jainkoari, eta *presatu antzean* ondorioztatu dute gizonaren xederik behinena dela, lur honetan, «Jainkoa gorestea eta hartaz gozatzea betirako».

Zekenki bizi gara, ordea, inurrien eran; nahiz eta fabulak azaltzen digun aspaldi bihurtu ginela gizon: lertsunekin borrokatzen gara, pigmeoak nola; akatsak egiten ditugu akatsen gainean, txatalak jartzen ditugu txatalen gainean: gure bertuterik onenak zorigaitz azaleko eta saihesgarri batera bideratzen gaitu halako egoeran. Xehetasunetan galdurik xahutzen dugu gure bizi-denbora. Gizon zintzo batek, zenbatzeko, ez du behar bere hamar hatzak baino ezer gehiago, eta, muturreko kasuetan, aintzat har ditzake hamar behatzak ere, eta gainerakoa ahaztu. Sinpleta-

suna, sinpletasuna, sinpletasuna! Honela diot: hartu bizpahiru kontu zuen gain, eta ez ehun edo mila; zenbatu dozena-erdi bat milioi bat beharrean, eta erpuarean azkazala erabili kontuak egiteko. Bizitza zibilizatuaren ur handietan, hain dira itzelak bidean agertzen diren lainoak eta ekaitzak eta harea mugikorak eta mila eta bat gauza gehiago, ezen gizonak, ez hondoratze-ko eta dagokion portura iristeko noizbait, estimazioen arabera nabigatu behar baitu, eta, arrakasta izango badu, kalkulatu iaioa izan beharko du, inondik ere. Sinpletu, sinpletu. Gure bizitza, izan ere, Germaniar Konfederazioaren parekoa baita: estatu txikiek osatzen dute, eta mugak hain aldakorak dira, germaniar-rrak ere ez baitira gai esateko zeintzuk diren mugarri zehatzak une jakin batean. Nazioa bera, barne-mailako bere hobekuntza guztiekin —zeinak, bidenabar esanda, kanpokoak eta azalekoak baitira oro—, antolamendu zurrun bat da egiaz, gehiegi hazi dena, altzariz pilatua eta berak jarritako zepoetan eroritakoa; luxuak eta xahutze arduragabeak hondatu dute, kalkulurik ez egitearen eta xede duinik ez izatearen ondorioz, herrialde honetako milioika etxetan gertatzen den bezalaxe; horri guztiari dagokionez, sendabide bakarra da ekonomia zurrun bat ezartzea, bizitza bizitza sinpletasunik soilenarekin eta espartarrak baino espartarrago jardunez, eta xede goratuak finkatzea. Bizkorregi bizi gara. Gizonek uste dute, inongo zalantzarik gabe, funtsezkoa dela Nazioak komertzioa egitea, izotza esportatzea, telegrafo bidez mintzatzea, eta orduko hogeita hamar miliatan bidaiatzea, berdin du hori guztia *haiek* egiten duten edo ez; baina beste auzi hau, alegia, babuinoen eran edo gizonak bezala bizi behar ote dugun, oraindik ez dago guztiz argi. Ez baditugu habetzanak ipintzen, eta errailak forjatzen; ez badizkiogu gauak eta egunak eskaintzen lantegi horri; eta, aitzitik, gure *bizitzak* berritzeari ekiten badiogu, *gure bizitzak* hobetzeko, zeinek eraikiko ditu burdinbideak? Eta burdinbideak eraikitzen ez badira, nola iritsiko gara zerura garaiz? Baina, etxean geratzen bagara, eta gure kontuez arduratzen, zeinek nahi izango du, bada, burdinbiderik? Ez gabiltza gu trenbidean; hura dabil gure gainean. Inoiz pentsatu al duzue zer diren errailaren azpiko *habetzanak*?<sup>98</sup> Horietako ba-

98 Hitz-jokoa. Ingelesez, *sleepers* hitzak bi esanahi ditu: habetzana (edo trabesa) eta lotan dagoen pertsona. Esanahi bikoitz horren gainean ardatzen du egileak bere hausnarketa.

koitza gizon bat da; irlandarra edo yankia. Haien gainean jartzen dira errailak, hondarrez estali, eta bagoiak leun-leun abiatzen dira orduan. Eta, zenbait urteren buruan, sorta berri bat jartzen da, bagoiak haien gainetik pasa daitezen; halatan, batzuek errail baten gainean ibiltzeko pagotxa dute; beste batzuei, berriz, inor gainetik pasatzeko desgrazia egokitzen zaie. Eta trenak aurretik eramaten duelarik gizon lo-ibiltari bat, posizio desegokian dagoen trabes bat, eta ondorioz iratzarri egiten duelarik, kolpetik geratzen dira bagoiak, eta zalaparta itzela sortzen da, salbuespen bat izango balitz bezala. Jakin dut gizon-kuadrilla bat aritzen dela, bost miliako tarte bakoitzeko, trabesak behar den moduan kokatzen, nor bere ohean, eta poztekoa iruditzen zait, horrek erakusten baitu agian altxa egingo direla berriro.

Zergatik bizi behar dugu halako presaz, bizitza hala xahutuz? Tematuta gaude goseak hil behar dugula goseak egon aurretik. Gizonek esaten dutenez, puntada bat garaiz emanez gero, bederatzi aurrezten dira; hortaz, mila puntada ematen dituzte gaur, biharko bederatziak aurrezteko. *Lanari* dagokionez, ez daukagu lan garrantzitsurik batere. San Vitoren dantzak<sup>99</sup> bizi gaitu, eta ezin diogu geure buruari zuzen eutsi. Tiraldi gutxi batzuk joko banizkio elizako kanpaiaren sokari, sute bat dagoela adierazteko —hau da, kanpaia iraultzera iritsi gabe—, ziztuan aterako lirateke gizon guztiak beren etxaldeetatik, baita Condordeko aldirietakoak ere, nahiz eta gaur goizean hamaika zeregin guztiz presazkoren aitzakian babestu diren harako hari eta horko horri ez erantzuteko, eta ausartuko nintzateke esatera ziztuan abiatuko liratekeela mutikoak eta emakumeak orobat, dena bazterrera utzi eta txilin-soinuari jarraituko lioketela, baina ez, ordea, jabetzak salbatzeko suaren garretatik, ezpada, egia aitortuko badugu, jabetzak nola kiskaltzen diren ikusteko, kiskali behar baitute —eta argi gera dadila sua ez dugula geronek piztu—; hurbildu dira, beraz, sua itzaltzeko prozesua ikustera, edo horretan laguntzera beharbada, sua itzaltzeko modua ikusgarria bada, noski. Gauzak horrela gertatuko lirateke baita eliza bera erreko balitz ere. Gizon batek, ordu-erdi eskaseko lo-kuluxka eginda bazkalostean, esnatzean burua altxa eta galdetuko du: «Bada berririk?»; gainerako gizakiak bere zaindariak balira

---

99 Korea gaixotasuna, nahi gabeko mugimendu bat-batekoak eragiten dituena.

bezala. Batzuek agindua ematen dute ordu-erdiro iratzar ditzaten, berriak eskatzeko beste xederik gabe; ondoren, albisteen trukean, zer amestu duten azaltzen dute. Gau osoan lo egin eta gero, gosaltzea bezain ezinbestekoa da berrien berri izatea. «Azaldu iezadazu, mesedez, gauza berririk gertatu bazaio gizonari lurbira honetako edozein lekutan», dio gizonak, eta kafea eta opilak hartzeaz batera, irakurtzen du gizon bati begiak erauzi dizkiotela gaur goizean Wachito ibaian,<sup>100</sup> eta bien bitartean ez da ohartzen mundu honetako mamut-leize<sup>101</sup> ezagutezin eta ilunean bizi dela bera ere, bi begi baino ez dituela tresna gisa.<sup>102</sup>

Neroni aise bizi ninteke posta-bulegorik gabe. Uste dut komunikazio garrantzitsu gutxi egiten direla postaren bitartez. Kritikotasunez mintzatuz, esango dut gutun bat edo bi baizik ez ditudala jaso nire bizialdian bidaltze-gastuak ordaintzea merezi zutenak —aspaldi idatzi nuen hori—. Penny bateko postaren bidez, gizonari serio eskaintzen zaio bere pentsamenduak adieraz ditzala txakur txiki baten truke; eskaintza hori, ordea, txantxetan bakarrik egiten da maiz, inongo arriskurik gabe.<sup>103</sup> Eta ziur naiz berripaperean inoiz ez dudala irakurri berri gogoangarririk. Irakurriko bagenu gizon bati lapurreta egin diotela, edo akabatu egin dutela, edo istripuz hil dela; etxe bat erre dela, itsasontzi bat hondoratu, bapore bat lehertu, edo behi bat aurretik eraman duela trenak Mendebaldeko trenbidean; gaitzak jotako txakur bat hil dutela, edo matxinsalto mordo bat zendu dela neguan, ez genuke beharrik izango halako albiste gehiago irakurtzeko inoiz. Aski da batekin. Printzipioa ezagutuz gero, axola al zaizkizu batere haren milaka kasuak eta adibideak? Filosofoaren ikuspegitik, *berriak* —hala esaten baitzaie— txutxu-mutxuak dira beti, eta atsoek irakurtzen eta editatzen dituzte tearen orduan. Haatik, asko ibiltzen dira halako txutxu-mutxuen grinak jota. Jakin dudanez, egundoko zalaparta izan zen duela egun batzuk bulegoetan, atzerriko albiste iritsi berriak zirela kausa: egoitzako erakusleihu batzuk hautsi ziren jende-pilaketaren ondorioz,

---

100 Ouachita ibaia, Arkansas.

101 Toki erreal bati buruz ari da: Mammoth Cave (Kentucky). Parke nazional bihurtu zen 1941ean.

102 Mammoth Caveko arrain batzuk itsuak ziren.

103 Tarifa bakarreko posta-sistema; 1840.urtean ezarri zen Britainia Handian. *Penny* bat balio zuen, eta honako esaldi hau hedarazi zuen: «Penny bat zure pentsamenduen truke». Bestea zertan pentsatzen ari zen galdetzeko erabili ohi zen esamoldea.

nahiz eta, nire ustez, adimen prestu batek aise idatz zitzakeen albiste horiek hamabi hilabete lehenago, eta baita hamabi urte lehenago ere, zehaztasun nahikoaren. Adibidez, Espainiari erreparatuz gero, jakin behar duzu nola aipatu, aldian behin eta proportzio egokian, Don Karlos eta Infanta andrea,<sup>104</sup> orobat Don Pedro,<sup>105</sup> Sevilla eta Granada —baliteke izenak zertxobait aldatu izana azken boladan, egunkaria azken aldiz irakurri nue-netik—, zezenketa bat erantsi bestelako entretenimendu-saioek huts egiten dutenean, eta kontua egiazkoa izango da hitzez hitz, eta Espainiaren atarramentua edo hondamendia zertan den adieraziko du zehatz-mehatz, berripaperetan gaiaren inguruan argitaratzen diren txosten labur eta buruargiek adina; Ingaltarraren kasuan, berriz, inguru horretatik iritsi zaigun azken albiste esanguratsua 1649ko iraultza<sup>106</sup> izan zen kasik, eta batez besteko urte batean herrialdeko uztaldia nolakoa izan den ikasiz gero, ez diozu berriro jaramonik egin beharrik izango kontu horri, salbu eta zure espekulazioak diruari lotuta badaude soilik. Egunkariak oso lantzean behin baino irakurtzen ez dituenaren ikuspegitik, atzerriko lurretan ez da ezertxo ere gertatzen inoiz, eta, alde horretatik, Frantziako iraultzak ez dira salbuespena.

Berriak, alajaina! Askoz garrantzitsuagoa da inoiz zahar-tzen ez dena ezagutzea! «Kieou-he-yu delakoak (Wei estatuko agintari handia bera), gizon bat bidali zuen Kung-Tse<sup>107</sup> filosofoa-rengana, haren berri izateko. Kung-Tsek bere ondoan eserarazi zuen mezularia, eta honako galdera hau egin zion: ‘Zertan ari da zure nagusia?’. Mezulariak, berriz, errespetuz erantzun zion: ‘Nire nagusiak bere akatsen kopurua murriztu nahi du, baina ez du lortzen’. Mezulariak alde egin ostean, filosofoak pentsatu zuen: ‘Bai mezulari duina! Bai mezulari duina!’».<sup>108</sup> Predikariak ez litzuke nekazari logaletuen belarriak nekatu behar, astearen bukaeran egokitzen zaien atsedeen-egunean —gaizki erabilitako asteari dagokion amaiera baita igandea, ezen ez aste berri baten hasiera fresko-freskoa—, sermoi beti-berdin bat eginez; aitzitik,

---

104 Karlos (1788-1855), Espainiako errege Fernando VIIren (1784-1833) anaia.

Fernandoren alaba, Isabel, Espainiako erregina izendatu zuten 1833an.

105 Pedro I. Gaztelakoa (1334-1369).

106 1642tik 1649ra bitarte iraun zuen iraultza. Oliver Cromwellek protektoratua ezarri zuen, eta britainiar monarkia bertan behera geratu zen tarte horretan.

107 Konfuzio.

108 Konfuzioren *Analektak*, 14:26.

aldarri egin behar luke trumoi-ahotsez: «Geldi! Kieto! Zer dela eta halako presa-itxurak, baldin bazoazte hilgarriki mantso?».

Egia sendo gisa aurkezten dira engainuak eta iruzurrak; errealitatea, berriz, alegiazkoa da. Gizonek errealtateari bakarrik erreparatuko baliote usadioz, eta ez balute utziko engaina ditzaten, bizitza, gaur egun ezagutzen dugun egoerarekin alderatuta, maitagarrien ipuinen eta *Mila eta bat gauen* antzekoa litzateke. Saihestezina dena eta izateko eskubidea duena bakarrik errespetatuko bagenitu, oihartzun egingo lukete kaleetan musikak eta poesiak. Presarik gabe gabiltzanean, zuhurtasunez, ohartzen gara gauza itzel eta duinek bakarrik dutela existentzia iraunkorra eta absolutua, eta beldur zein plazer hutsalak ez direla errealtatearen itzalak baino. Hori egiaztatzea beti da bizkorgarria eta sublimea. Gizonek begiak itxi eta lo-kuluxkak egiten dituztenean, modua emanez itxurakeriekin engaina ditzaten, beren eguneroko bizitzaren errutinak eta ohiturak ezartzen eta sendotzen dituzte nonahi, zeinak zutarri zeharo faltsuetan oinarritzen baitira. Haurrek, bizitzara jolasten direlarik, gizonek baino argiago hautematen dute zeintzuk diren bizitzaren egiazko legea eta harremanak; gizonek, izan ere, ez dute bizia duintasunez bizitzen, baina uste dute jakintsuagoak direla eskarmentuaren poderioz, hau da, huts egin dutelako. Liburu hindu baten irakurri dudanez, «bazen behin errege batean semea, bere sorterritik egotzi zutena haurtzaroan: atzerritar batek hezi zuen, eta egoera horretan iritsi zenez helduarora, berekin bizi zen arraza barbaroko partaidea zela uste zuen. Bere aitaren ministroetako batek topatu zuen, orde: bere izaerari buruzko nahasmendua argituta, printze bat zela jakin zuen. Horrenbestez —dio filosofo hinduak—, arimak nahastu egiten du bere egiazko izatea, kokatuta dagoen egoerari dagokiola uste baitu, harik eta irakasle sakraturen batek egia azaltzen dion arte, eta bera *brahma* bat dela jakiten duen arte».<sup>109</sup> Iruditzen zait geronek, Ingalaterra Berriko biztanleok, ezin dugula ezer ikusi gauzen azaletik harago, eta horregatik bizi dugula halako bizi zekena. Gauzak zer *iruditu*, horixe *direla* uste dugu. Gizon bat herri honetan barna ibiliko balitz, eta errealtatea baino ez balu ikusiko, zer esango luke, zuen ustez, «Mill-dam» dela-

---

109 *Sankhya Karika* liburuko aipua. Filosofia hinduan, izate espiritualaren muina dira *Brahmak*.

koari<sup>110</sup> buruz? Hemen behatutako errealitateen kontakizun bat eskainiko baligu, ez genuke tokia ezagutuko. Errepara iezaiozue bilkura-aretoari, edo epaitegiari, edo espetxeari, edo dendari, edo etxebizitza bati, eta esan ezazue zer den benetan gauza hori, begirada zintzo batekin: toki horiek denak puskaka desegino lirerateke zuen azalpenean. Gizonek uste dute egia urrun dagoela, sistemaren aldirietan, izarrrik urrutikoenaren atzean, Adamen aurretik eta azken gizonaren ondoren. Eternitatean badago, badagoenez, zerbait egiazkoa eta sublimea. Baina hemen eta orain daude denbora, leku eta egokiera horiek guztiak. Jainkoa bera une honetantxe burutzen da, eta ez da inoiz izango, gizateriaren aro guztietan, orain den bezain zerutiarra. Inguratzen gaituen errealitatea hartuz eta txertatuz bakarrik izango gara gai sublimea eta noblea den guztia atzitzeko. Unibertsoak etenik gabe eta esaneko erantzuten die gure asmakuntzei; bizkor nahiz mantso joan, bidea ezarria dago gure aurrean. Bizia eman dezagun, bada, asmatzen. Poeten eta artisten asmoak inoiz ez dira izan hain ederrak eta nobleak, ondorengoren batek ezin gauzatzeko bestekoak.

Igaro dezagun egun bat, bederen, Naturaren pareko deliberoarekin, eta ez gaitzabela gure bidetik atera errailera erortzen den intxaur-oskol edo euli-hegal ziztrinek. Altxa gaitzezen goiz eta arin, eta barau egin, edo baraualdia eten, lasai, asalduarik gabe; etor daitezela bisitariak, eta joan daitezela; jo dezatela kanpaiek eta negar egin dezatela umeek: euts diezaiogun, erabakimen osoz, eguna sortzeko lanari. Zergatik eman amore, eta korrontearrekin bat egin? Ez gaitzala zapuztu eta zanpatu bazkaria esaten zaion zirimola izugarri azkar horrek, eguerdiaren ur azalekoetan agertzen denak. Gainditu arrisku hori, eta seguru egongo zara; bidea maldan behera joango baita ordutik aurrera. Kirioak zut, sendotasun goiztiarrarekin, nabiga ezazu, beste alderantz begiratu, Ulises bezala masta bati lotuta. Tren-makinak txistu egiten badu, egin dezala, harik eta marrantatu arte. Kanpaiak joz gero, zergatik alde egin behar dugu? Azter dezagun zer musika-klase dagiten. Ezar diezaiogun xede bat gure buruari, eta jardun gaitzezen horretan: hondora ditzagun oinak, ondo hondoratu ere,

---

110 Concordeko herrigunea. Literalki, errota esan nahi du; izan ere, handixe abiatu zen herriaren eraikuntza.



aburuen, aurreiritzien, tradizioaren, iruzurraren eta itxuren lokaztian, zeinak lurbira estaltzen baitu osorik —Paristik hasita Londreseraino, New York, Boston eta Concord barrena, eliza eta estatua blaituz, eta poesia eta filosofia eta erlijioa gurutzatuz—, harik eta arrokaz osaturiko hondo gogor batera iritsi arte, zeinari *errealitatea dei* baitakioke, eta esan dezagun: «Hauxe da, dudarik gabe»; horrela, *point d'appui* bat daukagularik, bertatik abia gaitetzeke, itsasgoren eta izotzen eta suen azpitik, eta leku bat hartu, zeinean finka baitezakegu pareta bat edo estatu bat, edo lanpara bat ipini segurtasun osoz, edo neurgailu bat bestela, baina ez Nilometro<sup>111</sup> bat, Errealometro bat baizik, etorkizuneko garaietan jakin dezaten zenbat hazi diren iruzurrak eta itxurakeriak aldianaldian. Egitate baten aurrean jartzen bazarete parez pare, ikusiko duzue eguzkiak diz-diz egiten diola bi aldeetan, zimitarra bat bailitzan, eta sentituko duzue nola erdibitzen zaituen, bihotzean eta muinean, haren aho gozoak, eta halaxe amaituko duzue, alaiki, zuen ibilbide hilkorra. Bizitza izan, zein heriotza, errealitatea baino ez dugu irrikatzen. Hiltzen ari bagara benetan, entzun dezagun gure eztarriaren korroka eta senti dezagun hotza beso-zangoetan; bizirik bagaude, aldiz, hel diezaiegun gure zereginei.

Arrantza egiten dudan ibaia da denbora, ez besterik. Bertatik edaten dut, baina, edan bitartean, hondo hareatsua begiztatzen dut, eta egiaztatzen dut azalekoa dela guztiz. Badoa haren korronte arina; eternitateak irauten du. Sakonago edango nuke, eta zeruan arrantza egin, zeinaren hondoa izarrez josia baitago. Ezin batera arte zenbatu. Ez dut ezagutzen alfabetoaren lehen letra. Damu izan dut, betidanik, jaiio nintzen egunean bezain jakintsua ez izatea. Adimena aizto bat da: gauzen muina bereizi, eta bidea irekitzen du haraino. Ez dut behar baino gauza gehiagotan jardun nahi eskuekin. Nire burua esku eta oin da. Bertan kokatzen dira nire gaitasunik onenak. Nire senak dio zulatze-organo bat dela nire burua; beste izaki batzuek muturrarekin eta aurreko atzaparrekin nola, halaxe jarduten naiz ni, zulatu eta zulatu, muino hauetan zehar bidea egiten. Uste dut inguruotan dagoela zainik aberatsena; hagatxo magikoaz eta lurretik altxatzen diren lurrunez fio naiz, eta hementxe ekingo diot indusketari.

---

111 Nilo ibaiaren maila neurtzeko erabiltzen ziren bitartekoak.



# HIRU

## IRAKURTZEA

Delibero pixka bat handiagoarekin aukeratuko balituzte beren ekinaldiak, baliteke gizon guztiak funtsean bilakatzea ikasle eta behatzaile, den-denak kezkatzen baitira beren izateaz zein patuaz. Jabetzak pilatzen ditugunean geuretzat edo ondorengoentzat, familia bat edo estatu bat sortzen dugunean, edo fama eskuratzen, hilkorrek gara; egari heltzen diogunean, ordea, hilezkorrek gara, eta ez diegu zertan beldurrik izan aldaketei, ez eta istripuei ere. Dibinitatearen estatuaren gaineko beloa zertxobait altxatu zuen, mutur batetik helduz, filosofo egiptoar edo hindu zaharrenak, eta soineko dardaratiak halaxe jarraitzen du, altxaturik; so nagokio, garaiko filosofoa bezala, neronek piztu bainuen haren barneko ausardia, eta, orain, hura dago nigan, ikuspegia berritzen. Hautsik ez da finkatu soineko horretan, ez da denborarik igaro dibinitatea agerian geratu zenetik. Zinez hobetzen dugun denbora hori, edo hobetzeko modukoa dena, ez da iragana, ez oraina, ez eta etorkizuna ere.

Nire egoitza egokiagoa zen unibertsitatea baino, ez soilik pentsatzeko, ezpada buru-belarri irakurtzeko ere, eta urrunegi nengoen arren liburutegi ibiltarien helmenetik, munduan barna ibilian dabilzan liburu horiek inoiz baino eragin handiago zuten nigan; halako liburuetakoa esaldiak zuhaitz-azaletan idatziak izan ziren lehenik; orain, liho-paperera kopiatzen dituzte lantzean behin. Hala dio Mîr Camar Uddîn Mast poetak:<sup>112</sup> «Mundu espiritualeko eremuan barna ibili naiz, eserita nengoez: zor-

---

112 Persiar eta urdu poeta, Kalkutan (India) hil zen 1793an.

te hori izan dut liburuei esker. Ardo-kopa bakar batekin horditu naiz: gozamen hori izan dut, doktrina esoterikoaren likorea eda-nik». Uda osoan, mahai gainean eduki nuen Homeroren *Iliada*, nahiz eta begiratu bat baino ez nion ematen tarteka. Etengabe jarduten nintzenez eskuekin lanean, aldi berean etxea amaitu eta babarrun-sorosa aitzurto behar nuelako, ezinezkoa zen gehi-ago ikastea. Hala ere, neure burua adoretu nuen, etorkizunean halako irakurraieki ekiteko aukera izango nuela pentsatuz. Atse-denaldietan, bidaia-liburu axalekoak irakurri nituen, bat edo bi, harik eta lantegi horrek neure buruaz lotsarazi ninduen arte, eta nire buruari galdeginarazi ea non bizi nintzen *neroni*.

Ikasleak, lasaikerian edo likiskerian erortzeko arriskurik gabe, grezieraz irakur ditzake Homeroren edo Eskiloren lanak, hala eginez bere heroien ekina antzeratzen ari baita, goizeko orduak eskainiz haien orrialdeei. Liburu heroikoak, gure ama-hizkuntzan argitaratzen badira ere, mintzaira hila izango dira garai gizagalduetan, eta buru-belarri jardun behar dugu hitz bakoitzaren eta lerro bakoitzaren esanahiaren bila, beren baitan zentzu handiago bat dagoela susmatuz, gure jakinduriak eta kemenak eta eskuzabaltasunak baimentzen digun erabilera arruntetik haraindi. Inprenta modernoak, merkea eta emankorra izanagatik ere, ez du askorik egin antzinateko idazle heroikoak gugana gehiago hurbiltzeko. Inoiz baino bakardade handiagoan daudela dirudi, eta beren letra inprimatuek inoiz baino bitxia-koak eta xeblebreagoak ematen dute. Merezi du gaztaroko egunak eta ordu preziatuak lantegi horretara bideratzea, baldin eta antzi-nako hizkuntza bateko hitz batzuk bederen ikasteko balio badu, zeinak kaleko kontu hutsalen gaintik baitaude; iradokizun eta probokazio etengabeak dira. Nekazariak ez ditu alferrik oroi-tzen eta errepikatzen entzunak dituen latinezko hitz apurrak. Batzuetan gizonak esaten dute ikasketa klasikoek bidea eman beharko lioketela, behingoan, ikasketa modernoago eta prakti-koagoi, baina abenturazaleak beti ikasiko ditu klasikoak: berdin du zer hizkuntzatan idatzita dauden, edo antzina-antzinakoak diren. Zer dira, bada, klasikoak, ez badira gizonaren pentsa-mendurik nobleenen erregistroak? Klasikoak dira zaharkituta geratu ez diren orakulu bakarrak, eta haietan topa ditzakegu

galdera modernoentzako erantzunak, Delfosek eta Dodonak<sup>113</sup> inoiz eman ez zituztenak. Era berean, natura aztertzeari utz geniezaioke, zaharra delako aitzakian. Ondo irakurtzea, hots, egiazko liburuak egiazko espiritu batekin irakurtzea, ariketa noblea da berez, eta irakurleari ahalegin handiagoa eskatuko dio eguneko ohiko beste ezein jarduerak baino. Horrela irakurtzeko, bada, prestatu beharra dago, atletak prestatzen diren bezalaxe, ia-ia bizi osoa xede horretara bideratuz, tinko. Idazteko orduan erabili den asmo-sendotasun eta zuhurtzia berdinarekin irakurri behar dira liburuak. Idatzi zituen nazioaren hizkuntzan mintzatzeko ahalmen hutsa ez da nahikoa, tarte aipagarria baitago ahozko eta idatzizko hizkuntzen artean, entzundakoaren eta irakurritakoaren artean. Bata, normalean, iragankorra izaten da: soinua, mintzoa, dialektoa funtsean; basatia, kasik; eta inkontzienteki ikasten dugu, basatiek nola, gure amagandik. Bestea, berriz, mintzo horren heldutasuna eta eskarmentua da: aurrekoa ama-hizkuntza badugu, beste hau aita-hizkuntza da, adierazpen barnerakoi eta hautatu bat; esanguratsuegia da belarritz entzuteko, eta berriro jaio behar dugu hartan mintzatzeko. Erdi Aroan grezieraz eta latinez *mintzo* ziren gizon-saldoek ez zuten, jaio izanaren istripu hutsagatik, hizkuntza horietako jeinu-lanak *irakurtzeko* eskubiderik, obra horiek ez baitziren idatzi haiek zekizkiten hizkuntzetan, ezpada literaturaren hizkuntza apartekoan. Gizon haiek ez zituzten ikasi Greziako eta Erromako dialekto nobleagoak, obra horiek idatzita zeuden papera bera mespretxatzen zuten; aldiz, literatura garaikide merkea laudatu zuten. Baina Europako nazioek nork bere hizkuntza garatu zutenean, mintzaira lakarrak izanagatik ere, eta horri esker aski bitarteko izan zutenean beren literatura loratu berriak sustatzeko, biziberritu egin zen hastapeneko ikaskuntza, eta adituak gai izan ziren, distantzia horretatik, antzinako altxorak bereizteko. Erromatar eta greziar saldoek *entzun* ezin zutena, aditu gutxi batzuek *irakurri* zuten hainbat mende beranduago, eta, gaur egun, aditu gutxi batzuek baino ez dute irakurtzen oraindik ere.

Hizlariaren noizbehinkako elokuentzia-etzandak mires-ten baditugu ere, idatzizko hitzik nobleenak ahozko mintzoaren atzean edo gainean egoten dira gehienetan, zero izarniatua

---

113 Antzinako Greziako orakulu nagusiak.

lainoen atzean egoten den eran. Bada izarrik, eta bada izarrak irakurtzeko gai denik. Astronomoak etengabe ari dira izarrei buruzko iruzkinak egiten eta haiek behatzen. Izzarrak ez dira hasperenak, gure eguneroko hitz-aspertuen eta arnas-lurrunen parekoak. Foroan elokuentzia esaten zaion horri erretorika deitzen zaio ikasketetan. Hizlariak men egiten dio une iragankor bateko inspirazioari, eta aurrean daukan jendetzari zuzentzen zaio, *entzun* ahal diotenei alegia; idazlea, ordea, zeina patxadaz bizi baita —arreta galduko luke baldin eta parez pare suertatuko balitz hizlaria hauspotzen duten gertakari-giroarekin eta jendesaldorekin—, gizateriaren adimenari eta osasunari zuzentzen zaio, hau da, edozein garaitan *ulertu* ahal diotenei.

Alejandrok, bere espedizioetara abiatzen zenean, *Iliada* eramaten zuen aldean, kutxatila eder batean gordeta; ez da harritzekoa, idatzizko hitza baita erlikietan erlikiena. Gauza intimoa da guretzat, eta, aldi berean, beste ezein artelan baino unibertsalagoa da. Bizitzaren beraren muinetik hurbilen dagoen artelana da. Hizkuntza guztietara itzul daiteke, eta giza ezpain guztiek irakurri ez ezik, arnastu ere arnas dezakete: mihisean eta marmolean errepresentatzeaz gainera, bizi-hatsarekin zizelka daiteke. Antzinako gizon baten pentsamenduaren sinboloa bihurtzen da gizon modernoaren diskurtoa. Bi mila udaren igaroak halako tonu urrekara eta udazkeneko bat erantsi die Greziako monumentu literarioei, baita hango marmol-lanei ere, herrialde guztietara hedatu baitute beren giro bare eta zerutiarra, denboraren higaduratik babesteko. Munduan gordetako aberastasunak dira liburuak, belaunaldiei eta nazioei dagokien oinordetza egokia. Liburuak, onenak eta zaharrenak, beren esku-bidez eta naturaltasunez zutitzen dira landetxe orotako apaletan. Ez dute kausarik babesten, ez baitute halakorik, baina irakurleari argia ematen badiote, eta hura elikatzen badute, irakurlearen zentzu komunak ez ditu errefusatuko. Liburuaren autoreak dira gizarte orotako aristokrazia liluragarria, eta erregeek edo enperadoreek baino eragin handiagoa dute gizateriaren gainean. Merkataria analfabeto eta beharbada destainari batek, aisialdi eta independentzia irrikatua eskuratzen duenean bere ekinari eta lanari esker, eta aberatsen zirkulu modakoetan onartua denean, beste zirkulu goragoko batzuetara jotzen du halabeharrez, adimenaren eta jeinuaren zirkuluetara hain zuzen, eta agerikoak

bihurtzen zaizkio bere kulturaren inperfekzioa eta bere ondasun guztien banitatea eta eskasia, eta beste behin ere erakusten du zer zuhurra den, bereak eta bi egiten baititu bere haurrek kultura intelektuala izan dezatela ziurtatzeko, zeinaren gabezia zeharo damu baitzaio; horrenbestez, familia baten fundatzaile bilakatzeko da.

Antzinako klasikoak jatorrizko hizkuntzan irakurtzen ikasi ez dutenek jakintza akastuna daukate giza arrazaren historiari buruz, zeren nabarmentzekoa baita halako lanak oraindik ez direla transkribatu mintzo modernoetara, salbu eta zibilizazioa bera hartzen badugu transkribaketa gisa. Homero ez dute oraindik itzuli ingelesera, ez eta Eskilo ere, eta Virgilio bera ekarri gabe dago, nahiz eta lan horiek finetan finenak izan, sendotasunez eginak, eta goiza bera bezain ederrak; beranduagoko idazleak, haien jeinuaz esaten dena gorabehera, gutxitan iritsi dira, inoiz iritsi badira, antzinako idazleei dagokien edertasun eta akabera landuaren zein bizi osoko jardun literario heroikoaren parera. Antzinakoen lana inoiz ezagutu ez dutenak bakarrik mintzatzen dira antzinakoak ahazteaz. Haiek ahazteko garaia izango dugu, baiki, haiei jaramon egiteko eta haien lana estimatzeko besteko ikasketa eta jeinua eskuratzen dugunean. Aro horretan oparoak izango dira Klasiko deritzen erlikia horiek, eta nazioen Eskriturak ere bilduko ditugu, are zaharragoak eta are klasikoagoak direnak, eta ezezagunagoak horratik; aro horretan Vatikanoa beterik egongo da Vedekin eta Avestekin<sup>114</sup> eta Bibliekin, Homeroren eta Danteren eta Shakespeareren aleekin, eta etorkizun diren mende guztiek beren garaikurrak paratuko dituzte munduaren foroan. Halako mordoak bilduta, behingoz zerura igotzeko itxaropena izan dezakegu.

Gizateriak ez ditu oraindik irakurri poeta handien lanak, poeta handiak baino ez baitira gai hori egiteko. Jendeak oro har izarrak irakurtzen dituzten moduan irakurri ditugu guk ere: astrologikoki asko jota, ez astronomikoki. Gizonak, gehienbat, helburu zikoitzak asetzeko ikasi du irakurtzen, zenbatzen ere halaxe ikasi baitu, kontuak egiteko eta tratuan ari dela engaina ez dezaten, baina ezer gutxi daki irakurtzearen ariketa nobleaz, nahiz eta hori bakarrik den egiaz irakurtzea, zentzurik gorenean,

---

114 Antzinako Persiako testu sakratuen bilduma. Zoroastroren erlijioari dagozkio.

irakurtzea ez baita luxuaren lurrinarekin liluratsen gaituen zer-bait, gure ahalmenak lokarraraziz bien bitartean; irakurtzeko, aitzitik, zutik egon behar dugu, oin-puntetan, eta gure ordurik erne eta itzarrienak eskaini behar dizkiogu lantegi horri.

Nire iritziz, behin letrak ikasi ditugularik, literatur per-lak irakurri behar genituzke, eta ez abezedarioa errepikatu aurretik atzera eta atzekoz aurrera, edo denbora galdu silaba bakarreko hitzekin, laugarren edo bosgarren mailan gaudenean; ez genuke eskolako aurrealdeko eserlekuetan jesarririk igaro behar bizi osoa.<sup>115</sup> Gizon gehienak pozik daude liburu bakar bat —Biblia— irakurtzearekin, edo irakurtzen entzutearekin; sinetsarazi baitzaie horrexetan gordetzen dela jakintza guztia; horretaz aparte, lasaikerian egoten dira, landareen gisan, irakurketa erraza deritzon horretan alferrik galduz beren ahalmenak. Gure liburutegi ibiltarian badago hainbat bolumeneko lan bat, *Little Reading*<sup>116</sup> izenekoa: hasieran uste nuen herri bat zela, inoiz egon gabea nintzena.<sup>117</sup> Batzuk gai dira, ubarroien edo ostruken eran, edozer gauza digeritzeko, baita okela eta berdu-  
ra bapo jan ostean ere, ezin baitute jasan ezer galtzerik. Makina batzuek ekoizten dute era horretako bazka, eta beste makina batzuek irensten dute. Bederatzi milagarren ipuina irakurtzen dute Zabulon eta Zefroniari buruz:<sup>118</sup> nola maite duten elkar beste inork elkar maitatu ez duen moduan, nola beren maitasunaren bidea ez den leun-leun ibili, estropezuka baizik, orain korrika orain geldirik, gora lehenik eta behera gero; nola igo den gizagaixo zoritxarreko bat kanpandorrearen puntara, nahiz eta hobe zukeen halakorik ez egin, eta nola, gizajoa haraino alferrik igoarazi ostean, nobelagile alaiak kanpaiei eragin dien, mundu guztia elkar dadin eta... ene bada! Gizajoa erori egin da-eta! Nire ustean, hobe litzateke nobelagintza unibertsaleko heroi-nahi guztiak haize-orratz bihurtzea, garai batean heroiak konstelazioen artean jartzen zituzten bezala, eta jirabiraka ibil daitezela,

---

115 Garai hartako eskoletan, ikasgela bakarrean egoten ziren ikasle guztiak, eta gazteenak aurrealdean esertzen ziren.

116 Literalki: irakurketa txikia. Literatura klasikoko eta modernoko pasarteak biltzen dira antologia honetan. 1827an argitaratu zen.

117 Hitz-jokoa: *Reading* hitzak irakurketa esan nahi du, baina halaxe deitzen da, orobat, Massachusettseko hiri bat, Concordetik hogei milara dagoena.

118 XVIII. eta XIX. mendeko izena. Zebulon Bibliatik dator, eta Zefronia, berriz, Tasoren (1544-1595) poema batetik.



herdoildu arte, eta ez daitezela hona behera jaitsi gizon zintzoak gogaitzera beren bihurrikeriekin. Nobelagileak kanpaia jotzen duen hurrengo aldian, ez naiz mugituko, ezta eliza sutan badago ere. «*Arin-arinaren jauziak*, Erdi Aroko maitasun-istorio bat, *Dilin-dalan* liburuaren egile famatuak idatzia, zatika argitaratuko da, hilean behin; eskari handia dago, ez etorri denak batera». Halakoak irakurtzen dituzte, begiak arranpalo, grina handiz eta jakin-min primitiboarekin, ñabarduren edo xehetasunen premiarik gabe, lau urteko mukizu batek Errauskineren edizio merke bat irensten duen moduan, aurrerapausorik egin gabe —ni ohartu naizelarik behintzat— ahoskerari, azentuari, enfasiari edo irakasgaia ulertzeari dagokionez. Horren ondorioz, begirada baldartzen da, bizi-zirkulazioa moteltzen, eta gaitasun intelektualak orokorki galtzen dira. Gisa horretako jengibre-ogia egunero oratzen da, labe guzti-guztietan, gari garbiarena edo zekale-eta-artoarena baino askoz sarriago gainera, eta merkatu egonkorragoa osatuko du.

Irakurle on deitzen zaien horiek ere ez dituzte irakurtzen libururik onenak. Zenbat kultura dago, bada, Concorden? Herri honetan, salbuespen gutxi batzuk kenduta, ez dago liburu bikainenekiko zaletasunik, ingeles literaturakoak izan arren, zeinetako hitzak denek ulertzen eta ahoskatzen baitituzte. Unibertsitatean ibilitakoek, ikasketa liberalak omen dituzten horiek, hangoak izan zein hemengoak, apenas ezagutzen dituzten ingeles klasikoak; giza jakinduriaren erregistroei dagokionez, berriz, ezagutu nahi dituztenen eskura dauden arren bai antzinako klasikoak bai Biblia, hutsaren hurrengo ahaleginak egin ditugu haiek ezagutzeko. Badago egurgin bat, adin ertainekoa, egunkari frantses bat irakurtzen duena, ez albisteen berri izateko, ezpada, «sasoiaren egoteko», Kanadako baita jaiotzaz; behin galdetu nion ea zein zen, bere ustez, munduan egin zezakeen gauzarik onena, eta erantzun zidan, egiten duenaz gainera, bere ingelesa mantendu eta hobetu behar lukeela. Unibertsitatean ibilitakoek, oro har, horixe egiten dute edo egin asmo dute asko jota, eta berri-paper ingelesak baliatzen dituzte horretarako. Liburu ingelesaren arteko apartekoena irakurri berri duenak zeinekin hitz egin lezake horri buruz? Demagun, bestela, jatorrizko hizkuntzan irakurri duela klasiko greziar edo latino bat, zeinaren itzala ezaguna baita analfabeto esaten zaien horientzat ere; bada, irakurle horrek

ezin izango du hitz egin inorekin, eta isildu egin beharko du. Are, gure unibertsitateetan apenas dagoen irakaslerik, hizkuntzaren korapiloak menderatu ez ezik, neurri berean menderatu dituenik greziar poetaren umorea eta errima, eta, halaber, nolabaiteko grina bat erakuts diezaiokeenik irakurle erne eta heroikoari; bestalde, Eskritura sakratuez bezainbatean —gizateriaren Bibliak, alegia—, herri honetako zeinek esan ahal dizkit haien izenak, besterik ez bada? Gizon gehienek ez dakite hebrearrak ez beste nazioek ere badituztela beren eskriturak. Gizona —edozein gizon— behar bezainbeste desbideratuko da zilarrezko dolar bat biltzeko; baina hara non dauzkagun eskura urrezko hitzak, antzinateko gizonik jakintsuenek ebakiak, zeinen balioa ziurtatzen baitute orduz geroztik bata bestearen atzetik igaro diren garaiek, eta hala ere *Easy Reading*<sup>119</sup> besterik ez dugun leitzen, oinarrizko ikas-liburuak eta testu-liburuak, eta, eskola utzi ostean, *Little Reading* eta ipuin-liburuak, mutikoei eta hasiberriei zuzenduak; hala, gure irakurmena, gure solasa eta pentsamendua, maila behereanean daude, pigmeoen eta panpinen pare.

Concordeko lurrak ekoitzi dituenak baino gizon jakintsua-goak ezagutu nahi nituzke, zeinen izenak apenas aditzen baitira inguru hauetan. Zer egin behar nuke, bada: Platonen berri izanda ere, haren libururik sekula ez irakurri? Demagun Platon nire herrikidea dela: ez nuke inoiz ikusiko?; edo, nire auzoa balitz: ez nuke haren hitzaldirik entzungo edo haren hitzen jakintza aintzat hartuko? Baina azter dezagun zein den egoera benetan. Platonen *Dialogoak*, zeinetan biltzen baita bere alderdi hilezko-rra, alboko apalean daude, eta ez ditut inoiz irakurtzen halere. Azpi-elikatuta gaude, oiesak eta analfabetoak gara; gai horri dagokionez, aitor dut ez dudala alde handirik ikusten batzuen eta besteen artean, irakurtzeko gai ez diren nire herrikide analfabetoen eta irakurtzen ikasi arren haurrei eta adimen makalei dagozkienak bakarrik leitzen dituzten analfabetoen artean. Antzinateko gizon handiak bezain onak izan behar genuke, baina, hasteko, zein onak ziren ohartu behar dugu. Ipotxen leinu bat gara, eta gure hegaldi intelektualak ez dira altxatzen egunkarietako zutabeak baino gorago.

---

119 *Easy Reading for Little Folks* liburuaz ari da [Irakurketa errazak gaztetxoentzat]. Ez dago argitalpen-urteari buruzko informaziorik.

Liburu guzti-guztiak ez dira beren irakurleak bezain gatzgabeak. Ziur aski, liburuek esango dute zer edo zer gure gaur egungo egoerari buruz, eta ele horiek entzuteko eta ulertzeko gauza bagina, goiza edo udaberria bera baino osasuntsuagoak izango lirateke gure bizitzentzat, eta baliteke itxura berri bat eranstea ere gauzen eiteari. Gizon askok ekin diote bizi-aro berri bati liburu bat irakurri ostean. Izango da beharbada libururen bat, gure mirariak azaldu eta berriak errebelatuko dizkiguna. Gaur egunean adierazi ezin diren gauzak nonbait adieraziak izan direla ohartuko gara. Gogaitzen eta harritzen eta nahastentzen gaituzten galdera horiek denak bururatu zitzaizkien gizon jakintsuei beren garaian, bat bera ere bazterrean utzi gabe, eta haietako bakoitzak erantzun zituen, erantzun zituenez, bere ahalmenen neurrian, bere hitzekin eta bizitzarekin. Are gehiago: jakinduria lortzeaz batera ikasiko dugu eskuzabalak izaten. Concordeko aldirietan jornalari diharduen gizon bakartiak, zeinak izan baititu bigarren jaiotza bat eta esperientzia erlijioso bitxi bat, uste du seriotasun isil batean murgildu behar duela, eta bakar-bakarrik dagoela bere fedean; hari, bada, irudituko zaio ez dela egia, baina, duela milaka urte, bide beretik barna ibili zen Zoroastro, eta esperientzia berbera izan zuen. Zoroastro, ordea, jakintsua zen, eta bazekien, hortaz, esperientzia unibertsal bat zela hura, eta horren arabera jardun zen bere auzokideekin; are, esaten denez, gurtza bat asmatu eta finkatu omen zuen gizonen artean. Beraz, komulgatu beza gure jornalari tristeak Zoroastrorekin, eta gizon handien eragin eskuzabaltasun-sustatzailearen bitartez —baita Jesukristoren beraren bitartez ere— joan bedi pikutara «gure eliza».

Harro-harro esaten dugu XIX. mendearen parte garaia eta nazio guztietako aurrerakuntzarik handienak egiten dihardugula. Baina azter dezagun zer egiten duen herri txiki honek kulturaren alde. Ez ditut nire herrikideak lauda nahi, ez eta haiek ni laudatu nazaten ere, losintzek ez baitigute aurrera eginaraziko ez haiei ez niri. Probokazioa behar dugu, norbaitek gu akuilatzea, idiak bagina bezala —horixe baikara funtsean—, trostan abia gaitezen. Eskola ohikoen<sup>120</sup> sistema on samar bat daukagu, haurrei bakarrik zuzendua; baina neguan goseteak jota ego-

---

120 Eskola ohikoak (*common school*) deitzen ziren garaiko eskola publikoak.

ten den Lizeoa<sup>121</sup> salbuetsita, eta aurki estatuaren iradokizunez zabalduko den liburutegia aintzat hartu gabe, ez daukagu eskolarik geuretzat, helduentzat. Adimenaren elikaduran baino diru gehiago gastatzen dugu gorputzaren elikaduran edo osasunean. Bada garaia eskola ezohikoak sortzeko, gizon-emakume bilakatzearekin batera ez baitzen amaitu gure heziketa. Bada garaia herriak unibertsitate bihur daitezen, eta herritar helduek bertan ikas dezaten, aisialdian —baldin eta benetan badaukate hala-korik—, ikasketa liberalak egiten segi dezaten beren bizi osoan. Mundua betirako mugatu behar al da Paris batera edo Oxford batera? Ikasleek ezin al dute hemen ostatu hartu, eta hezkuntza liberala jaso Concordeko zeruen pean? Ezin ote dugu Abelardo<sup>122</sup> bat kontratatu, eskolak eman diezazkigun? Hara non, ganadua bazkatzen eta biltegia betetzen dihardugun bitartean, eskolatik kanpo mantentzen gaituzten luzeegi, eta, zoritxarrez, ez zaion arretarik jartzen gure heziketari. Herrialde honi dagokionez, herriek hartu behar lukete, zenbait zentzutan, nobleziak Europan hartzen duen lekua. Arte ederren mezenas gisa aritu behar lukete. Badute aski diru horretarako. Eskuzabaltasuna eta finezia baino ez zaizkie falta. Nekazariak edo merkatariek balioesten dituzten gauzetan barra-barra gastatzen da dirua, baina utopikotzat jotzen da beste gauza batzuei sosik eskaintzea, hala nola gizon adimentsuagoek askoz baliagarriago irizten dieten gauzei. Herri honek hamazazpi mila dolar xahutu ditu udaletxe bat eraikitzeko, politika edo aberastasuna tarteko, baina seguru asko ez du horrenbeste gastatuko, ezta ehun urtean ere, adimen bizi lantzeko, eskolaren barnean jarri behar den egiazko haragi hori mamitzeko. Urtean ehun eta hogeita bost dolar gastatzea, Lizeorako neguko harpidetza gisa, inbertsio hobea da herri honetan egiten den neurri horretako beste edozein gastu baino. XIX. mendean bizi bagara zinez, zergatik ez ditugu baliatzen XIX. mendeak eskaintzen dituen abantailak? Zergatik izan behar luke gure biziak probintzianoa, edozein alderdiri dagokionez ere? Egunkariak irakurtzen baditugu, zergatik ez bazterrean utzi Bosteneko txutxu-mutxuak, eta munduko egunkaririk onenera jo behingoa? Eta, hemen, Ingalaterra Berrian, familiako egunka-

121 Helduen ikaskuntza bultzatzeko mugimendua, AEBko iparraldean eta ekialdean garatu zena 1826tik aurrera.

122 Pedro Abelardo (1079-1142), frantziar teologoa, filosofoa eta irakaslea.

ri «neutroak» edoskitzeari eta olibondo-adarrak<sup>123</sup> garraiatzeari utzi? Etor bitez gizarte jantzi guztietako berriak, eta ikusiko dugu ea badakiten ezer. Zergatik utzi Harper & Brothers, Redding & Co.<sup>124</sup> eta enparauak aukera dezaten zer irakurtzen dugun? Zale-tasun fineko nobleek beren ingurura ekartzen dute beren kultura elikatzeko balio duen gauza oro —jeinua, jakintza, liburuak, margolanak, estatuak, musika, tresna filosofikoak, eta abarrak—, bada, horixe egin behar lukete herriek ere: ez gaitzen konforma pedagogo bat, apaiz bat, sakristau bat, eliz liburutegi bat eta hiru udal-aholkulari eskuratuta, zergatik-eta gure arbaso erromesek negu gorriari aurre egin ziotelako beste ezeren premiarik gabe. Gure instituzioen asmoarekin bat dator modu kolektiboan ekitea, eta ziur naiz, gure baldintzak loratu ahala, gure bitartekoak hobeak izango direla nobleenak baino. Ingalaterra Berriak munduko gizon jakintsu guztiak kontrata ditzake hona etor daitezen eskolak ematera, eta tarte osoan ostatu eman diezaieke; horrela, probintziano izateari utziko diogu behingoz. Horixe da desio dugun eskola ezohikoa. Nobleziaren ordeztu, izan ditzagun gizonen herri nobleak. Premiazkoa bada, ken dezagun zubi bat, ibil gaitzen pixka bat gehiago ibaia gurutzatzeko, baina ezar dezagun pasabide bat behintzat inguratzen gaituen ezjakintasun-golko ilunagoa zeharkatzeko.

---

123 Bostoneko egunkari metodista bati buruz ari da: *The Boston Olive Branches*. Kristautasunari edo literaturari buruzko artikuluak argitaratzen zituzten.

124 New Yorkeko eta Bostoneko liburu-dendak.



# LAU

## SOINUAK

Baina soilik liburuetara mugatzen bagara, nahiz eta hau-tatuak eta klasikoak izan, eta idatzizko hizkuntza zehatz batzuk bakarrik irakurtzen baditugu, zeinak dialektoak eta probintzia-noak baitira berez, arriskua dugu beste hizkuntza bat ahazteko, gauza eta gertakari guztiak metaforarik gabe mintzo diren hizkuntza hain zuzen ere, hizkuntza berez ugaria eta unibertsala. Hizkuntza hori joritasunez kaleratzen da, baina gutxi inprimatzen. Leihoan barna sartzen diren izpiez ez da inor oroituko leihoa kendu ostean. Ez dago metodorik ez diziplinarik beti erne egoteko premia ordezkia dezakeenik. Zer dira, bada, historiari, edo filosofiarik, edo poesiarik buruzko eskolak —punta-puntakoak badira ere—; zer da jendarterik onena, edo bizi-errutinarik miresgarriena, ikusteko dagoenari etengabe erreparatzeko diziplinarekin alderatuta? Irakurle bat izango zara, ikasle huts bat, edo behatzaile bat? Irakurri zure patua, ikus ezazu zer daukazun aurretik, eta egin aurrera etorkizunerantz.

Lehenengo udan ez nuen libururik irakurri, babarrunak erein nituen. Ez, hori baino gauza hobeak egin nituen maiz. Zenbaitetan, ezin nuen sakrifikatu uneko unearen lorea, ezin nion lanari eskaini, izan lan fisikoa zein adimenezkoa. Maite dut marjina zabala izatea nire bizitzan. Batzuetan, udako goizetan adibidez, ohi bezala bainatu ostean, atari eguzkitsuan esertzen nintzen egunsentitik eguerdira bitarte, ameskerian murgildurik zeharo, pinuen eta intxaurren eta zumakeen artean, bakardade eta baretasun erabatekoan, txoriak inguruan zebil-tzalarik kantuan, edo hotsik egin gabe ibiltzen zirelarik etxean

barna, harik eta, eguzkia mendebaldeko leihotik sartzen zelarik, edo bidaiariren baten gurdi-hotsa iristen zitzaidalarik urruneko errepidetik, denboraren igaroaz ohartzen nintzen arte. Bolada horietan hazi egiten nintzen, artoa gauez hazten den bezala, eta lantegi hobea zen hura eskuz egin nezakeen beste edozein baino. Tarte haiek ez zioten denborarik kentzen nire biziari; aitzitik, ekarpen gehigarri eder bat eransten zioten nire ohiko anoari. Jabetu nintzen zertaz mintzo diren ekialdetarrak, kontenplazioaz eta lan oro bazterrean uzteaz mintzo direnean. Hein handi batean, ez nintzen konturatzen orduen joanaz. Egunak aurrera egiten zuen, nire lanen bat argitzeko eran bezala: goiza zen, eta, hara non, bat-batean iluna zegoen, eta ez nuen ezer gogoangarri-rik egin. Txorien antzera abestu beharrean, irribarre egiten nion, isilik, nire zorion etengabeari. Txolarreak bere txorrotxioa kantatzen zuen bezala nire etxeko atarian, neronek ere ebakitzen nuen halako algara eutsi bat neure habiatik. Nire egunak ez ziren astegun arruntak, jainko paganoen arabera izendatuak, eta ez ziren orduka banatzen, erlojuaren tik-takari men eginez; neroni, izan ere, puri indiarren<sup>125</sup> antzera bizi bainintzen, zeinek, esaten denez, «atzo, gaur eta bihar adierazteko, hitz bakarra erabiltzen baitute; esanahiaren ñabardurak helarazi nahi dituztenean, berriz, hatzarekin seinalatzen dute: atzerantz, atzo esateko; aurrera, bihar esateko; eta buruaren gaisetik, gaurko egunaz jarduteko».<sup>126</sup> Nire herrikideen ustean, alfer hutsa nintzen, zallantzarik ez, baina txoriek eta loreek epaitu banindute beren irizpideen arabera, ez ninduten eskatzat joko. Gizonak bere baitan topatu behar ditu bere motibazioak, egia da. Egun naturala barea da oso, eta ez dio nagikeria aurpegiratuko gizonari.

Nire bizimoldean banuen, behinik behin, abantaila bat, entretenimendu bila kanpora jotzen dutenekin alderatuz gero, gizartera edo teatroa jotzen dutenekin konparatuta alegia, zeren, niretzat, bizia bera baitzen entretenimendu aski, eta berriberria agertzen zitzaidan beti. Hainbat eszenaz osaturiko drama bat zen, azkenik gabea. Bizia aurrera aterako bagenu egunero, benetan hala jardungo bagina, eta ikasi dugun modurik berrienaren eta onenaren arabera egokituko bagenu egunero-

---

125 Brasil ekialdeko nazioa.

126 *A Lady's Voyage Round the World* (1855)liburuko pasartea; Ida Pfeiffer (ikus 19. oharra).



koa, ez ginateke inoiz aspertuko. Jarraitu gertutik zure jeinuari, eta hutsik gabe erakutsiko dizu aukera berri bat orduro. Etxeko lanak denbora-pasa atseginak ziren. Zorua zikina zegoenean, goiz altxatzen nintzen, eta altzari guztiak kanpora atera eta belar gainean ipinita, ohe eta tapakiekin fardo bakar bat osatuz, ura zabaltzen nuen zoruaren gainean, eta lakutik hartutako harea zuriarekin ziprizzintzen; ondoren, erratz bat hartuta, gogotik igurzten nuen, eta kaletarrek gosariari ekin orduko, eguzkiak ondo lehortua zuen nire etxea, eta barrura sar nintekeen berriz, nire hausnarketak eten gabe kasik. Atsegin ematen zidan etxeko trepeta guztiak belar gainean ikusteak, mordo txiki bat osatuz ijitoaren fardoak nola, eta hiru hankako mahaia, berriz, zeinaren gainean baitzeuden, oraindik ere, liburuak, luma eta tinta-ontzia, zutik paratzea pinuen eta intxaurrondoan artean. Bazirudien altzariek berek gogoko zutela kanpora ateratzea, eta ez zutela nahi berriz etxean sartzerik. Batzuetan tentazioa izaten nuen olana bat ezarri eta han bertan esertzeko. Merezki zuen ikustea eguzkiaren distira objektuen gainean, haize askearen ufada haiei joka; traste ezagunek askoz interesgarriagoak ematen dute aire librean ethezuloan baino. Txori bat paratzen da hor ondoko adarrean, betibizia hazten da mahaiaren azpian, eta masustak, berriz, haren hankaren inguruan; han-hemenka barreatuta daude pinaburuak, gaztainak eta marrubi-hostoak. Badirudi horrelaxe transferitu zirela naturaren formak gure altzarietara —mahai, aulki zein oheetara—, behinola haien erdian izan zirelako.

Muino-hegal batean zegoen nire etxea, baso handiago baten ertzean bertan, pinudi eta intxaurrondo-sail gazte baten erdian, eta lakutik dozena-erdi kanara: xendra bat abiatzen zen harantz, muinoan behera eginez. Etxearen aurrealdean hazten ziren marrubiak, masustak, betiberdeak, berbena-belarra eta urre-kanabera, bai eta haritz nanoak, harea-gereziak, ahabiak eta indiar patatak ere. Maiatzaren amaieran, harea-gereziek (*Cerasus pumila*) alderik alde apaintzen zuten bidexka beren lore delikatuekin, zeinak zilindroen eran kokatzen baitira beren kirten laburren inguruan; gero, udazkenean, gerezi eder askoak ematen dituzte, koroa galanten tankeran zintzilik. Dastatu egin nituen, Naturarekiko errespetuz, nahiz eta ez ziren jateko modukoak. Zumakea (*Rhus glabra*) jori hazten zen etxearen in-

guruabarreen: neronek eraikitako lubetatik altxatuta, bospasei oin hazi zen lehen denboraldian. Haren pinu-hosto tropikal eta zabalak ikuspegi atsegina eskaintzen zuen, bitxia halere. Ernainak tupustean hazi ziren udaberri-bukaeran hilak ziruditen makil lehor batzuetatik, eta magiaz bezala garatu ziren, hazbete-ko diametroko adar berde samurrak emanez; neurrigabe hazten ziren, beren juntura ahulak kolokan jarritz, eta, batzuetan, leiho alboan eserita nengoelarik, adar fresko eta bigun bat aditzen nuen abaniko bat bezala bat-batean lurrera erortzen, zamaren zamaz. Abuztuan, masusta-mulko handiek, loretan egonik erle ugari erakarri ostein, beren gorrinin-kolore distirant eta belusezkoa hartzen zuten arian-arian; pisuaren eraginez berriro ere, behe-rantz makurtzen ziren, eta kirten samurrak hausten zitzaizkien.



Leiho ondoan eserita nagoelarik udako arrats honetan, belatzak jirabiraka dabilta larrearen gainean; uso basatien ihesaldi bizkorrak —binaka edo hirunaka aldentzen dira nire ikus-eremutik, edo etxe atzeko pinu-adarretan kokatzen dira bestela, urduri— airearen ahotsa islatzen du; arrano arrantzaleak lakuaren azal kristal-itxurakoa kizkurtu, eta arrain bat harrapatu du mokoaz; atera da bisoia isil-misilik etxe atzeko lokaztitik, eta igel bat harrapatu du laku-ertzean; ihia makurtuz-makurtuz doa harat-honat dabilzan berdantzen zamapean, eta azken ordu-erdian treneko bagoien triki-traka entzun dut, orain lausoago orain ozenago, eperraren hegal-kolpeak nola, bidaiariak ekarriz Bostonetik landa-eremura. Izan ere, ni ez nintzen hain urrun bizi, ez behintzat beste mutiko hura bezainbeste, zeina, jakin dudanez, hiriaren ekialdeko nekazari batengana bidali baitzuten, baina berehala ihes egin eta etxera itzuli baitzen, piuma eskas samarrarekin eta etxe-minak jota. Inoiz ez omen zuen ikusi halako toki triste eta urrunik: jende guztia alde egina zen handik, ez zen entzuten trenaren txistua ere! Ez dut uste halako tokirik dagoenik gaur egun Massachusetts osoan:

«Gure hiria jomuga bihurtu da egiaz  
bertara iristen baitira, azkar bai azkar, burdinbideetako geziak,  
hona gure lautada baketsuaren soinu lasaia: Concord».<sup>127</sup>

---

127 «Walden Spring» poemaren pasarte bat. Egilea: William Ellery Channing (1818-1901),

Fitchburgeko burdinbidea lakutik gertu-gertu igarotzen da, ni bizi naizen tokitik ehun bat kana hegoaldera. Haren ildoari jarraituz joan ohi naiz herrira, eta hark lotzen nau, nolabait ere, gizartearekin. Merkantzia-treñetan doazen gizonek, bidea oso-osorik ibiltzen dutenak, aspaldiko lagun bat banintz bezala agurtzen naute; maiz-maiz ikusten nautenez, trenbideko langilea naizela uste bide dute, eta horixe naiz, egiaz. Atsegin handiz jardungo nintzateke errailak konpontzen lurraren orbitako lekuren batean.

Trenaren txistu-hotsa nire basoan barneratzen da udan zein neguan —arrano baten garrasia dirudi, nekazari-etxalde baten gagnetik hegaka—; soinu horren bitartez adierazten dit gure herrira iristen ari direla hiriko merkatarari ipurterreen saldoak, edo barnealdeko salerosle saiatuak. Agertzen direlarik zerumugaren azpian, oihuka ohartarazten diote jendeari aparta dadila bidetik; batzuetan, bi herriren erradioan entzun daitezke haien txilioak. Iritsi dira zuen elikagaiak, nekazariok; iritsi dira zuen anoak, landako jendea! Eta ez dago eskaintzari uko egiteko bezain buruaskia den gizonik. Eta hona hemen zuen ordaina!, dio nekazariak garrasika. Habe luzeak nola abiatzen dira trenak orduko hogeit hamar milia abailan, hiriko harresien aurka, eta aulki mordoxka bat daukate barruan, bidaiari gizagaixo nekatu eta zamatuak esertzeko adina bai behintzat. Kortesia erraldoi eta dorpe horren bidez luzatzen dio eserleku bat landa-eremuak hiriri. Indiar ahabien zelaiak garbitzen dira osorik, eta fruitu gorrien larreak eskuareten hiriaren mugetaraino. Gora egiten du kotoiak, behera oihal ehunduak; gora egiten du zetak, behera artileak; gora egiten dute liburuek, behera, ordea, idazten dituztenen adimenak.

Tren-makinarekin topo egiten dudanean, atzetik dakarrela bere bagoi-sorta, planeten abiaduran —edo, hobe esanda, kometen abiaduran, behatzaileak ez baitaki, halako abailan eta norabidean joanda, inoiz itzuliko ote den sistema honetara, ez dirudi-eta haren orbitak kurba itxirik egingo duenik—; ikusten dudanean nola jaurtitzen duen trenak lurrunezko laino bat, pankarta baten antzekoa, eta nola sortzen dituen ke-biribilak,

---

estatubatuar poeta eta Thoreauren lagun mina. 1849an argitaratu zuen poema hori, *The Woodman and Other Poems* liburuan.

urre- eta zilar-itxurakoak, zeru goreneko laino amultsuen antze-koak, zeinek beren masa zabaltzen baitute eguzkiaren argitan —badi-rudi erdi-jainko bidaiari batek, hodeien sorgintzaileak, ilunabarreko zerua hartu duela bere trenaren jantzi gisa—; burdinezko zaldia aditzen dudanean muinoen artean oihartzunak eragiten, bere trumoi-ufadarekin, lurra inarosten beren oinekin, eta sua eta kea arnasten bere sudur-zuloetatik (zer zaldi heg-lari edo dragoi suzko txertatuko duten mitologia berrian, hori ez dakit), iruditzen zait lurrak behingoz lortu duela bertan bizi-tzeko duina den arraza bat. Gauza guztiak balira diruditena, eta gizonek xede nobleetarako erabiliko balituzte elementuak! Egiaz balitz zeregin heroikoen izerdia tren-makinaren gaineko hodeia, edo onuragarria balitz, larreen gainean flotatzen duena adina, orduan, elementuak, eta Natura bera, alaiki bihurtuko lirатеke gizonen lagun eta zaindariak.

Goizeko trenaren igaroari erreparatzen diot egunsen-tia behatzen dudan sentimendu berdinarekin, bigarren hau ez baita lehena baino askoz erregularragoa. Lainozko trena urru-nera hedatzen da, eta gorantz altxatzen, zerurantz; bagoiek, ordea, Bostonera bidean segitzen dute; lurrinak, bada, eguzkia ezkutatzen du minutu batez, eta itzalpean uzten du nire zelai urruna; tren zerutiarrarekin alderatuta, lurra besarkatzen duten bagoiak ez dira arrasto bat baino. Burdinezko zaldiaren ukuiluko morroia goiz jaiki da neguko goiz honetan, izarrek argitzen zute-larik mendiarte, hura bazkatzeko eta apaintzeko. Sua, halaber, goiz iratzarri dute, zaldiari eman diezaion abiatzeko besteko bi-zi-berotasuna. Egitasmo hau goiztiarra bezain errugabea balitz! Elurra pilatu bada, elurretarako oinetakoak janzten dizkiote, eta golde berebiziko batekin, ildo bat irekitzen dute mendietatik kostaldera: bagoiek, hala, ereite-makinak irudi, landa-eremuan zehar banatzen dituzte gizon nekaezinak eta beren merkantziak, lur-rean haziak nola. Suzko zaldia egun osoan ibiltzen da lurral-dean barna hegan, eta ugazabak atsedean har dezan baino ez da geratzen; neroni, berriz, esnatu egiten naiz haren desafio-ufa-da alderraia adituta gauerdian, baso urruneko haranen batean buru egiten dienean elementuei, izotzez eta elurrez estalirik; goizeko izarrarekin batera iritsiko da bere helmugara, eta berriro ekingo dio bidaiari, atsedetik batere gabe. Edo, beharbada, ilun-tzean, aukera izango du urduritasunak baretzeko eta gibela zein

burmuina freskatzeko ordu gutxi batzuez bederen, burdinezko loaldi batean. Egitasmo hau luzea eta tematia den neurri berean balitz heroikoa eta miresgarria!

Herri-mugetatik harago, jende gutxi ibiltzen den basoetan —zeinetara ehiztariak bakarrik joaten baitziren garai batean, eta egunez soilik—, haietatik igarotzen dira, ziztuan, areto argiztatu hauek, bidaiariak horretaz konturatzen ez badira ere, tren esta-zio distiratsuetan bakarrik geratzen baita, herri edo hiri batean, jendetzak biltzen diren tokietan; ondoren, Zingira Hitsean geratzen da, hontza eta azeria uxatuz. Trenaren abiatzea eta etorrera dira, orain, herrietako egunen mugarriak. Trenak halako zehaztasunarekin eta hain erregulariki joaten eta etortzen dira, eta beren txistu-hotsa hain urrutitik entzuten da, non nekazariak trenarekin bateratzen baitituzte beren erlojuak; horrenbestez, ondo kudeatutako instituzio batek arautzen du herrialde osoa. Trenbidea asmatu zenetik ez al dira gizonak apur bat puntualagoak? Ez al dute bizkorrago hitz egiten eta pentsatzen terminalean daudenean, diligentzien geltokietan zeudenean baino? Terminaletan halako elektrizitate-giro bat nabaritzen da. Txundituta geratzen naiz, zer-nolako mirariak dakartzaten: esaterako, nire auzokide batzuk, zeinei buruz ez bainuen uste inoiz Bostonera joango zirenik halako garraibide azkarrean, hortxe ikusten ditut kanpaiak jotzeko unean. Gauzak «trenbidearen erara» egitea da, orain, modako esapidea, eta ondo dago agintariak halako maiztasunez eta zintzotasunez ohartaraztea trenbidearen partetik kendu behar dugula. Kasu honetan ez dago astirik iskanbilen kontrako legeak zer dioen irakurtzeko, ez eta jende-saldoaren aurka tiro egiteko ere. Patu bat eraiki dugu, *Atropos*<sup>128</sup> bat, inoiz desbideratzen ez dena (jarri izen hori zuen tren-makinari). Gizonei ohartarazten zaie ezen, une zehatz batean, puntu kardinal jakin batzuetara zuzenduko direla torlojuak; edonola ere, kontuak ez dio inori eragiten, eta umeak beste bide batetik joaten dira eskolara. Are, modu egonkorragoan bizi gara. Gilen Tell-en semeak izateko hezi gintuzten guztiok. Torloju ikusezinez josirik dago airea. Bide guztiak dira patuaren bideak, zuena izan ezik. Segi ezazue, bada, zeuen bidetik.

---

128 Greziar mitologian, hiru Moiretako bat.

Ausardia eta ekina dira, nire iritziz, merkataritza gomendagarri bihurtzen duten ezaugarriak. Merkataritzak ez dio, eskuak lotuta, Jupiterri otoitz egiten. Egunero ikusi ohi ditut merkatarriak, kementsu eta alai samar ekiten diotelarik beren jardunari; susmatzen dutena baino gehiago egiten dute, eta beharbada lanpostu hobe dute kontzienteki irudikatu zezaketena baino. Heroismoari dagokionez, gutxiago hunkitzen nau Buena Vista-ko frontean<sup>129</sup> ordu-erdiz zut egondakoen kemenak, eta puskaz gehiago, ordea, neguan elurra kentzeko makina gobernatzen dutenen adore tinko eta irribarretsuak: gizon horiek, izan ere, ausartak dira goizeko hiruetan —ausardia horixe zen denetan bitxia, Bonaparteren ustez—, baina, horrez gainera, beren kurariak irmo irauten du luzaro, eta ez ditu begiak batzen harik eta ekaitza lokartzen den arte, edo beren burdinezko zaldiaren tendoiak izozten diren arte. Elurte Handiaren goiz honetan, zeinak oraindik pizten eta hozten baitu gizonen odola, trenaren kanpaihots moteldua aditzen dut makinaren arnas izoztuak sorturiko lanbro-gortinaren beste aldetik, bagoiak *badatozela* adieraziz, garaiz etorri ere, Ingalaterra Berriko ipar-ekialdeko ekaitzak ezarritako debekuaren gainera, eta hara non ikusten ditudan nekazariak, elurrez eta antzizarrez estalirik, burua baizik ikusten ez zaiela, beren goldearekin irauliz ez soilik bitxiloreak eta arratoiak, ezpada baita Sierra Nevadako harriak ere, unibertsoetik kanpoko leku bat hartzen dutenak.

Merkataritza harrigarri zurrta eta barea da, bai eta ernea, abenturazalea eta nekaezina ere. Gainera, metodo naturalak baliatzen ditu, beste egitasmo fantastiko eta esperimendu sentimental batzuek baino gehiago, eta horrela eskuratzen du bere arrakasta bitxia. Merkataritza-bagoiak albotik pasatzen zaizkidanean triki-traka, suspertu eta hedatu egiten naiz, eta biltegien usainak aditzen ditut, Long Wharf-etik Champlain lakuraino doazenak: gogora ekartzen dizkirate koral uharriak, Indiako ozeanoak, klima tropikalak, eta munduaren hedadura osoa. Munduko hiritar sentitzen naiz ikusten ditudanean hurrengo udan Ingalaterra Berriko buru ilehori ugari estaliko dituzten palmondo-hostoak, ikusten ditudanean Manilako kala-

---

129 Mexikar-Amerikar gerraren (1846-1848) gertalekuetako bat. Zachary Taylor jeneral estatubatuarrek Lopez de Santa Annaren armada garaitu zuen bertan, 1847an.

mua eta koko-oskolak, eta betiko trepeta zaharrak: jute-zorroak, burdin-piltzarrak eta iltze uherrak. Itsasontzi-bela urratuen zama interesgarriagoa iruditzen zait dagoen horretan, paperera eraman eta liburu gisa argitaratu izan balitz baino. Nork idatz lezake ekaitzen historia, haien erauntsia jasan duten piltzar urratu horiek baino modu grafikoagoan? Galerada horiek ez dute zuzenketa-premiarik. Horra hor Maineko basoetatik iritsitako zura, azken uholdean itsasoratu ez zena; milako lau dolar garestiagoa da orain, urak hazi zirenean egur mordo bat galdu zelako: pinuak, izeiak, zedroak —lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailakoak, nahiz eta, orain gutxi arte, maila berdinekoak ziren denak: hartzaren, altzearen eta karibuaren gainetik bihurritzen ziren—. Ondoren, Thomaston-eko kare-harria iristen da, primerako generoa, zeinak bide luzea egingo baitu muinoetan zehar inork moldatu aurretik. Eta beste piltzar horiek, kolore eta kalitate guztietakoak: kotoiaren eta lihoaren egoera behere-na, jantziaren azken emaitza, jada modan ez dauden patrioiak —salbu eta Milwaukeeen—; bai eta beste pieza estanpatu miragarri horiek ere, ingelesak, frantsesak edo amerikarrak —zapi koadrodunak, muselinak eta abarrak—, modaren eta pobrezia-aren alorretatik hartuak, egunen batean kolore bakarreko paper edo itzal zurbil bihurtzera kondenuatuak, zeinen gainean idatziko baitira bizitza errealar buruzko kontakizunak, goikoak zein behekoak, baina egitatean oinarrituak betiere! Arrain gatzatuaren usaina dario bagoi itxi honi, Ingalaterra Berriko lurrin komertzial sendoa, eta gogora ekartzen dizkit Ternuako Banku Handiak eta arraindegiak. Nork ez du ikusi, bada, arrain gazitu bat, mundu honetarako zorrotz bai zorrotz ondua, ezertxok ere hondatu ez dezan, santuen tema lotsagarri uzteraino? Halako arrain bat eskuan izanda, kaleak erraztatu ditzakezu, baita zolatu ere, eta ezpalak atera enbor-zati bati; mandazainak aterpe gisa balia lezake, euriaren, eguzkiaren eta euriaren kontra, eta merkatariak, berriz —horixe egin baitzuen behin Concordeko batek—, dendaren kanpoaldean zintzilika dezake, irekita dagoela adierazteko, harik eta bezerorik zaharrenak ezgai bihurtu arte zer den esateko —animalia, landarea edo minerala—, eta, hala eta guztiz ere, purua izango da, elur-maluta bat bezainbeste, eta lapikora botako bagenu, eta egosi, bakailao goxo askoa izango genuke larunbatean afaritarako. Horren ondoren iristen dira es-

painiar larruak, buztana zut eta bihurriturik daukatela oraindik, idiek soinean zeramatzatenean bezalaxe Espainia Berriko lautadetan: seta setati horrek erakusten du zeharo sendagaitzak eta esperantzarik gabeak direla berezko bizio guztiak. Aitor dut, gizon baten egiazko izaera ezagutzen dudanean, ez dudala batere itxaropenik izaten hura onera edo txarrera aldatzeko praktikan. Hala diote ekialdetarrek: «Txakurraren buztana bero dezakezue, baita prentsatu ere, eta korapiloz lotu, eta hamabi urte jardun lantegi horretan; bere forma naturalari eutsiko dio, nolana den ere».<sup>130</sup> Era horretako buztan tematiei aurre egiteko modu efektibo bakarra da kola sortzeko erabiltzea —uste dut horixe egiten dela, hain zuzen—; modu horretan finko geratzen dira, itsatsita. Hona hemen, berriz, melaza-upel bat —edo likorez betea, bestela—, John Smith delako bati zuzendua —Cuttingsville, Vermont—: Mendi Berdeetako merkatari bat, zeina inportazioan jarduten baita, inguruko nekazariei saltzeko. Orain, beharbada, bere sotoaren atarian egongo da gizona, kostara iritsi den generoan pentsatuz —nola eragingo dio prezioari?— eta bezeroei esanez, honezkero hogeit bat aldiz esango zien moduan, hurrengo trenarekin batera kalitate oneko zerbait iristea espero duela. Hala iragarri du *Cuttingsville Times*ek.

Zenbait gauza igo ahala, jaitsi egiten dira beste batzuk. Abailaren hotsak ohartarazita, begirada altxatu dut liburutik, eta han ikusi dut pinu luze bat, iparralde urruneko basoetan moztua, ziztu bizian iritsi dena Mendi Berdeetan eta Connecticut-en barna: gezi baten antzera zeharkatu du herria, hamar minutuan, neronek baizik ikusi ez dudalarik. Enbor horren patua da

«Amiral handi baten  
masta izatea».<sup>131</sup>

Eta adi! Hortxe dator ganaduz beteriko trena, milaka muiño, artalde eta ukuilutako animaliak dakartzala; saldoen erdian, artzainak eta morroiak daude beren makilekin. Guzti-guztia dator bagoietan, salbu eta goiko larreak, zeinak ingurura biltzen baitira, iraileko haizeek zirimolan ekarritako hostoak nola. Txahalen eta ardien balakak betetzen du airea, eta idien ostikoak

---

130 *Jitopadesa* sanskritoazko fabulen bildumako pasarte bat.

131 John Milton, *Paradisus galdua*, 1667.



aditzen dira, artzaintza-bailara bat igarotzen ari balitz bezala. Are, artaldearen buruak bere zintzarria astintzen duenean, badi-rudi mendiek jauzi egiten dutela aharien tankeran, eta muinoek, berriz, ardiak balira bezala. Bagoi batean doaz artzainak, ardien maila berean; bokazioa galdu dute, baina beren makil alferrekoei eusten diote, beren lanbidearen intsignia balitz bezala. Baina, beren txakurrak non daude? Ihes egin dute, kanpoan daude, galdu dute arrastoa. Uste dut zaunkaka entzun ditudala Peterborough muinoen atzealdean, eta Mendi Berdeen mendebaldeko aldapan gora hatsanka. Ez dira bertan izango sarraskiaren orduan. Beren bokazioa ere desagertu da. Balioa galdu du beren leialtasunak eta ernetasunak. Zorigaiztoak jota itzuliko dira txakurtegira, edo basati bihurtuko dira bestela, otsoekin eta azeriekin bat eginez. Hala pasa da bizitza pastoralara zuen begien aurretik, eta urrundu egin da gero. Baina kanpaiak aditzen ditut jo eta jo; errailetik alde egin behar dut, beraz, bagoiek aurrera egin dezaten:

Zer da niretzat trenbidea?  
Ez dut inoiz ikusten  
non amaitzen duen bidea.  
Hutsune batzuk ditu betetzen  
eta enarentzat lubetak egiten;  
putz egiten dio hondarrari,  
eta hauspoa eragiten masustei.<sup>132</sup>

Nolanahi ere, errepide bat balitz bezala zeharkatzen dut trenbidea, basoan barna. Ez dut nahi nire begiak eta belarriak hondatzea haren kearen, lurrunaren eta txistuaren eraginez.

• • •

Alde egin dutenez bagoiek, eta haiekin batera mundu ipurterreak, eta lakuko arrainek ez dutenez jada nabaritzen burrunbarik, bakarrik nago, inoiz ez bezala. Nire meditazioak patxada osoz garatuko dira arratsalde luzean, akaso gurdiren baten triki-traka leunak etenda noizean behin, urruneko errepi-deko oihartzun.

Batzuetan, igandetan, kanpaiak entzuten ditut, Lincolneko, Acton-eko, Bedford-eko edo Condordeko kanpaiak, haizea

---

132 Thoreauren beraren poema.

alde datorrenean: melodia natural bat da —nolabait esatearren—, leuna eta gozoa, natura basatira ekartzeko merezi duena. Basoaren bihotzean bazaudete, behar bezain urrun, soinuak halako bibrazio-kutsu bat hartzen du, zerumugako pinu-orratzak harpa baten kordak balira bezala. Albait distantziarik handie-nean aditzen den soinu orok sortzen du efektu bat eta berdina, lira unibertsalaren bibrazio bat, eta modu berean iruditzen zaigu liluragarria han urrunean dagoen mendi-tontorra, atmosferaren eraginez kutsu urdinkara bat daukana. Kasu honetan, bada, halako melodia bat iritsi zitzaidan, aireak iragazitakoa, eta basoko hots eta orratz ororekin mintzatua zena: soinu-puska bat, elementuek modulatu, haren oihartzunak banatuz haranez haran. Oihartzuna, hein batean, soinu original bat da, eta horretan datza bere magia eta xarma. Ez da, soilik, kanpaiek jotzen dutenean errepikatzea merezi duen soinua, ezpada, partez, basoaren aho-tsa: basoetako ninfak abesten dituen hitz eta nota tribial berak.

Iluntzean, behi baten marru urruna aditu nuen, basotik haraindiko zerumugan zuen jatorria, eta gozoa eta melodikoa iruditu zitzaidan; hasieran, are, tarteka serenataren bat eskaini izan didaten trobadoreen bozarekin nahastu nuen, zeinak bailaretan barna ibiltzen baitira, baina berehala hartu nuen desengainu ez guztiz desatsegin bat, oharturik behiaren musika merke eta naturala zela egiaz. Ez da nire asmoa satirarik egitea, ezpada trobadore gazteen abestiak estimatzen ditudala adieraztea, esanez behiaren doinuaren antzekoak begitantzen zaizkidala argiki, eta, horrenbestez, Naturaren adierazpenak direla.

Udako bolada batean, arratsaldeko zazpi eta erdietan eta erabateko erregulartasunarekin, zata arruntak kantuan jarduten ziren ordu-erdiz, nire ate ondoko motzondo batean jarrita, edo etxe-bizkarrean bestela. Erlojuaren zehaztasunarekin ekiten zioten kantuari, ilundu aurretikoko bost minutuetan hasita, arratsaldero, hutsik egin gabe. Haien ohiturak ezagutzeko aukera bakana izan nuen. Batzuetan laupabost kantu entzuten nituen basoko zenbait aldetan, bata bestearen konpasari jarraika kasualitatez, eta nigandik hain hurbil zeuden ezen, nota bakoitzaren atzetik, garbi entzuten bainituen ez bakarrik karkarak, ezpada halako burrunba-hots berezi horiek ere, euliak armiarma-sarearen inguruan dabilela ateratzen duenaren modukoa, baina apur

bat ozenagoa. Zenbaitetan, basoan barna nembilela, txori bat jira eta bira ibiltzen zitzaidan inguruan, oin gutxi batzuetara, soka batekin lotuta eramango banu bezala: bere arrautzetatik gertu egongo nintzen ziur aski. Gauez, tarteka-marteka aritzen ziren kantuan hegaztiak, eta goiz-albaren aurretik eta egunsentiaren unean bertan jarduten ziren inoiz baino musikalago.

Gainerako txoriak isiltzen direnean, hontzak hartzen du haien lekukoa, bere u-lu-lu zaharrari ekinez, erostariak bezala. Hontzen oihu goibela Ben Jonson-en<sup>133</sup> parekoa da, alajaina. Gauerdiko sorgin jakintsuak! Ez da poeten txorrotxio zintzo eta argia, ezpada, serio hitz eginez, hilerrietako kantu guztiz solemnea, maitale suiziden kontsolamendu-hitz elkarrekikoak, amodio naturaz gaındikoaren penak eta pozak gogora dakartzatelarik infernuko zuhaitzietan. Maite dut, halere, haien marruak, haien erantzun errukarriak aditzea: basoaren ertzean abesten dituzte, eta musikaren eta txori abeslarien traza hartzen diet batzuetan, musikaren alderdi ilun eta tristea balira bezala; abestu nahi genituzkeen damuak eta hasperenak. Espirituak dira, espiritu burumakurrak eta malenkonia-iragarpenak; inoiz Lurreko gauetan gizakien forman ibilitako arima eroriei dagozkie, zeinek iluntasunaren zereginak bete baitzituzten beren garaian, eta orain beren bekatuak garbitu nahi dituzte, auhenka eginez beren arau-hausteen gertalekuan berean. Aukera berriak erakusten dizkirate, Naturaren —gure bizileku ohikoaren— aniztasunari eta ahalmenari dagokionez. *O-o-oh, ni nintzen bada jaio-o-o!*, dio, kantuz, txori batek lakuaren alde honetan, eta biraka hasten da artega, haritz grisen baten adarrean pausatu arte berriz. Ondoren, *ni nintzen bada jaio-o-o!* erantzuten dio beste batek, lakuaren beste muturretik, zintzotasun dardaratiz, eta *jaio-o-o!* iristen zai-gu berriro, apal, Lincolneko baso urrunetatik.

Uluka aritu zitzaidan, halaber, hontz amerikarra. Gertu suertatuz gero, naturako soinurik malenkoniatsuena zela pentsa zenezakeen, bai baitzirudien bere kantuaren bitartez estereotipatu eta finkatu nahi zituela gizaki baten herio-deitoreak, hilkortasunaren erlikia zahar eta ahul bat, zeina atzean utzi baitu itxaropenak eta intzirika ari baita animalien antzera,

---

133 Benjamin Jonson (1572-1637), Ingalaterrako antzerkigile, poeta eta aktorea. *Masque of Queens* laneko pasarte bati buruz ari da Thoreau.

giza zotinekin halere, bailara ilunera sartzea egokitu zaiolarik; egoera are latzagoa da, gainera, halako melodia glotiko bat ere aditzen delako —niri, behinik behin, *gl* soinua datorkit eztarrira hura antzeratzen saiatzen naizenean—, zeinak adierazten baitu gogamena iritsia dela fase gelatinazko eta lizundu batera, pentsamendu osasuntsu eta ausart ororen hilduratze-prozesuan. Gogora dakarzkiz banpiroen, ergelen eta zoroen alarauak. Orain, ordea, beste batek erantzun du basoaren beste aldean, distantziatik guztiz melodikoa ematen duen doinu batez: *Ulu-ulu-ululu*. Egia esatera, gehienetan lotura atseginak bakarrik iradokitzen zizkidaten txori haiek, gauez zein egunez, udan nahiz neguan.

Pozten naiz hontzak badirelako. Egin ditzatela beren ulu ergel eta eroak gizonentzat. Beren soinua aproposa da, arrunt, egunak sekula argiztatu gabeko aintzira eta baso ospeletarako, gizonak ezagutzen ez duen natura zabal eta garatu gabeko bat iradokitzen dute. Guztiok izaten ditugun ilunabar laiotzen eta pentsamendu asegabeen erakusgarri dira. Eguzkiak egun osoz argitu du zingira, zeinean altxatzen baita izei bakarti bat, adarrak likenez estalirik; belatz txiki batzuk bueltaka dabilta han goian, kaskabeltzak zizipaza egiten du betiberdeen artean, eta azpian ezkututzen dira eperra eta untxia; orain, baina, egun goibel eta egokiago bat jaikiko da, eta kreaturen arraza desberdin bat iratzarriko da, Naturak hemen duen esanahia adieraztera.

Arrastirian, bagaien triki-traka urruna aditzen nuen, zubiak zeharkatzen zituztelarik —gauez, soinu hori urrunago iristen da beste edozein hots baino—, eta orobat entzuten nituen txakurren intziriak, eta, tarteka, behi kontsolaezin baten marrua, urruneko korta batean. Bien bitartean, laku-ertza deiadar betean ibiltzen zen, zezen-igelen tronpeta-saioarekin, mozkor eta parrandazale antzinakoen espiritu sendoak ziruditen, damugabe porrokatuak, doinu bat ganoraz abestu nahian Estigiako lakuan<sup>134</sup> —barka nazatela Waldeneko ninfek konparazio hori egiteagatik, zeren, han belar txarrik apenas dagoen arren, ugari baitira igelak—. Beren festetako arau dibertigarriak mantendu nahi lituzkete, nahiz eta beren ahotsak guztiz erlastuta dauden, eta zeharo solemne bilakatu diren; irri egiten diote pozari, eta ardoak galdua du bere zaporea, eta orain ez da sabelak pizten

---

134 Greziar mitologian, bizidunen eta hilen mundua banatzen zituen ibaia.

dituen likorea baizik; hordialdi gozoak ez du inoiz lortzen iraganaren oroitzapena itotzea, haiek betetzea, blaitzea eta puztea soilik lortzen du. Iparraldeko ertzean, igel guztietan pertxentena, bihotz-tankerako hosto batean bermaturik kokotsa, ahozapi bat balitz bezala, trago eder bat ematen dio behiala mesprexturiko urari, eta katilua pasatzen die txandaka besteei, hala esanez: *k-r-r-ooak, k-r-r-ooak, k-r-r-ooak!* Berehala, pasahitz berdina errepikatzen du, urruneko zoko batetik, hierarkian hurrengo denak, eta errituala bazter guztietan barna gauzatzen denean, zeremonia-buruak pozarren ebakitzen du bere korrokada berriro ere, eta ondoren bakoitzak dagokionean errepikatzen du, baita igelik bigun eta argalenak ere, okerrik egon ez dadin, eta orduan katilua pasatzen dute beste behin ere, harik eta eguzkiak saretzen duen arte goizeko behe-lainoa, eta patriarka bakarrik geratzen den arte lakutik kanpo: kroak leun bat egiten du tarteka-marteka, eta erantzunaren zain geratzen da.

Ez dakit inoiz entzun ote nuen oilarraren kukurrukua nire argiunetik, eta pentsatu izan nuen agian merezi zuela halako bat edukitzea, bere musika aditzeko besterik ez bazen ere, txori kantari gisa. Oilarra, zeina Indiako faisaia basatia izan baitzen behinola, txori guztien artean nabarmenena da, eta gai izango bagina hura bertakotzeko, baina bezatu gabe, azkar asko bilakatuko litzateke gure basoetako soinurik ospetsuena, antzaren zalaparta eta hontzen ulua atzean utzita; pentsa nolako kakarak egingo litzuketen oiloek ere, beren jaunen turuta-hotsen isiluneak betetzeko! Ez da harritzekoa gizonak txori hau gehitzea bere etxeko saldoari —arrautzen eta oilasko-izterren iturria dela ahaztu gabe—. Pentsa zer izango litzatekeen neguko goiz batean oinez ibiltzea txori hauek ugari bizi diren basoan barna, beren jatorrizko basoan zehar, eta oilar basatien kantua aditzea zuhaitzetan, zeinak argi eta gordin oihartzun egiten baitu hainbat miliatan, beste txori batzuen nota ahulagoak itoz! Hori egin ahal bagenu, adi-adi jarriko lirateke nazioak. Nor ez litzateke lehenago iratzarriko, eta lehenago eta lehenago iratzarriko egunez egun, bere bizi osoan, harik eta osasuntsu, aberats eta jakintsu bihurtu arte, adierazi ezineko neurrian? Txori atzerritar honen doinua ospatzen dute herrialde orotako poetek, bertako kantarien doinuekin batera. Klima guztietara moldatzen da ondo. Bertakoak berak baino indigenagoa da. Osasuntsu dago beti, birikak sasoi

eta aldartea tinko. Hark esnatzen ditu baita Ozeano Atlantikoan eta Barean dabiltzan marinela ere; dena den, bere txilioak ez nau inoiz atera lozorrotik. Ez neukan txakurrik, katurik, behirik, txerririk ez oilorik ere; esan genezake, beraz, eskasian nengoela etxeko soinuei zegokionez: ez gurin-ontzirik, ez gorurik, ez teontziaren txisturik, ez lapikoaren oihurik, ez eta haurren negar-zotini ere; ez neukan halakoen sosegurik batere. Antigoaleko gizon batek burua galduko zukeen, edo asperduraz hilko zen, halako egoera batean. Izatez, ez zegoen arratoirik ere paretazuloetan ezkutatuta, gosez hilko baitziren bertan, edo, bestela esanda, ez baitzituenez ezerk ateraraziko. Hauek baino ez zeuden: urtxintxak teilatuan eta zorupean, zata bat etxe-bizkarrean, ipar-bele urdin bat leiho azpian garrasika, erbi bat edo marmota bat etxearen azpian, hontz bat edo beste haiei segika, antzara basen saldo bat edo aliota irribarretsu bat lakuan, eta azeri bat zaunkaka gauean. Hegatxabalak eta urretxoriak, plantazioetako hegazti patxadatsuak bi-biak, ez ziren inoiz etorri nire argiunera. Nire lorategian ez zen aditzen oilarren kukurrukurik ez oiloen karakarik. Ez neukan lorategirik ere! Soilik natura hesitu gabea, atariraino sartzen zitzaidana. Baso gazte bat leihoen azpian, zuma-akeak eta sasiko masustak sotoko zirrikitueta, pinu sendoak hormako oholen aurka igurzten, lekua egin nahian, sustraiak sakon zituztelarik etxearen azpian. Modu horretan, ekaitzak ez zuen errotik aterako leihorik ez ikatz-edukiontzirik, ezpada pinu bat, zeinak, etxearen atzean ziplo erorita, erregaia egiteko balio izango baitzuen. Modu horretan, Elurte Handian ez nuen garbitu beharko ataririk ez lorategirik, ez baitzegoen ataririk, ez lorategirik, ezta mundu zibilizatura doan biderik ere!

# BOST

## BAKARDADEA

Iluntze xarmagarri bat da hau; gorputzak zentzumen bakar bat osatzen du, eta plazerez betetzen da poro guztietatik. Hara eta hona nabil Naturan barna, halako askatasun bitxi baten jabe, haren parte bihurturik. Lakuaren ertz harritsuan zehar noa, alkandora hutsean, nahiz eta fresko egiten duen —lainotuta dago eta haize fina dabil—, eta ez dut ikusten erakarriko nauen gauza berezirik; elementu guztiak bat datoz nire izatearekin ezohiko moduan. Zezen-igelek beren turuta jotzen dute, gauari deiadarka, eta haize-uhinak ekartzen dit zataren doinua uraren gainetik. Haltz- eta lertxun-hosto dardaratiekiko sentitzen dudak atxikimenduak arnasa eteten dit kasik; haatik, nire baretasuna, lakuarena bezalaxe, ez da urratzen, izurtu arren. Iluntzeko haizeak altxaturiko olatu txikiak urrun daude ekaitzetik, azalaren isla lasaia bezainbat. Ilundu badu ere, haizea dabil oraindik basoan orroka, olatuak lehertzen dira, eta zenbait kreaturaren kantuak isilarazi egiten du besteena. Atsedena ez da erabatekoa inoiz. Animaliarik basatienek ez dute deskantsatzen sekula, aitzitik, beren ehizakiaren bila abiatzen dira: azeria, mofeta eta untxia izukaitz dabilta orain, baso eta larreetan deslai. Naturaren zaindariak dira, bizidunen egunak lotzen dituzten kateak.

Etxera itzulirik, ohartu naiz bisitariak etorri zaizkidala eta bertan utzi dizkidatela beren txartelak: lore-sorta bat, betiberdeen koroa bat, edo izen bat, arkatzez idatzia, gaztaina-hosto horikara batean edo ezpal batean. Basora aldi bakanetan etortzen direnek, hango pusketaren bat hartzen dute biderako, eta

etxean uzten didate gero, nahita edo nahi gabe. Batek, sahatadar bat zuritu du, harekin eraztun bat egin, eta mahai gainean utzi dit. Bisitariren bat etorri bazait kanpoan nintzen bitartean, beti-beti ohartzen naiz, adaxkak edo belarra zanpatu dituelako, edo oin-lorrazak utzi, eta, oro har, gauza izaten naiz jakiteko zer sexu edo adin duten edo nolakoak diren bisitari horiek, utzi dituzten arrastoen arabera, hala nola lore bat eroria, edo belar-eskukada bat erauzia eta beste norabait jaurtia —batzuetan, oso urrunera, milia-erdira dagoen trenbideraino—, edo pipa baten lurrin sakabanatua. Bidaiariren bat errepidean barna zihoala ohartu izan naiz maiz, alafede, haren piparen usaina adituta, hiru-urogei kanara bazegoen ere.

Normalean, espazio aski izaten dugu inguruan. Zerumuga ez daukagu inoiz ber-bertan. Baso trinkoa ez da gure atearen pare-parean hazten, ezta lakua ere; aitzitik, beti dago nolabaiteko argiune bat tartean, Naturari kentzen diogun espazio ezagun eta ohiko bat, aproposa eta alde edo moldez hesitua. Zergatik daukat halako eremu zabal bat neuretzat, inor ez dabilen baso bateko milia karratu zenbait, gizonak abandonatuak, neronek lasai baliatzeko? Milia batera daukat auzorik hurbilena, eta ez dut etxe bakar bat ere begiztatzen, non eta ez naizen igotzen milia-erdira dauzkadan muino-tontorretara. Basoak zedarritzen du nire zerumuga, eta niri dagokit bakarrik; alde batean, trenbidea ikus dezaket urrunean, lakuaren albotik pasatzen den lekuan; beste aldean, berriz, baso-bidearen hesia. Baina, gehiengoan, bakarrik nago bizileku honetan, ordokietan bezain bakarrik. Ingalaterra Berria bezainbat dirudi Asia edo Afrika. Neuri dagozkit, nolabait esatearren, eguzkia eta ilargia eta izarrak, eta mundu txiki oso bat ere. Munduko lehen gizona banintz bezala, edo azkena bestela, gauz ez da sekula etortzen bidaiaririk nire etxera, ez dit inork jotzen atea; udaberrian, hori bai, lantzean behin hurbiltzen dira kalekumeak lakura, katu-arrainak arrantzatzera —hala ere, agerikoa da, Walden lakuan, arrainak baino neurri askoz handiagoan arrantzatzen dutela beren burua, amuei iluntasuna beitatuz—, baina azkar asko egiten dute atzera, saskia askorik bete gabe normalean, eta «mundua iluntasunari eta niri»<sup>135</sup> itzultzen didate berriz; halatan, giza konpainiak inoiz ez du

---

135 «Elegy Written in a Country Churchyard» laneko pasartea. Egilea: Thomas Gray



urratzen gauaren bihotz sakona. Uste dut gizonak iluntasunaren beldur direla oraindik ere, nahiz eta sorgin denak esekiak izan diren jadanik, eta kristautasuna eta kandelak ezarri diren.

Hala eta guztiz ere, batzuetan egiaztatzen nuen jendarterik gozo eta samurrena, jendarte lañoa eta orobat adore-emailea, objektu natural orotan biltzen dela, baita misantropo gaixoaren eta gizonik malenkoniatsuaren kasuan ere. Naturaren erdian bizi bada gizona, eta bere zentzumenak ondo badaude, ez dago modurik malenkonia guztiz beltzak erasan diezaion. Ez da inoiz izan belarri osasuntsu eta inozente batek musika eoliar bihur ezin dezakeen ekaitzik. Gizon soil eta ausart bat ezin du ezerk bultzatu tristezia arruntera. Urtaroen adiskidetasunaz gozatzen dudalarik, ziur naiz ezerk ezin duela bizitza zama bilakatu niretzat. Gaurko euri freskoa, babarrun-soroa ureztatu eta etxean egonarazten nauen hori, ez da goibela eta malenkoniatsua; aitzitik, neure onerako da. Soroa aitzurtzea eragozten dit, baina nire aitzur-lana baino puskaiz baliotsuagoa da. Luzaroan jarraituko balu, haziak lurtean ustelarazteko eta behe-lurretako patatak suntsitzeko adina, onuragarria suertatuko litzaieke, hala ere, goi-lurretako belazeei, eta haiei mesede eginik, mesede egingo lidake neuri ere. Batzuetan, nire burua alderatzen dudanean beste gizonekin, badirudi jainkoek neroni aldezen nautela besteak baino gehiago —jakitun naizen merituetatik harago—, hurkoek inolaz ere ez daukaten halako berme eta segurtasun bat banu bezala nire esku, eta modu berezian gidatuko eta zainduko banindute bezala. Ez dut nire burua lausengatzen, baliteke haiek ni lausengatzea. Ez naiz inoiz sentitu bakarrik, ez zait inoiz iruditu bakardadeak hertsatzen ninduenik; behin bakarrik sentitu dut era horretako zerbait, basora etorri eta aste batzuetara hain zuzen ere: orduko hartan, zalantza egin nuen, ordubetez, ea gizonen konpainia hurbila ez ote zen ezinbestekoa bizitza bare eta osasuntsu bat izateko. Gauza desatsegina zen bakarrik egoitea. Baina, aldi berean, jabetzen nintzen bazela eldarnio arin bat nire aldardean, eta aurreikus nezakeen hartatik sendatuko nintzela. Euri gozo bat hasi zuen halako pentsamenduak gailentzen ari zitzaizkidan unean, eta supituan nabaritu nuen Naturaren konpainia samur eta onuragarria euri-tanten errepikan, eta

---

(1716-1771), poeta ingelesa, eta Cambridgeko unibertsitateko irakaslea.

etxearen inguruko soinu zein ikuspegi guztietan; amultsutasan infinitu eta mugagabe bat sentitu nuen bat-batean, eusten zidan atmosfera bat, hutsal bilakatu zituena giza konpainiaren ustezko bertuteak, eta ez dut gauza horiez behin ere pentsatu harrezkeroztik. Pinu-orratzak hedatzen eta zabaltzen ziren, nirekiko laguntasunaz beterik. Argi eta garbi ohartu nintzen bazela presentzia bat, nirekin ahaidetua, baita salbai esaten diogun eremuan ere, eta orobat konturatu nintzen, nire odolekoen artean, hurbilekoena eta gizatiarrena ez zela pertsona bat, ezta kaletar bat ere; horregatik, pentsatu nuen ezein leku ez zitzaidala arrotza suertatuko sekula gehiago.

«Garaiz kanpoko doluak ahitzen du jende tristea;  
egun gutxi igarotzen dituzte bizidunen lurrian,  
Toscarren alaba ederra».<sup>136</sup>

Nire ordurik atsegingarrietako batzuk ekaitz luzeek eskaini zizkidaten, udaberrian zein udazkenean; etxean konfinaturik egoten nintzen, halabeharrez, goizetik arratsaldera, euri-jasaren burrunba etengabeak kulunkatzen ninduelarik; halako batean, iluntze goiztiar bat abailtzen zen, eta pentsamendu asko errotzeko eta garatzeko aukera ematen zidan. Ipar-mendebaldeko eurite bat izaten zenean —gogotik astintzen dituzte hiriko etxeak—, atarietara ateratzen ziren neskameak, lanbasa eta kuboa eskuan, ura sartzea eragozteko; ni, berriz, neure etxe txikiko atearen atzean esertzen nintzen, etxe osoa baitzen atari bat, eta pozarren gozatzen nuen haren babesaz. Egundoko ekaitz baten erdian, tximistak pinu handi bat jo zuen, lakuaren beste aldean, eta marka nabarmen bat tailatu: espiral guztiz erregular bat, goitik beherakoa, hazbete bat sakoneran eta laupabost zabaleran, ibiltzeko makila bati egiten zaion tailatze-lanaren tankerakoa. Haren paretik pasa nintzen aurreko batean, eta ikaratu nintzen gorantz begiratu eta marka hari behatuz: inoiz baino nabarmenago ageri zen duela zortzi urte zero kaltegabetik etorritako tximista geraezinaren arrastoa. Gizonek sarritan esaten dizkirate honelakoak: «Esango nuke bakarrik sentitzen zarela zoko horretan, eta nahi zenukeela jendearen arrimuan egon, bereziki euria eta elurra egiten duen egunetan». Bada,

---

136 «Croma» poemako zati bat. Egilea: James MacPherson (1736-1796).

honela erantzuteko tentazioa izaten dut: «Bizi garen Lur hau, planeta oso hau, puntu bat da espazioan, besterik ez. Zeure aburuz, zenbateko distantzia dago hango izar hartan elkarrengandik urrutien bizi direnen artean, kontuan harturik izar horren diskoaren zabalera ezin dugula neurtu gure erremintekin? Zergatik sentitu behar nuke bakardaderik? Gure planeta ez al dago, bada, Esne Bidean? Galdetu didazun hori ez da, nire iritiz, galderarik garrantzitsuena. Zer espazio-motak banatzen du gizon bat bere hurkoarengandik, eta bakarti bihurtzen? Ohartu naiz ez dagoela bi adimen elkarrengana hurbil ditzakeen zango-mugimendurik. Zeren ondoan bizi nahi dugu? Ziur aski, ez ditugu hurbil izan nahi gizon asko, ezta geltokia, posta-bulegoa, taberna, eliza, eskola, denda, Beacon Hill<sup>137</sup> eta Five Points<sup>138</sup> ere —zeinetan biltzen baitira gizon gehienak—; aitzitik, gugandik gertu eduki nahi dugu gure bizitzaren iturri iraunkorra, zeinetatik sortzen baita gure bizia —eskarmentuak erakutsi digunez—, hala nola kokatzen den sahasa uretatik gertu, eta harantz bidaltzen dituen bere sustraiak. Norberaren izaeraren arabera, toki bat edo bestea izango da, baina halako leku batean zulatuko du gizon jakintsuak bere sotoa...». Arratsalde batez, Waldeneko bidean, herrikide batekin topo egin nuen, zeinak «ondasun-sail eder bat» pilatu baitu, esaten den moduan —nahiz eta niri ez zaizkidan ederrak irudituko sekula—; behi pare bat zeramatzan, bada, gizonak merkaturantz, eta galdetu zidan ea nola nintzen gauza bizitzako erosotasun ugariei uko egiteko. Erantzun nion ederki asko konpontzen nintzela egoera hartan, ez nintzen txantxetan ari. Hori esanda, etxera joan nintzen, ohera, gizona bertan utzita, iluntasunean eta lokatzetan barna bidea eginez Brighton alde-ra —edo Bright-town<sup>139</sup> alde-ra—: goiz partean iritsiko zen bere helmugara.

Hildako gizon bat iratzartzeko edo bizitzara itzultzeko aukerek garrantzia kentzen diote, guztiz, denborari eta tokiari. Halako kontuak beti gertatzen dira leku berean, eta ezin adierazteko moduan dira atseginak gure zentzumenentzat.

---

137 Bostoneko iparraldeko auzo bat. Hantxe kokatzen da Massachusettseko gobernuaren egoitza.

138 Manhattaneko auzo pobrerik; Thorearen garaian, putetxe eta joko-areto ugari biltzen ziren han.

139 Hitz-jokoa, Brighton hiriaren izena apur bat aldatuta: Hiri Argia esan nahi du literalki.

Gehien-gehienetan, kanpo-baldintza iragankorreki bakarrik uzten diegu gure aukerak molda ditzaten, baina gure deskuiduen kausa dira egiaz. Gauzen izatea taxutzen duen horixe da gauza orotatik gertuen dagoena. *Gure alboan* arau gorenak etengabe gauzatzen dira. *Gure alboan* ez dago lanerako kontratatu dugun morroia; maite dugun arren harekin mintzatzea, langile bat da, eta gu gara haren lana.

«Bai zabala eta sakona dela Zeruko eta Lurreko botere sotilen eragina!

Haiek atzitzen ahalegintzen gara, eta ez ditugu ikusten; haiek aditzen saiatzen gara, eta ez dugu lortzen; gauzen substantziarekin loturik baitaude, ezin dira haietatik bereizi.

Haien poderioz, gizonek beren bihotzak garbitzen eta santifikatzen dituzte unibertso osoan, eta jaiegunetako jantziak ipintzen soinean, sakrifizioak eta oblazioak eskaintzeko arbasoei. Adimen sotilen ozeano bat da. Toki guztietan daude: gure gainean, gure ezkerretara, gure eskuinetara; alde guztietatik inguratzen gaituzte».<sup>140</sup>

Asko interesatzen zaidan esperimendu baten subjektuak gara. Halako egoera batean, ez al gara gai txutxu-mutxuak baztertera uzteko, eta gure aldartea pentsamenduekin pizteko? Konfuziok dio, zuzen esan ere: «Bertutea ez da umezurtz abandonatu bat, auzoak izan behar ditu derrigorrez».<sup>141</sup>

Pentsamenduaren bidez, modu osasuntsu batean irten gaitzke geure baitatik. Gogoaren ahalegin kontziente bat eginez, ekintzen eta haien ondorioen gaineratik koka gaitzke, eta gauza guztiak, onak nahiz txarrak, gure paretik pasako dira, korronte baten tankeran. Ez gaude Naturan txertaturik osoki. Izan ninteke adar alderrai bat errekaetan, edo Indra, zeruan dagoena, hari beha. *Baliteke* teatro-emanaldi batek eragina izatea nigan; *baliteke*, bestalde, itxuraz behintzat nirekin zerikusi handiagoa duen egiazko gertakari batek ni hotz uztea. Giza entitate gisa baizik ez dut neure burua ezagutzen; pentsamenduen eta sentimenduen gertalekua naiz, nolabait esatearren, eta halako bikoiztasun batek eragiten dit, eta, horren poderioz, besteengandik bezain urrun egon naiteke neure buruarengandik. Nire esperientziak bizi-biziak izan badira ere, jakitun naiz nire zati baten presentziaz eta kritikotasunaz, zeina, nolabait esatearren, ez baita nire

---

140 Konfuzioren *Bitarteko bidezkoaren doktrinako* pasarte bat.

141 Konfuzioren *Analektak*, 4:25.

parte, ikusle bat da: ez du esperientzian parte hartzen, hari erreparatzen dio, eta ez da ni, zu ez den adina. Bizitzaren antzezlanak bukatzen denean —tragedia bat, akaso—, ikusleak bere bidearekin jarraitzen du. Hari dagokionez, nolabaiteko fikzio bat zen, irudimenaren fruitua baino ez. Bikoiztasun horrek aise bihur gaitzake auzokide eta adiskide kaskarrak maiz.

Gauza osasuntsua iruditzen zait bakarrik egotea denboraren puska handi bat. Beste norbaitekin nagoenean, konpainiarik onena izanda ere, laster bihurtzen da nekosoa eta kaltegarria. Nik oso gogoko dut bakarrik egotea. Ez zait inoiz iruditu bakardadeak baino hobeto laguntzen nautenik adiskideek. Gure gelan geratzen garenean baino bakardade handiagoa pairatzen dugu beste gizon batzuekin biltzen garenean. Gizon bat, lanean ari bada, edo bere pentsamenduetan murgilduta, beti dago bakarrik, nonahi ere dagoela. Bakardadearen neurri zehatza ez du ematen gizonaren eta haren hurkoaren artean dagoen milia-kopuruak. Ikasle zinez ekina, Cambridgeko unibertsitateko<sup>142</sup> erlauntza jendez betean badago ere, bakar-bakarrik dago, basamortuko derbitxea bezainbeste. Nekazariak egun osoa igaro dezake so-roan edo basoan lanean, aitzurrarekin edo aizkorarekin, eta ez da bakarrik sentituko, lanean dihardu-eta; baina gauean etxera itzultzen denean, ez da gauza bakarrik egoteko gela batean, bere pentsamenduen menean; aitzitik, jendea ikus dezakeen lekuan egon behar du, burutazioak uxatu, eta, bere iritzian betiere, ordainen bat jaso behar du bere egun bakartiaren trukean; hala, bere kautan galdetzen du nola den posible ikasleak gau osoa —eta egunaren puskarik handiena— igarotzea etxean, aspertu gabe eta atsekabetu gabe; ez da ohartzen, ordea, ikaslea, etxean egon arren, bere eremua jorratzen ari dela, bere zuhaitza mozten, nekazariak egiten duen bezalaxe, eta konpainia eta entretenimendua bilatzen dituela hark bezala, nahiz eta modu trinkoago batean izan ziur aski.

Konpainia merkezurrekoa izaten da gehienetan. Maizegi biltzen gara elkarrentzako balio berririk eskuratzeko betarik izan gabe. Jatorduetan elkartzen gara, egunean hiru bider, eta gu geu garen gazta zaharminduaren beste mokadu bat ematen diogu aldiro elkarri. Arau-sorta bat adostu dugu —manera onak, fine-

---

142 Ikus 48. oharra.

zia—, bilkura sarriegi horiek onargarri bihurtzeko eta elkarren aurkako gudan hasi behar ez izateko. Biltzen gara posta-bulegoan, eta bilkura sozialetan eta sutondoan gauero; gertu-gertu bizi gara, eta enbarazu egiten diogu batak besteari; behaztopa egiten dugu eta, nire iritziz, elkarrekiko errespetuaren zati bat galtzen dugu modu horretan. Argi dago maiztasun txikiago bat ere aski izango litzatekeela komunikazio garrantzitsu eta adeitsu guztietarako. Errepara diezaiegun, adibidez, lantegi batean diharduten neskatoei: ez daude sekula bakarrik, ezta ametsetan ere. Hobeia litzateke biztanle bakar bat egotea milia karratu bakoitzeko, ni bizi naizen lekuan bezalaxe. Gizonaren balioa ez dago bere azalean; ez dugu zertan ukitu.

Entzuna naizenez, izan omen zen behinola gizon bat basoan galdu, eta zuhaitz baten oinean goseak eta akidurak jota hil zena: bada, gorputzaren ahulezia tarteko, ikuspegi grotesko batzuk irudikatu zituen bere eldarnioan, eta haiexek arindu zioten bakardadea egiazkoak zirela sinetsi baitzuen. Modu berean, osasunari eta indar fisiko zein mentalari esker, halako konpainia baten babesa izan dezakegu etengabe, zertxobait normalagoa eta naturalagoa halere, eta ohar gaitetze sekula ez gaudela bakarrik.

Egia esan, konpainia mordo bat izaten dut nik etxean; goizez bereziki, inork dei egiten ez didanean. Konparazio gutxi batzuk iradokiko ditut, arrasto bat behintzat izan dezazuen nire egoera zertan den: ez nago lakuko aliota baino bakardade handiagoan, zeinak barre egiten baitu ozen, ez eta Walden lakua bera baino bakardade handiagoan ere. Esadazue: zer konpainia du, bada, laku bakartiak? Eta, hala ere, bere ur gardenetan ez dago deabru gorriarik, aingeru urdin ugari baizik. Eguzkia bera bakarrik dago, salbu eta lanbroa sartzen denean; halakoetan bi eguzki direla ematen baitu, baina bigarrena ez da benetakoa. Bakarrik dago Jainkoa; ez, ordea, deabrua: konpainia mordo bat dauka, legio bat da. Ez dut bakardade handiagorik sentitzen apo- edo txikoria-belarrak baino; edo babarrun-hosto batek, edo mingarrazak, edo ezparak, edo erlastarrak baino. Ez naiz bakartiagoa Mill Brook<sup>143</sup> baino, edo haize-orratza, edo artizarra, edo haize hegoa, edo apirileko jasa, edo urtarrileko urtzaroa, edo etxe berri bateko lehen armiarma baino.

---

143 Concorden barrera dabilen erreka bat.

Neguko gau luzeetan, elurra bizkor erortzen denean eta haizeak orro egiten duenean basoan, bisitan etortzen zait, lantzean behin, kolono zahar bat, leku honen jabe jatorrizkoa: hark zulatu omen zuen Walden lakua, harriz bete, eta pinudiz inguratu. Garai zaharren eta eternitate berriaren kontakizunak aletzen dizkit, eta, bion artean, arrats eder bat pasatzea lortzen dugu, iritziak trukaturaz pozik eta alai, sagarrik ez sagardorik ez izan arren; badut, orobat, lagun guztiz jakintsu eta aldarre oneko bat, asko maite dudana, eta ezkutuan gordetzen dena, Goffe edo Whalley<sup>144</sup> baino gehiago are: hilik dagoela uste den arren, inork ezin du esan non dagoen lurperaturik. Halaber, adineko dama bat ibiltzen da nire inguruan; jendearen gehiengoak ezin du ikusi; neronek, ordea, gogoko dut haren lorategi herbal usaintsuan barna ibiltzea paseoan, basoko belarrak biltzen eta haren fabulak aditzen; izan ere, dama horrek badu jeinu bat, eman-kortasunari dagokionez parekorik ez duena, eta mitologia bera baino zaharragoa da bere memoria; horrenbestez, gai da fabula guztien sorburua zein den eta fabula bakoitza zer gertaeratan oinarritzen den kontatzeko, kontu horiek denak bere gaztaroan jazo baitziren. Dama zahar sendo eta musugorri bat, pozarren egoten dena urtaro eta eguraldi guztietan, eta ziur aski orain arte izan dituen haur guztiak baino luzaroago biziko dena.

Zer-nolako poza ematen duen beti naturaren inozentzia eta onuragarritasun deskribaezinak, eguzkiarenak, haizearenak eta euriarenak, udarenak zein neguarenak! Eta nolako adeitasuna erakusten dion beti gure arrazari; gizon bat sufritzen ari balitz arrazoi justu batengatik, Natura osoari eragingo lioke horrek: eguzkiaren argitasuna lausotuko litzateke, eta haizeak lanturuka arituko lirateke gizakien eran, negar egingo lukete hodeiek, eta zuhaitzek hostoak mudatu, eta dolu-jantziak ipiniko lituzkete udaren erdian. Ez al dugu elkar ulertuko Lurrak eta biok? Neroni ez al nago, bada, hostoz eta materia begetalez osaturik hein batean?

Zer pilulak mantenduko gaitu ondo, bare, ase? Ez dira izango zure edo nire birraitonarena pilulak, ezpada Naturaren —gure birramonaren— botika unibertsal, begetal eta botanikoak, zei-

---

144 William Goffe (1605-1679, gutxi gorabehera) eta Edward Whalley (1607-1675), politikari eta militarrik. Karlos I. Ingalaterrakoaren exekuzioarekin izan zuten zerikusiarren eraginez, Ingalaterra Berrira ihes egin eta ezkutuan bizi izan ziren.

nen bidez eutsi baitio berak ere gaztaroari; edozein Parr<sup>145</sup> baino luzeago bizi izan da, eta bere osasuna elikatu du haien loditasun ustelarekin. Panazea gisa, ez eman niri Akeronte ibaiko eta Itsaso Hileko osagaiekin egindako nahasketen potorik —petrikiloek atera ohi dituzte beren gurdi arin eta luzangetatik, botilak eramateko erabili ohi diren eta goleta beltzen antza duten horietatik—; horren orde, emadazue goizeko aire diluitu gabea! Goizeko airea! Gizonek ez badute horretatik edango egunaren iturburuan, botilatan gorde beharko dugu, bada, eta dendetan saldu, mundu honetako goizen harpidetza-txartela galdu dutenen mesedetan. Baina gogoan izan eguerdia baino lehen txartuko dela aire hori, baita sotorik freskoenean egonda ere; botilaren tapoia behartu eta Auroraren atzetik abiatuko da mendebalderantz. Ez dut Higia gurtzen, Asklepio belar-sendagile zaharraren alaba, zeina agertzen baita monumentuetan suge bat duela esku batean, eta katilu bat bestean —batzuetan, hartatik edaten du sugeak—; aitzitik, Heberen zalea nauzue, Jupiterren botilaria bera, Junoren eta uraza basatiren alaba, zeinak ahalmena baitzuen gaztaroko kemena itzultzeko jainkoei eta gizonei. Hura izan zen, ziur aski, lurbiran inoiz ibilitako dama gazte, sasoi beteko, osasuntsu eta sendo bakarra: hura nora joan, hara eramaten zuen udaberria.

---

145 Thomas Parr (1483-1635). Ustez 125 urtez bizi izan zen, eta haren izena jarri zioten bizia luzatzeko pilula batzuei.



# SEI

## BISITARIAK

Uste dut jende gehienak bezainbeste maite dudala konpainian egotea, eta prest nago, prest nagoenez, izain batek bezala heltzeko parean suertatzen zaidan odol beroko edozein gizoni. Ez naiz, berez, ermitau bat, eta espanturik egin gabe eser ninteke tabernako gizasamerik zakarrenaren alboan, nire kontuek horretara bideratuko banindute.

Hiru aulki dauzkat etxean: bat, bakardaderako; bi, adiskidetasunerako; hiru, jendarterako. Hori baino bisitari gehiago etortzen zirenean, eta espero gabe gainera, hirugarren aulkia baino ezin nien eskaini; orokorrean, ordea, zutik geratzen ziren eta horrela moldatzen ginen. Harrigarria da zenbat gizon-emakume bil daitezkeen etxe txiki batean. Inoiz, hogeita bost edo hogeita hamar arima hartu nituen, beren gorputza eta guzti, nire teilatupean aldi berean, eta, hala ere, elkarri agur esatean ez genekien benetan hurbildu ote ginen elkarrengana. Gure etxeetako asko —publikoak zein pribatuak—, etheen barneko apartamentu zenbaezinak, atari erraldoiak eta sotoak —zeinetan gordetzen baita ardoa eta bake-garaiko bestelako munizioa—, izugarri handiak direla iruditzen zait, han bizi direnekin alderatuz gero. Etxeak hain dira zabalak eta itzelak, biztanleek zomorro-izurrite bat dirudite. Heraldok bere deialdia zabaltzen duenean Tremont, Astor, edo Middlesex<sup>146</sup> baten atari aurrean, nire harridurarako, ez da biztanlerik agertzen, soilik sagu irrigarri bat arkupearen

---

146 Boston, New York eta Concordeko hotelak, hurrenez hurren.

gainetik lasterka, eta berehala ezkututzen da galtzadako zulo batetik.

Halako etxe txiki batean bizitzeak ekarri dizkidan eragozpenen artean, gertatu izan zait batzuetan, pentsamendu handiak eta hitz handiak ebakitzen hasita, zaila zela distantzia aski izatea nire bisitariarekiko. Norberaren pentsamenduek tokia izan behar dute, belaontzia ondo kokatzeko eta norabide bat edo bi saiatzeko, dagokien portura iritsi aurretik. Zuen pentsamenduaren balak denbora izan behar du bere atzerapen-indarra berriz bideratzeko eta norabidea entzulearen belarrira iritsi baino lehen egonkortzeko, bestela, baliteke belarri batetik sartu eta bestetik ateratzea. Halaber, gure esaldiek tokia behar dute gartzeko eta beren zutabeak osatzeko tarte horretan. Gizabanakoek, nazioek bezalaxe, muga zabal eta naturalak izan behar dituzte, ganorazkoak, baita eremu neutro puska bat ere haien artean. Luxu bitxi bat da lagun batekin mintzatzea zeu lakuaren alde batean zaudela eta hura, berriz, bestean. Nire etxean hurbilegi geunden, ezin genuen elkar ulertu, ezin genuen hitz egin entzunik izateko bezain baxu, hala nola bi harri jaurtitzen dituzunean ur bareetara: elkarren uhinak oztopatzen dituzte. Berriketa hutsan jardungo bagara, elkarrengandik oso gertu egon gaitezke, masaila masailaren kontra, eta elkarren hatsa aditu, baina zuhur eta pentsakor mintzatuko bagara, urrun egon behar dugu bata bestearrengandik, animalia-berotasuna eta -hezetasuna lurrin daitezzen. Eta gutako bakoitzak truke intimoa izan nahi balu hitzez harrapatu ezin den edo solasaren gainetik dagoen horrekin, isilik geratu behar luke, eta ez hori bakarrik, solaskideen artean al bait distantziarik handiena ezarri behar litzateke, bestearen ahotsa ez entzuteko eran. Irizpide horri dagokionez, mintzoa komenigarria da entzumen-zailtasunak dituztenentzat, baina badira gauza eder ugari garrasika ezin esan daitezkeenak. Solasaldiak tonu jasoago edo solemneago bat hartu ahala, bisitariak eta biok aulkiak urruntzen genituen, arian-arian, elkarrengandik, bakoitza pareta baten aurka egon arte, eta, ordurako, jada ez zen egoten aski leku.

Nolanahi ere, nire gelarik «onena», nire egongela pribatua, beti bisitak jasotzeko gertu neukana eta eguzkiak bertako alfombra sekula higitzen ez zuena, beste bat zen: etxe atzeko pinudia. Udako egunetan, bisitari itzaltsuak etortzen zitzaizkidalarik,

hara eramaten nituen, eta zerbitzari paregabe bat arduratzen zen zorua erraztatzeaz, altzariei hautsa kentzeaz eta dena txukun mantentzeaz.

Bisitariak, batzuetan, nire ohiko jatordu arina partekatzen zuen, modu horretan ez genuen elkarrizketa eteten arto-budin bati eragin behar zitzaiolako edo sutondoan ogi-pusketa baten haztea eta ontzea zaindu behar genuelako. Aldiz, hogeï etortzen baziren, ez zen txintik esaten afariari buruz —nahiz eta agian bazegoen ogi nahikoa pertsona bati edo biri emateko—; bazirudien aspaldiko ohitura zaharkitu bat zela jatea, eta barau egiten genuela denok, natural-natural; egoera hori ez zen inoiz hartu abegiaren aurkako iraintzat, ezpada jokabide egokitzat eta errespetuzkotzat zeharo. Bizi-grina fisikoaren gastua eta gainbehera, hain sarri suspertu behar duguna, mirariz bezala berandutzen zela ematen zuen, eta bizi-sendotasunak berean eusten zion tinko. Modu horretan, hogeï ez, mila bisitari har nitzakeen, eta baten batek, nire etxean nirekin egon ostean, desengainua hartuta edo goseak jota alde egin bazuen, ziur egon daitezela antzeko zerbait sentituko nuela neronek ere. Hori bezain erraza da ohitura berriak eta hobeak ezartzea zaharren ordeztan, nahiz eta etxezain askok zalantzak agertzen dituzten. Zure izen onak ez du zertan egon ematen dituzun afarien mende. Behin batean, afaltzera gonbidatu ninduen gizon batek xehetasun handiz azaldu zidan nolako oturuntza eskerga prestatua zuten niretzat, eta iruditu zitzaidan zeharka eta modu guztiz dotorean iradokitzen ari zitzaidala ez nezala berriz halako estualdian jarri; niri dagokidanez, ez da izan hori baino Zerbero eraginkorragorik norbaiten etxera joateari utz niezaion. Uste dut ez naizela inoiz itzuliko halako egoera batera. Bisitari batek, behinola, Spenser-en<sup>147</sup> lez batzuk idatzi zituen gartzaina-hosto horixka batean, eta harro nago txartel hori erabiltzeaz nire txabolako lema gisa:

«Osorik bete dute etxe txikia, hara iritsirik,  
libertimendurik bilatu gabe, han ez dago-eta halakorik;  
atsedena da beren jaia, eta gogoko dute dena:  
gogorik nobleenari dagokion pozik handiena».<sup>148</sup>

147 Edmund Spenser (1552-1599), ingeles poeta.

148 Spenserren *Maitagarrien erregina* poemako pasarte bat. Ikus aurreko oharra.

Winslow<sup>149</sup> —Plymouth koloniako gobernadorea izan zena gerora— Massasoit-i<sup>150</sup> kortesiazko bisita bat egitera joan zen beste kide batekin, basoa oinez zeharkatuz; nekatuta eta goseak jota iritsi ziren helmugara, eta erregeak ondo baino hobeto hartu zituen arren, egun hartan inork ez zuen txintik esan janariari buruz. Gaua iristean, Winslowren beraren hitzetan esatearren, «ohean etzanarazi gintuen berarekin eta beraren emaztearekin, haiek mutur batean eta gu bestean; ohea, egiaz, ohol batzuk baino ez ziren, lurretik oin batera altxatuak, eta estalki fin bat jarrita gainean. Espaziorik ez zegoenez, bere gizon nagusietako bi jarri zitzaizkigun alboan, baita gainean ere; hortaz, bidaiak baino neke handiagoa eragin zigun ostatuak». Biharamunean, ordu batean, Massasoitek «bi arrain ekarri zituen, berak tirokatuak», bremak baino hiru aldiz handiagoak gutxi gorabehera: «egosi zituzten, eta gutxienez berrogei lagun ginen haiek partekatu behar genituenak. Gehienek jan zuten. Jatordu hori baino ez genuen izan bi gau eta egun batez, eta gu biotako batek eper bat erosi izan ez balu, baraua egingo genukeen bidaia osoan». Beldur zirenez bertigoak izango ote zituzten janari- edo lo-gabeziagatik —«salbaien kantu barbaroak» tarteko, «kantu egiten baitute loak har ditzan»—, gehiago luzatu gabe abiatu ziren bi gizonak, bidaia indartsu egin nahian. Ostatuaz bezainbatean, egia da harriera kaskarra eman zietela; halere, haiei eragozpen bat iruditu zitzairen arren, ohore bat zen, ezbairik gabe, errege-erreginekin batera lo egitea; aldiz, janariari erreparatzen badiogu, uste dut indiarrek beren onena eman zutela. Berek ere ez zeukaten jatekorik, eta barkamena eskatu beharrean —horrek ez baitzuen janari-eskasia ordezkaturiko bisitarien aurrean—, gerrikoa estutu zuten eta ez zuten ezer esan. Winslow bisitan joan zitzairen beste batean, sasoi emankorra baitzen taldearentzat, ez zen urritasunik izan alderdi horretatik.

Gizonei dagokionez, toki guztietan daude. Nire bizitzako beste edozein alditan baino bisitari gehiago jaso nituen basoan bizi nintzenean; bisitari batzuk izan nituen, alegia. Baldintza paregabeetan ezagutu nituen haietako batzuk. Gutxiago etorri ziren ni ikustera kontu arrunten harira, herriarekiko distantziak

---

149 Edward Winslow (1595-1655), *Mayflower* ontziko kolonoetako bat. Haren egunerokoetako pasarteak aipatzen ditu Thoreauk.

150 Wampanoag herriko buruzagia (1580-1661).

egiten zituen-eta galbahe-lanak. Hain urrunera joana nintzen bakardadearen ozeano zabalean, zeinean hutsik egoten baitira gizartearen ibaiak, ezen, gehienetan, nire premiez bezainbat, sedimentu fin-fin bat baizik ez baitzen pilatzen nire inguruan. Gainera, haizeak frogak ekartzen zizkidan beste aldean zetzaten kontinente esploratu gabekoei eta jorratzear zeudenei buruz.

Zein etorriko ote da nire txabolara goiz honetan, ez baldin bada gizon zinez homeriko edo paflagoniar<sup>151</sup> bat —hain zeukan izen egokia eta poetikoa, non pena ematen baitit hemen idatziz ezin jartzeak<sup>152</sup>—, kanadar bat, egurgina eta zutoin-egilea, berrogeita hamar zutoin egin zitzaakeena egun batean, eta azken afarian bere txakurrak ehizaturiko marmota bat jan zuena. Hark ere bazuen Homeroren aditza, eta «liburuengatik ez balitz», ez omen zuen jakingo «zer egin egun euritsuetan», nahiz eta ez zuen liburu oso bat irakurri aspalditik beharbada. Testamentuko bertset batzuk irakurtzen irakatsi zion grekera ahoskatzeko gai zen apaiz batek bere jaioterriko parrokia urrunean, eta, orain, liburuari eskuetan eusten diolarik, neronek itzuli behar dut Akilesek zer esan zion Patroklori, bigarrenaren mutur beltza ikusi otean: «Zergatik ari zara, Patroklo, neskato baten eran negarrez?».

«Ala zerorrek bakarrik adituzu duzu Ftiako mezuren bat?  
Diotenez, Menezio, Aktoren semea, oraindik bizi da,  
eta orobat Peleo, Aezioren semea, mirmidoien artean,  
bietako edozein hil balitz, sakonki deitoratuko genuke».

Kanadarrak dio: «Hori ona da». Haritz zuri baten azalpuska ugari bildu du igande goiz honetan, eta mordo bat eginda daramatza besazpian, gaixo dagoen gizon bati emateko. «Ez dut uste kalterako denik halako zerbaiten bila joatea gaur»,<sup>153</sup> gehitu du. Bere iritziz, idazle handia zen Homero, nahiz eta zeri buruz idazten zuen ez jakin. Zaila litzateke gizon sinpleago eta naturalagorik aurkitzea. Bizioa eta gaixotasuna, munduaren gainean halako kutsu moral iluna eragin arren, ez ziren existitzen berarentzat, itxuraz behintzat. Hogeita zortzi urte inguru zituen, eta Kanadatik eta bere aitaren etxetik alde egin zuen dozena bat urte lehenago Estatu Batuetan lan egiteko, dirua irabazi eta

151 Anatolia iparraldeko baso-eremu baten izen antzinakoa.

152 Alek Therien (1812-1885).

153 *Sabbatha* baitzen: atsedeen-eguna erlijio juduan.

etxalde bat erosteko azkenean, bere jaioterrian akaso. Molde laztetan latz batetik sortua zen: gorputz sendoa, geldoa, graziaz mugitzen zuena halere; lepo trinkoa, eguzkiak errea; ilaje iluna eta begi urdin itzaliak, noiz edo noiz pizten zirenak adierazkor. Txapel zapal gris bat erabiltzen zuen, oihalez egina, artilezko jaka zikin samar bat eta behi-larruzko botak. Okela ugari jaten zuen; normalean, estainuzko ontzi batean eramaten zuen jatekoa, nire etxetik milia pare batera aritzen baitzen lanean, uda osoan egurra moztu eta moztu; okela hotza jaten zuen, sarritan marmotarena, eta kafea, berriz, buztinezko botila batean eramaten zuen, zeina bili-bolo ibiltzen baitzuen gerrikotik zintzilik; batzuetan, trago bat eskaintzen zidan. Goiz etortzen zen, eta babarrun-soroa zeharkatzen zuen lasai, yankiek lanera iristeko izaten duten presarik ez larridurarik gabe. Ez zion kalterik eragiten bere buruari. Ez zitzaion axola justukoa bakarrik irabaztea. Maiz, bere txakurrak marmota bat ehizatzen zuenean, sasi artean uzten zuen afaria, eta milia bat eta erdi egiten zuen atzera, ostatu hartzen zuen etxeraino, marmota prestatzeko eta behar moduan gordetzeko; aurrez, halere, hausnarrean aritzen zen ordu-erdiz, pentsatuz beharbada lakuan gorde zezakeela pieza iluntzera arte; halako gauzen inguruan gogoeta egitearen zalea zen. Goizean pasatzen zenean, hala esaten zuen: «Bai ederrak uso horiek! Ez banu egunero lan egiteko beharrik, nahi adina haragi ehizatuko nukeen: usoak, marmotak, untxiak, eperrak... Jainkoarren! Egun batean eskuratuko nuke aste osorako behar dudana».

Egurgin iaioa zen, eta apaindurak baimentzen zizkion bere buruari. Lurraren arrasean mozten zituen enborrak, berdinduta, etorkizuneko ernamuinak sendoago haz zitezen eta lerak arazorik gabe igaro zitezen motzondoan gainetik; eta zuhaitza bere horretan utzi beharrean, egur-fardoei eusteko, zuritu egiten zuen zutoin lirain bat utzi arte, eskuaren indar hutsez hauts zitekeena.

Interesgarria iruditzen zitzaidan, isila zelako oso, eta bakartia, eta zoriotsua halere; aldarte ona eta irrika jariatzen zitzaizkion begietatik. Puru-purua zen haren poza. Batzuetan lanean ikusten nuen basoan, zuhaitzak botatzen, eta barrez agurtzen ninduen, ezin adierazizko asetasun batekin, hitz batzuk esanez Kanadako frantsesez, nahiz eta ingelesez ere egiten

zuen. Jarduna eteten zuen harengana hurbiltzen nintzenez, eta poza erdizka ezkutatzuz, botatako pinu baten enborrean etzaten zen; zuhaitzari azal-pusketa bat kendu, bola bat egin harekin, eta murtzikatu egiten zuen, barrez eta hizketan. Halako animalia-oparotasun bat zerion gizon hari, batzuetan lurrera erori eta jirabiraka hasten baitzen alde batera eta bestera, barrez lehertu beharrean, pentsamendu atsegin baten kilima sumaturik. Gora begiratzuz, inguruko zuhaitzetara, oihu egiten zuen «Jorgeren ize-nean! Ederki asko moldatzen naiz hemen egur-mozten; ez dut beste entretenimendurik behar». Batzuetan, lanik egin beharrik ez zuenean, basoan igarotzen zuen egun osoa, eta, denbora-pasagisa, salbak tirokatzen zituen tartean behin, bere omenez, poltsiko-pistola batekin. Neguan sua pizten zuen, eta eguerdian hantxe berotzen zuen kafea lapiko batean; gero, enbor baten gainean esertzen zen afaltzera. Zenbaitetan, kaskabeltzak pausatzen zitzaizkion besoetan, eta mokoka egiten zioten hatzetako patata-arrastoetan; orduan, esaten zuen gogoko zuela «aizkolari txikiak edukitzea inguruan».

Gizon-animalia garatu zen nagusiki harengan. Erresistentzia fisikoari eta pozari zegokionez, pinuaren eta harkaitzaren lehengusua zen. Behin galdetu nion ez ote zen nekatuta sentitzen gauean, egun osoz lan egin eta gero, eta honela erantzun zidan, begirakune zintzo eta serioarekin: «Jainko jainkotxoa, ez naiz sekula nekatu bizi osoan». Gizon intelektuala, edo gizon espirituala deitzen zaiona, ordea, lozorroan zegoen bere baitan, haurra nola. Apaiz katolikoek aborigenak hezten dituzten modu inuzente eta alferreko horretan hezi zuten bera ere: ikasleak ez du sekula erdiesten kontzientziaren gradua, soilik konfiantzari eta gorespenari dagokiona, eta, hortaz, haurra ez da gizon bihurtzen; ume geratzen da betirako. Naturak sortu zuenean, gorputz sendo bat eta hari zegokion poza eman zizkion, eta alde guztietatik finkatu zuen, begirunez eta konfiantzaz, haur bat bezala bizitzeko modua izan zezan hirurogeita hamar urtera iritsita ere. Hain zen zinezkoa eta soila, ez baitago hura aurkezteko baliu duen aurkezpenik; auzokideari marmota bat aurkeztu nahi bazenio bezalaxe: hark aurkitu behar luke bere kabuz, zerorrek egin zenuen eran. Ez zuen pertsonaiarik antzetzten. Gizonek soldata bat ordaintzen zioten lanaren truk, eta janaria eta arropa lortzen laguntzen zioten horrela, baina ez zuten harekin iritzirik

trukatzen inoiz. Hain zen sinpleki eta naturalki umila —umila dei badakioke inongo asmorik ez duenari—, umiltasuna ez baitzen bere ezaugarri bereizgarri bat, eta berak ere ez zuen halakorik irudikatzen. Gizon jakintsuagoak erdi-jainkoak iruditzen zitzaizkion. Halakoren bat etortzekoa zela aditzen bazuen, uste izaten zuen kreatura miragarri hark ez zuela inongo loturarik eduki nahi izango berarekin, hark hartuko zuela, aitzitik, egoeraren ardura osoa, eta bazterrean utziko zuela. Ez zuen inoiz aditu laudorioen doinurik. Idazlea eta predikularia gurtzen zituen bereziki. Haien lanak mirarizkotzat jotzen zituen. Azaldu nionean erruz idazten nuela, luzaroan pentsatu izan zuen eskuz idazteko ariketari buruz ari nintzela soilik, berak ere kaligrafia ederra baitzeukan. Batzuetan, bere jaioterriko parrokiaren izena aurkitzen nuen elurraren gainean txukun-txukun idatzirik, errepide-bazterrean, frantses azentua egoki jarrita, eta hala jakiten nuen han izana zela gure gizona. Behin galdetu nion ea bere pentsamenduak idazteko nahirik bazuen. Erantzun zidan gutunak irakurri eta idatzi izan zituela hartarako gauza ez zirenentzat, baina ez zela inoiz ahalegindu bere burutazioak idazten: ez, ezin izango zukeen halakorik egin, ez zuen jakingo zer esan aurrena eta zer ondoren, zigor bat litzateke, eta, gainera, ortografia ere aintzat hartu beharko zukeen aldi berean!

Ospe handiko gizon jakintsu eta erreformatzaile batek galdetu omen zion ea ez zuen nahi mundua alda zedin; berak, berriz, harridura-klaska bat egin zuen, ez baitzekien galdera hori hainbat aldiz galdetu izan zela aurretik, eta azentu kanadarrarekin erantzun zion hala: «Ez, gogoko dut dagoen moduan». Filosofo batek gauza asko ikasiko lituzke harekin tratabidea izanez gero. Ezezagunei iruditzen zitzaien gizon hark ez zekiela ezer gauzei buruz orokorrean; neronek, ordea, inoiz ikusi gabeko gizon bat topatzen nuen harengan batzuetan, eta ez nekien jakintsua ote zen Shakespeareren pare, edo haur bat bezain ezjakina; ez nekien zer uste izan behar nuen gizon hartaz, kontzientzia poetiko fina zuela, edo artaburu hutsa zela. Herriko gizon batek azaldu zidanez, herrian barna ikusten zuenean paseoan, txapel estua buruan eta bere kautan txistuka, printze bat mozorrotua ekartzten omen zion gogora.

Bi liburu zeuzkan: almanaka bat eta aritmetika-liburu bat; azken horretan aditua zen, baiki. Lehena, berriz, nolabaiteko en-



tziklopedia bat zen berarentzat: giza jakinduriaren laburpen bat biltzen zuela uste bide zuen, eta hori egia da hein handi samar batean. Nik maite nuen orduko erreformei buruz galdetzea hari, beti aztertzen baitzituen erarik simple eta praktikoenean. Ez zuen inoiz izan halako gauzen berririk. Bizi zitekeen fabrikarik gabe?, galdetu nion. Esan zidan etxean egindako Vermont txapela eramanean zuela beti, eta ondo zegoela. Molda zitekeen terik eta kaferik gabe? Herrialde honek eskaintzen al du, uraz aparte, beste edaririk? Kanadar tsugaren hostoak blaitzen omen zituen uretan, eta, sargori egiten zuenean, edari hura hobea iruditzen zitzaion ura bera baino. Dirurik gabe molda ote zitekeen galdetu nionean, sosaren komenientziari buruz mintzatu zitzaidan, instituzio horren sorburuaz azaltzen diren esplikaziorik filosofikoenekin bat egiteko eran, eta *pecunia* hitzaren jatorria ere esplikatu zidan. Idi baten jabe balitz, eta orratzak eta haria eskuratu nahi balitu dendan, ez litzaioke komenigarria irudituko animaliaaren puska bat maileguan uztea, aldian aldiko prezioaren trukean —gainera, ezinezkoa bilakatuko litzateke laster asko—. Filosofoak baino trebeago jarduten zen instituzio asko defendatzeko unean, zeren, berari zegozkion heinean deskribatzen zituenez, haien iraupenerako egiazko arrazoiak aletzen baitzituen; espekulazioak ez zion bestelakorik eskaintzen. Bestealdi batean, jakin zuelarik Platonek gizonari buruz esan zuela «lumarik gabeko bipedo bat» zela, eta baten batek oilar lumatu bat aurkeztu zuela, Platonen gizona huraxe zela esanez, desberdintasun aipagarria iruditu zitzaion oilarraren *belauak* alde okerrera tolestuta egotea. Batzuetan, aldarririk egiten zuen: «Maite dut, maite, hitz egitea! Jorgeren izenean, egun osoan aritu ninteke hizketan!». Behin batean, hainbat hilabete igaro nituelarik hura ikusi gabe, galdetu nion ea ideia berririk izan zuen udan. «Jainko maitea», esan zidan, «neronek bezala jardun beharra duen gizonak, badu nahiko lan lehenagotik dituen ideiak ez ahazten. Baliteke zurekin batera aitzur-lanean ari den gizona lehian aritu zalea izatea; orduan, Jainko jainkotxoa, buru-belarri jardun behar duzu, eta belar txarrei bakarrik erreparatu». Halako egoeretan, berak galdetu ohi zidan lehenengo ea hobekuntzarik egina nuen. Neguko egun batean galdetu nion ea bere buruarekin ase sentitzen zen beti, iradoki nahi bainion kanpoko apaiza alda zezala bere barneko ordezkoko batekin, eta bizitzeko arrazoi goragokoren bat izan

zezala. «Ase!», esan zidan, «gizon batzuk gauza batekin asetzen dira, eta beste batzuk beste batekin. Gizon bat, beharbada, nahikoa baldin badauka, ase egongo da egun guztia mahaia-  
ren parean eserita, atzean sutondoa duela, Jainko jainkotxoal!». Alabaina, ez nuen inoiz lortu, nahi adina maniobra eginda ere, gauzei erreparatu ziezaien ikuspegi espiritual batetik; eguneroko aukerak ziren, itxuraz behintzat, irudika zezakeen gauzarik go-  
renena, animaliek egingo luketen bezala, eta, praktikan, halaxe gertatzen da gizon gehienen kasuan. Bere bizimoldea hobetzeko modurik iradokitzen banion, beranduegi zela erantzuten zidan, sinpleki eta damurik erakutsi gabe. Aldiz, buru-belarri sinesten zuen zintzotasunean eta gisako bertuteetan.

Bazuen halako originaltasun bat, txikia izanik ere, eta tar-  
tean behin ohartzen nintzen bere kabuz pentsatzen ziharduela eta bere iritzi propioa adierazten ari zela: fenomeno hori hain da bitxia, hamar miliako bidea egingo bainuke, edozein egune-  
tan, gertutik ikusi ahal izateko; gizarteko instituzio asko errotik berreraikitzea ekarriko luke. Duda-mudatan ibiltzen zen, eta ba-  
tzuetan ez zuen lortzen bere azalpenak argi eta garbi adieraztea, baina beti zeukan taxuzko burutazioren bat atzean. Dena den, bere pentsamendua hain zen primitiboa eta animalia-bizitza-  
ri lotua, non ez baitzen inoiz iristen aipatua izateko gradura, nahiz eta gizon jantziarenak baino etorkizun oparoagoa izan. Bere izateak iradokitzen zidan jeinuak egon zitezkeela beharba-  
da bizitzako gradu beherenetan ere, beren ikuspegiari heltzen ziotenak beti, jende xehea eta analfabetoa izan arren, eta ez zu-  
tenak den-dena ikusteko asmorik: gizon hondogabeak —Walden lakua hondogabea zela uste zen eran—, eta, aldi berean, ilunak eta lokaztuak.



Bidaiari asko atera ziren nor bere bidetik, ni neu eta nire etxearen barnealdea ikustera; baso bete ur eskatzeko aitzakian jotzen zidaten atea. Lakutik edaten nuela erantzuten nien, eta harantz seinalatzen nuen hatzarekin, burruntzalia eskaintzeaz batera. Urrun bizi nintzen arren, ez nengoen salbuetsirik urte-  
roko bisita horretatik, zeina apirilaren lehenengoaren inguruan gertatzen dela uste baitut; sasoi horretan jende guztia dabil batetik bestera, eta zorte handia izan nuen egia esan, nahiz

eta bisitari batzuk bitxiak ziren, bitxiak zirenez. Adimen urriko gizon batzuk etorri zitzaizkidan, asiloan eta halakoetan bizi zirenak, baina ahalegindu nintzen haien adimenari ahal bezainbat zuku ateratzen, beren kontuak konta ziezazkidaten; maiz, haien adimena bihurtu zen hizketa-gai; kontentu nintzen, beraz. Are gehiago, batzuetan iruditu zitzaidan haietako batzuk jakintsuagoak zirela pobreen ikuskatzaileak eta udaleko ordezkariak baino, eta pentsatu nuen bazela garaia postuak truka zitzaaten. Adimenari dagokionez, ikasi nuen ez dagoela alde handirik adimen urriaren eta adimen osoaren artean. Egun batean, zehazki, gizagaixo kaltegabe eta laño bat etorri zitzaidan bisitan —gizon hura, beste batzuekin batera, hesi moduan erabiltzen zutela ikusia nuen, sasitzan eseraraziz edo zutik ipiniz, ganadua eta gizona bera desbideratzea eragozteko—, eta adierazi zidan ni bezala bizi nahi zuela. Azaldu zidan, erabateko sinpletasunarekin eta guztiz egiati —*umiltasun* deitzen zaion edozer gauza baino goragokoa, edo, hobeto esanda, *beheragokoa*, den zerbaitekin— «gutxiagotasun intelektuala» zuela. Hitz horiexek erabili zituen. Halaxe sortu zuen Jaunak; dena den, gizonak uste zuen Jauna berarekin arduratzen zela beste edozeinekin bezainbeste. «Horrelakoa izan naiz betidanik», esan zuen, «haurra nintzenetik. Ez dut inoiz izan adimen handirik, ez nintzen beste umeak bezalakoa, buru ahula dut. Hori zen Jainkoaren nahia, nik uste». Eta hantxe zegoen bera, bere hitzen egiazkotasunaren froga. Enigma metafisiko bat zen niretzat. Gutxitan ezagutu dut lagun hurko bat halako egoera esperantzagarrian: esaten zuen guztia zen erabat simplea, zintzoa eta egiazkoa. Eta, baiki, beheratzen zuen neurri berean goratzen zuen bere burua.<sup>154</sup> Hasieran ez nekien arren, portaera jakintsu baten emaitza zen hura. Bazirudien, buru ahuleko txiro gizagaixoak ezarritako egia- eta zintzotasunoinarritik abiatuta, jakintsuen arteko harremanak baino zerbait hobea bihurtzeraino gara zitekeela geure harremana.

Izan nituen beste gonbidatu batzuk normalean herriko behartsutzat hartzen ez direnak, baina halakotzat hartuak izan behar luketenak; munduko txiroak dira, behinik behin. Halako gonbidatuek ez dute zure abegia bilatzen, zure karitatea baizik:

---

154 Mateo 23: 12 bertsetari erreferentzia: «Bere burua goratzen duena, beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena, goratu».

laguntza eskatzen dute gogotik, eta, eskaeraren aurretik, argi uzten dizute deliberaturik daudela, zeharo, berek beren buruari laguntzarik ez ematera sekula. Gonbidatuari eskatzen diot ez dadila goseak akabatzen etorri, munduko apetiturik ederrena badauka ere, eta horren jatorria edozein izanda ere. Karitatea eskaintzen badiogu, ez da gure gonbidatua. Gizon batzuk ez ziren ohartzen bisita amaitu zela, nahiz eta neronek neure kontuei ekin berriro, eta haien galderei gero eta urrunagotik erantzun. Adimen-gradu ia guztietako gizonak etorri zitzaizkidan migrazio-garaian. Batzuek adimen gehiegi zeukaten gauza onerako. Ihes egindako esklaboak, adibidez, plantazioko manerei eutsiz oraindik, adi-adi jartzen ziren tarteka, fabulako azeria nola, atzetik zetozkien txakurren zaunkak sumatuz-edo, eta erreguz begiratzen zidaten, esan nahi balidate bezala:

«Oh, kristaua, hara bidaliko nauzu berriz?». <sup>155</sup>

Laguntza eskaini nien zenbait esklabo iheslari egiazkori, bati bereziki, iparrizarrera bidean zihoala. Gizon batzuek ideia bakarra zuten, kume bakarra daukan oiloa nola —azkeanean, gainera, ahate-kume bat dela deskubrituko du, esaerak dioen moduan—; beste batzuek, berriz, milaka ideia zituzten, ehunka oilo gobernatu behar dituen oilo-amak nola, eta denak zebiltzan zomorro beraren atzetik; goizeko ihintzean galtzen ziren haietako hogeitak, eta narrastuta eta kirioak jota bukatzen zuten horrenbestez; zenbait gizonak ideiak zituzten hanken ordez, ehunzango intelektuaren tankeran, eta herrestan ibiltzera behartzen zintuzten. Gizon batek proposatu zidan bisitarien beren izenak idaztea liburu batean, Mendi Zurietan egiten den bezalaxe, <sup>156</sup> baina, hara non, nire memoria onegia zen, eta ez neukan halakoren premiarik.

Halabeharrez jabetu nintzen bisitarien berezitasun batzuez. Neskatoak, mutikoak eta emakume gazteak, oro har, pozik egoten ziren basoan. Lakuari eta loreei erreparatu eta uneaz gozatzen zuten. Negozio-gizonek, baita nekazariak ere, gauza bakarra zerabilten buruan: nire bakardadea eta nire lana, eta zer

---

155 «The Fugitive Slave to the Christian» poemako pasartea. Egilea: Elizur Wright (1804-1885), AEBko matematikari eta abolizionista.

156 Hain zuzen ere, Washington mendiaren gailurrean (Mendi Zuriak, New Hampshire) halakoxe liburu bat dago 1824. urtetik.

urruti nengoen, halaber, honako honetatik edo harako hartatik; basoan barna alderrai ibiltzea gustatzen zitzaizela esaten zuten arren, agerikoa zen ez zela hala. Gizon saiatu nekaezinak, bizibidea lortzeari edo mantentzeari eskaintzen zioten beren denbora guztia; apaizak, Jainkoaz mintzatzen ziren gaiaren gaineko monopolioaren jabe balira bezala, bestelako iritzirik onartu ezinik; medikuak, abokatuak eta etxeoandre urduriak, kuxkuxean ibiltzen ziren nire armailuari eta oheari begira kanpoan nengoen —bestela, nolatan jakin zuen X. andreak nire maindireak ez zeudela bereak bezain garbi?—; gizon gazteak, gazte izateari utzi eta ebatzi zuten lanbideen bide higatuari jarraitzea zela segurua; halakoek, orokorrean, esaten zuten ez zela posible on handirik egitea nire egoeran. Ai! Horra hor, bai, koska. Zaharrek, eriek eta herabeek, edozein zelarik ere beren adina eta sexua, kezkabide bakarra zuten: gaixotasuna, ustekabeko istripuak eta heriotza. Haien ikuspegitik, arriskuz josirik zegoen bizitza —zer arrisku egongo da, bada, ez baduzu horretaz pentsatzen?—, eta uste zuten, gizon zuhur batek, tentu handiz hautatuko zuela egoerarik segurua, B. doktorea eskura izateko moduan larrialdi batean. Haientzat, herria *komunitate* bat zen literalki, elkar defendatzeko liga bat, eta pentsatzekoa da ez lirakeela masta bila joango botika-kutxa aldean hartu gabe. Horrek, azken finean, esan nahi du, gizon bat bizirik baldin badago, hiltzeko *arriskua* duela beti, nahiz eta arriskua gero eta txikiagoa izango den, hilik balego bezala jarduten duen heinean. Gizonak zenbat arrisku hartu, beste hainbeste pairatuko ditu. Azkenik, baziren ustezko erreformatzaileak ere, bisitari denetan aspergarrienak, zeinek uste baitzuten kantuan igarotzen nuela egun osoa, eta hau abesten nuela:

«Hauxe da eraiki dudana etxea,  
hauxe da eraiki dudana bizitza den gizona».

Nolanahi ere, ez zuten ezagutzen hurrengo estrofa:

«Hauexek dira eraiki dudana etxean  
bizitza den gizona larritzen duten pertsonak.<sup>157</sup>»

---

157 Haur-kanta baten parodia: «Hauxe da Jackek eraiki zuen etxea».

Ez ninduten izutzen oiloen ehizan ibiltzen diren belatzek, gizonen ehizan dabiltzanek baizik.

Bisitari alaiagoak izan nituen halaber. Haurrak etortzen ziren masusta bila; trenbideko langileak, berriz, paseo bat ematera ateratzen ziren igande goizetan, alkandora garbiak soinean, eta orobat hurbiltzen ziren arrantzaleak eta ehiztariak, poetak eta filosofoak; laburbilduz, prestu agurtzen nituen erromes zintzo guztiak, basora etortzen zirenak askatasunaren amoreagatik eta herria atzean utzita egiaz, eta esaten nien, «Ongietorri, ingelesak! Ongietorri, ingelesak!»,<sup>158</sup> arraza horrekiko tratua izana bainuen lehenago ere.

---

158 Abenaki herriko Samoset buruzagiak (1590-1653) halaxe agurtu omen zituen Plymoutheko separatistak.

# ZAZPI

## BABARRUN-SOROA

Bien bitartean aitzurtzeko gertu zeuden nire babarrunak —ordurako 7 milia landatuak nituen, ilara guztiak batuta—, goiztiarrenak franko hazi baitziren azkenak erein aurretik ere; hots, ez zen erraza izango eginkizuna geroratzea. Zein ote zen zeregin herkulestar txiki guztiz duin eta tinko haren esanahia, hori ez nekien. Azkenerako, ordea, nire babarrunak maitatzera iritsi nintzen, behar baino askoz gehiago ziren arren. Lurrera lotzen ninduten, eta hortaz indartu egin nintzen Anteo<sup>159</sup> bezalaxe. Baina zergatik hazi behar nituen, bada? Zeruak baino ez daki. Huraxe izan zen nire betebeharrak bitxia uda osoan: lurraren azaleraren puska hartan, ordura arte bostorriak, ahabiak, berbena-belarrak eta antzekoak baizik loratu ez ziren lekuan —fruitu gozoak eta lore atseginak—, lekaleak ateratzea. Zer ikasiko dut babarrunetatik, edo haiek nigandik? Zaintzen ditut, aitzurtzen, begiratu bat ematen diet goizean eta gauean, eta horixe dut eguneko lana. Hosto fin eta ederrak dituzte. Eginkizun honetan badituzte lagun-tzaile batzuk, euria eta ihintza: lur lehor hau ureztatzen dute, bai eta lurrean berean datzan emankortasuna ere, zoru eskasa eta antzua baita neurri handi batean. Badut, halaber, etsairik: zizareak, egun freskoak, eta marmotak oren gainetik. Azken horiek akre-laurden bat karraskatu didate osorik. Zer eskubide daukat nik, baina, berbena-belarra eta enparauak kanporatzeko, eta beren antzinako lorategia apurtzeko? Nolanahi ere, sorotan

---

159 Greziar mitologian, erraldoi bat zen Anteo; lurra —bere ama— ukituz indartzen zen.

geratutako babarrunak gogorregiak dira marmotentzat, eta are-  
rio berrien bila abiatu behar izan dute.

Lau urte nituenean, ondo baino hobeto gogoratzen naize-  
nez, Bostonetik ekarri ninduten nire jaioterri honetara, baso eta  
zelai hauxe bera zeharkatuz, lakuraino. Memorian estanpaturik  
daukadan oroitzapenik zaharrenetako bat da. Eta, orain, gau ho-  
netan, ur beraren gainean sortu ditu oihartzunak nire flautak.  
Hemen segitzen dute pinuek, ni baino zaharragoak dira, eta, jau-  
si direnei dagokionez, afaria berotu dut haien motzondoekin, eta  
kimu berriak sortzen hasi dira inguru osoan, ikuspegi berri bat  
erakutsiko diote umeen begiei. Larrean berbena-belar ia berbera  
hazten da sustrai iraunkor batetik, eta neronek ere lagundu dut  
nire haurtzaroko ametsetako paisaia miragarria apaintzen: nire  
presentziaren eta eraginaren emaitzetako bat dira babarrun-  
hostoak, arto-orriak eta patata-zurtoinak.

Gutxi gorabehera bi akre eta erdi erein nuen goi-lurretan,  
eta nola hamabost urte baino ez ziren igaro lurra garbitu zute-  
netik, eta nola neronek kendu nituen bizpahiru motzondo-sorta,  
ez nuen ongarririk jarri; udak aurrera egin ahala, ordea, gezi-  
buruak agertzen hasi ziren zorua aitzurtzen nuelarik, erakutsiz  
nazio desagertu bat bizi izan zela antzina inguru honetan, eta ar-  
toa eta babarrunak hazi zituztela gizon zuria iritsi eta hark lurra  
garbitu baino lehen; horren ondorioz, hein handi batean, zorua  
agortua zegoen uztarako.

Marmotek edo katagorriek bidea gurutzatu aurretik,  
eguzkia altxatu baino lehen haritz-zuhaixken gainetik, ihintzak  
bere horretan zirauelarik —beste nekazariak ohartarazi zida-  
ten hala ez jarduteko, baina nik gomendatuko nizueke ihintzak  
bere horretan dirauenean lan egiteko ahal duzuen neurrian—,  
babarrun-soroko belar txarren armadak eraisteari ekin nion,  
eta hautsa bota nuen beren buruen gainean. Oinutsik lan egi-  
ten nuen goizean goiz, artista plastiko baten gisan jarduten  
nintzen lur ihintzeztatu eta bigunean; egunak aurrera egin  
arau, ordea, puslak ateratzen zitzaizkidan oinetan eguzkiaren  
poderioz. Argitzen ninduen eguzkiak aitzurtzeko garaian, aurre-  
ra-atzera ibiltzen zen mantso, goi-lur harritsu eta hori hartan,  
hamabost kanako ilara berdeen artean; ilaren mutur bat haritz-  
zuhaixken baso baten alboan amaitzen zen, zeinaren gerizpean  
hartzten bainuen atsedean; beste muturra, berriz, ahabia-zelai



batean: hango ale berdeak iluntzen-iluntzen joaten ziren nik buelta bat egin aldiro. Belar txarrak kentzea, lur berria jartzea babarrun-sustraien inguruan eta neronek ereindako labore hura hauspotzea; adieraz zitzala lur horiak bere udarako pentsakizunak babarrun-hostoen eta -loreen bidez, eta ez ahamendaren, askimotzaren edo artatxikiaren bidez, eman zitzala belarren ordeztu babarrunak: horra nire eguneroko lana. Zeregin horretan ez nuenez zaldien ez idien laguntzarik, ez nuenez kontratatu morroi gazterik ez heldurik, ez eta inongo nekazaritza-erreminta aurreraturik eskuratu ere, askoz polikiago jarduten nintzen, eta ohi baino harreman estuagoa eraiki nuen babarrunetik. Nolanahi ere, ziur aski esku-lana ez da alferkeria-molderik okerrena, norbera akitu arte aritzen bada ere. Halako ikaskizun moral fermu eta hilezkor bat badu bere baitan, eta emaitza klasiko bat dakarkio ikastunari. Lincolnetik eta Wayland-etik abiatuta men-debalderantz auskalo nora zihoazen bidaiariei iruditzen zitzaien *agricola laboriosus*<sup>160</sup> erabateko bat nintzela: haiek eroso zeuden beren zalgurdietan, ukondoak belaunetan eta bridak laxoki zintzilik, girdanden antzera; neu, ordea, lur honetako natibo saiatu eta sedentarioa nintzen. Baina laster asko ezkututzen zen nire etxea haien ikusmen-eremutik eta pentsamendutik. Errepidearen alde batean zein bestean ez zegoen beste sororik aire librean distantzia handi batean, beraz etekina ateratzen zioten ikuskizunari, eta batzuetan baratzean lanean zebilen gizonak haien txutxu-mutxuak eta iruzkinak aditzen zituen, bere belarriei ez zegozkienak: «Babarrunak hain berandu! Ilarrak hain berandu!» zioten, haziak ereiten segitzen bainuen beste batzuk aitzur-lanean hasiak ziren arren, eta apaiz nekazariak<sup>161</sup> ez zuen horren arrastorik. «Artoa, seme, bazkarako baliatu behar zenuke, artoa bazkarako». «Hor bizi al da?», galdetu zuen jaka grisa eta txapel beltza zeramatzanak; aurpegiera lakarreko nekazariak, berriz, tira egiten zien bere zaldi esker onekoaren bridei, eta galdetzen zizun ea zertan ari zinen, ildoetan ez baitzegoen ongarririk, eta gomendatzen zizun txirbil batzuk botatzeko, edo beste edozein hondakin, errautsak edo igeltsua. Baina hemen bi akre eta erdi ildo besterik ez zegoen, eta aitzur bat eta bi esku gurdiaren lanak

160 Latinez, nekazari lanazalea.

161 Henry Coleman (1785-1849). Lau txosten idatzi zituen, famatuak, Massachusettseko nekazaritza buruz; 1838tik 1841era bitarte argitaratu ziren.

egiteko —gorrotoa baitzitzaion bestelako gurdiei eta zaldiei— eta errautsak urrun zeuden oso. Alde egiteko orduan, bidean ikusitako lursailekin alderatzen zuten bidaiariek nire baratzetxo, ozenki alderatu ere, eta nekazaritzaren munduan non kokatzen nintzen jakin nuen horrela. Nire larrea ez zen agertzen Coleman jaunaren txostenean. Eta, bide batez, zeinek baloratzen du gizonak hobetu gabeko eremu are basatiagoetan naturak ematen duen laborea? Sarale *ingelesaren* uzta tentu handiz pisatzen da, hezetasuna kalkulatzen, silikatoak eta potasioa neurtzen, baina basoetako, larreetako eta zingiretako haran eta aintzira guztiguztietan hazten da uzta aberats eta era askotako bat, gizonak biltzen ez duena. Nire lursaila, nolabait esatearren, lursail basatien eta landuen arteko katebegia zen; nola diren estatu batzuk zibilizatuak, beste batzuk erdi-zibilizatuak, eta beste batzuk salbaiak edo barbaroak; bada, nire lursaila, eta ez diot zentzu txarrean, erdizka landutako eremu bat zen. Neronek landatzen nituen babarrunak alegeraki itzultzen ziren beren egoera basati eta primitibora, eta nire aitzurrak *Ranz des Vaches*<sup>162</sup> doinua jotzen zuen haientzat.

Handik hurbil, urki baten puntaren puntan jarrita, kantuan aritzen da birigarro marroia —edo birigarro txikia, batzuek hala deitzen diote-eta—, goiz osoan aritu ere, gure konpainian egoteagatik loriatuta; zure lursaila hemen ez balego, beste nekazariren batena aurkituko luke. Haziak landatzen diharduzun bitartean, oihuka aritzen da: «Utzi ezak, utzi ezak, utzi ezak; estali ezak, estali ezak, estali ezak; atera ezak, atera ezak, atera ezak». Baina hau ez da artoa, salbu gaude birigarroaren tanke-rako etsaietatik. Agian galdetuko duzue ea zer duen ikustekorik txoriaren astrapaladak, soka batekin zein hogeirekin eskaintzen duen Paganini erakustaldi amateurrak, ereitearekin berarekin, baina hobea da lurrarentzat errautsak edo igeltsua baino. Ongarri-mota merke bat zen, zeinean sinesten bainuen fede osoz.

Babarrun-ilarak aitzurraz luberritu ahala, kroniketan agertzen ez diren nazioen errautsak gogaitzen nituen, hastapenetako garaietan zeruon pean bizi izan ziren nazioenak alegia, eta egun modernoaren argitara ekartzen nituen haien gudu-tresnak eta

---

162 Esne-behiei dei egiteko abesti suitzarra, eta *Gilen Tell* operako oberturaren balizko aipamen ironikoa. Guiachino Rossini-ren (1792-1868) opera bat da, Friedrich Schiller-en (1759-1805) testuetan oinarritua.

ehiza-erremintak. Beste harri natural batzuekin nahasian ager-  
tzen ziren: zenbait harrik indiar suetan erre izanaren aztarnak  
zituzten, beste zenbaitek, ordea, eguzkiaren markak ageri zituz-  
ten, eta orobat azaleratzen ziren zeramika- eta beira-zatitxoak,  
lurra berriki landu dutenek ekarriak. Harriak jotzen nituenean  
aitzurrarekin, musikak oihartzun egiten zuen basora eta zerura,  
eta nire lanean laguntzen zidan uzta berehalako eta neurtezin  
bat emanez. Kontua ez zen babarrunak jorratzea, edo nik neuk  
aitzurrari eragitea, eta gupida adina harrotasunez oroitu nituen,  
baldin eta oroitzeko gai banintzen benetan, hirira oratorioak en-  
tzutera joanak ziren lagunak. Zata amerikarra jirabiraka ibiltzen  
zen nire buruaren gainean eguerdi eguzkitsuetan —eta horrek  
bakarrik nire egunak merezi izatea eragiten zuen—, ale bat zi-  
rudien inoren begian, ale bat zeruaren begian; tartean behin  
beherantz amiltzen zen, eta, soinuagatik, bazirudien zerua urra-  
tu zuela, goitik behera tarratatu, bobedak, ordea bere horretan  
eusten zion, josturen beharrik gabe; hegazti hauek iratxo txikien  
antzekoak dira, airea betetzen dute eta beren arrautzak ezku-  
tatzen dituzte harean edo muino-tontorretako arroketan, izaki  
gutzik topatzeko eran; dotoreak dira, lirainak, lakuko uhinak  
nola, haizeak hegaldarazten dituen hostoak nola: halakoxea da  
Naturan dagoen senidetza. Olatuen airezko anaia da zata, haien  
gainetik hegaldatzen da eta zelatatzen ditu, bere hego perfektu  
eta airez puztuek bat egiten dute itsasoaren aleroi oinarrizko eta  
lumagabeekin. Beste batzuetan, aldiz, belatz-pare bat ikusten  
nuen zeruan zirkuluak eginez, noiz gorantz altxatuz noiz behe-  
rantz abiatuz, noiz elkarrengana hurbilduz noiz elkarrengandik  
urrunduz, neure pentsamendua gorpuzten ari balira bezala. Eta  
beste batzuetan uso basatien pasaerak erakartzen zuen nire  
arreta, baso batetik bestera zihoazelarik soinu dardarati bat  
sortuz eta mezulariaren adinako presarekin; baliteke, halaber,  
motzondo ustel baten azpian arrabio lokartu, miragarri eta mar-  
ka exotikoekiko bat aurkitzea nire aitzurrarekin, Egiptoren eta  
Niloren arrastoak gogoratu arren gure garaikidea zena halere.  
Gelditzen nintzen, aitzurreetan bermatu, eta soinu eta ikusmira  
ugari haiei erreparatzen nien; horra hor landa-eremuak eskain-  
tzen duen entretenimendu agorrezinaren puska bat.

Jaiegunetan kanoi-tiroak jotzen dituzte herrian, jostailuz-  
ko pistolen oihartzuna sortzen dute baso honetan, eta batzuetan

honaino iristen dira halaber musika martzialaren akordeak. Babarrun-soroan nengoelarik, herriaren beste muturrean, kanoi handien soinua adituta ematen zuen astaputz bat lehertu zela, eta entrenamendu militarren bat izaten zenean, niretzat ezezaguna, batzuetan halako sentipen lauso batek hartzen ninduen egun osoan, nolabaiteko azkura bat nabaritzen nuen, gaixotasun baten aierua, bazirudien erupzio bat aterako zitzaidalara aurrki, eskarlatina beharbada, edo ultzeraren bat bestela, harik eta azkenean haize-ufada atsegin batek, zelaiak presaka zeharkatuz Waylandeko bidean gora, «entrenatzaileen»<sup>163</sup> berri ematen zidan arte. Urruneko burrunba entzunda bazirudien erle-talde batek ihes egin zuela eta auzokideek, Virgilioren aholkuari men eginez, *tintinnabulum*<sup>164</sup> apal bat sortu zutela etxean zeuzkaten tresnarik ozenenekin, erleak berriro ere erlauntzara erakartzeko ahaleginean. Soinua ahitzen zenean, durundarik ez zenean aditzen, eta brisarik gozoenek ez zekartenean berririk, une horretan banekien erlamando guzti-guztiak itzuliak zirela Middlesexeko erlauntzara, eta erlauntza inguratzen zuen ezitia beste kezkarik ez zutela orain.

Harro sentitu nintzen ikusirik Massachusettseko eta gure aberriko askatasunak halako irmotasunez zaintzen zirela, eta berriro ere ekin niolarik aitzur-lanari, konfiantza adierazezin batek hartu ninduen osoki, eta nire zereginari lotu nintzaion alai, etorkizunarekiko fidantzia bare baten jabe.

Musika-banda bat baino gehiago elkartzen zirenean, bazirudien hauspo erraldoi bat zela herria, eta eraikin guztiak aldian itxi eta aldian zabaldu egiten zirela harrabotsarekin. Batzuetan, ordea, konpas egiazki noble eta inspiraziozko bat heltzen zen batora, fama-aldarrien tronpeta-hotsa adibidez, eta sentitzen nuen mexikar bati listua bota niezaiokeela gogotik —zergatik ibili behar ote dugu beti huskeriekin bueltaka?—; hala, ingurura begiratzen nuen marmota edo mofeta baten gainean gauzatzeko nire kemen itzela.<sup>165</sup> Palestina bezain urrunak iruditzen zitzaizkidan

---

163 Concordeko artilleriako kideak, estatu-mailako milizia-unitatea.

164 Kanpai-hotsa. Erreferentzia gertukoena Virgilio poeta latinoaren lanari dagokio (K.a. 70 - K.a. 19): *Georgikak* lanean *Tinnitusque* aipatzen du, zinbalen hotsa.

165 Pasarte honetan, Thoreauk bere herrialdeko abertzaletasuna kritikatzan du, Mexiko eta AEBren artean 1846tik 1848ra gertatu zen gerraren harira. Gatazka bidegabeari iruditzen zitzaion, AEBren hedatze-politikaren kontra agertu zen eta mexikarrak aldeztu zituen.

doinu martzialak, eta gogora ekartzen zidaten gurutzatuen mar-txa bat zerumugan, hiriko eraikinak baino zertxobait altuagoak ziren zumarren bulkada apal eta mugimendu dardaratiarekin. Egun *handietako* bat omen zen hura, nahiz eta, nire argiunetik be-giratuta, zeruak bere betiko itxura eternal eta ederra erakusten zuen, eta nik ez nuen alderik igartzen.

Gauza bitxia izan zen babarrunekiko eraiki nuen harre-man luzea: landatu egin nituen, jorratu, bildu, eultzitu eta saldu —horixe izan zen denetan zailena—, bai eta jan ere, dastatu egin bainituen, noski. Deliberatuta nengoen babarrunak ezagutzera. Hazten ari zirenean, jorratze-lanean jarduten nintzen goizeko bostetatik hasi eta eguerdira arte; hortik aurrera beste zeregin batzuei heltzen nien normalean. Azter dezagun zer-nolako ha-rreman intimo eta bitxia sortzen duen batek hainbat erataka belarrekin —kontakizuna errepikakorra da, lana bera errepika-korra delako neurri handi batean—: gupidarik gabe eragozten dugu beren antolaketa delikatua, eta bereizketa gaitzesgarriak egiten ditugu aitzurrarekin, espezie baten armada osoak sun-tsitzen ditugu, eta beste batzuk maratz-maratz hazten. Horra ahamenda, horra amarantoa, horra mingarratza, horra askimo-tza; har itzazue, moztu, ipini sustraiak gorantz, eguzkiari begira, ez dadila zuntz bat bera ere geratu itzalpean, hala gertatuz gero alderantzikatu egingo baita eta porrua bezain berdea bihurtuko baita bi egunetan. Gerra luze bat da, ez kurriloen kontra ezpada belarren aurka: eguzkiak, euriak eta ihintzak aldeztutako troia-rrak. Egunero iristen nintzen babarrun-sorora haiek salbatzera, aitzurra zen nire arma, haien etsaien ilarak maizteko prest, eta belar txar hilez betetzen ziren lubakiak. Makina bat Hektor bu-ru-harro,<sup>166</sup> bere inguruan pilatutako kideen gainetik zutituak, eraitsi nuen, eta hautsera itzularazi.

Nire kideetako batzuk Bostonen edo Erroman igarotzen zituzten udako egun haiek, arte ederrei guztiz emanik; beste ba-tzuek, ordea, meditazioa lantzen zuten Indian, eta beste batzuek merkataritzan ziharduten Londresen edo New Yorken; neronek, bada, Ingalaterra Berriko beste nekazariak bezala, laborantzari eskaintzen nizkion egunak. Ez nuen babarrunik jan nahi, pitago-

---

166 Mitologia greziarrean, Priamo eta Hekuba Troiako errege-erreginen semea, eta Troiako gerlaririk ausartena.

rikoa bainaiz funtsean babarrunei dagokionez behintzat,<sup>167</sup> eta berdin zait bazkarirako diren edo bozketarako,<sup>168</sup> hori dela-eta, arrozaren truke aldatzen nituen, baina, menturaz, norbaitek aritu behar du lanean soroetan, tropoen eta adierazpideen mesedetan besterik ez bada, parabola-egileari baliagarria suerta dakion egunen batean. Oro har, entretenimendu bitxi bat izan zen, gehiegi luzatuz gero libertinajearen traza hartuko lukeena. Nahiz eta ez nien eman ongarririk, eta ez nituen denak batean jorratu, ederki jorratu nituen azkenean ere, eta ordaina jaso nuen, zeren, Evelynek dioen moduan, «ez dago ongarririk lurra aitzurrarekin lantzearen etengabeko mugimenduarekin eta iraultzearekin aldera daitekeenik». Eta hau gehitu zuen: «Lurrak, batez ere berria denean, badu nolabaiteko magnetismo bat, zeinaren bitartez erakartzen baitu bizia ematen duen gatza, boterea edo bertutea (nahi bezala deitu), eta horixe da lurra lantzeko eta lurrari eragiteko daukagun motiboa, mantentzen gaitzan; simaurra eta bestelako prozedura likitsak ez dira hobekuntza honen ordezkotzat laguntzaileak baino».<sup>169</sup> Are gehiago kontuan harturik «beren sabbat-egunaz gozatzen ari diren lur-eremu ahitu eta agor» horietako bat dela hau, akaso lortuko zuen aireko «bizi-espirtuak» erakartzea, Sir Kenelm Digby-k<sup>170</sup> zuhurki uste duen bezala. Dozena bat babarrun-neurriko uzta bildu nuen.

Izan nadin zehatzagoa, kexak aditu baititut esanez Coleman jaunak nekazari-jauntxoek esperimendu garestien berri eman duela nagusiki; hona hemen, beraz, zeintzuk izan ziren nire gastuak:

Aitzur baten truke	0,54 \$
Goldatzea, eultzitzea eta ildoak egitea	7,50 \$ (gehiegi)
Babarrun-haziak	3,12 ½ \$
Patatak, ereiteko	1,33 \$
Ilar-haziak	0,40 \$
Arbi-haziak	0,06 \$
Soka zuri bat, beleetatik babesteko	0,02 \$

167 Babarrunik ez jateko agindu zien Pitagorasek bere ikasleei, Thoreauk jaten zituen hala ere.

168 Garai hartan, botoak zenbatzeko ere erabiltzen ziren babarrun-aleak.

169 Iturria: *Terra, a Philosophical Discourse on Earth* (1676), John Evelyn Ingalaterrako idazle eta baratzezainarena (ikus, halaber, 9. oharra).

170 Ingalaterrako fisikaria eta naturalista (1603-1665).

Zaldia eta morroi gaztea, hiru ordurako	1,00 \$
Zaldia eta gurdia, uzta biltzeko	0,75 \$
Guztira	14,72 ½ \$
Dirua ( <i>Patrem familias vendacem, non emacem esse oportet</i> <sup>171</sup> ) iturri haue- tatik bildu nuen:	
Lau neurri eta hamabi laurden babarrun saldu nituen	16,94 \$
Bost neurri patata handi	2,50 \$
Bederatzi neurri patata txiki	2,25 \$
Belarra	1,00 \$
Txortanak	0,75 \$
Guztira	23,44 \$
Irabazi ekonomikoa (beste toki batean adierazi dudana bezala)	8,71 ½ \$

Hauxe izan da babarrunak hazten izan dudana esperien-  
tziaren emaitza. Landatu babarrun zurien zuhaixka txiki arrunta  
ekainaren lehenean gutxi gorabehera, ilaren artean hiru oin eta  
hemezortzi hazbeteko tartea utziz; hautatu haziak tentu han-  
diz, izan daitezela freskoak, biribilak eta nahastu gabeak. Kendu  
lehenik zizareak, ondoren erein haziak hutsuneetan. Lekua aire  
zabalean badago, kontuz ibili marmotekin, lehendabiziko hosto  
samurrak marraskatuko baitituzte errotik; hosto-kiribilak agertu  
bezain pronto ohartu, bertan eseri eta dena jango dute, hosto-  
zorro zein ernamuin, tente-tente jarrita katagorrien antzera.  
Oroz gainetik, bildu uzta albait azkarren, izotzari ihes egiteko eta  
uzta salgarri eder bat edukitzeko; modu horretan galera handiak  
aurreztuko dituzu.

Bestelako esperientzia-mota bat lortu nuen halaber. Neu-  
re buruari esan nion: hurrengo uda batean ez ditut babarrunak  
eta artoa landatuko hain buru-belarri, bestelako haziak baizik,  
baldin eta ez badira guztiz galdu; landatuko ditut zintzotasuna,  
egia, sinpletasuna, fedea, inozentzia eta antzekoak, eta ikusiko  
dut ea hazten diren lur honetan, arreta eta ongari are gutxiago  
emanda ere, eta ea mantentzen nauten, gauza ziurra baita lur  
hau ez dagoela agortuta era horretako haziei dagokionez. Hori-  
xe!, pentsatu nuen; baina pasa da beste uda bat, eta beste bat,  
eta beste bat, eta esan behar dizut, Irakurle, ezen landatu nituen  
haziak, baldin eta bertute horien guztien haziak *baziren* be-

---

171 «Patroiari komeni zaio saltzailea izatea eta ez eroslea». Iturria: *De Agri Cultura*, Marko Portzio Katon. Ikus 61. oharra.

netan, zizareen bazka bihurtu zirela eta galdu dutela beren bizitasuna: ez dira altxatu, beraz. Gizonak, normalean, beren aiten ausardiaren edo koldarkeriaren arabera izango dira ausartak edo koldarrak. Belaunaldi honek segurtasun handiz landatzen ditu artoa eta babarrunak urte berriarekin, hain zuzen indiarrek duela hainbat mendetik egin izan duten bezala, eta lehen kolonoei irakatsi zieten bezala; badirudi halabeharrenekin loturik dagoela. Aurreko batean, nire harridurarako, gizon zahar bat ikusi nuen zuloak egiten enegarren aldiz bere aitzurraekin, eta orduko hartan ere helburua ez zen gizona zuloan etzatea! Baina Ingalaterra Berriko herritarrek zergatik ez lituzkete saiatu behar aventura berriak, garrantzi pixka bat gutxiago eman aleei, patatei, larreei eta baratzeari, eta bestelako laboreak hazi? Zergatik arduratu behar dugu hainbeste babarrunez, gizonen belaunaldi berriaz kezkatu ordez? Elikaturik eta pozik sentitu behar genuke baldin eta, gizon batekin topo egitean, argi eta garbi egiaztatuko bagenu bere baitan sustraitu eta hazi direla lehen aipatu ditudan ezaugarrietako batzuk, zeinak, guztiok estimatzen ditugun arren lurraren ekoizpena baino gehiago, sakabanatuta egoten baitira gehienetan, airean barna firin-faran. Hara non datorren bidean barna ezaugarri guztiz sotil eta atzemanezin bat, egiaren edo justiziaren parekoa, kopuru txikian etorri arren edo aldaera berri bat izan arren. Gure enbaxadoreei eskatu behar litzaieke bidal ditzatela etxera halako haziak, eta Kongresuak lagun dezala haiek banatzen lurraldearen luze-zabalean. Ez genuke sekula handikeriaz jardun behar zintzotasunaz ari garenean. Ez genuke inoiz inor zekenki engainatuko, irainduko edo erbesteratuko baldin eta duintasunaren eta adiskidetasunaren mamiak gordeko bagenitu gure baitan. Ez genuke presaka elkartu behar. Gizon gehienekin ez naiz elkartzen, bai baitirudi ez daukatela denborarik, lanpetuta dabilta beren babarrunekin. Zeinek elkartu nahi du, bada, beti lanean dabilen gizon batekin, zeina aitzurraren edo palaren gainean bermatzen baita atsedendietan, ez perretxiko baten erara, baizik eta lurraren gainean tente, zoruan pausatu berri den eta oinez doan enara nola:

«Eta mintzo zen bitartean, hedatzen zituen hegalak tarteka, hegaldatu nahian akaso, eta itxi egiten zituen atzera».<sup>172</sup>

---

172 Francis Quarles (1592-1644) Ingalaterrako poetaren bosgarren eglogako aipua.



Modu horretan susmatuko genuke aingeru batekin dihardugula beharbada. Ogiak ez gaitu beti elikatzen, baina on egiten digu, gure artikulazio zurrunik biguntzen ditu are, eta ez dakigunean zein den gure gaitza, abilak eta adoretuak egiten gaitu gizonaren eta Naturaren eskuzabaltasuna aitortzeak, poz puru eta heroiko guztiak partekatzeak.

Antzinako poesiak eta mitologiak iradokitzen dutenez, arte sakratua izan zen noizbait nekazaritza; gaur egun, ordea, presaka eta tenturik gabe ekiten diogu, helburu bakar batekin: etxalde handiak eta uzta oparoak edukitzea. Ez daukagu jaialdirik, prozesiorik ez bestelako ospakizunik, salbu eta ganadu-azokak eta Eskerrak Emateko Egunak, nekazariak adieraz dezan bere bokazioa sakratua dela, edo bere bokazioaren jatorri sakratua gogora ekar diezaioten. Sariak eta oturuntzak erakarriak hurbiltzen da halakoetara. Ez dio sakrifiziorik eskaintzen ez Zeresi, ez eta Lurreko Jupiterri ere, baizik eta infernuko Plutoni. Diruzalekeriaren eta berekoitasunaren eraginez, eta beste ohitura balakari baten ondorioz, alegia lurra jabetza gisa hartzeko ohituraren edo jabetza eskuratzeko moldeen bitartez nagusiki — gutako inor ez dago horretatik libre—, paisaia desitxuratzen da, eta gurekin batera beharitzen da nekazaritza; laborariarena da, beraz, bizitzarik zekenena. Lapur gisa baino ez du ezagutzen Natura. Katok dio nekazaritzaren etekinak bereziki errukiorrak edo bidezkoak direla (*maximeque pius quæstus*);<sup>173</sup> Varronen<sup>174</sup> arabera, berriz, antzinako erromatarrek «izen bera ematen zioten Ama Lurrari eta Zeresi, eta uste zuten lurra lantzen zutenek bizitza errukiorra eta erabilgarria egiten zutela, eta haiexek zirela Saturno Erregearen arrazako azken kideak».<sup>175</sup>

Ahaztu ohi dugu eguzkiak bereizketarik egin gabe argitzen dituela baratzeak, larreak eta basoak. Modu berean islatzen eta xurgatzen dituzte denek haren izpiak, eta baratzeak ez dira eguzkiak bere eguneroko bidean behatzen duen irudi loriazkoaren pusketa txiki bat baino. Eguzkiaren ikuspegitik dena lantzen da neurri berean, lorategi bat nola. Hortaz, dagokion fidantziak eta eskuzabaltasunaz jaso behar genuke haren argiaren eta epe-

---

173 «Estimatzeko modukoena». Iturria: *De Agri Cultura*, Marko Portzio Katon. Ikus 61. oharra.

174 Marko Terenzio Varron (K.a. 116 - K.a. 27), antzinako Erromako latinezko idazlea.

175 Iturria: *Rerum rusticarum*, Varrorena.

laren oparia. Zer axola du baldin eta babarrun hauen haziak estimatzen badituz, eta berriz ereiten badituz udazkenean? Ni ez naiz ereile nagusia hain luzaroan behatu dudan eremu zabal honentzat; aitzitik, baditu beste eragin-iturri ederrago batzuk, ureztatzen eta berdatzen dutenak. Babarrun hauen fruitueta-ko batzuk ez dira neronek ereindakoak. Ez al dira hein batean marmotentzat hazten? Ez luke izan behar gari-buruak (latinez, *spica*, forma zaharkitua *specca*, zeina *spe* hitzetik baitator, itxaropena) nekazariaren itxaropen bakarra; gariak gehiago dakar garauaz gainera (*granum*, zeinaren jatorria baita *gerendo*, ekartzea). Orduan, nola huts egin lezake gure uztak? Ez al nuke poztu behar belar txarrak ugariak direlako, beren haziak baitira txorien elikagai? Egia esan, ez du askorik axola larreek betetzen dituzten nekazariaren aletegiak. Zinezko nekazaria ez da kezkatuko —katagorriak ere ez baitira arduratzen ea basoak gaztainarik ekarriko duen urte honetan—, eta bere lanari lotuko zaio egunero, uko eginez bere baratzeko ekoizpen guztiari eta bere baitan sakrifikatuz ez soilik lehen fruitua, ezpada azkena ere.

# ZORTZI

## HERRIA

Goizean aitzur-lanetan aritu ostean, edo beharbada irakurtzen eta idazten, berriro bainatu ohi nintzen lakuan; bertako badietako bat zeharkatzen nuen tarte batez, eta lanaren hautsa kentzen nuen gorputzetik, edo berdintzen nituen ikasketek sortutako zimur guzti-guztiak; horrela, nire izatea guztiz aske sentitzen zen arratsalderako. Egunero, edo bi egunean behin, herrira joaten nintzen oinez, han etengabe gertatzen diren txutxu-mutxuen berri izateko; ahoz aho ibiltzen dira, edo egunkariz egunkari bestela, eta hostoen xuxurla edo igelen kantua bezain suspergarriak dira dosi homeopatikoetan hartuz gero. Nola joaten nintzen basora txoriak eta katagorriak ikustera, hala inguratzen nintzen herrira gizonak eta mutilak ikustera; gurdien triki-traka aditzen nuen pinu artean dabilen haizearen orde. Nire etxetik norabide jakin bat hartuta, bazen arratoi musketadunen kolonia bat ibaiaren alboko zelaietan; beste norabidean, aldiz, gizon lanpetuen kolonia bat zumarren eta platanondoen babesean; bitxiak iruditzen zitzaizkidan, larretako txakurrak bezainbeste: esertzen ziren nor bere zuloaren atarian, edo alboko auzoarengana joaten ziren berriketan aritzera. Maiz joan nintzen hara, beren ohiturak behatzera. Kazetaritza-erredakzio handi bat iruditzen zitzaidan herria, eta State kaleko Redding & Company-n<sup>176</sup> egiten zen bezala, intxaurrak eta mahatsak izaten zituzten alde batean, mantenturako, edo gatza, irina eta beste-lako elikagaiak. Albiste-goseak jota bizi dira batzuk, eta hain

---

176 George W. Reddingen enpresa, Bostonekoa, prentsa banatzeaz arduratzen zena.

dituzte digestio-organo sendoak, non betirako eser baitaitezke herriko etorbide nagusian, zirkinik egin gabe, albisteak barneratzen edo haien xuxurla aditzen etesiar haizeak balira bezala, edo eterra arnasten ari balira legez; berriek, baina, soraiotasuna eta oinazearekiko sentikortasun eza baino ez dakarte —osterantzean mingarria izango litzateke-eta albisteen berri izatea—, eta ez diote kontzientziari eragiten. Herrian barna nenbilerarik, ia beti ikusten nuen halako gizaseme duinen sorta bat; eskailera batean jesarrita egoten ziren eguzkia hartzen, soina aurrerantz makurtuta eta begiak erne, alde batera lehenik eta bestera gero, eite lizunarekin, edo aletegi baten kontra bermatuta bestela, eskuak patriketan kariatideak nola, gorputzari eusteko. Normalean kalean egoten baitziren, haizeak zekarrena aditzen zuten, edozer izanik ere. Haiek dira errotarik oinarritzkoenak, haietan digeritzen edo mamurtzen dira txutxu-mutxuak oro, etxe barruetan tobera finago eta delikatuagoetan landu aurretik. Ohartu nintzen denda, taberna, posta-bulegoa eta bankua zirela herriaren organo bitalak; makinariaren ezinbesteko zati gisa, bazuten kanpai, pistola handi eta sute-punpa bana, denak ere egoki kokatuta; bestalde, gizateriaren onena ateratzeko moduan antolatuta zeuden etxeak, ilaratan eta elkarren parean, eta bidaiariak, horrenbestez, baketen zigorra<sup>177</sup> jasan behar zuen derrigor, eta gizon, emakume zein ume orok izango zuen kopetako bat emateko aukera. Kalearen buruan ezarrita zeudenek, jende gehienak ikusteko eta jende gehiena ikusteko eran, eta horren ondorioz bidaiariari lehen kolpea emateko aukera zutenek, preziorik garestienak ordaintzen zituzten, jakina, beren kokapenaren truke; aldirietako herritar bakanek, ordea, aldirietan izaten baitziren lerroko lehen eten handiak, eta bidaiariak aukera baitzuen horma baten gaintik pasatzeko edo behien bideetatik eskapu egiteko, lur- edo leiho-zerga txiki bat baino ez zuten ordaintzen. Era guztietako seinaleak ipintzen zituzten bidaiaria erakartzeko; haren apetituari dei egiten zioten batzuek, hala nola tabernak edo janari-dendak; beste batzuek, oihaal-dendakoek edo bitxi-gileak, modaren bidez liluratu nahi zuten; eta beste zenbaitek, azkenik, jomugan zituzten bidaiariaren ilea —bizarginek—, oi-

---

177 Natibo amerikarrek ezarri ohi zuten zigorra. Tribuko kideak bi ilaratan jartzen ziren, zigortuak erditik igaro behar zuelarik, eta kolpeak ematen zizkieten makilekin eta bestelako tresnekin. Zigor-mota bera erabili ohi zen millizietan.

nak —zapatariek—, edo arropa —jostunek—. Gainera, bazen gonbidapen etengabe eta are izugarriago bat: etxe horietako bakoitzera joatea bisitan, alegia. Gehienetan, miragarriki ihes egiten nuen halako arriskueta: zuzen-zuzen eta dudarik egin gabe abiatzen nintzen helmugarantz —horixe egitea gomen-dutzen zaio baketen zigorra jaso behar dutenei—, edo, bestela, goragoko kontuetan pentsatzen nuen, Orfeok bezalaxe, zeinak «bere lirarekin jainkoekiko miresmena abestuz ozen, Sirenen ahotsak ito baitzituen, eta arriskuaz libratu zen».<sup>178</sup> Batzuetan ospa egiten nuen bat-batean, inork ez zekielerik non nenbilen, ez baitzitzaidan askorik inporta adeitasuna, eta ez nuen inoiz dudarik egin hesi-zuloetatik hanka egiteko. Ohituta nengoen, are, gustuko ninduten zenbait etxetan agertzera alde aurretik abisurik eman gabe, eta azken albiste-mamiak jaso ostean nire iragazkiarekin —zer murriztu zen, zeintzuk ziren gerraren eta bakearen espektatibak, eta ea munduak bere horretan eutsiko zion luzaro—, atzeko atetik joaten uzten zidaten, eta basora abiatzen nintzen berriro.

Herrian berandura arte geratzen nintzenez, atsegina suertatzen zitzaidan, arrunt, gauean murgiltzea, bereziki gau beltza eta trumoitsua bazen; aingura altxatzea herriko areto edo auditorio ondo argiztatu batetik, zekale-zorro bat edo arto-iriri zaku bat sorbaldan neramala, eta basoko portu segururantz itsa-soratzea; gutzia estu lotuta uzten nuen gainaldean eta gordetzen nintzen kamarotean nire pentsamenduen eskifaia alaiarekin, leman nire kanpo-gizona baino ez nuen uzten, eta, nabigazioa lasaia bazen, ezta hori ere. Pentsamendu bikain ugari izaten nituen kamarote epelean, «nabigatu bitartean». Ez nintzen inoiz ibili alderrai, ez nintzen sekula hondoratu, nahiz eta izan ziren ekaitz larri batzuk. Jendeak uste duena baino iluntasun beltzagoa izaten da basoan, baita gau arruntetan ere. Zuhaitzen arteko argiuneei erreparatu behar izaten nien, gorantz begiratu, nondik jo jakiteko, eta gurdibiderik ez bazegoen, oinekin haztatu behar nuen neronek ibilitako xendra ahula, edo zuhaitz jakin batzuen posizioaren arabera igarri bideari; esate baterako, baziren bi pinu, elkarrengandik hemezortzi habbeta zeudenak baita gaurik ilunenean ere. Horrela iristen nintzenez etxera,

---

178 Iturria: *De Sapientia Veterum* (1609), Francis Bacon.

gau beltz eta sargorietan, oinekin sentitzen nuenean nire begiek ikus ez zezaketena, ametsetan eta burua auskalo non neukala egiten nuenean bide osoa, harik eta sarraila ireki beharrak iratzartzen ninduen arte, ez nintzen gai izaten nire urratsez oroitzeke, eta pentsatu izan dut agian nire gorputzak etxerako bidea aurkituko lukeela bere patrioiak ahaztuko balu ere, nola topatzen duten eskuek ahorako bidea inongo laguntzarik gabe. Hainbat bider bisitariren bat ilundu arte geratzen zenean etxean, eta gau beltza zenean, etxearen atzealdeko gurdibidera lagundu, eta zer norabidetan jo behar zuen adierazi behar izaten nion hatzarekin; oinei eta ez begiei jaramon eginez jarraitu behar zion bide horri. Modu horretan bideratu nituen gau ilun-ilun batean bi gizon gazte, lakuan arrantzan ibiliak. Basoa zeharkatu eta milia batera bizi ziren, beraz ohitu samarrik zeuden. Handik bizpahiru egunera haietako batek azaldu zidan deslai ibili zirela gauaren puskarik handienez, beren etheen ingurumarian bueltaka, eta goiz-alban heldu zirela azkenean etxera; mela-mela eginda zeuden ordurako, hostoak zeharo bustita baitzeuden gauean izandako euri-jasen eraginez. Entzuna naiz hainbat lagun galduta ibili direla baita herriko kaleetan ere, iluntasuna hain denean trinkoa non ezin baita labanaz ere ebaki, esaerak dioen eran. Aldirietan bizi diren batzuk, herrira joan erosketak egitera beren organ, eta gaua han igaro behar izan dute; zenbait jaun eta andre, etxeren batera bisitan joan eta beren bidetik milia-erdi desbideratu dira itzuleran, espaloia oinekin bakarrik sentitzen zutelarik, ez baitzekiten non okertu ziren. Esperientzia harri-garria eta gogoangarria da, eta neurri berean baliotsua, basoan galtzea edozein garaitan. Elurra ari duenean, baita egun argiz ere, bide ezagun batera iritsiko da bat, eta maiz ez du jakingo esaten nondik jo behar duen herrira iristeko. Badakien arren, ondotxo jakin ere, mila aldiz ibili dela bide horretan, ez da gai bidearen ezaugarri bakar bat ezagutzeko; arrotza iruditzen zaio, Siberiako bide bat balitz bezainbeste. Gauez, noski, infinituki handiagoa da harridura. Eguneroko ibileretan etengabe ari gara, inkontzienteki bada ere, pilotuen eran norabidea markatzen, ondo ezagutzen ditugun itsasargiei edo harkaitzei esker, eta gure ohiko norabidetik aldentzen bagara, inguruko lurmuturren baten erreferentzia izaten dugu buruan; erabat galtzen garenean —eta, mundu honetan, aski da gizon bati bira eginaraztea begiak itxita,

erabat gal dadin— orduan bakarrik jabetzen gara Naturaren itzelaz eta bitxiaz. Gizon orok berrikasi behar ditu iparrorrazaren puntuak iratzartzen den aldiro, berdin du lozorroan zegoen edo beste moduren batean abstraituta. Harik eta galtzen garen arte—edo, bestela esanda, harik eta mundua galtzen dugun arte— ez gara hasten gure burua aurkitzen, eta orduantxe ohartzten gara non gauden eta zer infinituki zabalak diren gure harremanak.

Arratsalde batez, lehen udaren amaiera aldera, herrira joan nintzen zapata baten bila konpontzailearengana, eta hara non harrapatu ninduten, eta kartzelara sartu, zergatik-eta, beste tokiren batean azaldu dudanez,<sup>179</sup> ez niolako zergarik ordaintzen, ez eta inongo autoritaterik aitortzen ere, Senatuko atarian gizonak, emakumeak eta haurrak ganadua bezala saltzen dituen estatuari. Beste helburu batzuekin joana nintzen basora. Baina gizona edonora doala ere, beste gizonak atzetik joango zaizkio beren instituzioekin, eta, ahal baldin badute, saiatuko dira gizona hertsatzen beren karitate-gizarte tamalgarrien parte bihurtzeko. Egia da, egia denez, horri guztiari kontra egin niezaiokeela oldarka, emaitza hobeeekin edo okerragoekin, gizartearen aurka «erotu» nintekeela; baina nahiago nukeen gizartea «erotu» balitz nire kontra, auzi honi dagokionez gizartea baita alderdi desesperatua. Nolanahi ere, biharamunean askatu ninduten, jaso nuen oinetako konpondua, eta garaiz itzuli nintzen basora Fair Haven muinoan nire ahabia-anoa hartzeko. Estatuaren ordezkariak salbu, inork ez ninduen gogaitu. Ez nuen erabiltzen kisketarik, nire paperak gordetzen nituen mahaia baizik ez nuen edukitzen giltzapean, ez zegoen iltze bakar bat ere sarrailan edo leihoetan. Ez nuen atea ixten, ez gauez ez egunez; ez nuen atea ixten kanpora joaten nintzelarik ere zenbait egunetarako, edo bi aste igaro nituenean, hurrengo udazkenean, Maineko basoan. Eta hala ere nire etxeari errespetu gehiago erakusten zioten soldadu-errenkada batek babestu izan balu baino. Ibiltari nekatuak atsedean harrezakeen eta sutondoan bero zitekeen nire etxean; literaturzaleak, berriz, tarte atsegin bat igaro zezakeen nire mahai gainean zeuden liburu apurrak irakurriz, eta jakinzaleak, azkenik, ar-

---

179 *Desobedientzia zibila* saiakerari buruz ari da. 1849an idatzi zuen Thoreauk, bere ideia politikoak azalduz. Euskaraz irakur daiteke, Edu Lartangurenen itzulpenean. Booktegiak kaleratu zuen formatu digitalean, 2020. urtean. Ikus: <https://booktegi.eus/liburua/213/desobedientzia-zibila-henry-d-thoreau>

mairuko atea ireki eta bere jakin-mina ase zezakeen ikusiz zer soberakin utzi nuen bazkaritan eta zer asmo nuen afaritarako. Haatik, klase guztietako jendea etortzen zen arren laku aldera, ez zidaten inoiz traba egin zinez, eta ez zen objektu bakar bat ere desagertu, liburu txiki bat bakarrik, Homeroren ale bat, zeinaren akatsa baitzen beharbada marko urrekara bat edukitzea, eta espero dut gure kanpalekuko soldaduren batek aurkituko zuela honezkero.<sup>180</sup> Ziur naiz lapurreta eta ebasketa ez liratekeela existituko, gizon guztiak bizi balira ni bezain modu sinplean. Batzuek behar baino gehiago eta beste zenbaitek nahikoa ez daukaten komunitateetan bakarrik gertatzen dira halakoak. Poperen Homeroak<sup>181</sup> azkar asko banatuko lirateke behar moduan.

«*Nec bella fuerunt,  
Faginus astabat dum scyphus ante dapes*».

«Gudek ez zuten gizona gogaitzen  
pago-katiluen premia baizik ez zen garaian».<sup>182</sup>

«Zuek, auzi publikoak gobernatzen dituzuenek, zer behar duzue zigorrak erabiltzeko? Maitatu ezazue bertutea, eta bertutetsua izango da jendea. Haizearen modukoak dira gizon gorenaren bertuteak; belarraren tankerakoak, berriz, gizon arruntarenak: belarra makurtu egiten da haizea gainetik igarotzen zaionean».<sup>183</sup>

---

180 Konfuzioren anekdota bati erreferentzia: soldaduak ezkutua galdu du, eta, kontsolamendu gisa, pentsatzen du baliagarria suertatuko zaiola beste soldadu bati.

181 Alexander Pope zen Homeroren liburuaren itzultzailea. Liburua Alek Therienek hartu zion maileguan Thoreauri, ezer esan gabe.

182 Albio Tibulo (K.a. 54 - K.a. 19) poeta latinoaren *Elegiak* laneko aipua.

183 *Analektak*, Konfuzio.



# BEDERATZI

## LAKUAK

Batzuetan, giza konpainiaz eta berriketaz nardaturik, herrian nituen adiskide guztiak agortu ostean, normalean ibiltzen naizen lekutik mendebaldera jotzen nuen, herriko inguru are bakartiagoetara, «baso fresko eta zelai berrietara»,<sup>184</sup> edo, eguzkia ezkutatu bitartean, ahabiak eta masustak afaltzen nituen Fair Haven muinoan, eta fruitu-sorta bat gordetzen nuen hainbat egunetarako. Fruituek ez diote beren egiazko zaporea ematen erosten dituenari, ez eta merkaturako hazten dituenari ere. Modu bakarra dago fruituak zinez dastatzeko, baina gutxik jarraitzen dute. Ahabien benetako zaporea ezagutu nahi baduzu, galdetu behizainari edo eperrari. Akats baldar bat da ahabiak dastatu dituzula pentsatzea baldin eta ez badituzu zerorrek jaso. Ahabiak ez dira sekula iristen Bostonera; hiri horretan ez dute ahabirik ezagutu hango hiru muinoetan hazten zirenetik. Merkatura doan gurdian galtzen da fruituaren anbrosia eta funtsa, hazkurri huts bilakatzen dira. Justizia Betierekoak agintzen duen bitartean ez da ahabia inozente bakar bat ere garraiatuko hara inguruko muinoetatik.

Noizean behin, eguneko jorratze-lanak amaitu eta gero, elkartzen nintzen goizetik arrantzan jardundako lagun ipurterrenen batekin; isilik eta geldi egoten zen goiz osoan, ahatea edo ur gaineko hostoa bezala, eta filosofia-molde batzuk aztertu ondoren, ni iristerako ondorioztatzen nuen zenobiten<sup>185</sup> sektako

184 «Lycidas» poemako aipua (1637); egilea: John Milton.

185 Hitz-jokoa. Ingelesez, *cenobites* izenak *see no bites* esapidearen antza du:

«Momentuz ez dute amua hartzen» gutxi gorabehera.

kidea zela. Bazen, adibidez, adineko gizon bat, arrantzale bikaina eta egurgile iaioa, zeinak atsegin baitzuen pentsatzea arrantzaleen komenientziarako eraikia zela nire etxea, eta neronek neurri berean atsegin nuen gizon hura atarian jesar zedila bere pitak prestatzera. Batera jesartzen ginen lakuan tarteka-marteka, txaluparen alde banatan, baina ez genuen hitzik trukutzen, azken urteotan gorreria izan baitzuen, baina inoiz edo behin salmo bat murmurikatzen zuen, eta hura ondo samar zetorren neure filosofiarekin. Gure hartu-eman, beraz, harmonia hautsi gabe bat zen oro har, eta mintzatu izan bagina ez litzateke hain atsegina gertatuko hartaz oroitzea. Sarritan ez nuen izaten no-rekin komunikatu, eta halako egokieretan oihartzunak sortzen nituen arraun-kolpe bat joz nire txaluparen alde batean; modu horretan, soinu-uhin zirkularrez betetzen nuen inguruko basoa; xaxatu egiten nuen paisaia, piztia-saldo baten bezatzaileak nola, harik eta baso-haran eta muino-mazela oren marmarra esku-ratzen nuen arte.

Iluntze epeletan flauta jotzen nuen maiz, txalupan jesarrita, eta ikusten nituen kotak nigana hurbiltzen jirabiraka, liluratu antzean; ikusten nuen ilargia orobat bere bidea egiten hondo izurtuaren gaintetik, zeinean sakabanatzen baitziren basoaren hondakinak. Aurrez abentura bila etorri izan nintzen laku honetara, noiz edo noiz, udako gau ilunetan, adiskide batekin; sua pizten genuen ur-ertzetik hurbil, uste genuen-eta arrainak erakartzen zituela, eta abadirak harrapatzen genituen zizare batzuk lotuz hari batekin; ordu txikitan amaitzen genuenean, airera jaurtitzen genituen suaren hondakin goriak, bengalen antzera, eta lakura jausten zirenean ito egiten ziren xuxurla-soinu ozen batekin, eta gu tupustean murgiltzen ginen iluntasun erabatekoan. Eta iluntasunean barna itzultzen ginen, txistuka, atzera ere gizonak bizi ziren tokira. Baina orain uraren ertzean eraiki nuen nire etxea.

Zenbaitetan herriko egongelaren batean egoten nintzen harik eta familia osoa erretiratzen zen arte, eta basora itzultzen nintzen orduan, eta hurrengo eguneko bazkaria ziurtatzeko hein batean, arrantzan ematen nituen gauerdiko orduak, txalupa batean eserita ilargiaren argitan, hontzen eta azerien doinua lagun, eta txori ezezagunen baten kirrinka aditzen nuelarik noizean behin nigandik gertu. Halako esperientziak guztiz go-

goangarriak eta estimagarriak ziren niretzat: berrogei oin uren gainean ainguratuta egoten nintzen, ur-ertzetik hogeitxo edo hogei-ta hamar kanara, inguruan nituela milaka kota eta arrain txiki distirant, zeinek ur-gaina zulatzen baitzuten isatsarekin ilargiaren argitan, eta lihozko hari luze-luze baten bidez komunikatzen nintzen nigandik berrogei oin beherago zebiltzan gau-arrain misteriotsuekin; batzuetan, bestalde, hirurogei oineko hari bat jaurtitzen nuen lakura, gaueko brisa samurrak neramalarik, eta noizean behin bibrazio arin bat nabaritzen nuen soka, haren muturrean izaki bizidunen bat zebilelako seinale, dorpe eta zalantzati, bizkor erabakitzeko ezgai. Azkenean, poliki-poliki altxatzen nuen, esku bat bestearen gainetik ipiniz, abadira ezkatadun bat, bihurrika eta dardarka. Guztiz arraroa zen, gau ilunetan bereziki, norberaren pentsamenduak abiatuak zirenean beste eremu batzuetako gai itzel eta kosmogonikoetara, tiraldi apal hura sentitzea, ametsak eten eta berriro Naturara lotzen zintuena. Beharbada gorantz jaurtiko nuen hurrena nire haria, beherantz ere jaurtitzen nuen bezala, azpikoa bezain trinkoa baitzen gainekoa. Eta horrela bi arrain harrapatuko nituen amu bakar batekin, nolabait esatearren.



Tamaina umila du Waldeneko paisaiak, eta eder-ederra izanagatik ere, ez du handitasunik, eta ez zaio askorik axola izango han luzaroan ibili izan ez denari edo hango ur-ertzean bizi izan ez denari; haatik laku honen sakonera eta purutasuna hain dira nabarmentzekoak, deskribapen berariazko bat merezi baitute. Putzu argi eta berde-berde bat da, milia-erdia luzea milia bat eta hiru laurdeneko zirkunferentzia du eta hirurogeita bat eta erdi akre hartzen ditu gutxi gorabehera: iturri betiereko bat pinudien eta hariztien erdian, ageriko ibaiadarrik ez isurbiderik gabea, hodeiak eta lurruntzea salbu. Inguruko muinoak zorrotz altxatzen dira uretatik, berrogei eta laurogei oin bitarteko altuerara iritsiz; hego-ekialdean eta ekialdean, berriz, ehun eta ehun eta berrogeita hamar oin bitarteko altuera dute, milia-laurden batetik milia-heren batera alegia. Lakua basoz inguratuta dago oso-osorik. Concordeko ur-eremu guztiek bi kolore dauzkate gutxienez: bata, distantziatik begiratzean agertzen dutena; beste bat, zehatzagoa, gertutik erreparatzen zaienean erakusten dute-

na. Argiaren araberakoa da lehena, eta zeruaren joerei jarraitzen dio. Udan, eguraldi argiarekin, urak urdina dirudi gertutik, bereziki nahasita badabil, eta urrutitik denek ematen dute antzekoak. Ekaitz-giroan arbel ilunaren kolorea izaten dute batzuetan. Itsa-soaz esan ohi da, ordea, urdina dela egun batzuetan eta berdea beste batzuetan, atmosferan aldaketarik izan ez bada ere. Ikusi izan ditut, inguruak elurrez estalirik daudelarik, erreka ura zein izotza berde-berde, belarra bezalaxe. Batzuen ustez urdina da «ur puruaren kolorea, izan likidoa zein solidoa».<sup>186</sup> Baina urei zuzenean begiratzu gero txalupa batetik, kolore ugari ikus ditzakegu. Walden urdina da batzuetan eta berdea beste zenbaitetan, baita ikuspuntu beretik begiratuta ere. Lurraren eta zeruen artean datzanez, bien koloreen parte da. Muino-tontor batetik erreparatzen bazaio, zeruaren kolorea islatzen du; aldiz, gertutik begiratzu gero, kutsu horikara bat izango du ur-ertzetik hurbil, harea ikusten den lekuan, eta gero berde argiaren tonuak agertuko ditu, zeina apurka-apurka ilunduko baita, eta berde ilun uniforme bat ikusiko dugu lakuaren erdigunean. Argiaren arabera, baita muino-tontorretik ikusita ere, berde bizi-bizi bat erakusten du lakuak bere ertzaren inguruan. Batzuen esanetan, landarediaren islaren ondorioa da, baina ur berde horixe ikusten da, halaber, trenbide ondoko hondar-bankuan eta udaberrian ere, hostoak hedatu aurretiko garaian; baliteke urdinaren eta harea horiaren nahasketaren emaitza izatea sinpleki. Horixe da bere irisaren kolorea. Orobat zati horretantxe urtzen dira lehen izotzak udaberrian —hondoan islatzen diren eta lurrak berak igortzen dituen eguzki-izpien epelean— eta ubide estu bat osatzen dute erdigune izozturaino. Beste laku eta urmaeletan gertatzen den eran, urak oso nahasirik dabiltzanean egun argietan, eta olatuen azalerak zerua islatzen badu ere angelu egokian, badirudi, gertutik, ura urdinagoa dela zerua bera baino, agian argi gehiago nahasten delako; halako egoeretan, bada, ur-azalean nengoelarik eta eskua bekokian jartzen nuelarik pantaila eginez, isla ikusteko eran, urdin argi paregabe eta deskribaezin bat ikusi izan dut, zeta irisatu eta aldakorrek edo ezpata-ahoez iradoki ohi duten modukoa, zerua bera baino zerutiarragoa, olatu-muturren

---

186 James D. Forbes (1809-1868) Eskoziako fisikariaren *Travels Through the Alps of Savoy* laneko alpuia.

berde ilun jatorrizkoaren kontrakarrean, zeinek lohiak ematen baitzuten konparazioan. Urdin berdekara beirazko bat da, hala oroitzen dut behintzat, neguko zeruan ilunabarraren aurretik mendebaldean eta laino artean agertzen diren pusketen modukoa. Hala eta guztiz ere, edalontzi bat betez gero hango urekin eta argiaren pean ezarriz gero, ikusiko da kolorgea dela zeharo, edalontzi bete aire balitz bezala. Gauza jakina da beirazko plater handiek badutela kutsu berde bat, beiraren «gorputzari» omen dagokiona egileen arabera; pieza txiki batek, aldiz, ez du kolore-arrastorik erakutsiko. Waldeneko uraren zenbateko neurria behar den kutsu berde bat izan dezan, ez dut inoiz proba egin. Gure ibaiko ura beltza da, edo marroi ilun-iluna, baldin eta zuzenean begiratzen badiozu gainera, eta urmael gehienetan gertatzen den bezala, kutsu horikara bat eransten dio bertan bainatzen ari denaren gorputzari; nolana ere, ur hau hain da purua eta gardena, bainulariaren gorputzak alabastroa bezain zuria ematen baitu, are antinaturalagoa, eta nola haren gorputz-adarrak handiagoak eta itxuragabeagoak diruditen, halako efektu munstroko bat sortzen da, Michelangelo<sup>187</sup> bati baliagarria suertatuko litzaiokeena zirriborroak egiteko.

Ura hain da gardena non erraz-erraz nabaritzen baita hondoa. Hogeita bost edo hogeita hamar oineko sakoneran dago. Haren gainera arraun eginda ikus ditzakezu, azaletik hainbat oin beherago, koten eta bestelako arrainen sardak, beren marrak direla-eta erraz antzemateko modukoak oinbete bateko luzera eskasa izanda ere, eta pentsatzekoa da arrain aszetikoak behar dutela izan derrigorrean, halako toki batean zer jan topatzen badute. Aspaldiko negu batean, izotza zulatzen ibilia nintzelarik lutxoak harrapatzeko, ur-ertzerantz nindoala, hara non otu zitzaidan aizkora atzerantz botatzea: keinu maltzurren batek gidaturik bezala, irristatu zen laupabost kanako distantziara eta zuzen-zuzenean erori zen zulo batera, urak hogeita bost oineko sakonera zuen toki batean. Izotzean etzan eta zulotik begiratu nuelarik jakin-min hutsez, han ikusi nuen aizkora apur bat okerturik, altzairuzko ahoaren gainean bermatuta eta kirtena zutik, leun kulunkatzen zelarik, lehenik alde batera eta gero bestera, lakuaren pultsuarekin batera; bada, hortxe gera zitekeen aizko-

---

187 Michelangelo Buonarroti (1475-1564) Italiako margolaria eta eskultorea.

ra, zutik eta kulunkan, denboraren igaroak kirtena usteldu arte, nik ez banu esku hartu. Beste zulo bat egin nuen aizkora zegoen tokiaren gain-gainean eskura neukan izotz-zizel batekin; ondoren, han inguruko urki-adarrak luzeena moztu nuen labanaz, saltorapilo bat egin, adarraren muturrari lotu, eta mantso-mantso murgildu nuen uretan; kirtena korapiloaren erditik pasarazi, eta urkiaren paraleloan botatako soka baten bidez atera nuen kanpora nire erreminta.

Hareazko kala bat edo bi kenduta, harri zuri biribil eta leunen gerriko batek inguratzen du ur-ertza, zoladura baten tankeran, eta ertza hain da pikoa, non zenbait tokitan jauzi bat egin eta osorik murgil baitzaitezke uretan, eta ura hain guztiz gardena ez balitz, toki horrexetan ikusiko zenuke azkeneko aldiz lakuaren hondoa beste aldera iritsi arte. Batzuek uste dute ez duela hondorik. Ez dago lokatzik inon, eta kasualitatez handik dabilen behatzaile batek esango luke begetaziorik ere ez dagoela; landare bistakoei dagokionez, salbu eta duela gutxi urpetu ziren zelaitxoetan izan ezik, zeinak berez-berez ez baitira lakuaren parte, azterketa zehatzago batek ez digu erakutsiko ezpata-belarrak ez ihirik, ez eta liriorik ere —horiak zein zuriak—, soilik nenufarrak eta ur-landareak, eta brasenia bat edo bi akaso; bainulariak, ordea, ez ditu nabaritutako, eta landare horiek garbiak eta argiak dira, hazi diren lekua bezainbeste. Uretara sartuta, harriak daude kana bat edo bitan, baina hondoa hareazkoa da osorik, salbu eta zatirik sakonenetan, zeinetan sedimentu apur bat pilatzen baita normalean, udazkenez udazken lakura erortzen diren hostoen usteltzea dela kausa ziur aski; neguaren erdialdean aingurak altxatzean belar berdexka batzuekin estalita azaleratzen dira.

Badugu beste laku bat horrelakoxea: White Lakua,<sup>188</sup> Nine Acre Corner-en dagoena, hemendik bi milia eta erdira mendebalderantz. Eta nik Waldenetik dozena bat miliara dauden laku guzti-guztien berri dudan arren, ez dut ezagutzen hain purua eta iturburu-itxurakoa den hirugarrenik. Nazioak igaro dira hemendik bata bestearen ondotik, ura edan dute, urmaela miretsi eta miatu dute, eta hara non jarraitzen duen Waldeneko urak beti bezain berde eta garden. Ez da, ez, aldizkako iturri bat! Ba-

---

188 Laku Zuria.

liteke Adam eta Eba Edenetik kanporatu zituzten udaberri-goiz hartarako jadanik hemen izatea Walden lakua, eta orduan ere lurruntzea bertako ura udaberriko euri gozo bat ekarritz, lanbroa eta haize-hegoa lagun, eta milaka ahatez eta antzaraz estalirik egotea, animaliek ez baitzuten erorialdiaren<sup>189</sup> berririk artean, eta aski zuten Walden bezalako putzu puruekin. Aldian handitzen eta aldian txikitzen zen lakua ordurako, argituak ziren urak gaur egungo kolore-kutsua hartu arte, eta patente bat eskuratu zen, zerua bitartekari, Walden lakua bakarra izan zedin munduan eta ihintza zerutiarrak eman zitzaiz. Nork daki zenbat nazio ahazturen literaturentzat izan den Walden lakua Kastaliaren Iturriaren<sup>190</sup> pareko? Edo zer ninfek gobernatzen zuten Urrezko Aroan? Lehen uraren gema bat darama Concordek bere koroan.

Hala ere, putzu honetara lehendabizikoz etorri zirenek beren oinatzen arrastoren bat utzi dute menturaz. Aurkitu dut, harriturik, xendra estu-estu bat lakua inguratzen duena, berriki ur-ertzeraino moztu duten baso-inguru trinko bat ere gurutzatuz, muinoaren mazela pikoan landutakoa; gorantz eta beherantz egiten du, uraren ertzera hurbiltzen eta urruntzen da txandaka, eta ziur aski hemengo gizon-arrazarik zaharrena bezain zaharra da, ehiztari aborigenen oinkadek sortua baita, eta lurraren okupatzaile garaikideek erabiltzen dute lantzean behin, guztiz ezjakin. Bereziki nabarmena suertatzen da bidexka hori baldin eta, neguan, lakuaren erdian zutik zaudelarik erreparatzen badiozu, elurte arin bat jausi berritan: lerro zuri bihurri baten gisa ageri da argi eta garbi, belarrak ez adarrek iluntzen ez dutelarik, eta aise ikusten da milia-laurden batetik begiratuta, nahiz eta udan eta gertutik bereizezina izaten den ia. Elurrak erliebe zuri eta argiekin estanpatzen du, nolabait esatearren. Egunen batean hemen eraikiko dituzten etxaldeetako lur apainetan ere gordeko da antzinako bide honen aztarrenen bat.

Lakua hazi egiten da, urritu ere bai, baina maiztasun jakin batean aldatzen ote den, eta zer garaitan, hori ez daki inork, nahiz eta, ohi bezala, jakitearen plantak egiten dituzten askok.

---

189 Hitz-jokoa: ingelesez, *fall* hitza erabiltzen da, zeinak bi esanahi iradokitzen baititu, gizakiaren erorialdia eta bekatu jatorrizkoa, batetik, eta udazkena eta migrazio-garaia, bestetik.

190 Parnaso mendiko iturria. Greziar mitologian sakratua zen Musentzat, handik eratortzen zen inspirazioa.

Neguan hazita eta udan urrituta egon ohi da, baina aldaketak ez du bat egiten hezetasun- eta lehorte-maila orokorrarekin. Akordatzen naiz bertan bizi izan nintzen garaian baino oin bat edo bi beherago egon izan dela, bai eta bost oin gorago ere gutxienez. Lakuaren azpitik badoa harea-banku estu bat, ur sakon-sakonak dituen alde batera; bertan jardun nintzen arrainez beteriko lapiko bat egosten saiatzen 1824. urtearen ingurumarian, ur-ertz nagusitik sei kanara gutxi gorabehera, eta hori egitea ezinezkoa izan da hurrengo hogeita bost urteetan; bestalde, lagunek sinesgaitz entzuten zuten nire azalpena, kontatzen nielarik handik zenbait urtera txalupa batean arrantza egitera joaten nintzela basoko koba ezkutu batera, berek ezagutzen zuten ertz bakarretik hamabost kanara: zelai bat da gaur egun toki hori. Baina lakua azkar hazten ari da azken bi urteetan, eta, orain, 1852ko udan gaudelarik, han bizi nintzenean baino bost oin gorago dago, edo duela hogeita hamar urteko neurriaren pare bestela, eta arrantzan jardun daiteke berriro zelaian. Hori kontuan hartuta, sei-zazpi oineko aldea dago uraren mailan, eta hala ere inguruko muinoetatik iristen den uraren kopurua hutsala da konparatuz gero; horregatik, iturri sakonei eragiten dieten kausetan bilatu behar dugu aldearen arrazoia. Atzera hasi da urritzen lakua uda honetan bertan. Aipagarria da, beraz, fluktuazio honek hainbat urte behar dituela guttiz burutzeko, prozesuaren maiztasuna edozein delarik ere. Hazialdi bat eta bi beheraldiren parteak ikusi ditut, eta uste dut hemendik dozena bat edo hamabost urtera ura berriro jaitsiko dela inoiz ikusi dudana punturik beherenera. Waldenen antzekoak dira Flint-en lakua, milia batera dagoena ekialderantz, eta beste laku ertain batzuk, ibaiadarrei eta isurbideei dagozkion desberdintasunak gorabehera, eta duela gutxi iritsi dira beren punturik gorenera, Waldenen prozesuarekin bat eginez hain zuzen. Eta gauza bera esan nezake, aztertu dudana- ren neurrian bederen, White lakuari buruz.

Walden epe luzetan hazteak eta urritzeak badu, behinik behin, erabilera bat: nola ura bere altuera maximoan egoten den urtebetez edo luzeago, lakuaren inguruan ibiltzea zailteaz gainera, suntsitu egiten dira uraren ertzean azken hazialdiaz geroztik ernatu diren zuhaixkak eta arbolak —pinuak, urkiak, haltzak, makalak eta beste mordo bat—, eta maila berriro jaisten denean, garbi geratzen da ur-ertza, zeren, beste laku askotan eta egunero



itsasgorak eta itsasbeherak izaten dituzten uretan ez bezala, ura punturik baxuenera iristen denean egoten da Waldeneko ertza inoiz baino garbiago. Nire etxetik gertu dagoen lakuaren inguruan hamabost oineko pinuen errenkada bat hil eta bota zuen urak, gainetik makina handi bat pasa izan baliote bezala; modu horretan eten zen zuhaitzen eraso, eta beren neurriak erakusten du zenbat urte igaro diren lakua halako altuerara igo zenetik azkenekoz. Fluktuazioaren bidez, ur-bazterren gaineko eskumena berresten du lakuak, arbolak bazterrean geratzen dira horrela, eta ezin dute jabetza-eskubiderik aldarrikatu. Lakuaren ezpainak dira, non ez baita hazten bizarrik. Tarteka milikatu egi-ten ditu. Ura gorenean dagoenean, hainbat oin luze diren sustrai gorri izpitsuen sortak jaurtitzen dituzte haltzek, sahatsek eta astigarrek uretarantz, beren enborreko edozein puntutik hasita, batzuetan baita hiruzpalau oineko altueratik ere, bizirik irauteko ahaleginean, eta jakin dut ur-ertzaren inguruko ahabia-zuhaixka handiek, normalean fruiturik ematen ez duten arren, uzta oparoa eskaintzen dutela egoera horretan.

Harritu egiten dira batzuk ikusirik ur-ertza modu erregularrean zolatuta dagoela. Nire herrikide guztiek ezagutzen dute azalpen tradizionala; zaharrenek esan didate gaztaroan entzun zutela istorioa: indiarrek, antzina, pow-wow<sup>191</sup> bat antolatu omen zuten hemen inguruko muino batean, zeina zerura altxatzen baitzen lakua lurrean hondoratzen den hein berean, eta era guztietako profanokeriak egin omen zituzten, nahiz eta indiarrek ez diren inoiz izan bizio horren mendeko, eta hala zebiltzala, inarrosi zen bat-batean muinoa eta hondoratu zen kolpetik; soilik indiar emakume bat atera zen bizirik, Walden izenekoa, eta haren omenez izendatu zuten lakua. Susmoen arabera, harriak beherantz amildu ziren muinoa inarrostean eta gaur egungo ur-bazterra osatu zuten. Egia erabatekoa da, edonola ere, garai batean ez zegoela lakurik hemen, eta orain badagoela, eta indiar fabula horrek ez diola kontra egiten, inongo alderditan, lehena-go aipatu dudan kolono zaharraren bertsioari, zeina ondo baino hobeto oroitzen zen nola iritsi zen hona estreinako aldiz, bere igarle-makila eskuan, eta nola ikusi zuen lurrun apal bat zingiratik altxatzen; makilak argi seinalatzen zuen beherantz, eta

---

191 Ipar Amerikako jatorrizko herrien festa tradizionala.

erabaki zuen putzu bat egitea hementxe. Harriei dagokionez, askok uste dute zaila suertatzen dela haien presentzia justifikatzea olatuek muinoetan izan duten eraginaren haritik, baina ohartu naiz inguruetak muinoetan harri-mota hori nabarmen ugaria dela —hainbeste, non lakutik gertuen dagoen trenbidearen eraikuntzan alde banatara pilatu behar izan baitutuzte era horretako harriak, hormak osatuz—, eta, gainera, ur-ertza pikoe-na den lekuetan dago harri gehien; beraz, zoritxarrez, niretzat jada ez dago misteriorik kontu horri dagokion bezainbatean. Badakit nor den zolatzaila.<sup>192</sup> Izenaren jatorria ez baldin bada ingeles herrixkaren bat —Saffron Walden,<sup>193</sup> esaterako—, pentsa genezake *Walled-in* lakua<sup>194</sup> deitzen zela jatorriz.

Lakua nire putzua zen jada zulatua. Urtean lau hilabetez, hotz-hotza egoten da ura, urte osoan purua izaten den neurri berean, eta uste dut herriko beste edozein bezain ona dela, denetan onena ez bada. Neguan, airearekin kontaktuan dagoen ura hotzagoa izaten da babesean dauden iturriak edo urmaelak baino. 1846ko martxoaren 6an, lakuko urez beteriko ontzi bat eduki nuen etxean, arratsaldeko bostetatik biharamunekoa eguerdira arte —kontuan izan tarte horretan 65-70 fahrenheit gradura igo zela etxeko termometroa, eguzkiak teilatuan ematearen eraginez hein batean—, bada, egoera horretan uraren temperatura 42 gradu izan zen, hots, herriko putzurik hotzenetik atera berri zen ura baino gradu bat baxuagoa. Egun berean, Boiling-eko iturburuko temperatura 45 gradu izan zen; inoiz probatu dudana urik beroena, nahiz eta udan horixe izaten den hotzena, azaleko ur geldoarekin nahasten ez denean.<sup>195</sup> Bestalde, udan Waldeneko ura ez da berotzen eguzkiaren eraginpean dauden putzu gehienak bezala, sakon-sakona baita. Eguraldi epela egiten zuenean, ontzi bete ur jartzen nuen sotoan, gauetz hoztu zedin, eta hala irau zezan egunean zehar; auzoko iturrira jotzen nuen orobat

---

192 Glaziarren ekintzari buruzko teorian balizko aipamena. 1848tik aurrera ezagutarazi ziren batez ere, Harvardeko irakasle Louis Agassiz-en bitartez. Thoreauk kontaktua izan zuen harekin.

193 Essex konderriko herria (Ingalaterra).

194 Hitz-jokoa: laku harresiztatua esan nahi du, eta Walden izenaren antza du fonetikoki.

195 AEBn fahrenheit graduak erabiltzen dira temperatura unitate gisa; eskala horretan, uraren izozte-puntua 32 gradutan dago, eta irakitearena, berriz, 212tan. Pasarte horretako temperaturak hauek lirateke, Celsius gradutan: 18-20 gradu, 6,4 gradu eta 7,2 gradu.

noizean behin. Ur bikaina zen, ateratzen nuen egunean bezala astebete beranduago, eta ez zuen punparen metal-kutsuaren arrastorik. Udan laku baten ertzetik gertu kanpatzen duen edonork aski izango du hainbat oineko sakonera duen zulo bat egitea bere kanpin-dendaren itzalean eta bertan gordetzea balde bete ur, hala eginez gero ez baita izango izotzaren luxuaren mendeko.

Arrantzatu dituzte lutxoak Waldenen, hala nola zazpi librado bat eta txirrika abaila bizian desagerrarazi zuen beste bat —zortzi libra pisatzen zituela estimatu zuen arrantzaleak, ez baitzuen egiaz ikusi—; arrantzatu dituzte perkak eta abadirak —bi librako pisura iristen ziren batzuk—, barboak eta zarboak (*Leuciscus pulchellus*), brema gutxi batzuk, eta pare bat aingira, haietako bat lau libra pisatzen zituena —pisuaren kontuarekin tematzen naiz normalean horixe bakarrik aipatzen delako arrainez hitz egitean, eta inguru honetan behintzat aingira hauen berri izan dut soilik—; halaber, gogoan dut, lausoki bada ere, badirela beste arrain txiki batzuk, bost hazbete luze direnak; alde zilarkarak eta bizkarra berde-antzekoa izanik, lazunaren traza dute, eta egitateak eta fantasia lotzeko aipatzen ditut hemen gehienbat. Hala eta guztiz ere, laku hau ez da oso oparoa arrainei dagokionez. Bertako lutxoak dira harrotasun-motibo nagusia, ugariak ez izan arren. Behin batean gutxienez hiru motako lutxoak ikusi nituen izotzean: bata luzea eta zapala zen, altzairuaren kolorekoa, gehienbat erreketan arrantzatzen direnen tankerakoa; beste bat, berriz, argia eta urrekara zen, kutsu berdexka batekin eta sakon-sakona —horixe da arruntena hemen—; eta bazen beste bat urrearen itxura betea zuena, azkenaren forma berekoa, baina tanto marroi ilunak edo beltzak zeuzkan aldeetan, beste gorri-ka batzuekin tartekatuta, amuarrainen antz handikoa. Azken horri ezin dakioke *reticulatus*<sup>196</sup> izen espezifikoa eman, aproposagoa litzateke *guttatus*.<sup>197</sup> Arrain sendo-sendoak dira denak, eta beren tamainak iradokitzen duena baino gehiago pisatzen dute. Zilar-arrainak, abadirak eta perkak, bai eta laku honetan bizi diren arrain guztiak ere, askoz garbiagoak, ederragoak eta mami-itsuagoak dira erreketan eta beste laku gehienetan bizi direnak baino, puruagoa delako hemengo ura, eta erraza da batzuk eta

196 Latinez, sarearen antzekoa. Lakuko beste espezie baten izen zientifikoari erreferentzia (*Esox reticulatus*).

197 Latinez, tantoak edo pinportak dituen.

besteak bereiztea. Iktiologo askok aldaera berriak identifikatuko lituzkete hemen ziur aski. Era berean, bada igelen eta dortoken arraza garbi bat, eta muskuilu banaka batzuk; lakuaren inguruan ibiltzen dira arratoi musketadunak eta bisoiak, eta noizean behin musker-dortokaren bat etortzen da bisitan. Batzuetan, txalupari bultza egin goizean, eta gaua igarotzeko haren azpian ezkutatutako musker-dortokaren bat gogaitzen nuen. Ahateak eta antzarak saldoka etortzen dira udaberrian eta udazkenean, uretatik hurbil-hurbil pasatzen dira bular zuriko enarak (*Hirundo bicolor*), eta kuliska pikardatua (*Totanus macularis*) firin-faran ibiltzen da uraren ertz harritsuan uda osoan. Uxatu dut, noiz edo noiz, pinu zuri baten adarrean jarritako arrano arrantzaleren bat, baina ez dut uste kaio baten hegoak Walden inoiz profanatu duenik, Fair Havenen gertatzen den moduan. Gehienez ere, alio-ta bat urtean onartzen du gure lakuak. Horiek dira, beraz, orain laku inguruan ibiltzen diren animaliarik aipagarrienak.

Beharbada ikusiko dituzu, txalupa batean jartzen bazara egun argi batean, ekialdeko ertz hareatsutik hurbil, non urak zortzi edo hamar oineko sakonera baitu, eta lakuaren beste gune batzuetan orobat, dozena erdiko diametroa eta oin bateko altuera duten konkor biribil batzuk, harri txikiz osatuak, eta haien inguruan hondarra baino ez. Hasieran pentsa dezakezu agian indiarrek sortu zituztela halakoak izotzean, helbururen baterako, eta izotza urtzean hondoraino joan zirela, baina erregularregiak dira, eta batzuk berriegiak. Erreketako harri-mordoen antzekoak dira, baina hemen ez dagoenez erromerorik ez lanproirik, ez dakit nolatan sortuko ziren. Katxoen habiak dira akaso. Misterio atsegin bat eransten diote lakuaren hondoari.

Monotonia ez suertatzeko besteko irregularra da ur-ertza. Badia sakonak osatzen ditu mendebaldean, eta zorrotza da iparraldean; hegoaldean, berriz, azpildura eder askoak agertzen ditu, eta lurmuturrak elkarri gainjartzen zaizkio, tartean kala esploratu gabeak daudela iradokiz bezala. Laku baten erdigunetik, zeinaren ur-ertzetik beretik altxatzen baitira muinoak, hortixe erreparatzean erakusten du basoak bere itxurarik ederra, eta ez bakarrik uraren islak lehen plano bikain bat eskaintzen duelako, ezpada ur-bazterra delako basoaren mugarik natural eta atseginena. Ertz horretan ez dago gordintasunik ez eta inperfekziorik ere, aizkorarekin argiune bat zabaltzen denean edo soro batek

laku batekin muga egiten duenean ez bezala. Zuhaitzak lasai hedatu daitezke uraren alderantz; haraxe bideratzen dituzte, hain zuzen ere, beren adarrik indartsuenak. Naturak bazter bat bilbatu du berez, eta begirada arian-arian altxatzen da behealdeko zuhaixketatik zuhaitzik garaienetara. Gizonaren aztarna gutxi ikusten da hemen. Duela mila urte egiten zuen era berean garbitzen du urak ertza.

Lakua da paisaia baten ezaugarririk ederrena eta adierazkorrena. Lurren begia da: haren barnera begiratuta neurtzen du behatzaileak bere zerizanaren neurria. Ertzaren inguruko zuhaitz urtarrak, berriz, betileen modukoak dira, eta muinoak zein labarrak, aldiz, bekainak.

Lakuaren ekialdeko hondartza leun batean eserita nengoelarik irailleko arratsalde bare batean, beste aldeia ikusgaitz agertzen zitzaidalarik lanbro fin baten ondorioz, ohartu nintzen zer dela-eta konparatzen den lakuaren ur-gaina ispiluarekin. Buruz behera jarriz gero, badirudi gaza-haririk finena zabaldu dutela haranean zehar, eta distira egiten duelarik urruneko pinudien aurka, atmosferaren bi estratu banatzen dituela. Une batez pentsa zenezake haren azpitik igaro zintezkeela busti gabe, beste aldeko basora iristeraino, eta uretan pausatutik daudela egiaz haren gaintik hegan dabiltzan enarak. Hain justu ere, zerumugan murgiltzen dira batzuetan, okertu balira bezala, eta ez dute desengainurik hartzen. Lakuaren gaintik begiratzen duzularik mendebalderantz, bi eskuak baliatu behar dituzu zure begiak babesteko ez bakarrik eguzkiaren eraginetik, ezpada haren argiaren islatik orobat, biak baitira argiak neurri berean, eta hatzen artetik begiratu arreta handiz aztertzen baduzu lakuaren azala, beira bezain leuna dela egiaztatuko duzu, salbu eta toki jakin batzuetan, zeinetan intsektu irristariek, erregulariki sakabana-turik laku osoan zehar, distirarik finena sortzen baitute beren mugimenduekin; edo, menturaz, lumak astinduko ditu ahate batek, edo, esan dudan moduan, uretatik gertu-gertu pasako da enara bat, eta ukitu ere ukituko du lakuaren gaina. Gerta liteke arrain batek hiruzpalau oinako arku bat egitea airean: distira argi bat ikusiko da azaleratzen den tokian, eta beste bat uretara sartzen denean berriro; beste batzuetan, aldiz, zilarrezko arku osoa ikusiko da, edo, beharbada, han eta hemen, kardulatz bat uraren gainean flotatzen, eta arrainek dardara bat eragingo dute

hura harrapatzeko borrokan. Kristala urtu eta hoztu dela dirudi, guztiz solidotu gabe, eta bertako tanto bakanak puruak eta ederrak dira beiraren inperfekzioak nola. Atzeman daitezke ur are leunagoak eta ilunagoak, gainerako uretatik banatzen direnak armiarma-sare ikusezin batek bereiziko balitu bezala, zeinetan bizi diren ninfa urtarrak. Ikus daitezke arrainen jauziak nahinon, muino-tontor batetik begiratuta, lakuaren oreka hankaz gora jartzeko aski baita lutxoek eta zilar-arrainek zomorro bat harrapatzea ur-azalean. Miragarria da nolako zehaztasunarekin nabaritzen den arrainen erailketa-ekintza; nire talaia urrunekotik gai nintzen uraren uhin zirkularrak ikusteko, dozena-erdi kanako diametrokoak. Atzeman daiteke, are, nola mugitzen den uretako zimitza (*Gyrinus*) tai gabe ur-azal leunaren gainetik, milia-laurden bateko distantziara egonda ere, ubera nabarmen bat eratzen baitu uretan, bi lerro dibergentek mugatua; zomorro irristariak, aldiz, arrastorik utzi gabe lerratzen dira. Ura nahasita dagoenean ez da bertan ibiltzen irristaririk ez uretako zimitzik, baina, itxura denez, beren kaletatik ateratzen dira egun bareetan eta ertzetik urruti joatera ausartzen dira, beste aldera iritsi arte. Udazkeneko egun atseginetan, zeinetan eguzkiaren epeltasuna bete-betean estimatzen baita, zeregin lasaigarria da motzondo garai samar batean esertzea, lakuari so, eta azalean etengabe sortzen diren zirkuluak aztertzea, azala bera ikusezina gertatzen baita osterantzean, zeruaren eta zuhaitzen islarekin. Ez du ezerk gogaitzen hedadura handi hau, berehala berdintzen eta leuntzen baita, nola gertatzen den edalontzi bete uren bibrazioarekin: zirkulu dardaratiek berehala bilatzen dute bazterra, eta bare-bare geratzen da berriz guztia. Ez dago arrainen jauzirik ez intsektuen erorketarik lakuaren azalean zirkulu-forman erregistratzen ez denik, edertasun-lerroak sortuz, horien mendekoa balitz bezala lakuaren iturriaren emari konstantea, haren bizitzaren pultsu lasaia edo haren bularraren taupada. Ezin dira bereizi zeintzuk diren pozezko dardarizoak eta zeintzuk dagozkion minari. Bai baketsuak lakuko fenomenoak! Gizonaren lanak distira egiten du udaberrian bezala. Oi!, distira egiten du orain, arratsaldearen erdian, hosto, adaxka, harri eta armiarma-sare orok, udaberriko goizetan ihintzak estaltzen dituenen nola. Arraunen zein intsektuen mugimenduek argialdi bat eratzen dute, eta, arrauna eroriz gero, bai oihartzun gozoa!

Halako egunetan, irailean edo urrian, basoaren ispilu perfektua da Walden, harri ederrez inguratirik, zeinak ez bairirateke ederragoak izango bitxiagoak edo eskasagoak balira. Lurraren azaleran ez da, menturaz, laku bat baino gauza ederrago, puruago eta aldi berean handiagorik. Zeruko ura. Hesirik ez du behar. Badatoz eta badoaz nazioak eta ez dute lohitzen. Ispilu hau ezin du ezein harrik arrakalatu, haren zilarbizia ez da inoiz ahituko, etengabe berritzen baitu naturak; ez dago ekaitzik ez hautsik haren azal beti freskoa ilun dezakeenik; ispilu honetan zikinkeria guztiak hondoraten dira, eguzkiaren orraziak erraztatzen eta botatzen ditu, zapi arin eta argitsu batek nola. Ez du kiratsik hartzen, bere hatsa bidaltzen du hodeien moduan flota dezan lakuaren gainean, eta bere bularrean isla dadin.

Ur-masa orok salatzen du zer espiritu dabilen airean. Bizitza eta mugimendu berriak jasotzen ditu etengabe goitik. Bitartekari bat da berez, lurraren eta zeruaren artean egonik. Lurraren gainean soilik belarra eta zuhaitzak kulunkatzen dira, baina ura bere kabuz biribiltzen da haizearen igaroarekin. Ikusten dut non zeharkatzen duen brisak, sortzen dituen lerroen eta argien bidez. Harrigarria da nola gauza izan gaitezkeen ur-azalari begiratzeko. Agian egunen batean gai izango gara horrelaxe begiratzeko orobat airearen azalari, eta markatu ahal izateko non zeharkatzen duen espiritu are sotilago batek.

Irristariak eta uretako zimitzak urriaren amaiera aldera desagertzen dira, izotzaldi bortitzekin batera; hortik aurrera, eta azaroan berdin, egun lasaietan, ez da izaten ur-gaina dardarikatzen duen ezer. Azaroko arratsalde batean, hainbat egunez luzatu zen eurite baten osteko baretasunean, artean zerua guztiz estalirik zegoelarik, eta airea, berriz, ganduturik, jabetu nintzen nabarmenki leun zegoela lakua, hainbeste non zaila gertatzen baitzen azala bereiztea, nahiz eta ez zituen jada islatzen urriko kutsu argiak, ezpada inguruko muinoen azaro-kolore ilunak. Albait leunen igaro nintzen ur-azalaren gainetik, baina, halere nire ikusmen-eremu osoan zabaldu ziren txalupak eragindako uhin apalak, eta islek halako itxura ildodun bat hartu zuten. Baina azalaren gainetik begira ari nintzela, distira arin batzuk ikusi nituen han-hemen, izozteei ihes egindako irristari batzuk han bildu izan balira bezala; osteria, izan zitekeen ur-gainak, hain-hain laua izanik, hondotik gorantz zetorren iturri baten

presentzia salatzea. Toki horietako batera gerturatu nintzen, arraunei mantso eraginez, eta harritu nintzen ikusirik milaka perkak inguratzen nindutela; bost hazbete luze izango ziren, eta brontze-kolore bizi bat erakusten zuten ur berdean: jolasean zebiltzan, etengabe igotzen ziren azalera eta nahasten zuten, bai eta burbuilen arrasto bat utzi ere atzetik. Ur garden eta itxuraz hondorik gabeko hartan, lainoen isla zen hartan, bazirudien airean barna flotatzen nebilela, globo batean bezala, eta iruditzen zitzaidan, beraz, arrainak ez zirela igerian ari, hegan baizik, txori-saldo trinko baten antzera, nire ezkerretik edo eskuinetik pasaz hegalak zabalik. Halako sarda asko zeuden lakuan, etekina atera nahian neguak zeruaren ikuspegia izotz-geruza batekin estali aurreko sasoi laburrari, eta batzuetan ematen zuen brisa bare batek mugiarazten zuela ura, edo euri-tanta batzuk jausi zirela bertan. Zabarki gerturatu eta asaldatzen nituenean, isatsa astintzen zuten txipli-txaplaka, norbaitek urari eragin izan bali bezala adar sendo batekin, eta ur sakonetan gordetzen ziren berehala. Altxatu zen haizea azkenean, trinkotu zen lanbroa eta sortu ziren olatuak, eta perkak lehen baino askoz gorago jauzi egin zuen, gorpuz-erdia ateraz kanpora: hiru hazbete luzeko ehun trazu beltz uraren gainean. Urte batean, abenduaren bostean ere ikusi nituen elutxa batzuk ur-azalean, eta pentsatuz berehala euria hasiko zela gogotik, airea ganduz beterik baitzegoen, presatuta heldu nien arraunei etxera itzultzeko; bazirudien unetik unera lehertuko zela, nahiz eta ez nuen tanto bakar bat ere nabaritzen masailetan, baina mela-mela eginda amaituko nuela aurreikusi nuen. Tupustean, ordea, elutxak desagertu ziren, perkek sortutakoak baitziren, eta arrainek sakonera ihes egin baitzuten nire arraunen soinua aditu bezain pronto; hala, ikusi nuen nola desagertzen ziren sardak, eta lehor igaro nuen arratsaldea azkenean.

Adineko gizon batek,<sup>198</sup> zeina laku honetara etorri ohi baitzen duela hirurogei urte luze, hau basoz inguraturiko eremu ilun bat zenean, esan zidan bizi-bizi egoten zela ingurua garai hartan, ahatez eta beste uretako txori batzuez josirik, eta arranoak ere ibiltzen zirela jirabiraka. Arrantza egitera etortzen omen zen

---

198 John Wyman (1730-1800), Walden lakuaren ondoan eraiki zuen bere etxea 1787an, Abel Prescott (1718-1805) doktorearen jabetzako lurretan. Thoreauk berriro aipatzen du «Aurreko biztanleak eta neguko bisitariak» kapituluan.



bera, eta ur-ertzean topaturiko enborrezko kanoa zahar bat erabiltzen zuen. Pinu zuriz eginda zegoen: bi enbor hustu, ahokatu, eta muturrak moztuta sortua zen. Baldarra zen arrunt, baina hainbat urtez iraun zuen, harik eta urez bete eta hondoratu-edo egin zen arte. Gizonak ez zekien norena zen kanoa; lakuaren jabetza zen. Aingurarentzako soka bat egin ohi zuen intxaurrondo-azalen zerrendak elkarri lotuz. Agure batek, zeramikaria, zeina lakuan bizi izan baitzen Iraultza<sup>199</sup> baino lehen, azaldu zion altzairuzko kutxa bat zetzala lakuaren hondoan, eta ikusi egin zuela. Kutxak ertzeraino flotatzen zuen batzuetan, baina haren bila abiatzen bazinen, ur sakonetan murgiltzen eta desagertzen zen berriro. Pozten ninduen egurrezko kanoa zaharraren berri izateak; kanoa indiarra ordezkatu zuen, zeina material berdinarekin egin izan arren kaskarragoa baitzen; menturaz, kanoa indiarra ur-ertzeko zuhaitz bat izango zen lehenik, uretara jausi eta han flotatzen ibili zena belaunaldi baten esanetara, lakurako itsasontzirik aiproposena. Gogoan dut ur sakonotara lehen aldiz begiratu nuenean enbor handi ugari ikusi nuela hondoan etzanik, haizeak botatakoak edo azken mozqueta-sasioan izotzaren gainean utzitakoak —egurra merkeagoa zen orduan—, baina orain apenas geratzen den halakorik.

Estreinakoz arraun egin nuenean Waldenen, osorik inguratzten zuten lakua pinudi eta harizti trinkoek; zenbait kalatan, mahatsondoak hazi ziren uraren alboko zuhaitzen artean, eta adarren azpitik pasa zintezkeen txaluparekin. Ertzeko muinoak hain dira pikoak, eta muinoetako zuhaitzak hain ziren garaiak orduan, ezen, mendebaldeko muturretik begiratzen zenuenean, anfiteatro bat ematen baitzuen, baso-ikuskitzen baterako prest. Gazteagoa nintzenean ordu mordo bat igaro nuen azal horretan flotatzen Zefiroaren<sup>200</sup> kapritxoan mendean; erdiguneraino arraun egiten nuen eta txalupako eserlekuen artean jesartzen nintzen udako goizetan, esna nengoelarik amets eginez, harik eta txalupak harea jo eta altzarazten ninduen arte; esnatzen nintzen, bada, eta ikusten nuen zer ertzetara eramanez ninduen patuak; egun haietan alferkeria zen lanik erakargarriena eta emankorre-na. Goiz asko lapurtu nituen, nahiago nuelako modu horretan

---

199 Amerikako Iraultza (1765-1783).

200 Greziar mitologian, mendebaldeko haizeen jainkoa.

pasa egunaren zatirik preziatuena; izan ere, aberatsa nintzen, dirutan ez, baizik eguzki-ordutan eta uda-egunetan, eta ederki baliatzen nituen; ez naiz damutzen udako goiz gehiago ez xahutu izanaz lantegian edo irakaslearen mahaian. Baina nik ertz horiek utzi ditudanez geroztik egurgileek are gehiago ustiatu dituzte eta hainbat urtez ez da aukerarik izango basoko korridoreen artean alderrai ibiltzeko eta tartean behin uraren ikuspegiaz gozatzeko. Nire Musa barkatuta dago baldin eta hemendik aurrera isilik geratzen bada. Nolatan kantatuko dute bada txoriek, arboladiak moztu badizkiete?

Joanak dira orain lakuaren hondoko zuhaitzak, egurrezko kanoa zaharra eta inguruko baso ilunak; herritarrak, bestalde, nekez dakitelarik lakua non dagoen, ez dira joaten bertara bainatzeraz ezta edatera ere, eta horren ordeztantsatu dute lakuko ura, gutxienez Gangesa bezain sakratua izan behar lukeena, herrira garraiatzea hodi baten bidez, zertarako-eta platerak garbitzeko! Txorrita irekitze hutsarekin eskuratzeko beren Waldena! Burdinazko Zaldi deabruzkoak, zeinaren irrintzi gorgarria herri osoan entzuten baita, Boilingeko iturburua lokaztu du bere ibilerrarekin, bai eta Waldeneko ertzeko baso guztiak induskatu ere; zaldi troiarra, milaka gizon sabelean, greziar mertzenarioen trinkimailua! Non dago herrialde honetako heroia, Moore muinoko Moore,<sup>201</sup> zeinak Deep Cut-en<sup>202</sup> eraso egin eta lantza mendekari bat sartuko baitio saihetsen artean piztia puztuari?

Alabaina, ezagutzen ditudan izaera guztien artean, Walden da agian bere purutasunari hobekien eusten diona. Gizon asko alderatu dituzte harekin, baina gutxi batzuei dagokie ohorea. Nahiz eta egurginek hutsik utzi duten lehenik ur-ertz hau eta ondoren beste hura; nahiz eta irlandarrek haren ondoan eraiki dituzten beren etxolak; nahiz eta trenbidea haren muga zeharkatu duen; nahiz eta izotzaren merkatariak harekin zortetan dauden oraindik, lakua bera ez da aldatu, nire begi gazteek so egindako hura izaten jarraitzen du; nigan gertatu da aldaketa oro. Lakuari, uhinak uhin, ez zaio zimur ezabaezinik atera. Gaztea da betirako, eta lehen ikusten nuen bezalaxe ikus dezaket

---

201 «The Dragon of Wantley» ingeles baladako heroia. Piztiari gailendu zitzaion, haren puntu ahul bakarrari eraso eginez: ahoa edo ipurdia, bertsioaren arabera.

202 «Ebaki sakona», esan nahi du hitzez hitz. Lakuaren ipar-mendebaldeko leku bat da, zeinean lurra zulatu baitzuten, azalera berdintzeko eta trenbidea egiteko.

orain ere nola hurbiltzen den enara bat ur-azalera zomorro bat harrapatzera. Ikuskizunak berriro txunditu nau iluntze honetan, hoguei urtean ikusi ez banu bezala: hara, hemen dago Walden, aspaldi deskubritu nuen baso arteko laku berbera; iragan neguan zuhaitzia moztu zuten toki berean haziko da beste bat orain, ur-bazterrean, beti bezain trinko; garai hartako pentsamendu bera azaleratzen da orain ere; poz eta bozkario likido berbera da beretzat eta bere Egilearentzat, eta, ene, *agian* baita niretzat ere. Gizon ausart baten larena da ziur, zeinaren baitan ez baitzegoen iruzurrik! Bildu zuen ur hau bere eskuarekin, sakondu eta argitu zuen bere pentsamenduan, eta Concordi utzi zion oinordetzan. Hausnarketa berbera dakusat bere bisaian, eta esan nahi diot: Walden, zu al zara?

Nire ametsa ez da  
bertso bat apaintzea  
Waldenen bizitzea da;  
zerua eta Jainkoa gertu izateko modua.  
Haren ur-ertz harritsua nauzue,  
eta gainetik igarotzen zaion brisa.  
Gordetzen ditut nire esku ahurrean  
hango ura eta hondarra;  
haren babeslekurik sakonena  
nire pentsamenduaren gorenean dagoena.<sup>203</sup>

Bagoiak ez dira inoiz geratzen lakuari begiratzera, baina irudipena dut ingeniariak, suhiltzaileak eta balaztazainak, bai eta denboraldi osorako bidaia-bonu bat dutenak ere, gizon hobekak direla lakua maiz ikustearen poderioz. Gaua iristean, ingeniariak ez du ahaztuko —edo bere izateak behintzat ez du ahaztuko— halako baretasun- eta purutasun-ikuspegi bati so egin diola egunean behin bederen. Behin bakarrik ikusi arren, lagungarria suertatuko zaio State kalea<sup>204</sup> eta tren-makinaren kedarra gainetik kentzeko. «Jainkoaren tanta» dei dakion proposatu zuen batek.<sup>205</sup>

---

203 Thorearen beraren poema.

204 Bostoneko finantza- eta merkataritza-gunearen bihotza.

205 Ralph Waldo Emerson (1803-1882) estatubatuar idazle eta filosofoak esan zuen ziur aski. Thorearen mentorea eta lagun mina izan zen.

Esana dut Waldenek ez duela ibaiadar ez hustubide ezagunik, baina, alde batetik, zeharka loturik dago, urmael txikiagoen kate baten bidez, Flinten lakuarekin, zeina Walden baino gorago baitago; bestetik, zuzenean eta ageriko moduan loturik dago Concord ibai baxuagoarekin, antzeko urmael-kate bat dela kausa, eta baliteke ibilgu horretan barna ibili ere ibili izana beste garai geologiko batean; are, zulaketa batzuk eginez gero —Jainkoak debeka dezala— berriro ere ibil liteke harantz. Waldenek, hain gorderik eta hain modu soilean iraun izanik, ermitau bat nola basoan, halako purutasun ederra eskuratu badu, ez al litzateke gaitzesgarria izango Flinten lakuko ur erlatiboki lohiekin nahastea, edo Waldenek berak bere gozotasuna galtzea ozeanoko olatuen artean?



Flinten lakua, edo Laku Hareatsua, gure lakurik handiena, gure barne-itsasoa, Lincoln dago, Waldenetik milia batera ekialderantz. Askoz handiagoa da Walden baino, ehun eta lau rogeita hamazazpi akreko edukiera duela diote, eta joriagoa da arrainei dagokionez; halere, azalekoagoa da, eta ez oso purua. Maiz entretenitzen nintzen paseo bat eginez hara basoan barna. Merezi zuen joatea haizearen fereka askea nabaritzeko masailean, olatuak ikusteko lasterka eta marinelen bizimoldeaz oroitzeko; horretarako behintzat. Udazkenean gaztaina biltzera joaten nintzen hara haize-egunetan; lakura erortzen ziren fruitu-aleak, eta nire oinetaraino ekartzen zituzten olatuek; behin batean, aurrera egiten nuelarik hango ur-ertz ihiz josian barna, bitsa aurpegian, aurkitu nituen txalupa baten hondakin lizunduak: txaluparen bi aldeak desagertuak ziren, eta apenas geratzen zen haren hondo zapalaren aztarnarik landarediaren artean; haatik, argi bereizten zen haren tankera, nenufar handi eta erori bat balitz bezala, zaina eta guzti. Itsasertzean ikus zitezkeen naufragioak bezain txundigarria zen, eta ikaskizun neurri berean eraginkor bat iradokitzen zuen. Lizun begetala baizik ez zen ordurako, lakuaren bazterretik bereizezina; haren gainean haziak ziren ihiak eta ezpata-belarrak. Miretsi ohi nituen hondo hondartsuko uhin-markak lakuaren iparraldean, zeinak uraren presioaren eraginez finakoak eta gogorrak baitziren bainulariaren oinentzat; miretsi ohi nituen, halaber, bata bestearen atzean eta

bihurguneak sortuz hazten ziren ihiak; uhin-markei zegozkiela ematen zuen, lehenik ilara bat eta gero beste bat, olatuek berek landatu balituzte bezala. Orobat aurkitu nituen han, kopuru aipagarritan, bola bitxi batzuk, belar finez edo sustraiez osatuak itxuraz —txilarrez beharbada—, hazbete-erdi eta lau hazbete bitarteko diametroarekin eta zeharo esferikoak. Aurrera eta atzera mugitzen dira ur azalekoetan, hondo hareatsuaren gainean, eta batzuetan ertzerraino iristen dira. Belar hutsez osaturik daude, edo harea apur bat izan dezakete erdigunean. Pentsatzekoa litzateke, hasieran behintzat, olatuen mugimenduek eratuak direla, hartxintxarrak bezala, baina txikienak ere —hazbete-erdiko luzera dute— material gordin-gordinez eginda daude, eta urteko sasoi bakar batean sortzen dira. Gainera, susmoa dut olatuek eraiki ez baizik higatu egiten dituztela material trinkoak. Bolada zehaztugabe batez lehor egoten badira eutsiko diote halako materialek beren formari.

*Flinten lakua!* Horra hor gure nomenklaturaren txirotasuna. Zer eskubide zuen nekazari zikin eta ergel horrek, zeinaren etxaldeak muga egiten baitzuen ur zerutiar honekin, zeinak gupidagabe garbitu baitzituen laku honen bazterrak, bere izena jartzeko lakuari?<sup>206</sup> Diruzale zekena, lakua baino gehiago maite zuen dolar baten edo zentimo distirant baten azalera, bere aurpegi lotsagabea bertan islatzeko; sarkintzat jotzen zituen baita ahate basatiak ere; garren tankera bihurritua hartu zuten gizon haren hatzek, gauzei harpien<sup>207</sup> antzera eustearen poderioz. Neuk ez diot izen horrekin deitzen lakuari. Ez naiz hara joaten gizon hori ikustera eta haren berri izatera, hark ez baitzuen sekula ikusi lakua, ez zen han bainatu, ez zuen maitatu, ez zuen babestu, ez zuen hitz onik esan haren alde, ez zizkion eskerrak eman Jainkoari hura sortzeagatik. Hobe litzateke bertan bizi diren arrainen izena ematea, hara etortzen diren hegazti basatiarena edo lau hankako animaliena, bazterrean hazten diren basaloreena, edo bizi-historia lakuarekin berarekin txirikordaturik dagoen beste gizon edo haur batena; ez diezaiogun deitu beste gizaseme horren izenarekin, ez baitagokio hari lakua; jabetza-titulu bat baino ez dauka, soka bereko auzokide batek edo ganbera lege-

---

206 Thomas Flint (1603-1653).

207 Greziar mitologiako pertsonaiak. Deabru hegodunak ziren eta atzapar zorrotzak zituzten.

gileak emana. Gizon horrek lakuaren diru-balioa baino ez zuen aintzat hartzen, haren presentziak goitik behera madarikatu zuen ur-ertza, inguruko lurrak agortu zituen eta gogotik ahitu izango lituzke lakuko urak ere, sarale- edo ahabia-zelai bat ez izatea deitoratuz; haren arabera, lakuan ez zegoen ezer estimagarririk; drainatu egingo luke osorik, hondoko lokatza saltzeko. Lakuko urak ez zuen haren errota birarazten, eta ez zitzaion *pribilegio* bat iruditzen lakuari begiratzea. Ez dut errespetatzen haren lana, haren etxaldean gauza orok baitu prezioa; gizon horrek merkatura eramango zukeen bere inguruko paisaia, baita bere Jainkoa ere, baldin eta etekinak lortuko balitu modu horretan; merkaturia da ezagutzen duen jainko bakarra. Gizon horren etxaldean ez da ezer hazten libreaki, haren baratzeek ez dute ematen uztarik, ez larreek lorerik, ez zuhaitzek fruiturik, soilik dolarrak; gizon horrek ez du maite bere fruituen edertasuna, bere iritziz fruituak ez baitira heltzen harik eta dolar bihurtzen diren arte. Emadazu egiazko aberastasunaz gozatzen duen pobrezia. Beren pobrezia-erakiko proportzioan iruditzen zaizkit nekazariak errespetagarriak eta interesgarriak, nekazari pobreak badira alegia. Etxalde eredugarri bat! Etxea onddoa nola altxatzen da simaur gainean, han gordetzen dira gizonak, zaldiak, idiak eta zerriak, garbi zein lohi, elkarren alboan denak! Gizonez ondo horniturik! Leku koipetsu bat, simaurraren eta esne-gazuraren kiratsa dariola! Zibilizazio-maila goren baten pean, gizonen bihotz-garunez ongarriturik! Hilerrian patatak haziko bazenitu bezala! Horra hor etxalde eredugarri bat.

Ez, ez; gizonen izena jartzen bazaie paisaiarik ederrenei, izan dadila gizonik noble eta duinenena bakarrik. Jaso ditzatela gure lakuek izen egiazkoak, Ikariar itsasoaren<sup>208</sup> parekoak, zeinaren «ertzean ahalegin ausart baten oihartzuna»<sup>209</sup> aditzen baita oraindik.



Goose lakua,<sup>210</sup> laku txikiagoa, Flintenera bidean dago; aldiz, Fair Haven —Concord ibaiaren hedadura bat, hirurogeita

---

208 Egeo itsasoaren zati bat, greziar mitologiako Ikaro pertsonaiaren omenez izendatua.

209 William Drummond of Hawthornden (1585-1649) Eskoziako poetaren «Icarus» laneko aipua.

210 Antzararen Lakua.

hamar akre inguru estaltzen omen dituen—, milia batera dago hego-mendebaldera, eta White lakua, zeinak berrogei akre baititu gutxi gorabehera, Fair Havenetik milia eta erdira. Horiek dira nire lakuak. Horiek dira, Concord ibaiarekin batera, nire pribilegio hidrikoak,<sup>211</sup> eta gaez zein egunez, urteak joan eta urteak etorri, ekartzen diedanaren neurriko uzta ematen dute.

Nola egurginek eta trenbideak, eta neronek ere bai, profanatu dugun Walden, baliteke orain White lakua izatea lakurik ederrena guztien artean, basoetako harribitxia; izen eskasa du, guztiz arrunta, berdin du zergatik jarri zioten: uraren araztasunagatik edo harearen koloreagatik. Alderdi honi eta beste batzuei dagokionez, Waldenen biki txikia da halere. Hain antzekoak dira, lurrazpitik loturik egon behar dutela pentsatzen baituzu. Biek dute ur-bazter harriz betea, eta ura urdin-urdina da batean nola bestean. Waldenen bezala White lakuan ere, sargori egiten duen egunetan badiei erreparatzen badiozu, zeinak ez baitira hain sakonak baina hondoaren islak tindatzen baititu, ikusiko duzu urak tonu urdin berdekara lauso bat erakusten duela, glaukoa. Duela urte asko hara joaten nintzen ni hareagurdikadak biltzera, lixa-papera egiteko, eta joaten jarraitu dut harrezkeroztik. Virid<sup>212</sup> lakua deitzea proposatu zuen hara joan ohi den batek. Pinu Horiaren lakua dei geniezaioke beharbada, oraintxe azalduko dudan pasadizoa dela-eta. Duela hamabost urte inguru, ur-ertzetik hainbat kanara, lakuak sakonera handia zuen leku batean, pinu latz baten adaburua ikus zitekeen, inguruabarrotan pinu horia esaten zaion motakoa, nahiz eta ez izan berez espezie bat. Batzuen ustez, lakuaren maila beheratu egin zen iraganean, eta baso primitiboak hazi ziren bertan. Jakin dudanez, 1792an jada, «Concordeko Herriaren Deskribapen Topografikoa» deritzon lanean —Concordeko herritar batek idatzia eta Massachusettseko Historia Elkartearen<sup>213</sup> aktetan biltzen dena—, autoreak hau gehitzen du Walden lakuari eta White lakuari buruz hitz egin ostean: «Azken horren erdigunean, ura azal-azalekoa den lekuan, zuhaitz bat ikus dezakegu; badirudi

---

211 Urak bere egitasmo pribatueterako erabiltzeko pribilegioaz ari da Thoreau.

212 Berdea, latinez.

213 Massachusettseko Historia Elkarte (Massachusetts Historical Society) 1791n sortu zen, amerikar historiaren ikerketarako baliabideak gordetzeko, biltzeko eta zabaltzeko xedez.

hortxe hazi zela, nahiz eta sustraiak uraren azaletik berrogeita hamar oin beherago izan; zuhaitzaren adaburua hautsita dago eta hamalau hazbeteko diametroa du leku horretan».<sup>214</sup> 1849ko udaberrian lakutik hurbilen bizi den gizonarekin mintzatu nintzen —Sudburyn bizi da, hain zuzen—<sup>215</sup> eta esan zidan berak atera zuela zuhaitza lakutik, hamar edo hamabost urte lehenago. Gogoan gordetakoaren arabera, ur-ertzetik hamabi edo hamabost kanara zegoen zuhaitza, urak hogeita hamar edo berrogei oineko sakonera zuen lekuan. Neguan izan omen zen, izotza biltzen aritu zen goizean, eta erabaki zuen pinu horia ateratzea arratsaldean, auzoen laguntzarekin. Kanal bat ireki zuen izotzean barna ur-bazterreraino, eta idien laguntzaz atera zuen zuhaitza handik; hara non, baina, lanean aurreratu baino lehen, konturatu zen, harriduraz konturatu ere, alderantziz zegoela zuhaitza, beherantz zeudela adarren motzondoak, eta adaburua tinko finkaturik zegoela hondo hareatsuan. Zuhaitzaren zatirik sendoenak oin bateko diametroa zuen, eta gizonak espero izan zuen egur on samarra lortzea, baina arbola hain zegoen usteldurik, asko jota erregai gisa baino ez baitzuen balio izango. Zati bat behintzat gorde zuen estalpean. Aizkoraren eta okilaren arrastoak zituen mutur batean. Gizonak pentsatzen zuen, agian, zuhaitza hilik egon zela ur-ertzean, baina lakura eraman zuela haizeak, eta adaburua urpetu ostean, ipurdia oraindik lehor eta arin zegoelarik, flotatzen ibili eta buruz behera geratu zela azkenean. Gizonaren aitak, laurogei urtekoa, ez zuen oroitzen lakua zuhaitzik gabe ikusi izana inoiz. Enbor handi samar batzuk ikus daitezke oraindik lakuaren hondoan, non, azaleko uhinen eraginez, uretako suge erraldoiak ematen baitute.

Laku hau gutxitan profanatu dute txalupek, ez baitago arrantzalea erakarriko duen amurik. Lirio zuririk ez dago —lokatza behar du—, ez eta ezpata-belar arruntik ere, baina badira ezpata-belar urdinak (*Iris versicolor*): mehe hazten dira ur puruan, ertzaren inguruko harrietatik altxatuz; kolibrien bisita jasotzen dute ekainean, eta hala hostoen nola loreen kolore urdinkarak, eta bereziki haien islak, bat egiten du modu bitxian uraren kutsu glaukoarekin.

---

214 Iturria: William Jones, «A Topographical Description of the Town of Concord, August 20, 1792»; *Massachusetts Historical Society Collections*, 1:238.

215 Josiah (Joshua) Haynes Jr. (1800-1884).



White eta Walden lakuak kristal ederrak dira Lurraren azalean, Argizko Lakuak. Izoztuta egongo balira denbora guztian, eta eskuarekin heltzeko moduko tamaina izango balute, menturaz esklaboek hartu eta garraiatuko lituzkete, harribitxiak nola, enperadoreen burua apaintzeko; likidoak eta zabalak dira, ordea, eta ziurtaturik ditugu, betirako, bai geuk bai geure ondorengoek ere, horregatik ez ditugu behar den moduan estimatzen, eta Kohinoor diamantearen<sup>216</sup> atzetik abiatzen gara. Lakuok puruegiak dira merkatu-baliorik izateko, ez daukate lohirik batere. Gure bizitzak baino puska ederragoak dira, gure izaerak baino gardenagoak nabarmen! Ez digute inoiz irakatsi zekenak izaten. Askoz politagoak dira nekazariaren atarian dagoen putzua baino, non igeri egiten baitute haren ahateek! Hona, berriz, ahate garbi basatiak etortzen dira. Naturan ez dago gizakirik behar den neurrian estimatzen duenik Natura. Txoriek, beren luma eta notekin, bat egiten dute loreekin, baina zer gizasemek edo zer neskatxak konspiratzen du Naturaren edertasun basati eta joriarekin? Bakardadean loratzen da oro har Natura, gizakiak bizi diren herrietatik urrun. Mintzo zarete zeruaz, eta desohore egiten diozue lurrari.

---

216 186 kilateko diamante bat, Indiakoa, «Argi-mendia» izenez ezagutzen dena orobat. 1850ean, Ingalaterrako Viktoria erreginari eman zion East India Company enpresak.



# HAMAR

## BAKER-EN ETXALDEA

Batuetan deslai ibiltzen nintzen pinudietan zehar; tenpluak ziruditen, edo ontzidiak bestela, beren aparailu guztiekin, adarrak zabal airean eta distira betean; hain ziren leunak, berdeak eta itzaltsuak, non Druidek bazterrean utziko bailituzkete haritzak pinudietan ospatzeko beren zeremoniak. Zedro-basora joaten nintzen bestela, Flinten lakutik harago; hango zuhaitzak, baia urdin zaharrez estalirik, gora eta gora altxatzen dira, Valhallaren<sup>217</sup> parean zutitzeko duin; zoruan, berriz, ipurua hedatzen da bere fruitu-girlandekin. Zingira aldera ere inguratzen nintzen, non izei zurietatik zintzilik ageri baita likena, apaingarria nola; non perretxiko pozoitsuek estaltzen baitute lurra —zingirako jainkoen mahai biribila— eta onddorik ederrenak hazten baitira motzondoetan, tximeletak edo oskolak balira bezala, karrakela begetalak; non hazten baitira azalea eta zumakea, eta haltzaren baia gorriek distira egiten baitute iratxoen begiak bailiran; non azeri-mahatsek bidea egiten baitute egurrik gogorrena zanpatuz, eta basoko gorostiaren baiak hain baitira ederrak ezen behatzaileak ahaztu egiten baitu bere etxea; hilkorrek dastatzeko gozoegiak diren beste hamaika fruitu debekatu eta izenik gabek txunditzen eta tentatzen dute bisitaria. Adituengana jo ordez, zuhaitz jakin batzuengana joaten nintzen maiz, inguruotan arraroak suertatzen diren motakoengana; zutik egon ohi dira larre galduren batean, edo basoaren zein zingiraren bihotzean,

---

217 Eskandinaviar mitologian, gotorleku bat da, zeinetan gordetzen baitira gudan hildako gerlarien gorpuak.

edo muino baten tontorrean: urki beltza, zeinaren ale eder askoak baititugu, bi oineko diametroarekin; haren lehengusua, urki horia, urrezko jantzi laxoa eta guzti, eta aurrekoaren usain bera dariola; pagoa, bere enbor guztiz leun eta ederrarekin, likenez margotua, paregabea bere xehetasun guztietan, zeinaren ale sakabanatu gutxi batzuk baino ez baitauzkagu —halako zuhaitzen basotxo txiki bat baino ez dut ezagutzen, ustez usoek landaturikoa, garai hartan pagoaren fruituak jaten baitzituzten ugari—, merezi du ikustea zuhaitz hauen egurra moztean ateratzen den zain zilarrezkoaren distira; ezki amerikarra, xarma amerikarra, *Celtis occidentalis* edo zumar faltsua —ale sendo bakarra dago inguruotan—, pinu enbor bereziki lirain bat, teilak egiteko aproposa, tsuga izei ohi baino perfektuago bat —pagoda baten eran altxatzen da basoaren erdian— eta beste hainbeste. Horra hor udan zein eguan bisitatzen nituen aldareak.

Egun batean ortzadar baten oinean berean suertatu nintzen; atmosferaren beheko estratua betetzen zuelarik, inguruko belarra eta hostoak tindatzen zituen eta neroni liluratu ninduen koloretako kristal bati erreparatzen niola sentiaraziz. Ortzadar-argizko laku bat zen, eta bertan bizi izan nintzen tarte labur batez, izurdearen pare. Gehiago irauin balu, nire zereginak eta bizitza koloreztatu izango zituen akaso. Trenbidearen trazaduran barna nindoalarik, txundituta geratzen nintzen nire itzalaren inguruko argi-haloarekin, eta hautatuen artean nintzela irudikatzen nuen. Bisitan etorri zitzaidan batek adierazi zuenez, bere aurretik ibiltzen ziren irlandarren itzalak ez zuen halorik inguruan, bertakoen bereizgarria delako bakarrik. Benvenuto Cellini-k<sup>218</sup> bere memorieta kontatzen du nola, amesgaizto edo ikuskari lazgarri bat izan ostean Sant'Angelo gazteluan preso egon zelarik, argi distiratsu bat agertzen zen bere buruaren itzalaren gainean bai goizean bai iluntzean, Frantzian zein Italian egonik ere, eta argi hori bereziki nabarmena omen zen belarra ihintzaz bustirik zegoenean. Neronek aipaturiko fenomeno berbera da ziur aski, goizetan bereziki deigarria da baina beste momentu batzuetan ere atzeman daiteke, baita ilargiaren argitan ere. Fenomeno konstantea izan

---

218 Italiako artista eta zilargin ospetsua (1500-1571). Autobiografia bat idatzi zuen, eta gaur egun lan horren ondorioz da bereziki ezaguna.

arren, normalean ez du sumatzen inork; Celliniren irudimen aztoratua mediante, sineskeriak hauspotzeko adinakoa gerta zitekeen. Bestalde, artistak azaltzen digu gutxi batzuei baino ez ziola erakutsi. Baina ez al dira zinez bereizgarriak ikusiak izanaren jakitun direnak?



Arratsalde batez arrantza egitera abiatu nintzen Fair Haven aldera basoan barna, nire berdura-gordailu eskasa osatu nahian. Pleasant Meadow<sup>219</sup> zeharkatu zuen, Bakerren etxaldeen eranskin bat; erretiro horri buruz abestu du poetak, honela hasita:

«Larre atsegin bat da zure ataria,  
non zuhaitz lizunduek ematen baitute fruitua,  
erreka gorrikara batentzat partez,  
musquash<sup>220</sup> delakoa han dabil artez,  
eta amuarraina deslai  
jauzika ari da alai».<sup>221</sup>

Han bizitzea pentsatu nuen Waldenera joan aurretik. «Arrantzatu» nituen sagarrak, salto egin erreka gainetik, eta izutu nituen *musquasha* eta amuarraina. Gertakari asko —gure bizitza naturalaren puska handi bat— suerta daitezkeen arratsalde agorrezin horietako bat zirudien, nahiz eta arratsaldeko lehen orduak joanak ziren ni abiatzerako. Bidean nindoalarik euri-jasa bat izan zen, behartu ninduen ordu erdiz gordetzera pinu baten azpian, adarrak pilatzera buruaren gainean eta nire zapiarekin estaltzera dena; azkenean iritsi nintzelarik, eta ura gerriraino neukanean txirrika jaurti nuelarik lutxoak zebiltzan belar artera, hodei batek estali ninduen bat-batean, eta trumoiak jo eta jo hasi ziren, halako indarrez, ezin izan bainien entzungor egin. Harro egongo dira bada Jainkoak, pentsatu nuen, ikusirik nola uxatzen duten tximista goriek arrantzale armagabe gizagai-xo bat. Presaka hanka egin nuen estalperik hurbilenera, etxola bat; errepide guztietatik milia batera zegoen, baina lakutik askoz gertuago; inor ez zen han bizi izan luzaroan:

---

219 Zelai Atsegina, literalki.

220 Arratoi musketaduna.

221 William Ellery Channing-en «Baker Farm» poemako aipua.

«Eta poeta batek eraiki zuen hemen,  
duela hainbat urte jada,  
etxola txiki bat behaketarako,  
aurki dutena suntsituko». <sup>222</sup>

Halakoak asmatzen ditu Musak. Baina etxolara iritsita, jabetu nintzen John Field delakoa bizi zela bertan, irlandar bat, bere emaztearekin eta ume ugariekin: zaharrenak, aurpegi zabaleko mutiko bat, aitari laguntzen zion lanean, eta elkarrekin zetozen orain lasterka aterperantz; txikiena, berriz, haur txiki zimurtua eta sibila<sup>223</sup> modukoa, kono-itxurako buruarekin, aitaren belaun gainean zegoen jesarrita, nobleen palazioetan bezalaxe, eta jakin-minez erreparatzen zion arrotzari, gosearen eta hezetasunaren erdian, haurtzaroak dakarren pribilegioarekin, jakin gabe leinu noble bateko azkena zela, munduaren esperantza eta begirada orenen jomuga, eta ez John Fielden umemoko gosetua. Hala eseri ginen itogin gutxien zituen sabai-zatiaren pean, kanpoan euria barra-barra ari zuelarik. Hainbat bider eseri izan nintzen han familia hura Amerikara ekarri zuen itsasontzia eraiki aurretik ere. Gizon zintzoa, saiatua eta halere ezgauza zen John Field argi eta garbi; bere emazteak bazuen aski kemen janaria prestatu eta prestatu jarduteko labe erraldoiaren zoko-mokoetan, aurpegi biribila koipez beterik eta bular bat agerian zuela, egunen batean bere egoera hobetuko zela pentsatuz oraindik; espartzua eskuan zeukan beti eta ez zen ikusten hura erabili izanaren seinalerik inon. Oiloak, euritik babestu baitziren haiek ere, egongelan barna zebiltzan familiako kideak balira bezala, eta ondoren labean erretzeko gehiegi humanizatu zituztela iruditzen zitzaidan. Geratzen ziren bat-batean, eta begietara zuzen begiratzen edo oinetakoak mokokatzen zizkidaten temati. Bien bitartean bere historia kontatu zidan nire anfitrioiak: gogor lan egiten zuen inguruko nekazari batentzat, zohikatzetan, zingiretan erabili ohi den aitzur-mota berezi batekin; hamar dolar ordaintzen zizkioiten akre bakoitzeko, eta lur ongarritua erabiltzeko aukera zuen urtebetez; aurpegi zabaleko mutikoak bere alboan lan egiten zuen denbora guztian pozarren, ez zekielarik tratu zinez eskasa egina zuela bere aitak. Ahalegindu nintzen gizonari laguntzen

---

222 *Ibid.*

223 Greziar mitologian, profeziak egiteko boterea zuten emakumeak.

nire esperientziarekin, esan nion nire auzorik hurbilenetako bat zela eta neronek ere, arrantza egitera etorritako alferrontzi bat nirudien arren, neure kabuz ateratzen nuela aurrera bizibidea; bizi nintzela etxe estu, argitsu eta garbi batean, zeinaren kostua txikiagoa baitzen, ziur aski, berak etxola hondatu haren truke urtero ordaintzen zuen errenta baino; azaldu nion nirearen gisako palazio bat eraiki zezakeela hilabete pare bateko epean hala nahi izanez gero, ez nuela hartzen terik, kaferik, gurinik, esnerik ez eta haragi freskorik ere, eta hortaz ez nuela lan egin beharrik halakoak lortzeko; gainera, ez nuenez gogotik lan egiten, gogotik elikatzeko premiarik ez neukala, eta huskeria bat gastatzen nuela janarian; berak, ordea, tearekin, kafearekin, gurinarekin, esnearekin eta haragiarekin ekiten zionez egunari, buru-belarri lan egin behar izaten zuen haiek ordaintzeko, eta gogotik lan egiten ostean gogotik jan behar izaten zuen bere sistema suspertzeko, eta, haren guztiaren ondorioz ez zuen ezer irabazten, zaputzaldi bat eta bere buruaren xahuketa besterik ez; halere, Amerikara etortzea onuratzat jotzen zuen gizonak, tea, kafea eta haragia har zitzakeelako egunero. Amerika egiazko bakarra, ordea, bestelakoa da: herrialde bat non aske baitzara nahi duzun bizimoldea bilatzeko, gisa horretako produktuen premiarik izan gabe; herrialde bat non estatuak ez baitzaitu konbentzitu nahi esklabotza, gerra eta bestelako gastu alferrikako batzuk babes ditzazun, aipaturiko produktuen erabileraren ondorio zuzenak eta zeharkakoak direnak gainera. Deliberoz hitz egin nion, gizona filosofoa balitz bezala, edo filosofoa izan nahi balu bezala. Poztuko nintzateke baldin eta lurreko zelai guztiak bere horretan utziak izango balira, egoera salbaian, gizonak bere burua erredimitzen hasi izanaren ondorioa balitz hori. Gizonak badaki, historia ikasi beharrik gabe, zer den onena bere kulturarentzat. Baina, hara! Aitzur moral sendo batekin ekin beharreko zeregina dugu irlandarren kultura. Gizonari azaldu nion bota onak eta jantzi lodiak behar zituela zohikatza ateratzen jarduteko, baina azkar bai azkar higitzen eta gastatzen zirela halere; nik, berriz, oinetako arinak eta jantzi meheak neramatzan soinean, bere arropen erdia baliu zutenak, nahiz eta berak beharbada pentsatuko zuen jauntxo baten eran nindoala jantzita (ez zen kasua, dena den), eta ordu baten edo biren buruan, lanean jardun gabe, soilik denbora-pasa gisara, nahi adina arrain arrantzatu nezakeela hala nahiz izanez

gero —bi egunez elikatzeke beste—, edo astebetetz irauteko adi-  
na diru irabaz nezakeela bestela. Bera eta bere familia sinpleki  
biziko balira, ahabiak biltzera joan zitezkeen udaran, ondo pa-  
satzeko. Hura guztia entzunik, Johnek hasperen egin zuen, eta  
bere emazteak bekoz beko begiratu zidan, besoak hazta eginda.  
Bazirudien bi-biak pentsatzen ari zirela ea bazuten aski kapital  
halako bide bati heltzeko, edo aski gaitasun aritmetiko bidea  
azkeneraino eramateko. Haientzat, estimazioen arabera nabiz-  
gatzearen pareko zerbait zen, eta ez zuten argi ikusten portura  
iristeko gauza izango ziren; horrenbestez, irudikatzen dut bizitza  
ausarki bizi dutela oraindik, beren modura, aurrez aurre, zain  
eta muin borroka eginez; ez direla gai ziri batekin arrakalak ire-  
kitzeko bizitzaren zutabe gotorretan eta zuloetatik irristatzeko,  
eta gordintasunez pentsatzen dutela bizitzan, bat kardulatzekin  
jarduten denean bezala. Baina desabantaila galantarekin dihar-  
dute, aritmetikarik gabe bizi direlako —oi, John Field gurea!—,  
eta porrot egiten dutelako horren ondorioz.

«Arrantza egiten al duzu inoiz?», galdetu nion. «Oi, bai,  
zertxobait aritzen naiz noizean behin, perka onak harrapatu  
ditut». «Zer-nolako amua erabiltzen duzu?». «Zizareekin harra-  
patzen ditut karpak, eta karpak erabiltzen ditut perketarako».  
«Hobe duzu orain joatea, John», esan zuen bere emazteak, aur-  
pegia distirant eta itxaropentsu, baina Johnek erreparoa agertu  
zituen.

Ez zuen euririk ari jada, eta ilunabar eder baten prome-  
sa zekarren ekialdeko basoan agertutako ostadarrak; ospa egin  
nuen, beraz. Edateko zerbait eskatu nien etxetik ateratzeaz  
batera, putzuari begiratu bat eman ahal izateko eta lekuaren  
ikuskaritza burutzeko horrela, baina hara non ez zegoen apenas  
urik, harea mugikorrek zeuden, soka hautsirik, eta kuboak ezin  
zen berreskuratu. Bien bitartean, edukiontzirik egokiena hau-  
tatu zuten sukaldaritza-zeregin hartarako, ura destilatu zuten  
itxuraz, eta zenbait kontsulta egin ostean, eta tarte luze samar  
bat igaro eta gero, egarri zegoenari eman zioten, ura freskatu eta  
argitu arte itxaron gabe. Edabe honekin eusten zaio hemen bi-  
ziari, pentsatu nuen; begiak itxiz, eta zikinkeria-pusketatxoak  
bazterrera utziz azpi-korronte abil baten bitartez, hurrupa bat  
eman nion adeitasun egiazkoari, ahalik eta atseginen. Ez naiz  
mizkina izaten manera onei dagokionean.



Irlandarraren etxepea utzi nuelarik euri-zaparradaren ostean, lakurantz bideratuz berriro ere nire urratsak, iruditu zitzaidan gauza azaleko samarra zela lutxoak harrapatzeko neukan grina hura, behartzen ninduen larre ezkuatak inguratzen eta lokaztiak zeharkatzera txoko basati eta babesgabeetan zehar, kontuan harturik eskolan eta unibertsitatean ikasitako gizon bat nauzuela; baina muinoan behera nindoalarik mendebal alde gorrixkarantz, sorbaldaren gainean ortzadarra, eta txilin-hots apal batzuk iritsi zitzaizkidalarik belarrira aire araztua gurutzatuz, nondik iristen ziren ez nekielarik, iruditu zitzaidan nire Jeinu Onak esaten zidala: «Zoaz nahi beste arrantza eta ehiza egitera egunero, irits zaitez gero eta urrutiagora, eta har ezazu atsedean nahi adina erreka eta suren ondoan, beldurrik gabe. Gogoan izan zure Egilea gaztaroko egunetan. Altxa zaitez, kezkarik gabe, goiz-albaren aurretik, eta abia zaitez abentura bila. Beste laku batzuetan aurki zaitzala eguerdiak, eta gauak edozein lekutan harrapatzen zaituelarik ere, senti ezazu zure etxean zaudela. Ez dago larre zabalagorik, ez dago jolas duinagorik. Haz zaitez basati, zeure izatearen arabera, ihi eta iratze hauen antzera, zeinak ez baitira inoiz bihurtuko sarale. Egin dezala orro trumoiak, zer axola du nekazarien uztak hondatzen baditu? Mezu hori ez dagokizu zuri. Babes zaitez hodeiaren azpian, besteak gurdietarantz eta aterpeetarantz bideratzen direlarik. Bizibidea aurrera ateratzeko, ez ekin lanbide bati, ezpada denbora-pasa bati. Goza ezazu lurraz, baina ez zaitez izan haren jabe. Ekimenik eta fedetik ez dutelako daude gizonak dauden tokian: saltzen, erosten eta beren bizitzak xahutzen mirabetzan».

Oi, Bakerren etxaldea!

«Paisaia horretan eguzkiaren printzak dira aberastasun egiazkoa.

Inork ez du atsedean hartzen,  
zure zelai errailez inguratuan.

Gizonekin ez duzu eztabaida egiten,  
galderek ez zaituzte inoiz harritzen,  
baketsua dirudizu beti, oraintxe bezala,  
zeure gabardina gorria soinean.

Zatozte maite duzuenak,  
zatozte gorroto duzuenak,  
uso Sakratuaren Haurrak,

eta estatuko Guy Faux-ak,<sup>224</sup>  
urka itzazue konspirazioak,  
zuhaitz-adar sendoetan zintzilikatuta!».<sup>225</sup>

Gauetz, esaneko itzultzen dira gizonak etxera, lursailetatik edo ondoko kaletik; bizitokiaren oihartzunak jazartzen zaizkie bertan, eta beren bizitza ilaundu egiten da, norbere hatsa arnasten dutelako behin eta berriz; goiz eta arratsalde, urrunago iristen dira beren itzalak beren eguneroko pausoak baino. Urruneko lekuren batetik itzuli behar genuke egunero etxera, abentura, arrisku eta deskubrimenduetatik, esperientzia berriak eskuratuta eta geure izaera bera aldatuta.

Lakura iritsi gabe nintzela, bulkada berri batek astindu zuen John Field, aldartea mudarazi zion eta ez zuen zohikatzaz pentsatu arratsalde osoan. Baina gizon gizagaixoak ez zuen askorik lortu, soilik hegal bat edo beste gogaitzea; neronek, ordea, sorta eder bat arrantzatu nuen, eta esan zidan huraxe zela bere zoria. Halere, tokiak trukatu genituenean, zoria ere aldatu zen lekuz. John Field koitadua! (Ez ahal du hau irakurriko, hobea izateko balio ez baldin badio behintzat). Herrialde berri eta primitibo honetan bizi nahi du herrialde zaharreko erara, perkak arrantzatuz karpekin. Amu ona izaten da batzuetan, hainbeste onartuko dut. Bere zerumugaren jabe izanagatik ere, gizon pobrea da, pobre izateko jaioa, oinordean jaso baititu pobrezia irlandarra edo bizi pobrea, Adamen amonaren leinua eta lokaztiko manerak; mundu honetan ez da altxatuko, ez bera ezta bere ondorengoak ere, harik eta *talaria*<sup>226</sup> jantzi arte bere oin zangaluzerik palmipedoetan.

---

224 Guy Fawkes (1570-1606), ingeles katolikoa. Parlamentua ezandarazteko konspirazio baten burua izan zen, 1605eko azaroaren 5ean saiatu zen ekinga hori gauzatzen, baina preso hartu zuten eta 1606ko urtarrilaren 31n urkatu zuten.

225 William Ellery Channing-en «Baker Farm» poemako aipua.

226 Sandalia hegodunak, greziar mitologiako zenbait jainkok baliatzen zituztenak.

# HAMAIKA

## LEGE GORENAK

Gau beltzean etxera bidean nindoalarik basoan barna, nire arrain-sorta eskuan eta kanabera herrestan, marmota bat begiztatu nuen nire bidea zeharkatzen, eta halako plazer salbai batek inarrosi ninduen; bulkada bizi bat sentitu nuen marmota hura harrapatu eta gordinik irensteko, ez goseak nintzelako, ezpada animaliairen izaera basatiak grina pizten zidalako. Nolanahi ere, lakuan bizi nintzelarik, behin edo birritan behintzat suertatu nintzen basoan miaka, txakur gosetuaren antzera, halako abandonu bitxi batek hartzen ninduelarik, irents nezakeen oreinkiren baten bila, eta halako egoeran egonda, ehiza bat bera ere ez litzaidake irudituko gordinegia. Eszenarik salbaienak guztiz ezagunak bihurtu zaizkit ezin adierazteko moduan. Neure baitan aurkitzen nuen, eta aurkitzen dut oraindik, bizitza goragoko baterako joera, edo, jendeak esaten dion moduan, bizitza espiritual baterakoa, gizon gehienei gertatzen zaien moduan bestalde, eta beste joera bat, berriz, maila primitibo edo salbaiarekikoa, eta bi-biak gurtzen ditut. Neurri berean maite ditut basatia eta ona. Arrantzak dakartzan basatasuna eta abentura egokiak dira oraindik ere niretzat. Batzuetan gogoko dut bi oinak finkatzea bizitzan eta animalien erara igarotzea eguna. Beharbada, zeregin horren eta ehizan gaztedanik hastearen ondorioz daukat halako harreman estua Naturarekin. Goiz barneratzen gaituzte bestenaz adin horretan behintzat ikusiko ez genituzkeen zenbait paisaiatan. Arrantzaleak, ehiztariak, egurginak eta enparauak, belaze eta basoetan igarotzen dutelarik bizitza, Naturaren parte direlarik berek ere modu bitxi batean, maiz aldarte egokiagoan

egoten dira hura behatzeko filosofoak eta poetak baino, nahiz eta azken horiek liluraz beterik hurbiltzen zaizkion. Naturak ez du beldurrik bere burua erakusteko haien aurrean. Bidaia-ria, lautadan barna doalarik, ehiztaria izango da berez; Missouri eta Columbia ibaien iturburuan,<sup>227</sup> berriz, tranpa-jartzailea, eta Saint Mary ur-jauzietan,<sup>228</sup> aldiz, arrantzalea. Bidaiari soilak ez ditu bere larruan biziko gauzak, entzundakoaren arabera ikasiko du eta autoritate eskasa izango du beraz. Zientzia interesgarria iruditzen zaigu praktikaren edo senaren bidez gizonak dakitena erakusten badigu, zeren horixe bakarrik baita egiazko *humanitatea* edo giza esperentziaren kontakizuna.

Zenbaiten esanetan denbora-pasa gutxi dute yankiek, jai-egun gutxiago dituztelako eta mutikoak zein gizonak Ingalaterran baino jolas gutxiagotan jarduten direlako, baina oker dabilta hori diotenak; hemen, izan ere, denbora-pasa primitibo eta barkartiagoek, hala nola ehizak, arrantzak eta abarrek, ez baitiote oraindik beren lekua utzi jolasei. Nire garaikideei dagokienez, Ingalaterra Berriko ia mutiko guztiek eskopeta bat eramaten zuten bizkarrean hamar eta hamalau urte bitartean, eta haien ehiza-eta arrantza-eremuak ez daude Ingalaterrako nobleen eremuak bezala mugaturik, basatiarenak baino are azkengabeagoak dira. Ez da harritzekoa, beraz, plazan horrenbeste ez jolastea. Baina aldaketa bat gertatzen ari da jada, eta ez da gizatasun handiago baten ondorioa, ezpada ehizakien eskasia nabarmenago batena, zeren baliteke ehiztaria izatea ehizaturiko animalien adiskiderik onena, Elkarre Humanitarioa<sup>229</sup> kontuan hartuta ere.

Gainera, lakuan bizi nintzenean arrain pixka bat jateko nahia izaten nuen, barietatearen izenean. Egiaz, premiagatik arrantzatzen nuen, lehenengo arrantzaleek bezala. Arrantzaren kontra aipa ditzakedan argudio humanitarioak faltsuak izango dira, eta zerikusi handiagoa izango dute nire filosofiarekin nire sentimenduekin baino. Arrantzaz bakarrik ari naiz orain, hegazti-ehizari buruzko iritzia aldatu egin bainuen aspaldi, eta nire erriflea saldu bainuen basora joan aurretik bizitzera. Ez naiz bes-

---

227 Missouri ibaia AEBko erdialdean dago, Columbia ibaia, berriz, mendebaldean.

228 Ziur aski, Superior eta Huron lakuen hego-ekialdera dauden ur-jauziak, Kanada eta AEBren arteko mugaren parte direnak. Edonola ere, izen bereko ur-jauzi ugari daude AEBn.

229 Animaliak babesteko karitate-elkarteen izen generikoa.

te batzuk baino gizatasun gutxiagokoa, baina ez nuen nabaritzen nire sentimenduak hunkitzen zirenik. Ez nien errukirik arrainei, ez eta zizareei ere. Ohitura bat zen. Hegazti-ehizari dagokionez, eskopetarekin ibili nintzen azken urtean ornitologia ikasten ari nintzela esaten nuen aitzakia gisa, eta txori berriak edo bitxiak soilik bilatzen nituela. Orain, ordea, ornitologia ikasteko modu finagorik izan daitekeela uste dut. Adi-adi erreparatu behar zaio txorien ohiturei, eta arrazoi hori aski zen erriflea alde batera uzteko. Alabaina, humanitatean oinarrituriko eragozpen hori kontuan harturik ere, zalantzak ditut ea kirol neurri berean baliagarriengatik ordezkatu behar liratekeen ehiza eta arrantza, eta zenbait lagunek beren mutikoei buruz estu eta larri galde egin didatenean, ehizan egiteko baimena eman ala ez ebatzi nahian, baietz erantzun diet, gogoan hartuz horixe izan zela nire hezkuntzaren zatirik onenetako bat: *bihur itzazue* ehiztari, eta hasieran izan daitezela zaleak soilik, eta azkenerako bihur daitezela ehiztari porrokatu, eta ez dezatela aurkitu, ez baso honetan ez beste inongo inguru basatitan, harrapakin nahiko handirik, eta izan daitezela gizonen ehiztari eta arrantzale. Horri dagokion bezainbatean, bat nator Chaucer-en mojarakin, zeinak

«Ez luke oilo lumatu bat trukatu  
ehiztariak gizon santuak ez direla dioen testua jasotzeko».<sup>230</sup>

Gizabanakoaren eta orobat arrazaren historian badago garai bat zeinean ehiztariak baitira «gizonik onenak», algonkinek<sup>231</sup> zioten moduan. Gupida diogu, halabeharrez, errifle batekin inoiz tiro egin ez duen mutikoari; ez da humanoagoa horregatik, eta, tristeki, bere hezkuntzaren zati bati ez diote behar adina arretarik jarri. Erantzun horixe eman nuen ehizarekiko joera zuten gazteei zegokionez, pentsatuz betiere laster pasako zitzaizela sukarra. Gaztaroko garai kaskarinaren ondoren, ezein gizakik ez luke motiborik gabe akabatuko izaki bizidunik, berak adinako eskubidea baitu bizitzeko. Heriotzaren unean, haur batek bezala txilio egiten du erbiak. Ohartarazten dizuet, amak, nire errukiak ez dituela beti errespetatzen ohiko bereizketa *fil-antropikoak*.

---

230 Geoffrey Chaucer (1340-1400) Ingalaterrako poetaren *Canterburyko ipuinak* lanaren hitzaurreko aipua.

231 Kanadako jatorrizko herria, Saint Lawrence ibaiaren inguruan bizi zena.

Gehien-gehienetan, halaxe ezagutzen du gizon gazteak basoa, eta horixe da bere zatirik originalena. Hasieran basora joaten da ehiztaria eta arrantzalea delako, harik eta, azkenean, bizitza hobeari baten haziak gordetzen baditu bere barnean, bere egiazko interesak zein diren ohartzen den arte —agian poeta bihurtuko da, agian naturalista—, eta bazterrean uzten ditu erriflea eta kanabera. Gizon guztiz gehienak gazteak dira oraindik alderdi horri dagokionez. Zenbait herrialdetan, ez da arraroa apaiz bat ikustea ehizan. Baliteke halakoak onak izatea artzaintxakur gisa, baina ez dira Artzain Onak<sup>232</sup> izango inondik ere. Jabetua nago —eta harrigarria iruditzen zait— egurketa, izotz-bilketa eta antzeko eginkizunak salbuesten badira, nire herrikideek, aita zein seme, motibo batengatik bakarrik igarotzen zutela egun baten erdia Waldenen: arrantzan egiteko. Normalean ez zuten uste izaten zortekoak zirenik, eta denborari probetxua atera ziotenik, ez baldin bazuten arrain-sorta luze bat eskuratzen, nahiz eta lakuari begiratzeko parada izan zuten tarte horretan guztian. Mila bider joan litezke lakura, arrantzaren sedimentua hondoratu eta beren helburua argi utzi aurretik, baina garbi dago halako argitze-prozesua ez litzatekeela etengo. Gobernariak eta bere taldeak lausoki oroitzen dute lakua, arrantzan joaten zirelako gazteak zirelarik; baina nola orain zaharregiak eta duinegiak diren horretarako, ez dute berriro ikusiko. Eta hildakoan zerura joatea espero dute hargatik. Legegileek inoiz erreparatzen badiote lakuari, bertan zenbat amu erabil daitekeen arautzeko izaten da nagusiki, baina ez dakite ezertxo ere amurik amuenaz, zeinak lakua bera harrapatzeko balio baitu, legegintza-ganbera erabiliz beita moduan. Horrenbestez, komunitaterik zibilizatuetan ere, gizonaren enbrioak ehizaren fasea igaro behar du bere garapenean.

Azken urteotan ohartu naiz, behin baino gehiagotan ohar-tu ere, ez naizela gauza arrantzan aritzeko nire buruarekiko sentitzen dudan errespetuaren apurtxo bat galdu gabe. Saiatu naiz behin eta berriro. Trebea naiz arrantzan, eta beste hainbat kidek bezalaxe, badut halako sen bat zeregin horretarako, noizbehinka biziberritzen dena, baina arrantzan aritzen naizen

---

232 Joan 10: 11 bertsetari erreferentzia: «Neu naiz artzain ona; artzain onak bere burua ematen du ardiaren alde».

aldiro sentitzen dut hobe izango litzatekeela horretan jardun ez banintz. Uste dut ez nabilela oker. Iradokizun lauso bat da, baina halakoxeak dira goizaren lehen izpiak ere. Ukaezina da joera hori daukadala neure baitan, sorkariaren ordena beheerenei dagokie, eta hala ere, urteek aurrera egin ahala, neurri txikiagoan naiz arrantzalea, nahiz eta ez dudan eskuratu humanitate edo jakinduria gehiago; gaur egun ez naiz arrantzalea inolaz ere. Baina argi ikusten dut, berriro natura basatian biziko banintz, arrantzari eta ehizari buru-belarri ekiteko tentazioa izango nukeela. Gainera, dieta horrek eta okela-mota orok badu berezko zikintasun bat, eta hasia naiz ikusten zein den etxeko lanen abiapuntua, eta nondik datorren ahalegin itzel eta kostu handiko hori, egunero itxura txukun eta errespetagarri bat erakustek eta etxea itxuroso eta usain oneko mantentzeak dakarrena. Neronek egiten nituen lan guztiak —okela moztu, prestatu eta sukaldariari lagundu—, eta neroni nintzenez, orobat, janaria platerean zerbitzatzen zioten jauntxoa ere, ikuspegi global bat daukat auziari buruz, eta ez da ohikoa. Nire kasuan, animaliak jatearen aurkako traba praktikoa nagusia zikintasuna zen; gainera, behin arrainak harrapatu, garbitu, prestatu eta jan ondoren, ez zirudien funtsezko elikagairik eman zidatenik. Hutsala zen, ez zen beharrezkoa, eta eman baino gehiago eskatzen zuen. Berdinberdin moldatu izango nintzen ogi apur bat edo patata bakarren batzuk janda, eta arazo gutxiago sortuko zidan. Nire garaikide askoren eran, hainbat urtez ez dut jan animaliarik, ezta kafeirik, terik eta abarrik hartu ere, ez ondorio kaltegarriak ekartzen dituztelako, baizik eta ez zitzaizkidalako atseginak suertatzen nire irudimenean.<sup>233</sup> Animaliak jatearekiko nazka ez da esperientziaren ondorioa, senak agintzen du. Ederragoa begitantzen zitzaidan gutxirekin bizitzea hainbat alderditan, eta are eskasian egotea ere; horraino iritsi ez nintzen arren, nire irudimenari atsegin ematera ausartu nintzen. Izan du animaliak jateari uzteko bulkada, edo asko jateari uzteko bulkada nire ustez, bere gaitasun goren edo poetikoak egoerarik onenean gordetzera deliberatu den gizon orok. Egitate esanguratsua da, entomologoek berretsia —Kirby eta Spence-ri irakurri diet nik—, «guztiz gara-

233 XIX. mendearen erditik aurrera elikadura-molde berriak hauspotu zituzten erreforma-egileei buruz ari da Thoreau. Begetariano zorrotza ez izan arren, Thoreauk oso gutxitan jaten zuen haragirik.

turik dauden intsektu batzuek ez dituzte[la] erabiltzen jateko organoak, nahiz eta eduki badauzkaten»; intsektu guztiei omen dagokie, gainera: «Arau orokor bat da egoera horretan dauden intsektu guztiek askoz gutxiago jaten dutela larba-egoeran daudenean baino. Beldar jatuna tximeleta bihurtzen denean, [...] eta har tripontzia euli bilakatzen denean»,<sup>234</sup> ase geratzen da ezti-tanto bat edo bi hartuta edo beste likido gozoren bat edanda. Larbaren arrastoa da tximeletak hegoen azpian daukan sabela. Horrexek tentatzen du bere patu intsektu-jalea. Tripontziak horixe dira, gizonak larba-egoeran, eta nazio osoak bizi dira horrela; fantasiarik edo irudimenik gabeko nazioak dira, beren sabel zabalak salatzen ditu.

Zaila da irudimena irainduko ez duen elikadura eta sukaldaritzaren simple eta garbi bat garatzea, baina, nire ustez, gorputzari jaten ematen zaionean irudimena elikatu behar da orobat; mahai berean eseri behar lukete biek. Lor daiteke beharbada. Neurrian jandako fruituek ez gaituzte geure apetez lotsaraziko, eta ez dituzte gure ahaleginik duinenak etengo. Baina jar ezazu gozagarri gehiegi platerean, eta pozoituko zaitu. Ez du merezi sukaldaritzaren oparoarekin elikatzea. Gizon gehienak lotsatu egingo liratenke baldin eta beren eskuekin prestatu behar balituzte egunero bestek prestatzen eta zerbitzatzen dizkieten moduko jatorduak, animaliak jan edo ez jan. Baina hori gertatzen ez den artean, ez gara zibilizatuak izango, eta egiazko jaun-andreak izan arren, ez dira gizon-emakumeak izango. Horrek iradokitzen du, argi iradoki ere, zer aldatu behar den. Alferrekoa da galdetzea zergatik ezin diren bateratu irudimena eta haragiaren koipea. Pozten naiz ezin delako halakorik egin. Gizona animalia haragijalea izatea ez al da gauza gaitzesgarria? Egia da gizona bizi daitekeela beste animalia batzuk harrapatuz, hala bizi baita neurri handi batean, baina modu eskasa da, bai —untxiak harrapatu dituenak eta arkumeei lepo egin dienak ondotxo dakien moduan—, eta bere arrazaren ongilea izango da gizonari irakasten diona dieta inozenteago eta osoago batera mugatzen. Edozein direlarik ere nire ohiturak, ez dut zalantzarik giza arrazaren patuari dagokiola, bere hobetze-bidean, animaliak jateari uztea arian-arian, tribu

---

234 William Kirby (1759-1850) eta William Spence (1783-1860) Ingalaterrako entomologoek *An Introduction to Entomology, or Elements of the Natural History of Insects* laneko aipua; 1815ean argitaratu zen lehen edizioa.



salbaiek elkar jateari utzi zioten moduan jendalde zibilizatua-  
goekin topo egin zutenean.

Batek erne aditzen baditu bere jeinuaren iradokizun apal  
baina etengabeak —zeinak egia baitira, egia direnez—, ez da  
konturatzen eromenera ere bultza dezaketela; edonola ere, gero eta  
delibero eta fede handiagoa sortzen zaiolarik, horixe du bide  
aproposa. Gizateriaren argudio eta ohitura orori gailenduko  
zaio, azkenean, gizon osasuntsu batek egiazkotzat jotzen duen  
eragozpenik txikiena. Ez dago gizonik bere jeinuari jarraituz  
desbideratu denik. Gorputza ahultzea eragingo balu ere, ezin  
daiteke esan ondorio hori deitoragarria denik, printzipio gore-  
nekin bat datorren bizitza bat izango litzatekeelako. Pozarren  
agurtzen badituzu goiza eta gaua, eta bizitzari lurrina badario lo-  
reei eta belar gozoei bezala, eta modu horretan bizia malguagoa  
iruditzen bazaizu, izarrez beteagoa, eta hilezkorragoa, horixe  
duzu zeure arrakasta. Natura osoak zoriontzen zaitu, eta zuk ba-  
duzu motiborik, momentuz behintzat, bozkariatzeko. Lorpenik  
eta baliorik handienak dira gutxien estimatzen direnak. Bereha-  
la jartzen dugu zalantzan benetan existitzen ote diren. Erraz  
ahazten ditugu. Bada, horiexek dira errealtate gorena. Baliteke  
gizonak gizonari ez adieraztea inoiz egitaterik txundigarrienak  
eta errealenak. Nire eguneroko bizitzari dagokion uzta gauza  
ukiezina eta deskribaezina da, goizaren zein iluntzearen kolo-  
reak adina. Izarren hauts apur bat, ortzadarraren izpiak, neronek  
eskuarekin harrapatutakoak.

Neroni, ordea, ez naiz oso milika izan inoiz; gai nintzen,  
beharrezkoa izanez gero, mauka-mauka jateko arratoi bat la-  
bean egina. Pozten naiz ura edan dudalako luzaroan, eta arrazoi  
berdinarengatik dut maiteago zero naturala opio-jalearen zerua  
baino. Ez daukat arazorik sekula ez mozkortzeko, eta amai-  
gabeak dira horditasunaren graduak. Uste dut ura dela gizon  
jakintsu batek edan behar duen gauza bakarra, ardo ez da hain  
likore noblea; eta zer den goizeko itxaropenak suspertzea kikara  
bat kaferekin, edo iluntzekoei eragitea katilu bat terekin! Ene, bai  
behera erortzen naizela halakoek tentatzen nautenean! Musika  
bera hordigarria izan daiteke. Kausa itxuraz arin horiek suntsitu  
zituzten Grezia eta Erroma, eta orobat suntsituko dituzte Inga-  
laterra eta Amerika. Mozkortasun-molde guztien artean, nork

ez du nahiago arnasten duen airearekin horditzea? Konturatu naiz lan zabar eta luzeen aurka daukadan trabarik handiena dela zabar jatera behartzen nautela halaber. Baina, egia esan, gaur egun ez naiz horren zorrotza halako kontuei dagokionez. Erljio gutxiago eramaten dut mahaira, bedeinkapenik ez dut eskatzen, eta ez da lehen baino jakintsuagoa naizelako, ezpada, aitortu behar dudanez, zabarragoa eta arduragabeagoa bilakatu naizelako urteen igaroarekin, tamalgarria bada ere. Agian gaztaroen bakarrik kezkatzen gara halako auziekin, poesiari dagokionez orobat uste izaten den bezala. Nire ohiturak ez daude «inon», nire iritzia hemen dago. Nolanahi ere, ez dut neure burua jotzen, inondik ere, Vedetan aipatzen diren gizaki pribilegiatu horien leinukotzat, zeinek «egiazko fedearekin sinesten baitute existitzen den oro jan dezakeela Izaki Goren Nonahikoak», alegia, ez duela zertan galdetu zer jaten duen ezta nork prestatzen duen ere; halakoen kasuan ere aintzat hartu behar da, iruzkingile hindu batek nabarmendu bezala, soilik «larritasun-garaietan»<sup>235</sup> baimentzen duela pribilegio hori Vedantak.

Jateko garaian nork ez du gozatu plazer ezin adierazizko batez, apetituak batere zerikusirik izan gabe horretan? Atsegin dut pentsatzea dastamenak, oiesa izan arren oro har, hautemate intelektual bat eman didala, inspirazioa sartu izan zaidala aho-sabaitik, nire jeinua elikatu dutela muino-mazeletan jandako ahabiek. «Arima ez bada bere buruaren jabe», dio Tseng-Tse-k<sup>236</sup> «ikusitako gabe begiratzen dugu, aditu gabe entzuten dugu, eta dastatu gabe jaten dugu». Janariaren egiazko zaporea dastatzen duena ez da sekula izango saloa; janariaren egiazko zaporea dastatzen ez duena, berriz, horixe izango da halabeharrez. Zinegotzi batek bere dortoka-zopa jaten duen apetitu berarekin jan dezake puritanoak bere ogi-mutur beltza. Gizona ez du kutsatzen bere ahotik sartzen den janariak, ezpada jaterakoan duen apetituak. Gakoa ez da kalitatea, ezta kopurua ere, zapore sentsualekiko debozioa baizik, hau da, jandako horrek ez elikatzea gure barneko animalia edo gure bizi espirituala, ezpada menderatzen gaituzten zizareak. Ehiztariak gogoko baditu musker-dortokak, arratoi

---

235 Rajah Rammohun Roy (1772-1833) Indiako erlijio-gizon eta intelektualaren *Translation of Several Principal Books, Passages, and Texts of the Veds and of Some Controversial Works of Brahmunicipal Theology* (Londres, 1832) liburuko aipua.

236 Kontfuzioren ikasle nabarmena.

musketadunak edo halako gutizia basatiak, eta andre apaina, aldiz, zekor-apatxez eginiko jelearen eta ozeanoaz beste aldeko sardinen zalea bada, maila berean daude biak. Joaten da ehiztaria errotara, irekitzen du andreak bere kontserba-potoa. Harrigarriena da, ordea, haiek nola izan daitezkeen gauza, zu eta ni bezala, bizimolde nardagarri eta aberekoï hau bizitzeko jan-edanean.

Gure bizitza osoa txundigarriki morala da. Sekula ez da izaten su-etenik, ezta segundo batez ere, bertutearen eta bizioaren artean. Ontasuna da inoiz huts egiten ez duen inbertsio bakarra. Munduaren jira dardarikatzen duen harpa-soinuak adierazten digu hori behin eta berriz, eta liluratzten gaitu. Harpa dugu, hain zuzen, Aseguru Konpainia Unibertsalaren saltzaile ibiltaria, aholkuak ematen dizkigu haren legeeï buruz eta gure ontasunaren pusketatxo bat beste primarik ez dugu ordaintzen. Gazteria, azkenean, axolagabea bihurtzen bada ere, unibertoaren legeak ez dira axolagabeak inondik ere; aitzitik, sentikorrenaren alde paratuko dira beti. Entzun zefiro orok dakarren gaztigua, hortxe dago-eta; zortekoa da halakorik entzuten ez duena. Soka bat laztandu edo erregistro bat jo orduko, moral xarmagarriak gati-batuko gaitu. Egin soinu desatsegin bat, joan urrutira, eta ikusiko duzu musika dirudiela distantzia horretatik: gure bizitzen zekentasunari buruzko satira gozo eta harro bat.

Jakitun gara gure baitan gordetzen dugun animaliaz, zeina gure izaera gorena lokartzen den heinean iratzartzen baita. Narrastia eta sentsuala da, eta beharbada ezin dugu osoki kanporatu, hala nola ezin ditugun osoki bota bizirik eta osasuntsu gaudenean ere gure gorputzetan bizi diren zizareak. Harengandik urrundu gaitezke agian, baina ezin dugu inoiz aldatu haren izaera. Beldur naiz ez ote den osasuntsua berez, beldur naiz ez ote gauden ondo, puruak ez izan arren. Aurreko batean urde baten beheko baraila aurkitu nuen, hortz eta letagin zuri eta sendoekin; horrek iradokitzen du badagoela animalia-osasun eta -indar bereizgarri bat, espirituala ez bezalakoa. Izaki hark, bere bidean aurrera egiteko, ez zituen neurritasunaren eta purutasunaren baliabideak. «Gizonak eta piztia basatiak bereizten dituen» dio Mentziok,<sup>237</sup> «gauza benetan hutsala da: gizon arrunten saldoak azkar asko galtzen du; gizon gorenek tentu

---

237 Meng-Tse (K.a. 372 - K.a. 289), Txinako filosofoa.

handiz gordetzen dute». <sup>238</sup> Nork daki zer bizi-mota izango genukeen baldin eta purutasunari eutsi izan bagenio? Ezagutuko banu purutasuna irakasteko adinako jakinduria duen gizonik, haren bila joango nintzateke kolpetik. «Gure pasioen gaineko agintea, gorputzaren kanpoko zentzumenen gainekoa, eta ekintza onen gainekoa, ezinbestekoak dira, Vedaren arabera, Jainkoarengana hurbil dadin gogoa». <sup>239</sup> Espiritua gai baita, denborarekin, gorputzeko adar eta funtzio oro kontrolatzeko, sentsualitaterik zikinenaren tankera duen hori aldatzeko eta purutasun eta debozio bihurtzeko. Energia sortzaileak, laxo gaudenean, hondatu eta lohitu egiten gaitu, eta indarra eta inspirazioa eskaintzen dizkigu, aldiz, gure buruari eusten diogunean. Kastitatea da gizonaren loratzea, eta Jainua, Heroismoa, Santutasuna eta enparauak horren ondorioz sortzen diren fruituak baizik ez dira. Purutasunaren bidea zabalik dagoenean gizona berehala jariatzen da Jainkoarengana. Ondoz ondotik, gure purutasunak inspiratzen gaitu, eta gure zikinkeriak eraisten. Bedeinkatua da dakiena egunetik egunera bere baitako animalia hiltzen ari dela, eta haren tokian izaera zeruzkoa finkatzen ari dela. Beharbada ez dago inor bere baitan bizi den piztia behearena dela kausa lotsatzeko motiborik ez duena. Beldur naiz ez ote garen erdi-jainkoak soilik, faunoak eta satiroak bezalakoak, zerutiarrarekin loturiko piztiak, apetituaren kreaturak; beldur naiz, hein batean, gure bizia bera ez ote den gure zorigaitza.



«Zorionekoa hura, bere tokia esleitu diona  
bere piztiei, eta bere gogoko basoa soildu duena!



Erabil ditzake zaldia, ahuntza, otsoa edo beste edozein piztia,  
eta ez dirudi asto bat besteen aurrean!  
Osterantzean, gizona ez da bakarrik urde,  
ezpada bere barruan dauden deabruak ere,  
zeinek amorrarazten duten, eta okerrago bihurtzen». <sup>240</sup>

---

238 Guillaume Pauthier (180-11873) Frantziako orientalistaren *Confucius et Mencius* (1841) liburuko aipua.

239 Rajah Rammohun Roy-ren *Translation of Several Principal Books, Passages, and Texts of the Veds and of Some Controversial Works of Brahmunicipal Theology* (Londres, 1832) liburuko aipua.

240 John Donne (1572-1631) Ingalaterrako poetaren «To Sir Edward Herbert at Julyers» laneko aipua.

Sentsualitatea bat eta bakarra da, nahiz eta aurpegi asko dituen; purutasuna bat eta bakarra da. Berdin du gizonak sensualki jaten, edaten, etxea partekatzen edo lo egiten duen. Apetitu bat eta bakarra dira guztiak, eta pertsona bat jarduera horietako batean ari dela ikuste hutsarekin badakigu zer neurritan den sentsualitatearen zale porrokatua. Lizunak ezin dira zutik egon, ezta eseri ere, purutasunez. Narrastiari eraso egiten badiote bere zuloaren alde batean, beste zulo batetik aterako da. Kastoia izan nahi baduzu, neurritz jardun behar duzu. Zer da kastitatea? Nola jakingo du gizonak kastoia den? Ez du jakingo. Bertute horren aditzea dugu, baina ez dakigu zer den. Aditutako zurrumurruari jaramon eginez mintzatzen gara. Ahaleginaren ondorio dira jakinduria eta purutasuna; nagikeriarenak, berriz, ezjakintasuna eta sentsualitatea. Ikaslearen kasuan, gogoaren alferkeria da sentsualitatea. Pertsona zikinak pertsona nagiak izaten dira unibertsalki; sutondoan eserita daudenak beti, eguzkia altxatu eta gero etzanda jarraitzen dutenak, nekatuta egon gabe ere atsedentzen direnak. Zikintasuna eta beste bekatu guztiak sailhesteko, egin lan zintzoki, ukuilu bat garbitzen bada ere. Zaila da natura menderatzea, baina menderatu behar da. Zertarako balio du kristaua izateak, baldin eta ez bazara paganoak baino puruagoa, ez bazara haiek baino gehiago sakrifikatzen, ez bazara haiek baino erlijiosoagoa? Ezagutzen dut paganotzat jotzen den erlijio-sistema franko, zeinen aginduek lotsaraziko bailukete irakurlea, eta ahalegin berriak egitera bultzatu, erri-tuen ospakizunari dagokionez besterik ez bada ere.

Zalantzak ditut halako gauzak esateko, baina ez da gaia-rengatik —ez zait nire *hitzen* lohitasuna axola—, baizik eta halakoei buruz mintzatzean agerian uzten dudalako nire zikintasuna. Aske eta lotsarik gabe aritzen gara sentsualitate-molde batez, eta isilik geratzen gara beste bati dagokionez. Hain gaude beheraturik, ezin baitugu sinpleki hitz egin giza naturaren funtzio premiazkoez. Lehenagoko garaietan, zenbait herrialdetan, errespetuz mintzatzen zen funtzio guztiei buruz, eta legeen bidez arautzen ziren. Legegile hinduarentzat<sup>241</sup> ezer ez zen arruntzia, gaur egun gauza iraingarriak iruditzen zaizkigun arren. Hark

---

241 Manu, edo Menu, zuzenbide-kode erlijioso hinduaren autore: kodeak Manusmitri izena zuen eta sanskritoz bildu zen K.a. I. mendean.

irakasten du nola jan behar den, nola edan, nola bizi besteekin, nola libratu gernuaz eta gorozkiez, eta nola egin halako gauzak; horrela, zekena den hori goratzen du, eta ez du aitzakia hipokritarik aletzen, halako gauzak huskeriak direla alegia.

Gizon orok eraikitzen du tenplu bat, bere gorputza deritzona, gurtzen duen jainkoarentzat, bere-berea duen estilo baten arabera, eta ezin du zeregin horretatik eskapu egin marmola mailukatuz. Guztiok gara eskultoreak eta margolariak; gure haragia, odola eta hezurak dira gure materiala. Nobletasunak gizonaren hazpegiak fintzen ditu lehenik eta behin; zekenkeriak eta sentsualitateak, berriaz, aberetu egiten dute.

John nekazaria bere etxeko atarian eserita zegoen iraileko iluntze batean, egun osoan lanean jardun ostean, gogo oraindik ere bere zereginetan zuelarik gutxi-asko. Bainaturik, eseri egin zen, eta bere pentsakizunetan murgildu. Iluntze fresko samarra zen, eta auzokide batzuk beldur ziren ez ote zuen izotza egingo gauean. Bere pentsamenduen trenari erreparatzen hasi eta gutxira, norbait aditu zuen flauta jotzen, eta soinuak bat egin zuen bere aldartearekin. Lanaz pentsatzen ari zen oraindik; hainbesteko zama zen non, berarekin zerikusi gutxi izan arren, buruan bueltaka baitzebilkion denbora guztian eta gogoz kontra ekiten baitzion planak asmatzeari. Bere azalaren gaineko zarakarra baizik ez zen, etengabe kentzen zuen gainetik. Flautaren notak, ordea, bere lanari zegokiona ez bezalako esfera batetik iritsi zitzaizkion belarrietara, eta bere baitan lozorroan izandako gaitasun batzuen lanketa iradokitzen zuten. Musika horrek leunki desagerrarazi zituen bera bizi zen kalea, herria eta estatua. Esan zion ahots batek: «Zergatik geratzen zara hemen, zergatik bizi duzu bizitza zikoitz eta akigarri hau, baldin eta existentzia loriazko bat izateko aukera badaukazu? Izar horiek berak distirra egiten dute beste eremu batzuen gainean». Baina nola atera zitekeen bere egoeratik, nola migra zezakeen bestelako eremuetarantz? Gauza bakarra bururatzen zitzaion: austeritate-molde berri bat abiatzea, bere gogo bere gorputzera jaits zedin eta erredimitu zezan uztea, eta bere burua beti tratatzea gero eta errespetu handiagoarekin.

# HAMABI

## PIZTIAK BIZILAGUN

Batzuetan herriaren beste aldetik nire etxeraino etorrirako kide batekin<sup>242</sup> joaten nintzen arrantzan egitera, eta, halako egokieretan, afaria jatearen neurriko ariketa soziala bilakatzen zen afaria harrapatzea.

*Ermitaia:* Jakin nahi nuke zertan dabilen mundua orain. Azken hiru orduetan ez dut zirkinik aditu, ezta oti bat ere iratzeen artean jauzika. Lo daude usoak beren kotetan: zirkinik ez. Nekazari baten eguerdiko adarra ote da oraintxe bertan basoaren atzealdetik etorri den soinu hori? Peoiak gogotik ariko dira haragi egosia eta ogi indiarra jaten, eta sagardoa edaten noski. Zergatik larritzen dira gizonak hainbeste? Jaten ez duenak ez du lanik egin behar. Jakin nahi nuke zer uzta bildu duten. Nork bizi nahi du Boserena<sup>243</sup> zaunkak direla-eta inoiz ezin pentsatu den toki batean? Eta etxeko lanak! Deabruaren eskutokiak distirant mantendu beharra eta tinak igurtzi beharra, halako egun eder batean! Hobe etxerik ez izatea, eta zuhaitz huts batean abegi egitea goizeko zein iluntzeko bisitariari! Eta okilaren soinua bakarrik entzutea. Oi, hemen inguruan ibiltzen dira; han gehiegi jotzen du eguzkiak, uste dut bizitzatik gertuegi jaio direla. Ura daukat, iturburutik hartua, eta ogi beltz bat apalategian. Hara! Zurrumurre bat entzun dut hostoen artean. Ehiza-senari men egin dion herriko txakur goseturen bat izango ote da? Edo baso honetan omen dabilen txerri galdua bestela —haren oinatzak

---

242 William Ellery Channing poeta. Garai hartan Punkatasset Hill-en bizi zen, Walden lakutik sei milia iparrera.

243 Txakurren ohiko izena.

ikusi nituen euriaren ostean—? Badator, dardarka ari dira nire zumakeak eta arkakaratsak. Aizu, poeta jauna, zu al zara? Nola dakusazu mundua gaur?

*Poeta:* Begira hodei horiek, nola dauden zintzilik! Horixe da gaur ikusi dudan gauzarik ederrena. Halakorik ez da agertzen margolan zaharretan, ez eta atzerriko herrialdeetan ere, salbu eta Espainiako kostaldean. Hona hemen egiazko zero mediterranean bat. Bizibidea aurrera atera behar dudanez, eta ez dudanez mokadurik jan gaur, pentsatu dut arrantza egitera etortzea. Horixe da poeten egiazko lana. Ikasi dudan ofizio bakarra. Zatoz, abia gaitzen.

*Ermिताua:* Ezin uko egin. Ogi marroia laster amaituko da. Zurekin joango naiz aurki, pozarren gainera, baina meditazio serio bat bukatzen ari naiz oraintxe. Uste dut amaieratik gertu nagoela. Beraz, utz nazazu bakarrik tarte batez. Berandutu ez gaitzen, ordea, has zaitez zuloak egiten amuak biltzeko. Arrantzarako zizareak aurkitzea zaila da inguruotan, lurzoruan ez baitute ongarririk bota inoiz; arraza desagertu da ia. Zizareak bilatzeari dagokion kirola arraina harrapatzea bezain atsegina da kasik, goseak gehiegi estutzen ez zaituenean behintzat, eta uste dut gaurkoan zerorrek bilatu beharko dituzula. Gomendatuko nizuke hortxe sartzeko pala, pataten artean, milazuloak kulunkan dabiltzan lekuan. Esango nuke lurra hiru aldiz irauli aldiro zizare bat eskuratuko duzula, baldin eta ondo begiratzen baduzu belarraren sustraien inguruan, aitzurtzen ari bazina bezala. Edo, nahiago bazenu, urrunago joan zintezke, eta ez litzateke erabaki kaskarra izango, zeren egiaztatu baitut zizareen proportzioa handitu egiten dela ibilitako distantziaren karratuaren arabera.

*Ermिताua, bere kautan:* Ea bada, zertan ari nintzen? Uste dut gogo-aldarte zehatz honetan nengoela, mundua angelu honetatik eskaintzen zitzaidala. Zerura joan behar nuke, ala arrantzan egitera? Presaka eteten badut meditazio hau, beste aukera atseginen bat suertatzeko probabilitaterik ba al dago? Nire bizialdian inoiz ez naiz gertuago egon gauzen muina zein den argizetik. Beldur naiz nire pentsamenduak ez direla itzuliko. Zerbaiterako balio balu, txistuka dei egingo nieke. Eskaintza bat egiten digutenean, zuhurra al da hau esatea: «Pentsatuko dut»? Nire gogoetek ez dute arrastorik utzi, eta ezin dut bidea aurkitu berriro. Zeri buruz ari nintzen bada pentsatzen? Egun lanbrotzua



zen oso. Konfuzioren hiru esaldi hauek probatuko ditut, agian lehengo aldartea itzuliko didate berriro. Ez dakit zeharo abaildurik nengoen edo bozkarioaren eldarnioan. Gogoratu: aukera bakoitza behin bakarrik gertatzen da.

*Poeta:* Zer moduz orain, ermitaua; goizegi da oraindik? Hamahiru zizare oso atera ditut, eta txikiago batzuk ere bai; ez dute osorik estaltzen amua, baina baliagarriak suertatuko zaizkigu friji-arrainak harrapatzeko. Herriko zizareak handiegiak dira, perka batek bapo jan litzake amuari koska egin gabe ere.

*Ermitaua:* Konforme, abia gaitezen bada. Concordera joango gara? Ehiza ona dago, urak oso handiak ez direnean.



Zergatik osatzen dute mundua ikusgai dauzkagun objektu hauek hain zuzen? Zergatik dauzka gizonak animalia-espezie jakin hauek auzokide moduan; saguak bakarrik bete zezakeen zulo hori? Susmoa dut Pilpay-k eta konpainiak<sup>244</sup> erabili dituztela animaliak modurik egokienean, animalia guztiak baitira, zentzu batean, zama-piztiak, gure pentsamenduen puska bat garraiatzera behartuak.

Nire etxea hartu duten saguak ez dira sagu arruntak, herrialde honetara kanpotik ekarri omen zirenen modukoak, ezpada bertako mota basati bat, herrian ez dagoena. Ale bat bidali nion naturalista ospetsu bati,<sup>245</sup> eta interesgarria iruditu zitzaion oso. Eraikuntza-lanean nenbilela, sagu horietako batek nire etxearen azpian zeukan habia, eta bigarren zoru-geruza jarri eta txirbilak erraztatu aurretik, bazkalorduan kanpora atera eta nire oinetara eroritako papurrak jaten zituen. Ziur aski lehen aldia zen gizon bat ikusten zuena, baina laster asko ezagunak bihurtu ginen eta nire oinetakoen eta arropen gainean ibiltzen zen. Gai zen gelako hormetara igotzeko jauzi txikiak eginez, katagorria nola, zeinaren antza baitzuen mugitzen zenean. Handik gutxira, bankuan eserita nengoelarik ukondoa han bermatuta, nire arropara igo zen, mahukan gora egin, eta janaria bilduta neu-

---

244 *Panchatranta*, Indiako ipuinen eta elezaharren bilduma, Bidpai edo Pilpay izenez iritsi zen Europara. Hartan oinarritu dira Europako elezahar eta ipuin zahar asko, eta horiei buruz ere ari da Thoreau: Esopo, Jean de La Fontaine etab.

245 Suitzako naturalista Louis Agassizi. Ikus, halaber, 28. oharra. (testu guztia bateratzen denean aldatu beharko da).

kan paperera hurbildu zen itzulinguruka; janariari ondo eutsiz, saguarekin jolastu nintzen, eta, azkenean gazta-pusketa txiki bat hartu eta erpuarearen eta hatz erakuslearen artean mantendu nuelarik, hurbildu zitzaidan eta karraskatu zuen nire eskuan jesarrita; ondoren, garbitu zituen muturra eta atzaparrak euli baten antzera, eta alde egin zuen.

Luze gabe, euli-txori bat finkatu zen nire etxolan, eta zozo papargorri bat etxearen alboko pinu batean babestu zen. Ekainean, *Tetrao umbellus* deritzona, txori biziki lotsatia izan arren, nire leihoaren paretik pasa zen bere kumeekin; atzealdeko basotik etxe-atarira joan, eta kumeei deika aritu zen karaka eginez; izan ere, bere jarreraren bidez argi erakutsi zuen bera zela basoko oiloa. Hurbiltzen zatzaizkielarik, kume gazteak tupustean sakabanatzen dira, amaren seinale bati jarraituz, zurrunbilo batek eroan balitu bezala; hosto zein adar idorren hain antzekoak direnez, bidaiari askok ipini du oina, nahi gabe, habia baten erdian, eta aditu ditu txori zaharraren garrasiak eta dei larriak, edo ikusi du, bestela, ama hegoak astintzen bidaiariaren arreta erakartzeko, nahiz eta hark ez zekien kumeak inguruan zeudetik ere. Txori amak halako nahaste-borrastea eragingo du zure inguruan batzuetan, ez baituzu jakingo zer animalia den ere. Txikienak uzkurto egiten dira, hosto baten azpian gordez burua batzuetan, eta amak urrunetik esandakoari bakarrik men egiten diote; zu gerturatu arren, ez dira aterako beren ezkutalekutik, ez dute salatuko beren presentzia. Zapaldu genitzake, so egin genieziaieke minutu batez, eta hala ere ez genituzke deskubrituko. Esku-ahurrean eduki izan ditut minutu batez hain zuzen, eta beren amaren aginduei eta beren senari jaramon egitea beste kezkarik ez zuten erakusten: uzkurto egiten ziren, beraz, beldurrik gabe eta tinko. Hain da perfektua beren sen hori, non, behin batean, berriro hostoen gainean utzi nituelarik kumetxoak, eta horietako bat alboz jausi zelarik istripuz, posizio horretantxe aurkitu bainuen hamar minutu beranduago. Lumak dauzkate, txorikume gehienek ez bezala; oiloak baino azkarrago eta hobeto garatzen dira. Gogoangarria da beren begi ireki eta bareen eitea, nabarmenki heldua eta halere inozentea. Badirudi adimen oro islatzen dela beren begietan. Haurtzaroko purutasuna ez ezik, esperientziak argituriko jakinduria bat iradokitzen dute. Halako begiak ez dira txoriarekin batera jaiotzen, ezpada islatzen du-

ten zeruarekin batera. Basoetan ez dago pareko harribitxirik. Bidaiariak ez du maiz begiratzten halako iturburu garden batera. Ehiztari ezjakin edo arduragabeek tiro jotzen diote sarri amari urteko sasoi horretan, eta beste piztien zein hegazti harraparien mende geratzen dira kume inozente gaixoak, edo, bestela, haien guztiz antzekoa den orbelarekin nahasiz doaz arian-arian. Diotenez, oilo batek txitatzen dituenean, sakabanatu egiten dira bat-batean, eta galdu egiten dira horrela, ez baitute inoiz aditzen beren amaren deia, berriro bil daitezten. Horra hor nire oiloak.

Harrigarria da zenbat izaki bizi diren aske, basati eta ezkutuka basoan, nola mantentzen diren herrien inguruan, ehiztariak baino ez dutelarik susmatzen haien presentzia. Igaraba diskrezio handiz bizi da gero inguruotan! Lau oineko luzera izatera iristen da —mutiko txiki bat bezain handia—, gizaki bakar batek ere hura begiztatu gabe. Behin batean mapatxe bat ikusi nuen basoan, nire etxea dagoen lekuaren atzean, eta ziur aski harenak dira gauean aditzen ditudan oihuak. Normalean, eguerdian, ereite-lanen ondotik, ordubetez edo bi orduz atsedentzen nintzen gerizpean; jaten nuen bazkaria, eta irakurri egiten nuen zingira bat eta erreka bat elikatzen dituen iturburu baten inguruan, Brister's Hill-etik hurbil, nire lursailetik milia-erdira. Hara iristeko belardi batzuk jaitsi behar dira, pinuz beteak zingiraren inguruko baso zabalagora iritsi arte. Han, txoko itzaltsu batean, pinu zuri bat dago, eta haren azpian argiune garbi eta sendo bat, gustura esertzeko modukoa. Iturburuaren ondoan putzu bat zulatatu nuen, zeinak ur grisa eta argia ematen baitzuen ontzi bat ur har nezakeen handik, ura zikindu gabe, horregatik, udararen erdian, Waldeneko tenperatura igotzen zenean, egunero joaten nintzen iturburu hartara. Oilagorrek ere hara bideratzen zituen bere kumeak, zizareak bilatzeko lokatz artean; ur-bazterretik oin batera hegaldatzen zen, kumeak atzetik zituela, baina ni han nengoela konturatzen zelarik azkenean, alde batera uzten zituen, eta jira eta buelta hasten zen nire inguruan, gero eta gertuago, nigandik laupabost oinetara geratu arte; orduan, hegoak eta hankak hautsirik zituelako itxurak egiten zituen nire arre-ta erakartzeko eta ez niezaien gaztetxoei erreparatu; kumeak, ordurako, alde egiten hasiak ziren, denak ilara batean jarririk txio-txioka, amak agindu bezalaxe. Beste batzuetan kumeen pioa aditzen nuen ama ikusi gabe. Iturburuaren gainaldean pau-

satzen ziren usapalak berebat, zenbaitetan firin-faran ibiltzen ziren pinu zuriko adar leun batetik bestera; kategorria, berriz, bereziki ezaguna zitzaidan, enborrik hurbilenean behera jais-ten baitzen jakin-minez. Aski duzu basoko txoko erakargarriren batean esertzea tarte batez, eta hango biztanle guztiak parera aterako zaizkizu txandaka.

Gertaera ez hain baketsuen lekukoa izan nintzen halaber. Joan nintzelarik egun batean nire egurtegiara, edo, hobeto esanda, nire motzondo-pilara, ikusi nituen bi inurri handi, gorria bata, beltza eta puskaz handiagoa bestea, ia hazbete-erdiko luze-rarekin, elkarren aurka borrokan ankerki. Behin trabatu zirelarik ez zuten elkar askatzen, indarka aritzen ziren aitzitik, ezpalean artean biraka eta iraulka. Zertxobait urrutiago begiratu nuelarik, ohartu nintzen, harriturik, ezpal guztien gainean ageri zirela gerlariak, eta hura ez zela *duellum* bat ezpada *bellum* bat,<sup>246</sup> bi inurri-arrazaren arteko guda: gorriak beltzen kontra ziharduten beti, eta batzuetan bi gorri beltz bakarraren kontra. Mirmidoi<sup>247</sup> hauen legioez estalirik zeuden nire egurtegiko muinoak eta harana, eta zoruan sakabanatzen ziren jadanik hilak eta hil-hurren zeudenak, gorriak zein beltzak. Ez dut inoiz ikusi beste borrokal-dirik, ez naiz inoiz izan beste gudu-zelai batean bataila pil-pilean zegoelarik; barne-guda bat, errepublikar gorriak alde batean eta inperialista beltzak bestean. Bi alderdiak ari ziren hil ala biziko lehian, nahiz eta ez zuten soinurik egiten, ez behintzat nire belarriek adi zezaketenik, eta giza soldaduak ez dira inoiz borrokatu halako deliberoarekin. Ikusi nuen gudari-pare bat elkarren besarkadan tinko kateaturik ezpalean arteko haran eguzkitsu batean; eguerdia izanik, prest zeuden liskarrean jarduteko ilundu arte, edo bizitzak alde egin arte. Txapeldun gorri txikiak bizio batek bezain irmo heldua zeukan bere etsaia burutik, eta, zafraldiak zafraldi, tai gabe karraskatzen zuen haren antenetako bat sorburutik beretik —beste antenna lehenago erauzia zion—; beltzak alde batetik bestera astintzen zuen, eta gehiago hurbildu nintzenean ikusi nuenez, gorputz-adar ugari atereak zizkion ordurako. Bulldog txakurren neurriko temarekin borrokatzen ziren. Ez zuten erakusten atzera egiteko jarrera den mendrenik

---

246 Latinez, duellua eta gerra, hurrenez hurren.

247 Troiako gudan Akilesen aginduetara borrokatu zen herria.

ere. Argi zegoen «Konkistatu ala hil» gudu-oihuari jarraitzen ziotela. Bien bitartean, iritsi zen inurri gorri bakarti bat haran hartako alde batera, nabarmen asaldaturik; bazirudien bere are-riari gailendu zitzaiola jada edo oraindik ez zuela parte hartu borrokan; ziur aski bigarren aukera zen egia, osorik zituelako gorputz-adar guztiak, eta amak agindu zion ezkutuarekin itzul zedila gudalditik, edo ezkutuaren gainean bestela. Edo Akiles bat izan zitekeen beharbada, bere amorrua aparte elikatu ostean bere Patroklo salbatzera zetorrena. Erreparatu zion urrunetik borrokaldi desorekatuari —neurriaren aldetik gorriak halako bi baitziren beltzak—, hurbildu zen pauso biziarekin, adi geratu zen gerlariengandik hazbete-erdira eta, aukera ikusirik, ekin zion etsaiaren eskuineko atze-hanka errotik karraskatzeari, haren esku utziz bere zer gorputz-adarri erasotu, eta modu horretan hiru inurri zeuden elkarri loturik bizi osorako, erakarpen-modu berri bat asmatu balitz bezala, gainerako morroilo eta zementu guztiak hutsaren pare lagatzen zituen. Une horretan ez nintzatekeen harrituko baldin eta ohartu banintz alde bakoitzak bere musika-banda zuela ezpal ederren batean paraturik bakoitzaren doinu nazionala jotzen denbora guztian, geldoak suspertzeko eta hiltzorian zeuden gerlariak hauspotzeko. Ni neu aztoraturik sentitzen nintzen, gizonak izan balira bezalaxe. Gaiaz zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta txikiagoa da aldea. Eta gauza ziu-rra da ez dagoela beste gudaldirik, Concordeko historian behinik behin, eta agian Amerikako historian ere ez, gudaldi honekin al-dera daitekeenik, borrokalarien kopuruagatik edo borrokalariek erakutsitako abertzaletasun eta heroikotasunagatik. Kopuruak eta sarraskia aintzat hartuta, Austerlitz edo Dresdenen parekoa izan zen.<sup>248</sup> Concordeko gudua! Bi hildako abertzaleen aldean, eta Luther Blanchard zauriturik!<sup>249</sup> Hemen, izan ere, inurri oro zen Buttrick bat —«Egin tiro! Jainkoarren, egin tiro!»—,<sup>250</sup> eta mi-

---

248 Napoleondar Gerretako bi bataila, 1805eko abenduaren 2an eta 1813ko abuztuaren 25-26an gertatu zirenak hurrenez hurren. Laurogei mila soldadu hil ziren guztira.

249 Actoneko (Massachusetts) musikari bat. Ziur aski bera izan zen Concordeko batailan, 1775eko apirilaren 19an, ingelesak tiroka hasi zirenean zauritu zuten lehen amerikarra.

250 John Buttrick (1731-1791), Concordeko Batailan bertako milizia gidatu zuen buruzagietako bat. Hasieran, tirorik ez jotzeko agindua zuten arren, britainiarrak tiroka hasi zirenean, «Egin tiro! Jainkoarren, egin tiro!» garrasi egin zuen.

lakak jasan zuten Davis-en eta Hosmer-en patua.<sup>251</sup> Hemen ez zegoen mertzenariorik. Ez daukat zalantzarik printzipio baten alde borrokatzen zirela, gure arbasoak nola, eta ez, aldiz, tearengatik hiru pennyko zerga bat ordaindu beharra galarazteko;<sup>252</sup> eta, dagozkienentzat, bataila honen ondorioak Bunker Hill-eko batailarenak<sup>253</sup> bezain garrantzitsuak eta gogoangarriak izango dira.

Xeheki deskribatu ditudan hiru inurriak zeuden ezpala hartu nuen, eraman nuen nire etxera, eta jarri nuen leiho-hegian, edalontzi baten azpian, kontua nola amaitzen zen ikusteko. Mikroskopia batekin begiratu nion lehenik aipatu dudan inurri gorriari, eta ohartu nintzen, arerioaren eskuineko zangoa karaskatzen ari bazen ere nekaezin, haren bigarren antena erauzi ostean, urraturik zeukala bularra eta agerian zituela organo bitalak, gudari beltzaren mende —itxuraz behintzat, beltzaren toraxa lodiegia zen gorriak zulatu ahal izateko—; eta minez zegoenaren karbunko-begi beltzak diz-diz ari ziren, gerrak baino pitz ezin dezakeen krudeltasunarekin. Beste ordu-erdiz segitu zuten borrokan edalontziaren azpian, eta berriro begiratu nuenan soldadu beltzak burua moztua zien bi etsaiei; bizirik zeuden oraindik, beltzaren alde banatara zintzilik, garaikur ikaragarrien eran; bazirudien lehen bezain tinko eusten ziotela, eta beltza haiez libratzeko ahaleginetan zebilen ahulki, bi antenaren faltan eta hanka bakar batekin —eta auskalo zenbat zauri gehiago izango zituen—: lortu zuen azkenean, ordu-erdi beranduago. Kristala altxatu nuen eta leiho-hegirantz abiatu zen elbarri. Borrokaren ostean bizirik iraun ote zuen, eta bere egunak *Hotel des Invalides*-en<sup>254</sup> batean igaro ote zituen, hori ez dakit, baina pentsatu nuen bere esfortzuak ez zuela balio handirik izango horren ostean. Ez nuen sekula jakin zer bandok irabazi zuen, ezta gerraren kausa zein izan zen ere, baina artega igaro nituen egunaren gainerako orduak, borrokaren lekukoa izan nintzelako, ikusi nituelako nire atariaren aurrean giza batailaren basakeria eta hilkintza.

---

251 Isaac Davis kapitaina eta David Hosmer izan ziren batailan hildako amerikar bakarrak.

252 Britainiarrek kolonietako biztanleei tearen ordainarazten zieten zerga; haserrea areagotu zuen, eta Bostoneko Tearen Alderdia sortzea eta Iraultza Amerikarra piztea eragin zuen.

253 1775eko ekainaren 17ko bataila; Breed's Hillen gertatu zen egiaz (Charlestown, Massachusetts), ez Bunker Hillen.

254 Frantziako Luis XIV. erregeak 1670eko hamarkadan eraikiarazitako ospitalea, gerrako beteranoentzat. Parisen dago.

Kirbyk eta Spencek kontatzen digutenez, aspalditik gertatzen dira inurrien guduak, eta haien datak erregistratu dira, nahiz eta, diotenez, Huber<sup>255</sup> den halako baten lekukoa izandako autore moderno bakarra. «Eneas Silvio<sup>256</sup>» diote, «xehe-xehe deskribatu ostean madariondo baten enberraren gainean espezie handi batek eta txiki batek elkarren aurka egindako borrokaldi tematia, eransten du «Eugenio IV.aren<sup>257</sup> pontifikatuan gertatu zela [hura], Nikolas Pistoriensis abokatu handiaren aurrean, zeinak batailaren historia azaldu baitzuen guztiz fidelki». Inurri handien eta txikien arteko antzeko borrokaldi bat erregistratu zuen Olaus Magnus-ek;<sup>258</sup> orduko hartan, txikiek, garaile suertaturik, lurperatu zituzten beren soldaduen gorpuak, baina ez, ordea, etsai erraldoien hilotzak, zeinak txori harraparien menera utzi baitzituzten aitzitik. Suediako Kristian II. tiranoa<sup>259</sup> kanporatu baino lehen gertatu zen hura». Neronek ikusitako bataila, berriz, Polk<sup>260</sup> presidente zelarik gertatu zen, Webster-en Esklabo Iheslariaren Legea<sup>261</sup> onartu baino bost urte lehenago.

Herriko txakur asko, soto batean musker-dortokak pertsegitzeko beste ezertarako gai ez izanik, basoetara etortzen ziren atzeko zango astunei eragitera, beren nagusiek ezer jakin gabe, eta alferrik usaintzen zituzten azeri- eta marmota-zulo zaharrrak, basoan barna iaotasunez mugitzen zen eta oraindik ere hango biztanleen artean ikara apur bat eragin zezakeen txakur basatiren batek gidaturik beharbada; atzean geraturik, zaunkaka aritzen zitzaizkien, zezen kaninoak nola, arbola batera ikuspegia arakatzera igotako katagorri txikiei, eta korrika abiatzen ziren gero, zuhaixkak tolestuz beren zamarekin, jerboen familiaiko kide galduren baten arrastoaren atzetik zihoazela sinetsirik. Behin batean zur eta lur geratu nintzen katu bat ikusi nuelarik lakuaren ertz harritsuan barna oinez, gutxitan ausartzen baitira etxetik hain urrun ibiltzera. Hura ere harritu zen. Katurik etxetia-

---

255 Pierre Huber (1777-1840), Suitzako entomologoa.

256 Pio II. Aita Santua, Eneas Silvio Piccolomini jaiotzeko izenez (1405-1464).

257 Eugenio IV. Aita Santua, Gabriel Condulmaro jaiotzeko izenez (1383-1447).

258 Suediako elizgizona eta historialaria (1490-1558).

259 Kristian II. (1481-1559), Danimarkako, Suediako eta Norvegiako errege ankerra.

Haren manupekoak altxatu egin ziren 1532an, eta kartzelan sartu zuten bizi osorako.

260 James K. Polk (1795-1849). AEBko presidentea izan zen 1845etik 1849ra.

261 1850eko legea: Iparraldeko Estatuetakoko hiritarrek behartzen zituen Hegoaldeko Estatu esklabistekin lankidetzan jardutera, ihes egindako esklaboak bilatu eta atxilo har zituzten.

rrena ere, bere egunak alfonbra gainean etzanda igaro dituen, etxean bezalaxe egoten da basoan, eta ohiko biztanleak baino bertakoagoa bilakatzeko da bere jarrera maltzuraren bitartez. Egun batean baiak biltzen ari nintzelarik, katu bat aurkitu nuen basoan bere katakumeekin; basatiak ziren zeharo, eta ama bezala kumeak ere bafadaka hasi zitzaizkidan oldarkor, bizkarra zut. Basoan bizitzera joan baino urte batzuk lehenago, ba omen zen katu «hegodun» bat; Lincolneko etxalde batean bizi zen, lakutik gertuen zegoenean, Gilian Baker-en etxaldean hain zuzen. Hurbildu nintzelarik hura ikusi asmoz 1842an, ehizara joana omen zen basora ohi moduan, baina bere nagusiak esan zidan urtebete lehenago iritsi zela estreinako inguru hartara, apirilean zeharko, eta etxean onartu zutela azkenean; gris marroikara omen zen, puntu zuri bat zeukan eztarrian, oin zuriak eta azerien tankerako isats sarri eta luzea; neguan ilea lazten eta zapaltzen omen zitzaion alde guztietan, hamabi hazbete luze eta bi eta erdi hazbete zabaleko zerrendak osatuz, eta mataza bat kokotsaren azpian: eranskin horiek leun-leunak ziren goialdean, eta korapiloz beteak azpialdean, eta erori egiten ziren udaberrian. Haren bi «hego» eman zizkidaten, gordeta dauzkat oraindik. Ez daukate mintzen arrastorik. Batzuek uste zuten katagorri hegalarari baten edo bestelako animalia basatiren baten ondorengoa zela, eta ez da guztiz ezinezkoa, zeren, naturalisten esanetan, hibrido ugalkorrek sortu izan baitira leporien eta etxeko katuen nahasketatik. Katurik izan banu, halakoxe bat izango litzateke proposena niretzat; izan ere, poetaren zaldia hegoduna baldin bada, zergatik ez da hegoduna izango haren katua ere?

Udazkenean, ohiko eran, aliota etortzen da (*Colymbus glacialis*),<sup>262</sup> mudatzera eta lakuan bainatzera; ni altxatu aurretik zabaltzen dira basoan haren barre salbaiaren oihartzunak. Haren iritsieraren zurrumurruek aditurik, erne jartzen dira Milldameko ehiztari guztiak; kalesetan edo oinez hurbiltzen dira basora, binaka edo hirunaka, aldean harturik errifle patentatuak, bala konikoak eta largabistak. Basoak zeharkatzen dituzte xuxurlaka, udazkeneko hostoak bezala, gutxienez hamar gizon aliota baikoitzeko. Lakuaren alde honetan paratzen dira batzuk, eta beste aldean besteak, zeren txori gaixoa ezin baita egon toki guztietan

---

262 Gaur egun, *Gavia immer* da hegazti horren izen zientifikoa.



aldi berean: han murgiltzen bada hemendik atera beharko du derrigorrez. Orain, baina, altxatu da urriko haize atsegina, hosoak dardarka jarriz eta uhinak sortuz lakuaren azalean, halako moduan non ezin baita aliotarik ikusi ez aditu ere, nahiz eta haren etsaiek lakua miatzen duten beren largabistekin eta basoa astintzen duten tiroak joz. Olatuak eskuzabaltasunez altxatu eta amorruez lehertzen dira, uretako hegaztiak aldeztuz, eta gure ehiztariak atzera egin behar izaten dute, herrirantz, erosketak egitera eta amaitu gabeko kontuak amaitzera. Baina sarriegietan arrakasta izaten zuten. Ontzi bete ur hartzera joaten nintzelarik goizean goiz, maiz ikusten nuen txori eder hori nire kalatik urruntzen kana batzuk. Saiatzen banintzen harengana iristen txaluparekin, bere maniobrak behatu nahian, uretan murgildu eta galdu egiten zen, eta ez nuen berriro begiztatzen arratsaldera arte. Baina azaleko lehiakide bat baino gehiago nintzen ni harentzat. Euriarekin desagertu ohi zen.

Urriko arratsalde lasai batean ipar ertzean zehar nenbilen arraunean, aliotak halako egunetan hurbiltzen baitira lakura bereziki, asklepiak jausten diren garaian; alferrik arakatu nuen lakua hegazti horietako baten bila, baina, bat-batean, bazterretik erdigunera zihoalarik nigandik kana gutxi batzuetara, algara ozen bat egin eta non zegoen salatu zuen. Arraun bakarrarekin jarraitu nion eta murgildu egin zen bera, baina atzera ur-azalera atera zenean inoiz baino gertuago nengoen harengandik. Urperatu zen berriro, erratu nintzen norabidean, eta, berriz agertu zenean elkarrengandik berrogeita hamar kanara geunden, distantzia areagotzen lagundu nuen-eta; barre egin zuen berriro, lehen baino motibo gehiagorekin gainera. Hain trebeki mugitzen zen, ezin bainintzen hurbildu harengandik dozena-erdi bat kanara baino gehiago. Azaleratzen zen aldiro, burua harat-honat biratuz, ikuskatzen zituen ura eta lurra hoztasunez, eta aukeratzen zuen norabidea ur-hedadura zabalenean eta txalupatik albait urrutien ateratzeko gero. Harrigarria zen erabakia hartzeko eta gauzatzeko zuen abaila. Lakuaren zatirik zabalenera eraman ninduen berehala, eta ezin izan nuen handik atera berriro. Aliota pentsatzen ari zelarik, ni saiatzen nintzen burmuinean zer zerabilen asmatzen. Jolas polita zen, lakuaren gainazal lauan jolasten genuena: gizona aliotaren aurka. Uraren azpian desagertzen da bat-batean zure etsaiaren dama, eta be-

rriro agertuko den lekutik ahalik eta gertuen kokatu behar duzu zurea. Batzuetan, beste aldean agertzen zen nik hala espero izan gabe, txaluparen azpi-azpitik igaro izan balitz bezala. Hain zituenu hego zabalak, hain zen nekaezina, non oso urrutira igeri egin eta gero ere, berehala murgiltzen baitzen atzera, eta orduan ezinezkoa zen inork asmatzea lakuaren zer barrunbetan ote zebilen, azal barearen pean ikusgaitz, arrainek bezalaxe bizkor-bizkor igeri eginez, zeren aski denbora eta ahalmen baitzeukan lakuaren hondorik sakonenera joateko. Esaten da aliotak harripatu izan dituztela New Yorkeko zenbait lakutan ur-gaina baino laurogei oin beherago, amuarrainentzako amuekin; hori baino sakonagoa da Walden halere. Zeharo harriturik geratuko dira, bada, arrainak, beste esfera bateko bisitari trauskil hau ikusten dutenean abiada bizian igeri egiten beren sarden artean! Alabaina, bazirudien ur-azalean bezain trebeki konpontzen zela uraren azpian; are, behean askoz azkarrago igeri egiten zuen. Behin edo birritan uhin txiki bat begiztatu nuen ur-azalera hurbiltzen zelarrik; ateratzen zuen burua ingurua aztertzeko, eta urperatzen zen kolpetik berriz. Ohartu nintzen berdin zuela non aterako zen kalkulatzeko ahalegintzen banintzen, edo, kontrara, atsedean hartzen banuen arraunen gainean, zeren, begiak nekatzen nituen bitartean norabide batera so eginez, tupustean aditzen bainuen bere barre naturaz gaindikoa nire atzean. Baina, halako aztikeriaz jardun ostean, zergatik salatzen zuen bere burua harro-harro algara eginez ur-gainera ateratzean? Bere bular zuria ez al zen nahikoa deigarria? Aliota mozoloa zen dudarik gabe, pentsatu nuen. Normalean, uraren zarata adi nezakeen azaleratzen zenean, eta horrelaxe atzematen nuen. Baina ordubete pasata, hasieran bezain indartsu zegoela zirudien; gogo onez murgiltzen zen eta hasieran baino urrutia igeri egiten zuen. Ur-azalera iristean txundigarria suertatzen zen nolako baretasunarekin nabigatzen zen, bularra bare-bare, bere oin palmipedoek egiten baitzuten lan guztia uraren azpian. Barre deabruzko bat zen bere ohiko kantua, uretako hegaztiekin egiten dutenaren antzekoa, baina, noizean behin, arrakasta handiz eskapu egiten zidanean eta nigandik urrun ateratzen zenean, halako marru naturaz haraindiko bat egiten zuen, luzea eta jarraitua, otsoaren traza gehiago zuena beste edozein hegaztiren baino, piztia batek muturra lurrean sartu eta deliberoz orro egiten duenean

bezala. Horixe zen bere ahotsa, hemen inguruan sekula entzun nuen soinurik basatiena beharbada; basoaren luze-zabalean aditzen zen. Ondorioztatu nuen nire ahaleginez trufatzen zela, bere baliabideekiko konfiantza osoa izanik. Ordurako ilundua zen zerua, baina lakua leun-leun ageri zen oraindik, beraz, aditzen ez banuen, ikusi egin nezakeen non irteten zen. Bere bular zuria, airearen baretasuna eta uraren leuntasuna: bere kontra ziharduten hirurak. Handik gutxira, nigandik berrogeita hamar kanara agertu zelarik, marru jarraitu horietako bat egin zuen, alioten jainkoari dei egingo balio bezala lagun ziezaion, eta berehala altxatu zen haizea ekialdetik, kizkurtu zen ur-azala eta lanbro-urez bete zuen atmosfera; ni txundituta geratu nintzen, bai baitzirudien erantzuna jaso zuela aliotaren erreguak eta haren jainkoa haserre zegoela nirekin; hala, azal nahasian desager zedin utzi nion han urrunean.

Udazkeneko egunetan hainbat ordu igarotzen nituen ahateei begira: trebezia handiz biratzen ziren, norabidez aldatzen ziren, eta lakuaren erdigunean eusten zioten hala ere, ehiztariengandik urrun; Louisianako zingiretan ez zuketen horrenbesteko premiarik izango halako trikimailuetan jarduteko. Hegaldatzera beharturik gertatzen zirenean lakuaren inguruan jiraka ibiltzen ziren altuera handian, puntu beltzak zeruan, eta handik erraz ikus zitzaketen beste lakuak eta erreka; aspaldi joanak zirela uste nuelarik, lur hartzen zuten berriro, milia-laurden bat alboz jaitsez, libre geratutako txokoren baterantz; alabaina, segurtasunaz aparte ez dakit zer lortzen zuten Waldenen erdigunean nabigatuta, ez baldin bada hango ura maite zutela neronek maite dudan arrazoi berengatik.



# HAMAHIRU

## ETXE BEROTZEA

Urrian mahatsa biltzera joan nintzen erreka alboko zelaie-tara eta barra-barra bildu nituen mulkoak, elikagaiagatik baino ederragoak beren itxuragatik eta lurrinagatik. Han miretsi nituen orobat, nahiz eta ez nuen ale bakar bat ere bildu, ahabiak, argizari-itxurako gema txikiak, belazeko sasetan zintzilik, per-lazko eta gorri; arrastelu itsusi batekin biltzen ditu nekazariak, zelai delikatua guztiz nahasirik utzita, neurtzen ditu lakaritan eta dolarretan arduragabe, eta Bostonera edo New Yorkera saltzen ditu larreen hondakinak, han *marmelada* egin dezaten naturaren zale kaletarren apetak asetzeko. Harakinek modu be-rean erauzten dituzte lautadako bisoien mihiak, izaki urratu eta odoldua bost axola zaielarik. Berberisaren fruitu distiratsuekin nire begiak soilik elikatu arren, sagar basati batzuk gorde nituen, hango nagusiak eta bidaiariek aintzat hartu gabeak, su mote-lean egosteko asmoz. Gaztainak heltzen zirenean lakari-erdi bat gordetzen nuen negurako. Pozgarria zen oso Lincolneko baso orduan mugagabean barna ibiltzea urte-sasoi hartan —orain, ordea, betiko lo daude hango zuhaitzak trenbidearen azpian—, zorroa sorbaldan eta fruituaren azal arantzatsua irekitzeko ma-kila eskuan, ez bainintzen beti zain egoten izotza iritsi arte; bila nenbilerarik, hostoen xuxurla eta katagorrien zein oskilasoen gaitzespen ozenak aditzen nituen, izan ere, haiek erdizka jan-dako gaztainak lapurtzen nituen batzuetan, sinesten nuelako haixek hautatzen zituztela alerik onenak. Tarteka zuhaitzetara igotzen nintzen, eta astindu egiten nituen. Nire etxearen atzean ere hazten ziren era askotako arbolak, eta etxea ia-ia itzalpean

uzten zuen zuhaitz eder batek auzo osoa biltzen zuen bere lur-  
rinarekin loretan zegoenean, baina katagorriek eta oskilasoek  
hartzen zituzten hango fruitu guztiz gehienak, oskilasoak goi-  
zean goiz hurbiltzen baitziren eta aleak jausi aurretik ateratzen  
baitzituzten oskoletik. Horrenbestez, haiei lagatzen nizkien etxe  
atzeko zuhaitzak, eta ni urrunagoko basoetara joaten nintzen,  
gaztainondoak nagusitzen ziren lekura. Ogiaren ordezeko onak  
dira gaztainak, sasoiak irauten duen bitartean behintzat. Behar-  
bada beste ordezeko mordo bat aurki liteke. Arrantzarako zizare  
bila ari nintzelarik egun batean, lurreko fruitu bat aurkitu nuen  
(*Apios tuberosa*), zorroa eta guzti; aborigenen patata da, fruitu mi-  
ragarri bat, eta zalantzan hasi nintzen benetan lurretik atera eta  
jan ote nuen haurtzaroan, azaldu izan dudak bezala, ala amestu  
egin ote dudak. Harrezkerotik maiz ikusi dut haren loratze gorri  
belusezkoa, beste landare batzuen zurtoinek eutsia, jakin gabe  
fruitu bat eta bakarra zela. Nekazaritzaren ondorioz desagertu  
egin da ia. Badu halako zapore gozo bat, patata azukreztatuen  
antzekoa, eta nahiago dut egosirik jan ezen ez labean egina.  
Naturaren promesa ahul baten iradokizuna dakar tuberkulu  
honek, Naturak zin egin izan balu bezala bere haurrak ekarriko  
zituela hona eta modu sinplean elikatuko zituela etorkizunean.  
Animalia lodituen eta zereal-eremu kulunkarien garaiotan, la-  
bore xume hau, behiala indiar tribu baten totema izandakoa,<sup>263</sup>  
ahaztu samarrik dago, haren loreak baizik ez ditugu ezagutzen,  
baina utz diezaiogun Natura basatiari hemengo erregina izan  
dadin berriro, eta, seguruenik, labore ingeles samur delikatuak  
desagertu egingo dira milaka areriores aurrean; gizonaren es-  
ku-hartzerik gabe, arto-hazi oro itzuliko du beleak indiarren  
Jainkoaren hego-mendebaldeko artasorora, handik ekarri omen  
baitzituen lehenik eta behin, eta, orduan, ia-ia desagerturik  
dagoen patata indiarren modua izango du biziberritzeko eta lo-  
ratzeko, izotza eta belar txarrak gorabehera, benetan indigena  
dela erakutsiko du, eta berreskuratuko ditu antzina ehiztarien  
tribuaren dietan izandako garrantzia eta duintasuna. Indiar Ze-  
res edo Minerva batek asmatu eta babestu behar izan zuen, eta  
poesiaren erreinua abiatzen denean hemen, haren hostoak eta  
lekak irudikatuko dira gure artelanetan.

---

263 Irokes herriarena, hain zuzen.

Irailaren lehena iritsi orduko ikusi nituen bizpahiru astigar txiki eskarlata bihurturik lakuaren beste aldean, hiru makalen enbor zuriak elkartzen diren lekuan, tontor baten ertzean, uraren alboan. Oi, zenbat kontu kontatzen zituen haien koloreak! Zuhaitz bakoitzaren izaera apurka-apurka azaleratu zen astez aste, eta denek miretsi zuten beren itxura lakuaren ispilu leu-nean islatua. Goizero, galeria horren kudeatzaileak irudi berri bat ipintzen zuen paretan zaharraren ordeaz, bezperakoa baino distiratsuagoa eta kolore ederragokoa.

Liztorrak saldoka iritsi ziren nire ostatura urrian, beren neguko kuartela balitz bezala hura, eta leiho zein paretetan instalatu ziren, etxe barruan, bisitariak uxatzera iritsiz zenbaitetan. Goizean soraioturik egoten baitziren hotzaren eraginez, erratzarekin ateratzen nituen kanpora, baina ez nuen ahalegin handirik egin haiez libratzeko, lausengaturik sentitzen bainintzen aterpe egokitzat jotzen zutelako nire etxea. Ez zidaten traba egin sekula, nirekin oheratzen baziren ere, eta arian-arian desagertu ziren, ez dakit zer arrakalatan barna, neguari eta hotz deskribaezinari ihes eginez.

Liztorren antzera neguko kuartelean gorde aurretik ni ere, Waldeneko ipar-ekialdera jotzen nuen azaroan, eguzkiak, pinuetan eta ertz harritsuan islaturik, lakuko sutondo bilakatzuten baitzuen inguru hura; askoz atseginagoa eta osasuntsuagoa da, ahal den heinean, eguzkiak epel zaitzala, eta ez su artifziazial batek. Horrela berotu nintzen bada, udak —ospa egindako ehiztariaren gisara— atzean utzitako hondakin artean goriet esker.



Tximinia eraikitzeari ekin nionean igeltserotza ikasi nuen. Bigarren eskuko adreiluak neuzkanez, paleta batekin garbitu behar izan nituen, eta ohi baino gehiago ikasi nuen adreiluen eta paleten ezaugarriei buruz. Adreiluei erantsitako kareoreak berrogeita hamar urte zituen, eta gogortzen ari omen zen oraindik ere, baina gizonak errepikatu nahi izaten duten esaera bat da hori, egia zein gezurra izan. Halako esamoldeak, izan ere, gogortzen eta tinkoago lotzen joaten dira denborak aurrera egin ahala, eta sasijakintsu zahar bati kolpe asko eman behar litzaizkioke paletarekin haiez libra dadin. Mesopotamiako herri asko eraiki ziren bigarren eskuko adreilu bikainekin —Babiloniako

hondakinetatik jasoak—, eta hango zementua are zaharragoa eta gogorragoa izango da ziur aski. Edonola den ere, harritu egin ninduen altzariaren trinkotasun bitxiak, tinko eutsi baitzion zartako indartsuak jaso arren. Nire adreiluak tximinia baten parte izan zirenez aurrez, nahiz eta ez nuen Nabukodonosorren<sup>264</sup> izena irakurri haien gainean, sutegiaren parte izandako adreilu albait gehien bildu nuen, lana eta soberakinak aurrezteko, eta adreiluen arteko tarreak, berriz, laku-ertzeko harriekin bete nituen; hango hondarrarekin osatu nuen, halaber, kareorea. Sutegiari eskaini nion denbora gehien, hura baitzen etxearen alderdirik garrantzitsuena. Halako deliberoarekin lan egin nuen, non, zoruaren mailan hasi nintzen arren goizean, zenbait hazbeteko adreilu-errenkaden gainean pausatu nuen burua gauean; halere, ez dut uste horrek eragin zidanik lepoko mina; nire lepoko mina askoz zaharragoa baita. Garaitsu hartan poeta bati ostatu eman nion bi asterako,<sup>265</sup> eta horrek arazoak sortu zizkidan espazioaren aldetik. Bere labana ekarri zuen, nik bi neuzkan arren, eta lurrean iltzatuz garbitzen genituen. Sukaldeko lanak banatu genituen. Pozik nengoen ikusirik nire lana altxatzen ari zela, guztiz karratu eta irmo, eta pentsatu nuen, mantso-mantso hazten ari bazen ere, luzaroan eutsiko ziola. Tximinia, hein batean, egitura independente bat da; batzuetan zutik geratzen da etxea erre ondotik ere, eta agerikoak dira haren garrantzia eta independentzia. Udaren bueltan izan zen hori. Azaroan geunden orain.



Hasia zen ipar-haizea lakua izozten, nahiz eta, ura hain sakona izanik, aste asko behar izan zituen lana burutzeko, putz eta putz eginez etengabe. Etxea emokatu aurretik sua pizten hasi nintzelarik ilunabarretan, tximiniak bereziki ondo erantzun zuen, zirrikitu asko baitzeuden egur-oholen artean. Halere, iluntze atsegina franko igaro nuen etxebizitza fresko eta haizetsu hartan, korapiloz josiriko ohol marroi lakarren artean eta azala garbitu gabeko habeak buru gainean. Emokatu eta gero, nire etxea ez

---

264 Babiloniako errege kaldearra (K. a. 605 - K. a. 562). Haren manupekoak oso trebeak ziren lokatzezko adreiluak egiten. Edward Hincks (1792-1866) Irlandako asiriologoak zehaztu zuen Babiloniako hondakinetako adreiluetan Nabukodonosorren izena agertzen zela.

265 William Ellery Channing. Thorearekin bizi izan zen bolada batez 1845eko udazkenean. Lurrean lo egiten zuen.



zitzaidan lehen bezain polita iruditu inoiz gehiago, baina onartu beharra nuen erosoagoa zela. Gizonaren bizileku orok ez al luke aski espazio utzi behar haren buru gainean iluntasuna sor dadin, itzal bihurriek jolas egin dezaten haben inguruan? Margolanak edo altzari apain gehienak baino atseginagoak dira halako formak fantasiarentzat eta irudimenarentzat. Esango nuke orduan hasi nintzela nire etxean bizitzen lehendabizikoz, aterpea izateko ez ezik, epeltasun-iturri gisa erabiltzen hasi nintzenez alegia. Bi sutxakur zahar lortu nituen, tximiniako egurrari eusteko, eta on egiten zidan neronek eraikitako tximiniaren atzean kedarra nola osatzen zen ikusteak; ohi baino eskubide eta aseptasun handiagoarekin hauspotzen nituen garrak. Txikia zen nire etxea, nekez sor nezakeen oihartzunik han, baina handiagoa zirudien gela bakarra zuelako eta auzoengandik urrun zegoelako. Etxeko erakarmen guztiak gela bakar batean bilduta zeuden; gela bat eta bakarrean biltzen ziren sukaldea, logela, ataria eta egongela, eta etxe batean bizitzeak dakarren poza edozein delarik ere gurasoarentzat zein haurarentzat, ugazabarentzat zein zerbitzariarentzat, guztiez gozatzen nuen nik. Katonek dioenez, familia-buruak (*patremfamilias*) bere landetxean izan behar ditu «cellam oleariam, vinariam, dolia multa, uti lubeat caritatem expectare, et rei, et virtuti, et gloriæ erit», hau da, «upategi bat olioa zein ardoa gordetzeko, upel ugari garai latzei atseginez itxaroteko; horrek areagotu egingo ditu bere abantaila, bertutea eta gloria».<sup>266</sup> Nik hauxe neukan sotoan: upel bat patata, bi laurden ilar-gurgurioekin, eta apalategian arroz pixka bat, melaza-poto bat eta zekale- zein arto-irin pitin bat.

Batzuetan amets egiten dut etxe handiago eta jendez beteago batekin, material sendoz eta apaingarri hutsalik gabe eraikia urrezko aroan; gela bakarra izango luke, gela zabal bat, lakarra, oinarrizkoa eta primitiboa, sabairik ez emokadurarik gabea, eta halako behe-zero bat osatuko litzateke norbere buruaren gainean kontragoihabe latzekin —euria eta elurra kanpoan uzteko erabilgarria—; habe nagusia, berriz, zut agertuko litzateke zure omenaldia jasotzeko pronto, atarian errespetua erakutsi diozularik, noski, dinastia zaharrago bateko Saturnorri. Etxe leizetsu bat, non sabaia ikusi ahal izateko zuzi bat piztu

---

266 Marko Portzio Katonen *De Agri Cultura* liburuko aipua. Ikus 61. oharra.

behar baituzu makil luze baten muturrean; etxe horretan, sutondoan biziko dira batzuk, leihoaren azpiko txokoan beste batzuk, eta bankuetan eserita beste zenbait; etxearen mutur batean zein bestean biziko da jendea, bai eta habeen gainean ere, armiarrekin batera hala nahi izanez gero; etxe horren barruan egoteko nahikoa izango da atea irekitzea, ez dago bestelako zeremonien premiarik; etxe horretan bere burua garbi dezake bidaiari nekatuak, jan dezake, hitz egin eta lotara joan, gehiago urrutiratzeko beharrik gabe; ekaitz-gau batean aurkitu nahi duzun aterpe-mota litzateke, etxe baten oinarrizko ezaugarri guztiak baititu, baina etxeko lanen zamarik ez; etxe horretan begi-kolpe bakarrean begiztatu daiteke altxor oro, eta dagozkien kakotik zintzilik daude gizonak behar dituen gauza guztiak; aldi berean da sukalde, janaritegi, egongela, logela, biltegi eta ganbara; etxe horretan aurkituko dituzue gauza guztiz premiazkoak, hala nola upel bat edo eskailerak, baita gauza komenigarriak ere, hala nola armairu bat, eta adituko duzue lapikoa bor-bor egiten eta errespetua adieraziko diozue afaria berotzen dizuen suari eta ogia prestatzen dizuen labeari; etxe horretan altzari eta tresna funtsezkoak dira apaingarri nagusiak; arropak ez dira etxe handik kanpo garbituko, sua ez da inoiz itzaliko eta etxekoandrea ere ez, eta beharbada tranpoletik apartatzeko eskatuko dizuete noizean behin, sukaldariak satora jaitsi behar duenean, eta modu horretan jakingo duzue, ostikorik emateko premiarik gabe, zorua sendoa edo hutsa ote den. Etxe bat zeinaren barnealdea guztiz irekia eta agerikoa baita, txoriaren habia bezalaxe; etxe horretan ezin zara aurretik sartu eta atzetik atera bertako bizilagun batzuk ikusi gabe; bisitaria aske ibili ahal izango da etxe osoan barna, ez zaio etxearen zazpi zortzirenetatik kanpo utziko, ziega jakin batean giltzapeturik, eta ez zaio esango etxean bezala sentitzeko bere konfinamendu bakarti horretan. Gaur egun, zure anfitrioiak ez zaitu bere etxean onartzen; aitzitik, igeltseroari eskatzen dio beste bat eraikitzeo kalekaren muturrean, eta hospitalitatea, beraz, zu ahalik urrutien *mantentzearen* artea da. Hain isilpean gordetzen dira sukaldaritzari buruzkoak, badirudi zu pozoitzeko eginahaletan dabiltzala. Badakit gizon askoren jabetzetan egon naizela, zeinetatik kanpora nindezaketen legez, baina ez dut uste gizon askoren etxean egon naizenik sekula. Joan ninteke, nire jantzi zaharrak soinean, goian deskribatu dudako

sinpletasunez bizi diren errege-erregina batzuen etxera, baldin eta bidera suertatuko balitzait, baina inoiz harrapatuta geratuko banintz palazio moderno batean, handik ospa egiteko modua besterik ez nuke ezagutu nahi.

Badirudi gure egongeletan darabilgun lengoaiak indarra galtzen duela eta hitzontzikeria huts bilakatzen dela, gure bizitzek ez baitute batere zerikusirik haren sinboloekin, eta metaforak zein tropeak astunak baitira, soken bidez zamatu beharrekoak; bestela esanda, egongela urrun-urrun dago sukaldetik eta lantegitik. Afaria bera afariaren parabola bat izaten da oro har. Ematen du salbaiak bakarrik bizi direla Naturatik eta Egiatik nahikoa gertu, hau da, bi horietatik tropo bat mailegatze-ko bezain hurbil. Nolatan jakingo du adituak, Gizonaren Irlako Ipar Mendebaldeko Lurraldean bizi delarik, zeri buruz hitz egin behar duen sukaldean?

Nolanahi ere, nire gonbidatu guztien artean bat edo bi bakarrik izan ziren aski ausartak etxean geratzeko eta morokila jateko nirekin; krisia bazetorrela ikusirik, ordea, alde egin zuten presatuta, etxeak dar-dar egin balu bezala goitik beheraino. Etxeak, alabaina, morokil askori eutsi dio.

Izotza iritsi arte ez nuen etxea emokatu. Horretarako, harrea zuriagoa eta garbiagoa bildu nuen ur-ertzaren beste aldera joanda txaluparekin; beharrezkoa izan balitz askoz urrutiago ere joango nintzen garraio bide hartan. Bizkitartean egurrezko teilekin estali nuen etxe osoa. Oholtxoak kokatzen ari nintzelarik, poztu ninduen iltze bakoitza mailu-kolpe bakarrarekin sartu ahal izateak, eta nire asmoa zen emokadura ere garbiki eta azkar eramatea pototik paretara. Gogoan nuen zer gertatu zitzaion tipo dotore bati, zeina, apain jantzirik, herrian barna ibiltzen baitzen langileei aholkuak emanez. Egun batean, ausartu zen berriketan jardun ordez lanari ekitera, altxa zituen mahukak, heldu zion emokadura-potoari, eta paleta zabarki kargatu ondoren, estali beharreko oholei patxada betean begiratzuz, keinu tinko bat egin zuen harantz; berehala, eta gizonaren harridurarako, pappareko parpailatara isuri zitzaion material guztia. Miretsi nituen berriro ere emokaduraren ekonomia eta abantailak —eraginkortasun handiz uzten du hotza kanpoan, akabera politarekin—, eta emokatzaileak aurre egin beharreko arriskuen berri izan nuen gainera. Harritu ninduen nolako egarriarekin edaten zuten adrei-

luek emokaduraren hezetasuna nik dena berdindu aurretik, eta zenbat kubo bete ur behar den etxe berri bat bataiatzeko. Aurreko urtean, esperimentu gisara, kare apur bat prestatu nuen gure errekek ematen dituen *Unio fluviatilisen*<sup>267</sup> oskolak errez, beraz, ezagutzen nuen nire materialen jatorria. Hemendik milia batera edo bira joanez gero, kareharri ona eskura nezakeen eta neronek erre, baldin eta horrek interesik izan balu niretzat.

• • •

Bien bitartean, izotz-geruza mehe batek estali zituen lakuko kalarik laiotzenak eta azalekoenak, izozte orokorra baino zenbait egun eta are aste lehenago. Lehenengo izotza bereziki interesgarria eta perfektua da: gogorra, iluna eta gardena, eta inoizko aukerarik onena eskaintzen du lakuaren hondoa aztertzeko oso sakona ez den lekuetan, izan ere, luze etzan zaitezke hazbete lodiko izotzean, intsektu irristaria nola ur-azalaren gainean, eta patxada ederrean ikuska dezakezu lakuaren azpialdea, soilik bizpahiru hazbetera baitago —argazki bat leiarraren atzean— eta ura bare-bare baitago ezinbestean. Harean badira ildo ugari, izakiren batek bere joan-etorrietan sortuak; hondakinei dagokionez, kuartzo zurizko ale ñimiñoz osaturiko trikoptero-oskolez josirik ageri dira. Agian trikopteroek berek eratu zituzten ildoak, kontuan harturik haren oskolekin beteta daudela, baina sakonegiak eta zabalegiak dira halako zomorro txikiek eginak izateko. Dena den, izotza da objektu guztietan interesgarriena, eta suertatzen zaizuen lehen aukera baliatu behar duzue hura aztertzeko. Arreta handiz erreparatzen badiozue estreinako izotzaren biharamunean, konturatuko zarete ezen, nahiz eta burbuilak izotzaren barruan daudela ematen duen hasieran, haren azpian justu kokatzen direla egiaz, eta burbuila gehiago igotzen direla etengabe lakuaren hondotik; izotza erlatiboki trinkoa eta iluna den bitartean, azpiko ura ikus daiteke. Burbuilak hazbete-hemezortziren baten eta hazbete-zortziren baten arteko diametroa dute, argiak eta ederrak dira zeharo, eta zure aurpegia ikus dezakezu haietan islaturik izotzean zehar. Hazbete karratu bakoitzeko hogeita hamar edo berrogei burbuila izaten dira gutxi gorabehera. Izotzaren barruan badira, halaber,

---

267 Ur gezako muskuilu arrunta, Unionidae familiakoa.

burbuila estu, luzanga eta bertikalak, hazbete-erdi luzeak: kono zorrotzak dirudite, erpina gorantz; sarriagotan, izotza freskoa denean, burbuila esferiko ñimiñoak pilatzen dira bata bestearen gainean, ale-soka bat bezala. Izotzaren barneko burbuilak, ordea, ez dira haren azpikoak bezain ugariak ez agerikoak. Batzuetan harriak jaurtitzen nituen, izotzaren gogortasuna probatzeko: azalera haustearekin batera airea sartzen zen, zeinaren eraginez sortzen baitziren burbuila zuri handi eta nabarmenak. Toki berera itzuli nintzelarik berrogeita zortzi ordu beranduago, ikusi nuen burbuila handiek beren horretan jarraitzen zutela, nahiz eta izotza hazbete lodiagoa izan, neronek sortutako arrakalarengatik egiazta nezakeen moduan. Baina azken bi egunak epelak izan ziren, San Martinetako uda txiki bat bezalaxe, eta izotza ez zen gardena, ez zuen erakusten uraren kolore berde iluna, ez eta hondoarena ere; aitzitik, opakua eta zurixka zen, eta lehen baino bi bider lodiagoa izanagatik ere, ez zen gogorragoa, aire-burbuilak erruz hedatu baitziren epeltasunaren kausaz, eta, denak bildurik, erregularatasuna galdu zuten; ez zeuden bata bestearen gainean zuzen, ezpada zorro batetik eroritako zilarrezko txanponen antzera, bata besteari gainjarrita edo maluta txikitan bilduta, zirrikitu ñimiñoak betetzen ari balira bezala. Joana zen izotzaren edertasuna, eta beranduegi zen hondo aztertzeko. Jakin nahi bainuen zer posizio zuten nire burbuila handiek izotz berriari zegokionez, hautsi nuen izotz-puska bat, barnean burbuila er-tain bat zeukana, eta alderantziz jarri nuen. Burbuilaren azpian eratu zen izotz berria, beraz burbuila bi izotzen artean harrapatuta zegoen orain. Egiaz, beheko izotzean zegoen osorik, baina goiko geruzatik oso hurbil, eta zapal samarra zen, edo zertxobait lentikularra agian, ertz biribilekin, hazbete-laurdeneko sakonera eta lau hazbeteko diametroarekin; harritu egin nintzen ikusirik erregularatasun handiz urtua zela burbuilaren azpi-azpiko izotza, alderantziz jarritako platertxo baten tankera hartuz: hazbete baten bost zortzireneko altuera zuen erdian, eta geruza mehe bat osatzen zuen uraren eta burbuilaren artean, hazbete-zortzireneko lodiera izango zuena asko jota. Bestalde, geruza horretako hainbat burbuila lehertu egin ziren beherantz, eta ziur aski ez zegoen izotzik batere burbuilarik handienen pean, zeinek oin bateko diametroa baitzuten. Ondorioztatu nuen izotz-geruzaren azpian estreinakoz ikusiak nituen burbuila ñimiño azkengabeak

izoztu egin zirela orobat, eta, beren neurriaren arabera betiere, ispilu goriaren<sup>268</sup> rola bete zutela, azpiko izotza urtuz eta herdoilduz. Horiexek dira izotzari krak eta eztanda eginarazten dioten aire konprimatuzko pistolak.

• • •

Errotu zen negua, ondo errotu ere, etxea emokatzen bukatu berria nintzelarik, eta orro egiteari ekin zion haizeak etxearen inguruan, ordura arte halakorik egiteko baimenik izan ez balu bezala. Gauero-gauero, itsumustuan iristen ziren antzarak, zala-partaka eta hegoak astinduz, baita lurra elurrez zeharo estalirik zegoenean ere; Waldenen geratzen ziren batzuk, eta Fair Haveneko baso aldera jotzen zuten beste batzuek, Mexiko helburu. Herritik itzultzen nintzelarik hamarrak edo hamaikak aldean, maiz aditzen nituen antzara-saldoen urratsak, edo ahateenak bestela, nire etxe atzeko putzu-zuloaren ondoko orbel lehorra zapaltzen zutelarik, hara joanak baitziren janari-bila, eta orobat aditzen nuen nola ihes egiten zuten bizkor, buruzagiaren deia-ri segika. 1845eko urteari dagokionez, abenduaren 22an izoztu zen Walden oso-osorik lehendabiziko aldiz; Flinten lakua, beste laku azalekoago batzuk eta erreka, aldiz, hamar egun lehena-gotik zeuden hormatuta; 1846an, berriz, abenduaren 16an izan zen; 1849an, abenduaren 31n; 1950ean, abenduaren 27aren inguruan; 1952an, urtarrilaren 5ean, eta 1953an, abenduaren 31n berriro. Zorua elurtuta zegoen azaroaren 25az geroztik; neguko paisaiak inguratu ninduen bat-batean. Are sakonago barneratu nintzen neure oskolean, eta ahalegindu nintzen suari eusten bibietan: etxe barruan zein nire bularrean. Egoera horretan, hauek ziren etxetik kanpo egiten nituenak: basoan egur hila bildu eta eskuetan edo sorbalda gainean ekartzen nuen; batzuetan, bestela, pinu hil bat garraiatzen nuen beso azpian nire estalperaino. Ehiza ederra gertatu zitzaidan bere onenak emandako baso-hesi zahar bat. Vulkanoren aldarean<sup>269</sup> sakrifikatu nuen, jada ez ziolako zerbitzurik ematen Terminus jainkoari.<sup>270</sup> Gizon baten

---

268 Neurri handiko ispilu konkaboa; eguzki-izpiak gainazal konkretu baten gainean kontzentratzeko eta hura erretzeko ahalmena du.

269 Erromar mitologian, suaren jainkoa.

270 Erromar mitologian, mugen jainkoa. Hesiak egiteko balio ez zuen egurra erre egiten zuten.

afaria hainbat interesgarriagoa da baldin eta janaria prestatzeko erregaia berak eskuratu badu zuzenean, edo lapurtu badu, esango didazue! Gozoak dira haren mahaiko ogia eta okela. Gure herri gehienetako basoetan badaude sortak eta era guztietako egur hila su ugari mantentzeko bestekoak, baina gaur egun ez dute inortxo ere berotzen eta zenbaiten ustez zuhaitz gazteen hazkuntza oztopatzen dute. Lakuan, halaber, egurra alderrai ibiltzen da hara-hona flotatzen. Pinu-enborrekin eginiko txalupa bat aurkitu nuen udaran, azala eta guzti; irlandarrek egin zuten trenbidearen eraikuntzaren garaian. Ertzera garraiatu nuen ia osorik. Bi urtez beratzen egonik, lehortzen jarri nuen sei hilabetez, eta ederki geratu zen, nahiz eta ez zitzaion guztiz ezabatu hezetasuna. Neguko egun batean, nire burua entretenitzeko, lakuan zehar irristarazi nuen, milia-erdi batez kasik; hamabost oin luze zen enbor baten laguntzarekin gidatu nuen, enborraren mutur bat nire sorbaldan eta beste muturra izotzean jarrita; beste batean, aldiz, hainbat egur-puska lotuz urki-adar malgu batekin, eta beste urki- edo haltz-adar baten bukaeran kako bat jarriz lortu nuen mugiaraztea. Heze-hezeak egon arren eta beruna bezain astunak baziren ere, su beroa eman zuten eta luzaroan eutsi zioten; hala, pentsatzera iritsi nintzen umeltasunaren eraginez su hobia sortu zutela: erretxinak, uretan gorderik, luzaroago eutsiko balio bezala, lanparekin gertatzen den moduan.

Gilpin-ek<sup>271</sup> hala esaten du Ingalaterrako baso-mugetan bizi direnez ari delarik: «Basoetako lege zaharraren arabera, baimenik gabe eta ezkutuan sartzea eta basoaren ertz-ertzean etxeak zein hesiak eraikitzea delitu larriak ziren, eta zigor gogorrak ezartzen ziren, *purprestures* izenekoak, *ad terrorem ferarum*, *ad nocumentum forestæ* eta antzeko ekintzak gauzatzeagatik»,<sup>272</sup> hots ehiza izutzeagatik eta basoari kalte egiteagatik. Baina ehiztariei eta egurginei baino are gehiago axola zitzaidan niri oreinkiak eta egurra gordetzea, neroni banintz bezala Zaindარი Jauna haragi egina, eta basoaren zatiren bat erretzen bazen, nahiz eta nik neuk erre istripuz, dolutan egoten nintzen, jabeena baino dolu luzeagoa eta kontsolaezinagoa zen; are, dolutan egoten nintzen jabeek berek zuhaitzak mozten zituztenean ere.

---

271 William Gilpin (1724-1806), Ingalaterrako apaiza, idazlea, artista eta eskola-maisua.

272 Gilpinen *Remarks on Forest Scenery and Other Woodland Views* liburuko aipua.

Gustatuko litzaidake erromatar zaharrek baso sakratua (*lucum conlucare*) mehetzen zutenean edo hara argia sar zedin uzten zutenean sentitu ohi zuten errespetuzko liluraren parte bat behintzat senti zezaten gure nekazariak basoren bat eraistean, hau da, leku horiek jainkoren bati eskainiak daudela sinets zezaten. Erromatarrek emaitza bat egiten zuten hoben-ordain gisa, eta otoitz egiten zuten: «Baso hau eskainia zaion jainko edo jainkosa, edozein zarelarik ere, aldeztu nazazu, baita nire senideak, seme-alabak ere, etab»..

Nabarmentzekoa da nolako balioa ematen zaion oraindik egurrari: urrearena baino balio iraunkorragoa eta unibertsalagoa du, baita garai eta herrialde berri honetan ere. Egin ditugun deskubrimendu eta asmakuntza guztiak gorabehera, ez dago gizonik egur-mordo bati muzin egingo dionik. Gure arbaso saxoi eta normandiarrentzat bezain preziatua da geuretzat. Arkuak egiteko erabiltzen zuten haiek egurra, eskopeta-ipurdiak egiteko erabiltzen dugu guk. Michaux-ek<sup>273</sup> esan zuen, duela hogeita hamar urte baino gehiago, erregaitarako egurraren salneurriak New Yorken eta Filadelfian «Parisko egurrik onenaren salneurria berdintzen eta batzuetan gainditzen duela, nahiz eta hiriburu horrek hirurehun mila sokatik gora behar duen urtero, eta hirurehun miliako hedadura hartzen duten lursailez inguratuta dagoen».<sup>274</sup> Herri honetan ia etenik gabe hazten da egurraren prezioa, eta, horren harira, galdera bakar bat izaten da: ea zenbat igoko den prezioa aurtan, aurreko urtearekin alderatuta. Preseski zeregin horrexetarako basora aurrez aurre etortzen diren mekanikariak eta merkatariak egur-enkantera joango dira ziur, eta gehigarri garesti bat ordainduko dute gainera egurginaren ostean egur bila ibili ahal izateko. Badira urte batzuk gizonak basora jotzen dutela erregai eta arte-material bila: Ingalaterra Berriko eta Holanda Berriko biztanleak, paristarrak zein zeltak, nekazariak eta Robin Hood, Goody Blake eta Harry Gill,<sup>275</sup> printzea eta morroia munduko toki gehienetan, aditua eta salbaia; denek behar dituzte oraindik ere basoko makila bakar batzuk be-

---

273 François André Michaux (1770-1855), Frantziako naturalista.

274 Michauxen *The North American Sylva, or a Description of the Forest Trees of the United States, Canada, and Nova Scotia* liburuko aipua.

275 William Wordsworth-en poema bateko bi pertsonaia.



ren burua epelean gordetzeko eta janaria prestatzeko. Neronek ere ezin diot uko egin egurrari.

Gizon orok begiratzen dio halako txera batekin bere egur-mordoari. Maite dut leihoaren aurrean kokatzea neurea, eta zenbat eta ezpal gehiago ikusi, orduan eta hobeto, egindako lan atsegina ekartzen didalako gogora. Banuen aizkora zahar bat, inork itzultzeko eskatu ez zidana, eta neguko egunetan harekin joaten nintzen eguzkiak jotzen zuen etxearen aldera, eta babarrun-sorotik ateratako motzondoekin jolasean aritzen nintzen. Goldatze-lanetan nenbilerarik nire gidariak iragarri zuen bezala, egurrak bi aldiz berotu ninduen: hura mozten ari nintzenean lehenik, eta sutan zegoenean ondoren, beraz, ez dago beste erregairik bero gehiago eman ziezadakeenik. Aizkorari dagokionez, gomendatu zidaten herriko errementariari eskatzeko hura «jauziarazteko»,<sup>276</sup> baina, horren orde, neronek jauzi egin nuen, errementaria bazterrean utzita: intxaurrondo beltzaren egurrarekin eginiko kirten bat jarri nion —basotik hartua—, eta horrelaxe moldatu nintzen. Kamuts samarra izango zen agian, baina ondo eusten zion gutxienez.

Pinu-puska lodi gutxi batzuk izatea altxor handia zen. Gogoan izan behar da sutarako bazkaren zati handi bat lurra-  
ren errailetan gorderik dagoela oraindik. Aurreko urteetan maiz joana nintzen «zer suma», pinudiren bat izandako mendi-magal soilduetara, eta pinu-sustrai lodiak erauzten nituen. Ia-ia suntsiezinak dira. Gutxienez hogeita hamar edo berrogei urteko motzondoan erdigunea osasuntsu ageri zen oraindik, nahiz eta zurgizena lizun bihurturik egon jada, zoru arrasean halako eratzun bat osatzen duten azal-geruza lodiek —bihotzetik laupabost hazbetera— erakusten duten eran. Aizkoraren eta palaren laguntzaz azter daiteke meatze hori, bai eta haren gordailu medularra ere, zeina hori-horia baita, behi-gantzaren pare: urrezain bat, lurrean sakon errotua. Normalean, ordea, basoko hosto lehorrekin hauspotzen nuen sua, elurra erori aurretik bildu bainituen halakoak nire estalpean. Basoan kanpatu behar dutenean daudenean, intxaurrondoaren adarrak, artean berde-berdeak, mozten eta erabiltzen dituzte egurginek sua pizteko. Tartean behin horixe egiten nuen neronek ere. Herrikideek beren suak

---

276 Aizkora fintzea, loditzea, zabaltzea edo zorroztea, burdin-goriarekin kolpeak emanez.

pizten zituztelarik zerumugan, esna nengoela jakinarazten nien nik ere Waldeneko bailarako biztanle basatiei, tximiniatik zurrusta ketsu bat jaurtiz.

«Hego arineko kea, txori ikariarra,  
hegalak urtzen dituzu gorantz zoazelarik,  
kanturik gabeko hegatzabala, goiz-albaren mezularia,  
inguratzen dituzu herrixkak zure habia balira bezala  
edo amets iheslari bat, eta gauerdiko ikuskizunaren  
forma itzaltsua, zure gonapera bildua;  
gauetz beilatzen dituzu izarrak,  
egunez iluntzen duzu eguzkiaren argia;  
igo zaitez, ene intsentsu neurea, sutondo honetatik gorantz  
eta eskatu jainkoei barka dezaten arren gar garbi hau».<sup>277</sup>

Egur berde gogorra eta moztu berria, hartatik gutxi erabili nuen arren, beste edozein baino aproposagoa suertatu zitzaidan nire xedeetarako. Batzuetan su eder bat uzten nuen etxe barnean pizturik eta paseo bat ematera abiatzen nintzen neguko arratsaldetan; hiruzpalau ordu beranduago itzulirik, bizi eta gori eusten zion oraindik. Neure etxea ez zegoen hutsik neuk alde eginda ere. Etkezain alai bat utzi nuela ematen zuen. Sua eta biok bizi ginen han, eta etkezainak fidatzeko modukoa zela erakusten zuen gehienetan. Hala ere, egun batean egurra mozten ari nintzelarik, leihotik begiratzea bururatu zitzaidan, etxea sutan ez zegoela egiaztatzeko, eta oroitzen naizen heinean behintzat huraxe izan zen alderdi horri dagokionez arduratu nintzen aldi bakarra; begiratu nuen, hortaz, eta ikusi nuen gar bat nire ohera iritsia zela, eta etxera sartu eta garra itzali nuenerako nire eskuaren neurriko espazio bat errea zuen. Baina nire etxearen posizioa hain zen eguzkitsua eta babestua, teilatua hain zen baxua, non sua itzal zedin utz bainezakeen neguko edozein egunen erdian.

Satorrek habia egin zuten sotoan, hiru patatatik bat karraskatu, eta, are gehiago, ohe amultsu bat eraiki zuten emokaduraren ostean geratutako ileekin eta estraz-paperarekin, animaliarik salbaienek ere maite baitute erosotasuna eta beroa gizonak bezainbeste, eta bi gauza horiek ziurtatzeko lana

---

277 Thorearen beraren poema.

hartzen dutelako baino ez dute gainditzen negua. Mintzatzen ziren moduagatik, irudi zuen nire adiskide batzuek uste zutela neure burua izozteko asmoz baizik ez nintzela joan basora. Ohe bat egiten du animaliak babesean, eta bere gorputzarekin berotzen du; aldiz gizonak, sua deskubritu duelarik, aire pixka bat kaiolatzan du gela zabal samar batean, eta horixe berotzen du, bere gorputzean bildutako energia erabili beharrean; espazio hori bihurtzen du bere ohea, handik barna lasai ibil daiteke arropa deserosoa janzteko beharrik gabe, halako uda bat mantentzen du neguaren bihotzean, eta leihoen bitartez argia ere eskura dezake, eta eguna luzatu lanparei esker. Hala, sena baino urrats batzuk harago ausartzen da, eta ez du denborarik gordetzen arte ederrei eskaintzeko. Nahiz eta nire gorputz osoa soraiotzen hasten zen erauntsi gogorren pean egonik denbora luzean, nire etxeko atmosfera bikainera iristean berehala berreskuratzen nituen nire ahalmenak, eta nire bizitza luzatzen nuen. Baina etxerik luxuzkoenean bizi denak ez du zertan harrotu kontu horren harira, eta besteok ez dugu zertan gogoetatu zerk deuseztatuko ote duen azkenik giza arraza. Aise moztu ditzake bizitza-hari horiek guztiak iparreko bafada zorrotzegi batek. Gogoan ditugu oraindik ere Ostiral Hotzak<sup>278</sup> eta Elurte Handiak,<sup>279</sup> baina ostiral zertxobait hotzago eta elurte zertxobait handiago batek amaiera emango liokete gizon baten existentziari lurbira honetan.

Basoa ez baitzen nirea, labe txiki bat baliatu nuen hurrengo neguan arrazoi ekonomikoengatik, baina ez zion tximiniako sutegiak bezain ondo eutsi. Hala, janaria prestatzeko jarduera jada ez zen prozesu poetiko bat, kimikoa baizik. Labeak gailendu diren garaiotan, laster ahaztuko dugu errautsetan prestatu ohi genituela patatak, indiarren erara. Labeak, tokia hartzeaz eta etxea lurrintzeaz gainera, sua ezkutatu zuen, adiskide bat galdu bagenu bezala. Suan beti ikus dezakezu aurpegi bat. Nekazariak suari erreparatzen diolarik iluntzean, bere pentsamenduak garbitzen ditu, egun horretan pilaturiko zaborra eta hondakina kentzen dizkio. Baina patxadaz eseri eta suari

---

278 1810eko urtarilaren 19an haize-bolada hotz-hotzak izan ziren Ingalaterra Berria, eta zero azpitik berrogeita bost graduraino jaitsi zen tenperatura.

279 1717ko otsailaren 17an izan zen elurte hori, eta etxeak zein etxaldeak lurperatu zituen.

begiratzeko aukerarik ez neukanez jada, indarberriturik etorri zitzaizkidan burura poeta baten hitz aproposak.

«Inoiz ez diezadatela ukatu sugar-argi hau,  
zure begikotasun maitea, bizitzaren irudikoa eta intimoa.  
Zer altxatzen da hain argi, nire itxaropenez aparte?  
Zer hondoratu da sakon gauean, nire zoriaz aparte?  
Zergatik kanporatu zaituzte gure etxe eta geletatik,  
baldin eta denek maite bazaituzte bihotzez?  
Zure existentzia ote zen apetatsuegia,  
ekarria izan dadin gure bizitza aspergarrien argira?  
Zure dirdira misteriotsua mintzatzen ote zen  
gure arima inozenteekin? Sekretu ausartegiak?  
Tira, salbu eta indartsu gaude, esertzen baikara orain  
itzal nahasgarririk gabeko sutondo batean,  
ezerk ez gaituelarik poztzen ez goibeltzen; soilik su batek  
berotzen dizkigu oinak nahiz eskuak, beste asmorik ez du;  
haren pila tinko eta praktikoaren ondoan  
eseri eta lokar daiteke mintzo zaizuen hau  
iragan ilunetik datozen mamuen ikararik gabe  
zeinek hitz egiten baitigute egur-suaren argi aldakorrean».<sup>280</sup>

---

280 Ellen Sturgis Hooper (1812-1848) AEBko poetaren «The Wood-Fire» laneko aipua.

# HAMALAU

## AURREKO BIZTANLEAK ETA NEGUKO BISITARIAK

Buru egin diet elur-jasa alaietara eta igaro ditut neguko iluntze politak sutondoan, kanpoan elurra mara-mara ari zuelarik eta hontzaren ulua bera mututua zelarik. Hainbat astez ez nintzen inorekin suertatu nire ibilaldietan, salbu eta noizean behin herriraino leran garraiatzeko egur bila etortzen zirenekin. Elementuek, halere, basoko elurrik sakonenean barna bidea egiten lagundu zidaten, zeren aurrera egiten nuelarik haritz-hostoz betetzen baitzituen haizeak nire oinatzak; han geratzen ziren eta elurra urtzen zuten eguzkiaren izpiak xurgatuz: korridore lehor bat sortzen zuten nire oinentzat eta lerro ilun hura izaten zen nire gidaria gauzez. Giza konpainiari dagokionez, baso honetan bizi izandako aurreko biztanleei dei egin beste aukerarik ez nuen izan. Nire herrikide askoren memorian oihartzun egiten zuten nire etxe inguruko errepideko biztanleen algarek eta txutxu-mutxuek; nire etxe inguruko basoa, berriz, etxebizitza eta baratze txikiz josirik egon zen noizbait, nahiz eta garai hartan askoz baso trinkoagoa izan. Neronek oroitzen dut, zenbait tokitan, kalesa baten bi aldeak igurzten zituztela pinuek aldi berean, eta gogoan dut Lincolnera bide horretatik eta bakarrik joan behar zuten emakumeek eta umeek izaturik egiten zutela bidaiaria, eta korrika ere joaten zirela puska handi batean. Nahiz eta, oro har, elkarren alboko herriak lotzeko edo egurginak erabiltzeko xendra apal bat izan, bide hau dibertigarriagoa zen sasoi hartako bidaiariarentzat, era askotako gauzak eskaintzen zizkiolako, eta denbora gehiago irauten zuen haren oroimenean. Orain laua da herritik basorako bidea, larre zabalen artean igarotzen da; behiala, or-

dea, astigarrez inguraturiko zingira bat zen, enborren gainean finkatua, eta gauza ziurra da haien hondakinak gaurko trenbide hautsezatuaren azpian dautzatela, Stratten etxaldetik —hospizioa da orain— Brister's Hillera doan bidean.

Nire babarrun-soroaren ekialdera, errepidea pasata, Katon Ingraham bizi zen, Concord herriko Duncan Ingraham Esquire<sup>281</sup> jaunaren esklabo. Jaunak etxe bat eraiki zion esklaboari, eta baimena eman zion Waldeneko basoan bizitzeko: Katon zen bai, baina ez *Uticiensis*, ezpada *Concordiensis*.<sup>282</sup> Batzuen arabera Gineako beltz bat zen. Gutxi batzuek oroitzen dute haren lursail txikia intxaurrondoan artean; zuhaitzak haz zitezen utzi zuen, zahartu eta haien premia izango zuen garairako, baina espekulatzaile gazteago eta zuriago batek eskuratu zituen azkenean. Dena den, gaur egun etxe estu-estu batean bizi da hura ere.<sup>283</sup> Hortxe dirau Katonen soto-atari erdi eraitsiak, gutxik ezagutzen duten arren, pinu-errenkada batek ezkututzen baitu bidaiariaren begiradatik. Zumake leunez beterik dago orain (*Rhus glabra*), eta bertan hazten da, jori, urre-makilaren espezierik goiztiarrenetako bat (*Solidago stricta*).

Hemen, nire eremuaren ertz-ertzean, herritik are gertuago, Zilpha<sup>284</sup> bizi zen, koloreko emakume bat; lihoa iruten zuen herriko jendearentzat eta Waldeneko basoa inarrostean zuen bere kantu sarkorrarekin, ahots ozena eta aipagarria zeukan-eta. Azkenean, 1812ko gerran,<sup>285</sup> haren etxebizitzari su eman zioten ingeles soldaduek —baldintzapeko presoak ziren—, hura kanpoan zen bitartean, eta batera erre ziren haren katua, txakurra eta oiloak. Bizitza zaila izan zuen emakumeak, ez-gizatiarra batzuetan. Baso honetan ibili ohi zen batek oroitzen du nola, behin batean haren etxearen albotik pasa zelarik eguerdi aldera, lapikoaren parean murmurikatzen aditu zuen, hala esanez: «Hezurak zarete, hezurak besterik ez!». Adreiluak ikusi izan ditut harizti horren erdian.

---

281 Gizarteko gizon nabarmenei ematen zitzaizen ohorezko titulua, hasieran Britainia Handian bakarrik erabiltzen zena.

282 Latinez. Uticako eta Concordeko biztanleak, hurrenez hurren.

283 Bere hilkutxan.

284 Esklavo askatua. Bakarrik bizi zen eta 1920an hil zen.

285 Britainia Handiak AEBko merkataritzari jarritako mugen ondorioz, gerra deklaratu zion AEBk (1812-1814).

Errepidean behera eginda, eskuinaldean, Brister's Hillen, bizi zen Brister Freeman, «beltz trebe bat», Cummings Esquireren esklaboa izandakoa; toki horretan hazten dira oraindik ere Bristerrek ereindako eta zaindutako sagarrondoak; zuhaitz handi zaharrak dira baina zapore basati eta garratzeko fruituak ematen dituzte nire gusturako. Duela ez asko haren epitafioa irakurri nuen Lincolneko hilerrian; albo batean dago, Concordeko batailatik erretiratzean hildako britainiar granadari batzuen hilarri markatu gabeetatik gertu; «Sippio Brister» izena ageri da han —bazuen eskubiderik Scipio Africanus dei ziezaioten<sup>286</sup>—, «koloreko gizona», kolorea izan balitz bezala. Epitafioak, halaber, gizona noiz hil zen azaltzen du, datua asko nabarmenduz: inoiz bizi izan zela adierazteko modu zeharkako bat. Harekin bizi zen Fenda, haren emazte abegikorra, zeinak etorkizuna igartzen baitzuen, era atseginean hala ere; handia zen, lodia eta beltza, gauaren edozein haur baino beltzagoa, Concorden inoiz altxatu ez den erako esfera ilun bat.

Muinotik haraindi, ezkerretara, basoko bide zaharrean, Stratton familiaren etxearen arrastoak ageri dira; Brister's Hilleko aldapa osoa estaltzen zuen haien baratzeak garai batean, baina aspaldi hil zuten pinuek, eta motzondo batzuk baizik ez dira geratzen, zeinen sustraiez hornitzen baitira oraindik ere herriko fruta-arbola oparoak.

Herrira gehiago hurbilduta, bidearen beste aldean eta basoaren ertzean justu, Breed-en bizilekura iristen da bat; eremu hori ezaguna da mitologia zaharrean berezko izenik ez duen deabrutxo baten txantxak direla medio; zeregin nabarmena eta txundigarria bete du pertsonaia horrek gure Ingalaterra Berriko bizitzan, eta ondo merezia du, pertsonaia mitologiko orok bezalaxe, bere biografia idatz dadin noizbait: adiskidez edo morroiz mozorroturik iristen da lehenik, eta ondoren familiari lapurtu eta senide guztiak hiltzen ditu; Ingalaterra Berriko Arraroa.<sup>287</sup> Baina historiak ez ditu hemengo tragediak azaldu behar oraindik, utz diezaiogun denborari esku har dezan hein batean behintzat, gertakariak leun ditzan eta kutsu urdinkara bat erants diezaien.

---

286 Publio Kornelio Espizion Afrikarra (K. a. 237 - K. a. 183), erromatar jenerala; Kartagoko inbasioaren buruzagia izan zen.

287 Jatorrizkoan, *New England Rum*. Bi esanahi biltzen ditu *rum* hitzak ingelesez: rona eta arraroa. Breed delakoa bizargina eta alkoholikoa zen.

Tradiziorik ilun eta zalantzarrienak dio taberna bat egon zela hemen behiala: bertan dirau bidaiariaren egarria asetzen eta haren zaldia freskatzen zuen putzuak. Gizonek, hemen, elkar agurtu, berriak trukatu eta nor bere bidetik segitzen zuten gero.

Duela dozena bat urte Breeden txabolak zutik segitzen zuen oraindik, nahiz eta ez zen inor han bizi aspaldidanik. Nire etxearen parekoa zen gutxi gorabehera. Mutiko bihurri batzuek su eman zioten Hauteskunde gauean,<sup>288</sup> oker ez banaiz. Herriaren mutur batean bizi nintzen ni orduan, eta buru-belarri sarturik nengoen Davenant-en *Gondibert*-en;<sup>289</sup> halako lozorro batean jardun nintzen negu hartan, eta, bide batez esanda, ez nuen inoiz jakin ea gaitz hura familiatik zetorkidan —nire osaba batek lo hartzen baitzuen bizarra egin bitartean, eta igandetan bere burua behartzen zuen patatak zuritzera sotoan, itzarrik mantentzeko eta Sabbata errespetatzeko— ala Chalmers-ek apailaturiko ingeles poesiaren bilduma oso-osorik irakurtzen saiatu izanak eragin zuen. Suteak menderatu zituen nire *Nerviiak*.<sup>290</sup> Poemetan murgildu berri nintzelarik aditu nituen kanpaiak suaren berri emanez, eta punpak ziztu bizian abiatu ziren ezbeharraren gertalekurantz, mutiko eta gizonen tropa sakabanatuari jarraituz; neroni nindoan buru, ibaiaren gainetik jauzi egina nintzen jada. Lehenago ere suteak itzali izan genituenok uste genuen basotik harago izan zela ezbeharra, hegoalderantz; uste genuen biltegi bat, edo denda bat, edo etxebizitza bat izango zela, edo dena batera. «Bakerren aletgia da», garrasi egin zuen batek; «Codman-en etxea da», beste batek. Eta, orduan, beste sugar batzuk altxatu ziren basotik gora, teilatua erortzear balego bezala, eta oiuhu egin genuen denok: «Badator Concord erreskaterra!». Igaro ziren gurdiak abaila bizian, beren zama bizkarrean —Aseguru Konpainiako langilea ere han joango zen beharbada, gainerako kargaren erdian, lehenbailehen iritsi beharra zuen-eta—; atzetik zetorren punparen soinua, geldoago eta seguruago, eta, azkenik, gerora xuxurlaka iradoki zen bezala, sua piztu eta alarmari eragin ziotenak zetozen. Halaxe jarraitu genuen aurrerantz,

---

288 1841eko maiatzaren 26a, asteazkena.

289 William Davenant (1606-1668) Ingalaterrako poetaren poema epikoa (1651).

290 Hitz-jokoa, nerbioak eta Nervii tribu zeltiar-germaniarra uztartuz osatua.

Shakespeareren *Julio Zesar* obrari erreferentzia (III. ekitaldia, 2. eszena): «Nervitarrak menperatu zituen egunean».



idealista zinezkoen antzera, gure zentzumenen frogei ezikusia eginez, harik eta bihurgune baten bueltan suaren zirta entzun eta haren berotasuna nabaritu genuen arte, eta ohartu ginen arte —alajaina!— iritsiak ginela suaren gertalekura. Suaren hurbiltasunak berak hoztu zuen gure oldarra. Hasieran pentsatu genuen igelen putzuko ura botatzea gainera, baina guztiz erre zedin utzi genuen azkenean, ordurako ia zeharo eraitsirik baitzegoen, eta ez zuen merezi. Hortaz, punparen inguruan geratu ginen, elkarri bostekoa eman eta gure sentimenduak adierazi genituen ozenki; bestalde, tonua apalduta, mundua lekuko izandako sute handiak aipatu genituen, tartean Bascom-en dendan izandakoa, eta gure kautan pentsatu genuen ezen, gure «treskarekin» garaiz iritsi izatera, eta igel-putzua alboan edukita, uholde bihur genezakeela sute hura, zeinak azkena eta unibertzala izatearen mehatxua baitzekarren. Bihurrikeriarik egin gabe erretiratu ginen azkenean, itzuli ginen lotara eta *Gondibertera*. Alabaina, *Gondiberti* dagokionez, hitzurreko pasarte bat aipatu nahi nuke, esaten duena adimena dela arimaren bolbora, «baina gizateriaren gehiengoarentzat gauza arrotza da adimena, hala nola indiarrentzat gauza arrotza baita bolbora».<sup>291</sup>

Suertatu zen hurrengo gauean, ordu beretsuan, eremuetan barna ibili nintzela norabide hartan, eta entzun nuela auhen apal bat leku hartantxe; hurbildu nintzen iluntasunean, eta deskubritu nuen familia hartan ezagutzen dudan pertsona bakarra bizirik iraun duena, sendiaren bertuteen zein bizioen oinordekoa, suteak kalteturiko bakarra, ahuspez etzanik eta sotoaren paretaren gainetik so eginez sugar oraindik goriei, bere buruari murmurikatuz ohi bezala. Ibai alboko zelaietan lanean ibilia zen egun osoan, eta eskura izan zituen lehen une libreak baliatu zituen bere arbasoen etxea bisitatzeko, bere gaztaroko etxea izandakoa. Sotoa behatu zuen ikuspuntu eta alde guztietatik, txandaka, ahuspez betiere, gogoan balu bezala altxor bat gordetzen zela han, harri artean ezkutaturik, nahiz eta leku hartan ez zegoen adreilua eta errautsa besterik. Joana zen etxea, geratzen zenari begiratzen zion beraz. Nire presentzia hutsaren errukiak baretu zuen, eta erakutsi zidan, iluntasunak lagatzen zuen heinean, non zegoen putzua —Jainkoari eskerrak, hori ezin da inoiz

---

291 William Davenanten *Gondibert* poemako aipua.

erre—, eta pareta ukitzen jardun zen luzaroan, haren aitak moztu eta muntatutako polea-gurpila aurkitu arte. Horma haztatu zuen, muturrik astunenean zama bat zintzilikatzeko erabiltzen zuten burdinazko kakoaren edo zirrindolaren bila —horri baka- rrik euts ziezaiokeen orain—, niri frogatu nahian hura ez zela nolana- hiko «konponketa» bat. Ukitu nuen, bada, eta gogoan izaten dut nire eguneroko ibilaldietan, handik zintzilik baitago familia baten historia.

Ezkerraldera begiratu gero, putzua eta paretaren ondoko lila-zuhaixkak ikusten diren tokian, orain larre zabala den horretan, bizi izan ziren behiala Nutting eta Le Grosse. Baina itzul gaitezen Lincolneko bidera.

Basoaren barnealdean, beste etxe horiek guztiak baino ba- rrurago joanda, bidea lakutik hurbilen doan lekuan hain zuzen, Wyman buztingleak lursail bat okupatu zuen, hornitu zituen bere herrikideak zeramikazko objektuekin eta bere ondoren- goei utzi zien lekukoa. Ez ziren aberatsak ondasun materialei dagokionez, baina lursaila mantendu ahal izan zuten bizi ziren bitartean; hara hurbiltzen zen maiz sheriffa zergak bildu nahian, alferrik, ordea, eta bahituran hartzen zuen «ezpal bat»,<sup>292</sup> ha- ren azalpenetan irakurri izan dudan bezala, itxurak gordetzeko bederen, ez baitzegoen bahituran har zezakeen beste ezer. Uda- ra-erdiko egun batean lurra aitzurtzen ari nintzelarik, gurdi bete zeramika merkatura zeraman gizon batek bere zaldia geratu zuen nire soroaren alboan eta galde egin zidan Wyman gazteari buruz. Zeramika-tornu bat erosi omen zion aspaldi eta jakin nahi zuen ea zer moduz zebilen. Buztinari eta eltzegilearen tornuari buruzko zerbait irakurria nuen Eskrituretan,<sup>293</sup> baina ez zitzaidan inoiz bururatu geronek erabiltzen genituen ontziak garai hartaz geroztik osorik iraundakoak ez zirenik, edo kalabazen antzera zuhaitzetan haziak bestela, eta poztu nintzen jakinik halako arte plastiko bat gauzatzen zela nire auzoan.

Gizon irlandar bat izan zen nire aurretik baso hone- tan bititutako azken biztanlea, Hugh Quoil (haren izena ongi

---

292 Zerga batzuk biltzea ezinezkoa zela islatzen zuen lege-ekintza; horrela, baliorik gabeko objektu edo puskaren bat hartzen zen zergapekoaren etxetik.

293 Jeremias 18: 3-6 bertsetari erreferentzia: «Jaitsi nintzen, beraz, eltzegileagana eta lanean aurkitu nuen. Buztinez egiten ziharduen ontzia eskuetan hondatzen bazitzaion, beste bat egiten zuen ondoen iruditzen zitzaion eran».

biribilkatu badut<sup>294</sup>), edo Quoil koronela —halaxe esaten baitzioten—; Wymanen lursailean bizi izan zen. Zurrumurruen arabera soldadu aritu zen Waterloo-n.<sup>295</sup> Bizi izan balitz, haren batailak azal zekizkidan eskatuko nion. Lubakiak zulatzen lan egiten zuen. Napoleon Santa Helenara joan zen; Quoil, berriz, Waldeneko basora. Tragikoa da hari buruz dakidan guztia. Marena oneko gizona zen, mundua ezagutu duen horietakoa, eta espero zenezakeena baino gizalege handiagoarekin mintzo zen. Jaka handi bat eramaten zuen udaran ere, *delirium tremens*aren gaitza zuelako, eta haren aurpegia gorrimin agertzen zen beti. Brister's Hillen oineko bidean hil zen ni basora etorri eta gutxira, horregatik ez dut nire auzokide gisa gorde gogoan. Haren etxea ikustera joan nintzen eraitsi aurretik, haren kideek iskin egiten ziotelarik «adur txarreko gaztelu bat» zelakoan. Kamainaren gainean zetzaten haren arropak, erabileraren eraginez zimurtuak gizonaren tankera hartu arte. Haren pipa hautsia zegoen sutondoan, pitxer puskaturik ez iturrian.<sup>296</sup> Azken hori ezin zen izan gizonaren heriotzaren sinboloa, zeren, hark aitortu zidan bezala, Brister iturriaren berri izan arren ez baitzuen inoiz ikusi. Han-hemen sakabanaturik zeuden zoruak karta zikin zenbait —diamante-, pika- eta bihotz-erregeak—. Oilo beltz bat, administrariak harrapatu ezin izan zuena, gaua bezain beltza eta isila, karakarik egiten ez zuena Reynard jauna<sup>297</sup> noiz etorriko zain, ondoko gelara joan zen bere kotan atsedentzera. Baratze baten hezurdura apala ikusten zen atzealdean: haziak erein zituen, baina Quoilek ez zuen inoiz aitzurtu lurra, bere gaixotasunaren erasoaldi bortitzak tarteko, nahiz eta uzta-garaia izan jadanik. Erromatar asentio-belarrez eta akainez josirik zegoen; akainak nire arropara atxiki ziren, beste ezeri heldu ezinda. Marmotallarru bat ageri zen etxearen atzealdean hedaturik, koronelaren azken Waterlooko garaikurra, baina gizonak ez zuen gehiago izango ez txapel ez eskuzorro beroen premiarik.

---

294 *Quoil* abizena eta *coil* (biribilkatu) uztartzen dituen hitz-jokoa.

295 Belgikako herria, hantxe garaitu zuten Napoleon britainiar tropek 1815ean. Porrotaren ondoren, Ozeano Atlantikoaren hegoaldean dagoen Santa Helena uhartera erbesteratu zen Napoleon.

296 Kohelet 12: 6-7 bertsetari erreferentzia: «Orduan, zilarrezko haria eten egingo zaik, urrezko ontzia hautsiko, pitxerra iturrian puskatuko, eta putzu gainean txirrika zartatuko».

297 Azeria izendatzeko zenbait kulturatako deitura literario tradizionala.

Sakonune bat zoruan, horixe da aipatu bizilekuek utzi-tako arrasto bakarra: sotoko harriak lurpean eta marrubiak, mugurdiak, hurrizak zein zumakeak zelai eguzkitsuan; pinu edo haritzen batek betetzen du tximiniaren lekua, eta usain gozoko urki beltz bat kulunkatzen da beharbada atea zegoen tokian. Batzuetan ikusgai dago putzuari dagokion sakonunea, behin iturburu bat jariatzen zen lekua; orain, ordea, belar lehorrera da, malko bat bera ere ez du isurtzen; edo arrazako azkenak alde egin zuenean estali egin zuen agian, harri zapal batekin, ez zezan inork deskubritu etorkizun urrunera arte. Nolako ekin-tza mingarria, putzu bat estaltzea negarraren iturria irekitzeaz batera! Sotoei dagozkien sakonuneak besterik ez dira geratzen, azeri-zulo zaharren antzera, dialekto batean edo bestean giza bizitzaren iskanbila garatu eta «patu, aukeramen zein aurrez ezagutze absolutua»<sup>298</sup> eztabaidatu ziren tokian. Baina haien ondorioak aztertuz hauxe baino ezin dut jakin, hots, «Katonek eta Bristerrekin irun zutela artilea»,<sup>299</sup> eta filosofia-eskola famatua-goek ezin didate gauza jakingarriagorik irakatsi.

Lila biziak loretan segitzen du, nahiz eta atea, ateburua eta leiho-hegia desagertu zirenetik belaualdi bat igaro den; udaberri bakoitzean zabaltzen ditu bere lore usain gozokoak, bidaiari gogoetatsuak har ditzan; behiala haurren eskuek landatu eta zaindu zuten, etxearen aurrealdeko lorategietan, baina orain larre urrunetan agertzen da, hesien inguruan, baso hasiberriei tokia eginez: leinu horretako azkena, iraun duen bakarra. Haur haiek, aurpegia belzturik, nekez irudika zezaketen adaxka hura, bi begi baino ez zituena, etxearen gerizpean landatu eta egunero urreztatzen zutena, tinko errotu eta luzeago bizi izango zenik berek baino, eta orobat gerizpe emana zion etxea baino; nekez irudika zezaketen gizon baten lorategi eta baratze bihurtuko zenik azkenean, eta beren historia kontatuko zionik ahots apalez bidaiari bakartiari berek koskortu eta hil baino mende-erdi beranduago, lehen udaberri hartan bezain eder eta usaintsu beti. So nagokie lilaren kolore oraindak samur, delikatu eta alaiei.

Baina zergatik desagertu zen herri txiki hura, gauza handiago baten ernamuina, eta Concordek eutsi egin dio ordea? Ez

---

298 *Paradisu galdua*, John Milton.

299 Esanahi hitzez hitzezkoaz gainera, esaldi honek norbait engainatzea adieraz dezake, «Norbaiten begien aurrean artilea irun» esamoldeari erreferentzia eginez.

al zegoen hemen, ezbairik gabe, abantaila naturalik, pribilegio hidrikorik? Walden laku sakonetik eta Bristeren iturburu freskotik trago luze eta osasuntsuak hartzeko pribilegioa izanik, beren edalontzia garbitzeko baizik ez dituzte erabiltzen gizonak. Arraza beti egarri bateko kideak ziren guztiak. Hemen ezarririk, ez ote zuten aurrera egingo saskigintzaren, erratz- eta tapizigintzaren, arto-xigortzearen, lihoa irutearen eta zeramikaren negozioek, inguru basatia arrosaren antzera loraraziz, eta seme-alaba ugariak jasoko luketelarik beren aiten lurra oinordetzan? Lur antzua, behinik behin, froga bat izango zen behe-lurren endekapenaren kontra. Alajaina! Giza biztanle horien memoriak apenas hauspotzen duen paisaiaren edertasuna! Naturak, agian, proba egingo du nirekin, lehen kolonotzat hartuko nau, eta pasa den udaberrian altxatu nuen etxea izango da herrixkako zaharrena.

Nik dakidala behintzat ezein gizonak ez du etxerik eraiki neronek hartutako lekuan. Libra nazazue hiri antzinakoen gainean eraikitako hirietatik, hondakinak baitira hango materialak, eta hilerriak hango lorategiak. Halako tokietan lurzorua zurituri eta madarikaturik dago, eta premiazkoa izan aurretik suntsituko da zorua. Era horretako oroitzapenekin betetzen nuen basoa eta lokarrarazten nuen nire burua.



Garai hartan apenas izaten nuen bisitaririk. Elurra lodi zegoenean ez zen nire etxera hurbiltzen ibiltari bat bera ere astebetetz edo bi astez, baina hantxe bizi nintzen goxo, larreko sagua nola, edo oiloen zein ganaduaren antzera, animalia horiek gai omen baitira luzaroan irauteko elurretan lurperaturik, ezer jan gabe ere; orobat aldera liteke nire egoera estatu honetako Sutton herrian bizi izandako kolono-familia batekin —lehenengoetako—, zeinaren landa-etxea osorik estali baitzuen elurrak 1717ko erauntsi handian, familia-burua kanpoan zegoelarik; indiar batek aurkitu zuen etxe hura, tximiniaren hatsak elur-geruzan eragindako zuloaren ondorioz baino ez, eta hala erreskatatu zuen sendia. Baina ez zegoen nitaz arduratuko zen indiar jatorrik, ezta horretarako beharrik ere, etxeko nagusia etxean baitzegoen. Elurte Handia! Bai pozgarria haren berri izatea! Nekazariak ezin ziren iritsi basora eta zingiretara beren

uztarriekin, eta beren etxe aurreko gerizpetarako zuhaitzak moztu behar izan zituzten halabeharrez; elurra aski gogortu zenean, berriz, zingiretako zuhaitzak ebaki zituzten lurretik hamar oinera, hurrengo udaberriak erakutsi zuen moduan.

Elurterik handienak gertatzen zirenean, errepidetik nire etxera joateko ibiltzen nuen bidexkak —milia-erdiko luzera zuen gutxi-asko— puntuz osaturiko lerro sigi-sagatsu bat eman zezakeen, puntu batetik bestera tarte handia zegoen-eta. Eguraldi egonkorra egiten bazuen astebetetz, urrats-kopuru berbera ematen nuen, distantzia berbera mantenduz batetik bestera, hala joanean nola etorrian, eta delibero osoz eta konpasaren pareko doitasunarekin zapaltzen nituen nire oinatz sakonak —halako errutinetara murrizten gaitu neguak—, nahiz eta sarritan zeruaren beraren urdinarekin beterik ageri ziren. Baina eguraldiak ez zidan inoiz galarazi ibilaldi bat egitera ateratzea egunero edo, hobeto esanda, ez zidan inoiz eragotzi atzerrira joatea, maiz zeharkatzen bainituen zortzi edo hamar milia elurrik trinkoenean barna, urki batekin egindako hitzorduari huts ez egiteko edo pinudiko lagun zahar bat ikusteko, izotzaren eta elurraren eraginez adarrak beherantz makurtuta eta adaburuak zorroz-tuta zituztela, pinu-itxura izan ordez izeiaren traza agertzeko moduan; edo bidea egiten nuen muinorik garaienen gailurretaraino, elurrak bi oineko sakonera zuelarik eta pauso bat egin aldiro ekaitz bat lehertzen zelarik nire buruaren gainean; batzuetan, berriz, herrestan joaten nintzen harantz, lauhazkan, ehiztariak beren neguko kuarteletan gordeak zirelarik jada. Arratsalde batean, Laponiako urubi bati begiratzuz dibertitu nintzen (*Strix nebulosa*):<sup>300</sup> pinu zuri baten beheko adar hiletan pausaturik zegoen, enborretik hurbil, egun argitan, eta haren-gandik kana batera nengoen ni. Mugitzen nintzelarik eta elurra oinekin zanpatzen nuelarik negien soinua adi zezakeen, baina agerikoa zen ez ninduela ikusten. Zarata gehien egiten nuelarik, lepoa luzatzen zuen, lumak tenk, eta begiak irekitzen zituen arranpalo, baina laster ixten zitzaizkion berriro eta lo-kuluxkak egiten hasten zen. Logalea piztu zitzaidan neuri ere hegatzia ordu-erdiz zelatatu ostean, begiak erdi-itxita eserita zegoelarik hantxe, katua nola, katuaren anaia hegoduna nola. Zirritu es-

---

300 Gaur egun *Strix varia* esaten zaio espezie horri.

tu-estu bat baino ez zegoen haren betazalen artean, eta horren bidez harreman penintsular bat mantentzen zuen nirekin: begiak ia bat eginik, ametsen mundutik begiratzen zidan eta nire presentziaz ohartzeko ahaleginak egiten zituen, haren ikuspegia eten zuen objektu edo pinporta lausoa bainintzen. Azkenean, hots ozenagoren bat egin nuelako edo gehiegi gerturatu nintzelako, deseroso sentitu eta jiratu egin zen bere kotan, inork bere ametsetan traba egin izanak gogaitu balu bezala; abiatu eta pinudian zehar hegaldatu zelarik, hegoak hedatuz espero gabeko zabaleran, ez nuen entzun zirkinik ere. Inguruari buruzko zentzumen zeharo delikatu batek gidatu zuen basoan zehar, ezen ez ikusmenak: aurkitu zuen bere ilunabarreko bidea bere hego sentikorrek, eta pausatu zen beste kota batean, bake-bakean zain egoteko bere egunaren alba iritsi arte.

Zelaietan barna trenbidea pasa zedin eraikitako lubetan ibiltzean haize-bolada hotz-hotzek eraso zidaten hainbat aldiz, hantxe putz egiten dute-eta inon baino askeago, eta izotzak masail bat zigortzen zidanean, beste masaila eskaintzen nuen nik,<sup>301</sup> paganoa izan arren. Brister's Hilleko gurdibidea ez zen askoz hobea. Oinez joaten nintzen herrira, indiar lagunkoi baten gisara, Waldeneko bideko hesien kontra pilatzen zelarik larre zabaletako elurra eta ordu-erdi aski zelarik azken bidaiariaren arrastoak ezabatzeko. Itzuleran, kostata gainditzen nituen bizkitartean sorturiko elur-mordo berriak, ipar-mendebaldeko haize tematiak elur hauts-itxurakoa metatu baitzuen bideko bihurtune zorrotz batean, eta ezinezkoa zen ezer ikustea, ez untxi baten aztarna, ez eta zelaietako saguen letra xeheko estanpatu fina ere. Haatik, ia beti topatzen nuen, baita negu gorrian ere, istinga epelen bat zeinetan belarra eta zingira-aza hazten baitziren oraindik berdetasun iraunkorrez; noizean behin han ikusten nuen orobat txori ausarten bat, udaberria iristeko zain.

Batzuetan, elurra gorabehera, egurginaren oinatz sakonekin topo egiten nuen nire paseotik itzultzen nintzenean iluntzean —nire ataritik zetozen urratsak—, eta haren ezpal-pila aurkitzen nuen tximinian, haren piparen usainaz beterik etxea osoa. Bestela, igande arratsaldetan etxean suertatzen banintzen, elu-

---

301 Mateo 5: 39 bertsetari erreferentzia: «Nik, berriz, hau diotsuet: Gaizkileari ez gaizki erantzun; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere».

rraren zirra aditzen nuen, buru luzangako nekazari baten urratsek eragindakoa: basoaren beste muturretik etorria zen nire etxera, «berriketa» sozial apur baten bila; lanbide horretan dihardutenen artean, «gizonki» aritzen diren bakanetako bat zen: alkandora bat jartzen zuen, irakasleen togaren orde, eta neurri berean egoten zen prest hala elizaren eta estatuaren ikaskizun moralak erazteko nola aletegitik ongarri-mordo bat garraiatzeko. Mintzatzenginen garai latz eta sinpleez —gizonak suaren bueltan esertzen ziren garaiez, eguraldi hotzean eta buruargi—, eta azkenburukoak huts egiten zuenean, katagorriek aspaldi abandonaturiko fruituetan saiatzen genuen gure hortzen tinkotasuna; oskolik gogorrena duten fruituak hutsik egoten dira normalean.

Beste bisitari bat etorri zen nire etxera lekurik urrunenetik, elurterik gogorrenak zeharkatuz, eta ekaitzik itzelenei aurre eginez: poeta bat, hain zuzen.<sup>302</sup> Kikilduko litzateke nekazaria, ehiztaria, soldadua, kazetaria, baita filosofoa ere, baina ezerk ez du ikaratuko poeta, maitasun puruarengatik ekiten baitu. Nork aurreikus ditzake haren joan-etorriak? Negozioak edozein ordutan dei egiten dio, baita medikuek lo egiten duten garaian ere. Bete genuen nire etxe txikia bozkario zaratatsuz eta eginarazi genion oihartzun gure elkarrietzeta soilaren murmurioarekin, Walden bailaran izaten diren isilaldi luzeak orekatzeko. Toki barea eta mortua zen Broadway harekin alderatuta. Tarte egokietan algaragurra aditzen ziren erregularki, aurreko txantxari zein etorkizunari lotuak. Bizitzari buruzko teoria «berri-berriak» sortu genituen morokil-plater meheen aurrean: horrela uztartzen genituen adiskidetasunaren abantailak eta filosofiarako behar den buruargitasuna.

Ez daukat ahazteko beste bisitari zorioneko bat izan nuela lakuan igaro nuen azken neguan<sup>303</sup>: zeharkatu zuen herria, gainditu zituen elurra, euria eta iluntasuna, eta ikusi zuen, azkenean, nire lanpara zuhaitzen artean; neguko ilunabar luze batzuk igaro genituen elkarrekin. Filosofoen leinuko azken ordezkarietako bat zen, Connecticuteko semea; gaztaroan merkantzia saltzen zuen etxez etxe, eta, gerora, bere ideiak saltzeari ekin zion, berak dioen moduan. Merkataritza horretan jarraitzen du oraindik,

---

302 William Ellery Channing.

303 Amos Bronson Alcott (1799-1888) AEBko pedagogo eta idazlea.



Jainkoa xaxatuz eta gizonak lotsaraziz, bere burmuina beste fruiturik gabe, intxaurrendoa bere muina besterik eskaintzen ez duen eran. Nire iritziz bera da gizonik fededunena, bizi direnean artean. Haren hitzek eta jarrerak beti iradokitzen dute gainerako gizonak ezagutzen dutena baino egoera hobe bat, eta garaiak aldatu ahala hura izango litzateke desengainua hartuko lukeen azkena. Bere egitasmoak ez dagozkio orainari. Baina orain jaramonik egiten ez zaion arren, haren eguna heltzen denean, gehienek susmatzen ez dituzten legeak gauzatuko dira, eta harengana joko dute aholku eske familiaburu zein agintariek.

«Bai itsua, naretasuna ikus ezin dezakeena!»<sup>304</sup>

Gizonaren lagun zinezkoa, giza aurrerakuntzaren adiskidea bakarra. Hilkor Zahar bat,<sup>305</sup> Hilezkor bat hobeto esanda: egonarri eta fede agorrezez erakusten du gizonen gorputzetan zizelkatuturiko irudia, Jainkoaren irudia, zeinaren monumentu eraitsiak eta desitxuratuak baitira. Gizon horrek haurrak, eskaleak, eroak eta jakintsuak besarkatzen ditu bere adimen amultsuarekin, eta pentsatzera gonbidatzen ditu, modu irekian eta dotorean pentsatzera gainera. Uste dut *karavansarai*<sup>306</sup> handi bat eduki behar lukeela munduko bidean, bertan ostatu har zezaten nazio orotako filosofoek; hala esango luke idazkunak: «Ongi etorria bedi gizona, baina ez haren piztia. Sar zaitezte aisia eta buru lasaia daukazuenak, zinez bilatzen duzuenak bide egokia». Ezagutzeko parada izan dudan gizonen artean, hura da beharbada osasuntsuena eta itzal gutxien dituen; berbera izango da atzo eta bihar. Haren ondoan ibili eta mintzatu naiz, eta mundua gure atzean utzi dugu, ez baitago loturik ezein erakunderekin, aske jaioa da, *ingenuus*.<sup>307</sup> Edozein norabidetan biratzen delarik, badirudi zerua eta lurra elkartu direla, paisaiaren edertasuna areagotzen du-eta. Urdinez jantzitako gizon bat, zerua du sabairik egokiena, haren

---

304 *The Life and Death of Thomas Walsey, Cardinal* liburuko aipua, Thomas Storer (1571-1604) Ingalaterrako poetarena.

305 Robert Paterson (1715-1801) igeltseroaren goitizena. Eskoziako behe-lurretan barna ibili zen, *covenanter* mugimenduko kideen hilobi anonimoetan idazkunak tailatzen.

306 Barruti hesitua da. Ekialde Hurbilean karabanak babestu eta atsedean hartzeko erabiltzen dena. Hirietatik kanpo eraikiak dira karavansarai gehienak. Barnealdean, kargak eta abereak pausatzeko izaten da beheko solairua, eta goiko solairuak, berriz, bidaiarientzat.

307 Latinez, aske jaiotakoari edo nobleari dagokiona; hortaz, egiatia eta zintzoa.

naretasuna islatzen baitu. Ez dut uste hilko denik, Natura ezin da hura gabe bizi.

Pentsamendu-ezpal batzuk ondo lehortu genituelarik biok, eseri ginen eta zuritu genituen nork bere labanarekin, pinu zuria-  
ren azal horikara miretsiz. Igeri egin genuen halako samurtasunez  
eta erreberentziaz, arraun egin genuen halako leuntasunez,  
pentsamenduaren arrainak ez baitziren korrontetik aldentu, ez  
baitzuten beldurrik erakutsi kanaberen erasoaldien aurrean; ai-  
tztitik, handitasunez joan eta etorri ziren, mendebaldeko zeruan  
flotatzen dabiltzan hodeiak bezala, han urrunean zenbaitetan  
sortzen eta saretzen diren perla-ostrazioak bezala. Halaxe  
egin genuen lan: mitologia berrikusi, fabula bat edo beste boro-  
bildu, eta gazteluak eraiki airean, lurrean zutarri sendorik finkatu  
gabe. Behatzaile bikaina! Itxarole bikaina! *Ingalaterra Berriko Mila  
eta Bat Gauak* irakurtzearen parekoa zen harekin hitz egitea! Oi!  
Nolako elkarrizketak izaten genituen hiruok —ermitauak, filo-  
sofoak eta lehenago aipatu dudan kolono zaharrak—; nire etxe  
txikia hedatzen eta dardarikatzen genuen, ez naiz esatera ausar-  
tzen zenbat librako pisua gehitzen genion presio atmosferikoari  
hazbete karratu bakoitzeko; irekitzen ziren etxearen junturak,  
eta asperdurarekin bikeztatu behar izaten nituen nik gero, itogi-  
nik ez izateko; nolana ere, era horretako materialaren gordailu  
galanta neukan.

Bazen beste kide bat,<sup>308</sup> «saio trinkoak» izaten genituen,  
luzaroan oroitzeko modukoak; hark herrian zeukan etxean, eta  
bisitan etortzen zitzaidan lantzean behin. Baina horretaz aparte  
ez nuen beste konpainiarik.

Han ere, beste toki guztietan gertatzen den bezalaxe, inoiz  
etortzen ez den Bisitariaren zain egoten nintzen. Hala dio *Visnu  
Puranak*: «Etxeko nagusiak, ilunabarrean, behi bat jezteko behar  
den adinako denbora igaro behar du patioan, edo luzeago ere  
iraun dezake nahi badu, bisitari baten etorreraren zain». Sarritan  
gauzatzen nuen adeitasun-betekizun hau, zain egoten nintzen  
behi-talde oso bat jezteko behar den besteko denboran, baina ez  
nuen ikusi herritik zetorren gizona.

---

308 Ralph Waldo Emerson. Ikus 42. Oharra (Lehen eta bigarren zatia bateratzean,  
egiaztatu eta aldatu)

# HAMABOST

## NEGUKO ANIMALIAK

Lakuek, tinko hormaturik zeudenean, bide berri eta laburragoak eskaintzen zituzten hainbat lekutara iristeko, eta horrez gainera inguruko paisaia ezagunaren ikuspegi berriak ere ematen zizkidaten beren gainazalaren talaiatik. Flinten laku elurrez estalia zeharkatu nuenean —toki horretantxe arraun egin eta patinetan ibili naizen arren maiz— hain iruditu zitzaidan zabal eta bitxia, non Baffin badiaz<sup>309</sup> baino ez bainuen pentsatzen. Lincolneko muinoak altxatzen ziren nire inguruan, lautada elurtuaren muturrean, eta ez nuen oroitzen han egon izana sekula; distantzia zehaztugabe batera kokaturiko arrantzaleek, mantso-mantso mugituz beren txakur otso-itxurakoekin, fokarrantzaleak edo eskimalak ematen zuten; are gehiago, lanbrotan bildurik ageri zirenean, izaki alegiazkoak ziruditen, eta ez nekien erraldoiak edo pigmeoak ziren. Bide horretatik jo nuen Lincolnera joan nintzenean hitzaldi bat ematera ilunabar batean;<sup>310</sup> ez nuen zeharkatu errepiderik, ez eta etxerik begiztatu ere nire txabolatik irten eta hitzaldi-gelara iritsi bitartean. Bidean, ordea, Goose lakutik igaro nintzen, eta arratoi musketadunen kolonia bat ikusi nuen: izotzaren gainean zeuden haien etxolak, baina ez nuen animalia bat bera ere ikusi pasieran. Waldenen, beste lakuetan bezala, ez da elurrik izaten orokorrean, mordo mehe

---

309 Ozeano Arktikoan dagoen badia, Groenlandia eta Kanada artean.

310 Thoreauk hitzaldi bat eskaini zuen Lincolneko Lizeoan 1847ko urtarrilaren 19an —Walden lakuaren ondoan bizi zen garaian—, eta beste bi, berriz —1849ko martxoaren 6an eta abenduaren 30ean hurrenez hurren—, *Walden* idazten ari zelarik. Bere bizialdian 75 hitzaldi eman zituen, gutxienez.

batzuk baino ez dira pilatzen han-hemenka; lakua, beraz, nire patioa bihurtzen zen, eta nahieran ibil nintekeen han, gainerako lekuetan elurrak bi oineko lodiera zuen arren eta kaletarrak nor bere kalean konfinaturik egon arren. Laku hartan irristan eta patinetan ibiltzen nintzen, herriko kaleetatik eta leren kanpaietatik urrun —salbuespenak albuespen—, altzeek ondo berdinduriko lautada batean nola, hariztiz inguraturik eta pinu solemneak nigana makurtzen zirelarik elurraren zamapean eta izotz-kandelen distirarekin.

Soinuei dagokionez, neguko gauetan, bai eta neguko egunetan ere maiz, hontz baten doinu atsekabetua aditzen nuen —eztia, halere—, distantzia zehaztugabe batetik iritsia; lur izoztuak halako soinu bat igorriko luke baldin eta plektro aproposarekin joko balitzaio, huraxe zen Walden basoko *lingua vernacula*<sup>311</sup> egiakoa, eta azkenerako ondotoxo ezagutzera iritsi nintzen, nahiz eta hegatzia ez nuen inoiz parez pare ikusi soinua egiten ari zen unean. Neguko iluntzeetan atea irekitzen nuelarik ia beti aditzen nuen kantu hura: U, u, u, u-lu, u; soinu ozena zen, eta lehen hiru silabek bazuten halako azentu berezi bat; batzuetan u, u bat baizik ez nuen entzuten. Gau batez, neguaren hasieran, lakua erabat izoztu aurretik, antzara baten karranka ozenak ikaratu ninduen bederatzia aldera, eta atarira irten nintzelarik, haren hegoen soinua entzun nuen nire etxearen gainetik hegaldatu zenean; bazirudien ekaitz bat lehertu zela basoan. Lakuaren gainetik igaro zen antzara-saldoa, Fair Haveneko norabidean, haien komodoroak erritmo erregularran karranka egiten jarraitzen zuelarik, nire etxeko argiarekin izututa nonbait. Bat-batean, hontz batek, nigandik hurbil egonik, antzarari erantzun zion tarte erregularretan, basoan inoiz entzun dudan ahotsik zakar eta egundokoenarekin; bazirudien Hudson badiako arrotz hura salatze eta laidoztatzeko asmo betea zuela, eta erregistro eta bolumen handiagoko ahots natibo bat baliatzen zuela horretarako: bere uluaren bitartez, Concordeko zerumugatik kanporatu nahi zuen antzara. Zer adierazi nahi didazu zitadela larrituz neuri eskainitako gau-ordu honetan?<sup>312</sup> Zer uste duzu, halako orduetan lo-kuluxkak egiten harrapatu-

311 Latinez, jatorrizko hizkuntza.

312 Juno tenpluko antzara sakratuei erreferentzia: K. o. 390. urtean, galiarren iritsieraz ohartarazi zituzten erromatarak.

ko nauzula eta nire birikak eta laringea ez direla zeureak bezain indartsuak? *U-lu, u-lu, u-lu!* Inoiz entzun dudan konponduezinik zirrargarrietako bat izan zen. Eta, hala ere, belarri on batek ordokiotan inoiz ikusi ez aditu gabeko moldaketa harmonikoak atzeman izango zituzkeen hartu-eman horretan.

Entzun nituen, halaber, lakuko izotzaren auhenak, hura baitzen nire ohaidea Concordeko inguru hartan; asaldatarik zegoela ematen zuen, eta buelta eman nahi zuela izaretan, puzkerrek eta amesgaiztoek gogaiturik. Beste batzuetan antzi-garraren krakatekoek iratzartzen ninduten, norbaitek uztarri bat garraiatu balu bezala nire ateraino: biharamunean arrail bat topatzen nuen zoruan, milia-laurden bat luzea eta hazbete-heren bat zabala.

Ilargi beteko gauetan azeriak aditzen nituen elur-azalaren gainean korrika, eper baten edo bestelako harrapakin baten xerka; zaunka egiten zuten, amorraturik eta deabruzko, basoko txakurren antzera; bazirudien larritasunen batek hartuak zirela eta borrokatu egiten zutela hori adierazteko eta argitasunera iristeko, txakur bihurtu eta kaleetan lasai ibili nahian; izan ere, espezieen aroak aintzat hartuz gero, zibilizazioa ez al da piztien artean ere zabalduko, gizonen artean hedatzen ari den gisan? Iruditzen zitzaidan gizon garatu gabeak zirela haiek, zuloetako biztanleak, eta defentsibara agertzen zirela, beren eraldaketaren esperoan. Zenbaitetan nire leihora gerturatzen zen baten bat, argiak erakarririk; madarikazio azerizko batekin uhuri egiten zuen nire aldera, eta erretiran joaten zen gero.

Urtxintxa gorriak (*Sciurus Hudsonius*)<sup>313</sup> esnatu ohi ninduen egunsentian: teiltuaren gainean jirabiraka eta etxeko aldeetan gora eta behera ibiltzen zen, basotik bidali balute bezala helburu horretarako preseski. Tarteka-marteka artaburuak botatzen nituen ate alboko elurraren gainean —lakari-erdi bat, guztira—, ez zirelako behar bezala heldu, eta amuari kosk egiten zioten era askotako animalien mugimenduei so dibertitzen nintzen. Untxiak arrastirian eta gauez etortzen ziren, hutsik gabe, oturuntza eder bat egitera. Urtxintxa gorriak, berriz, egun osoan ikusten nituen joan-etorriak egiten, eta tarte bikainak eskaini zizkidaten beren maniobrekin. Hasieran, urtxintxa bakar bat hurbiltzen

---

313 Gaur egun, *Tamiasciurus hudsonicus* izena du espezieak.

zen haritz-zuhaixken artetik, zuhurtzia handiz; korrika egiten zuen kolpez kolpe elur-azalaren gainean, haizeak daroan hostoaren eran; egiten zituen urrats batzuk norabide jakin batean, izugarri bizkor eta energia xahutuz; erdiesten zuen abaila sines-tezina bere zango «trostalariekin», dema batean balego bezala; egiten zituen beste horrenbeste urrats beste norabide batean, nahiz eta ez zuen inoiz korritzen kana-erdi bat baino gehiago aldi bakoitzean, eta bat-batean geratu egiten zen burlaize eta jauzi bat eginez inongo arrazoirik gabe, unibertso begi guztiak hari so baleude bezala —izan ere, urtxintxaren mugimendu guztiak, baita basoko bazterrik bakartienean egiten dituenak ere, ikuslego bati zuzenduak dira, eta gauza bera gertatzen da dantzan dabilen neskatzaren kasuan—; hala, distantzia osoa oinez egiteko behar izango lukeena baino denbora gehiago alferrik galtzen zuen bere geldialdiekin eta gogoetekin —ez dut inoiz ikusi urtxintxa bat oinez—, eta, tupustean, Jack Robinson esateko betarik izan ez zenuelarik kasik,<sup>314</sup> hara non agertzen zen pinu gazte baten puntan; soka ematen zion bere erlojuari eta errieta egiten zien ikusle alegiazko guztiei, eta bakarriketan jarduten zen bere buruarekin eta unibertsoarekin aldi berean; ez dakit zer arrazoirengatik egiten zuen hori dena, eta susmoa dut berak ere ez zekiela. Iristen zen azkenean artoa zegoen tokira, eta artaburu apropos bat hautaturik, saltoka gerturatzen zen, bere manera trigonometriko zalantzatian, nire egur-pilako makilarik garaienera; nire leihoaren pare-parean kokaturik, bekoz beko begiratzen zidan, orduak ematen zituen horrela, aldian-aldian beste artaburu bat hartuz; hasieran kosk egiten zion irrikaz eta hondakin erdi-biluziak uzten zituen, baina arian-arian gero eta mokofinagoa bihurtzen zen eta bere janariarekin jolasean jarduten zen; alearen muina baino ez zuen dastatzen, eta artaburua, zeina orekan mantentzen baitzuen makilaren gainean hanka baten laguntzaz, irristatzen zen urtxintxaren heltzeko modu axolagabetik eta lurrera erortzen zen; urtxintxak, orduan, harantz begiratzen zuen zalantza-keinu barregarri batekin, artaburua bizirik zegoela susmatuko balu bezala, eta duda egiten zuen ea hobe zuen hura berreskuratu, beste bat hartu edo alde egin; artoari buruz pentsatzen zuen orain, haizeak zekarrenari

---

314 XVIII. mendeko kantu batetik datorren esamoldea.

buruz istant bat geroago. Morroi lotsagabe hark, horrenbestez, artaburu ugari xahutzen zuen goiz bakar batean, harik eta, ale luzeago eta trinkoago bat harrapatu —bera baino puska handiago— eta hura trebeki oraturik, berriz basora abiatzen zen arte, bufalo bat garraiatzen duen tigrea nola: sigi-saga joaten zen, sarritan geratuz; herresten eramaten zuen elikagaia, nekez hala ere, bai baitzirudien astunegia zela berarentzat, eta maiz jausten zitzaion —artaburuak, erortzean, lerro diagonal perfektu bat eratzen zuen urtxintxa bertikalaren eta zoru horizontalaren artean—; hala ere, animalia irmo deliberaturik zegoen artaburu eramatera gerta ala gerta —morroi txundigarriki kaskarina eta apetatsua zen, alajaina—, eta hala jotzen zuen bere bizilekurantz; igotzen zuen menturaz berrogei edo berrogeita hamar kana urrunagoko pinu batera, eta, gerora, artaburuaren soberakinak topatzen nituen nik basoan zehar sakabanatuta.

Oskilasoak iristen ziren ondoren, zeinen garrasiak puska urrunagotik aditzen baitziren, zuhurtziaz hurbiltzen zirelarik milia-zortziren bateko distantziatik; zuhaitzez zuhaitz gerturatu ahala gero eta ozenago entzuten ziren haien soinuak, eta katagorriek utzitako artaburuak harrapatzen zituzten azkenean. Pinuen adaburuetan jesarririk, zitzu bizian saiitzen ziren artaburu irensten, baina fruitua handiegia izanik beren zintzurrentzat, ito egiten ziren; kanporatzen zuten, gorriak pasata, eta artaburu txikitzen saiitzen ziren ordubetez, moko-kolpeak emanez behin eta berriro. Lapur agerikoak ziren, eta ez nuen errespeturik sentitzen haien aldera; nolana ere, katagorriek, hasieran herabe agertzen ziren arren, berei zegokiena hartzen ari balira bezala lan egiten zuten.

Kaskabeltz-saldoak etortzen ziren bien bitartean: katagorriek utzitako apurrak hartu, adarrik gertukoenera hegaldatu eta, beren erpeekin helduz, mokoka mailukatzen zituzten, in-tsektu-oskolak balira bezala, harik eta beren eztarri estuetan barna pasarazteko modukoak bilakatu arte. Hegazti-espezie horretako saldo txiki bat nire egur-pilara hurbiltzen zen egunero afari bila, edo nire etxe pareko apurrak hartzen zituen bestela; nota lauso, iheskor eta zizipaza-tankerakoak igortzen zituzten, izotz-kandelek belarretan sortzen dituztenen antzekoak; beste batzuetan *dei-dei-dei* alai bat egiten zuten, eta, aldi bakanagotan, udaberri-trazako egunetan adibidez, *fi-bi* udatiar bat iristen

zitzaidan basotik. Hain ginen hurbilekoak non, egun batean, es-talperantz neraman egur mordo batean lurreratu baitzen bat, eta makilei mokoka jardun zen beldurrik gabe. Behin batean nire sorbaldaren gainean pausatu zen txolarre bat une batez, herriko baratzea jorratzen ari nintzelarik, eta sentitu nuen gertakizun hark ohore handiagoa zekarkidala soinean eraman nezakeen ezein txarratelak baino. Azkenerako ezagun-ezagunak bihurtu ziren katagorriak ere, eta nire oinetakoaren gainetik igarotzen ziren noiz edo noiz, baldin eta hori bazen biderik laburrena.

Zorua osorik estali aurretik, eta neguaren amaieran berri-ro ere, elurra urtua zelarik muinoaren hegoaldeko magalean eta nire egur-mordoaren inguruabarrean, basotik ateratzen ziren eperrak, bai goizean bai iluntzean, janari bila. Berdin du basoko zer aldetan zabiltzan, ozen hegaldatzen dira eperrak, astintzen dute goiko adar eta hostoetako elurra, eta malutak beherantz amiltzen dira orduan, hauts urrekara diruditelarik eguzkiaren argitan; txori ausart hori ez da ikaratzan neguarekin. Maiz es-taltzen du elurrak, eta, esaten denez, «batzuetan elur leunean murgiltzen da hegoei eraginez, eta hortxe ezkutatzen da pare bat egunez». Larre zabaletan ere begiztatzen nituen; egunsen-tian basotik irten eta hara hurbiltzen ziren sagarrondo basatien kimuak jatera. Gerturatzen dira iluntzero zuhaitz jakin batzuetara, eta zain edukiko dituzte ehiztari aztiak; baso inguruko ortuek ederki sufrituko dute horren ondorioz. Pozten naiz, edonola ere, eperrek badutelako zer jan. Naturaren beraren txoria da kimuak janez eta egosaldiak edanez mantentzen dena.

Neguko goiz ilunetan edo arratsalde laburretan ehiza-txakurren taldeak aditzen nituen baso osoan miaka, zaunka eta txilio eginez, harrapari-sena errefusatzeko ezgai; aldi-an-aldian ehiza-adarra entzuten nuen, guztiaren atzean gizona zegoela frogatuz. Basoak oihartzun egin du berriro, baina ez da azeririk agertu lakuko lautadara, ez eta txakur-saldorik ere bere Akteon-en<sup>315</sup> atzetik. Iluntzean ehiztariak ikusten ditut, leran azeri-isats bat bakarrik dakartelarik garaikur gisa, taberna baten bila. Esa-ten didatenaren arabera, azeriak salbu egongo lirateke baldin eta lur izoztuaren barrunbean gordeko balira, eta lerro zuzen bati

---

315 Greziar mitologiako ehiztari bat; orein bilakatu zen Artemis jainkosa nola bainatzen zen zelatatu ostean, eta bere txakur-saldoak jan zuen.



jarraituz korrika egingo balute ere ez lituzke ehiza-txakur batek harrapatuko inoiz, baina, hori egin ordez, atsedean hartzera geratzen dira beren jazarleak oso urrun utzi ostean, harik eta hurbiltzen ari zaizkiela aditzen duten arte, eta itzulunguruak eginenez bueltatzen dira gero beren gordeleku zaharrera, ehiztariak zain dauzkaten lekura hain zuzen. Zenbaitetan, alabaina, hainbat kanako distantzia korritzen dute hesi baten albo-albotik, eta halako batean jauzi egiten dute beste aldera; itxura denez, bada-kite urak ez duela beren usainaren arrastorik gordetzen. Ehiztari batek azaldu zidanez, azeri bat ikusi zuen behinola, zeinak, ehiza-txakurren jazarpenetik ihesi, Waldenera jauzi egin baitzuen, izotz-geruza putzu azalekoz estalita zegoelarik artean; lakuaren zati bat gurutzatu, eta ur-ertzera itzuli zen berriro. Iritsi ziren txakurrak, baina aienatua zen usaina. Batzuetan nire atearen paretik pasatzen zen txakur-aldra bat, ehizara bere kabuz joana; inguratzen zuten etxea eta zaunka eta intziri egiten zuten niri erreparatu gabe, erotasun-suerte batek joak baleude bezala, halako moduan non ezerk ez zituen ehizatik desbideratuko. Modu horretan jarduten ziren etxeari bueltaka, azeri baten aztarren freskoak usaintzen zituzten arte, ehiza-txakur zuhur batek edozer gauzaren gainera lehenetsiko duen gauza. Egun batean gizon bat etorri zitzaidan etxera Lexingtonetik, bere ehiza-txakurraren berri jakin nahian; oinatz nabarmenak lagatzen omen zituen animaliak, eta astebete zeraman bere kasara ehizan. Baina uste dut nire azalpenek ez zutela jakintsuago bihurtu, eten egiten baininduen haren galderak erantzuten saiatzen nintzen aldiro, hau galdetuz: «Zer egiten duzu hemen?». Txakur bat galdu zuen, baina gizon bat topatu.

Ehiztari zahar eta isil batek, zeinak, urtean behin, ura bere epelenean zegoenean, Waldenera etorri ohi baitzen bainatzera eta nire etxeko atea jotzen baitzuen halako egokieretan, azaldu zidan duela hainbat urte, arratsalde batez, bere eskopeta hartu zuela eta paseoan joan zela Waldeneko basora; Waylandeko bidetik zihoalarik, ehiza-txakurren auhenak aditu zituen, hurbiltzen-hurbiltzen; hara non azeri batek salto egin zuen bidera hesiaren alde batetik, bidea bizkor-bizkor gurutzatu eta beste aldeko hesia gainditu zuen berriro, ehiztariaren bala azkarrak ez zuelarik ukitu. Handik tarte batera iritsi ziren ehiza-txakur zahar bat eta haren hiru kumeak, harrapakaritzari buru-belarri

emanak, beren kasara ehizan, eta atzera galdu ziren basoan. Beranduago, Waldenen hegoaldeko baso sarrarian atsedean hartzen ari zelarik ehiztaria, txakur-aldraren soinua aditu zuen berriro, azeriaren atzetik baitzebiltzan artean, Fair Haven aldera joz orain; horretan segitu zuten puska batean, eta gero eta gertuago aditzen zen haien garrasia, baso osoan egiten zuen oihartzuna, noiz Well zelaitik noiz Bakerren etxaldetik. Ehiztariak ez zuen zirkinik egin luzaroan, aldraren musikari adi, melodia gozo-gozoa baitzen harentzat, baina halako batean hara non agertu zen azeria, korridore solemneak sigi-saga zeharkatuz trosta txikian; hostoen farfar-hots eskuzabalak estaltzen zuen haren soinua, eta arin baina lasai zihoan aurrerantz, segika zetozkionak gero eta atzerago utziz; orduan, basoko harkaitz baten gainera salto egin, eta zut geratu zen, erne, ehiztariari bizkarra emanda. Une batez, errukiak hertsatu zuen gizonaren besoa, baina gutxi iraun zion aldarteak; pentsatu eta egin: erriflea destatu, eta danba! Zerraldo erori zen azeria harkaitzetik zorura. Ehiztaria bere lekuan geratu zen oraindik, txakurrei adi. Heldu ziren, inguruko basoetako korridore guztietan aditzen zen haien txilio deabruzkoa. Bistaratu zen azkenean txakur zaharra, muturra lurrari itsatsita zekarrela, airea usaindu nahian ero moduan, eta arrokarentz egin zuen zuzenean; azeri hila ikusirik, bere harrapaketa eten zuen tupustean, harri eta zur geratu izan balitz bezala, eta bueltaka hasi zen hilotzaren inguruan; iritsi ziren kumeak ere, banan-banan, eta isilik gelditu ziren ama bezala, misterioari ezin igarrita. Orduan atera zen ehiztaria eta denen erdian geratu zen tente: argitu zen enigma. Ehiztariak azeria larrutu arte itxaron zuten txakurrek, ondoren apur batean jarraitu zioten, isatsa harrapatu nahian, eta azkenean basora itzuli ziren berriro. Iluntze hartan Westoneko jaun bat Concordeko ehiztariaren etxolara hurbildu zen bere aldrari buruz galdezka, eta azaldu zion beren kabuz ehizan arituak zirela astebetetz Westoneko basoan. Concordeko ehiztariak, bestalde, zekien guztia azaldu, eta azeriaren larrua eskaini zion orobat, baina Westonekoak ezetz esan eta alde egin zuen. Ez zituen txakurrak topatu gau hartan, baina biharamunean jakin zuen erreka gurutzatu eta etxalde batean igaro zutela gaua; sabela berdinduta, goizean goiz abiatu ziren berriz.

Goiko pasadizoaren kontalariak gogoan zuen Sam Nutting zeritzon bat, hartzak ehizatzen zituena Fair Haveneko erlaitze-

tan eta larruak ron truke banatzen zituena Concordeko herrian; Nutting honek, bada, gure ehiztariari azaldu zion altze bat ere ikusia zuela inguru berean. Nuttingek bazuen azeritarako txakur ospetsu bat, Burgoyne izenekoa —Bugine ahoskatzen zuen—, nire informatzaileak maileguan hartu ohi zuena. Honako sarrera hau aurkitu dut herri honetako merkatari zahar baten kontu-liburuan —merkataria izateaz gainera, kapitaina, udal langilea eta diputatua zen—: «Urtarrilak 18, 1742-43: John Melvenek kreditua azeri gris baten truke: 0 libra, 2 txelin eta 3 penny». Hemen jada ez da geratzen azeri grisik. Merkatariaren liburu nagusian, oster, hau agertzen da: «Otsailak 7, 1743: Hezekiah Strattonek kreditua dauka katu-larru erdiaren truke: 0 libra, 1 txelin eta 4 ½ penny». Basakatua izango zen, jakina, Stratton sarjentu aritu baitzen frantziar gerra zaharrea<sup>316</sup> eta ez bailuke krediturik eskuratuko ehizaki apalago baten truke. Kreditua ematen zen, orobat, orein-larruengatik, eta egunero saltzen ziren. Gizon batek gordeta dauzka oraindik inguru honetan akabatutako azken oreinaren adarrak, eta beste batek, ordea, haren osaba ibilitako ehizaldi baten xehetasunak aletu dizkit. Garai batean, kuadrilla ugaria eta alaia ziren ehiztariak inguru honetan. Ondo gogoan dut Nimrod<sup>317</sup> segail bat, zeinak ezein ehiza-adarrek baino doinu basati eta melodikoago bat jo baitzezakeen bide bazterreko hosto bat hartuta, memoriak iruzur egiten ez badit behintzat.

Gauerdian, ilargi betea zegoenean, basoan alderrai zebiltzan txakur-aldrekin topo egiten nuen batzuetan; berehala apartatzen ziren nire bidetik, ikaraturik nonbait, eta sasien artean ezkutatzen ziren isilik, urrutiratzen nintzen arte.

Katagorriak eta basasaguak nire fruitu-gordailuaren kariatara borrokatzen ziren. Azken horiek, gainera, osorik karraskatu zituzten nire etxe inguruko pinuak, hazbete batetik lau hazbetera bitarteko diametrokoak, aurreko neguan; negu norvegiarra izan zen haientzat, elurra sakon-sakona izan baitzen luzaroan, eta, horrenbestez, pinu-azala erantsi behar izan zioten beren ohiko dietari. Zuhaitz horiek bizirik eta loretan zeuden —itxuraz behintzat— udaran, eta haietako asko oin bat hazi ziren, azala-

---

316 Frantziaren eta Indiaren arteko gerra (1754-1763).

317 Hasiera 10: 8-9 bertsetei erreferentzia: «Kuxek Nimrod izan zuen. Hau izan zen lehenengo gizon boteretsua munduan; ehiztari aparta izan zen, eta hortik dator esaera: "Nimrod adinako ehiztari aparta"».

ren gerriko oso bat erauzia izan zitzairen arren; hurrengo negua, hala ere, antzekoa izan zen eta den-denak hil ziren salbuespenik gabe. Deigarria da, deigarria denez, sagu bakar batek pinu bat jan ahal izatea afaritan, enborraren bira karraskatuz, gora eta behe-  
ra karraskatu orde, baina beharbada premiazkoa da zuhaitzok gutxiagotu daitezen, izugarri ugaltzeko joera dute-eta.

Erbiak (*Lepus Americanus*) ondo baino hobeto ezagutzen nituen. Nire etxearen azpian gorde zen bat negu osoan, zoruak bakarrik bereizten gintuen, eta goizero harrizten ninduen haren abiatze bizkorrak, iratzarri berria nintzelarik: *danba, danba, danba*; presaren presaz, zoruko oholak jotzen zituen buruaz. Erbiak nire atarira gerturatzen ziren ilunabarrean, kanpora botreak nituen patata-azalei heltzeko pronto, eta hain ziren zoruaren kolorearen antzekoak non ezin baitziren hartatik bereizi geldigeldi zeudelarik. Zenbait arrastiritan, nire leiho azpian zirkinik egin gabe paratzen zen erbi baten ikuspegia agertzen eta desagertzen zen txandaka. Atea zabaltzen nuelarik iluntzean, hara non abiatzen ziren erbiak, kirrinka eta jauzi banarekin. Eskura nituenean, errukia baizik ez zidaten pizten. Iluntze batean atari ondoan eseri zen bat, nigandik bi pausora; hasieran dardarka ari zen beldurraren beldurrez, ez zuen mugitu nahi hargatik; izakitxo gizagaixo bat zen, liraina eta hezurtsua, belarriak makurrak eta sudurra zorrotza, buztana txikia eta atzaparrak meheak. Bazirudien Naturak jada ez zuela bere baitan gordetzen odol leinargirik,<sup>318</sup> azkenetan zegoela. Animaliairen begi handiek gazteak eta gaixoberak ziruditen, hidropikoak ia. Urrats bat egin nuen, eta, hara! Jauzi elastiko bat egin eta korrika abiatu zen elur-azalaren ganean, grazia handiz luzatuz gorputza eta zangoak, eta laster asko basoa geratu zen bion artean: izaki aske basatia, aldarrikatzen zituen bere indarra eta Naturaren duintasuna. Erbiaren liraintasunak, bada, bazuen azalpenik. Huraxe zuen bere zerizana (*Lepus, levipes*, oin arinak, batzuen arabera).<sup>319</sup>

Untxirik eta eperrik gabe zer da herri bat? Animaliarik sinpleenetako eta indigenetako bi dira, sendi antzinakoak eta ohorezkoak, aspaldiko garaietan zein garai modernoetan eza-gunak; Naturaren larru eta muin berarekin eginak, hostoen eta

---

318 Shakespeare, *Julio Zesar* (1. ekitaldia, 2. eszena): «Erroma, galdua duzu odol leinargien gizabidea».

319 Marko Terentzio Varronen *Rerum Rusticarum* liburuaren erreferentzia.

zoruaren aliaturik hurbilenak —baita elkarren aliaturik hurbilenak ere—: hegodunak edo lau hankakoak. Untxi bat edo eper bat ikusten baduzu urruntzen delarik, nekez irudituko zaizu izaki basati bat ikusi duzunik; izaki natural bat da aitzitik, hostoak bezalakoxea. Eperra eta untxia aurrera aterako dira ziur bai ziur, zoruko natibo egiazkoak bezala, edozein iraultza gertatzen delarik ere. Basoa mozten badu inork, haziko dira kimuak eta zuhaixkak eta bertan ezkutatuko dira gure bi animalia hauek; are, inoiz baino gehiago ugarituko dira. Erbirik ez dagoen lurraldeak pobrea izan behar du derrigor. Gure basoetan bi-biak daude, erruz gainera, eta zingira guztietan ikus daitezke eperrak nahiz untxiak trostan, adar-hesiz eta behizainek zaldi-ileekin eginiko tranpaz inguraturik.



# HAMASEI

## LAKUA NEGUAN

Esnatu nintzelarik neguko gau bare baten ostean, irudipena izan nuen galderaren bat egin zidatela, eta erantzuten ahalegindu nintzela, alferrik, nire loaldian: zer?; nola?; noiz?; non? Baina iratzartzen hasia zen Natura bera, zeinetan bizi baitira izaki guztiak, eta nire leiho zabalei beha zegoen aurpegiera lasai eta asearekin; galderarik ez *haren* ezpainetan. Jada erantzundako itaun batekin esnatu nintzen beraz: Natura eta egunaren argia. Pinu gaztez zipriztinduriko elur-geruza lodiak eta nire etxea zegoen muino-hegalak berak zera esaten zidatela zirudien: Aurrera! Naturak ez du egiten galderarik eta ez dio erantzuten hilkorrek proposatutako ezeini. Aspaldi hartu zuen bere erabakia. «Oi, Printzea, zure begiek mirespenez behatzen dute eta arimari helarazten diote unibertso honen ikuskizun miragarri eta aberatsa. Gauak, ezbairik gabe, sorkari loriazko honen puska bat estaltzen du; goizak, alabaina, obra itzel hau erakusten digu berriro ere, zeina lurretik hasita eterraren lautadetaraino hedatzen baita».<sup>320</sup>

Heldu diot, bada, nire goizeko lanari. Hartu ditut, lehenik, aizkora eta pala, eta joan naiz ur bila, baldin eta ameskeria hutsa ez bada, gau hotz eta elurtsuen ostean hagatxo magiko bat behar izaten da-eta ura aurkitzeko. Negu bakoitzean, lakuaren azal likido eta dardartia, putzik ahulenaren aurrean hain sentikorra eta argi-itzal oro islatuz, solido bilakatzen da oin bateko edo oin

---

320 Alexandra Langlois (1788-1854) Frantziako indologista eta itzultzailearen *Harivansa, ou Histoire de la famille de Hari* (1835) liburuko aipua.

eta erdiko sakoneran, halako moduan non tresnarik astunenen zamari eutsiko baito, eta ondoren beste horrenbesteko lodiera duen elur-geruza batek estaliko du, eta ezingo da lakua bereizi gainerako zelai arruntetatik. Inguruko muinoetako marmotek nola, hala ixten ditu begiak lakuak, eta lozorroan biltzen da hiru hilabetez edo gehiago. Lautada elurtuan zutik, muinoen arteko larre batean banengo bezala, bidea egin dut, lehenik, oin bat elurren artean, eta oin bat izotzen artean gero, eta ireki dut leiho bat nire oinen azpian, eta ura edatera makurtu naizelarik, erreparatu diot arrainen ezkaratz trankilari, zeina zeharkatzen baitu argi fin batek alderik alde, beira esmerilatuaren leiarretik ikusiko bagenu bezala; lakuaren hondo hareatsuak, ordea, udako itxura berbera du: han behean baretasun iraunkor eta olaturik gabe bat gailentzen da, arrastiriko zero anbarraren erakoa, bat egiten duena lakuko biztanleen jite hotz eta konstantearekin. Zerua hala gure oinen azpian nola gure buruaren gainean dautza.

Goizean goiz, gauza oro hormaturik dagoenean oraindik, gizon batzuk etortzen dira arrantza-kanaberekin eta jatordu arinekin, eta beren hari finak luzatzen dituzte zelai elurtuan, lutxoak eta perkak arrantzatzeko; gizon salbaiak dira, beren herrikideenak ez bezalako modei jarraitu eta bestelako autoritateei men egiten diete senez; beren joan-etorrien bidez, bestalde, herriak lotzen dituzte puntadaz puntada, osterantzean urratuko lirakeen hainbat gunetan. Jesartzen dira ur-ertzean, haritz-hosto lehorren gainean, eta jaten dute hamaiketakoa, artilezko jaka lodiak jantzirik; naturaren jakituriaren jabe dira, kaletarrak artifizioaren jakituriaren jabe diren neurri berean. Ez dute inoiz jo liburuetara, eta gaitasun handiagoa dute gauzak egiteko gauzak azaltzeko edo jakiteko baino. Egiten dituzten gauzak ez dira ezagutzen oraindik. Hona hemen bat, perka heldu bat darabilena lutxo bat arrantzatzeko amu gisa. Gizon horren ontziari begiratzten diozu laku udatiar bat balitz bezala, bai baitirudi etxean gorde duela udara edo badakiela, behinik behin, nora erretiratu den hura. Esadazue, arren: nolatan lortu ditu hainbeste arrain negu gorrian? Bada, zorua izoztuz geroztik zizareak enbor us-telduetan bilduz eta haiek erabiliz amutzat. Naturalistaren ikerketak baino sakonago barneratzen da bera Naturan; are, ikerketagaia da naturalistarentzat. Azken horrek, izan ere, go-roldioa eta azala altxatzen ditu, tentu handiz, bere labanarekin,



intsektuak aurkitu nahian; gure gizon salbaiak, berriz, aizkora-kolpeka zatikatzen du enborra, muineraino, eta hegan ateratzen dira goroldioa zein azala. Zuhaitzak zurituz ateratzen du aurrera bizibidea. Gizon horrek badu eskubiderik arrantzan egiteko, eta maite dut Natura ikustea berarengan mamiturik. Perkak irentsi du egurreko zizarea; lutxoak irentsi du perka, arrantzaleak irentsi du lutxoa: izatearen eskalako zirritu guztiak bete dira modu horretan.

Zenbaitetan, lanbro-egunetan ibiltzen nintzenean lakua-ren inguruan, dibertitu egiten nintzen arrantzale zakarren baten teknika primitiboei so. Esate baterako, haltz-adarrak kokatzen zituen izotzeko zulo estuen gainean, zeinak laupabost kanara baitzeuden elkarren artean eta distantzia berdina gordetzen baitzuten ertzarekiko; lotzen zuen hariaren muturra makila batera ez zedin urperatu, eransten zion haritz-hosto bat, eta, horrela, hostoa beheratzean jakingo zuen arrainen batek kosk egin ziola amuari. Lakuaren inguruan zenbiltzalarik, haltz-adarrak begiztatzen zenituen tarte erregularretan, behe-lainoan bildurik.

Oi, Waldeneko lutxoak! Izotzean dautzatela ikusten ditudanean, edo izotzean zulo txiki bat eginez arrantzaleak sortzen dituen putzutxoetan igeri, aldiro harritzen nau haien edertasun bitxiak; iruditzen zait arrain alegiazkoak direla, arrotzak kaleetan zein basoan, Arabia bezain arrotza gure Concordeko bizitzen-tzat. Edertasun txundigarri eta haraindiko baten jabe dira; urrun geratzen zaizkie, horrenbestez, bakailao eta abadira hilotz-itxurakoak, zeinen ospea aldarrikatzen baita gure herrietan. Ez dira berdeak, pinuak bezala; ez grisak, harriak nola; ezta urdinak ere, zeruaren pare; aitzitik, nire begirada pean behintzat, are kolore bitxiagoak dituzte, baldin eta posible bada; loreen eta harribitxi-entzien traza dute, perlak balira legez, Waldeneko uretako nuclei animalia bihurtuak, edo kristalak. Jakina, Waldenek inguratzen ditu goitik behera eta alderik alde; are, Walden txikiak dira animalien erreinuan: waldentarrak. Harritzekoa da lutxoak hemen ehizatuak izatea; harrigarria da arrain urrekara eta esmeraldazko apart honek igeri egitea iturburu sakon eta zabal honetan, Waldeneko bidean barna bidaiatzen diren uztarri, zalgurdi eta lera zalapartatsuetatik askoz beherago. Ez dut inoiz ikusi mota honetako alerik merkatuan; begirada guztien jomuga bihurtuko litzateke. Aise, inarrosaldi gutxi batzuk eginez, entregatzen du


# WALDEN POND.

A reduced Plan.

1846.

Scale  $\frac{1}{7920}$ , or 40 rods to an inch.

Area 61 acres, 103 rods.  
 Circumference 1.7 miles.  
 Greatest Length 115½ rods. A  
 Greatest Depth 102 feet.



Profile of a Section by the Line A. B.

Section C. D.

bere espiritu urtarra, zeruko aire finera beren garaiaren aurretik eroandako hilkorren gisa.

Irrikaz bainengoen Walden lakuko hondo aspaldi agurtuarekin topo egiteko berriro, arreta handiz ikuskatu nuen 1846ko urtearen hastapenetan, izotza hautsi aurretik, iparrratza, katea eta zunda-haria erabiliz. Istoria franko aletu da laku honen hondoaren, edo, hobeto esanda, hondorik ezaren inguruan, nahiz eta funtsik gabeak izan denak. Azpimarragarria da gizonek zenbat denboran sinets dezaketen laku batek ez duela hondorik, hura zundatzeko lanik hartu gabe ere. Inguru honetan bertan, eta paseo bakar batean, joana naiz ni halako bi Laku Hondogabetara. Askok uste dute lurbiraren beste alde-raino iristen dela Walden. Zenbaitek, zeinak izotzaren gainean etzan baitira, ahuspez, tarte luze batean, bitarteko iruzurti horretan zehar begiratzuz, begi negartsuekin eta ondorioak zabarki ateratzera beharturik —bularra hozteko beldurraren poderioz—, zulo zabalak ikusi omen dituzte, «sarale-gurdikada bat kabitzeo adinakoak», baldin eta norbaitek haraino eraman balezake; Estigiaren sorburua da, zalantzarik gabe, paraje hauetatik Infernuko Eskualdeetara iristeko sarbidea. Beste batzuek, herritik etorririk, aldean ekarri dituzte berrogeita hamasei librako altzairu-pisu bat eta hazbeteko sokaz beteriko gurdi bat, eta hargatik ez dute lortu hondorik aurkitzea, zeren, pisua lasai hondoraturik zetzan bitartean, gizonek segitzen baitzuten soka botatzen-botatzen, beren liluratzeko gaitasun zinez amaigabeari tankera hartzeko ahale-ginean. Baina nire irakurleei ziur baieztatu diezaieket Waldenek baduela hondo bat, zentzuzko tinkotasunarekin eta sakonera ez guztiz zentzugabe batean, nahiz eta ezohikoa den, hori bai. Neronek erraz zundatu nuen lakua, pita-hari batekin eta libra eta erdi inguru pisatzen zuen harri batekin; zehatz-mehatz nabaritu nuen noiz altxatu zen harria hondotik, askoz indar handiagoz tira egin behar izan bainion ura azpitik sartu zitzaion arte; askoz samurragoa izan zen hortik aurrera. Hondorik sakonenak ehun eta bi oin zituen doi-doi, eta horri erants geniezazkioke beste bost oin —nire neurketaren garaitik hazi den distantzia—: guztira, beraz, ehun eta zazpi. Sakonera guztiz deigarria da halako eremu txiki batentzat, baina irudimenak zukua atera behar dio azken hazbeteari ere. Zer gertatuko litzateke baldin eta guztiz azalekoak balira laku guztiak? Ez al luke eraginik izango horrek

gizonen gogoan? Eskerturik sentitzen naiz laku hau sinbolo bat bezain sakona eta purua delako. Gizonek infinituan sinesten duten bitartean, zenbait laku hondogabeak direla pentsatuko da.

Lantegi baten jabeak, nik zundatutako neurriaren berri izan ostean, pentsatu zuen hura ezin zela egia izan, zeren, presei dagokionez zuen ezagutzan oinarriturik, ezin baitzen harearik egon malda piko batean. Baina, jendeak uste duenaren kontrara, urmaelik sakonenak ez dira hain sakonak beren azalerarekiko proportzioan, eta, drainatuz gero, ez litzateke bailara nabarmenik azaleratuko. Ez dira, ez, muino arteko katiluak; Walden bera, hain sakona dena bere azalerarekin alderatuz, ez litzateke plater zapal bat baino askoz sakonagoa izango, baldin eta ebaki bertikal bat egingo bagenu haren erdian. Urmael gehienak, lehortu ostean, zelai bihurtzen dira, barra-barra ikusi ohi ditugunen modukoak. William Gilpinen, zeina zeharo miresgarriki mintzatzen baita paisaiei dagokion guztiari buruz, eta normalean zuzen ibiltzen baita gainera, hala dio Eskoziako Loch Fyne lakuaren mutur batean zutik dagoelarik —bere deskribapenaren arabera, «ur gaziko badia bat da, hirurogei edo hirurogeita hamar besaldiko sakonera duena, lau miliako zabalera», eta berrogeita hamar miliako luzera gutxi gorabehera, mendiz inguratua osoki—: «Dilubioa gertatu eta berehala ikusi bagenu, edo sorrera eman zion dena delako dardarizo naturalaren ondo-ondotik, urak isuri aurretik alegia, zer-nolako osin izugarria emango zukeen!

«Muino hanpatuak altxatzen diren bezain garai, hondoratzen da hutsune zabal eta sakon bat, uren ohe nasaia».<sup>321</sup>

Alabaina, Loch Fyneren diamentrorik laburrena oinarritzat hartuta, proportzio horiexek aplikatzen badizkiogu Waldeni —zeinak, ikusi dugun bezala, plater zapal baten adinako sakonera erakusten baitu ebaki bertikal bat eginez gero—, egiaztatuko dugu gure urmaelak sakonera lau aldiz txikiagoa duela. Horretan utziko ditugu, beraz, Loch Fyneren hustuketak ekarriko lukeen osinaren izugarritasun *areagotuari* buruzkoak. Ez dago zalantzarik bailara irribarretsuek ere, beren artasoro zabalekin,

---

321 Gilpinen *Observations on Several Parts of Great Britain* liburuko aipua. Poema-zatia, berriz, Miltonen *Paradisus galduari* dagokio.

berdin-berdin betetzen dituztela «osin izugarriak», zeinetatik erretiratu baita ura, nahiz eta geologoaren zolitasuna eta aurreikuspena behar izango diren inguruetakoz biztanle axolagabeei buruan sar dakien egitate hori. Begi jakingura batek zerumugako behe-muinoetan identifikatu ditzake laku primitibo baten ertzak, beharrezkoa izan gabe lurraldea goratu izana haren historia ezkutatzeko. Errazena, ordea, zaparrada baten ostean eratzten diren putzuei jarraitzea da, errepide honetan dihardutenek ondotoxoa dakiten bezala. Laburbilduz, irudimenari baimena emanez gero, sakonago murgiltzen da eta gorago hegaldatzen da Natura bera baino. Horrenbestez, noizbait deskubrituko dugu ozeanoaren sakonera ez dela hain txundigarria bere hedadura-rekin alderatuta.

Izozte-garaian egin baintuen zundaketa-lanak, aukera izan nuen hondoaren tankera nolakoa zen egiaztatzeko, zeharo izozten ez den ainguraleku batean jardun izan banintz baino zehaztasun handiagoz, eta harrituta geratu nintzen hondoaren erregulartasun orokorrarekin. Zatiarik sakonenean badira zenbait akre, eguzkiaren, haizearen eta goldearen eragina jasaten duen ia edozein larre baino lauagoak. Neurketa batean, ausaz hautaturiko lerro batean, sakonera antzeko samarra neurtu nuen hogeita hamar kanako distantzian —oin bateko aldea zegoen asko jota—; eta, erdigunetik hasita, gauza izaten nintzen, oro har behintzat, edozein norabidetan eta ehun oineko distantzian sakonera zenbat aldatuko zen aurreikusteko, hiruzpalau hazbeteko marjinarekin. Zulo sakon eta arriskutsuez mintzo izaten dira batzuk, baita laku hareatsu eta bareez ari direnean ere —Waldeni buruz, esaterako—, baina halako baldintzetan hondoa berdintzeko joera izaten du urak. Hondoaren erregulartasuna, ertzarekiko egokitzapena eta inguruko muinoen lerroa hain ziren perfektuak, non, lakuan barna neurketak egin ahala, urruneko tontor baten existentzia azaleratzen baitzen, eta erraza zen zer norabidetan zegoen zehaztea kontrako ur-ertzari begiratu. Lurmuturra hondar-banku eta barra bihurtzen da; bailara eta arroila, berriz, ur sakon eta kanal.

Lakuaren mapa amaiturik —hamar kana bakoitzeko hazbeteko eskalan— eta zundaketen emaitzak idatzirik —ehun baino gehiago ziren—, ohartu nintzen kasualitate nabarmen hartaz. Jabetu bainintzen sakonerarik handiena adierazten

zuen zenbakia maparen erdialdean zegoela, erregela bat jarri nuen maparen gainean, luzeran lehenik eta zabalera ondo-  
ren, eta deskubritu nuen, nire harridurarako, lakuaren luzera  
maximoaren lerroa eta zabalera maximoaren lerroa sakonera-  
rik handieneko puntuan gurutzatzen zirela *zehatz-mehatz*, nahiz  
eta hondoaren erdigunea ia guztiz laua izan, lakuaren ingerada  
batere irregularra izan ez eta luzera zein zabalera maximoa kale-  
tan neurtuz lortu; hala, bada, neure buruari esan nion: «Auskalo  
arrasto honek ez ote gaituen eramango ozeanoaren punturik sa-  
konena identifikatzera, lakuen eta putzuen kasuan bezala! Arau  
hau ez ote da baliozkoa izango baita mendien garaierari dago-  
kionez ere, bailaren kontrakoa direla aintzat hartzen badugu?». Badakigu muinoaren punturik garaiena ez datorrela bat haren  
punturik estuenarekin.

Bost kalen artean, hiru zundatu nituen, eta ohartu nin-  
tzen bazela han barra bat, kalen ahoak zeharkatzen zituena eta  
sakonagoa bilakatzen zena haietan barneratu ahala; badiak,  
beraz, ur-hedadura bat osatzera jotzen zuen lurraren gainean,  
baina ez soilik horizontalean, baita bertikalean ere, eta arro edo  
laku independente bat eratzeko joera izaten zuen halaber, bi  
lurmuturren norabideak erakusten zuelarik barraren joera. Itsa-  
sertzeko ainguraleku ororen sarreran dago hondar-banku bat.  
Kalaren ahoa zabalagoa zenez, proportzioan, kalaren luzera bai-  
no, hondar-bankuaren gaineko ura sakonagoa zen arrokoarekin  
konparatuta. Erreparatuz gero kalaren luzerari eta zabalera-  
ri, eta inguratzen duen ertzaren ezaugarriei, hortxe izango dituzu kasu  
guztietarako balio duen formula orokor bat asmatzeko behar di-  
ren elementu guztiak.

Egiaztatu nahi nuen ea, oinarritzat hartuz nire aurreko es-  
perientzia eta aintzat hartuz soilik lakuaren azaleraren ingerada  
eta ertzaren ezaugarriak, zenbateko zehaztasunarekin asma ne-  
zakeen lakuaren punturik sakonenaren kokapena; horretarako,  
White lakuaren mapa bat egin nuen: laku horrek berrogeita bat  
akreko edukiera du gutxi gorabehera, ez dago irlarik, eta ez du  
ibaiadar ez hustubide agerikorik —Walden bezalakoxea da azken  
bi alderdi horiei dagokionez—; zabalera maximoko eta minimo-  
ko lerroak oso hurbil zeudenez, elkarren aurkako bi lurmutur  
elkarregana gerturatu eta elkarren aurkako bi badia atzeratzen  
ziren gunean ausartu nintzen, hain zuzen ere, punturik sakone-

na markatzera, azken lerro horretan, betiere luzera maximoko lerroan mantenduz. Punturik sakonera neronek esandako tokitik ehun oinera zegoen, neronek esandako norabidean are urrunago joanda, eta neronek esandako puntua baino oin bat sakonagoa baizik ez zen: hirurogei oin, alegia. Jakina, korronte batek zeharkatuko balu lakua, edo uharte bat balego bertan, pus-kaz korapilatsua goa izango litzateke arazoa.

Naturaren lege guztiak ezagutuko bagenitu, aski izango genuke egitate bakar bat, edo fenomeno bakar baten deskribapena, haien ondoriozko emaitza guztiak ateratzeko. Orain, ordea, lege gutxi batzuk baizik ez ditugu ezagutzen, eta gure emaitzak usteldurik daude, ez, noski, Naturari dagokion ezein nahaste edo irregulartasunengatik, ezpada geronek ez ditugulako ezagutzen kalkuluaren elementu funtsezkoak. Atzemateko gai garen adibideetara mugaturik daude legeari eta harmoniari buruz darabiltzagun kontzeptuak, baina askoz miragarriagoa da itxuraz elkarren kontra egon arren egiaz bat etortzen diren legeetatik sortzen den harmonia. Gure ikuspuntuen modukoak dira lege partikularrak: bidaiariaren ikuspegitik, mendiaren ingerada aldatu egiten da pauso bakoitzean, ingerada-kopuru mugagabea du mendiak harentzat, baina egiaz forma bakar bat dauka termino absolututan. Mendia arraildu arren, mendia zulatu arren, ezin dugu ulertu haren osotasunean.

Lakuari buruz deskubritu dudana neurri berean dagokio etikari. Batezbestekoaren legea da. Gure sistemaren zentrorra eta gizonaren bihotzera gidatzen gaitu bi diametroen legeak, baina ez hori bakarrik: lerroak marraztuko bagenitu, luzeran zein zabalera, gizon baten eguneroko portaeren eta haren bizitzako kala nahiz ibaiadarretara iristen diren olatuen gainean, bi lerroak gurutzatzen diren tokian aurkituko genuke gizon horren aiurriaren garaiera edo sakonera. Akaso nahikoa da haren ertzen joera, haren inguruko lurraldea edo baldintzak ezagutzea, haren sakonera eta hondo ezkutua nolakoa den ondorioztatzeko. Ingurutzen badute egoera menditsuek eta ur-ertz akilear batek, zeinen tontorrek beren bularra ilunarazten baitute eta hartan islatzen baitira, gizonak pareko sakontasuna izango duela iradokitzen digu horrek. Aldiz, ertz baxua eta leuna badu, azalekoa dela jakingo dugu. Gure gorputzez bezainbatean, kanporantz ausart ateratzen den bekokiak adierazten du neurri berean dela

sakona pertsona horren pentsamendua. Halaber, hondar-banku batek zeharkatzen du gure kala edo inklinazio bakoitzaren ahoa; horietako bakoitza gure badia izaten da sasoi batean, hantxe geratzen gara geldirik eta, hein batean, hondarturik. Inklinazio horiek ez dira izaten apeta hutsaren mendekoak, aitzitik, ertzeko tontorren —goraldiaren ardatz antzinakoen— arabera zehazten da haien tankera, tamaina eta norabidea. Hondar-bankua arian-arian hazten bada ekaitzen, itsasaldien edo korronteen eraginez, edo uraren maila jaitsi eta agerian geratu delako ia, hasieran ertzaren inklinaziotzat jotako hori, pentsamendu bat gordezten zuena, laku indibiduala bilakatuko da, ozeanotik banatua, zeinean eskuratuko baititu pentsamenduak baldintza berriak, bere-bereak; laku hori, beharbada, aldatu egingo da, gazitik gezara; itsaso gozo bihurtuko da, edo itsaso mortu, edo zingira. Gizabanako bakoitza bizitza honetara iristen delarik, ez al genuke pentsatu behar hondar-banku bat altxatu dela munduko lekuren batean ur-azalera? Egia da ezen, hain nabigatzaile eskasak izanik, gure pentsamenduak, gehien-gehienetan, alderrai ibiltzen direla ainguralekurik gabeko kostetan, eta poesiaren badietako leizeekin baizik ez direla mintzatzen, edo sarbide-portu publikoetara jotzen dutela bestela, eta zientziaren dike lehorrean geratzen direla, zeinetan berregokitzen baitituzte mundu honekin bat egin ahal izateko berriro, eta ez da korronte naturalik sortzen haiek berriro indibidualizatzeko.

Waldenen ibaiadarrari edo hustubideari dagokionez, ez dut deskubritu halakorik, ez baldin bada euria, elurra eta lurruntzea; baina, beharbada, termometro bat eta soka bat aldean hartuta, topatuko nituzkeen, zeren, ziur aski, ura lakurantz jariatzen den lekua izango baita hotzeta udan eta epelena udan. Izotz-moztaileak hemen jardun zirenean 1846-47ko neguan, egun batean gertatu zen ertzera bidalitako izotz-geruzak errefusatu zituztela haiek pilatzen zebiltzan morroiek, ez zirelako gainerako puskak bezain lodiak; hala, moztailleek deskubritu zuten toki jakin bateko izotza bizpahiru hazbete meheagoa zela beste leku batzuetakoa baino, eta pentsatu zuten, ondorioz, han ibaiadar bat zegoela. Beste toki bat erakutsi zidaten halaber, zeinaz pentsatzen baitzuten «iragazki» bat zela, eta lakuko ura isurtzen zela muino baten azpitik han ondoko zelai batera, eta izotz-geruza bat kendu zuten neronek ikus nezan neure begie-



kin. Barrunbe txiki bat zen, hamar oin uren azpian, baina berma dezaket lakuak ez duela soldaketa-lanik behar izango, non eta ez duten hori baino itogin okerragorik aurkitzen bertan. Batek iradoki du, halako «iragazki» bat aurkituz gero, zelaiarekin loturarik ba ote duen froga litekeela —baldin eta loturarik balego—, koloretako hautsen bat edo zerrautsa ipiniz zuloaren ahoan, eta galbahe bat zelaiaren iturburuan, korronteak ekarritako partikulak harrapatzeko.

Neurketa-lanetan ari nintzen bitartean, izotzak, hama-sei hazbete lodi, uhinak egiten zituen, urak nola, haize finaren pean. Gauza jakina da ezin dela nibelik erabili izotzaren gainean. Lehorrean nibel bat ipini eta izotz gainean zetzan makil graduatu batera bideratuz, ikusi nuen fluktuaziorik handienak hiru hazbete-laurden neurtzen zituela ertzetik kana batera, nahiz eta, itxuraz behintzat, izotza tinko loturik zegokion lurrari. Ziur aski fluktuazioa nabarmenagoa izango zen erdigunean. Gure tresnak nahiko delikatuak balira, auskalo, lurraren azalean ere atzemango genuke uhinen bat! Nire nibelaren bizango ertzean jarririk, hirugarrena, berriz, izotzean, eta azken horretara bideraturik tresnaren mira, izotzaren igoera edo jaitsiera den mendrenak ere hainbat oineko desberdintasuna eragiten zuen lakuaren beste aldeko zuhaitz bati zegokionez. Hasi nintzelarik izotzean zuloak egiten zundaketarako, hiruzpalau hazbete ur topatu nituen izotzaren gainean, horraino eramana elur-geruza lodi baten poderioz, baina, berehala, zuloetarantz lerratu zen ura, eta jariatzen-jariatzen segitu zuen bi egunez; erreka sakonak sortu zituen, izotza higatzen zutenak alde guztietatik, eta faktore funtsezkoa izan zen, ez bada faktore nagusia, lakuaren gainazala lehor zedin, zeren, ura iragazi ahala, izotza altxatu egiten baitzen eta flotatu egiten baitzuen. Honelako zerbait izan zen: itsasontzi baten ipurdian zulo bat egitea, ura atera dadin. Zuloak izoztu, ondoren euria egin, eta izotz berri eta leunak finkatzen direlarik azkenean, irudi ilun eder-ederrak agertzen dira izotz-geruzan han-hemenka, armiarma-sare baten itxurakoak, izotz-erroseta dei geniezaiekeenak, alde guztietatik zentrorantz isurtzen den urak irekitako kanalek eragindakoak. Bestalde, aldi batzuetan, putzu mehez estalirik ageri zenean izotza, neronen itzala

ikusten nuen bikoiztuta, itzal bat bestearen buruaren gainean: izotzean lehena, zuhaitzetan edo muinoaren maldan bigarrena.

• • •

Urtarril hotza da oraindik, lodiak eta trinkoak dira izotza zein elurra, eta halere ostalari zuhurra etorri da herritik, udako edariak freskatzeko izotz bila; hunkigarriki, are patetikoki jakintsua da uztaileko sargoria eta egarria aurreikustea urtarrilean gaudelarik, jaka potoloa eta eskularruak ditugularik soinean!, nahiz eta beste gauza askori ez zaien jaramonik egiten. Baina ez dut uste gizon hori neurri berean arduratuko denik altxorrak pilatzeaz mundu honetan, hurrengo munduko edariak freska diezazkieten. Moztu eta zerratu du laku hormatua, kendu dio teilatua arrainen etxeari, eta eramán du gurditan pilatua haien elementua eta airea bere neguko sotoetara, irmoki loturik kateekin eta makilekin, egur-mordo bat balitz bezala, neguko haizea alde duela, han lurperatzera udara. Urdina dirudi, solido egina, kaleetan barna daramatelarik han urrunean. Izotz-moztaileak arraza alaiak dira, beti dabilta txantxetan eta jolasean, eta haien artean egoten nintzenez haien modura zerratzeko gonbidapena luzatzen zidaten, nik geratu behar nuelarik azpian.

1846-47ko neguan hara non etorri ziren erauzketa hiperboreoko<sup>322</sup> ehunka gizon, jaitsi ziren gure lakura goiz batean, aldean zekartzatela gurdi mordo bat, trauskil-itxurako erremin-taz beteak —besteak beste, nekazaritza-tresnak, lerak, goldeak, zulatzeo makinak, zohikatzetarako aizkorak, palak, zerrak eta arrasteluak—, eta gizon bakoitzak bi ahoko pika bat zeukan eskuan, ez *New England Farmeren* ez *Cultivatorenen*<sup>323</sup> sekula ikusi ez diren tankerakoak. Ez nekien zer landatzeko asmoz etorriak ziren: neguko zekalea edo berriki Islandiatik ekarritako beste zerealen bat. Ez bainuen ongarririk ikusi, ondorioztatu nuen lurra aratu nahi zutela, neronek egin nuen bezalaxe, pentsatuz zorua sakona zela eta bazela garaia haren lugorri-aldia amaitzeko. Esan zidaten nekazari jaun batek,<sup>324</sup> atzealdetik sokei eragiten

---

322 Greziar mitologian, ipar-haizetik haraindi bizi zen arraza; oso hotza esan nahi du, halaber.

323 Nekazaritzari buruzko aldizkariak. Ikus 79. oharra.

324 Frederic Tudor (1783-1864) AEBko enpresaria, «izotzaren erregea» izena jaso zuen. 1847ko neguan, egunean 1.000 tona izotz ateratzen zen lakutik, gutxi gorabehera.

zienak, bikoiztu nahi zuela bere aberastasuna —ulertu nuenaren arabera, milioi erdi baten jabea zen jada—, baina bere dolar bakoitza beste dolar batekin estaltzeko, Walden lakuaren jaka bakarra erauzi zuen, Walden lakuaren azala bera, negu latza-  
ren bihotzean. Ekin zioten lanari, ordena miragarrian goldatuz, aratuz, arrabola pasaz eta ildoak irekiz, ereduako etxalde bat sortzeari buru-belarri emanda baleude bezala, baina erne-erne erreparatu nielarik, ildoetan zer hazi-suerte landatzen zuten ikusteko ahaleginean, morroi batzuk, nigandik hurbil, lizun birjina bera erauzten hasi ziren halako batzuei era bitxian tira eginez, harik eta harea agertzen zen arte, edo, hobeto esanda, ura agertzen zen arte —akuiferoz beterik baitzegoen zoru hura, han inguruko *terra firma*<sup>325</sup> bakarra—; leratan garraiatu zuten gero, eta hala asmatu nuen zingirako zohikatza mozten ari zirela egiaz. Egunero-egunero, tren-makinaren txilio berezi batekin, eskualde polarretako punturen batetik etorri eta hara itzultzen ziren berriro, hala iruditzen zitzaidan niri bederen, elurretako txori artikoen saldo bat balira bezala. Batzuetan, ordea, mendeku hartzen zuen Squaw<sup>326</sup> Waldenek, eta manupeko langile bat, uztarriaren atzetik zihoalarik, arrail batean behera amiltzen zen Tartarorengana,<sup>327</sup> eta gizon baten bederatzirena bilakatzen zen bat-batean lehen hain adoretsua izandako hura, bere barneko animalia-berotasuna ahitzen zitzaion ia, eta pozarren babesten zen nire etxean, aitortuz labeak ere bazuela bertuterik; beste batzuetan, aldiz, goldearen hortz altzairuzko bat erauzten zuen zoru izoztuak edo goldea bera katigatzen zen ildoan, eta moztu beharra izaten zen.

Argi eta garbi esatearren, ehun irlandar, ikuskatzaile yan-  
kien agindutara, Cambridgetik etortzen ziren egunero izotza eramatera. Zatikaten zuten izotz-geruza —beren metodoak hain dira ezagunak, ez baitago deskribatzeko premiarik—, garraia-  
tzen zituzten puskak laku-bazterrera leren bitartez, azkar-azkar tiratzen zituzten izotzezko plataforma bateraino, eta altxatzen zituzten altzairuzko kako, polea eta aparailuen sistema batekin, zaldien indarra baliatuz betiere, eta hala osatzen zuten pila tinko

---

325 Latinez, lur sendoa.

326 Irain-hitz etniko eta sexuala. Historikoki, Ipar Amerikako emakume indigenak izendatzeko erabili izan da.

327 Greziar mitologian, azpi-munduko lekurik behearena.

bat, irin-upelen antzekoa, izotz-zati bat bestearen ondoan jarritz maila berean, lerroz lerro, hodeiak zula litzakeen obelisko baten oinarri sendoa osatu nahi balute bezala. Esan zidaten egun on batean mila tona eskura zitzaizkela: akre baten emaria, gutxi gorabehera. Ildo sakonak eta «sehaska-zuloak» sortzen ziren izotzean nahiz *terra firman* lerak beti bide beretik pasatzearen poderioz, eta zaldiek izotz-puska hustuetatik jaten zuten oloa, askatik nola. Horrenbestez, aire zabalean metatzen zituzten puskak; izotz-pila hark neurtuko zituen hogeita hamabost oin luze alde batean eta sei edo zazpi kana karratu guztira; kanpo-geruzen artean saralea jartzen zuten, airerik pasa ez zedin, zeren, haizeak, gutziz hotza ez izanagatik, pasabideren bat aurkitzen badu, barrunbe zabalak sortuko baititu, euskarri edo trabes bakan batzuk utzi, eta behera botako baitu egitura osoa azkenean. Hasieran gotorleku urdin tinko bat zirudien, Valhalla bat, baina morroiak hasi zirelarik zelaietako sarale lakarra sartzen zirrikituetan, eta antzizarrez zein izotz-burruntziz estalirik geratu zenean, gehiago ematen zuen hondakin zahar goroldiotsu ohoragarri bat, urdinez tindaturiko marmolean eraikia, Neguaren bizilekua; almanakan ikusi ohi dugun agure zahar hori, haren etxola, uda gurekin pasatzeko guraria balu bezala. Langileen estimazioen arabera, izotzaren ehuneko hogeita bost ez zen iritsiko bere helmugara, eta gurdietan galduko zen ehuneko bitik hirura bitarte. Alabaina, metaren zati handiago batek bestelako bide bat hartu zuen, aurreikusi zioten patuaz bestelakoa, ez baitzen inoiz iritsi merkatura, espero baino egoera txarragoan egon eta ohi baino aire gehiago gordetzen zuelako barnean edo beste arrazoiren bat zela medio. Izotz-meta hura, 1846-47ko neguan sortua eta hamar mila tonakoa estimazioen arabera, saralez eta oholez estali zuten azkenean, eta hurrengo uztailean desestali bazuten ere, eta haren puska bat eramán, eguzkiaren pean geratu zen gainerako guztia; udari eta neguari eutsi zion, eta ez zen gutziz urtu 1848ko irailera arte. Hala, metaren zatirik handiena berreskuratu zuen lakuak.

Waldeneko izotzak, bertako urak bezalaxe, badu, gertutik erreparatuz gero, halako kutsu berde bat; urrunetik begiratuta, ordeá, urdina eta ederra dá, eta erraz bereiz daiteke errekkako izotz zuritik edo milia-laurden batera dauden beste laku batzuetako izotz berdexkatik. Batzuetan, izotz-puska handi bat, izotz-moz-

tailearen gurditik irrist eginda, kalera erortzen da, eta hortxe geratzen da astebetetz, esmeralda bikain baten antzera, handik pasatzen diren guztien intereseko. Ohartua nago Waldeneko puskek, egoera likidoan berdeak iruditu arren, urdinak ematen dutela izoztean, ikuspuntu beretik begiratuta ere. Horrenbestez, laku honetako sakonuneak ur berdexka batekin —lakuko uraren antzekoa— betetzen dira neguan zenbaitetan; biharamunean, ordea, izotz urdina bilakatzen dira. Uraren zein izotzaren itxura urdina, beharbada, haien barruan gordetako uraren eta izotzaren ondorioa da, eta puskarik gardenena da puskarik urdina. Behaketarako gai interesgarria da izotza. Esan didate halako jela-puska batzuk gorde zituztela Fresh lakuko elur-zuloetan duela bost urte, eta hasieran bezain ederki mantentzen direla. Zergatik usteltzen da kubo bete ur berehala, eta izotza, berriz, gozo-gozo mantentzen da betiko? Diotenez, horixe bera omen da afektuen eta adimenaren artean dagoen aldea.

Beraz, hamasei egunez, hantxe ikusi nituen nire leihoaren beste aldean ehun gizon jo eta su lanean, nekazari lanpetuen antzera, uztarriz, zaldiz eta nekazaritzarako behar diren erreminta guztiez zamaturik, almanakaren lehen orrialdean ikusi ohi dugun irudiaren pareko zerbait, alegia, eta kanpora so egiten nuen aldiro gogora etortzen zitzaidan hegatzabalaren eta segalariaren fabula, edo ereilearen parabola, eta antzeko beste batzuk; orain, ordea, joanak dira morroi guztiak, eta hogeita hamar egun barru, leiho beretik begiratuta Waldeneko ur purua, itsasoaren kolorearen jabe, ikusiko dut ziur aski; islatuko ditu hodeiak eta zuhaitzak, lurrunduko da bakardadean, eta ez da arrastorik geratuko adierazten duenik han gizonak zutitu direla inoiz. Aliota bakarti baten barrea adituko dut agian, uretan barneratzen eta lumak mudatzen ari delarik, edo, osterantzean, arrantzale bat ikusiko dut, bakar-bakarrik bere txalupan, hosto flotatzaile baten antzera, bere islari so egiten diolarik olatuetan, oraintsu ehun gizonen buru-belarri lan egiten zuten tokian.

Eta hala, badirudi nire putzutik edaten dutela Charles-toneko zein New Orleanseko herritar izerdituek, Madraseko, Bonbaiko eta Kalkutako<sup>328</sup> biztanle sargarituek. Goizetan, *Bhagvat-Gitaren* filosofia miragarri eta kosmogonalean urperatzen

---

328 Indiako hiru hiri nagusi. Haietara bidaltzen zen Ingalaterra Berriko izotza.

dut adimena; idatzi hori sortuz geroztik jainkoen urteak igaro dira,<sup>329</sup> eta, harekin alderatuta, zirto eta azalkeria hutsa dirudite gure mundu modernoak eta bere literaturak; are, zalantza egiten dut filosofia hori ez ote dagokion existentziaren egoera aurretiko bati, hain dago-eta urruti gure ulerkera garaikidetik haren izaera sublimea. Liburua utzirik, putzura joan naiz ur bila, eta hara non topo egin dudan brahmanaren zerbitzariarekin; Brahmanen, Visnuren eta Indraren<sup>330</sup> apaiza da brahmana, bere tenpluan jersartzen da Gangesen ertzean, Vedak irakurriz, edo zuhaitz baten oinean egoten da bestela, ogi-mutur bat eta ur-pitxerra alboan. Haren zerbitzariarekin topo egin dut, bada, bere nagusiarri eramateko ur bila etorri baita, eta gure kuboek talka egiten dute, nolabait esatearren, putzu berean. Gangeseko ur sakratuarekin nahastu da Waldeneko ur purua. Haizea alde dutelarik, Atlasen uhartea<sup>331</sup> eta Hesperideak<sup>332</sup> izandako lekutik igaro dira, Hannonen bidaldiari segika, eta Ternate, Tidore eta Persiako Golkoaren ahoak atzean utzita,<sup>333</sup> indiar itsasoetako haize tropikalekin bat egin dute, harik eta, azkenean, lur hartu duten arte Alexandrok<sup>334</sup> baizik ezagutzen ez dituen portuetan.

---

329 Denboraren ziklo hinduan, jainkoaren urte bat gizakien hirurehun eta hirurogei urteren parekoa da.

330 Hinduismoko hiru jainko nagusi.

331 Greziar mitologian, kondairazko uharte edo kontinente bat; Platonek aipatu zuen lehenbiziko aldiz K. a. 360. urtean.

332 Greziar mitologian, bedekatuaren paradisu-uharteak, mendebalde urrunean kokatuak.

333 Hannon esploratzaile kartagotarraren bidaldiari dagozkion puntuak. Indonesiako uharteak dira bai Ternate eta bai Tidore.

334 Alexandro Handia (K. a. 356 - K. a. 323).

# HAMAZAZPI

## UDABERRIA

Izotz-moztaileek zulo handiak egitearen ondorioz, lakuak lehenago urtu ohi dira, urak izotza higitzen baitu haizearen akuilu pean, eguraldia hotza izan arren. Urte hartan, ordea, ez zen halakorik gertatu Waldenen, lakuak jantzi lodi berri bat eskuratu baitzuen, laster asko, beroki zaharraren orde. Laku hau ez da inoiz hausten bere inguruko lakuak bezain goiz, bi arrazoi-rengatik: haiek baino sakonagoa delako eta bertan ez dagoelako korronterik —hala balitz, izotza hautsi eta higituko litzateke—. Ez dut sekula ikusi lakua arrakalaturik negua amaitu baino lehen, ezta 1852-53ko negu hartan ere, zeina erronka latza izan baitzen lakuentzat. Apirileko lehen astearen bueltan arrakalatu ohi da Walden, Flinten lakua eta Fair Haven baino astebete edo hamar egun lehenago; lakuaren iparraldea eta izotzaldia hasi zen leku azalekoak urtzen dira lehenik. Hemen inguruko beste edozein ur-masak baino hobeto adierazten du Waldenek urtaroaren garapena, tenperatura-aldaketa igarokorrek ez baitiote eragiten kasik. Martxoan eguraldi hotz-hotza egiten badu zenbait egunez, litekeena da beste lakuak beranduago haustea horren ondorioz; Waldeneko tenperaturak, ordea, gorantz segitzen du ia etenik gabe. 1847ko martxoaren 6an, Waldenen erdian ipinitako termometro batek 32 gradu fahrenheit erakutsi zituen, izozteko puntua alegia; ur-ertzetik hurbil, berriz, 33 gradu eman zituen; egun berean, Flinten lakuaren erdigunean 32 ½ graduko tenperatura zegoen, eta bazterretik dozena bat kanara, ur azalekoetan eta oin bateko lodierako izotz-geruzaren azpian, berriz, 36 gradukoa. Flinten lakuari dagokionez, erdigunearen

eta bazterraren artean dagoen hiru gradu eta erdiko tenperatura-aldeak eta lakuaren puska handi bat erlatiboki azalekoa izateak azaltzen dute zergatik arrakalazten den Walden baino askoz lehenago. Une hartan, eremurik azalekoeneko izotza hainbat hazbete meheagoa zen erdiguneko izotza baino. Negu betean, erdigunea zen lekurik epelena, eta han zegoen izotzik finena. Lakuaren bazterretan barna ibili den orok hauteman dezakeen bezala, ura nabarmen beroagoa da ertzean, hiruzpalau hazbeteko sakonera duen lekuan, zertxobait urrunago baino; eta sakonerari dagokionez, ostera, ur-azala beroagoa da hondoa baino. Udaberrian, airearen eta lurraren tenperatura igoarazten du eguzkiak, baina, ez hori bakarrik; haren epeltasunak, gainera, oin bat edo lodiagoa den izotz-geruza zeharkatzen du eta hondotik islatzen da sakonera gutxiko uretan; ondorioz, ura berotu, eta izotzaren azpialdea desegiten du, goiko aldea ere urtzen duen aldi berean; halatan, irregulartasunak sortzen dira izotzean, eta haren barruko aire-burbuilak gorantz zein beherantz hedatzen dira, abaraska baten itxura hartu arte; azkenean, bat-batean desagertzen da izotza, udaberriko euri-zaparrada batekin. Izotzak baditu bere izurrak, egurrak bezala, beraz, izotz-puska bat useltzen edo zulatzen hasten denean, hots, abaraska baten traza hartzen duenean, berdin du zer posiziotan dagoen, aire-zelulek angelu zuzenak osatuko dituzte ur-azalarekiko. Arroka bat edo enbor bat baldin badago ur-azalean flotatzen, haren gaineko izotza askoz meheagoa izango da eta sarritan urtu ere urtuko da berotasun islatuaren eraginez; bestalde, azaldu didate esperimentu bat egin zutela Cambridgen, egurrezko edukiontzi txiki bateko ura izoztu nahian; bada, azpitik aire hotza pasatzen zen arren, eta, beraz, bi aldeetatik sar zitekeen arren, eguzkiaren islak abantaila hori ezereztu zuen. Neguaren erdiko zaparrada epel batek Waldeneko elur-izotza urtzen duenean, eta izotz gogorra uzten duenean lakuaren erdian —izotz iluna zein gardena— izotz zurizko zerranda ustel baina lodiago bat bistaratuko da ur-ertzean, kana batekoa edo are zabalagoa, epeltasun islatuak eragindakoa. Halaber, esan dudan moduan, izotzaren barruko burbuilek, kristal gorien funtzioa betetzen dutelarik, azpiko izotza desegingo dute.

Urte osoko fenomenoak egunero gertatzen dira laku batean, eskala txikiagoan noski. Modu orokorrean mintzatuz,



goizero-goizero, ur sakona baino azkarrago berotzen da ur ez oso sakona, nahiz eta, azken finean, ez den askorik berotuko, eta iluntze bakoitzean lasterrago hozten da, goiza iritsi arte. Urtearen laburpena da eguna. Gaua, esaterako, negua da; goiza eta arratsaldea, berriz, udaberria eta udazkena hurrenez hurren, eta eguerdia, azkenik, uda da. Izotzaren krakatekoek eta eztan-  
dek temperatura aldatu dela adierazten dute. Gau hotz baten osteko goiz atsegin batez, 1850eko otsailaren 24an hain zuzen, Flinten lakura joana nintzelarik egun-pasa, harriturik ohartu nintzen, izotzari jo nionean nire aizkoraren buruarekin, gong-soinu bat sortu, eta hainbat kanako distantziara zabaldu zela, danbor-azal tenkatu bati eman banio bezala. Eguzkia altxatu zenetik ordubetera gutxi-asko hasi zen lakua eztanda egiten, hots, eguzki-izpien eragina nabaritu zuenean bere gainean irristatzen zirelarik mui-noetatik; iratzartzen den gizonaren antzera luzatzen zen eta ahoa zabaltzen zuen, gero eta zalaparta handiagoa sortuz; hiruzpalau ordu iraun zituen prozesuak. Eguerdian lo-kuluxka txiki bat egin eta berriro lehertu zen ilunabarrean, eguzkiaren eragina apaldu ahala. Eguraldia egonkorra denean, lakuak ilunabarreko bere salba jaurtitzen du erregulartasun handiz. Egunaren erdian, ordea, arrakalaz beterik zegoenez, eta airea ez zenez hain elastikoa inondik ere, zeharo galdua zuen bere oihartzuna, eta une horretan izotz-eztanda batek ez zituzkeen arrainak edo arratoi musketadunak harrituko ziur aski. Arrantzaleen arabera, «lakuaren trumoiak» arrainak ikaritzen dituzte eta amuei kosk egitea eragozten diete. Lakuan ez da trumoirik izaten iluntzero, eta ez dakit zehazki esaten noiz izango diren eta noiz ez, baina, nahiz eta neronek ez dudan alde nabarmenik sumatzen eguraldian, argi dago lakuak bai nabaritzen duela. Nork uste izango zukeen hain sentikorra izango zenik halako gauza handi, hotz eta azal lodiko bat? Halere, legeren bati obedituz durundatzen da, udaberrian kimuak ernatzen diren modu berean. Bizirik dago lurra, papilaz estalirik. Aldaketa atmosferikoen aurrean, termometroko merkurioa bezain sentikorra da lakurik handiena ere.



Udaberriaren etorrera ikusteko astia eta abagunea izatea zen basora etortzearen erakarmenetako bat. Lakuko izotza hasia da, azkenean ere, abaraskaren itxura hartzen, eta nire oinetan-

koaren orpoa hondoratu egiten da haren gaintetik igarotzean. Lanbroak, euriak eta eguzki epelagoek elurra urtu dute arian-arian, nabarmen luzeagoak dira egunak, eta ohartu naiz modua izango dudala negua amaitzeko nire egur-pilari ezer erantsi gabe, jada ez baitago su handirik egiteko premiarik. Erne-erne nagokie udaberriaren lehen seinaleei, aditu nahian txori iritsi berri baten nota ausazkoa edo katagorri ildaskatuaren txioa —haren gordailuek ahitzear behar dute jada—, edo marmota ikusteko bestela, bere neguko kuarteletik ateratzera ausartzen denean lehen aldiz. Martxoaren 13an, urdintxoria, txolarrea eta birigarro txikia entzun ostean, izotzak oin bateko lodiera zuen oraindik. Eguraldia epeldu ahala, ez zuen ematen urak higatu zuenik, ez eta hautsi eta flotatzen joango zenik ere, erreketan gertatu ohi den eran; aitzitik, ertzaren inguruko izotza zeharo urtua zen arren kana-erdiko zabaleran, erdialdea abaraska bihurtuta zegoen soilik, urez bete-beteta, beraz, oinak finka zenitzakeen sei hazbeteko lodieran; hurrengo arratsaldean, ordea, euri-jasa bero bat bota eta ondoren lanbroa ezarri ostean, oso-osorik desagertua zen izotza, behe-lainoarekin batera aienatua. Urte batean, izotza osorik desagertu baino bost egun lehenago zeharkatu nuen lakuaren erdigunea. 1845ean, apirilaren 1ean desizoztu zen osorik Walden; 1846an, berriz, martxoaren 25an; 1847an, apirilaren 8an; 1851n, martxoaren 28an; 1852an, apirilaren 18an; 1853an, martxoaren 23n, eta 1854an, azkenik, apirilaren 7aren bueltan.

Erreken zein lakuen hausturarekin eta eguraldiaren finkatzearekin zerikusia duten gorabehera guztiak biziki interesgarriak dira muturreko beroak eta hotzak izaten diren klimetan bizi garenontzat. Egun beroagoak iristen direnean, errekatik hurbil bizi direnek izotzaren ez tandari dagokion marru txundigarria aditzen dute gauez, artilleria bezain ozena, izotzaren kateak hausten ari balira bezala alderik alde, eta geruza osoa nola desagertzen den ikusten dute egun gutxi batzuen buruan. Hala nola ateratzen den basatzatik kaimana, lurraren dardarizoen eraginez. Gizon zahar batek, zeinak Natura gertutik behatu baitu eta hain jakintsua baita haren operazio guztiei dagokionez non ematen baitu bera mutiko zelarik eraiki zutela Natura eta, are, lehen urrats zalantzatiak egiten lagundu ziola —gizon hori iritsia da bere garapen erabatekora, eta ezingo luke naturari buruzko ja-

kinduria gehiago bildu ezta Matusalem-en<sup>335</sup> adina hartuko balu ere—, gizon horrek, bada, azaldu zidan bere eskopeta eta txalupa hartu zituela udaberriko egun batean, ahate batzuk ehizatzeiko asmoz; esan behar dut harriturik geratu nintzela lilura erakutsi zuelako Naturaren operazio baten aurrean, uste bainuen haien bien artean ez zegoela sekreturik batere. Belazeetan izotza zegoen oraindik, erreketan ez, ordea, eta eragozpenik gabe jaitsi zen Subdburytik —bere bizilekua— Fair Haveneko lakura, zeina izotz-zelai sendo batekin estalia baitzegoen gizonaren harri-durarako. Ahaterik ikusi ez, eta lakuko irlaren iparraldean edo atzealdean ezkutatu zuen bere txalupa; ondoren, hegoaldeko zuhaixken artean ezkutatu zen bera, ahateen zain. Ertzetik hasi eta hiruzpalau kanako distantzian ez zegoen izotzik, ur-geruza epel eta leun bat baizik, hondo lokaztuarekin; ahateek oso maitea dute egoera hori eta gure gizonak pentsatu zuen aurki agertuko zirela. Ordubete inguru igaro zuelarik zain eta geldi, soinu baxu bat aditu zuen, itxuraz oso urrutitik zetorrena, baina bereziki itzela eta zirrargarria halere, gizon hark inoiz entzun ez bezalakoa; hedatuz eta handituz joan zen apurka-apurka, amaiera unibertsal eta gogoangarri batera iritsi behar balu bezala. Orro eta oldar ospel bat zen, eta gizonari iruditu zitzaion lakuan pausatzeraz zetorren hegazti-aldra erraldoi baten soinua zela, eta bere errifleari heldurik, zutitu zen azkar eta irrikaz, baina hara non deskubritu zuen, zur eta lur, bera zain egon bitartean izotz-puska askatu eta ertzerantz abiatu zela, eta berak entzundako soinua, horrenbestez, izotz-puskaren eta ertzaren talkak sortua zela —leunki zartatu eta hautsi zen lehenik, baina azkenerako izotzaren zatiak goratu eta lakuan barna barreiatu ziren, altuera handi samarra hartuz, harik eta geratzen ziren arte—.

Eguzkiaren izpiak angelu zuzenean kokatu dira azkenerako, eta haize beroek, lanbroari eta euriari putz eginez, elur-bankuak urtu dituzte; eguzkiak, berriz, lanbroa saretu eta irribarre egin du intsentsuz keturiko paisaia gorrikara eta zuri batean; bidaiariak bere bidea dagi hartan zehar, uhartez uharte saltoka, milaka errekastoren musikak alaiturik, zeinen zainetan korritzen baitu bukatzera doan neguaren odolak.

---

335 Bibliako pertsonaia, bederatziehun eta hirurogeita bederlatzi urtez bizi izan omen zena (Hasiera 5: 20).

Diren fenomeno guztien artean, gutxi gozarazi didate honek baino gehiago: egunero, trenbidea zeharkatzen nuelarik herrira bidean, hango zulo sakonetan hareak eta buztin beroak sorturiko formei erreparatzea; ez da ohikoa fenomeno hori halako eskala handian ikustea, nahiz eta, trenbidea asmatu zenetik, ziur biderkatu egin dela material egokiz osaturiko mendoitzen agerpena. Materiala, bada, harea zen, fintasun-gradu orotakoa eta kolore aberatsekin; buztin pixka batekin nahastuta egoten zen normalean. Udaberrian antzigarra desagertzen denean, baita neguko egun sargori batean ere, maldetan behera amiltzen da hondarra, laba baillitza; elurrean barna azaleratzen da batzuetan eta inoiz harea ikusi gabeko lekuetara iristen da. Ezin konta ahal erreka txiki gainjartzen eta txirikordatzen dira, eta halako produktu hibrido bat eratzen dute, men egiten diona erdizka korronteen legeari eta erdizka landarediarenari. Jariatu ahala, hosto edo mahatsondo izerdituen itxura hartzen du hondarrak; hosto-mordo mamitsuak osatzen dira, oin bat edo are lodiagoak; begiratzen diezularik, liken-taloen antzekoak dirudite —lazinia-itxurakoak, gingildunak eta inbrikatuak— edo gogora dakarkizute, bestela, korala, leopardoaren atzaparra edo txoriaren hanka; burmuinak, birikak edo hesteak, eta era guztietako gorotzak. Begetazio zinez groteskoa da; brontzean antzeraturik ikusten ditugu formak eta koloreak, hostaila arkitektoniko suerte bat, akantoa, txikoria, huntza, mahats-aparra edo beste edozein hosto begetal baino antzinakoagoa eta ohikoagoa, zeinaren patua baita, zenbait baldintza gertatuz gero, puzzle bilakatzea etorkizuneko geologoentzat. Liluratu ninduen trenbide-zulo oso hark; leize bat zirudien, estalaktitak agerian. Hondar-geruza askotarikoak bereziki aberatsak eta atseginak dira, burdinaren koloreak besarkatzen dituzte-eta: marroia, grisa, horixka eta gorrikara. Masa jariakorra iristen denean mendoitzaren oinako estolda-zulora, zuntz zapalagoetan hedatzen da, erreka beren tankera erdi-zilindrikoa galtzen dute eta zapaltzen eta zabaltzen dira pixkana-pixkana; elkarren ondoan joaten dira heze dauden bitartean, harik eta hondar ia lau bat osatzen duten arte, itzal askotarikoak eta ederrak dituen oraindik, baina begetazioaren forma originalak atzemateko modua ematen duena halere; azkenean, uretara iritsita, *barra* bilakatzen dira,

ibai-ahoetan osatzen dena bezalakoa, eta begetazioaren formak, berriz, galdu egiten dira hondoko ildoetan.

Mendoitza bera, zeinak hogeitaz eta berrogeitaz oin bitarteko garaiera baitu, era horretako hostotza edo hondar-zirrikitu batek estaltzen du batzuetan, milia-laurden batez, alde batean edo bietan: horra hor udaberriko egun baten emaria. Hondarrezko hostotza horren alderdirik gogoangarriena da guztiz bat-batean eratzen dela. Ikusten dudanean mendoitz bizigabea alde batean —eguzkiak alde batean ekiten duelako lehenik—, eta bestean, berriz, hostaila jori hau, ordubetearen sortua, harri eta zur geratzen naiz, mundua eta neroni sortu gaituen Artistaren laborategian banengo bezala, edo iritsi banintz bezala hura lanean dabilen estudioa, mendoitza jorratzen ari delarik buru-belarri, eta bere diseinu berriak tailatzen ari delarik energia gehiegizkoarekin. Begitantzen zait munduaren erraietatik hurbilago nagoela, harearen gainezkatzeko honek animalia berrak barrunbeetako hostotza-masaren antza baitu. Horrenbestez, harean topatzen dugu hosto begetalaren aurrerapena. Ez da harritzekoa lurra hostoen bidez adieraztea bere burua kanporantz, ideia horixe bera lantzen baitu bere barnealdean. Atomoek ikasi dute jada lege hori, eta harekin blaituta daude. Horra hor hosto zintzilikariaren prototipoa. Lur-globoaren zein animalia-gorputzaren *barnean*, *lobulu* heze lodi bat dago, eta hitz hori bereziki aproposa da gibelari, birikei eta gantz-panikuluei<sup>336</sup> dagokionez (*λείβω*, *labor*, *lapsus*, beherantz jariatzea edo irristatzea, *lapsus* bat; *λοβος*, *globus*, *lobulua*, *globulua*, baita magala, hegala eta beste hainbat hitz ere); *kanpoan*, berriz, *hosto* lehor mehe bat, bi o bokalek ordezkatu baltuzte bezala lobuluko *u*-ak. *Lobulu* hitzeko kontsonanteak *l* eta *b* dira, *l* likidoak bultzatzen du *b*ren masa leuna (*b* bakarra edo bikoitza). Globoari dagokionez, berriz, *glb* dira kontsonanteak, eta *g* guturalak ezarriaren ahalmena gehitzen dio esanahiari. Hosto are lehorragoak eta finagoak dira txorien lumak eta hegokoak. Modu horretantxe igarotzen gara, orobat, lurreko beldar lakarretik tximeleta airezko eta kulunkarira. Lur-globoak berak etengabe gaintzen<sup>337</sup> eta biratzen du bere burua, eta hegoduna

---

336 Jatorrizkoan, *leaves*, hostoak. Thoreauk etimologikoki lotzen du kontzeptu hori *lapsus* eta *labor* termino latinoekin, baina teoria horrek ez du funtsik.

337 Jatorrizkoan, *transcends*. Erreferentzia egiten dio Thoreauren transzendentalismoari, bizitza eta Lur planeta lotuz.

da bere orbitan. Eta izotza, berriz, kristalezko hosto delikatuetatik hazten da, uretako landareak uraren ispiluan landuriko moldeetan isuri izan balitz bezala. Zuhaitzak, berez, hostoak dira, eta ibaiak, aldiz, hosto are zabalagoak; tarteko lurra da beren mamia, eta herri zein hiriak, berriz, intsektuen arrautzak beren angeluetan.

Eguzkia erretiratzten denean jariatzeari uzten dio hareak, baina goizean goiz berriro agertzen dira korronteak, eta mila bider adarkatzen dira. Menturaz hor ikusiko duzu nola osatzen diren odol-hodiak. Gertutik erreparatuz gero, ikusiko duzu, lehenik, hondar leunezko korronte batek bultzatzen duela masa beroa aurrerantz; tanta baten edo hatz-mami baten itxura du, eta beherantz amiltzen da motel eta itsu, harik eta, eguzkia altxatu ahala berotasuna eta hezetasuna aregotzen direlarik, puskarik hezeena bereizten den arte, bizigabeenak ere men egiten dion legera makurtzeko ahaleginean, eta kanal edo arteria sigi-sagatsu bat osatzen du beretzat, zeinean ikus baitaiteke korronte txiki bat zilarrezkoa, adar edo hosto mamitsuen geruza alderik alde zeharkatzen duena ñir-ñirka; behingoan irensten du hondarrak. Miragarria da, jariatu ahala, nolako abiadura eta hala ere zer bikainki antolatzen den hondarra, bere masako materialik onenak baliatuz bere kanalaren ertz zorrotzak osatzeko. Horrelakoxeak dira ibaien iturburuak. Urak pilatzen duen materia silizikoan datza, beharbada, hezur-sistema, eta zoru are finagoan eta materia organikoan, berriz, haragi-zuntza eta zelula-ehundura. Zer da gizona, ez bada buztin beroz eginiko masa bat? Tanta izoztu bat baizik ez da gizakiaren hatz-mamia. Atzamarrak eta behatzak diren bezain luze hedatzen dira gorputzaren masa berotik. Nork daki noraino hedatuko edo jariatuko ote litzatekeen giza gorputza, baldin eta zeru mesedegarriago baten pean balego? Eskua ez al da *palmondo*-hosto<sup>338</sup> hedatu bat, bere lobuluekin eta zainekin? Pentsa genezake, modu alegiazkoan, belarria liken bat dela, *umbilicaria*,<sup>339</sup> buruaren alde batera dagoena bere gingila edo tantarekin. Ezpainak, latinez *labium* deitzen direnak —*labor* hitzarekin loturik, agian (?)—, aho leizetsuaren alboetan geratzen dira zintzilik. Sudurra, agerikoa den eran, tanta izoztu bat da, es-

---

338 Jatorrizkoan, *palm leaf*. *Palm* hitzak biak esan nahi ditu: palmondoa eta esku-ahurra.

339 Liken-mota bat.

talaktita bat. Tanta are handiago bat da kokotsa, non bateratzen baitira aurpegiko korronte guztiak. Masailak, berriz, aldapak dira, bekainetatik aurpegiko sakanera jaisten direnak, parez pare eta maxilarren bidez bereizirik. Hosto begetalaren lobulu biribil bakoitza, halaber, tanta lodi eta alfer bat da, handiagoa edo txikiagoa; lobuluak dira hostoaren hatzak, eta, zenbat lobulu eduki, hainbat norabidetan jariatuko da, eta bero handiagoa jasotzen badu edo eragin mesedegarriagoen mendean suertatzen bada, orduan eta urrunago isuriko da.

Horrenbestez, bazirudien malda horretan agertzen zirela Naturaren operazio guztien printzipioak. Lur honen Sortzaileak hosto bat patentatu zuen, besterik ez. Zer Champollion-ek<sup>340</sup> deszifratuko du hieroglifiko hau guretzat, hurrengo orrialdera pasa gaitezen behingoz? Fenomeno hau, niretzat, kitzikagarriagoa da mahatsondoen ugaritasuna eta emankortasuna baino. Egia da, egia denez, bere izaerak baduela halako gorotz-eite bat, eta gibelen zein erraien mordoak ez duela mugarik, lur-globoa kontrako alderantz biratuta balego bezala, baina horrek iradokitzen du, behinik behin, Naturak badituela erraiak eta gizateriaren ama dela alderdi horretatik. Lurretik erretiratzen den antzizarra da, Udaberria da. Udaberri berde eta loretsuaren aurretik dator, poesia erregularren aurretik mitologia datorren moduan. Neguko sunda eta indigestioetatik libratzeko modu hoberik ez dut ezagutzen. Sinetsarazten dit fardela jantzirik dabilela oraindik Lurra, eta haurtxo-hatzak luzatzen dituela alde guztietara. Kizkur berriak ernatzen dira bekokirik soilenetik. Ezer ez da inorganikoa. Mordo hostokara hauek mendoitzean dautzate alderik alde, labeko sarra nola, erakutsiz, azpian, Natura «jo eta su» ari dela lanean. Lurra ez da historia hilaren pusketa hutsa, estratuz estratu osatua —liburuak orrialdez osatzen diren bezala—, geologoek eta antikuarioek azter dezaten soilik; aitzitik, poesia biziduna da, zuhaitz-hostoen antzekoa, loreen eta fruituen aurrekaria: ez da lur fosila, ezpada lur biziduna; haren bizitza itzel eta berebizikoarekin alderaturik, parasitikoak dira animalia-bizitza eta bizitza begetal guztiak. Gure hondakinak beren hilobietan inarrosaraziko dituzte haren korrokek. Metalak urtu ditzakezue,

---

340 Jean-François Champollion (1790-1832) Frantziako egiptologoa. Rosetta harria deszifratu zuen.

direnik eta molderik ederrenen forma eman, eta halere ez zaizkit sekula irudituko lur urtua isurtzen den tankerak baino zirrara-gariagoak. Lurra bakarrik ez, haren gainean dauden instituzioak ere buztina bezain moldaerrazak dira buztingilearen eskutan.



Luze gabe, mendoitzetatik ez ezik muino, zelai eta sako-nune orotatik erretiratuko da antzigarra, lozorroan egondako lau-hankakoa bere zulotik erretiratzen den moduan, eta itsasoaren bila abiatuko da bere musikarekin, edo hodeietako beste klima batzuetara joango da bestela. Urtzaroaren pertsuasio leuna boteretsuagoa da Thor-en<sup>341</sup> mailua baino. Bata urtu egiten da, besteak puska hausten du.

Zoruko elurra partez behintzat joana zelarik, eta haren azala zertxobait lehortu zelarik zenbait egun epelen ondorioz, atsegina gertatzen zen urtearen haurtzaroaren lehen seinale samurrak begiztatzea, neguari aurre egindako landaredia idorren edertasun egundokoarekin bistaratzen baitziren: betibiziak, urrezko makilak, estrepak eta belar basati lerdenak; udan haien edertasuna guztiz heldu gabe balego bezala, sarritan ikusgarriagoak eta interesgarriagoak izaten ziren neguan; hantxe hazten ziren, orobat, kotoi-landarea, ezpata-belarra, lezka, apo-belarra, milazuloa, espirea eta zurtoin lodiko beste landare batzuk, txoririk goiztiarrenak elikatzen dituzten aletegi mugagabeak; belo duin bat Natura alargunarentzat. Bereziki erakartzen nau ihia-  
ren goialde arkuzko eta sorta-erakoak: uda itzultzen dio neguko oroitzenari, arteak kopiatu nahi izaten dituen formetako bat da, eta, erreinu begetalari dagokionez, astronomiak bezalakoxe harremana du jadanik gizonaren buruan dauden formekin. Antzinako estilo bat da, greziarra edo egiptoarra baino zaharragoa. Neguko fenomeno askok iradokitzen dute halako samurtasun adierazezin eta finezia hauskor bat. Neguaren erregea tirano zakar eta harroputz gisa deskribatu ohi diguten arren, maitalearen sentikortasunaz apaintzen ditu udaren mototsak.

Udaberria hurbildu ahala, ohepean sartzen zitzazkidan, binaka, katagorriak, eta nire oinen azpi-azpian kokatzen ziren, irakurtzen edo idazten ari nintzelarik; inoiz entzundako piorik,

---

341 Norvegiar mitologian, trumoiaren jainkoa, mailu batez armatua.



eztarri-piruetarik eta txorrotxiorik bozkariotsuenak egiten zituzten, eta, oinarekin lurra jotzen nuelarik, ozenagoa bihurtzen zen soinua; bazirudien errespetua eta ikara atzean utzi zituztela beren bihurrikeria zoroetan, eta desafioa jotzen ziotela gizateriari, ea kemenik bazuen haiek isilarazteko. Utzi hori, katagorri, katagorri. Entzungor egiten zieten nire argudioei, edo ez zuten haien indarra hautematen, eta erretolika-jario liluragarri bati heltzen zioten ostera.

Udaberriko lehen txolarrea! Inoiz baino esperantza gazteagoarekin abiatzen da urtea! Urdintxoriaren, txolarre kantariaren eta birigarroaren txio zilarrezkoak aditzen dira lursail partez huts eta hezeen gainean, neguaren azken malutek, erortzean, txilin-hotsa egingo balute bezala! Halako garaitan zer axola dute historiek, kronologiek, tradizioek eta gainerako idatzi guztiek? Kanta alaiak abesten dizkiote errekek udaberriari. Istingako zapelatza jirabiraka dabil belazearen gainean, esnatu berri den lehen izaki lirdingatsua bila. Bailara guztietan aditzen da elurrak urtzean egiten duen hotsa, eta izotza bizkor-bizkor desegiten da lakuetan. Belarrak, udaberriko suaren eran, kulunka egiten du zelaian —«et primitus oritur herba imbribus primoribus evocate»<sup>342</sup>—, lurrak halako barne-berotasun bat igorriko balu bezala itzuleran datorren eguzkiari diosala egiteko, eta haren garrak ez dira horiak ezpada berdeak; belar-izpia, xingola berde luzanga baten pare, udarantz hedatzen da, zohitik udarantz, gaztaro betierekoaren sinbolo; antzigarrak gogor zigortu duen arren, berriro oldartzen da, aurreko urteko azken saralea altxatuz azpitik, bere bizi berriarekin. Errekastoaren emaria bezain sendo hazten da. Are, errekastoaren berdin-berdina da ia, zeren, ekaineko goraldi-egunetan, errekastoak idortzen direlarik, uraren kanalak bihurtzen baitira belar-izpiak, eta, urtez urte, korronte berde iraunkor horretatik edaten dute artaldeek, eta, segalariak, berriz, hartatik eskuratzen du bere neguko homidura dagokion denboran. Horrela, bada, haren erroetaraino jaisten da gure bizitza, eta izpi berde bat goratzen du, orobat, betierekotasunerantz.

---

342 Marko Terentzio Varronen *Rerum rusticarum* laneko aipua: «Belarra, urrunetik dei egin diotelarik lehen euri-jasek, hazten hasia da».

Bizkor ari da Walden urtzen. Iparraldean eta mendebaldean barna doa kanal bat bi kana zabala, are gehiago zabaltzen dena ekialdera iristean. Izotz-puska handi samar bat bereizi da gorputz nagusitik. Txolarre kantari bat aditu dut ertzeko zuhaixketatik txorrotxioka: lakua arrakalatzeko lanean ari da hura ere. Bai ederrak izotzaren ertzeko kurba uhindu handiak; laku-bazterrekoen antza dute hein batean, baina erregularragoak dira hargatik! Izotza ohi ez bezain gogorra dago, azkenaldiko hotz gorri baina behin-behinekoaren eraginez; uhinak eta zainak osatzen ditu, palazio bateko zoruaren pare. Haizeak ekialderantz jotzen du haren azal opakua gainean, alferrik baina, ez baita iristen haragoko azal bizidunera. Loria hutsa da urezko xingola hau ikustea eguzkitan ñir-ñirka, lakuaren bisaia biluzia pozez eta gartzaroz beterik, han barruko arrainen eta ertzeko harearen alaitasuna aldarrikatuko balu bezala; *leuciscus*aren<sup>343</sup> ezkatentankerako distira zilarrezkoa, lakua bera arrain bat mugimenduan. Horra hor neguaren eta udaberriaren arteko aldea. Walden hilik zegoen eta orain bizirik dago berriro. Udaberri honetan, ordea, modu egonkorragoan hautsi da, jada esan dudan moduan.

Negutik eta ekaitzetik eguraldi bare eta epelerako aldaketa, ordu ilun eta geldoetatik ordu argi eta elastikoetarakoa, krisi gogoangarri bat da, eta gauza guztiek aldarrikatzen dute. Badirudi bat-batekoa dela azkenean. Argi-olde batek bete zuen tupustean nire etxea, nahiz eta iluntzea izan, nahiz eta neguko hodeiak zintzilik ageri han goian, nahiz eta teilatu-hegalak tantaka aritu elurbustitan. Begiratu nuen leihotik eta, hara! Atzo izotz gris hotza izandako tokian zetzan laku gardena, barea eta esperantzaz betea, udako ilunabar bat balitz bezala, udako arrastiria islatzen baitzuen bere bularrean, buru gainean halakorik ikusten ez zen arren; ematen zuen urruneko zerumuga batekin komunikatzen zela. Zozo papargorri bat entzun nuen urruti, milaka urtean entzundako lehendabizikoa, pentsatu nuen, eta haren nota ez nuen ahaztuko beste mila urtean, betiko kantu gozo eta indartsua. Oi, iluntzeko papargorria, Ingalaterra Berriko uda-egun baten amaieran! Topatu ahal banu hura esertzen den adarra! *Hura* esan nahi dut, *adarra* esan nahi dut. Hau, behinik behin, ez da *Turdus migratorius*. Nire etxe inguruko pinuak eta

---

343 Katxo arraina.

haritz gazteak, aspalditik makurtuak, beren onera itzuli ziren bat-batean; argiagok eta berdeagoak ematen zuten, tenteago eta biziago agertzen ziren, euriak egiaz garbitu eta suspertu balitu bezala. Banekien ez zuela euririk egingo berriro. Jakin dezakezu basoko edozein adarri begiratuta, edo, oi, zerorren egur-pilari berari begiratuta, negua joan den ala ez. Ilundu ahala, basoaren gain-gainetik hegaka zebiltzan antzaren *karrankak* izutu ninduen; hego-lakuetatik azken orduan iritsitako bidaiari nekatuak ziruditen, behingoan ekin ziotelarik mugarik gabe kexatzeari eta elkar kontsolatzeari. Atarian zutik, haien hegoen firfira entzun nezakeen; nire etxea zegoen aldera inguratu zirelarik, hango argiaz ohartu ziren bat-batean, eta zalaparta gor batekin itzuli ziren lakura. Sartu nintzen, bada, itxi nuen atea, eta udaberriko nire lehen gaua igaro nuen basoan.

Goizean, atean bermaturik, antzarak ikusi nituen lanbroan bilduta, lakuaren erdian nabigatzen ari zirelarik, berrogeita hamar kanara-edo; hain ziren handiak eta iskanbilatsuak, laku artifizial bat baitzirudien Waldenek, hegaztiak dibertitzeko eraikia. Ur-ertzero gerturatu nintzelarik, ordea, segituan altxatu ziren, hegoak astinduz, komandanteak seinale bat egin ostean; tropa antolaturik, nire buru gainean jiraka ibili ziren, hogeita bederlatzi hegatziko aldra, eta zuzenean Kanada aldera abiatu ziren gero —buruzagiak karranka-soinu bat egiten zuen erregulariki—, igerileku lohitsuagoetan gosaltzeko itxaropenarekin. Aldi berean jaiki zen ahate «samalda» bat, eta iparralderako bidea hartu zuten, beren lehengusu zaratatsuagoen uberan.

Astebetetz antzara bakarti baten xerkatze-zalaparta aditu nuen goiz lanbrotsuetan; bere kidearen bila zebilen, eta basoa betetzen zuen basoak mantentzen zezakeena baino bizitza handiago baten soinuarekin. Apirilean berriro ikusi genituen usoak bizkor-bizkor hegan egiten, eta, zegokionean, sorbeltzaren txorrotzioak aditu nituen nire argiunearen gainean, nahiz eta ez zirudien udalerrian txori-mota horretako nahiko ale zegoenik, niri bat esleitzeko adina; irudikatu nuen, beraz, arraza antzinako bateko ale bat zela, gizon zuria etorri aurretik zuhaitz hutsetan bizi zen motakoa, alegia. Klima gehienetan, urtaro honen heraldoak izaten dira hala dortoka nola igela; hegan dagite txoriek, beren luma distirantak erakutsiz; ernatzen eta loratzen dira landareak,

eta putz egiten dute haizeek, poloen arteko oszilazio arin hau zuzentzeko eta Naturaren orekari eusteko.

Urtaro oro iruditzen baitzaigu urtarorik onena bere garaian, Kaosetik Kosmosa sortzearen parekoa ematen du udaberriaren etorrerak, Urrezko Garaiaren gauzapena.

«Eurus ad Auroram Nabathæaque regna recessit,  
Persidaque, et radiis juga subdita matutinis».

Auroraren eta nabateoen erreinura erretiratu da Euro,  
Persiara eta goizeko eguzki-printzen azpian hedatzen diren  
tontorretara».<sup>344</sup>



«Jaio zen gizona. Dela gauzen Egileak,  
mundu hobe baten iturburu, sortu zuen hazi dibino batetik,  
dela lurak, berria eta duela gutxi berezia goiko eterretik,  
gorde zituelako pareko zeruko hazi-ale batzuk».<sup>345</sup>

Zaparrada leun batek hainbat tonu berdeago bihurtzen du belarra. Gure ikuspegiak ere halaxe: argitu egiten dira pentsamendu hobeen eraginpean. Bedeinkatuak ginatete orainaldian bizi bagina beti, eta probetxua aterako bagenio gertatzen zaigun istripu orori —horixe egiten baitu belarrak, gainean erortzen zaion ihintza-tantarik arinenaren eragina aitortu—, eta ez bage-nu denborarik xahutuko iraganeko aukera galduak konpontzen saiatzen, horri esaten baitiugu gure zeregina betetzea. Neguko alferkerian iraulkatzen gara, nahiz eta udaberria izan jada. Udaberriko goiz atsegin batean gizon guztien bekatuak barkatzen dira. Halako egunak su-eten bat dira bizioarekiko. Halako eguzki batek bere suari eusten dion bitartean, bekataririk doilorrenak ere itzul daitezke etxera. Atzo, beharbada, lapurra, mozkortia edo lizuna izango zen zure auzoa, eta errukia edo mespretxua baizik ez zenuen sentituko harengana; udaberriko lehen goiz honetan, ordea, eguzkia dir-dir ari da zeruan, hutsetik sortu da mundua, eta hara non topatu duzun auzoa lanean bare-bare, eta ikusi duzun nola hedatzen diren haren zain nekatu eta galbideratuak poz

---

344 Ovidioren *Metamorfosia* laneko aipua (1, 61-62).

345 Ovidioren *Metamorfosia* laneko aipua (1, 78-81).

lasai batekin; egun berria bedeinkatzen du, haurtzaroko inozentziaz nabaritzen du udaberriaren eragina, eta ahaztu dira haren bekatu guztiak. Inguratzen du ez bakarrik asmo onen atmosfera batek, ezpada santutasun-aura batek ere: bere burua adierazteko ahaleaginean dihardu, itsuki eta eraginkortasunik gabe beharbada —sen jaioberri baten eran—, eta, ordubete labur batez, ez da txanxta oiesen oihartzunik aditu hegoaldeko muino-magalean. Ikusi dituzue kimu inozente zenbait, azal korapilatsuetan lehertzeko eta urte berri bati ekiteko pronto, landarerik gazteena bezain samur eta fresko. Jainkoaren bozkarioan sartu da hura ere. Zergatik ez ditu espetxeko ateak irekitzen kartzelazainak, zergatik ez du kasua bazter uzten epaileak, zergatik ez dio alde egiteko baimena ematen predikulariak bere kongregazioari? Bada, ez diotelako obeditzen Jainkoak emandako seinaleari, eta ez dutelako onartzen hark gu guztiok libreki eskainitako barkamena.

«Egunero, ontasunerako itzulera gertatzen da goizaren arnas lasai eta mesedegarrian, eta, bertutearekiko maitasunaren eta bizioarekiko gorrotoaren poderioz, pitin bat hurbiltzen gara gizonaren izaera primitibora, basoaren ernamuinak bezala eraitsia. Era berean, egunaren iraupenean egiten ditugun zitalkeriek eragotzen dute ernatzen hasitako bertuteen haziak gara daitezen, eta suntsitu egiten dira.

»Bertutearen haziei hainbat aldiz eragotzi zaielarik beren burua garatzea, iluntzeko arnas mesedegarria ez da aski haiek gordetzeko. Arrastiriko hatsa ez delarik nahikoa haiek gordetzeko, gizonaren zerizana ez da piztiaren izateaz oso bestelakoa. Gizonek, ikusirik beren zerizana piztiarenaren tankerakoa dela, pentsatzen dute ez direla inoiz izan arrazoimenaren jabe. Horiek al dira gizonaren sentimendu egiazko eta naturalak?».<sup>346</sup>

«Urrezko Aroa sortu zen lehenik; mendekatzailek eta legedirik gabe fideltasuna eta zuzentasuna besarkatzen zituen berez. Ez zegoen zigorrik ez beldurrik; ez zen idazten hitz mehatxuzkorik letoian; eta jendetza erregutzaileak ez zion izurik epailearen ebazpenari; salbu zeuden mendekatzailek gabe. Mendian eraitsitako pinua ez zen oraindik amildu korronte likidoetan barna, mundu arrotz bat ikusteko, eta hilkorrek ez zituzten ezagutzen beren ur-ertzak besterik.



---

346 Mentzioren pasarte bat, Pauthierren *Confucius et Mencius* lanetik hartua. Ikus 75. Oharra (bi zatia bateratzea egiaztatu eta aldatu).

Udaberri betierekoa zen, eta zefiro lasaiak, erauntsi epelen bitartez, hazirik gabe sorturiko loreak laztantzen zituen».<sup>347</sup>

Apirilaren 19an, erreka-ertzean arrantzan egiten ari nintzelarik Nine Acre Corner zubitik hurbil, belar dardaratian eta sahats-sustraietan zutik, arratoi musketadunen zelata-lekuan, aditu nuen karraska-soinu bitxi bat, mutikoez makilekin jolasean sortzen dituzten hotsen antzekoa, eta, gorantz erreparaturik, han ikusi nuen zapelatz arin eta lirain bat, zataren antzekoa: txandaka, olatu baten eran altxatzen eta kana bat edo bi amiltzen zen, hegoen azpialdea erakutsiz, zeinak distira egiten baitzuen, eguzkitan jarritako xingola satinezkoaren edo maskor baten barnealde perlazkoaren antzera. Gogora ekarri zidan ikuspegi horrek falkoneriaren artea eta zer-nolako noblezia eta poesia atxikitzen zaizkion ehiza-modu horri. Iruditzen zitzaidan Merlin dei zitekeela, baina ez zitzaidan axola haren izena. Inoiz ikusi dudan hegaldirik etereoena zen. Ez zen jirabiraka hegaldatzen tximeleten antzera, ez zen gorantz aireratzen belatz handiagoen pare; aitzitik, atsegin hartzen zuen, konfiantza harroarekin, airezko eremuetan; behin eta berriro altxatzen zen bere soinu bitxia eginez, bere erorialdi aske eta ederra errepikatzen zuen, kometaren gisara biratuz etengabe, eta ondoren airos berreskuratzen zuen oreka, *terra firman* sekula oinik ipini ez balu bezala. Bazirudien ez zuela kiderik unibertsoan —bakarbakarrik ziharduen jolasean— eta ez zuela behar ezer, goiza eta jolaserako zerabilen eterra besterik. Ez zen izaki bakartia, aitzitik, izaki bakarti bihurtzen zuen azpiko lur osoa. Non zegoen hura txitatu zuen ama, non zeuden haren senideak, eta haren aita zeruetakoa? Aireko maizterra izanik, ematen zuen noizbait harkaitz-zirrikitu batean txitaturiko arrautza zela hark lurrarekiko zuen lotura bakarra; ala, beharbada, hodei baten angeluan eraiki zuten haren jatorrizko habia, ostadarraren apaindurekin bilbatuz eta lurrean harrapatutako lanbro udatiar leunarekin jantziz? Hodei malkartsuren bat zen orain haren belatz-habia.

Bestalde, arrain urreztatu, zilarreztatu eta brontze-eitekoen multzo bat harrapatu nuen; harribitxi-sorta bat zirudien. Barneratu naiz zelai horietan udaberri-goiz frankotan, tontorrez tontor jauzi eginez, sahats-sustrai batetik bestera, ibaiaren

---

347 Ovidioren *Metamorfosia* laneko aipuak (1, 89-96 eta 107-108.)

bailara basatiak eta basoak osoki bainatzen zituelarik hilak ere esnatzeko moduko argi puru eta distiratsu batek, baldin eta lozorroan baleude beren hilarrietan, zenbaitek uste duen eran. Han ez da behar hilkortasunaren froga sendoagorik. Gauza guztiek bizi behar lukete halako argi batean pean. Oi, Herio, non duk heure eztena? Oi, Hilobi, non heure garaipena?<sup>348</sup>

Gure herriko bizitza gelditu egingo litzateke haren inguruan ez balego baso eta zelai esploratu gabetik. Basatasunaren bizkorgarria behar dugu: txori zezena eta kopetazuria zelatan dabiltzan istingan deslai ibili behar dugu tarteka, eta istingorraren dunbotsa entzun; usaindu behar ditugu ihi xuxurlariak, hegazti basatiago eta bakartiagoen habiak baizik ez dauden lekuan, zeinetan herrestatzen baita bisoia, zorutik gertu duelarik bularra. Gauza guztiak aztertzeko eta ikasteko erabaki irmoa hartzen dugun aldi berean, gauza oro misteriotsua eta esploraezina izan dadin behar dugu, lurraldea eta itsasoa izan daitezela infinituki basatiak, ez ditzagun ikertu eta ulertu, ulertezinak direlako. Ezin dugu Naturaz bapo egin sekula. Susperitu behar gaituzte haren ezaugarri indartsu, zabal eta titanikoek, agorrezinak baitira: itsasertza eta hango hondoratzeak, natura basatia eta hango zuhaitz bizidun zein hilak, ekaitz-lainoa eta hiru astez jardunik uholdeak eragiten dituen euritea. Ikusi behar ditugu gure mugak gainditurik, eta ikusi behar dugu bizitza-mota bat aske bazkatzen dena gu inoiz iritsiko ez garen eremuetan. Pozez betetzen gara ikusten dugularik nola elikatzen den putrea gu nardatzen eta kikiltzen gaituen haratustelarekin, nola eskuratzen duen osasuna eta indarra modu horretan. Nire etxera doan bidearen alboko sakonune batean bazegoen, behin, zaldi hil bat, zeinak tentatzen baininduen desbideratzera, bereziki aire trinkoko iluntzeetan: Naturaren apetitu sendoaren eta osasun bortxaezinen ziurtasuna erakusten zizkidan, eta horixe zen nire konpentsazioa. Pozarren egiaztatzen dut bizitzaz bete-beterik dagoela Natura, halako moduan non milaka izaki sakrifikatzeke eta elkarri harrapakin gisa eskaintzeke aukera baitago; ore balitz bezala zanpa daiteke organismo samurren existentzia, baretasunez; koartzek zapaburuak irents ditzakete, gurdiek dortokak eta

---

348 | Korintoarrei 15: 55 bertsetaren parafrasia: «Non duk, Herio, heure garaipena? Non heure eztena?».

apoak zapal ditzakete errepidean, eta euriak haragia eta odola bota ditu batzuetan! Istripu-arriskuari dagokionez, onartu behar dugu ez duela axola. Gizon jakintsuari inozentzia unibertsalaren irudipena utziko dio. Pozoia, azken batean, ez da pozoitsua, eta ezein zauri ez da hilgarria. Errukia eremu defendaezina da oso. Bizkorra izan behar du. Haren erreguek ezin dute jasan estereo-tipo bilakatzea.

Maiatzaren hasiera aldera, haritzek, intxaurrondoek, astigarrek eta beste zuhaitz batzuek, lakuaren inguruko pinudien artean altxatu nahian, eguzki-printzen moduko argitasuna erantsi zioten paisaiari, egun hodeitsuetan bereziki; bazirudien lanbroa zeharkatzen zuela eguzkiak eta distira egiten zuela, lausoki bada ere, han-hemenka muino-magaletan. Maiatzaren hiruan edo lauan aliota bat ikusi nuen lakuan, eta hilabeteko lehen astean aditu nituen, besteak beste, zata, birigarro txikia, birigarro arrunta, basoko euli-txoria eta txonta. Aspaldi entzun nuen garraztarroa. Urketaria itzuli zen berriro eta begiratu zituen nire atea eta leihoa, egiaztatu nahian nire etxea aski leizetsua ote zen berarentzat; ingurua miatu bitartean, hegoen gainean mantentzen zen, orpoak tenk, aireak berak eutsiko balio bezala. Hango pinu-motaren polen sufre-itxurakoak berehala estali zituen lakua, harriak eta ur-ertzeko egur ustelak; upel bat bil zenezakeen hala nahi izanez gero. Horra hor aipatzen zaizkigun «sufre-zaparradak». Calida-ren *Sakuntala* lanean ere aipatzen dituzte «lotoaren hauts urrekarak estaliriko errekaeto lehor horrikarak».<sup>349</sup> Hala jarraitzen dira urtarook, udara iritsi arte, belar gero eta garaia goan oinez dabilena bezala.

Horrela bukatu zen basoan igaro nuen lehen urtea, eta lehenaren antzekoa izan zen bigarrena. 1847ko irailaren 6an egin nuen alde azkenean Waldenetik.

---

349 Kalidasa (K. o. VI. mendea) poeta eta dramaturgo hinduaren *Sakuntala* laneko aipua.



# HEMEZORTZI

## AMAIERA

Medikuek beste giro eta paisaia batzuetara joateko gomendatzen diote gaixo dagoenari, gomendio jakintsua inondik ere. Zeruari eskerrak, hau ez da mundu osoa. Indigaztainondorik ez da hazten inguruotan, eta apenas aditzen dugun urretxin-dorraren txorrotxiorik. Gu baino kosmopolitagoa da antzara basatia; gosaltzen du Kanadan, Ohion bazkaldu, eta hegoaldeko zingiretan pasatzen du gaua. Bisonteak berak urtaroen segidari jarraitzen dio hein batean behintzat: Coloradoko larreetan bazkatzten da harik eta belaze berdeagoak eta gozoagoak zain dauzkan arte Yellowstone aldean.<sup>350</sup> Uste dugu, halere, trenbideko hesiak jaitsi eta gure etxaldeak harriz inguratuko bagenitu, gure biziak zedarrituko genituzkeela, gure patuak ebatzi. Udal-kargu bat betetzeko hautatzen bazaituzte, ezin joan zaitezke Tierra del Fuegora uda honetan, baina infernuko suaren lurraldera joan zintezke haatik. Hartaz ditugun ikuspegiak baino zabalagoa da unibertsoa.

Nolanahi ere, maizago begiratu behar genuke gure itsasontziaren kareletik haraindi, bidaiari jakin-nahien itxuran, eta ez genuke bidaldia xahutu behar marinel ergelek xahutzen duten eran, iztupa irunez, alegia. Gure berriemailearen etxea baino ez da lur-globoaren beste alde. Gure bidaldiak zirkulu nagusi batean nabigatzearen parekoak dira, eta azaleko gaitzak sendatzeko soilik gomendatzen dituzte medikuek. Batzuk lasterka abiatzen dira Hego Afrikara jirafak ehizatzerara, baina, ziur aski,

---

350 Wyoming, Montana eta Idaho estatuetan kokatzen den parke naturala.

ez da hori harrapatu nahi luketen ehizakia. Esadazue: zenbat denbora igaroko luke gizonak jirafa-ehizan, horretarako modua izanez gero? Istingorrak eta pekadak entretenimendu bitxia eskaintzen dute orobat, baina uste dut jolas nobleagoa litzatekeela norbere buruari tiro egitea.

«Zuzendu begiak barrurantz, eta aurkituko dituzu milaka eremu gogoan, artean deskubritu gabeak. Bidaiatu haietan barna eta izan zaitez aditua etxeko kosmografian».<sup>351</sup>



Zer esan nahi du Afrikak, zer esan nahi du Mendebaldeak? Gure barrenak ez al dira mapa zuri bat? Nahiz eta kanpotik beltzak iruditu, kosta bezala. Niloren, Nigerren edo Mississippiren sorburua topatuko al dugu, ala kontinente honen ipar-mendebaldeko pasabidea bestela? Hauek al dira gizateria gehien arduratzen duten arazoak? Franklin<sup>352</sup> al da inoiz galdu den gizon bakarra, bere emazteak hain serio har dezan hura aurkitzeko lana? Grinnell jaunak<sup>353</sup> ba ote daki bera non dagoen? Izan gaitezen gure korronte eta ozeanoetako Mungo Park,<sup>354</sup> Lewis eta Clarke,<sup>355</sup> eta Frobisher;<sup>356</sup> mia ditzagun gure latitude gorenak, aldean hartuta kontserba-haragia, hala behar izatekotan, eta pila ditzagun lata hutsak zeruraino, seinale gisa.<sup>357</sup> Haragia kontserbatzeko helburuarekin bakarrik asmatu ote zen kontserba-haragia? Izan gaitezen geure baitako kontinente eta mundu berrietako Kolon bat, ireki ditzagun kanal berriak, ez merkata-

---

351 «To my Honoured Friend Sir Ed. P. Knight» poemako aipua. Egilea: William Habbington (1605-1664), Ingalaterrako poeta.

352 John Franklin (1786-1847), Ingalaterrako esploratzailea. Ipar Mendebaldeko Pasabidea topatu nahian zebilelarik galdu zen.

353 Henry Grinnell (1799-1874), New Yorkeko merkataria. Franklin bilatzeko espedizioak ordaindu zituen.

354 Mungo Park (1771-1806), Eskoziako esploratzailea. Niger ibaiaren bidea trazatu zuen.

355 Meriwether Lewis (1774-1809) eta William Clarke (1770-1838), Ozeano Barerako bidea deskubritu zuten esploratzaile estatubatuarak.

356 Martin Frobisher (1535-1594), Ingalaterrako nabigatzailea. Ipar Mendebaldeko pasabidea aurkitzen ahalegindu zen hiru aldiz.

357 Elisha Kant Kane (1882-1857) estatubatuar esploratzaile eta medikuak John Franklin bilatzeko espedizio batean parte hartu zuen eta haren kanpalekuetako batean seiuhunetik gora lata huts aurkitu zituen.

ritzarako ezpada pentsamenduari bidea egiteko. Gizon oro da erreinu bateko jaun eta jabe, zeinarekin alderatuta tsarraren inperioa hutsaren hurrengoa baita, izotzak utzitako tontor ñimiño bat. Batzuk, ordea, abertzaleak dira *beren buruarekiko* errespeturik izan gabe ere, eta garrantzirik gutxiena duenaren izenean sakrifikatzen dute garrantzirik gehiena duena. Maite dute beren hilobien zorua, baina ez diote begikotasunik adierazten beren lokatza oraindik pitz dezakeen espirituari. Beren buruetan dabilen zizare bat da abertzaletasuna. Zein izan zen, bada, Hego Itsasoa Esploratzeko Espedizio<sup>358</sup> haren esanahia —haren desfile, kostu eta guzti—, ez baldin bazen zeharka aitortzea badirela mundu moralean kontinenteak eta itsasoak, esploratu gabeak denak ere, zeinekiko gizon oro baita istmo bat edo ibaiadar bat, baina errazagoa dela, hargatik, milaka milia nabigatzea hotzari, ekaitzei zein kanibalei aurre eginez, gobernuaren itsasontzi batean, gizon bakar baten agindutara dihardutelarik beste bostehunek, nork bere itsaso pribatua arakatzea baino: norbera bakarrik dagoen zerizanaren Ozeano Atlantikoa eta Barea.

«Erret, et extremos alter scrutetur Iberos.  
Plus habet hic vitæ, plus habet ille viæ».

«Joan daitezela eta azter ditzatela australiar bitxiak,  
Jainko gehiago daukat nik, errepide gehiago haiek».<sup>359</sup>



Ez du merezi munduaren beste muturrera joatea Zanzibarren zenbat katu dagoen zenbatzeko. Alabaina, ez badaukazu zeregin hoberik, zoaz eta zenba itzazu, eta beharbada topatuko duzu «Symmes-en zuloa»,<sup>360</sup> barrura sartzeko azkenean. Ingalaterra eta Frantzia, Espainia eta Portugal, Urrezko Kosta eta Esklaboen Kosta, itsaso pribatu horren parean daude denak,

358 Ozeano Barearen hegoaldea eta Hego Poloko Ozeanoa aztertzeo espedizioa (1838-1842), Charles Wilkes (1798-1877) AEBko esploratzaile eta botanikariak zuzendua.

359 Klaudio Klaudio (370-404) poetaren *Carmina Minores* laneko aipua. Jatorrizkoan iberiarrak aipatzen badira ere (*iberos*), australiarrekin ordezkutzen ditu Thoreauk, testua bere irakurleei hurbiltzeko asmoz. Bestalde, errima mantentzeko, «vitæ» (bizitzarena) «God» (jainkoarena) gisa itzuli zuen; horrek arrasto bat ematen digu haren erlijioari buruz.

360 John Cleves Symmes (1779-1829), AEBko armadako kapitain ohia; 1818an hasi eta hil zen arte, Lurra hutsik zegoela frogatzen saiatu zen.

itsasontzi bakar bat ere ez delarik ausartu lurrik ikusten ez den eremuetara joaten, nahiz eta horixe den, horixe denez, Indiarari isteko biderik zuzenena. Ikasiko bazenituzte mintzaira guztiak eta moldatuko bazinete nazio ororen ohituretara, bidaiatuko bazinete bidaiari denak baino urrunago, klima guztietara egokitu eta Esfingea behartuko bazenute harkaitz bat jo dezan buruaz; obedituko bazeniot, are, filosofo zaharraren aginduari,<sup>361</sup> eta zeuen burua Esploratu. Arreta eta deliberoa behar dira horretarako. Garaituak eta desertoreak bakarrik joaten dira gerretara, ihes egin eta armadan sartzen diren koldarrak. Abia zaitezte, orain, mendebaldeko biderik urrunenerantz; ez da Mississippin geratzen, ezta Ozeano Barean ere, ez zaituzte eramango Txina edo Japonia ahituetara; aitzitik, esfera horretara eramango zaituzte zuzenean, tangente baten bidez, udan zein neguan, egunez zein gauez, eguzkia eta ilargia aienatzean, eta lurrean barrena azkenean.

Esaten denez, Mirabeau<sup>362</sup> bidelapur bilakatu zen egiaz-tatu nahi zuelako «zer erabakimen-gradu behar zen gizarteko araurik sakratuenekiko oposizio formalean kokatzeko norbere izatea». Adierazi zuen «armadako soldadu bati aski zaiola bidelapur batek behar duen kuraiaren erdiarekin» eta «ohorea eta erlijioa ez zirela sekula traba izan ondo hausnartutako erabaki irmo baten aurrean». Gizon-baieztapena da hori, mundua nola doan aintzat harturik; alferrekoa da halere, ez bada desesperatua. Gizon zuhurrago bati sarritan egokituko zaio «oposizio formalean» suertatzea «gizarteko araurik sakratuenen» aurrean, zergatik-eta arau are sakratuagoei men egiten dielako, eta bere bidetik atera gabe erakutsi beharko du bere erabakimena. Gizonari ez dagokio halako jarrera bat hartzea gizartearen aurrean, baizik eta bere izatearen arauetik obediencia eskatzen dion dena delako jarreraren mantentzea bere burua, eta jarrera hori ez da inoiz izango bidezko gobernu baten aurkako oposizioa, baldin eta halakorik topatzeko zortea badu.

Motibo on batengatik alde egin nuen basotik,<sup>363</sup> eta basora etortzeko izan nuena bezain ona zen. Iruditu zitzaidan, behar-

---

361 Sokrates (K. a. 469 - K. a. 399) filosofoari erreferentzia: «Ezagutu zeure burua».

362 Honoré-Gabriel Victor Riquetti, Mirabeauko kondea (1749-1791), Frantziako idazle eta iraultzailea.

363 Emerson Europara joan zelarik bolada luze bat igarotzera eta hitzaldi-ziklo bat

bada, bizitza gehiago neuzkala artean bizitzeko, eta ezin niola denbora gehiago eskaini honi. Deigarria da zer erraz eta axolagabe heltzen diogun bide bati, eta zer maiz igarotzen dugun gero. Basoan astebete egin gabe, nire oinatzek xendra bat sortu zuten nire atetik laku aldera, eta duela bospasei urte gertatu zen arren, bereizi daiteke oraindik. Beldur naiz, egia da, ez ote diren beste batzuk ibili bide horretatik, eta hura zabalik mantendu. Biguna da lurraren azala, erraz moldatzen dute gizonen oinek, eta gauza bera gertatzen da buruak ibilitako bideekin. Zeinen higatuak eta hautsez beteak izan behar duten munduko errepideek, zeinen sakonak tradizioaren eta konformismoaren ildoek! Ez nuen bidaldia egin nahi kamarotean gorderik, nahiago nuen mastaren aurrean jarri, munduaren bizkarrean, handik ikus nezakeen-eta, beste inondik baino hobeto, ilargiaren argia mendien artean. Orain ez dut behera itzuli nahi.

Behinik behin, gauza bat ikasi nuen nire esperimentuari esker: baldin eta batek fidantziak aurrera egiten badu bere ametsen norabidean, eta ahalegintzen bada berak irudikatutikoz bizia bizitzen, ordu arruntetan espero izaten ez den moduko arrakasta-suerte bat ezagutuko du. Atzean utziko ditu zenbait gauza, zeharkatuko du muga ikusezin bat; lege berri, unibertsal eta irekiagoak ezarriko dira bere inguruan nahiz bere baitan; edo, bestela, hedatuko dira lege zaharrak, eta bere mesedetan interpretatuko dira, tolerantzia handiagoarekin; izaki gorenen ordenari dagokion libertatearekin biziko da. Bere bizia sinplifikatzen duen neurrian, unibertsoko legeak ez zaizkio irudituko hain konplexuak; bakardadea ez da izango bakardadea, pobrezia ez da izango pobrezia, ezta ahultasuna ere ahultasuna. Gazteluak eraiki badituzu airean, zure lana ez da galduko: ondo daude airean. Orain, jarri zutarriak azpian.

Irrigarria da Ingalaterrak eta Amerikak eskatzen dutena, hots, haiek ulertzeko moduan mintzatzea. Ez dira modu horretan hazten ez gizonak ezta perretxiko pozoitsuak ere. Garrantzitsua balitz bezala haiek zu ulertzea, eta haiez gain ulertzen zaituen besterik ez balego bezala. Naturak gure ulerkeretako bat bakarrik ahalbidetuko balu bezala, eta hegaztiak ez ezik lau han-

---

eskaintzera, haren emazte Lidian-ek berarekin eta semearekin bizitzera joan zedila eskatu zion Thoreauri.

kakoak ere mantenduko ez balitu bezala, izaki hegalariaik zein herrestariaik, eta *arre* eta *iso* —idiak konprenitzeko moduko hitzak— balira bezala ingelesik egokiena. Ergeltasunetik kanpo segurtasunik ez balego bezala. Kontrara, beldurtzen nau nire adierazmoldea aski *estra-bagantea*<sup>364</sup> ez izatea, nire eguneroko esperientziaren mugetatik haraindi ez ausartzea, sinesten dudan egiaren neurria emateko lain. *Estrabagantzia!* Nola hesitzen zaituzten, horren araberakoa izango da dena. Bufalo migratzailea belaze berrien bila abiatzen da beste latitude batzuetara, baina ez da estrabaganteagoa kuboari ostikoa jo, hesiaren gainetik jauzi egin eta jezteko garaian bere zekorra babestera jotzen duen behia baino. Hitz egin nahi nuke mugarik *gabeko* leku batean; itzarrik dagoen gizona bezala, itzarrik dauden gizonentzat, sinetsita bainago ezin dudala esajeratu egiazko adierazpidearen oinarriak finkatzeko adina. Melodia musikal bat aditu ostean, nork ez du beldurrik izaten gero, ez delakoan gai izango egiazko estrabagantziaz mintzatzeko berriro? Etorkizunaren eta aukearen aurrean, kezkarik eta alde zurretiko ideiarik gabe bizi behar genuke, gure ingerada izan dadila lausoa eta lanbrotsua alderdi horri dagokionez, izerdi atzemanekin bat adierazten duelarik gure itzalak eguzkiarekiko. Gure hitzen egia iheskorrak etengabe salatu behar luke esaldiaren hondakinaren egokitasun eza. Hitzen egia istantean *itzultz*en da; haren monumentu literala baizik ez da geratzen gero. Gure fedea eta pietatea adierazten duten hitzak ez dira behin betikoak, baina esanguratsuak dira eta beren lurrina jariatzten dute, intsentsuaren antzekoa, izate gorenentzat.

Zergatik beheratzen gara beti gure ikuspeirik baldarrenaren mailara, eta zergatik jotzen dugu hori zentzu komuntzat? Lo dauden gizonen zentzua da zentzurik komunena; zurrungen bidez adierazten dute. Batzuetan, memeloekin batera sailkatzen ditugu buruargiak, ez garelako gai haien argitasunaren heren bat baizik ulertzeko. Batzuek akatsen bat ikusiko liokete baita egunsentiaren kutsu gorrikarari ere, baldin eta hura ikusteko aski garaiz altxatuko balira sekula. Jakin dudanez, «batzuek uste dute Kabir-en<sup>365</sup> bertsoek lau zentzu desberdin dituztela: ilu-

---

364 Thoreauk hitz hori zatitu eta azpimarratu zuen, latineko erroaren esanahia nabarmentzeko: *extra* (kanpora) eta *vagari* (alderrai ibiltzea).

365 Mistiko bakezale hindua (1488-1512).

sioa, espiritua, adimena eta Veden doktrina esoterikoa»,<sup>366</sup> baina munduko txoko honetan kezarako motibotzat jotzen da gizon baten idazlanek interpretazio bat baino gehiago egiteko bidea ematea. Ingalaterra eginahalak egiten dabil patatak ustel ez daitezzen, baina ez al da inor saiatuko garunen usteldura sendatzen, askoz gaitz zabalduagoa eta okerragoa izanik?

Ez dut uste iluntasuna erdietsi dudarik, baina harro sentituko nintzateke baldin eta, alderdi horren harira, nire orrialdeetan ez balute aurkituko Waldeneko izotzean aurkitutakoa baino akats handiagorik. Hegoaldeko bezeroei ez zitzaien gustatu lakuaren kolore urdina —purutasunaren seinalea—, lohia zelakoan, eta nahiago zuten Cambridgeko izotza, zeina zuria baita, baina belar-zaporea du. Gizonek maite duten purutasuna lurra biltzen duen behe-lainoaren tankerakoa da, eta ez, ordea, haraindiko eter zero-kolorekoaren modukoa.

Matraka galanta ematen digute batzuen batzuek esanez geu, amerikarrak, eta modernoak oro har, ipotx intelektualak garelako antzinakoen aldean, baita isabeldarrekin konparatuta ere. Baina zertarako balio du horrek? Zakur bizia hobea da lehoi hila baino.<sup>367</sup> Gizon batek bere burua urkatu behar ote du pigmeoen arrazakoa delako, pigmeorik handiena izaten saiatu ordez? Bakoitzak hel diezaiola bere eginbeharrari, eta saia dadila egin zuten modukoa izaten.

Zergatik ahalegintzen gara arrakasta izaten halako presa desesperatuarekin, eta halako egitasmo desesperatuei ekinez gainera? Gizon bat ez bada bere kideen erritmo berera mugitzen, baliteke bestelako danbor-hots baten arabera aritzea. Jarrai diezaiola aditzen duen musikari, neurritsuagoa eta urrunagoa izan arren. Ez du axola sagarrondoa edo haritza bezain bizkor heltzen bada. Uda bihurtu behar al du bere udaberria? Sortuak izan ginen horretarako baldintzarik ez badago oraindik, zer errealitatekin ordezkatu dugu? Ez genuke hondartu behar errealitate alferrikako batean. Kristal urdinezko zero bat eraiki behar ote genuke, ahalegin handiz, baldin eta, hura amaitzean, ziur jakingo bagenu

---

366 Joseph Héliodore Garcin de Tassy (1794-1878) Frantziako orientalistaren *Histoire de la littérature hindouï et hindoustani* laneko aipua.

367 Kohelet 9: 4 bertsetari erreferentzia: «Batek, bizirik dagoen bitartean, baduke itxaropen: hobe zakur bizia, lehoi hila baino».

han goian ikusiko dugula egiazko zero etereoa, lehenengoa ez dela benetakoa erakutsiz?

Kouroo hirian ba omen zen artista bat perfektioaren bila abiatzeko gertu zegoena. Egun batean, makulu bat egitea bururatu zitzaion. Kontuan harturik denborak moldatzen dituela lan ez-perfektuak, baina lan perfektuan, ordea, denborak ez duela eraginik batere, hau pentsatu omen zuen bere kautan: «Makulua perfektua izango da alderdi guztietatik, nire bizitzan beste ezer egitera iristen ez banaiz ere». Segituan, basora abiatu zen egur bila, material egokia erabiltzeko erabaki fermua harturik, eta makilak bilatu eta bata bestearen atzetik denak errefusatu eta gero, adiskideek abandonatu egin zuten apurka-apurka, beren lanen poderioz zahartu eta hil egin baitziren, baina gure artistari ez zitzaion zimur bakar bat atera. Bere xede eta tema paregabearen eta bere pietate gorenaren ondorioz, gaztetasun iraunkorra eskuratu zuen, berak jakin gabe. Ez zuenez konpromisorik hartu Denborarekin, bere bidetik aparte ibili zen Denbora; hasperen egiten zuen urrunean, ezin zuelako mendean hartu gizona. Artistak makila guztiz egoki bat topatu zuenerako, hondakin ohoragarri bilakatu zen Kouroo, eta hango hondarren gainean eseri zen makila zuritzera. Tankera egokia eman zionerako, bukatua zen Kandaharren dinastia,<sup>368</sup> makilaren puntarekin arraza horretako azkenaren izena idatzi zuen harean, eta lanari heldu zion ostera. Makulua leundu eta distirarazi zuenerako, Kalpak utzia zion Iparrizarra izateari, eta kirtena landu eta makulu osoa harribitxiz estali zuenerako, berriz, hainbat aldiz lokartu eta esnatu zen Brahma.<sup>369</sup> Baina zergatik aipatzen dizkizuet kontu hauek? Artistak azken ukitua eman zionean bere obrari, txunditurik geratu zen, ohartu baitzen makulu hura zela Brahmaren sorkaririk ederrena. Makulu bat sortzeko prozesuan, sistema berri bat eratu zuen, proportzio oso eta ederrekiko mundu bat, zeinean, hiri eta dinastia zaharrak desagertu arren, beste ederrago eta loriatsuago batzuek ordezkatu zituzten. Jabetu zen, halaber, txirbil freskoak ikusirik bere oinetan, denbora-tarte hura ilusio baten parekoa izan zela hala berarentzat nola bere lanarentzat, eta, lanean hasiz geroztik, ez zela igaro Brahmaren

---

368 Kandahar hiriri keinua. Afganistango hiriburua izan zen 1748tik 1773ra.

369 Brahmaren gau bakoitzeko 4,32 bilioi urte pasatzen dira gizakien bizitzan.



burmuineko bikaintasun-printza batek jaisteko eta garun hilkorrenenugarra pizteko behar duen denbora baino gehiago. Purua zen materiala, purua bere artea: nolatan ez zen emaitza miragarri bat sortuko?

Edozein modutara apaintzen dugularik ere gai bat, ezerk ez digu emango egiak adinako probetxurik. Egia da ondo zahar-tzen den bakarra. Gehienetan, ez gaude gauden tokian, posizio faltsu batean baizik. Gure izatearen poderioz, egoera halakoa edo holakoa dela uste izaten dugu, eta egoera horrexetan kokatzen gara; hala, bi egoeratan gaude aldi berean, eta bi aldiz zailagoa da handik ateratzea. Buruargitasun-uneetan, egitateei bakarrik erreparatzen diegu, izan baden egoerari. Esan ezazu esan behar duzuna, esan behar zenukeena esan ordez. Egia oro da hobea iruzurra baino. Tom Hyde perzkinari, urkamendian zegoelarik, ezer esan nahi al zuen galdetu zioten. «Esan jostune!», erantzun zuen, «ez daitezela ahaztu harian korapilo bat egiteaz lehen puntada eman aurretik». Urkamendiko bere kidearen otoi-tza aspaldi ahaztu zen.

Zure bizitza zekena izan arren, hel iezaiozu eta bizi ezazu, hari ihes egin eta izen zantarrak eman ordez. Ez da zeu bezain txarra. Zenbat eta aberatsagoa zaren, orduan eta itxura pobrea-goa izango du zure biziak. Paradisuan ere aurkituko du akatsik puntalakurloak. Maita ezazu zeure bizi bere pobrezian. Baliteke ordu atsegin, pozgarri eta loriazko batzuk izatea, baita etxe po-bre batean ere. Ilunabarra distira berberaz islatzen da hospizioiko leihoetan zein gizon aberatsaren etxean; elurra ez da lehenago urtzen bigarrenaren atarian. Ez dut uste hospizioan bizi den gizon lasai bat aseago biziko denik edo pentsamendu alaiagoak izango dituenik palazioan. Maiz iruditzen zait herriko pobreenek bizi dituztela bizitzarik independenteenak. Baliteke konfiantzaz jasotzeko adinako handitasuna izatea, sinpleki. Herriaren laguntzaz mantenduak izatearen gainera daudela uste dute gehienek, baina, sarritan, ez daude beren buruak baliabide doilorren bidez mantentzearen gainera, eta bigarren aukera horrek gaitzesgarriagoa izan behar luke lehenak baino. Landu pobrezia baratzeko belar bat balitz bezala, salbia balitz bezala. Ez zaitez askorik arduratu gauza berriekin, izan arropak zein lagunak. Eman buelta arropa zaharrei, bueltatu lagun zaharregana. Gauzak ez dira aldatzen, gu geu aldatzen gara. Saldu zure jantziak eta eutsi zure

pentsamenduei. Jainkoa arduratuko da ez dakizun konpainiarik falta. Ganbara-zoko batean konfinaturik pasa behar banu nire bizialdia, armiarmaren antzera, munduak lehen bezain zabala izaten jarraituko luke baldin eta aldean banitu nire pentsamenduak. Filosofoak esan zuen: «Atxilotu dezakezu hiru dibisioko armada bateko jenerala, eta tropak sakabanatzea eragin, baina gizonik zital eta oiesenaren kasuan ere ezin diozu pentsamendua atxilotu».<sup>370</sup> Ez zaitez saiatu zeure burua garatzen halako larriduraz, ez zaitez jarri hainbeste eraginen pean; norbere burua xahutzea da hori. Apaltasunak, iluntasunak nola, erakusten ditu zeruko argiak. Pobreziaren eta zikoizkeriaren itzalak biltzen dira gure ingurura, eta «hara non geure begien aurrean hedatzen den kreaioa».<sup>371</sup> Sarritan gogorarazten digutenez, Kreso-ren<sup>372</sup> aberastasuna emango balitzaigu, berdin iraun behar lukete gure xedeek, baita gure baliabideek ere. Bestalde, pobreak hertsatzen baditu zure aukerak, eta, esate baterako, ezin baduzu erosi ez libururik ez egunkaririk, esperientziarik esanguratsuenetara eta garrantzitsuenetara mugatuko zara, azukre eta indar gehien sortzen duen lehengaiekin jardutera beharturik. Hezurretik hurbilen dagoen bizitza da bizitzarik gozoena. Ez zara txikikerietan galduko. Ezein gizonek ez du, maila goragoko batean erakutsitako handitasuna dela kausa, behe-maila batean ezer galduko. Ondasun azalekoekin azalkeriak baino ezin daitezke erosi. Ez da dirurik behar arimak premiazko duena eskuratzeko.

Berunezko horma baten angeluan bizi naiz, zeinaren osaeran isuri baitzuten kanpaien metal-aleazioaren tanta bat. Sarritan, atsedean hartzen dudalarik eguerdian, hara non iristen zaidan belarrietara *tinnabulum* nahasi bat kanpotik. Nire garaikideen soinua da. Jaun-andre ospetsuekin izandako abenturei buruzkoak aletzen dizkidate nire auzokideek, azaltzen didate zer pertsonaia famaturekin suertatu ziren afaritan, baina halako kontuak ez zaizkit interesatzen *Daily Times* egunkariaren edukiak baino gehiago. Arropez eta manerez mintzatzen dira batik bat, baina antzara beti izango da antzara, soinean duen jantzia gorabehera. Hitz egiten didate Kaliforniaz eta Texasez, Ingalaterraz

370 Konfuzioren *Analektak* (9: 25) laneko aipua.

371 Jose Maria Blanco White (1775-1841) Espainiako poetaren «Gaua eta heriotza» sonetoko aipua, akats txiki batzuekin.

372 Lidiako erregea, VI. mendekoa; munduko gizonik aberatsena zela uste zen.

eta Indiez, Georgiako \*\*\* jaunaz<sup>373</sup> edo Massachusettseko beste hartaz,<sup>374</sup> fenomeno iragankor eta efimeroak denak ere, harik eta beren etxea inguratzen duen hesiaren gainetik jauzi egiteko bulkada pizten zaidan arte, *bei* mameluko haren antzera.<sup>375</sup> Gogoko dut neuk markatzea neure bidea, ez dut leku nabarmen batean desfilatu nahi ponperia handiarekin; aldiz, unibertsoaren Eraikitzailearen erritmora joan nahi dut, horretarako modua baldin badut bederen; ez dut bizi nahi XIX. mende ipurterre, urduri, zaratatsu eta huskeriazko honetan; haren gainean zutitu edo jesarri nahi dut, nire begien parean aurrera egiten duen bitartean. Zer ari dira gizonak ospatzen? Antolakuntza-batzorderen batean daude guztiak, eta norbaiten hitzaldia aditzeko zain daude orduro. Jardunaldiaren presidente hutsa da Jainkoa, eta Webster haren hizlaria. Indar eta arrazoirik handienaz erakartzen nauen hori pisatzea, ebaztea eta haren inguruan grabitatzea gogoko dut; ez dut eskalaren besotik zintzilik geratu nahi, gutxiago pisatzeko ahaleginean; ez dut egoera bati buruzko usterik izan nahi, egoera den moduan ezagutu baizik; ibil dezakedan bide bakarra ibili nahi dut, ezein boterek erresistentziarik erakutsi ezin diezadakeen bidea. Ez nau asetzen arku-tankerako ateburu bat eraikitzeak zutarri sendoak finkatu aurretik. Ez gaitezen jolastu izotz-geruza mehe baten gainean irrizatzerara. Toki guztiek dute hondo sendo bat. Irakurri dugunez, bidaiariak galdetu zion mutikoari han pareko zingirak ba ote zuen halakorik. Baietz erantzun zion mutilak. Baina hara non zingilaraino hondoratu zen bidaiariaren zaldia, eta gizonak bota zion mutikoari: «Esan didazu lokazti honek hondo irmoa zuela». «Halaxe da», erantzun zuen gazteak, «baina hara iristeko erdibidean zaude oraindik». Gauza bera gertatzen da gizarteko istinga eta harea mugikorrek, baina mutiko heldua izan behar da hori jakiteko. Kasualitate bitxi baten ondorioz pentsatzen, esaten edo egiten dena baino ez da ona izango. Ez naiz ohol eta igeltsu hutsean iltze bat ergelki sartuko duen horietakoa; halakorik egingo banu ez nuke begirik

373 Ziur aski, Robert Augustus Toombs (1810-1885), Georgiako kongresista izandakoa eta esklabotzaren defendatzaile sutsua.

374 Ziur aski, Daniel Webster (1782-1852), AEBko politikari ospetsua eta Whig alderdiko hizlari eta buruzagi nabarmenetako bat; lerro batzuk beherago aipatzen da berriro.

375 1811n, Mehemet Alik, Egiptoko erregeordeak, mamelukoak akabatzea agindu zuen, eta, kontakizun tradizionalen arabera, ofizial mameluko batek ihes egitea lortu omen zuen pareta baten gainetik jauzi eginez bere zaldiaren gainera.

batuko gauean. Emadazue mailu bat, eta neronek erabakiko dut kolpea non jo. Ez fidatu kareztadurarekin. Finka itzazue iltzeak halako leialtasunez non gaueko ordu txikitan iratzartzen zaretelarik harrotasunez pentsatuko baituzue zuen lanean; Musari dei egiteko lotsarik sentiarazten ez dituen lan-molde bat izan dadila. Modu horretan lagunduko dizue Jainkoak, modu horretan bakarrik. Iltze bakoitzak izan behar luke beste errematxe bat gehiago unibertsoaren makinarian, eta zeuk emango diozu segida lan horri.

Maitasuna, dirua edo fama gabe emadazue egia. Mahai batean eseri nintzen behinola zeinean erruz zerbitzatu baitzizkidaten janaria eta ardoa, manera ezin hobeeekin gainera, baina han ez zegoen ez bihotz-garbitasunik ez egirik,<sup>376</sup> eta goseak nengoela alde egin nuen oturuntza ezatsegin hartatik. Glaziarrak bezain hotza zen hango abegia. Pentsatu nuen ez zegoela jelaren beharrik jende hura izozteko. Ardoaren adinaz eta uztaren ospeaz jardun zitzaizkidan, baina nik buruan nerabilen beste ardo zaharrago, berriago eta puruago bat, uzta are ederrago baten fruitua; haiek ez zeukaten, eta ezin zuten erosi. Estiloak, etxeak, lursailak eta «harrerak» ez dute batere garrantzirik niretzat. Errege bat ikustera joan nintzen, baina atarian eduki ninduen zain, eta abegikorra izateko ahalmenik ez zuen gizon baten antzera aritu zen. Nire auzoko gizon bat zuhaitz huts batean bizi zen. Harenak bai errege-manerak. Hobe nukkeen hura ikustera joan banintz.

Zenbat denbora gehiago pasako dugu gure etxeko atarian jesaririk, edozein lan-moldek agerian utziko lituzketen bertute alferreko eta zaharminduak praktikatzan? Posible balitz bezala inork eguna egonarriz hastea eta gizon bat kontratatzea bere patata-soroa jorratzeko, eta, gero, arratsaldean, berariazko ontasunez praktikatzea kristau otzantasuna eta karitatea! Errepara diezaiogun Txinaren harrotasunari eta gizateriaren auto-konplazentzia gelduari. Leinu itzaltsu bateko azken katebegia delakoan arrandiatzen da belaunaldi hau, eta Bostonen, Londresen, Parisen zein Erroman, asetasunez mintzo da, aspaldiko garaiak gogora ekarri, artean, zientzian eta literaturan egindako

---

376 1 Korintoarrei 5: 8 bertsetari erreferentzia: «Ospa dezagun, beraz, Pazko-jaiak, baina ez legamia zaharreakin, bekatu eta gaiztakeriazko legamiarekin, legamia gabeko pazko-ogiekina baizik, hau da, bihotz-garbitasunez eta egiaz».

aurrerapenari buruz. Horra hor Elkarte Filosofikoen Aktak eta Gizon Handien Gorazarre publikoak! Horra hor Adam on-puska bere bertuteari so. «Bai, ekintza itzelak egin ditugu, eta kantu jainkozkoak kantatu, zeinak ez baitira inoiz hilko»; geuk oroitzen ditugun bitartean, alegia. Asiriako gizarte jantziak eta gizon handiak, non daude haiek? Filosofo eta esperimentalista gazteak gara, gero! Nire irakurleen artean, bakar batek ere ez du bizi izan giza bizitza osorik. Arrazaren bizitzako udaberri-hilabeteak dira hauek menturaz. Zazpi urteen hazteria pasa dugun arren, Concorden oraindik ez dugu ikusi hamazazpi urteen oti-izurritea. Bizi garen lur-globoaren mintza baizik ez dugu ezagutzen. Gehienak ez dira sei oineko sakonerara jaitsi, ez eta sei oineko altuerara altxatu ere. Ez dakigu non gauden. Gure denboraren erdia lozorroan igarotzen dugu, gainera. Eta, halere, jakintsu irizten diogu gure buruari, eta ordena bat ezarri dugu gainazalean. Egiaz, pentsalari sakonak gara, espiritu asmotsuak! Basoko zoruan, pinu-orrazten artean herrestan dabilen intsektuari begiratzen diodalarik —nigandik ezkutatze ahaleginean dihardu—, eta nire kautan galdetzen dudalarik zergatik darabiltzan halako pentsamendu apalak, zergatik ezkutatzen duen burua nik ez ikusteko moduan, nahiz eta bere ongilea izan nintekeen eta informazio-puska alai bat helaraz niezaiokeen bere arrazari, gogora datorkit ni naizen giza intsektuaren gainean kokatzen den Ongile eta Adimen nagusiagoa.

Berritasunen emari etengabe bat jasotzen du munduak, eta monotonia sinestezina onartzeko gai gara. Horren erakusgarri, herrialderik ilustratuenetan oraindik ere aditzen diren sermoiak. Bozkarioa, oinazea eta antzeko hitzak aipatzen dituzten arren, doinu sudurkariarekin abesturiko salmoen zama baizik ez dira; arrunkeria eta zekenkeria sinesten baitugu. Uste dugu arropak bakarrik alda ditzakegula. Esaten da Britainiar Inperioa handia eta errespetagarria dela, eta Estatu Batuak lehen mailako botere bat direla. Ez dugu sinesten gizon bakoitzaren baitan gordetzen dela itsasaldi bat, zeina gauza izango bailitzaiteke, gizonak ainguraleku bat eskainiko balio bere gogoan, Britainiar Inperioa ezpal baten gisara eroateko arrastaka. Beste hamazazpi urte betetzen direnean, nork daki zer klasetako oti-izurritea aterako den lurretik? Ni bizi naizen munduko gobernu

ez zen osatu, Britainia Handikoa bezala, afalosteko elkarriketa ardoz bustietan.

Gure baitako bizitza ibaiko uraren parekoa da. Baliteke gizonak inoiz ezagutu gabeko altuerara irstea aurtan ur horiek, eta goiko lur idorrek urpetzea; baliteke, are, hauxe izatea arratoi musketadun guztiak itoko diren urte gogoangarria. Bizi garen lurralde hau ez da lehorra izan beti. Zientziak uholdeen berri erregistratu aurreko garai antzinakoetako ur-bazterren aztarrenak ikusi izan ditut barnealdean. Guztiok entzun dugu Ingalaterra Berriko luze-zabalean hedatu den kontakizun hori, nola zomorro indartsu eta eder bat atera zen behin sagarrondo-egurrarekin egindako mahai zahar bateko xafla lehorretik: nekazari baten sukaldean egon omen zen mahaia hirurogei urtez, Connecticuten lehenik eta Massachusettsen ondoren, eta intsektua, berriz, askoz lehenago zuhaitz bizidunean erruniko arrautza batetik zetorren, eraztun-itxurako geruzak zenbatzean argi geratu zen moduan. Arrautza nola karraskatzen zuen entzun zuten hainbat astez etxeko biztanleek; teontzi baten beroari esker inkubatu zen beharbada. Hori entzunik, nori ez zaio indartzen berpizte eta hilezkortasunarekiko fedea? Nork daki zer-nolako bizitza eder eta hegoduna —zeinaren arrautza hainbat aroz egon baita lurperaturik egur-geruza kontzentriko pila baten azpian, gizartearen bizitza lehor hilean, zuhaitz berde bizidun baten zurgizenean jarria lehenik eta hilobi lehor baten itxura hartuta gerora, eta zeinaren karraska-soinua, beharbada, hainbat urtez adituko baitzuen gizonaren familia harrituak, jaieguneko oturuntzaren inguruan jesarririk— atera litekeen, espero gabe, gizarteko altzaririk arrunt eta higatuenaren barnetik, behingoz gozatzeko bere uda perfektuaz!

Ez diotsuet John edo Jonathan<sup>377</sup> gai direnik honetaz guztiaz jabetzeko, baina horixe da denboraren igaro hutsak urra ezin dezakeen goiza. Iluntasuna da guretzat gure begiak itsutzen di-tuen argia. Esna gauden eguna bakarrik urratzen da. Egun gehiago dago oraindik argitzeko. Eguzkia ez da goiz-izar bat baino.

---

377 John Bull eta Brother Jonathan, hau da, britainiarren eta estatubatuarren pertsonifikazioa.



